

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarteak argitaratu du obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA



Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK



Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA



Caja VITAL Kutxa



Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU



Deustuko Unibertsitatea



Plan de Fomento
de la Lectura



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE CULTURA

EICHMANN JERUSALEMEN

Itzultzailea: Koro Navarro

Hannah Arendt

EICHMANN JERUSALEMEN



Jatorrizko izenburua:

Eichmann in Jerusalem

A Report on the Banality of Evil

Euskaratzailea: *Koro Navarro*

Lehen argitalpena: 2008ko urtarrilean

© Hannah Arendt

© Itzulpenarena: *Koro Navarro*

© Klasikoak, 2007-XI-12

Begoñako Andra Mari, 16

48006 Bilbo

Tel.: 944 161 489

Fax: 944 166 348

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitarteko edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

ISBN: 84-96455-25-4

Lege gordailua: Bl.-41-08

Diseinua Azala: Área Gráfica

Roberto Turégano

San Lorenzo, 5. 28004 Madrid

Diseinua Maketa: LA Diseinua

Begoñako Andra Mari, 10. 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.

lbarsusi Bidea, 3. 48004 Bilbo

HITZAURREA

HANNAH ARENDTEN ESKUMIKUA

1966ko abenduan, Edmund Wilson estatubatuar idazle famatuak bere etxera gonbidatu zuen Isaiah Berlin, filosofo eta ideien historialari handia eta bere adiskidea. Wilsonen egunkariko pasarte batek bi gizonen arteko errietaldi bat aipatzen du. Berlinek «aurreiritzi bortitzak ditu jendearen kontra, batzuk burugabeak», zioen Wilsonek, «Hannah Arendten kontra esate baterako, haren Eichmanni buruzko liburua irakurri ez duen arren». *Yale Review* aldizkarian 1987an argitaratu zuen autobiografia batean, Berlinek gauza bera egozten zion Wilsongi, eta eztabaida xeheago agertu zuen 1991n Wilsonen egunkariaren argitaratzailearekin izan zuen solasaldi batean¹. Ez dakigu zertan bukatu zen errietaldia. Baina gauza bat badakigu: Hannah Arendten *Eichmann Jerusalem: Gaizkiaren hutsaltasunaren gaineko txosten bat* aurrenekoz kaleratu eta handik hiru urtera, bizi-bizi jarraitzen zuen artean ere Estatu Batuetako eta Europako intelektualen artean sorrarazi zuen gatazkak. New Yorken bere familian eta beste familietan zabaldu zen iskanbila deskribatuz, Anthony Graftonek idatzi zuen ez zela ezer izan Hannah Arendtek *The New Yorker* aldizkarian Eichmannen juizioaz idatzitako artikuluek eta handik eratorritako liburuak adina jendea txunditu eta hainbesteko ardura eta eztabaida larriak sorrarazi zuenik. Liburua argitaratu eta hiru urteren ondoren, jendeak zeharo bereizita jarraitzen zuen hura zela-eta. Ez daukagu gogoan halako grinak eragin dituen beste libururik. Ez zaio egiazko irtenbiderik eman

1. Lewis M. Dabney, argitaratzailea, eta Edmund Wilson, *The Sixties* (New York: Farrar Straus & Giroux, 1993), 560-562 or. Ikus halaber Seyla Benhabib, *The Reluctant Modernism of Hannah Arendt* (Thousand Oaks, CA: Sage Publications, 1996) eta «Arendt in Zion»: Arendti buruz Potsdamen egin zen nazioarteko bilkura batean aurkezturiko txostena, Idith Zertal, Tel Aviv-eko Unibertsitatea.

eztabaidari. Era horretako eztabaidak, askotan, isildu egiten dira, su txiki-txikian bezala geratzen, eta piztu egiten dira ostera ere. Ez da agian halabeharrez gertatu, hain gatazka handiak sorrarazi dituen Irakeko gerraren garaian, Arendten liburuek irakurle asko izatea, eta, Eichmanni buruzko liburutik bakarrik 300.000 ale inguru saldu badira ere, Penguinek orain argitalpen berri bat kaleratu du.

Eichmann Jerusalem honek irakurle eta interpretatzaile berriak erakartzen ditu oraindik Europan ere. Pentsa daiteke Israelen, luzaroan Holokaustoa antisemitismoaren lerro luze etengabe baten gailurra zelakoan ikusi baita han, faraoiengandik eta Nabukodonosorregandik Hitler eta Arafatenganaino —horixe nahi zuen David Ben-Gurionek, 1960ko ikuskarizko juizioaren arkitektoak—, gazte-jendeak gero eta interes handiagoa erakusten duelarik liburu honen ganean, bestelako ikusmolde bat nahi dutela bilatu. Hebreerazko itzulpen berri bat argitaratu da duela gutxi, oso harrera ona izan duena. Garai batean, israeldarrek Arendten liburua onartzeko zuten eragozpena beste eragozpen baten parekoa zen —Arendtek aspalditik iragarria—: palestinar bipilduen egoerari aurre egiteko eragozpen tamalgarria. Palestinarrek ez zuten Europako zibilizazioaren hondamendiaren erantzukizunik, baina azkenean harexengatik zigortu zituzten.

Europan, totalitarismo komunistaren porrotak berritu egin du Arendten lanarenganako interesa. Interes hori areagotu egin zuen, joan diren urteetan, Arendten gutun-truke ugariak, Karl Jaspers, Mary McCarthy, Hermann Broch, Kurt Blumenfeld, Martin Heidegger eta Heinrich Blücher senarrarekikoak². Adiskidetasunerako ahalmen bitxi bat ikusten da gutun horietan guztietan, intelektuala eta samurra aldi

2. Hannah Arendt eta Karl Jaspers, *Correspondence*, 1926-1969, Lotte Köhler-ek eta Hans Saner-ek argitaratua, Robert eta Rita Kimber-ek itzulia (New York: Harcourt Brace, 1992); Hannah Arendt eta Mary McCarthy, *Between Friends*, Carol Brightman-ek argitaratua (New York: Harcourt Brace, 1995); Hannah Arendt eta Kurt Blumenfeld, «*in keinem Besitz verwurzelt*»: *Die Korrespondenz*, Ingeborg Nordman-ek eta Iris Philling-ek argitaratua (Nordlingen: Rotbuch, 1995); Hannah Arendt eta Hermann Broch, *Briefwechsel 1946 bis 1951* (Frankfurt: Jüdischer Verlag, 1996); Hannah Arendt eta Heinrich Bücher, *Briefe 1936-1968*, Lotte Köhler (Munich: Piper, 1996); eta Hannah Arendt eta Martin Heidegger, *Letters: 1925-1975*, Ursula Ludz-ek argitaratua (New York: Harcourt, 2003).

berean. Arendten eta Blücherren arteko gutunak berebat dira senar-emazteen arteko solasaldi bizia, bizitza oso baten kontaketa, eta argi erakusten dute garai ilunetako babesleku segurua izan zela ezkontza bi iheslari esetsi haientzat. «Oraindik ere ezin sinetsizko gauza iruditzen zait nola lortu ditudan aldi berean maitasun handi bat eta neure buruarekiko identitate-sena», idazten zion Arendtek Blücherri 1937an, hogeigarren mendeko maitasun-gutun ohargarrienetako batean. «Eta bestea ere badudalako, horrexegatik lortu dut bata. Eta orain, azkenik, badakit zer den zoria».

Gutunek argi liluragarri bat ematen diote Arendten pentsamol-deari, eta *Eichmann Jerusalem* idaztean hark zuen zenbait sentimenduri. «Zu izan zara neuk onartu ez dudan gauza bat ulertu duzun irakurle bakarra», idatzi zion Mary McCarthyri, «alegia, euforiazko egoera bitxi batean idatzi nuela liburu hau». Arendtek Estatu Batuetara joan baino lehen idatzi zuen biografia bezala —*Rachel Varnhagen: The Life of a Jewish Woman*—, *Eichmann Jerusalem* ere oso lan pertsonala da, eta idazteak zama astun bat arintzen lagundu zion. Mary McCarthyri idatzi zion bezala, *cura posterior* bat izan zen, judu, sionista-ohi eta aleman-ohi gisa aspalditik abailduta zeukan oinaze bat sendatu ziona³.

Eichmann Jerusalem liburuaren tesi nagusia azpigituluan dago laburtua (ez oso egoki). Bitxia gertatzen da, eta batzuetan ezin sinetsizkoa, duela berrogei urte izandako eztabaida sutsu haiek orain irakurtzea. Estatu Batuetan polemika, partez, erru-sentimenduetatik zetorrela zioen Irving Howe-k bere memorietan, sentimendu sarkorrak baitziren, ezin bideratuzkoak, baina argitara oso nekez ateratzen zirenak. Eta horrexegatik, Howeren iritziz, gauza onak atera ziren Arendtekiko eztabaidatik.

*The New Yorker*en argitaratu zen liburuaren lehen bertsio haren estiloaren eta tonuaren aurka egin ziren salaketa batzuek bazuten zertan oinarritu, hala adibidez Leo Baeck-en deskribapenak, «Führer» judua bailitzan; beste batzuk, berriz, faltsuak ziren zeharo. Esate baterako, esan izan zen Arendtek Eichmann erruaz «asketsi» zuela, eta «juduak kondenatu». Halakorik ez zuen batere egin ordea. Era berean,

3. Ikus berebat Arendten biografia klasikoa, Elisabeth Young-Bruehl, *Hannah Arendt: For the Love of the World* (New Haven: Yale University Press, 1982).

ez zion epai-jardun osoari eraso egin, askotan esan izan den bezala; estatuko fiskalaren erretolika melodramatikoari eraso zion, ez besterik. Askok salatzen zutenaren kontra, Arendtek ez zuen inoiz auzitan jarri epaiketa Israelen eta israeldar epaileek egin izanaren legezketasuna. Eta, era berean, ez zituen biktimak beren hilkintzaren erantzule egin, «ez zutelako buru egiten asmatu», sarritan esan den bezala. Areago, eraso gogorra egin zion fiskalari, halako aldarri bihozgabea egitera ausartu zenean hura. Baina *Encyclopedia Judaica*raino ere heldu zen hala ere salaketa⁴. Kritikari batengandik beste batengana heltzen ziren inork egiaztatu ez bide zituen liburuaren ustezko aipamenak. Eztabaida ez zen inondik ere zirkulu akademikoetara mugatu, aldiz, gazte eta zaharrek, historialariek, filosofoek —Graftonen aitak adibidez—, kazetariak, zalaparta bizian jardun zuten denek, baita zenbait sinestetako apaizek, ateoek, administrazioako funtzionarioek eta propagandagile profesionalek ere. Eraso asko eta asko oso pertsonalak ziren. Arras serioak ziren, xehetasunez dokumentatuak, leialak eta txukun arrazoituak, argitaratu ziren kritika-lan anitz; beste batzuk, berriak, gaiztoak ziren, laido pertsonalez beteak, iradokizun pertsonal zitalak egiten zituzten eta harrigarri maila baxua zuten. Liburua orain, jakina, ez da duela berrogei urte bezain eztabaidagarria gertatzen, eta aditu-belaunaldi berri batek beste begirada batez, alderdikoikeria gutxiagoz, erreparatzen die Arendten historia juduaren, Israelen eta sionismoaren gaineko beste testuei ere.

Eichmann Jerusalem hobeto irakurtzen da orain, azken lan horien argitan. Haietako asko *Eichmann* baino askoz ere lehenago argitaratu ziren zenbait argitalpenetan (batzuk desagertuak dira gaur), besteak beste *Menorah Journal*, *Aufbau* New Yorkeko iheslarien alemanezko asterokoan, *Review of Politics*, *Jewish Frontier* eta *Jewish Social Studies* aldizkarietan⁵. Haiek denek uste sendo bat

4. «Arendt, Hannah (1906-)) sarrerek gezurretan dio *Eichmann Jerusalem*en, besteren artean, honako hau zioela Arendtek: «Biktimak partez hilkintzaren erantzuleak izan ziren, ez ziotelako etsaiari buru egin». Arendtek bere liburuan ez du inon halako adierazpenik egiten.

5. Lan sorta on bat, osoa ez den arren, aurki daiteke *The Jew as Pariah: Jewish Identity and Politics in the Modern Age* (New York: Grove Press, 1978; argitaratzailea, Ron H. Feldman) lanean. Arendtek 1942 eta 1966 bitartean idatzitako saiakerak dira. Berebat daude liburu honetan *Eichmann Jerusalem* argitaratu ondoren Arendtek bere argitaratzaileei bidalitako zenbait gutun eta Gershom Scholemekin liburuaren gainean izan zuen gutun-truke famatua.

adierazten dute (*Eichmannen*, gehienetan, jakintzat ematen dena), eta hori da, hemeretzigarren mendeko beste nazionalismo batzuek bezala, sionismoak ere gainditu duela jadanik hasierako aldia, eta, behin Arendtek esan zuen bezala, «gure denborotako hondakinen arteko mamu bizi bat» bihurtzeko arriskuan zegoela⁶. Hamar bat urte lehenago, Kurt Blumenfeld aleman buruzagi sionistaren jarraitzaile sutsua izan zen Arendt (Blumenfeld «asimilazioaren ondorengo sionismo» deritzanaren aita izan zen), zeina palestinarrekin hitzarmen bat egitearen aldekoa baitzen, lurraldea banatuz nahiz bi nazioek osatutako estatu laiko bat osatuz. *Eichmann Jerusalem* idazteko garaian, erabat etsita zegoen Arendt ideia horrekin, eta palestinarren eta israeldarren arteko gerra eta gatazka odoltsuzko urteak zetozela iragarri zuen. 1930etan, *Eichmann* liburuan ghettoke *Judenräteei* egin zien kritika aurreratu zuen, sionisten eta nazien arteko Ondasunen Transferentzia Ituna gaitzetsiz: haren bidez, aleman juduek beren aktibo izoztuen parte bat Palestinara eramane zezaketen, ikaragarri garesti, baina berebat agertu ziren mundu osoko juduek aleman ondasunei boikota egiteko saioaren kontra. Sionistek, Palestinarako emigrazioa baitzen haienezat lehen-leheneko gauza, urratze hori «premia dialektikoa» zelakoan zurrizten zuten.

Ordurako, Arendt pazientzia galdua zen zeharo *Weltanschauungen* kontuetan. Gero eta desilusionatuagoa zegoen Palestinako politika sionista ofizialarekin, ez baitzen iritsi arabiar biztanleriarekiko bizimodu baketsu bat antolatzerara, eta Israelen fundamentalismo erlijiosoa eta nazionalista zabalduko zirela iragarri zuen. Iragarpen haiek, garai hartan, Eichmannen juizioaren gaineko liburua bezain probokatiboak ematen zuten. Arendten argudioak aldi berean moralak eta pragmatikoak ziren, eta israeldarrek boterea eta/edo lurraldea palestinarrabiarrekin partekatu behar zutela azpimarratuz beti. Atzera begira, Arendten iragarpenak oso zuzenak gertatzen dira, eta gaurko irakurleek errazago onartuko dituzte haren saiakerak nahiz Eichmanni buruzko liburua, lanen berezko balioengatik.

Gauzak oso bestelakoak izan ziren, ordea, *Eichmann* aurrenekoak kaleratu zenean. Irakurle judu gehienak, eta baita bestelako asko ere, arrunt mindu ziren, iraindu zituztelakoan. Adiskideen arteko harre-

6. «Zionism Reconsidered», *Menorah Journal*, 23. alea, 2. zkia (urria-abendua, 1945), 172. or.

manak hautsi ziren liburua zela-eta. Liburua atera baino lehentxeago, B'nai Brith-eko Difamazioaren kontrako Ligak sionismoa edo Israel kritikatzeko antisemitismo modu bat zela onartzea lortu zuten israeldar diplomazialariek. Arendten liburuaren kontra argitaratu ziren eraso batzuk txundigarriak gertatzen dira, ageri duten suhertasun bridagabea dela-eta. Israelen erreakzioa nahasiagoa izan zen, eta kritikak mutua ematen zuen Estatu Batuetako erreakzioaren aldean. Han iraina ez zen hain agerikoa gertatzen, ematen baitzuen, lehen irakurketa batean, naziek okupatutako Europako buruzagi juduen kritikak zenbait klixé sionista berresten zituela, hots, «diasporako juduak» bildotsak bezala joan zirela otzan-otzan hiltegia.

Arendten zenbait kritikarik halako damu bat erakutsi dute, beren garai bateko suhertasuna zela-eta. Arendt hila zen aurreneko desenkusak aditu zirenean. Ez zen emakume estremismozalea, eta ez zen teoria orohartzaileekin fidatzen. Gaizki politikoaren nolakotasunaz zuen ikuspegiak harrera hobea izan dezake egunotan liburua aurrenekoz argitaratu zenean baino. Gaizkia egiteko, Arendten ikusmoldean, ez dira munstro barren-beltzak bakarrik behar, orobat behar dira —ondorio tamalgarriekin— pertsona ergelak eta txatxuak, batez ere, geure egunean ikusten ari garen bezala, agintari erlijiosok haien egintzak berresten badituzte. Arendt, erudizioaren eta arau akademikoaren bere ohiko fidagarritasun eskasarekin, intelektual pizgarria gertatzen da oraindik ere. Duela hogeita hamar edo berrogei urte, kritikoak sumindu eta gogaitu egiten zituen haren lanik hoberenetan ageri den gizarte-analisi, kazetaritza, gogoeta filosofiko, psikologia, aipamen literario eta pasadizoen nahasketak. Gaur egun, nahasketa hori berorri liluragarria eta erakargarria iruditzen zaigu.

2

The New Yorker aldizkariko berriemaile gisa joan zen Arendt Jerusalemara, 1961. urtean. Ideia ez zen *The New Yorker*ena izan, Arendtena berarena baizik. Juizioan egon egin behar zuela iruditzen zitzaion, bere buruari zor ziola, gizarte-kritikaria, lekualdatua, lekukoa eta bizitarakoa zenez gero. Eichmann bezalako harakin bat ikusi gabea zen, hala idatzi zion Rockefeller Fundazioari, eta «hura zen inondik ere izango zuen [aukera bakarra]». Juizio hartan egotea Arendtek bere iraganari zor zion betebeharrak bat zen, eta, halaxe esan zuen;

Eichmannen burua ulertu nahi zuen (bururik bazeukan), eta, juizioko lekukotasunen bitartez, «naziek Europako gizarte errespetagarrian eragin zuten kolapso moralaren ikuspegi osoa» aztertu.

Haren emaitza, aurreneko *The New Yorker*en eta gero, osaturik, liburuan agertu zen moduan, juizio baten txostena zen oroz gain; saio bat zen, aztertzen zuena zenbateraino lortu zuen auzitegiak, lege-liburuetan ezin aurki zezakeen delitu baten aurrean, zuzenbidearen eskakizunak asetzea. Liburuak filosofia eta egunean-egunean egindako oharak bateratzen ditu, eta, bere estilo erakargarriarengatik ez ezik, bere sarkasmo eta ironiarengatik ere, Karl Marxen *Napoleon III.aren Hemezortzigarren Brumarioa* gogorarazten du.

Liburua kaleratu ondorengo zalaparta Arendtek Eichmanni egin zion erretratuak eragin zuen oroz gain, gaizkile burokratiko arduratsu baina «hutsal» bat bailitzan. («Hutsaltasun» hitza, berez, liburuko azkeneko orrian baizik ez da agertzen, baina jakintzat ematen da liburu osoan). Auzitegian egon zen aurreneko egunean bertan, oso deigarria gertatu zitzaizkion Arendti Eichmannen erdipurdikotasuna eta moteltasuna. Aurreneko erreakzioa, Jaspers, McCarthy eta Blücherri idatzitako gutunetan adierazia, oso subjektiboa izan zen. Beldurgarria ere ez da, idatzi zuen (Arendtek *unheimlich* aleman hitz arrunta erabiltzen zuen, «arraro» gisa ere itzul daitekeena). «Mamu bat saltsa espiritista batean» horrelakoxea omen zen. Are gehiago, Eichmannek burutik beherakoa zeukan eta doministikuka ari zen balen aurkako beirazko kabinan.

Zorrotzagoa behar zuen izan. Hitlerrek berak ere egoera hartan ez zuen planta hoberik izango. Boterea galduta, tirano eta saileko hiltzaile gehienek patetikoak edo arruntak ematen dute, kaltegabeak, eta baita errukarriak ere, Saddam Husseinek bezala, bizar zaindugabe harekin bere ezkutalekutik atera zenean. Denoi gertatzen zaigu noiz edo noiz. Arendt, fisionomiazalea ez ezik, grafologiazalea ere bazen. Haren gazte-denboran oso zabaldua zegoen Alemanian fisionomiaren «zientzia», denborapasa intelektual baten moduan. (Arendten irakasle Martin Heideggerrek, Karl Jaspersen arabera, segituan uxatu omen zuen Jaspersen izumena Hitler bezalako gizon bat Alemaniako kantzalaria izan nahi zuela ikusi zuenean, «Begira iezaiozu eskuetara!» esanez). Juizioko egun batzuk igaro ondoren, nolana ere, Arendt, berariaz, kanpoko itxurak baztertzeko hasi zen. Eichmannen ateraldi

bat entzun ondoren, «[Eichmann] zinez ergela da» idatzi zion Jaspersi, «baina gero, nolabait ere, ez da ergela» (*Er ist eigentlich dumm aber auch irgendwie nicht*). Jerusalemetik bidaltzen zituen gutun pribatuak aztertuz, jarrai geniezaioke Arendten tesiaren aldaketa motelaren arrastoari. Avner Less israeldar polizia-kapitainak juizioaren aurretik Eichmanni egin zion galdeketa 3.000 orriko transkripzioa azertu zuen Arendtek, eta, aurrenekoz adierazi zuen moduan, Eichmann buru-akastuna edo zela heldu zen pixkana-pixkana pentsatzera⁷, eta berezitasun hark halako joera bat eman ziola heriotzaren burokrata aurpegigabea eta denbora guztietako gaizkile gaiztoenetako bat bihurtzeko; Eichmannen hutsaltasun moralala eta intelektuala, haren barneko hustasuna, azpimarratu zituen; ez bide zuen gezurra esan Lessi aitortu zionean ezingo zukeela sendagilea izan, odola ikusi ere ezin zuelako egin.

Arendten ondorioa izan zen Eichmannek auzitegian koherentziaz hitz egiteko zuen gaitasun falta hura pentsatzeko ezintasun batekin zegoela lotua, edo beste pertsona baten ikuspegitik pentsatzeko ezintasunarekin. Haren hustasuna, inondik ere, ergeltasunaren pareparekoa zen. Eichmannengan ez zegoen ez gorrotorik, ez eromenik, ez odol-egarri ezin asezkorik, horiek denak baino askoz gauza okerrago bat baizik, eta hura zen gaizki naziaren beraren nolakotasun aurpegigabea, gangster patologikoek gidatzen zuten eta biktimen giza nortasuna desegiteko xedea zuen sistema itxi baten baitan. Naziek legezko ordena azpikozgoratzea lortu zuten, gaizkia eta gaitza «zuzentasun» berri baten oinarria bihurtuz. Hirugarren Reichean, gaizkiak galdua zuen jende gehienak hura ezagutzeko baliatzen duen ezaugarri bereizlea. Naziek berriz definitu zuten, arau zibil gisa. Ohiko ontasuna tentazio hutsa bihurturik geratu zen, eta aleman gehienek laster ikasi zuten hari buru egiten. Alderantzizko mundu hartan, ez zuen ematen (agian Pol Pot lau hamarraldi geroago bezala) Eichmann gaizki egin izanaz konturatzen zenik. Oinarritzko moralitasunari zegokionez, azpimarratzen zuen Arendtek, sen zintzotzat hartu izan zena ez zen gehiago berezko gauza bailitzan hartzen.

7. Mary McCarthyk laster kargu hartu zion, alferrik, eta ez aurreneko aldiz, *Gedankenlosigkeit* hitzaren erabilerarengatik, ingelesez ez baitu esan nahi alemanez esan nahi duen gauza bera. Ingelesez, *thoughtlessness* («buruarinkeria») hitzak oroimen txarra edo ahaztea esan nahi du. «Pentsatzeko gaitasunik eza», proposatzen zuen McCarthyk, eta bestea baino hobea zen.

The Origins of Totalitarianism lanean, Arendt artean Kanten sustraizko gaizkiaren nozioari atxikitzen zitzaion, nazien agintepEAN lege moralaren oinarriak usteltzen, lege-kategoriak urratzen eta giza ePAIRik onartzen ez zuen gaizki hari. *Eichmann Jerusalem*, eta haren ondoren etorri ziren eztabaida latzetan, ontasunak baizik ez duela sakontasunik azpimarratzen zuen. Ontasuna sustraikoa izan daiteke; gaizkia ezin da inoiz sustraikoa izan, muturrekoa baizik ezin da izan, ez duelako ez sakontasunik ezta deabruzko neurririk ere, baina —eta honetantxe datza gaizkiaren izugarrikeria!— mundu osoa ustel dezake lurraren azalean onddo bat bezala zabalduz. Gaizkia pentsatzeko ezintasunetik dator. Pentsamendurik ez du onartzen, zeren, pentsamendua gaizkiari atxikitzen eta hura sorrarazten duten premisak eta hastapenak aztertzen hasi bezain laster, zapuztua geratzen baita, ez du-eta bertan ezer aurkitzen. Eta hori da gaizkiaren hutsaltasuna.

Eichmann gizon handinahia zen eta gora egin nahi zuen, baina ez zuen bere gainekoa hilko haren postua heredatzeko. Era berean, ez zuen berezko pentsamendu berezirik agertzen, eta «hutsaltasun» horrexek bultzatu zuen bere garaiko gaizkile handienetako bat izatera, Arendten arabera. Eta minduta zioen, Eichmann Holokaustoaren atzean zegoen egiazko arkitektoa, haren buru antolatzailea izateaz salatu zutelarik epaiketari, arrazoirik gabe haren ustez, buru-akastuna izatea ez zela behin ere aipatu edo eztabaidatu. Ez zen hura eztabaidatu, hasteko, oso auzi nahasia zelako. Baina berebat utzi zen hura aipatu gabe Eichmannen juizioa ikuskarizkoa zelako, Ben-Gurionek antolatua, partez behintzat arrazoi politikoengatik, Holokaustoa historiako pogrom antisemitarik handiena baizik izan ez zela erabat frogatzeko xedeaz.

Eichmannen ustezko hutsaltasun horrexegatik sortu zuen liburuak halako zalaparta. Jende gehienaren iritziz, delitu hura munstroek edo deabruak eginga zen. Zalapartaren beste arrazoi bat naziak izendatutako «judu-kontseilu» (*Judenräte*) izenekoei buruzko iruzkin labur bat izan zen. Nazien plangintzari igarri ezinik, beren hiriko juduen onerako ari zirelako alferreko itzaropenez, *Judenräte*etako gizon gailenak, oharkabea, administrazioaren ahalegin eta kostu gutxienarekin ahalik eta judu gehienak suntsitzeko erabaki naziaren tresna bihurtu ziren. Ez puntu bat, ez bestea, ez ziren berriak, jakina. Dostoievskik ez zion Arendten «gaizkiaren hutsaltasun» hari eslogan merke bat

bailtzan erreparatuko, Gershom Scholemek erreparatzen zion bezala, bihozgabekeriaz salatuz, Arendti idatzi zion gutun ireki batean. Karamazov bisitatzen duenean, gaizkia zer izango, eta kaiku zatar, ergel eta arrunt bat da. Arendten aurretik, beste batzuek ere azpimarratu zuten nolako desadostasuna zegoen Hitler edo Stalin bezalako munstroen erdipurdikotasun pertsonalaren eta haiek munduan zabaldu zuten gaitz izugarriaren artean. Gerraren ondorengo masa-hiltzaileen juizioetan —hiltzaile haietako batzuk sendagile eta farmazialari errespetagarriak ziren— egon ziren gehien-gehienak, hiltzaileek zure eta nire antza zutelako inpresio aztoragarriarekin atera ziren auzi-gelatik. Eichmann aztertu zuen israeldar auzitegiko psikiatrak gizon «normala» zela adierazi zuen, «normalagoa, inondik ere, ni bera aztertu ondoren naizena baino»; horrek esan nahi duena, normaltasuna eta ankerkeria mugagabea aldi berean gerta daitezkeela, gure usadiozko pentsamoldearen kontra-contrakoa da, eta horretantxe zetzan juizioaren egiazko enigma. Simone de Beauvoirrek ildo beretik esan zuen Pierre Laval frantses naziak, gerra ondoren epaitu zutenean, gizon arrunta eta garrantzirik gabea ematen zuela, gixon ahula eta irudimenik gabea.

Era berean, Arendten liburua kaleratu baino askoz ere lehenago, Israelen eta beste toki askotan nazien plangintzan gaizkideak izatea egotzi zieten *Judenräteei*. Liburua argitaratu baino sei urte lehenago, Jerusalemeko Barrutiko Auzitegian izan zen libelo-kasu zalapartatsu batean, askoz ere modu kritikoagoan mintzatu zen epaile nagusia *Judenrätteez* eta juduen naziak elkarlanaz Arendt pasarte labur horretan mintzatu zena baino. Eta antzeko salaketak egin ziren, urteetan, zenbait liburu famatutan: Jean-François Steiner-en *Treblinkan*, Tadeusz Borowski-ren *This Way for the Gas, Ladies and Gentlemen*, eta, jakina, Arendtek behin eta berriz aipatzen duen Raul Hilbergen *The Destruction of the European Jews* handian.

Arendten kontaketa berria eta bereziki probokatiboa zena zen behin eta berriz jartzen zuela auzitan juduen talde-gidaritza. Zer egin zezaketen bestelakorik? Arendten erantzunak, erresalbuz eskainiak, haren iritzian egia politikari betetzen duen funtzioaren ondoriozkoak dira. Egia esan behar ote zieten *Judenrättee* juduei, egia zekitenean; nora deportatu behar zituzten esan behar zieten? Eta zenbatek lortuko zuten salbatzea, egia jakinez gero? Zergatik ziren *Judenrättee*etako gizon gailenak agintarien aurrean hain ongi heziak eta hain apalak?

Komunitateko buruzagi batzuek ederki zekiten deportatuak zuzen-zuzenean Auschwitzera zihoazela (eta ez ekialdera, birkokatze-eremuren batera, naziek zioten bezala). Matxinatzea, jakina, ezin pentsatzeko gauza zen egoera hartan. Aginte morala zutenez gero, zergatik ez zituzten juduak ihes egitera edo ezkutatzera aholkatu? Judu-erakunderik batere eta *Judenräterik* izan ez balitz, iradokitzen zuen Arendtek, deportazioaren makina ez zen ibili zen bezain leun ibiliko. Naziek milioika lagun banaka-banaka beren etxeetatik atera behar izango zituzten. Eta, modu horretan, ez ote zen judu gehiago salbatuko?

Judenräteak hain «germanikoki» diziplinatuak izan ez balira, ez balituzte balizko deportatuen zerrenda xeheak osatu, ez balituzte giltzak jaso eta pisu hutsen zerrenda zehatzak egin, naziek «ariarrei» emateko gero, deportatuak elkartzeko deia egin ez balute halako egunetan, halako lekutan, halako tren-geltokitan, hiru-lau eguneko bidaia baterako hornigaiak hartuta, jende gutxiago hilko ote zen? Arendtek baino lehenago beste batzuek ere horrelako galderak egin zituzten. «Egia osoa zen ezen, baldin juduek antolamendurik izan ez balute, ezta agintaririk ere, kaosa sortuko zela eta hondamena ikaragarria izango zela, baina biktimen kopuru osoa nekez izango zen lau eta erdi eta sei milioi bitartekoa», idatzi zuen.

Argi dago zergatik hartu zuten esaldi hori askok eta askok bihozgabetzat eta ikaragarritzat. Gauza jakina zen juduek buruzagiak, gizon gailenak eta erakunde lokalak eta nazionalak zeuzkatela. Denbora batean jendea erruz aritua zen haietan lanean, lan mesedegarria egiten; jendea erruz aritua zen eginahalean sufrimendua arindu nahian. Haietatik, batzuen batzuek besterik ez zuten ulertu zenbaterainokoak ziren nazien genozidio-planak. Zer esango ote zuen Arendtek buruzagi haiez atzerrira ihes egin izan balute, askok izan zuten-eta alde egiteko aukera, eta abandonaturik utzi balituzte beren ardurapean zeuzkaten juduak? Horren txundigarria izango ote zen Arendtek esana, baldin atzean geratzen ziren buruzagiei sortzen zitzaien dilema beltzaren ulerpen handiagoa erakutsi izan balu? Hain ikaragarria gertatuko al zen Arendten ikusmoldea haien jokamoldea auzitan jarri izan balu, destainaz eraso egin beharrean? Onartu zuen jende setiatuak baduela joera bat, denbora irabaziz gero, etsi-etsian gauzak hobeto joango direlako itxaropena izateko. Ez al zituen irakurleak gutxiago

asaldatuko zalantza adierazi balu, eraso egin beharrean? Ez al zituen gutxiago asaldatuko argi esan izan balu buruzagi juduek «oharkabeen» esku hartu zutela beren suntsiketari? Horixe zen inondik ere Arendtek esan nahi izan zuena.

3.

Walter Laqueur-ek eztabaidaren hasieran idatzi zuen Arendti gutxiago aurpegiratzen zitzaiola zer esaten zuen, nola esaten zuen baino. Ezin barkatuzko arinkeriaz ari zen Arendt Leo Baeck, esate baterako, errabino-ohi errespetatua, Berlingo *Judenräte*ko burua izan zena, «Führer judua» zela zionean (esaldi hau ezabatu egin zuen liburuaren bigarren argitalpenean). Arendten estiloa, inoiz, harroxkoa eta petrala da, irakasle batena, eta larderiatsua haren tonua. Paradoxa gustatzen zitzaion, eta haren sarkasmoak eta ironiak lekuz kanpokoak ematen zuten Holokaustoari buruzko eztabaida batean. Horren adibide argia da Eichmann judu-auziaren soluzio sionistaren aldeko bihurtu zelako ideia, ageriki ironikoa. Baina leku askotan gaizki ulertu eta gaizki interpretatu zen.

Haren sarkasmoak frankotan kontrako eragina izaten zuen. Elisabeth Young-Bruehl-ek, Arendten biografoak, zuhurki idatzi du Arendtek egiazko auzi morala planteatu zuela, baina alferreko ironiaz ilundu zuela; baita lotsagabeki ere, ausaz. Askotxotan esaten du berea bakarrik dela «objektibotasuna» eta behin eta berriz dio berea egia dela, ez egia hutsa, baizik eta, «egia osoa»; hala adibidez, «egia osoa zen»; «egia osoa da». Berak besteek baino hobeto «ulertzen» omen zuen Eichmann, eta aholkuak gogotik eskaintzen zizkien fiskalari nahiz defentsaren abokatuari (biak mespretxatzen zituen), eta hiru epaileei; epaileak berriz miretsi egiten zituen. Eichmannen epaileak dira —hirurak Weimarreko Alemaniako emigranteak— liburuan ondoena ateratzen diren pertsonak.

Orain badakigu, beraren gutun pribatuengatik, Jerusalemara joan zenean aurreiritzi asko zuela Arendtek Israelez, bertako politika-sistemaz, gobernuaz eta arabiarrenganako israeldar politikaz. Izutua geratu zen Ben-Gurionek juizioa bere asmoetarako erabili nahi zuela ikusi zuenean, emigratzaile bihozgabetu, heldu berriek osaturiko masa batengan batasun nazionalaren sena sortzeko lanabes baten

moduan. Bestalde, behin-behineko frogetan oinarrituta, erabateko ondorioetara iristeko joera zuen Arendtek. Israeldar poliziek, idazten dio Jaspersi, «hozkia ematen didate, hebreeraz baizik ez dira mintzatzen, eta arabiarrek ematen dute. Batzuk ezin basatiagoak dira. Edozein aginduri obedituko liokete». Arendtek iritzi hori baldin bazuen, ez da harritzekoa berebat uste izatea Alemaniako gobernua ordain-diru gehiago ematera behartzeko antolatu zuela bakar-bakarrik Ben-Gurionek juizioa. Seguru zegoen Ben-Gurion ezkutuko akordio bat egina zela Adenauerrekin, Hans Globke ezagunaren izena ez zedin juizioan atera. Globke Adenauerren gobernuko goi-mailako funtzionarioa izan zen, eta hark formulatu zuen nazien garaian Nurenbergeko arraza-legeen gaineko lege-iruzkin ofiziala. Alabaina, Globkeren izena behin eta berriz aipatu zen juizioan.

Auzitegitik kanpo, Arendtek mespretxatu egiten zuen «sortaldeko jendaila», Istanbulen edo beste herri erdi asiarrak batean balego bezala. Izututa geratu zen «judu ile-kizkurdun kaftandunekin —Ekialdeko Europako judu ortodoxoak—, bizitza ezinezkoa egiten baitiote hemengo zentzuzko jende guztiari». Israeldar zentzuzkoak, Arendten begietan, *yekkeak* ziren, Alemania eta Austriako emigratzaile aleman-eledunak, haien artean Arendten beraren Friburgoko ahaideak eta aspaldiko adiskideak, Heidelbergekoak eta Berlingoak. Suerte handia izan zen, esan zion Jaspersi, Eichmannen hiru epaileak aleman jatorrikoak izatea, hain zuzen ere «aleman juduen arteko hoberenak». Jaspersek ildo beretik erantzun zion: «Hiru aleman juduek lortuko ahal dute kontrola».

Itxuragabeki erreakzionatu zuen Gideon Hausner fiskal nagusiaren abertzaletasun eskasaren aurrean, Ben-Gurionen judu-historiaren ikusmolde deterministaren alde erabili baitzuen hark epaiketa. Hona nola deskribatu zuen Arendtek Hausner Jaspersi bidalitako gutun batean: «Galitziako judu tipikoa, oso zakarra, aspergarria, behin eta berriz errakuntzak egiten dituen. Segur aski, hizkuntzarik batere ez dakiten pertsona horietako bat». Zer ez ote zuen geroago esango, Golda Meir-en eta Menachem Begin-en gobernuen pean Holokaustoa erlijio zibil berri bat bihurtzeraino mistifikatu zenean, eta, aldi berean, Israel lur okupatuetatik ez ateratzea justifikatzeko baliatu zenean. Bazuen arrazoirik Israel balio moral jakin baten aldarri sobera nazionalista eta lasterrarengatik kritikatzeko zuenean. Baina kritika gogorregia egin zuen.

Urte batzuk igarota, Arendtek onartu zuen berak esandako batzuk okerrekoak edo gehiegizkoak izan zirela. Denetan okerreana, liburuaren azaleko fama oneko edo txarreko azp titulua zen. «Gaizkiaren hutsaltasuna» esapidea hiztegieta eta esapide ezagunen liburueta sartu zen. Atzera begira, damutu egin zen esaldi hura erabili izanaz. Zelata batera eraman zuen. 1971n telebista ko kazetari bati esan zion liburu a orduan idatzi izan balu ez zituela hitz haiek erabiliko. Hura esan zuenerako, isildua zen zalapartarik handiena. Baina hiltzaileak desenkusatzear eta hilen memoria laidoztatzear akusatzen zuten artean ere.

Judenräteei buruzko iruzkinek, 312 orritatik, dozena bat besterik ez zuten hartzen. Ez ziren inondik ere funtsezkoak liburu ko argudio-bide nagusiari zegokionez. Raul Hilbergen liburu a irakurri ondorengo gogoeta baten moduan erantsi zituela-edo ematen du. Mindu egiten zen Hausnerrek zenbait lekukori egindako errietaldi gaiztoekin, galdetzen zienean: «Zergatik ez zinen errebelatu?» *Judenräteen* eginkizun tragikoa ia aipatu ere ez zen juizioan egin, eta are gutxiago aipatu zuen fiskalak. Hori zela-eta, Arendtek susmo txarra hartu zuen. Haren desadostasuna ez zen judu erailekikoa, buruzagi batzuekikoa eta israeldar fiskalarekikoa baizik, fiskala haiek estaltzen ari zelako irudipena baitzuen. Irudipen hura zuzena gertatuko zen. Ikuskarizko juizio haren helburua ez zen izan Eichmann zigortzea edo *Judenräteak* aztertzea. Juizioa egin eta bi hamarraldi geroago, Gabriel Bach-ek, fiskalaren laguntzaileak (geroago Auzitegi Goreneko epailea izango zen), kazetari bati kontatu zion nola, lekuko haiek guztiek auzi-gelan agertu eta *Judenräteei* buruzko istorioak kontatu balituzte, «inor ez zen Eichmannez gogoratuko!»

Hasieran, Arendtek ezin zuen ulertu *Judenräteei* buruz esan zituenek sortu zuten iskanbila. Gero, atsedeten utzi ez zitzaion iragan bat plazaratu zuela oharkabea erabaki zuen, eta obsesio moduko bat sortu zitzaion, *Judenräteetako* kide-ohi gailenak goi-mailako postuetan zeudela orain Israeleko gobernuan sinetsarazita bere buruari. Baina aipatu ahal izan zuen bakarra behe-mailako prentsa-funtzionario bat izan zen, Israeleko bigarren mailako ministerio batean zegoena.

Estatu Batuetako prentsako artikuluen tonuak Arendten susmo txarrenak berresten zituela ematen zuen. *The New York Times* ek israeldar fiskal nagusiaren lankide bat (!) hartu zuen liburuaren

iruzkina egiteko. *Partisan Review* ezkertiarrean —urteetan Arendt goretsi eta haren lanak argitaratzen zituen egunkaria— Lionel Abelek idatzi zuen Arendtek Eichmann «estetikoki atsegina egin zuela, eta haren biktimak, berriz, estetikoki higuingarriak». Eichmann, hala zioen Abelek, hobeto ateratzen zen Arendten liburuan haren biktimak baino.

B'nai Brith-eko Difamazioaren kontrako Ligak mezu bat zabaldu zuen, Estatu Batuetako errabino guztiak jai judu handietan Arendt pulpitutik salatzerantz hertsatuz. Antzeko neurriak hartuko ziren gero Rolf Hochhuth-en kontra, naziak errugabetu eta errua aita santuari leporatzeagatik. Hochhuth-ek, jakina, ez zuen halakorik batere egin. Era berean, Arendtek ez zuen Eichmannen erru ikaragarria gutxietsi, eta heriotza ondo merezia zuela iruditzen zitzaion. *Judenräteek* erraztu egin zuten nazien lana, baina juduak naziek bakarrik akabatu zituzten.

Eskandalua neurrigabea izatera heldu zen. Saul Bellow-k larrutu egin zuen Arendt *Mr. Sammler's Planet* liburuan, Holokaustoaren historia tragikoa Weimarreko intelektualen ideia zoroak zabaltzeko erabiltzeagatik. Hutsaltasuna kontzientzia desagerrarazteko arras borondate indartsu baten mozorroa da.

Estatu Batuetan, kanpaina zabal bat antolatu zen mundu akademikoan Arendti izen ona kentzeko. Neurritz kanpoko aldea egon zen erreakzioaren basakeriaren eta haren hurbileko eragilearen artean. Zenbait aditu —Israeleetik eta Ingalaterratik etorriak batzuk— Estatu Batuetan barna ibili ziren, «bere burua gorrotatzen zuen judu», «Ezerezaren Rosa Luxemburg» gisa deskribatuz Arendt. Lau judu-erakundek adituak kontratatatu zituzten, liburua lerroz lerro aztertu, hutsak aurkitu eta Arendten izen ona galarazteko; huts gehienak bigarren mailakoak gertatu ziren: okerreko datak eta gaizki idatzitako izenak ziren. Hona *Intermountain Jewish News* aldizkarian agertu zen kritika baten titulua: «Bere burua gorrotatzen duen judu batek Eichmannen aldeko liburu bat idazten du». Beste artikulugile batzuek, berriz, Eichmannen juizioa «ikuskarizko juizioa» zela esan zuelako kritikatu zuten. Baina Ben-Gurionen asmoek, hasieratik bertatik, Eichmann bahitu eta Israelera eramateko agindu zuenetik, eta gero jendaurrean egin zituen adierazpenengatik, sinesgarritasuna eman zioten hura ikuskarizko juizioa zelako ikuspegiari. Ben-Gurionen

hitzetan, «gazteak [eta mundu osoa] hezteak» zen epaiketa haren helburua; eta judu-herriari ahots bat ematea, esesleen balioespen historikoa egin zezan. Frantzian, *Nouvel Observateur*ek liburuko zati hautatuak argitaratu zituen, *Est-elle nazie?* («Arendt nazia da?») galdetuz.

Israelen, Arendtek *Judenräte*en gainean egindako iruzkinetikiko erreakzioa ez zen izan oro har Estatu Batuetan bezain gogorra. Israeleko prentsan, aurreneko kritikak begirunezkoak ziren. *Ha'aretz* egunkari errespetagarriak liburuko zati luzeak argitaratu zituen, testuinguru oro har aldeko batean. Eta ez da harritzekoa. *Judenräte*ei kargu hartuz, Arendtek gehiago ematen zuen garai batean izan zen tankera zaharreko sionista. Sionismoa, azken finean, juduen autokritikazko mugimendu bat izan zen.

Hilabete batzuk geroago, Shlomo Grodzensky literatura-kritikariak, Estatu Batuetatik emigratu berria zenak, Arendten kontrako aurreneko erasoak egin zuen, *Davar* egunkari erdi ofizialean. Hasteko, Arendtek bere txostena *The New Yorker* aldizkarian argitaratu nahi izana kritikatzeko, Tiffanyko bitxiak eta larruzko beroki dotoreen iragarkien artean. Grodzenskyk, hitz erdika, adierazten zuen Arendtek irabazi materialen truke argitaratu zuela testua aldizkari hartan. «Arendt andrearen tankerako juduengan dagoen elementu galgarria» gaitzesten zuen; «bere pozoiaz elikatzen den pozoia da, berarekin leku orotara doana, baita Auschwitzera eta Jerusalemara ere». Israeldar argitaldarien ez zuten liburuen itzulpenik kaleratu; aitzitik, 1965ean —oso azkar, beraz— liburu baten neurriko *Eichmann*en kritika iraingarri bat argitaratu zen, Estatu Batuetako liburu baten itzulpena. *Eichmann Jerusalem* liburuen (eta Arendten beste liburuen) aurreneko itzulpena ez zen 1999 arte atera.

Gershom Scholemek, oso gogor, sotiltasun eta bihotzberatasun falta (*Herzenstakt*) egozten zizkion Arendti, bereziki Leo Baeck-i eta *Judenrätet*eko beste kideei buruzko aipamenetan, *Encounter* aldizkariara bidalitako gutun ireki batean. Gaurko irakurle asko bat etorriko da horretan Scholemekin. Baina zalantza egiten dut berebat jarraituko dioten Scholemi Arendti esaten diotenean «Ahavat Israel» (Israelen maitasun) gehiago behar duela erakutsi, hots, abertzaletasun, emozio-inplikazio handiagoa. Horixe uste zuen hain zuzen ere Arendtek behar zuela saihestu. Eta hala ere, Scholemek Arendti bidalitako gutun

irekian ondo ikusten da zeinen anbibalentea, zeinen partziala zen hura *Judenräteen* gai labainean. «Juduek, bere burua defendatzeko urratsak ez zituztela lehenago egin, koldarrak zirelako eta abar, beren patua merezi zutela esaten dutenak, horiek ezin ditut nik gezurtatu», idazten du Scholemek. «Duela denbora gutxi heldu naiz argudio horretara, Kurt Tucholsky judu antisemita zintzoaren liburu batean. Ezin uka nezake [Tucholsky] zuzen zegoela». Arendt ez bezala, Scholem ez zen inor epaitzera ausartu. «Ni ez nengoen han», idatzi zuen. Jarrera jakin bat hartzeari uko egiteak historiografiaren eta jurisprudentziaren oinarriak berak zulatzen dituela erantzun zion Arendtek eragozpen horri.

Horren erreakzio gogorra izango ote zuen Scholemek Arendtek buruzagi juduek zuten larritasunaren ulerpen handiagoa erakutsi izan balu? Idatzi izan balu, konparazio baterako, «Leo Baeck, bere itsutasunean edo tolesgabetasunean» edo antzeko zerbait? Baliteke hark ere bere irizpide propioak izatea.

Pentsatzea, epaitzea eta jardutea, estu-estu lotuak zeuden hirurak bai liburu honetan, bai Hannah Arendten beste liburu batzuetan. Baldin zeure buruari esaten badiozu «Zein naiz ni epaitzeko?», galdua zaude, hori zen Arendten jarrera, eta bizitza osoan eraman behar izan zuen bere liburuak sorrarazitako eztabaidaren aztarrena. Nahiz eta urte asko igaro den hil zenetik, Arendt eztabaidagai da oraindik ere. Duela urte batzuk ikusi zen hori argi, liburu sensazionalista bat argitaratu zenean Martin Heideggerrekin gaztetan izan zuen maitasun-kontu tolesgabeaz. Irakasle nazi helduak, bi ume zituen gizon ezkonduak, sexualki betiko harrapatu zuen neska txoro bat deskribatzen zuen egileak, bere burua gorrotatzen zuen judu bat. Liburuak Hannah Arendtek Heideggerrekin izan zuen harreman luze eta konplexuaren bertsio gordin bat ematen zuen; eta, hala ere, kritikari batzuek biziki gozatu bide zuten liburuaren kontaketa sinplistarekin.

Tony Judt-ek orain urte batzuk *The New York Review of Books*en idatzi zuen bezala⁸, Arendtek huts txikiak erruz egin zituen, kritikariek behin ere barkatuko ez dizkietenak. Baina zuzen esan zituen garrantzi handiko gauza asko, eta horregatik merezi du gogoratzea. Ironikoa eta dibertigarria irudituko zitzaion beraren lanak osteria ere piztu duen interesa. Hil ondoko fama dela famaren modurik tristeena

8. *The New York Review*, apirilak 6, 1995.

esan zuen behin. *Eichmann Jerusalem*en gaineko eskandalua bere gorenean zela, honako hau idatzi zion Jaspersek kontsolatu nahian: Arendt ikusteko biziko ez bada ere, etorriko da denbora bat, idatzi zuen, juduek Israelen monumentu bat eraikiko diotena, une hartantxe Spinozaren monumentua eraikitzen ari ziren bezala⁹. Oraindik ez da gertatu. Baina horretara iristen ari bide gara.

Amos Elon

9. Jaspersek Arendti, urriak 25, 1963.

Irakurlearentzako oharra:

Honako hau aurrenekoz 1963ko maiatzean agertu zen liburuaren edizio berrikusia eta zabaldua da. 1961ean Eichmannen Jerusalemeko epaiketaren berri eman nuen *The New Yorker* aldizkarian, eta aldizkari hartantxe, laburxeago, argitaratu zen lehendabizikoz kontakizun hau, 1963ko otsailean eta martxoan. Liburua 1962ko udan eta udazkenean idatzi nuen, eta urte horretako azaroan bukatu nuen, Wesley Unibertsitateko Goi Mailako Ikasketetako Zentroan irakasle gisa egin nuen egonaldian.

Argitalpen honetarako egin diren zuzenketak dozena bat akats teknikori dagozkie, eta ez diete batere eragiten jatorrizko testuaren analisiari edo arrazoibideei. Hemen aztertzen den aldiaren kontaketa objektiboa ez da oraindik bere xehetasun guzti-guztiekin osatu, eta zenbait gairi buruz nekez lortuko da egiazki gertatu zirenetan ondo oinarrituriko aieru bat baino informazio fidagarriagorik. Hala, Azken Soluzioaren biktima izandako juduen kopurua lau eta erdi eta sei bat milioi bitartekoa dela esaten da, baina kalkulu hori gutxi gorabehera egina da eta ez da egiaztatu, eta gauza bera gertatzen da herrialde bakoitzean hildako juduen kopuruei dagokienez. Liburu hau argitaratu ondoren material berria plazaratu da, Holandan gehienbat, baina material horrek ez ditu gertakariak beren osotasunean aldatzen.

Bertsio honetan erantsi diren datu berri gehienak ere teknikoak dira, eta puntu jakinak argitzen, gertaera berriak agertzen, edo, zenbaitetan, iturri desberdinetako aipamenak egiten dituzte. Iturri berri hauek bibliografian erantsi eta postscript berrian komentatzen dira; postscript horretan, hain zuzen ere, lehen argitalpenaren ondoren izan ziren eztabaidak agertzen dira. Eranskin ez-tekniko bakarra, postscriptaz gainera, 1944ko uztailaren 20ko Hitlerren kontrako alemaniar konspirazioari buruzkoa da, bidenabar baizik ez bainuen hura aipatu

jatorrizko bertsioan. Liburuaren beraren edukia, osotasun gisa, ez da batere aldatu.

Eskerrak eman behar dizkiet Richard eta Clara Winston-i argitalpen honetako epilogoaren testua prestatzen eman didaten laguntzagatik.

HANNAH ARENDT

1964, ekaina

EICHMANN JERUSALEMEN

*Oi Alemania,
Zure etxetik heltzen diren hitzak entzunda
barrez hasten gara.
Ikusten zaituenak, ordea, labanari helduko dio.*

Bertolt Brecht

I: ZUZENBIDEAREN ETXEA

Beth Hamishpath: Zuzenbidearen etxea: auzitegiko uxerrak garrasi bizian esandako hitz horiek jauzi batez zutiarazi gaituzte, badatozela hiru epaileak iragartzen baitute, eta haiek, hain zuzen ere, une horretantxe ari dira alboko ate batetik auzitegi-aretoan sartzen, buru-has, jantzi beltzak soinean, oholtzaren gaineko aulkietan esertzeko. Ezin konta ahala liburuk eta mila eta bostehun dokumentuk baino gehiagok estaliko dute berehala haien mahai luzea; mahaiaren bi muturretan auzitegiko estenografoak daude. Epaileen azpi-azpian itzultzaileak esertzen dira, haien zerbitzuak beharrezkoak baitira akusatuaren edo haren abokatuaren eta auzitegiaren arteko solasaldi zuzenak itzultzeko; gainerakoan, akusatuak, aleman-hiztuna izanik, aldibereko irrati-itzulpenaren bitartez jarraituko ditu hebreerazko mintzaldiak, aretoko pertsona gehien-gehienek bezala; frantsesezko itzulpenak bikainak dira, onartzeko modukoak ingelesezkoak, eta maiz komedia hutsa, ezin ulertuzkoa, alemanezkoak. (Kontuan izanik, alderdikierarik gerta ez dadin, juiziorako prestakuntza tekniko guztiekin izan den arretoa, Israeleko Estatu berriaren misterio txiki bat da, nolaz, hain handia izanik bertan jaiotzez alemanak diren pertsonen ehunekoa, ezin izan duen bilatu akusatuak eta haren abokatuak ulertzen zuten hizkuntza bakarrerako itzultzaile egoki bat. Izan ere, aleman juduen aurkako aurreiritzi zaharrak, garai batean Israelen oso zabaldua egon arren, gaur egun jadanik ez da itzulpenaren hutsegite hori agertzeko bezain indartsua. «P bitamina» geratzen da azalpen gisa, aurreiritzi hori baino are zaharragoa dena eta oraindik ere indar betean dagoena, hala deitzen baitiote israeldarrek administrazioa eta gobernua babesten dituen burokraziari). Itzultzaileen atzean, hurrengo ilaran, elkarren aurrez aurre, eta, hortaz, entzuleei dagokienez saiheska, akusatuaren beirazko kabina eta lekukoen aulkia dauzkagu.

Bukatzeko, azkeneko ilaran, entzuleei bizkarra emanez, fiskala eta haren lau abokatu laguntzaileak daude, eta defentsaren abokatua, aurreneko asteetan laguntzaile batekin egongo dena.

Epaileen jokamoldean ez da inoiz keinu dramatikorik ageri. Ibilera ez dute alde zuretik pentsatua, adi-adi egoten dira beti, eta izugarrikerien kontaketak entzuten dituztenean biziki hunkitzen direla igartzen zaie, espero izatekoa denez; fiskala juizioa amaigabe luzatzen saiatzen denean, espantanea eta bihotz-altxagarria gertatzen da epaileek ageri duten nekea; defentsarengana duten jokamoldea, aukeran, apur bat adeitsuegia da, beti gogoan balute bezala «Servatius doktorea ia bakarrik egon [zela] borroka nekagarri batean, inguru arrotz batean»; epaileen salatuarenganako manerak aitzakiagabeak dira beti. Hain agerikoa da hiru gizon zintzo direla, non inor ez baita harritzen haietako batek ere ez diolako amore ematen agertoki honetan itxurak egiteko tentazioari, alegia, hirurak Alemanian haziak eta heziak izanik, ez dute egiten hebreerazko itzulpenaren zain egoteko itxurarik. Moshe Landau epaile nagusiak ozta-ozta itxaroten du itzultzaileak bere lana bukatzen duen arte, askotan eteten du itzulpen-lana, zuzendu egiten du eta hobetu, eta bistan da eskertu egiten duela entretenimendu txiki hori gainerakoan guztiz iluna den egiteko honetan. Hilabete batzuk geroago, akusatuari galderak egin behar zaizkionean, lehendakariak beste bi epaileak alemana, beren ama-hizkuntza, erabiltzera ere bultzatuko ditu harekin hitz egin behar dutenean: argi frogatzen du horrek, baldin frogatu beharrik bazegoen, auzitegiko lehendakaria, epaile nagusia, Israeleko iritzi publiko orokorrarekiko independentea zela.

Hasieratik bertatik argi ageri da Landau epaile nagusiak ezarri dituela juizioaren nondik norakoak, eta, fiskalaren drama-zaletasunaren eraginpean, ahaleginean ari da, ahalegin gogorrean inondik ere, juizioa ez dadin ikuskari bat bihurtu. Zergatik ez duen bere asmoa beti lortzen agertzen duten arrazoien artean, bada bat guztiz sinplea, eta hura da saioak agertoki batean egiten direla, entzule talde baten aurrean; uxerrak saio bakoitzaren hasieran egiten duen oihu ikaragarriak jasotzen ari den gortinaren efektua egiten du. Areto hau diseinatu zuenak, nornahi zela, *Beth Ha'am*-en, hau da, Herriaren Etxe eraiki berrian (hesi altuez dago orain inguratua, arma ugariz hornitutako polizia sabaitik sotoraino zaindua, eta etxola sail bat dauka aurrealdean, bertaratzen diren etxoletan guztiak goitik behera miatzeko), antzerki bat zuen gogoan, oso-oso,

hau da, bere orkestra-toki eta galeriarekin, proszenio eta agertokiarekin, eta antzezleak sartzeko albo-ateekin. Auzitegi-areto hau, argi dago, ez da toki txarra David Ben-Gurion-ek, Israeleko Lehen Ministroak, gogoan zeukan ikuskarizko auzia egiteko, erabaki zuenean Eichmann Argentinan bahitu eta Jerusalemeko Auzitegira eraman behar zela, «juduen auziaren Azken Soluzioan» izan zuen eginkizunarengatik. Eta Ben-Gurion, «estatuaren arkitektoa» deitzen zutena (zuzen), huraxe izan zen juizioko agertoki-zuzendari ezin ikusizkoa. Ez zen saio bakar batean izan; Gideon Hausnerren ahotsez mintzatzen zen auzitegi-aretoan, zeina fiskal nagusia baitzen, eta hura, gobernuaren ordezkaria izanik, gogotik saiatu zen, saiatu ere, bere maisuari obeditzen. Eta inoiz edo behin, fiskal nagusiaren saioak eta ahaleginak behar bezain onak ez baziren —zorionez—, horren arrazoa izaten zen Hausner jaunak Israeleko Estatua zerbitzatzen zuen bezain leialki zerbitzatzen zuela epaile nagusiak zuzenbidea. Zuzenbideak akusatua auzipetzea, defendatzea eta epaitzea eskatzen zuen, eta gainerako galdera guztiak, itxuraz munta handiagoa zutenak —hau da, «Nolaz gertatu zen?», «Zergatik gertatu zen?», edo «Zergatik juduak?» eta «Zergatik alemanak?», edo «Zein zen beste nazioen eginkizuna?» eta «Zenbateraino izan ziren aliatuak ere gertatuaren erantzuleak?», edo «Nola liteke juduek, beren buruzagien bitartez, suntsiketaren parte hartzea?» eta «Zergatik joan ziren heriotzara bildotsak hiltegia joaten diren bezala?»—, horiek denak alde batera utzi behar ziren. Zuzenbideak gizon baten garrantzia azpimarratzen zuen; eta gizon hori Adolf Eichmann zen, Karl Adolf Eichmannen semea, beirazko kabina babesgarri batean zegoena: ez oso altua, argala, adinez heldua, kopeta gaineko ilea galtzen hasia, hortz-desberdina eta begi-laburra; epaiketa-saioetan, etengabe luzatzen zuen bere lepo mehea epaileen aldera (ez zien behin ere entzuleei begiratzen), eta ahaleginean saiatzen zen bere burua menderatzen, eta lortzen zuen gehienetan, ahoan halako dardar-ikara bat izan arren, inondik ere epaiketa hasi baino askoz ere lehenagokoa zena. Epaietaren xedea hark egindakoa zen, ez juduen sufrimenduak, ez aleman herria edo gizadia, ezta antisemitismoa eta arrazismoa ere.

Eta zuzenbidea; izan ere, Ben-Gurionen ikusmolde berekoentzat zuzenbidea «abstrakzioa» bazen ere, azkenean ikusi zen askoz ere nagusi zorrotzagoa zela hura Lehen Ministroa bere botere guztiarekin baino. Azken horren araubideak, Hausner jaunak berandu gabe frogatuko zuen bezala, aski laxoak ziren: fiskalari prentsaurrekoak

eta telebista-elkarriketak ematen uzten zion juizioa egiten ari zenean (Estatu Batuetako telebista-emanaldia, Glickinan Corporation Konpainiak babestua, etengabe eteten zuten —negozioak, beti bezala—, etxebitzitzen iragarkiekin), eta berebat uzten zion, kazetarien aurrean, auzitegiko eraikinean bertan, ateraldi «espontaneoak» egiten: nekatua omen zegoen fiskala Eichmanni galderak egiteaz, gezurrak esanez erantzuten baitzuen beti; zehar-begirada asko egiten zizkien entzuleei, eta orobat uzten zitzaion, ohiz kanpoko nabarmenkeriaz, keinu dramatikoak egiten, harik eta Etxe Zurira heldu ziren arte, Estatu Batuetako Lehendakariak «ondo egindako lana» goraipatu baitzuen. Zuzenbideak berak, ordea, ez zuen horrelakorik batere egiten uzten; zuzenbideak diskrezioa behar zuen, amorruari baino areago nahigabeari ematen zion bidea, eta berebat eskatzen zuen arduraz urruntzeko norbera ikuskariaren lehen mailan jartzeko plazer goxoetatik. Epaiketa bukatu eta handik gutxira Landau epaileak Estatu Batuetara egin zuen bisitaldiaren berri ez zen eman, zenbait erakunde juduren artean izan ezik, bisitaldia haientzat antolatua baitzen.

Alabaina, epaileek ikuskariaren lehen mailan egoteari uko eginagatik ere, hantxe zeuden, plataforma goratuaren gainean eserita, entzuleei begira, antzokiko agertokitik bezala. Entzuleek mundu osoaren ordezkariak behar zuten izan, eta aurreneko asteetan, hain zuzen ere, mundu osoko lau bazterretatik Jerusalemara saldoka etorritako egunkari- eta aldizkari-kazetariak izan ziren. Nurenbergeko epaiketak bezain ikuskari txundigarria ikusi behar zuten, baina oraingo honetan «juduen tragedia bere osotasunean izango zen gai nagusia». Izan ere, «[Eichmanni] ez-juduen kontrako delituak ere egozten badizkiogu, (...) ez dizkiogu egotziko» delitu horiek egin zituelako, baizik eta, gauza harriagarria, «guk ez dugulako bereizketa etnikorik egiten». Esaldi egiaz nabarmena, fiskalak bere estreinako mintzaldian esan zuena, eta haren salaketaren ildoak markatuko zuena. Zeren akusazioaren oinarri-oinarrian juduen sufrimendua baitzegoen, eta horren gainean eraiki zen akusazioa, ez Eichmannek egin zituenetan. Eta, Hausner jaunaren arabera, bereizketa hori ez zen garrantzizkoa, zeren «gizon bat bakarra zegoen ia huts-hutsik juduez arduratu zena, eginkizuna haiek suntsitzea izan zuena, erregimen zitala ezartzekoan bere egitekoa juduengana mugatu zuena. Gizon hori Adolf Eichmann zen». Ez al zen gauza normala juduen sufrimenduaren gertakari guztiak epaileen aurrera eramatea (gertakari haiek, jakina, ez ziren inoiz auzitan jarri)

eta gero Eichmann gertatu zenarekin nola edo hala lotuko zuen froga bilatu? Nurenbergeko Epaiketek, non auzipetuak «zenbait naziotako kideen kontrako delituengatik» akusatu baitzituzten, juduen tragedia baztertu egin zuten, bakar-bakarrik Eichmann han ez zegoelako.

Egitan sinesten ote zuen Hausner jaunak Nurenbergeko Epaiketetan arreta handiagoa jarriko zela juduen patuan Eichmann akusatuen aulkian egon balitz? Nekez halakorik. Israeleko jende gehien-gehienaren iritziz bezala, haren iritziz ere auzitegi judu batek bakarrik egin ziezaiekeen justizia juduei, eta juduei zegokien beren etsaiak epaitzea. Horregatik zen Israeleko jende gehiena nazioarteko auzitegi baten kontrakoa, zeren halako auzitegi batek, ez «judu-jendearen kontrako» delituez, baizik eta judu-jendearengauzaturiko gizadiaren kontrako delituez akusatuko baitzuen Eichmann. Hortik ateraldi arrandiatsu bitxi hura: «Guk ez dugu bereizketa etnikorik egiten»; izan ere, hitz horiek ez dira horren bitxiak gertatzen Israelen, non, errabinolegeak arautzen duen bertako herritarren estatus pertsonala, juduek ezin baitute ez-judu batekin ezkondu; atzerrian egindako ezkontzak onartzen dira, baina bikote mistoen haurrak, legearen aurrean, sasikoak dira (ezkontzatik kanpo jaiotako aita-ama juduen haurrak, berri, bidezkoak dira), eta pertsona baten ama ez bada judua, pertsona hura ezin da (judu-usadioen arabera) ez ezkondu ez hobiratu. Egoera hori are nabarmenagoa gertatu da 1953tik honantz, urte horretan familia-zuzenbideko auzien gaineko jurisdikzioaren parte handi samar bat auzitegi zibiletara igaro baitzen. Emakumeek orain ondasunak hereda ditzakete, eta gizonen estatus bera dute oro har. Hori dela-eta, nekez esan daiteke fedearen errespetuak edo erlijio-gutxiengo fanatiko batek bultzatzen duela Israeleko gobernuaren ezkontza- eta dibortzio-auziak errabinoen legeen mende uztera, jurisdikzio sekularrean ipini ordez. Israeldar hiritarrak, erlijiodunak nahiz erlijiogabeak, bat datoz itxuraz ezkontza mistoak debekatzen dituen lege baten komenigarritasunean, eta horregatik gehienbat —israeldar funtzionarioek auzitegitik kanpo lotsa gutxiarekin aitortu zuten— ez zaie oso egokia iruditzen gai hauei buruzko xedapenak argitaratzea, hots, halako lege lotsagarri bat idatziz ematea. («Ezkontza zibilaren kontrako argudioa da Israeleko herria bitan banatuko lukeela, eta berebat bereiziko lituzkeela bertako juduak eta Diasporako juduak», Philip Gillon-ek *Jewish Frontier* aldizkarian duela gutxi azaldu duen bezala). Arrazoiak direnak direla, txundigarria gertatzen da dudarik gabe nolako tolesgabetasunez salatu

zituen fiskalak 1935eko Nurenbergeko lege doilorrak, juduen eta alemanen arteko ezkontza eta sexu-harremanak debekatu zituztenak. Ondoena informatuak zeuden berriemaileek ondo gogoan hartu zuten egoeraren ironia, baina ez zuten beren idatzietan aipatu. Ez zen hura une egokia, hala iruditzen zitzaien, juduei esateko zertan huts egiten zuten beren herriko legeek eta erakundeek.

Epaitegiko entzuleek mundu osoko ordezkariak izan behar baldin bazuten, eta juizioak berriz juduen sufrimenduen panorama zabala, errealtatea itxaropen eta asmo haietatik urrun geratu zen. Kazetariak bi astez baizik ez ziren epaiketaren entzule leialak izan, ez askoz gehiago, eta ondoren entzuleria erabat aldatu zen. Handik aurrera israeldarrak izango ziren entzuleak, eta batzuk gazteegiak ziren gertatuaren berri jakiteko, eta beste batzuk Sortaldekoak ziren, eta haiei ez zitzaien Holokaustokoaren berri kontatu. Juizioak, ustez, ez-juduen artean bizitzeak zer esan nahi duen behar zien haiei erakutsi; ikusarazi behar zien Israelen bakarrik izan dezakeela judu batek bizitza segurua eta duina. Kazetariei Israeleko lege-sistemari buruzko liburuxka txiki bat eman zitzaien. Liburuxkaren egileak, Doris Lankin-ek, Auzitegi Goreneko erabaki bat aipatzen du, zeinaren arabera bi aitak, «beren haurrak bahitu eta Israela ekarri zituztenak» amengana itzuli behar izan baitzituzten, haiek, atzerrian bizi zirelarik, legezko eskubidea baitzuten haurren zaintza izateko. Eta hori, eransten du egileak — epai haren legezkotasun zorrotza zela-eta, Hausner jauna akusazioan biktima ez-juduak ere sartzen zituelako bezain harro— «nahiz eta, amaren zaintzara bidaltzea, haurrak Diasporarako elementu etsaien artean desberdintasunean bizitzera bultzatzea izan». Baina entzule haien artean ez zegoen gazte-jenderik kasik, eta ez ziren israeldarrak, judu talde berezitzat har daitezkeen neurrian. «Bizitarako» juduak ziren, jende heldua edo zaharra, Europako etorkinak, ni bezala, eta haiek buruz zekiten jakin beharreko guztia. Lekuko bat beste lekuko baten atzetik mintzatuz, izugarrikeria izugarrikeriaren gainean metatuz, pribatuan, kontalaria aurrez aurre izanik, nekez pairatuko zituzten istorioak, jendaurrean aditu behar izan zituzten han. Eta zenbat eta gehiago agertu «belaunaldi honetako judu-jendearen zoritxarra», eta zenbat eta handizaleagoa Hausner jaunaren erretolika, orduan eta zurbilagoa eta mamu itxurakoagoa zen beirazko kabinako irudia, eta behatz salatzaileak ere —«eta horra hor honen guztiaren erantzulea den munstroa»— ez zion bizitasunik ematen.

Eta juizioaren antzerki-alderdia, huraxe geratu zen erreka jota, basakeria lazgarrien zamaren pean. Juizio bat egilearekin hasten eta bukatzen baita, ez biktimarekin, eta horregatik da antzerki-emanaldi baten antzekoa. Ikuskarizko juizio batean juizio arrunt batean baino argiago behar da kontatu zer egin zen eta nola egin zen; ikuskarizko juizio batek areago du kontaketa zehatz baten premia. Juizio baten erdigunean delituak egin dituenen baizik ezin da egon —alderdi horretatik, antzezlaneko heroia bezalakoa da—, eta, sufritzen badu, berak egin duenarengatik behar du sufritu, ez besteri eragin dionagatik. Inork ez zekien hori lehendakariak baino hobeto; izan ere, ikuskari odoltsu bat izateraino degeneratu zen haren begietan juizioa, «lemarik gabeko itsasontzi bat olatuetara jaurtikia izatera heldu zen». Baina halakorik gerta ez zedin egiten zituen ahaleginak sarritan hutsean geratzen ziren arren, porrota, harritzekoa bada ere, partez behintzat defentsaren erruz etorri zen, nekez zutitzen baitzen hura lekukoek hitzei kontra egitera, nahiz eta adierazpen garrantzi gabeak eta hutsalak izan. Servatius doktoreak, hala esaten baitzioten denek beti, ausartxeago jokatu zuen froga dokumentalak etorri zirenean; eta fiskalak, froga gisa, Hans Franken egunkariak aurkeztu zituenean gertatu zen defentsaren esku-hartze bakanetan zirrargarriena izan zena. Hans Frank Poloniako gobernari nagusia izan zen, eta Nurenbergen urkatutako gerrako kriminal handienetako bat. «Galdera bakarra dut egiteko. Aipatzen al da Adolf Eichmann izena, akusatuaren izena, hogeita bederatzi liburukiotan [hogeita hemezortzi ziren, izan]? (...) Adolf Eichmann izena ez da hogeita bederatzi liburukiotan aipatzen. (...) Eskerrik asko, ez dut beste galderarik egingo».

Hala, bada, auzia ez zen egiazko antzezpena izatera iritsi, baina bai Ben-Gurionek hasiera-hasieratik gogoan zuen ikuskaria edo, areago, eman ziren haren ustez juduei eta jentilei, israeldarrei eta arabiarrei, hau da, laburtuz, mundu osoari, eman behar zitzaizkien «irakaspenak». Ikuskari bakar batetik atera beharreko irakaspen horiek hartzaileen araberaokak behar zuten izan; Ben-Gurionek juizioa hasi baino lehen aipatu zituen, Israelek akusatua zergatik bahitu zuen agertzeko xedez idatzitako artikulua sail batean. Alde batetik, mundu ez-juduari zuzendutako irakaspena zegoen: «Munduko nazioen aurrean esan nahi dugu naziek milioika pertsona, juduak zirelako huts-hutsik, eta milioi bat haur, haur juduak zirelako huts-hutsik, erail zituztela». Edo, Ben-Gurionen Mapai alderdiaren *Davar*

aldizkariaren hitzetan: «Jakín beza mundu osoak honako hau: ez zela Alemania nazia Europako sei milioi juduren suntsiketaren erantzule bakarra izan». Hortaz, berriz ere Ben-Gurionen hitzetan, «Munduko nazioek hau dena jakin dezaten nahi dugu... eta lotsatu egin beharko lukete». Diasporako juduek gogoratuko zuten judaismoak, «lau mila urte dituen horrek, bere sorkari espiritualekin eta bere ahalegin etikoekin, bere asmo mesianikoekin», «mundu etsai bat» izan duela aurrean beti, juduak heriotzara bildotsak bezala joateraino degeneratu zirela, eta estatu judu baten sorrerak baizik ez zituela juduak etsaiei aurre egitera eraman, israeldarrek Independentziaren Gerran, Suezeko abenturan, eta Israeleko muga zoriongabeetako ia eguneroko liskarretan aurre egiten zieten bezala. Eta Israeldik kanpoko juduei israeldarren heroismoaren eta juduen otzantasun manukorraren arteko diferentzia erakutsi behar bazitzairen, bertakoei ere bazen zer irakatsia: «Holokaustoaz geroztik hazi diren israeldarren belaunaldiak» judu-herriarekiko loturak, eta, hortaz, beren historiarekikoak, galtzeko arriskuan zeuden. «Beharrezkoa da gure gazteek zer gertatu zitzaion judu-herriari gogoratzea. Gure historiako gertaerarik tragikoenak jakin behar dituzte. Azkenik, Eichmann auzipetzeko beste arrazoi bat zen «beste nazi batzuk ezkututik ateratzea, eta orobat argitara ateratzea, adibidez, nazien eta zenbait arabiar agintariren arteko lotura».

Horiek izan balira Adolf Eichmann Jerusalemeko Auzitegira eramateko arrazoi bakarrak, justiziak alde askotatik huts egingo zukeen. Zenbait alderditatik, irakaspen haiek sobran zeuden, eta beste alderdi batzuetatik nahasgarriak ziren. Antisemitismoa, Hitler dela medio, ospea galdua da, agian ez betiko baina bai une honetan, eta ez juduek bat-batean ospe hobea dutelako, baizik eta, Ben-Gurion jaunaren beraren hitzetan, jenderik gehienak ulertu duelako «antisemitismoak gure egunean gas-ganberak eta xaboi-lantegiak ekar ditzakeela». Berebat alferrikakoa zen Diasporako juduei emandako irakaspena, haiek, munduaren etsaigoaz konbentzitzeko, ez baitzuten beren herriaren heren bat desagerrarazi zuen hondamendi handiaren premiarik; Dreyfus aferaz geroztik, ondo zekiten antisemitismoa betierekoa eta nonahikoa dela, eta jakite hori berori, sionismoaren faktore ideologikorik indartsuena izateaz gainera, berebat izan zen aleman judu-komunitateak, Hitlerren erregimenaren hasiera aldean, agintari naziekin negoziatzeko izan zuen prestasunaren zergatia, gainerakoan ulertzen ez dena. (Esan beharrik ere ez dago,

negoziazio haiek eta geroagoko *Judenräte* izenekoan lankidetzaz, gutziz gauza desberdinak izan ziren. Lehen negoziozio haietan ez zegoen auzi moralik, erabaki politiko bat besterik ez zegoen, nahiz eta erabaki haren «errealismoa» eztabaidagarria zen: hobe zen laguntza «konkretua», hala argudiatzen zen, salaketa «abstraktuak» baino. Hura *Realpolitik* besterik ez zen, makiabelismorik gabea, eta haren arriskuak urteen buruan azaleratu ziren, gerra hasi eta gero, judu-erakundeak eta burokrazia naziaren arteko eguneroko harreman haiek funtzionario juduak bultzatu zituenean judu-jendeari ihes egiten laguntzearen eta naziei judu-jendea deportatzen laguntzearen arteko leizea gurutzatzeraz). Horrexek eragin zuen juduen ezintasun arriskutsu hori, hots, adiskideak eta etsaiak ezin bereiztea; eta ez ziren aleman juduak izan, jentil guztiak berdina zirela pentsatuz, etsaiak gutxietsi zituzten bakarrak. Baldin Ben-Gurion Lehen Ministroak, helburu praktikoa guztiei zegokienez Estatu juduaren buruzagi zelarik, «judu-kontzientzia» mota hori nahi bazuen sendotu, oker zebilen; zeren pentsamolde hori aldatzea ezinbestekoa baita Israeleko estatuarentzat, zeinak, definizioz, juduak herrien arteko herri bihurtu baititu, nazioen arteko nazio, estatuen arteko estatu; eta israeldar estatuak pluraltasun baten arabera behar du orain jokatu, eta horrek ez dio lekurik uzten erlijioan — zoritxarrez — oinarritzen zen juduen eta jentilen dikotomia zaharrari.

Israeldar heroismoaren eta juduek heriotzara zihoazenean zuten otzantasun manukorraren arteko kontrasteak —garaiz heltzen ziren garraio-puntuetara, inork bultzatu gabe inguratzen ziren exekuzio-lekuek, beren hilobi-zuloak egiten zituzten, erantzi eta txukun-txukun uzten zituzten arropak, eta elkarren ondoan etzaten ziren tiro egin ziezaieten—, oso gai interesgarria ematen zuen, eta fiskalak, lekuko bati besteari atzetik galderak eginez, «Zergatik ez zenuen protestatzen?», «Zergatik igo zinen trenera?», «Hamabost mila lagun zeuden han, eta zaindariak ehunka batzuk besterik ez ziren; zergatik ez zineten matxinatu, zergatik ez ekin eta eraso egin?», merezi zuen etekin guztia atera zion. Baina auziaren egia tristea da argudio hori funtsik gabea zela, zeren beste taldeek, judu ez zirenek, ez baitzuten bestela jokatu. Duela hamasei urte, gertatutakoan eragin zutenaren pean oraindik ere, Buchenwald-eko preso ohi batek, David Rousset-ek, kontzentrazio-esparru guztietan gertatzen zena deskribatu zuen: «SSek, beren xedera arrakastaz heltzeko, beharrezko zuten biktima torturatuek protestarik

gabe urkamendiraino eramaten uztea, gauza orori uko egitea eta bere burua abandonatzea, bere nortasuna berresteari uzteraino. Eta bazen horretarako arrazoirik. SSek ez zuten biktimaren porrot hura besterik gabe, sadismo hutsez, desiratzen. Bazekiten biktima urkamendira igo baino lehen suntsitzea lortzen duen sistema... hoberena dela inondik ere herri oso bat esklabo gisa edukitzeko. Menderaturik. Ezer ez dago panpinak bezala heriotzara doazen gizaki-prozesio horiek baino gauza ikaragarriagorik» (*Les Jours de notre mort*, 1947). Ez zen erantzunik izan fiskalak galdera krudel eta ergel horiek egin zituenean, baina ez zitzaion zaila gertatuko erantzun bat aurkitzea baldin tarte labur batez irudimenarekin Amsterdamgo auzo judu zaharrera joan balitz, eta gogoratu balitz 1941ean aleman polizia militarreko oste bereizi bati eraso egitera ausartu ziren holandar judu haien patuaz. Mendeku gisa, lauhun eta hogeita hamar judu atxilotu zituzten, eta hil arte torturatu zituzten, aurrena Buchenwald-en, eta ondoren Mauthausen-eko austriar esparruan. Judu haiek, zenbait hilabeteen, mila bider hil ziren, eta inbidia izango zieten beren Auschwitzeko kideei, eta baita Riga eta Minskekoei ere. Gauza ugari dago heriotza baino askoz ere okerragoa, eta SSak gogotik arduratu ziren gauza haietako bat bera ez zedin beren biktimen gogo eta irudimenetik urruti egon. Hori dela-eta, beste alderdi batzuetatik baino gehiago agian, istorioa huts-hutsik ikuspuntu judutik kontatzeko juizioan egin zen ahaleginak egia desitxuratu zuen, baita juduen egia ere. Varsoviako ghettoke altxamenduaren handitasuna eta han borrokan jardun zuten judu bakanen heroismoa, hain zuzen ere, naziek eskaintzen zieten heriotzari —konparazioz erraza, fusilamendupelotoien aurrean edo gas-ganberetan— uko egin izanean datza. Eta Jerusalem erresistentziaren eta matxinadaren berri eman zuten lekukoek, «holokaustoaren historian [zeukaten] leku txikian», berriz ere berretsi zuten oso jende gaztea baizik ez zela gai izan erabakitzeke «ezin gara heriotzara bildotsak bagina bezala joan».

Puntu bati dagokionez, ez ziren guztiz zapuztu Ben-Gurion jaunak epaiketari zituen itzaropenak: tresna garrantzitsua bihurtu zen beste nazi eta kriminal batzuk beren ezkutalekutik ateratzeko, ez ordea haietako askori babesa eskaini zieten arabiar herrietan. Ezagunak ziren Mufti Handiak naziekin gerra-garaian izan zituen loturak; izan ere, Muftiak espero zuen naziek lagunduko ziotela Sortalde Hurbilean «Azken Soluzioren bat» bideratzen. Hala, Damaskoko eta Beiruteko, Kairoko eta Jordaniako egunkariek ez zuten Eichmannengana sentitzen

zuten elkartasuna ezkutatu, ezta sentitzen zuten pena ere ez zuelako «bere eginkizuna bukatu»; Kairoko irratsaio batek, epaiketa hasi zen egunean, alemanen kontrakoa-edo zen ohar bat erantsi zuen, baina kexatu egin zen ez zelako izan «azken mundu-gerran gertari bakar bat ere, aleman hegazkin bat kokaleku judu baten gainetik igaro eta bonba bat bota zuena». Gauza ezaguna da arabiar nazionalistek ondo ikusten zutela nazismoa; arrazoiak agerikoak dira, eta ez Ben-Gurion ez epaiketa ez ziren beharrezkoak haiek «ezkututik ateratzeko»: sekula ez ziren ezkutatu. Epaietan bakar-bakarrik frogatu zen Eichmannek Haj Axnin el Husseini Jerusalemeko Mufti ohiarekin loturak zituelako zurrumurruek ez zutela zertan oinarritu. (Ekitaldi ofizial batean aurkeztu zioten Muftia Eichmanni, beste goi-mailako funtzionarioei guztiei bezala). Muftiak harreman estuak izan zituen Alemaniako Atzerriko Arazoetako Ministerioarekin eta Himmler-ekin, baina hori gauza jakina zen.

Ben-Gurionek «nazien eta zenbait arabiar agintariren arteko lotura» zela-eta esan zuena lekuz kanpoko zen, baina harrigarriagoa izan zen testuinguru hartan Mendebaldeko Alemaniako gure egunotako naziak ez aipatzea. Lasaigarria izan zen entzutea, jakina, Israelek ez duela «Adenauer Hitlerren erantzuleztat hartzen», eta «guretzat alemaniar zintzo bat, nahiz eta duela hogeitaz mila urte milioia judu hiltzen lagundu zuen nazioko kidea izan, gizaki zintzo bat da». (Arabiar zintzorik ez zen aipatu). Alemaniako Errepublika Federalak, nahiz eta oraindik ez duen Israeleko Estatua onetsi —arabiar herriek Ulbricht-en Alemania onetsiko ote duten beldurrez seguru asko—, zazpiehun eta hogeita hamazazpi milioi dolar eman dizkio Israeli, ordain gisa, azken hamar urteotan; ordainketa horiek laster bukatuko dira, eta Israel orain Mendebaldeko Alemaniarengandik epe luzeko mailegu bat lortzeko negoziazioetan dabil. Hala, bada, bi herrialdeen arteko harremanak, eta bereziki Ben-Gurion eta Adenauerren arteko harreman pertsonalak, oso onak izan dira, eta baldin, epaiketa honen ondorioz, Israeleko Legebiltzarreko zenbait legebiltzarkidek Mendebaldeko Alemaniarekiko kultura-trukeetan halako murrizketa batzuk egitea lortu bazuten, halakorik ez zuen inondik ere Ben-Gurionek ez iragarri ez espero. Aipagarriagoa da Ben-Gurionek ez zuela aurrez ikusi, edo ez zela aipatzeaz arduratu, Eichmannen atxilotetak eragingo zuela juduen hilketan zuzenean inplikatuak zeudenak auzipetzeko Alemaniak egin zuen aurreneko saio garrantzitsua. Nazien Krimenen Ikerketarako

Agentzia Zentralak —Mendebaldeko Alemaniako estatuak 1958an sortua, berandu, eta Erwin Schülle fiskala buru zuena— era guztietako eragozpenak izan zituen bere jardunbidean, partez alemanek ez zutelako lekuko gisa agertu nahi, eta partez auzitegiek ez zituztelako Agentzia Zentralak bidalitako datuetan oinarrituriko prozedurak abian jarri nahi. Jerusalemeko epaiketean ez zen eman Eichmannen lankideak aurkitzen lagunduko zuten datu berri garrantzitsurik; baina Eichmannen atxiloteta txundigarriaren albisteak eta segituan abiatzekoa zen juizioarenak, izan zuten aski indarririk auzitegi lokalek, Schüler fiskalaren aurkikuntzak baliatuz, zenbait prozedura abian jar zezaten, alemanek beren uzkurtasuna gainditu eta «gure ondoan bizi diren hiltzaileen» epaiketetan lekuko gisa ager zitezen; horretarako, hormetan kartelak itsasteko sistema zaharra erabili zen, sariak eskainiz gaizkile ezagunak atxilotzen laguntzeagatik.

Emailtzak harrigarriak izan ziren. Eichmann Jerusalemara iritsi eta zazpi hilabete geroago —lau hilabete falta ziren juizioa hasteko— Auschwitzeko komandante gisa Rudolf Höss-en ondorengoa izan zen gizona, Richard Baer, atxilotu zuten. Bata bestearen ondoren, segituan atxilotu zituzten *Eichmann Commando* zeritzanaren kide gehienak: Franz Novak, Austrian inprimatzaile-lanak eginez bizi zena; Otto Hunsche doktorea, Mendebaldeko Alemanian legelari-lanetan ari zena; Hermann Krumey, botikari bihurtua; Gustav Richter, Errumanian «judu-auzietako aholkularia» izandakoa; eta Willi Zöpf, Amsterdamen postu hori bera izan zuena. Urte asko lehenago argitaratu ziren Alemanian haien kontrako salaketak eta frogak, liburuetan eta aldizkari-artikuluetan, baina hala ere inori ez zitzaion beharrezkoa iruditu izen faltsurik erabiltzea. Hala, Otto Bradfisch doktorea, *Einsatzgruppen* taldeetako kidea —hau da, SSen borroeroen Ekialdeko erailketa-unitate mugikorrekoa—, hamar urteko gatibu-lanak egitera kondenatu zuten, hamabost mila judu hil izanagatik; Otto Hunsche doktoreak, Eichmannen lege-aholkularia eta hamabi mila inguru hungariar juduren azken uneko deportazioaren erantzule pertsonala izan zenak, zeinetarik seiehun gutxiena hil baitzituzten, bost urteko gatibu-lanak egiteko epaia jaso zuen; eta Joseph Lechthaler-i, Errusiako Slutsk eta Smolevitxiko biztanle juduak «garbitu» zituelarik, hiru urte eta sei hilabeteko zigorra eman zioten. Atxilotu berrien artean nazien gobernuaren garaian garrantzi handia izan zuten pertsonak zeuden, eta ordurako gehienak Alemaniako auzitegiek desnazifikatuak zeuden.

Haietako bat, Karl Wolff, SSetako jenerala izan zen, Himmlerren estatu nagusiko buru ohia, zeinak, 1946an Nurenbergen erakutsitako dokumentu baten arabera, «poz bereziz» hartu baitzuen «azken bi asteotan tren batek, egunero-egunero, Herri Aukeratuko bost mila kide eraman dituelako» albisteia (Varsoviatik Treblinkara, hots, Ekialdeko hilkintza-zentroetarako batera). Wilhelm Koppe zen beste bat, aurrena Chelmnoko gaseztatzak antolatu zituen, eta ondoren Polonian Friedrich-Wilhelm Kruger-en ondorengoa izan zena. Polonia *judenrein* bihurtzeko eginkizuna zuten SSetako buruzagien artean garrantzitsuenetakoa izan zen bat, Koppe, txokolate-fabrika bateko zuzendaria zen gerraosteko Alemanian. Izan ziren epai gogor batzuk, baina ez ziren batere lasaigarriak gertatu; hala, besteak beste, Erich von dem Bach-Zelewski, SSetako jeneral ohi eta poliziaburu izandakoari eman ziotena. 1961ean auzipetu zuten, 1934an Röhm-en matxinadan parte hartzeagatik, eta hiru urte eta erdiko zigorra eman zioten; gero 1962an berriz eraman zuten auzitara, 1933an sei aleman komunista hiltzeagatik; Nurenbergen epaitu zuten, eta hil arteko kartzela eman zioten. Akusazioetan ez zen behin ere aipatu Bach-Zelewski erresistentziaren kontrako borrokaren buruzagia izan zenik Ekialdeko Frontean, ezta Minskeko eta Mogilev-eko sarraskietan parte hartu zuenik ere, Errusia Zurian. Aleman auzitegiek, gerrako krimenak krimena ez direlako aitzakiaz, «bereizketa etnikoa» egin ote zuten? Edo posible ote da Alemaniako gerra ondoko auzitegietan behintzat bereziki gogorra zen epai hura, Bach-Zelewski masa-hilketen ondoren nerbioetako krisi bat izan zuen bakanetako bat izan zelako ematea, juduak *Einsatzgruppen* taldeetatik babesten saiatu zelako, eta Nurenbergen lekuko gisa jardun zuelako? Era berean, bakarra izan zen, bere mailakoen artean, bere burua masa-hilketaz jendaurrean salatu zuena (1952), baina ez zuten hargatik sekula auzipetu.

Ez dirudi orain gauzak aldatzera doazenik, nahiz eta Adenauerren administrazioa behartuta gertatu den ehun eta berrogei epaile eta fiskal epailetzat alboratzera, iragan nahasi samarrak dituzten poliziako funtzionario askorekin batera. Wolfgang Immerwahr Fränkel, Auzitegi Federal Goreneko fiskal nagusia, kargugabetu behar izan zuten, ez baitzen egiaz mintzatu —bigarren izenarengatik ere—, bere nazi-iraganari buruzko galderak egin zizkiotenean. Egin diren kalkuluen arabera, Mendebaldeko Alemaniako hamaika mila eta bostehun epailetatik, bost mila lanean ari ziren Hitlerren erregimenaren pean.

1962ko azaroan, epailetza garbitu eta handik gutxira, eta Eichmannen izena albistegietatik desagertu eta sei hilabeteren ondoren, Martin Fellenz-en aspalditik itxarondako epaiketa hasi zen Flensburg-en, auzitegi ia huts batean. Fellenz, SSetako goi-mailako kargua eta poliziaburu ohia, Adenauerren Alemanian Alderdi Demokrata Librearen kide ezaguna izan zena, 1960ko ekainean atxilotu zuten, Eichmann harrapatu eta handik aste gutxira. Poloniako lau mila juduren erailketan parte hartzeaz eta erailketa haren erantzukizun partziala izateaz akusatzen zuten. Sei hilabeteko galdeketa xehearen ondoren, zigorrik handiena eskatu zuen fiskalak harentzat: hil arteko kartzela, gatibu-lanak eginez. Eta auzitegiak lau urteko zigorra ezarri zion, zeinetarik bi eta erdi beteak baitzituen ordurako, kartzelan epaiketaren zain. Nolanahi dela ere, Eichmannen epaiketak Alemanian izan zituen inondik ere ondorio nagusiak. Aleman herriaren jokamoldea bere iraganari buruz, aleman gaietako aditu guztiak urteetan kezkatutik eduki dituen, ezin zen argiago frogatu: alemanak berak ez ziren gai hartaz askorik arduratzen, eta ez zitzairen bereziki axola herrian masahiltzaileak libre ibiltzea, haiek ez baitzuten beren borondatez inor erailko; nolanahi ere, baldin mundu-iritzia —edo, areago, alemanek *das Ausland* deitzen duten horrena, Alemaniak kanpoko herrialde guztiak izen bakar batean bilduz—, setatzen bazen, eta jende hura zigortzeko eskatzen bazuen, alemanak prest egongo ziren mesede hori egiteko, puntu bateraino behintzat.

Adenauer Kantzelerrak iragarri zuen juizioak lotsabidea ekarriko ziola ostera ere Alemaniari; adierazi zuen iruditzen zitzaiola auziak «izugarrikeria guztiak gogoraziko zituela berriz ere», eta alemanen kontrako sentimenduak eragingo zituela berriz ere mundu osoan, eta halaxe gertatu zen, gertatu. Israelek juizioa prestatzeko behar izan zituen hamar hilabeteetan, ahaleginean prestatu zen Alemania, emaitzak asmatzen errazak izanik, egoerari aurre egiteko, eta inoiz ez bezala lehiatu zen gaizkile naziak bilatzen eta herrialde osoan esesten. Baina ez aleman agintariek, ez iritzi publikoko talde garrantzitsuek ez zuten Eichmann estraditaterik eskatu, nahiz eta horrek ematen zuen gauzarik logikoena, estatu burujabeek arduraz zaintzen baitute beti bere herritarrak epaitzeko duten eskubidea. (Adenauerren gobernuaren posizioak, zeinaren arabera estradizioa ezinezkoa baitzen, Israelen eta Alemaniaren artean estradizio-itunik ez zegoenez gero, ez du balio; horrek esan nahi baitzuen Israel ezin zela

inor estraditatzera behartu, ez besterik. Fritz Bauer, Hessengo fiskal nagusia, konturatu zen horretaz, eta estradizioa abian jartzeko eskatu zion Bonngo gobernu federalari. Baina Bauer jaunaren sentimenduak, gai honetan, aleman judu batenak ziren, eta alemanak oro har ez ziren haren iritzi berekoak; Bonnek ezezkua eman zion Bauerren eskaerari, eta, horrez gainera, ez zen ia haren berri zabaldu, eta ez zuen inolako babesik izan. Estradizioaren kontrako beste argudio bat izan zen, Mendebaldeko Alemaniako gobernuak Jerusalemera bidalitako behatzaileek emana, Alemaniak ezeztatu egin zuela heriotza-zigorra eta, hortaz, ezin zuela eman Eichmannek merezi zuen epaia. Aleman auzitegiek masa-hiltzaile naziekin erakutsi zuten barkaberatasuna gogoan harturik, segituan bururatzen zaio bati eragozpen hori asmo txarrez eginga zelako irudipena. Segur aski, Eichmann Alemanian epaitu balute, proba faltagatik absoluzioa ematea izango zen arrisku politikorik handiena, J. J. Jansen-ek *Rheinischer Merkur* aldizkarian adierazi zuenez [1961eko abuztuaren 1a]).

Kontuak badu beste alderdi bat, delikatuagoa, eta politikaren aldetik garrantzitsuagoa. Gauza bat da gaizkileak eta hiltzaileak beren ezkutalekutik ateratzea, eta beste gauza bat, oso bestelakoa, gaizkile eta hiltzaile horiek postu publikoetan aurkitzea, gizon garrantzitsu eta arrakastatsu bihurtuta: administrazio federalean eta estatukoan, eta, oro har, funtzionario publikoen artean, Hitlerren erregimenaren pean karrera eginak ziren sekulako gizon pila topatzea. Egia da Adenauerren administrazioak eragozpen handiak ipini balitu iragan nazi konprometitua zuten funtzionarioak enplegatzeko, gerta zitekeela administrazioerik batere gabe geratzea. Zeren egia, izan, Adenauer doktoreak esandakoaren kontra-kontrakoa baita; hark zioenez, alemanen «ehuneko erlatiboki txiki bat» izan zen nazia, eta «aleman gehien-gehienek pozik lagundu zieten bere herrikide juduei, ahal izan zutenean». (Aleman egunkari batek behintzat, *Frankfurter Rundschau* egunkariak hain zuzen, oinarritzko galdera bat egin zuen, aspalditik egin beharrekoa —zergatik egon zen isilik fiskal nagusiaren txostena, adibidez, ezagutzen zuen hainbeste jende—; eta erantzun are agerikoago bat eman zuen: «Jende hori erruduna sentitzen zelako»). Eichmannen juizioaren logikak, Ben-Gurionek pentsatu zuen bezala, alegia, lege-xehetasunen gainetik lehentasuna gai orokorreari emanez, aleman funtzionario eta agintari guztiek Azken Soluzioan izan zuten konplizitatea argitara ateratzea eskatuko zuen: estatuko ministerioetako,

indar armatu erregularretako (eta haien estatu nagusiko) funtzionario guztien, zuzenbidearen eta negozioen munduko guztien konplizitatea. Baina nahiz eta fiskalak, Hausner jaunak gidaturik, oso urrutira joan ziren, lekuko bat bestearen atzetik auzi-gelara eramanez, akusatuak egin zituenekin batere loturarik ez zuten edo oso lotura gutxi zuten gauzen lekukotasuna eman zezaten, ardura handiz ibili ziren eta ez zuten gai ikaragarri arriskutsu bat ukitu, hau da, alemanen konplizitatea, ia nonahikoa izan zena, Alderdi Naziko kideak baino askoz ere harantzago heldu zena. (Epaiketa baino lehen, Eichmannek «Errepublikak Federaleko ehunka pertsona garrantzitsu bere konplizeak zirelakoan» izendatu zituelako zurrumurruak zabaldu ziren, baina gezurra zen. Bere estreinako mintzaldian, Hausner jaunak aipatu zuen Eichmannen «laguntzaileak ez zirela ez gansterrak ez gaizkileriako jendea», eta agindu zuen «aurkituko zituela: sendagileak eta legelariak, irakasleak, bankariak eta ekonomistak, juduak ezereztatu behar zirela erabaki zen lekuetan». Agindu hori ez zen bete, eta ezin zen bete gainera, egin zen moduan. Ez baitzen sekula izan ezer «erabaki zen lekurik», eta «unibertsitate-graduak zituzten goi-mailako togadunek» ez zuten inoiz juduak deuseztatzearen gaineko erabakirik hartu; elkartu besterik ez ziren egiten, Hitlerrek emandako aginduak betetzeko behar ziren urratsak antolatzeke). Halako kasu bat eraman zen auzitegira, Adenauerren gertueneko aholkularia zen Hans Globke doktorearena hain zuzen, zeina, hogeita bost urte lehenago, Nurenbergeko legeen iruzkin zital baten egileetako bat izan baitzen, eta geroxeago, aleman judu guztiak bigarren izentzat «Israel» edo «Sara» hartzera behartzeko ideia distiratsua izan zuen. Globke jaunaren izena —izena bakarrik— sartu zuen, ordea, defentsak juizioko agiritan, eta segur aski Adenauerren gobernu estradizio-izapideak hastera «gogatzeko» bakar-bakarrik. Nolanahi ere, Barne Ministerioko *Ministerialrat* ohiak eta une hartan Adenauerren Kantzelergoko *Staatssekretär* zenak, dudarik gabe, eskubide gehiago zuen Jerusalemeko Mufti ohiak baino naziek juduei eragin zieten sufrimenduaren historian agertzeko.

Zeren, fiskalari zegokionez behintzat, historia baitzen, izan, juizioaren ardatza. «Epaiketa historiko honetan, ez da gizabanako bat akusatu aulkian dagoena, ezta erregimen nazia ere, historia osoko antisemitismoa baizik». Huraxe zen Ben-Gurionek erakutsi zuen bidea, Hausner jaunak leial jarraitu zuena; izan ere, Hausner jaunak bere estreinako mintzaldian (hiru saiotan luzatu zen), aurren-aurrenik,

Egiptoko faraoiak eta Haman-en agindua aipatu zituen: «(Juduak) suntsitu, hil, eta hilarazi». Ezekielen hitzak aipatu zituen ondoren: «Eta ni [Jaungoikoa] zure aldamenetik igaro nintzenean, eta zeure odolez zikindua ikusi zintudanean, esan nizun: bizi zaitez zeure odolean», eta, ondoren, azaldu zuen nola behar diren hitz horiek ulertu: «Nazio honek, historiaren agertokian aurren-aurrenekoz agertu zenetik, aurre egin behar izan dion agindu gisa». Hitz haiek historiaren interpretazio gaiztoa eta erretolika merkea eskaintzen zuten; are okerrago, ideia hura eta Eichmann auzipetzea ez ziren uztartzen, eta bazitekeen, hortaz, Eichmann alde zurretik misteriozki erabakitako patu baten betetzailer errugabea izatea, edo, egiaz, antisemitismoaren betetzailer, zeina agian beharrezkoa baitzen, «herri honek egindako ibilbide odoltsuaren» arrastoa garbitzeko, era horretan herriak bere patua bete zezan. Saio batzuk geroago, Columbiako Unibertsitateko Salo W. Baron irakasleak Ekialdeko Europako juduen azkenaldiari buruzko lekukotasuna eman zuen, eta, bukatu zuenean, Servatius doktoreak ezin izan zion tentazioari gehiago eutsi, eta begien bistan zegoen galdera egin zuen: «Zergatik egokitu zitzaion horrelako patu beltza judu-herriari?» eta «Ez al duzu uste motibo irrazionalak daudela herri honen patuaren oinarrian? Giza ulermenaren baino harantzago dauden motiboak? Ez al da agian historiaren espiritua (bezalako zerbait), historia aurrera daramana... gizakien eraginik gabe?». Ez al dator funtsean bat Hausner jauna «lege historikoaren eskola» delakoarekin —Hegelen doktrinarekin— eta ez al du erakutsi «buruzagien egintzek ez dituztela beti ekartzen lortu nahi ziren xede eta helburuak? (...) Hemen judu-herria suntsitzea zen asmoa, baina asmo hori ez zen iritsi, aitzitik, estatu berri oparo bat sortu zen». Defentsaren argudioa era arriskutsuan ari zen hurbiltzen Siongo Gurasoei buruzko ideia antisemita berrienera, zeina guztiz serio aurkeztu baitzuen aste batzuk lehenago Egiptoko Nazio Batzarrean Hussain Zulficar Sabri Atzerriko Arazoetako Ministrordeak: Hitler ez zen juduen hilkintzaren erruduna; sionisten biktima izan zen, eta haiek «bultzatu zuten beren helburua (Israeleko Estatuaren sorrera) lortzeko ahalmena emango zien delituak egitera». Alde bakarra zegoen egiptoar politikoaren eta Servatius doktorearen iritzien artean: fiskalak, agertu zuen historiaren filosofiari jarraituz, Historia jarri zuela besteak Siongo Gurasoak jarri zituen lekuan.

Ben-Gurionen asmo eta fiskalaren ahalegin guztiengatik ere, pertsona bat zegoen, hezur-haragizkoa, akusatuen aulkian: eta baldin

Ben-Gurioni «ez bazitzaion axola zer epai ematen zaion Eichmanni», ezin ukatuzko gauza zen epai bat ematea zela Jerusalemeko auzitegiaren eginkizun bakarra.

II: Akusatua

Otto Adolf, Karl Adolf Eichmannen eta Maria (sortzez) Schef-ferling-en semea, Buenos Aireseko hiri-inguruan 1960ko maiatzaren 11n atzemana, bederatzi egun geroago Israela hegazkinez eramana, Jerusalemeko Barrutiko Auzitegian 1961eko apirilaren 11n auzipetua, hamabost karguz zegoen akusatua: «beste pertsona batzuekin batera» judu-herriaren kontrako delituak, gizadiaren kontrako krimenak eta gerrako krimenak egin zituen erregimen naziaren garaian eta batez ere Bigarren Mundu Gerraren garaian. 1950eko Nazien eta Nazien Laguntzaileen Zigor Legeak, Eichmann lege haren arabera auzipetu baitzen, hala dio: «Delitu horietakoren bat... egin duen pertsonari... heriotza-zigorra eman dakioko». Eichmannek honako hau alegatu zuen kargu guztietan: «Errugabea, salaketa egiten den zentzuan».

Zer zentzutuan uste zuen, bada, erruduna zela? Akusatuari egin zitzaion galdeketa luzean, zeina, haren hitzetan «sekula ezagutu den luzeena» izan baitzen, ez defentsak, ez fiskalak ez, azkenik, hiru epaileetatik batek ere, ez zuten, agerikoa izan arren, galdera hori egin. Eichmannen defendatzaileak, Koloniako Robert Servatiusek, zeina Eichmannek kontratatu eta israeldar gobernuak ordaintzen baitzuen (Nurenbergeko Epaiketek ezarritako aurrekariari jarraituz, non defentsaren abokatu guztiak herri garaileen Auzitegiak ordaindu baitzituen), prentsaurreko batean erantzun zion galdera hari: «Eichmann Jaungoikoaren aurrean sentitzen da errudun, ez legearen aurrean»; erantzun horrek, ordea, ez zuen gero akusatuaren beraren berrespenik izan. Nahiago zuen nonbait defentsak Eichmann errugabea zela esatea, alegatuz lege-sistema naziaren arabera ez zuela bidegabekeriarik egin, egozten zizkiotenak «estatuaren egintzak» baizik ez zirela, eta haien gainean beste estatuek ez zutela eskumenik (*par in parem imperium*

non habet); aginduei derrigorrean obeditu behar ziela, eta, Servatiusen hitzetan, «irabazten baduzu domina ematen dizute eta galtzen baduzu urkamendira zoaz» klaseko egintzak egin omen zituen Eichmannek. (Hauxe adierazi zuen Goebbelsek 1943an: «Denbora guztietako estatugizonik handienen edo gaizkilerik handienen moduan geratuko gara historian»). Israeletik kanpo, Bavariako Akademia Katolikoan egin zen bilera batean, zeinean gaia izan baitzen, *Rheinischer Merkur* egunkariak zioenez, «erru historiko eta politikoak, zigor-arloko lege-prozeduren bitartez, lantzeko posibilitateen eta mugen... arazo gaitza», Servatiusek urrats bat gehiago egin zuen, eta adierazi zuen «Israeldar atzemaileen kontrako epaia ematea da Eichmannen juizioan lege penalaren arloko arazo bakarra, orain arte egin ez den gauza». Eichmannen beraren jarrera bestelakoa zen. Lehen-lehenik, okerreko gauza zen Eichmann erailketaz akusatzea: «Juduen hilkintzarekin nik ez nuen zerikusirik izan. Nik ez dut inoiz judu bat hil, ezta ez-judu bat ere; izan ere, nik ez dut inoiz gizaki bat hil. Nik ez dut inoiz agindurik eman judu bat edo ez-judu bat hiltzeko; nik ez nuen horrelakorik egin», edo, adierazpen hori geroago zehaztuko zuen moduan, «hala gertatu zen... behin ere ez nuelako inor hiltzeko premiarik izan». Baina, aginduz gero, bere aita ere hilko zuela, hori ezin argiago utzi zuen. Hortaz, behin eta berriz esan zuen (esana zuen dagoeneko Sassen-en dokumentuak deritzanetan, hau da, 1955ean Argentinan Sassen kazetari holandarrak egin zion elkarrizketan; Sassen SS ohi bat zen, hura ere justiziatik ihesi zebilena, eta elkarrizketa Eichmann atzeman ondoren argitaratu zen, partez, *Lifen* Estatu Batuetan eta *Der Sternen* Alemanian) bera juduen suntsiketari «laguntzeaz eta bultzatzeaz» baizik ezin akusa zezaketela, eta suntsiketa hura, juduena, Jerusalem adierazi zuenez, «gizadiaren historiako krimenik handienetako bat» izan omen zen. Defentsak ez zion arretarik eman Eichmannen beraren teoriari, baina fiskalak denbora asko xahutu zuen alferreko ahaleginetan, frogatu nahian, behin, gutxiena, bere eskuekin hil zuela (mutil judu bat Hungarian), eta are denbora gehiago eman zuen, eta arrakasta handiagoarekin, Franz Rademacher-ek, Alemaniako Atzerriko Gaietako Ministerioko judu-gaietako adituak, Jugoslaviarekin zerikusia zuen dokumentuetako batean, telefonoz hizketan ari zela, zirriboratu zuen ohar bat zela-eta. Honela zioen: «Eichmannek fusilatzea proposatzen du». Huraxe gertatu zen azkenean «hiltzeko agindu» bakarra, baldin hiltzeko agindua bazen, frogabalioa izan zezakeena.

Froga hura, juizioan, ematen zuena baino eztabaidagarriagoa zen; epaileek fiskalaren bertsioa onartu zuten, Eichmannen erabateko ukoaren kontrakoa; baina uko hark ez zuen eraginkortasunik izan, Eichmannek ahaztua baitzuen «gertaera xume hura [zortzi mila lagun besterik ez], horrenbestekoa ere ez zena», Servatiusek esan zuen bezala. Delako fusilatzea 1941eko udazkenean gertatu zen, Alemaniak Jugoslaviako Serbiako alderdia okupatu eta handik sei hilabetera. Partisanoek etengabeko erasoak egiten zizkieten armadari, eta agintari militarrek bi arazo aldi berean konpontzea erabaki zuten, hildako aleman soldadu bakoitzeko ehun judu eta ijito fusilatuz. Partisanoak ez ziren ez juduak ez ijitoak, argi zegoen, baina, gobernu militarreko funtzionario zibil arduradunaren hitzetan —*Staatsrat* kargua zuen Harald Turner delako bat zen—, «juduak esparruetan dauzkagu [nolanahi ere]; azken finean, horiek ere serbiar herritarrak dira, eta, gainera, desagertu egin behar dute». (Raul Hilberg-ek aipatua, *The Destruction of the European Jews*, 1961). Esparru haiek Franz Böhme jeneralak antolatu zituen, eskualde hartako gobernari militarrek, eta haietan gizonezko juduak bakarrik zeuden. Ez Böhme jeneralak ez Turnerrek ez zioten Eichmannen onespenerari itxaron juduak eta ijitoak milaka hiltzeko. Arazoak, ordea, hasi ziren Böhmek, zegokion poliziarri eta SSetako agintariei ezer ere galdetu gabe, bere judu guztiak *deportatzea* erabaki zuenean, erakusteagatik segur aski Serbia *judenrein* uzteko ez zela beste agente baten mendeko gudaroste berezien premiarik. Eichmann jakinaren gainean jarri zuten, deportazio-gai bat zenez gero, baina ez zuen ekimen hura onetsi nahi izan, beste planekin nahastuko zelakoan; baina ez zen Eichmann izan, Martin Luther baizik, Atzerri Gaietako funtzionarioa zena, Böhme jeneralari gogorarazi ziona, nola «beste lurralde batzuetan [Errusia zuen gogoan] beste komandante militar batzuk judu kopuru askoz ere handiagoz arduratu diren, ezer aipatzen nekatu ere gabe». Nolanahi dela ere, baldin Eichmannek egiaz «fusilatzea proposatu» bazuen, jarraitzeko egiten aspalditik egiten zutena esan zien militarrei, ez bestelakorik, eta trukeko juduen auzia erabat zela haien eskumenekoa. Bistakoa zenez, gai hau armadari zegokion, gizasemeak bakarrik baitziren. Azken Soluzioa sei bat hilabete geroago jarri zen abian Serbian, emakumeak eta haurrak atxilotu eta gas-kamioi mugikorretara eramanez zituztenean. Galdeketa, Eichmannek, ohi zuen bezala, azalpenik nahasiena eta probabilitate gutxienekoa aukeratu zuen: Rademacher-ek Reicharen

Segurtasunerako Bulego Nagusiaren babesaren premia izan zuen (huraxe zen Eichmannena), Atzerriko Arazoetako Ministerioan bere erabakia aldezteko, eta, hortaz, dokumentua faltsutu egin zuen. (Rademacherrek berak askoz ere modu arrazoizkoagoan azaldu zuen gertakaria bere epaiketan, 1952an, Mendebaldeko Alemaniako epaileen aurrean: «Armada zen Serbian ordenaren erantzulea, eta armadak hil behar izan zituen judu matxinatuak». Azalpen horrek sinesgarriagoa ematen du, baina gezurrezkoa da zeharo, bai baitakigu —iturri nazietatik— juduak ez zirela «matxinoak»). Zaila bazen telefonoaren bidez egindako ohar bat interpretatzea, are zailagoa zen Eichmann armadako jeneralei aginduak emateko moduan zegoela sinestea.

Erruduna zela deklaratu ote zuen Eichmannek erailketen konplizea izateaz akusatu balute? Baliteke hala izatea, baina zenbait puntu garrantzitsu zehaztuko zituen. Eichmannek egin zuena atzera begira bakarrik zen krimena, eta beti izan zen legea betetzen zuen herritarra, zeren Hitlerren aginduek —Eichmannek inondik ere ahal zuen ondoena bete zituenak—, «legearen indarra» izan baitzuten Hirugarren Reichen. (Defentsak bazuen aipatzea, Eichmannen tesiaren alde, Hirugarren Reicheko lege konstituzionaleko aditu famatuenetako baten lekukotasuna, Theodor Maunz-ena, zeina garai hartan Bavariako Heziketa eta Kulturako Ministroa baitzen. Hala zioen [*Gestalt und Recht der Polizei* lanean, 1943an]: «Führerraren agintea da... gaurko lege-antolamenduaren ardatz erabatekoa»). Juizioan Eichmanni beste era batera jokatu ahal izan zuela esaten ziotenek, edo ez zekiten, edo ahaztu egin zitzairen, nola ziren gauzak. Eichmannek ez zuen izan nahi «beti Hitlerren kontra egon zirelako» itxurak egiten zituzten baina gero agintzen zitzaiena betetzeko desiratzen zeuden haietako bat. Nolanahi ere, denborak aldatu egiten dira, eta Eichmann, Maunz irakaslea bezala, «bestelako ikuspuntuak izatera heldu» zen. Egin zuena egina zen, ez zuen ukatu nahi; areago, «neure burua jendaurrean urkatzea, lur honetako antisemita guztien eredu eta ohartarazpen gisa» proposatzen zuen. Horrekin ez zuen esan nahi ezertaz damutzen zenik: «Damua haurtxo txikien gauza da». (*Sic!*)

Bere abokatuaren aldetik presio handia izan bazuen ere, Eichmann ez zen posizio horretatik aldatu. Juizioan Himmlerrek 1944an egin zuen eskaintza aipatu zelarik —milioi bat judu hamar mila kamioiren truke—, zer eginkizun betetzen zuen berak plan

hartan galdetu zioten Eichmanni: «Akusatu jauna, zure nagusiekiko negoziazioetan, adierazi al zenuen juduenganako errukirik eta aipatu al zenuen haiei laguntzeko aukerarik?». Eta Eichmannek ondoko hau erantzun zuen: «Zinpean nago hemen eta egia esan behar dut. Nik ez nuen truke hau errukiak bultzatuta abian jarri» —hori ondo legoke, salbu negoziazio hura ez zuela Eichmannek «abian jarri». Baina hizketan jarraitu zuen, egiaz orduko hartan: «Gaur goizean azaldu ditut nire arrazoiak» eta ondoko hauek ziren: Himmlerrek gizon bat bidalia zuen Budapestera juduen emigrazio-gaiez ardura zedin (emigrazioa, bidenabar esango dugu, negozio oparoa bihurtu zen, diru-kopuru ikaragarrien truke, juduek ihesa eros baitzezaketen, baina Eichmannek, nolanahi ere, ez zuen horren aipamenik egin), eta, hura zela-eta, «emigrazio-gaiez polizia indarretakoa ez zen gizon bat arduratzen» zen; hura gogoratzeak amorratzen jartzen zuen, «zeren deportazioan esku hartu behar izan bainuen, eta emigrazio-gaiak, haietan aditua ni nintzen arren, unitatean berria zen gizon bati izendatu zitzaizkion... Nazkatua nengoen... Zer edo zer egin behar nuela erabaki nuen emigrazio-gaiak neure eskuetara igaro zitezen».

Epaiketan, Eichmann, gehienetan arrakastarik gabe, bere «errugabea, salaketa egiten den zentzuan» apelazioaren bigarren puntua argitzen saiatu zen. Salaketak esan nahi zuen, ez bakarrik Eichmann berariak jarduna zela, eta hori ez zuen berak ukatzen, baizik eta motibo zitalengatik eta bere egintzen nolakotasun kriminala ondo ezaguturik jardun zela. Motibo zitalei dagokionez, Eichmann guztiz seguru zegoen bera ez zela, barru-barruan, *innerer Schweinehund* bat, zerri zital bat; eta bere kontzientziari zegokionez, primeran gogoratzen zuen kontzientzia txarra izango zuela baldin egiteko agindu ziotena egin izan ez balu, hots, milioika gizon, emakume eta haur ardurarik handienaz heriotzara igorri. Hori, esan beharra dago, zaila zen sinesten. Dozena erdi bat psikiatrak «normala» zela adierazi zuten; «normalagoa, inondik ere, ni bera aztertu ondoren naizena baino», esan omen zuen haietako batek; beste bati, berriz, iruditu zitzaion haren ezaugarri psikologiko guztiak, emazte eta haurrenganako, aita-amenganako, anai-arreba eta adiskideenganako jarrera, oro har, «normala ez ezik, guztiz desiragarria ere» bazela; eta azkenik, Auzitegi Nagusiak haren apelazioa entzuten bukatu ondoren, kartzelan bisitatu ohi zuen apaizak Eichmann «oso ideia positiboak zituen gizona» zela adierazi zuen. Arimako adituen komediaren atzean datu

dudagabe bat zegoen, Eichmannena, argi zegoen, ez zela eromenezko kasu bat, ez moralari, eta are gutxiago legeari zegokionez. (Hausner jaunak *Saturday Evening Posten* egin berri dituen adierazpenek, gauza batzuk «ezin zituela epaiketari adierazi» esanez, Jerusalem informalki eman zen informazioa ezeztatzen dute. Eichmann, esaten digute orain, psikiatrek adierazi dutenez, «hiltzeko irrika arriskutsu eta ezin asezko batekin obsesionaturiko gizon bat» omen zen, eta «nortasun perbertitua, sadikoa» zuen. Hala balitz, eroetxe batera joan beharko zukeen). Are okerrago, argi zegoen Eichmannen kasuan ez zegoea juduenganako gorroto gaiztorik, antisemitismo fanatikorik edo bestelako doktrinatze-konturik. Eichmannek, «bereiz», ez zuen inoiz ezer izan juduen kontrarik; aitzitik, «arrazoi pribatu» asko zeukan juduei gorrotorik ez izateko. Egia da bazirela antisemita fanatikoak haren adiskide minen artean, hala adibidez László Endre, Hungariako Gai Politiko (Juduetako) ardura zuen Estatuko Idazkaria, 1946an Budapesten urkatu zutena; baina hori, Eichmannen arabera, «nire adiskide minenetako batzuk antisemitak dira» esaten duenaren modukoa zen, gutxi gorabehera.

Inork ez zion sinetsi ordea. Fiskalak ez zion sinetsi, beraren lana akusatuari ez sinestea zelako. Defentsaren abokatuak ez zion jaramonik egin, zeren hura, Eichmann ez bezala, eta itxura guztien arabera, ez baitzegoen kontzientzia-gaietan interesatua. Eta epaileek ez zioten sinetsi, onegiak zirelako eta agian beren ogibidearen oinarrien jakitunegiak zirelako, eta ezin zuten onartu pertsona arrunt, «normal» bat, ez buruz atzeratua, ez doktrinatu ezta zinikoa ere, guztiz ezgauza izan zitekeenik zuzena eta okerra bereizteko. Nahiago izan zuten, zenbait gezurretan oinarriturik, gezurti bat zela erabakitzea; eta, modu horretan, ez zioten kasu osoaren erronka moral eta legal handienari heldu. Epaileentzat, akusazioaren oinarrian hipotesi bat zegoen, hots, akusatuak, «pertsona normal» guztiek bezala, jakin behar zuela bere egintzak kriminalak zirela, eta Eichmann, izan, normala zen, «erregimen naziaren baitan salbuespena ez zen» neurrian. Nolanahi ere, Hirugarren Reicharen baldintzen pean, espero izateko gauza zen «salbuespenek» baizik ez zutela «normal» jokatu. Egia guztiz soil honek ez konpondu ez saihestu ezin zuten dilema bat sortu zien epaileei.

Eichmann martxoaren 19an jaio zen, 1906an, Solingen-en, labana, guraize eta kirurgia-tresnek famatu duten Rhineland-eko hirian.

Berrogeita hamalau urte geroago, bere denbora-pasarik kutunenean ari zela, bere memoriak idazten, hona nola deskribatzen zuen gertaera gogoangarri hura: «Gaur, 1945eko maiatzaren 8tik hamabost urte eta egun bat igaro diren honetan, nire pentsamenduak 1906. urteko martxoaren 19ra hasi naiz atzera gidatzen, egun hartan, goizeko bostetan, gizaki baten itxura hartuta sartu bainintzen lur honetako bizitzan». (Israeldar agintariek ez dute eskuizkribua kaleratu. Harry Mulisch-ek autobiografia hau «ordu erdi batez» aztertzea lortu zuen, eta *Der Aufbau* aleman-judu astekariak zati labur batzuk argitaratu zituen). Eichmannen erlijio-sinesteen arabera, bere horretan jarraitzen baitute nazien garaiaz gero (Jerusalem, Eichmannek uko egin zion Bibliaren gainean zin egiteari eta *Gottgläubiger* bat zela adierazi zuen; naziek kristautasuna baztertu dutenak izendatzeko erabiltzen zuten hitza da), gertaera hori «Esanahi Eramaille goren» bati behar zitzaion egotzi, «unibertsoaren mugimenduaren» nolabait ere berdina zen izaki bati, eta hari dago lotua giza bizitza, berez «esanahi gorenik» gabea. (Terminologia bera oso adierazgarria da. Jainkoari *Höheren Sinnesträger* deitzeak, hizkuntzaren aldetik, hierarkia militarrean ipintzen dela esan nahi du, militarren «agindu-hartzaile» zena, hau da, *Befehlsempfänger* deitzen zena, naziek «agindu-eramaile» bihurtu baitzuten, hau da, *Befehlsträger*, zeinak, «albiste txarren eramaile» zahar hark bezala, adierazten baitu nolako zama handia eraman behar zuten, erantzukizunari eta garrantziari zegokienez, aginduak bete behar zituzten haiek. Areago, Eichmann, Azken Soluzioarekin lotutako guztiak bezala, «sekreto-eramailea» zen ofizialki, *Geheimnisträger* bat, eta hori, norberaren harrotasunari zegokionez, ez zen inondik ere txantxetako gauza). Eichmannek, ordea, ez baitzen oso gizon metafisikazalea, aipatu ere ez zuen egin esanahi-eramailearen eta agindu-eramailearen arteko harreman estua, eta bere existentziaren beste kausa posible bat aztertzeari eman zitzaion: gurasoak. «Nekez egongo ziren horren pozik beren aurreneko semearen etorrerarekin, ikusi ahal izan balute nola, nire jaiotzaren orduan dagoeneko, zoritxarraren aztia, zorionaren aztiari gaina harturik, atsekabezko eta penazko hariak ari zen nire bizitzan iruten. Baina belo atsegin, ezin sartuzko batek, etorkizuna ikustea galarazten zien nire gurasoei».

Zoritxarra nahiko azkar hasi zen: eskolan. Eichmannen aita Solingengo Tranbia eta Elektrizitate Konpainiako kontularia izan zen aurrena, eta 1913az geroztik enpresa bereko funtzionarioa Austrian,

Linz-en. Bost haur izan zituen, lau seme eta alaba bat, eta haietatik bakarra, Adolf, zaharrena, ez zen gauza izan unibertsitate-ikasketak amaitzeko, ezta unibertsitatearen ondoren eraman zuten ingeniartzako lanbide eskolan graduatzeko ere. Bizitza osoan zehar, bere gaztetako «ezbehar» haiek aitaren finantza-zoritxar ohoragarriagoen atzean ezkutatu zituen Eichmannek. Israelen, nolana ere, Avner Less kapitainarekin egin zuen lehen saioan —Eichmannekin 35 bat egun emango zituen polizia-galdekatzaila zen Less; 3.564 orri idatzi zituen makinaz, 76 grabazio-zintetatik kopiaituak—, izugarri umore onekoa egon zen, guztiz gogobero aukera bakar hura zela-eta, «dakidan guztia... botatzeko», eta, era berean, inoiz izan den akusaturik lagungarrienaren mailara heltzeko. (Laster epelduko zen gogoberotasun hura, ezin gezurtatzeko dokumentuetan oinarritzen ziren galderi aurre egin behar izan zienean, nahiz eta ez zen inoiz erabat desagertu). Less kapitainarekin, ageriko gauza denez, alferrik xahutu zuen hasierako segurtasun mugagabearen frogarik hoberena da nola bizitzan aurrenekoak bere lehen porrotak onartu zituen (hala esan omen zion Lessek Harry Mulisch-i: «Eichmanen apaiz aitorlea izan nintzen»), nahiz eta ondo konturatu behar zuen bere burua gezurtatzen zuela bere txosten nazi ofizial guztietako zenbait datu garrantzitsuri zegokionez.

Porrotak ohikoak ziren, horra: nola «ez baitzen ikasle saiatuena esaten zaiona izan» —edo, erants daiteke, argiena—, aita lehendabizi unibertsitatetik eta gero lanbide-eskolatik atera zuen, graduatu baino askoz ere lehenago. Hala, dokumentu ofizialetan ageri den ogibidea (eraikuntza-ingeniaria), Palestinan jaioa zela eta hebreeraz eta yiddishez erraztasun handia zuela esatea bezain lotua zegoen errealitatearekin (beste gezur handiak, Eichmannek bai SSetako lankideei, bai bere biktima juduei kontatzen zizkionak). Ildo beretik, Alderdi Nazionalsozialistako kidea izateagatik bota zutela Austriako Vacuum Oil Company saltzaile gisa zuen lanpostutik kontatzen zuen beti. Less kapitainari kontatu zion bertsioa ez zen horren dramatikoa, nahiz eta segur aski hura ere gezurra izan: langabezia-garaia zelako kaleratu zuten, eta enplegatu ezkongabeak izaten ziren lanpostua galtzen aurrenekoak. (Azalpen horrek, hasieran sinesgarria dirudien arren, ez du asko-asko asetzen, Eichmannek lana 1933an galdu baitzuen, eta bi urte zeramatzan gero esposatuko zuen Veronika edo Vera Liebi-ren senargai gisa. Zergatik ez ziren lehenago ezkondu, Eichmannek artean lanpostu on bat zeukanean? 1935eko martxoan

ezkondu zen azkenean, segur aski ezkongabeak SSetan, Vacuum Oil Companyn bezala, ez zeudelako lanpostuan oso seguru, eta ez zuten gora egiteko aukerarik izaten). Argi dago, ahoberokerian aritzea izan zen beti Eichmannen bizio nagusietako bat.

Eichmann gaztea eskolan zebilen bitartean, nahiko emaitza kaskarrekin, haren aitak Tranbia eta Elektrizitate Konpainia utzi eta bere negozio propioa sortu zuen. Meatze-enpresa txiki bat erosita, hantxe jarri zuen lanean bere seme etorkizun-motza, meatzetako langile arrunt baten moduan, harik eta Oberösterreichischen Elektrobau Companyn saltzaile gisa lanpostu bat aurkitu zion arte. Han egon zen Eichmann bi urtez. Hogeita bi urte zituen orduan, eta bizimoduan gora egiteko itxaropenik ez; ikasi zuen gauza bakarra, agian, saltzen izan zen. Orduan gertatu zen berak bere lehen abagunea deitzen zuena; horretaz, berriz ere, bi bertsio aski diferente ditugu. 1939an, SSetan goragoko postu bat eskuratzeko, aurkeztu zuen txosten biografiko batean, honela deskribatzen du: «1925-1927 urteetan saltzaile gisa lan egin nuen Austriar Elektrobau Companyn. Lanpostu hura neure borondatez utzi nuen, Vienako Vacuum Oil Companyk Austria Garaiko ordezkarietza eskaini zidanean». «Eskaini» da hor giltza-hitza, zeren, Less kapitainari Israelen kontatu zion istorioaren arabera, inork ez baitzion ezer eskaini. Hamar urte zituela ama hil zitzaion, eta aita berriz ezkondu zen. Bere amaordearen lehengusu batek —«osaba» esaten zion gizon bat zen—, zeina Austriako Automobil Klubeko lehendakaria baitzen, Txekoslovakiako negozio-gizon judu baten alabarekin ezkondua, Austriako Vacuum Oil Companyko zuzendari nagusiarekin zituen harremanak baliatu zituen —Weiss jauna izeneko judu bat zen—, bere ahaide zorigabearentzat lanpostu bat lortzeko, saltzaile bidaiari gisa. Eichmannek asmatu zuen hura eskertzen: bere familiako juduak ziren juduak ez gorrotatzeko zituen «arrazoi pribatu» haietako batzuk. 1943an edo 1944an ere, Azken Soluzioa bete-betean zegoenean, ez zuen hura ahaztu: «Ezkontza hartako alaba, Nurenbergeko legeen arabera erdi judua zena... nigana etorri zen, Suitzara emigratzeko baimena eman niezaion. Bete nuen eskatutakoa, jakina, eta osaba bera etorri zitzaidan gero Vienako bikote judu baten alde esku hartuko ote nuen eskatzera. Nik juduak ez nituela gorrotatzen erakusteko bakarrik aipatu dut hori, zeren nire heziketa guztia, aita-amen bitartez, kristaua izan baitzen; amak, bere ahaide juduak zirela-eta, SSetako zirkuluetan ohikoak zirenak ez bezalako iritziak zituen».

Eichmann asko luzatu zen puntu hau frogatzen: inoiz ez zuen bere biktimenganako sentimendu gaiztorik izan, eta, areago, ez zuen bere jarrera inoiz ezkutatu. «Halaxe agertu nion Löwenherz doktoreari [Vienako judu-komunitateko burua], Kastner doktoreari agertu nion bezala [Budapesteko erakunde sionistako lehendakariordea]; nik uste dut denei esan niela, nire gizon guztiek zekiten, denek entzun zidaten behin edo behin. Lehen hezkuntzako eskolan bertan ere, banuen ikaskide bat denbora librean nirekin ibiltzen zena, eta gure etxera etortzen zen; Linzeko familia batekoa zen, Sebba zeritzana. Azkeneko aldiz topo egin genuenean, Linzeko kaleetan ibili ginen elkarrekin, eta nik ordurako N.S.D.A.P.aren ikurra [Alderdi Naziarena] neraman botoi-zuloan, eta hari ez zitzaion aparteko gauza irudit». Eichmann hain melenga izan ez balitz, edo polizia-galdeketa (ez zitzaion birgalderarik egin, uste izatekoa denez, haren lankidetzatza segurtatzeko) hain diskretoa izan ez balitz, beste modu batean agertuko zen haren «aurreiritzi falta». Dirudenez, Vienan, juduen «emigrazio behartua» antolatzen halako arrakasta izan zuen hirian, Eichmannek maitale judu bat izan zuen, Linzeko «neskalaguna izandako» bat. *Rassenschande*, hau da, juduekin sexu-harremanak izatea, huraxe bide zen SSetako kide batek egin zezakeen deliturik handiena, eta nahiz eta gerra-garaian neska juduak bortxatzea izan fronteko denbora-pasa kutunenetako bat, ez zen inola ere gauza arrunta SSetako ofizial bat emakume judu batekin amodio-kontuetan ibiltzea. Hala, Eichmannek behin eta berriz salatu zuen Julius Streicher, *Der Stürmer* aldizkariaren argitaratzaile zoro lizuna eta haren antisemitismo pornografikoa; salaketa haiek bazuten agian motibo pertsonalik, eta SSetako gizon «argitu» batek alderdiko beheragoko mailakoen grina arrunten errutinazko mespretxuaren adierazpena ez ezik, gehiago ere baziren.

Vacuum Oil Companyn eman zituen bost aste eta erdiak Eichmannen bizitzako zoriontsuenak izan bide ziren. Bizimodua oso ondo ateratzen zuen langabezia handia zen garai batean, eta artean gurasoekin bizi zen, errepidean zebilenean izan ezik. Aldi goxo hura bukatu zen data zen —1933ko Mendekoste— gogoan zuen bakarretako bat. Izan ere, lehentxeago gauzak okerrera eginak ziren. 1932ko bukaeran, uste ez zuela, Linzetik Salzburgora bidali zuten, bere nahiaren kontra guztiz: «Nire lanaren gustua erabat galdu nuen, saltzeko, etxez etxe ibiltzeko gustua galdu nuen». Bizitza osoan sufrituko zituen Eichmannek *Arbeitsfreude* haren bat-bateko galerak.

Denetan okerrenea Führerraren «juduen deuseztatze fisikoaren» aginduaren berri eman ziotenean gertatu zen, Eichmannek halako eginkizun garrantzitsua beteko zuena. Hura ere uste ez zuela etorri zitzaion; berari ez omen zitzaion «inoiz bururatu... halako soluzio bat, bortizkeriazkoa», eta Salzburgoko aldaketa kontatzeko esan zituen hitz berekin deskribatu zuen bere erreakzioa: «Une hartan dena galdu nuen, nire lanaren poz guztia, ekimen-indar guztia, interes guztia; nolabait esateko, jota geratu nintzen». Antzeko zerbait gertatu behar izan zuen 1932an Salzburgon, eta berak kontatu zuenagatik argi dago ez zela asko harritu lanetik bota zutenean, nahiz eta haren hitzak ez direnitsu-itsuan sinetsi behar esaten zuenean «oso pozik» zegoela kaleratu zutelako.

Nolanahidelaxe, 1932. urtea erabakigarria izan zen Eichmannen bizitzan. Urte hartako apirilean sartu zen Alderdi Nazionalsozialistan eta SSetan, Ernst Kaltenbrunner-ek gonbidaturik. Kaltenbrunner Linzeko legegizon gazte bat zen, geroago Reicharen Segurtasuneko Bulego Nagusiko buru bihurtuko zena (*Reichssicherheitshauptamt* edo RSHA, hemendik aurrera deituko dudana bezala), eta haren sei sail nagusietako batean —IV. Bulegoan, Heinrich Müller-en agintepean— enplegatu zuten Eichmann, B-4 saileko buru gisa. Auzitegian, Eichmannek klase ertain-beheko ohiko kidea izateko itxura zuen, espetxean zegoen bitartean esan edo idatzi zituenek areagotua. Itxura hura, ordea, engainagarria zen; areago zen maila ertaineko familia sendo bateko seme *déclassé* bat, eta berebat da gizarte-estatusaren beheraldia horren adierazgarri bat, Eichmannen aita orobat Linzeko legegizona zen Kaltenbrunnerren aitaren adiskide mina izan zelarik, aski hotza izan zela semeen arteko harremana: Eichmann, argi eta garbi, gizartean bera baino gutxiago bailitzan tratatzen zuen Kaltenbrunnerrek. Eichmannek alderdian eta SSetan sartu baino lehen frogatu zuen elkartzalea zela, eta 1945eko maiatzaren 8a, Alemaniaren porrotaren data ofiziala, garrantzi handikoa izan zen harentzat, batez ere orduan konturatu zelako inongo kide izan gabe bizi beharko zuela handik aurrera. «Buruzagirik gabeko bizimodu bat egin beharko nuela sumatu nuen, banakakoa eta zaila, ez nuela inorengandik zuzentzararik jasoko, ez zidatela sekula berriz agindurik emango, ez zidatela arauen gaineko kontsultarik egingo; laburtuz, lehendik ezagutzen ez nuen bizimodu bat nuen aurrean». Haurra zenean, gurasoek —ez zuten interesik politikan—, Eichmann Kristau Gazteen Elkartean sartu

zuten, eta handik gero *Wandervogel* alemaniar gazte-mugimendura igaro zen. Unibertsitatean eman zituen lau urte arrakastarik gabeetan, alemaniar-austriar gerrako beteranoen *Jungfrontkämpfverband* gazte-erakundean sartu zen, zeina, guztiz Alemaniazalea eta errepublikaren kontrakoa izanagatik ere, austriar gobernuak toleratu egiten zuen. Kaltenbrunnerrek SSetan sartzea proposatu zionean, Eichmann erabat bestelakoa zen talde batean sartzekotan zegoen, Schlaraffia Framazonen Logian, «negozio-gizonen, sendagileen, antzezleen, funtzionarioen eta abarren elkarte, dibertsioa eta umore ona lantzeko elkartzen zena... Taldekideek hitzaldi bana eman behar zuten noizean behin, eta hitzaldiaren tonuak umoretsua, umore finekoa behar zuen izan». Kaltenbrunnerrek elkarte alai hura utzi beharko zuela azaldu zion Eichmanni, nazi gisa ezin baitzuen framazoia izan, Eichmannek garai hartan ezagutzen ez zuen hitza. SSen eta Schiaraffiaren artean aukeratzea (Schiaraffia izena *Schlaraffenland*-etik dator, germaniar ipuinetako Mauka Herria), zaila gerta zitekeen, baina nolanahi ere Schiaraffiatik «bota» egin zuten; Israeleko kartzelan kontatzen zuenean, oraindik ere lotsagorritzen zuen bekatu bat egin zuen: «Irakatsi zidatenaren kontra, saiatu nintzen, nahiz eta gazteena izan, nire lagunak baso bat ardo hartzera gonbidatzen».

Hosto bat denboraren zurrumbiloan nola, halaxe bidali zuten Eichmann Schiaraffiatik, magiak ipinitako mahaien eta ahora iristen zitzaizkizun oilasko errean Mauka Herri hartatik, edo, zehatzago esanda, tituluz eta karrera seguruz hornituriko eta «umore fineko» filistindar errespetagarrien lagunartetik —txantxetan aritzeko ezin eutsizko irrika zen haien biziorik okerreana—, nora eta hamabi urte eta hiru hilabete iraun zuen Mila Urteko Reicharen lerroetara. Nolanahi ere, alderdian ez zen hartan sineste sendoa zuelako sartu, eta alderdiaren ideiek ez zuten gainera inoiz asebate; zergatik sartu zen galdetzen ziotenean, kluxe deseroso bera errepikatzen zuen beti, Versailleseko Itunari eta langabeziari buruzkoa; areago, auzitegian seinalatu zuen bezala, «alderdiak irentsi banindu bezala zen, itxaropen guztien kontra eta alde zurreko erabakirik gabe. Oso azkar eta uste ez nuela gertatu zen». Astirik ez zuen, eta are gutxiago gogorik, behar bezala informatua egoteko, alderdiaren programa bera ez zuen ezagutzen, ez zuen *Mein Kampf* irakurri. Kaltenbrunnerrek esan zion: zergatik ez zara SSetan sartzen? Eta Eichmannek erantzun: eta zergatik ez? Halaxe gertatu zen, eta alferrik zen bestelako erantzunik bilatzea.

Baina besterik ere bazen, jakina. Eichmannek ez zion auzitegiko lehendakariari kontatu, hark egin zion galdeketa, gazte handinahi bat zela, eta Vacuum Oil Company berarekin nekatu baino lehen nekatu zela bera bere saltzaile bidaiari lanarekin. Zentzurik gabeko eta ondoriorik gabeko bizitza aspergarri batetik, haizeak Historiara eraman zuen, berak zioen bezala, alegia, beti mugimenduan zen Mugimendu batera, eta hartan bera bezalako norbait —porrota ordurako bere gizarte-klasearen, bere familiaren begietan, eta hortaz, baita bere begietan ere— abiapuntutik has zitekeen, eta gora samar egin. Eta nahiz eta egiten zuena beti gustukoa izan ez (adibidez, jendea trenetan gainezka sartu eta heriotzara bidali, emigratzera behartu orde), nahiz eta konturatu, azkar samar, kontu hura gaizki bukatuko zela, Alemaniak gerra galduko zuela, nahiz eta bere planik gogokoenak hutsean geratu (Europako judu guztiak Madagaskarrera bidaltzea, Poloniako Nisko eskualdean judu-lurralde bat antolatzea, bere Berlingo bulegoaren inguruan errusiar tankeei aurre egiteko defentsazko instalazioak eraikitzea), eta, nahiz eta, bere «pena eta nahigabe» handirako, SS *Obersturmbannführer* gradutik (lotinant koronelaren pareko gradua) sekula goratu ez; laburtuz, nahiz eta, Vienako urtearen salbuespenarekin, Eichmannen bizitza frustrazioz betea egon, inoiz ez zuen ahaztu zein izango zen haren alternatiba. Argentinan ez ezik, iheslariaren bizimodu tristea eginez, baita Jerusalemeko auzi-gelan ere, bizitza galdua zuenean, nahiago izango zuen —inork galdetu izan balio— *Obersturmbannführer aD* (erretiratu) baten gisan urkatua izan, bizimodu normal isila egitea baino, Austriako Vacuum Oil Companyn saltzaile bidaiari gisa.

Eichmannen karrera berriaren hasiera ez zen oso oparoa gertatu. 1933ko udaberrian, langabezian zegoela, Alemanian Hitlerrek boterea hartu zuela-eta, Austriako gobernuak alderdi naziaren eta haren kideen jarduera guztiak debekatu zituen. Baina hondamen gehigarri hura gabe ere, Eichmannek erabat baztertua zeukan Austriako alderdian karrera egiteko ideia: SSek berek ere beren ohiko lanpostu zibiletan jarraitzen zuten; Kaltenbrunnerrek bere aitaren abokatu-bulegoan lan egiten zuen artean. Eichmannek, hortaz, Alemaniara joatea erabaki zuen, gauza guztiz naturala, haren familiak beti eutsi baitzion aleman herritartasunari. (Horrek izan zuen garrantzirik epaiketari. Servatius doktoreak akusatuaren estradizio-eskaera egiteko eskatu zion Mendebaldeko Alemaniari, eta, estradiziorik ez bazen, defentsaren

gastuak ordaintzeko, eta Bonnek ezetz erantzun zuen, Eichmann ez zela aleman herritarra argudiatuz, ageriko gezurra zena). Passaun, Alemaniako muga, uste ez zuela saltzaile ibiltari bat zen ostera ere Eichmann, eta eskualdeko buruaren aurrean aurkeztu zenean, irrikaz galdetu zion «ba ote zuen loturaren bat Bavariako Vacuum Oil Companyrekin». Bere bizitzako atzerako beste jauzi bat izan zen hura; bai Argentinan bizi zenean, baita Jerusalemeko espetxean ere, nazi itxura zentzakaitz baten ikur agerikoen aurrez aurre jartzen zutenean, desenkusatzen zen esanez «Hara berriz ostera, betiko leloa [*die alte Tour*]». Baina segituan konpondu zuen Passauko beheraldia; hobe zuela entrenamendu militarra egiteko izena ematea esan ziotenean, «Niregatik oso ondo, esan nuen neure artean, zergatik ez soldadu bihurtu?» esan omen zuen, eta segituan bidali zuten Bavariako SSen esparruetara, Lechfeld eta Dachau-ra (Eichmannek ez zuen batere ikustekorik izan hango kontzentrazio-esparruarekin), haietan entrenatzen baitzen «Austriako Erbesteko Legioa». Hala, aleman pasaportea izan arren, bere modura, austriarra bihurtu zen. Esparru militar haietan egon zen 1933ko abuztutik 1934ko iraila arte, *Scharführer* (kaporal) mailaraino iritsi zen, eta denbora gogotik izan zuen soldadu-karrera bati heldu nahi ote zion ala ez pentsatzeko. Eichmannek berak kontatutakoaren arabera, gauza bakar batean nabarmendu zen hamalau hilabete haietan, eta hura izan zen zigor-ariketa, tema handiz egiten zuena, «oxala eskuak izoztuko balitzaizkit, horrela aitak eskularruak erosi beharko dizkit» dioen haur lainezosoaren tankera berean. Baina lehenengo promozioa ekarriko zioten dudazko plazer haiek alde batera utzita, oso garai gogorra izan zen hura Eichmannentzat: «Zerbitzu militarren errutina aspergarria, hura ezin nuen eraman, eguna joan eta eguna etorri gauza bera beti, behin eta berriz gauza bera». Hala, erotzeraino ere asperturik, *Reichsführer* SSen Segurtasun Zerbitzuan (Himmlerren *Sicherheitsdienst*, edo SD, hemendik aurrera deituko dudana bezala) lanpostu libreak zeudela aditu zuen, eta segituan egin zuen eskaera.

III: JUDU-AUZIETAKO ADITUA

1934an, Eichmannek lan baten eskaera egin eta lortu zuenean, SD aski egitura berria zen SSen baitan. Heinrich Himmlerrek sortu zuen bi urte lehenago alderdiaren informazio-zerbitzua izan zedin, eta une hartan Reinhardt Heydrichen agindupean zegoen; Heydrich itsas armadako informazio-ofiziala izandakoa zen, eta denborarekin, Gerald Reitlinger-ek esan zuen bezala, «Azken Soluzioaren egiazko ingeniaria» bihurtuko zen (*The Final Solution*, 1961). SDren aurreneko eginkizuna alderdiko kideak zelatatzea zen, era horretan SSak alderdiko aparatu erregularraren gainetik egon zitezen. Beste eginkizun gehigarri batzuk ere hartuko zituen geroago, eta, hala, Ezkutuko Polizia edo Gestapoko informazio- eta ikerketa-zentroa bihurtu zen. Haiek izan ziren SSak eta polizia bateratzearen aldeko aurreneko urratsak; nolanahi ere, ez ziren 1939ko iraila arte bateratu, nahiz eta Himmler 1936az geroztik aldi berean zen *Reichsführer* SS eta aleman poliziako burua. Eichmannek, jakina, ezin zuen etorkizuneko gertaera horien berri jakin, baina dirudienez SDren berri ere ez zekien bertan sartu zenean; litekeena da hori, SDren operazioak erabat sekretuak izan baitziren beti. Berari zegokionez behintzat, nahasketa bat izan zen dena, eta, hasieran, «desilusio handia. Zeren *Münchener Illustrierten Zeitungen* irakurri nuena zela uste bainuen nik; alderdiko goi-mailako ofizialak beren autoetan, eta autoetako ointokietan gizon zaindariai zutik... Laburtuz, *Reichsführer* SSetako Segurtasun Zerbitzua eta Reicheko Segurtasun Zerbitzua nahastu nituen (...) eta inork ez zidan ezer argitu, inork ez zidan ezer esan. Zeren ezertxo ere ez bainekien sartu berria nintzen erakundeaz». Egia esaten ari ote zen, horrek bazuen garrantzirik juizioan, Eichmann bere borondatez heldu ote zen postu hartara edo eraman egin ote zuten erabaki behar baitzen. Nahastea, nahasterik gertatu bazen, ez zen ulertzen zaila; SSak edo

Schutzstaffeln, berez, alderdiko buruzagiak babesteko xedea zuten unitate berezi gisa antolatu ziren.

Eichmannen desilusioa, nolanahi ere, berriz ere hutsetik hasi behar izatetik zetorren batez ere; behe-behean zen ostera ere, eta kontsolamendu bakarra zuen, bazirela beste batzuk ere hutsegite bera egin zutenak. Informazio-sailean ipini zuten, eta aurreneko eginkizuna framazoneriari zegokion informazio guztia sailkatzea izan zuen (nazien hasierako nahasmendu ideologikoan, judaismoarekin, katolikotasunarekin eta komunismoarekin batera sailkatzen baitzen), eta framazoneriaren museo bat antolatzen laguntzea. Aukera ona zuen, beraz, Kaltenbrunnerrek Schlaraffiaren gaineko solasaldian jaurtiki zion hitz bitxi hark zer esan nahi zuen jakiteko. (Bidenabar, esan dezagun oso berezkoa zutela naziek etsaiei eskainitako museoak antolatzeko grina. Gerra-garaian, zenbait erakunde gogor lehiatu ziren juduen kontrako museoak eta liburutegiak antolatzeko ohorea eskuratu nahian. Irrika arraro horri zor diogu Europako juduen kulturaren altxor handi asko eta asko salbatu izana). Arazoa zen gauzak oso-oso aspergarriak zirela berriz ere, eta Eichmann asko lasaitu zen, framazonerian lau edo bost hilabete eman ondoren, juduekin loturiko sail berrian ipini zutenean. Huraxe izan zen Jerusalemeko auzitegian bukatuko zen ibilbidearen egiazko abiapuntua.

1935. urtean Alemaniak, Versaillesko Itunean erabakitakoaren kontra, errekrutatze jenerala ezarri zuen, eta publikoki iragarri zituen berrarmatzeko planak, besteren artean aire- eta itsas armadak osatzea. Orobat urte hartan prestatu zuen Alemaniak, ez isilka, ezta ezkutuan ere, 1933an Nazio Batuetatik alde egin ondoren, Rhin ibaiaren eskualdeko zona desmilitarizatuaren okupazioa. Hitlerren bakezko hitzaldien garaia zen —«Alemaniak bakea behar du eta bakea desiratzen du», «Polonia herri handi eta nazionalki jakitun baten aberria dela aitortzen dugu», «Alemaniak ez du ez asmorik ez desirarik Austriako barne-arazoetan sartzeko, Austria anexionatzeko edo *Anschluss* bat egiteko»—, eta, garrantzitsuena dena, urte hartan eskuratu zuen nazien erregimenak begikotasun orokorra, eta, zoritxarrez, egiazkoa, Alemanian eta atzerrian, Hitler nonahi estatugizon handitza miresten zutenean. Alemanian bertan, trantsizio-garaia zen. Berrarmatze-programa ikaragarri bat zela medio, bukatua zen langabezia, hautsia zen langile klasearen hasierako erresistentzia,

eta erregimenaren bortizkeria, hasieran «antifaxisten» kontra zuzendu zena —komunisten, sozialisten, ezkerreko intelektualen eta posizio garrantzitsuetan zeuden juduen kontra—, ez zen artean juduak judu zirelako esatera bideratua.

Hura zela-eta, nazien gobernuak hartutako aurreneko erabakietako bat, lehenagokoa (1933koa), juduak administrazio publikotik urruntzea izan zen (eta horrek Alemanian esan nahi zuen, administrazioaz gainera, irakaskuntza osotik, lehen mailako eskolatik unibertsitatearaino, eta ikuskarien industriako adar gehienetatik, besteak beste irрати, antzerki, opera eta kontzertuen alorretik, urruntzen zirela), eta, oro har, kargu publiko guztietatik. Baina negozio pribatuak bere horretan jarraitu zuten gutxi asko 1938 arte, eta zuzenbidearen eta medikuntzaren alorretako lanpostuak ere pixkana baizik ez ziren ezeztatu, nahiz eta ikasle juduak unibertsitate gehienetatik baztertu zituzten eta inon ez zieten graduatzen uzten. Juduen emigrazioa, urte haietan, lasai samar eta oro har modu ordenatuan egin zen, eta berberak ziren juduentzat eta ez-juduentzat beren dirua edo beren diruaren parterik handiena hartzea gauza zaila, baina ez ordea ezin gaituztekoa bihurtzen zuten diru-mugak; Weimarko errepublikako garaiko araudiak ziren. Izaten ziren orduan halako *Einzelaktionen* batzuk —banakako egintzak, juduak beren jabetzak maiz prezio iragarri merkeetan saltzera behartzen zituztenak—, baina halakoak normalean hiri txikietan gertatzen ziren, eta, izan ere, beti izaten zuten erasoko osteetako kide handinahi batzuen «banakako» ekimenaren aztarrena, hau da, SA taldeak izaten ziren, zeinak, buruzagiak izan ezik, beheereneko gizarte-mailetan errekrutatuak izaten baitziren gehienak. Poliziak, egia da, ez zituen «gehegikeria» haiek inoiz galarazi, baina agintari naziei ez zitzaizkien askorik gustatzen, eraso haiek Alemania osoko etxebizitzan balioari eragiten baitzioten. Emigratzaileak, iheslari politikoak izan ezik, gazte jendea izaten ziren, Alemanian etorkizunik ez zutela konturatzen zirenak. Eta Europako beste herrialdeetan ere nekez izango zutela etorkizunik laster oharu zirelarik, emigratzaile judu batzuk itzuli egin ziren urte haietan. Galdetu ziotenean Eichmanni nola lotzen zituen juduei buruzko bere sentimendu pertsonalak eta kidetu berria zen alderdiaren antisemitismo ageriko bortitza, esaera zahar batekin erantzun zuen: «Su gainean beroenik janaria», judu askoren ahotan ere ibiltzen zen esaera. Engainaturik bizi ziren, eta, hala, zenbait urtez, Streicher bera ere juduen auziaren «legezko soluzio»

batez mintzatu zen. Judu alemanak engainuaz konturatu zitezen, beharrezkoa izan zen 1938ko azaroko aurrez antolaturiko pogroma, *Kristallnacht* edo Kristal Hautsien Gaua, zazpi mila bostehun bat erakusleihu hautsi, sinagoga guztiak erre, eta hoge mila gizon judu kontzentrazio-esparruetara eraman zirena.

Auzi honetan sarritan ahazten den puntu bat da Nurenbergeko lege famatuak —1935eko udazkenean eman zirenak—, huts egin zutela, juduek ez zutela alde egin. Juizioan, Alemaniako hiru lekukoren adierazpenek —gerra hasi baino lehentxeago Alemaniatic alde egin zuten erakunde sionistaren goi-mailako buruzagiak ziren— pixka bat baizik ez zuten argitu zein zen auziaren benetako egoera erregimen naziaren aurreneko bost urteetan. Nurenbergeko legeek eskubide politikoez gabetu zituzten juduak, ez ordea eskubide zibilez; ez ziren jadanik herritarrak (*Reichsbürger*), baina Alemaniako estatuko kideak izaten jarraitzen zuten (*Staatsangehörige*); emigratuz gero ere, ez ziren automatikoki aberrigabeak bihurtzen. Juduen eta alemanen arteko sexu-harremanak eta ezkontza mistoak debekatu ziren. Bestalde, berrogeita bost urtetik beherako aleman emakumeak ezin ziren etxe juduetan neskame egon. Lege horietatik azkenak baizik ez zeukan ondorio praktikorik; gainerakoek *de facto* zegoen egoera bat legeztatu baizik ez zuten egin. Hala, Nurenbergeko legeek juduen egoera berria egonkortu zuten, hala iruditzen zitzaien denei, Aleman Reichean. 1933ko urtarrilaren 30etik aurrera juduak bigarren mailako herritarrak izan ziren, leun esateko; gainerako biztanleriarekiko erabateko bereizketa asteetan edo hilabeteetan lortu zen, izuaren bitartez ez ezik, baita ingurukoak elkar hartuta zeudelako ere, guztiz modu nabarmenean. «Harresi bat zegoen jentilen eta juduen artean», adierazi zuen Benno Cohn Berlingo doktoreak, lekukotasuna ematean. «Ez naiz gogoratzen kristau bakar batekin ere hitz egin izanaz Alemania osoan barna egin nituen bidaia guztietan». Orain, hala ikusten zuten kontua juduek, beren lege bereziak zituzten, eta ezin ziren gehiago legez kanpokoak izan. Beren artean bizitzen baziren, nolanahi ere lehendik bizi behar zuten bezala, bakean bizi ahal izango ziren. Alemaniako juduen *Reichsvertretung* izenekoaren hitzetan (komunitate eta erakunde guztien elkarte nazionala, 1933ko irailean Berlingo komunitatearen ekimenez sortu zena, ez naziek antolatua), «aleman eta juduen arteko harremana eramangarria [bihurtuko] zen esparru bat sortzea» zen Nurenbergeko legeen asmoa, eta Berlingo komunitateko kide batek,

sionista erradikala zenak, erantsi zuen: «Edozein legeren azpian bizi liteke. Baina, zer egin daitekeen eta zer ez jakin gabe ez dago bizitzerik. Izan daiteke bat herritar probetxuzko eta errespetatu bat herri handi baten baitan, gutxiengo bateko kide gisa» (Hans Lamm, *Über die Entwicklung des deutschen Judentums*, 1951). Eta Hitlerrek, 1934ko Röhm-en osteen purgan, SA taldeen boterea hautsi zuenez gero —erasoko oste alkandora-marroiak, lehen pogrom eta izugarrikerien erantzule ia bakarrak—, eta juduak ez baitziren konturatzen erruz ari zela handitzen SS alkandora-beltzen boterea, haiek normalean ez baitzituzten erabiltzen Eichmannek mespretxuz «*Stürmeren* metodoak» deitzen zituenak, uste zuten, oro har, posible izango zela *modus vivendi* bat; areago, «juduen auziaren soluzioan» laguntzeko eskaintza ere egin zuten. Laburtuz, Eichmann juduen auzien berri ikasten hasi zenean —lau urte geroago, judu-gaietako «aditua» izatera ere iritsi zen—, eta funtzionario juduekin aurrenekoz harremanetan jarri zenean, bai sionistek eta bai asimilazionistek «berpizkunde judu» handi bat aipatzen zuten, «aleman juduen eraikuntza-mugimendu handi» bat, eta eztabaidan jarduten zuten oraindik, komeni ote zitzaien juduei emigratzea, haiek erabaki beharreko gauza balitz bezala.

Eichmannek nola sartu zen sail berrian azalduz poliziaren galdeketan egin zuen kontaketak —desitxuratua, jakina, baina ez egia-rik gabea guztiz—, modu bitxian, engainu huraxe gogorarazten du. Gertatu zen aurreneko gauza izan zen Eichmannen nagusi berriak —von Mildenstein delako batek, handik gutxira Albert Speer-en *Organisation Todt* eraikuntza-erakundera igaroko zenak, errepideen arduraduna izateko, hura ogibidez Eichmannek zela esaten zuena baitzen, ingeniaria—, Teodor Herzl-en *Der Judenstaat* irakurtzeko esan ziola, sionismoaren klasiko famatua, eta liburu hark sionismora bihurtu zuen Eichmann, segituan eta betiko. Hura izan zen nonbait Eichmannek irakurri zuen aurreneko liburu serioa, eta zirrara handia eragin zion. Handik aurrera, behin eta berriz esaten zuen bezala, nekez bururatzen zitzaion «politikoa» ez zen soluziorik (geroagoko «soluzio fisiko» bati kontrajarririk; aurrenekoak irazitzea esan nahi zuen, eta bigarrenak deuseztatzea) eta gogoan zerabilen beti «[lur sendoa [nola bilatu] juduen oinen azpian ipintzeko]». (Merezi du agian aipatzea, 1939an, oso berandu beraz, Eichmannek protestatu egin zuela Vienen Herzlen hilobiaren profanatzaileen kontra, eta badira lekukoak, Eichmann, zibilez jantzia, Herzlen heriotzaren hogeita hamabosgarren

urteurrenean ikusi zutenak. Harritzekoa, gauza horiez ez zuen hitz egin Jerusalemen, baina behin eta berriz harrotzen zen funtzionario juduekin zituen harreman onez). Jendea bere iritzira ekarri nahian, ebanjelioa zabaltzen hasi zen bere SSetako kideen artean, hitzaldiak emanez eta panfletoak idatziz. Oinarritzko hebreera ikasteko liburu bat erosi zuen gero, egunkari yiddishak nola edo hala irakurtzen laguntzen ziona —ez zen oso gauza zaila, yiddisha funtsean aleman dialekto zahar bat baita, hebrear letretan idatzia, eta edozein aleman hitzunik uler dezake, zenbait hebrear hitz ikasi badu. Beste liburu bat ere irakurri zuen, Adolf Böhm-en *Sionismoaren historia* (juizioan, behin eta berriz nahasten zuen Herzlen *Judenstaat* liburuarekin), eta lorpen garrantzitsua izan bide zen hura Eichmannentzat, egunkariak izan ezik, bere kabuz ezertxo ere irakurtzen ez, eta, aitaren nahigaberako, familiako liburutegiko libururik ere sekula erabili ez zuen gizona izanik. Böhm jarraituz, mugimendu sionistaren antolamendua aztertu zuen Eichmannek, haren alderdi eta gazte talde guztiak, programa desberdinak. Horrek guztiak ez zuen halare judu-auziaren espezialista bihurtzen, baina bulego sionistetako eta haien bileretako zelatari ofiziala izenda zezaten balio izan zion; eta merezi du azpimarratzea Eichmannek judu-auzietan izan zuen heziketa ia osorik sionismoarekin zegoela lotua.

Eichmannek funtzionario juduekin izan zituen lehen harreman pertsonalak —aspaldiko sionista ezagunak ziren denak—, oso onak izan ziren. «Juduen auziarekin» hainbesteraino liluratzeko arrazoa, azaldu zuen, bere «idealismo» propioa zen; judu sionistak, asimilazionistak ez bezala, Eichmannek haiek beti mespretxatu baitzituen, eta judu ortodoxoak ez bezala, aspergarriak gertatzen baitzitzaizkion, «idealistak» ziren, bera bezala. «Idealista» bat, Eichmannen arabera, ez zen huts-hutsik «ideia» batean sinesten zuen gizon bat, edo lapurtzen ez zuen edo ustelkeriarik onartzen ez zuena, nahiz eta ezaugarri horiek denak nahitaezkoak izan idealista izateko. «Idealista» bat bere ideiarentzat *bizi* zen gizon bat zen —hortaz, ezin zen negozio-gizona izan—, eta gauza guztiak, eta, bereziki, pertsona guztiak, bere ideiarekin alde sakrifikatzeko prest zegoena. Poliziaren galdeketa esan zuenean bere aita bera ere heriotzara bildaliko zuela hala eskatu baliote, ez zuen huts-hutsik azpimarratu nahi zenbateraino zegoen aginduen mendean, eta zenbateraino obeditzeko prest; berebat nahi zuen erakutsi nolako «idealista» izan zen bera beti. «Idealista» beteginak, beste edonork

bezala, bazituen bere sentimendu eta emozio pertsonalak, baina ez zuen sekula utziko sentimendu eta emozio haiek bere egintzak oztopa zitzaizten, bere «ideiaren» kontrakoak gertatuz gero. Rudolf Kastner doktorea izan zen Eichmannek juduen artean sekula aurkitu zuen «idealistik» handiena. Harekin Hungariako juduen deportazioa negoziatu zuen, eta hitzarmen batera heldu ziren: berak, Eichmannek, utziko zien milaka judu batzuei «legearen kontra» Palestinara abiatzen (trenak, izan ere, aleman poliziak zaintzen zituen), eta horren truke «lasaitasuna eta ordena» izango zen Auschwitzera abiapuntua ziren eta milaka eta milaka judu biltzen zituzten esparruetan. Akordioak salbaturiko milaka gutxi haiek, judu ospetsuak eta gazte-erakunde sionistetako kideak, «material biologiko hoberena» ziren Eichmannen hitzetan. Kastner doktoreak, Eichmannek ulertzen zuen moduan, bere «ideiaren» alde sakrifikatu zituen bere kide juduak, eta halaxe behar zuen. Benjamin Halevi epailea, Eichmannen juizioko hiru epaileetako bat, Kastnerren juizioko epaile nagusia izan zen Israelen. Han Kastnerrek bere burua defendatu behar izan zuen, Eichmannekin eta beste goi-mailako naziekin izandako harremanak zirela-eta; Haleviren iritzian, Kastnerrek «arima deabruari saldu zion». Orain, deabrua bera zegoen akusatuen aulkian, eta hura zer izango, eta «idealista», eta nahiz eta sinesten zaila ematen duen, litekeena da bere arima saldu zuena ere «idealista» izatea.

Hura guztia gertatu baino askoz ere lehenago, aurreneko aukera eman zitzaion Eichmanni bere ikasketa-garaian ikasi zuena praktikan aplikatzeko. *Anschlussa* (Austria Reichera sartzea) gertatu ondoren, 1938ko martxoan, Eichmann Vienara bidali zuten, emigrazio moduko bat antolatzen. Emigrazio modua hura guztiz ezezaguna zen Alemanian, bertan, 1938ko udazkena arte, juduei, nahi bazuten, herrialdetik alde egiten uzten zitzaielako fikzioari eutsi baitzitzaion. Aleman juduek fikzio hura sinesteko arrazoien artean, NSDAParen programa zegoen, 1920an idatzia, Weimarko konstituzioaren patu bitxi bera izan zuena: ez zen inoiz ofizialki baliogabetu. Areago, Hitlerrek «ezin ukituzkoak» deklaratu zituen haren hogeita bost puntuak. Geroagoako gertakizunen argitan ikusirik, konstituzio haren xedapen antisemitak kaltegabeak ziren, izan: juduak ezin ziren erabateko herritarrak izan, ezin ziren funtzionarioak izan, prentsatik baztertu behar ziren, eta aleman herritartasuna kendu egingo zitzaion 1914ko abuztuaren 2aren ondoren erosi zuten guztiei —Lehen Mundu Gerra hasi zen egunaren ondoren—,

hau da, Alemaniatik egotz zitezkeen. (Herritartasuna kentzea, espero izatekoa zenez, segituan bideratu zen, baina bost urte geroago gertatu zen, inork halakorik espero ez zuenean, hamabost bat mila juduren irazte sistematikoa, egun batetik bestera Zbaszyn-go poloniar mugara bultzatu zituztelarik, segituan hainbat esparrutara eramateko). Ofizial naziak ez zuten inoiz alderdiaren programa benetan hartu; harrotasunez esaten zuten berak mugimendu bateko kideak zirela, ez alderdi batekoak, eta mugimendu bat ezin zela programa baten bitartez zedarritu. Naziak boterera iritsi baino lehen ere, hogeita bost puntu haiek kontzesio bat baizik ez ziren izan, alderdi-sistemari eta aldeztu behar zuten alderdiaren programaren berri jakin nahi zezaketen boto-emaile zaharkituei egina. Eichmann, ikusi dugunez, usadio negargarri haietatik libre zegoen, eta egia esaten bide zuen Jerusalemeko auzitegian Hitlerren programa ez zuela ezagutzen adierazi zuenean: «Alderdiaren programak ez zuen axola, ondo zenekien non sartzen zinen». Juduak, beste muturrean, hain jende zaharkitua ziren non hogeita bost puntuak buruz baitzekizkiten, eta haietan sinesten zuten; alderdiaren programaren legezko inplementazioari kontra egiten zion gauza oro, kide edo talde disziplinagabeen «gehiegikeria iraultzaile» pasakorrei egotzen zizkieten.

Baina 1938ko martxoan Vienan gertatu zena arrunt bestelako gauza zen. Eichmannen eginkizuna «emigrazio behartu» gisa definitua zen, eta hitz haiek, hain justu, esaten zutena esan nahi zuten: judu guztiak, haien desirak edo herritartasuna aintzat hartu gabe, emigratzera behar ziren behartu; hau da, eguneroko hizkuntzan iraitzea esaten zaiona egitera. Bere bizitza osatzen zuten hamabi urteak gogoratzen zituen guztietan, Eichmannek Vienako urte hura azpimarratzen zuen, Austriar Juduen Emigrazio Zentroko burua izan zena, aldirik zoriontsu eta arrakastatsuena izan zelakoan. Lehentxeago, ofizial mailara igo zuten, eta *Untersturmführer* bihurtu zen, edo lotinanta; «etsaiaren, juduen, antolamendu-metodoen eta ideologiaren ezagutza zabala» zela medio gomendatu zuten postu hartarako. Vienako izendapena izan zen Eichmannen aurreneko eginkizun garrantzitsua, eta bere karrera osoa, mantso samar joan zena, zegoen orain jokoan. Gauzak ongi egiteko irrikaz zegoen nonbait, eta arrakasta ikusgarria izan zuen: zortzi hilabetea, berrogeita bost mila juduk alde egin zuten Austriatik (eta garai berean, hemeretzi mila judu baizik ez ziren Alemaniatik joan); hemezortzi hilabete baino gutxiagoan, Austria

ia ehun mila eta berrogeita hamabost lagunez «garbitua» zen, judu-biztanleriaren ehuneko hirurogeiaz gutxi gorabehera, eta haiek denak «legez» atereak ziren Austriatik; gerra hasi ondoren ere, hirurogei bat milak ihes egin ahal izan zuten. Nola lortu zuen Eichmannek hori? Hura dena bideratu zuen oinarritzko ideia ez zen Eichmannena berarena, baizik eta, ia seguru, Heydrichen zuzentarau berezi batetik zetorren, hark bidali baitzuen Eichmann Vienara. (Eichmannek ez zuen ideiarene egileztaz argi hitz egin, baina, nolanahi ere, inplikazioz, ideia berea zela adierazi zuen; israeldar agintariek, beste aldetik [Yad Vashem-en *Buletin*ak adierazi zuen moduan], «Adolf Eichmannen erantzukizun erabatekoaren tesi» fantasiazkoari heldu zioten, eta, are modu fantasiazkoagoan, «guztia atzean buru bakarra [hau da, Eichmannena] zegoelako» usteari; horrek asko lagundu zion Eichmanni besteren lumekin apaintzen, nolanahi ere, oso gustukoa zuen gauza). Ideia, Heydrichek *Kristallnachten* goizean Göring-ekin izan zuen bilera batean azaldu zuen bezala, ez zen konplikatu, eta nahiko burutsua zen: «Judu-komunitatearen bitartez, halako diru kopuru bat eskuratzen genuen emigratu nahi zuten judu aberatsengandik. Kopuru hori ordainduz, eta kopuru bat erantsiz, atzerriko dirutan, judu pobreek alde egin zezaketen. Arazoa ez zen judu aberatsak alde egitera bultzatzea, judu-jendailaz libratzea baizik». Eta «arazo» hura ez zuen Eichmannek konpondu. Juizioa bukatu ondoren jakin zen, Gerrako Dokumentaziorako Herbehereetako Institutuaren bidez, Erich Rajakowitsch izeneko batek —Eichmannek, beraren aitorpenaren arabera, «Viena, Praga eta Berlingo judu-emigrazioarentzako bulego nagusietan auzi legalez ardura zedin enplegatu zuen abokatu distiratsu» bat zen—, sortu zuela «emigrazio-funts» haien ideia. Geroxeago, 1941eko apirilean, Heydrichek Rajakowitsch Holandara bidali zuen, «han bulego nagusi bat antolatzeko, 'juduen auziaren soluzioarentzat' Europako herrialde okupatu guztietan ereduakoa izango zena».

Hala ere, arazo asko geratzen zen operazioa abian zenean baizik ezin bidera zitekeena, eta orduantxe konturatu zen Eichmann inondik ere, bizitzan aurreneko aldiz, bazituela halako ezaugarri berezi batzuk. Baziren bi gauza ondo egiten zituenak, bestek baino hobeto: gaitasun berezia zuen gauzak antolatzen eta gauzak negoziatzen. Vienara iritsi orduko, Austriako judu-komunitatearen ordezkariekin negoziazioetan hasi zen; horretarako, lehendabizi juduak espetxeetatik eta kontzentrazio-esparruetatik atera behar izan zituen, zeren

Austriako «kar iraultzaileak», Alemaniako hasierako «gehiagikeriak» aise gainditu zituen, judu ospetsu gehien-gehien espetxeratzea ekarri baitzuen. Esperientzia haren ondoren, funtzionario juduek ez zuten Eichmannen premiarik izan emigrazioa gauza komenigarria zela sinesteko. Areago, funtzionario juduek eman zioten Eichmanni sortuko ziren oztopo ikaragarrien berri. Diru-arazoaz aparte, hura ordurako «konpondua» baitzegoen, emigratzaile guztiek, alde egiteko, bildu behar zituzten paper kopuru handian zetzan eragozpen nagusia. Paper bakoitzak epe mugatu bateko balioa izaten zuen, eta, hala, azkeneko papera lortu baino askoz ere lehenago, amaitua izaten zen aurrenekoaren balioa. Behin Eichmannek ulertu zuenean kontuak nola funtzionatzen zuen, edo, areago, nola ez zuen funtzionatzen, «kontsulta egin zion bere buruari», eta, hala, «ideia bat bururatu zitzaidan, nire ustez bi alderdiei justizia egingo ziena». «Muntatze-kate bat [irudikatu zuen], hasieran aurreneko dokumentua jartzen zena, eta gero beste paperak, eta bukaeran pasaporte aterako zen, azken emaitza gisa». Hura egingarria zen, baldin beharrezko funtzionario guztiak —Finantza Ministerioa, zergen arduradunak, polizia, judu-komunitatea, etab.— teiltatu beraren azpian bazeuden, eta lana hantxe bertan egiten bazuten, eskatzailearen aurrean, era horretan ez baitzuen inork korrika ibili beharko bulegotik bulegora, eta, aldi berean, eskaera-egileak zenbait amarru umiliagarritz ere libratuko ziren segur aski, eta berebat aurreratuko zuten zenbait gastu, inor erosteko premiarik izango ez zutenez gero. Dena prest zegoenean eta muntaketa-katea bere lana txukun eta azkar egiten ari zenean, Eichmannek Berlingo funtzionario juduak «gonbidatu» zituen, dena ondo ikuska zezaten. Txundituak geratu ziren: «Honek fabrika automatiko bat ematen du, irin-fabrika bat, okindegiren batekin lotua. Mutur batean judu bat jartzen duzu, oraindik zerbait badaukana, lantegi bat, edo denda bat, edo bankuko kontu bat, eta juduak eraikina korritzen du, erakusmahai batetik bestera, bulegotik bulegora, eta batere dirurik gabe, batere eskubiderik gabe ateratzen da beste muturretik, pasaporte bat besterik ez daukala, honako hau dioena: hamabost egun baino lehen herrialde honetatik alde egin behar duzu. Gainerakoan kontzentrazio-esparru batera joango zara».

Hura, jakina, egia zen funtsean, baina ez zen egia osoa. Zeren judu haiek ezin baitziren «batere dirurik gabe» utzi, hain zuzen ere garai hartan dirurik gabe inongo herrialdek hartuko ez zituelako. Judu

haiek behar zuten, eta eman egin zitzaaien, *Vorzeigegeld* zeritzana, bisak eskuratzeko eta herrialde hartzaileko emigrazio-kontrolak igarotzeko erakutsi behar zuten dirua. Horretarako, dibisak behar ziren, eta Reichak ez zuen inolako asmorik dibisak juduekin xahutzeko. Premia horiek ezin ziren ase atzerriko herrialdeetako kontu korronte juduekin, zeinak, nolanahi ere, zailak baitziren eskuratzeko, urteetan legez kanpokoak izan baitziren; Eichmannek, hortaz, zenbait funtzionario judu bidali zuen atzerrira, judu-erakunde handiei diru-funtsak eska ziezazkieten; funts haiek orduan komunitate juduak balizko emigratzaileei saltzen zizkien, irabazi aski handi batekin: dolar bat, adibidez, 10 edo 20 markoren truke saltzen zen, mekartuko balioa 4,20 marko zenean. Modu horretan lortu zituen komunitateak, judu pobreentzako eta atzerrian konturik ez zuen jendearentzako beharrezko dirua ez ezik, baita bere jarduera ikaragarri zabaletarako behar zituen funts gehienak ere. Eichmannek, tratu hori egiteko, eragozpen handiak izan zituen Alemaniako finantza-agintarien aldetik, Ministeriotik eta Altxorretik, ederki konturatzen baitziren haiek eragiketa haiek guztiek markoaren debaluazioa ekarriko zutela.

Ahoberokeria zen Eichmann galtzen zuen bizioa. Larderia hutsa zen gerrako azken egunetan bere mutilei esan ziena: «Kontentu salto egingo dut hilobira, bost milioi juduren [edo «Reicharen etsaien», berak beti esaten omen zuen bezala] heriotza daramadalako kontzientzian, eta horrek poz handia ematen dit». Ez zuen salto egin, eta kontzientzian ezer baldin bazuen, hura ez zen hilketa, baizik eta, geroago agertuko zen bezala, nola behin matraileko bat eman zion Vienako judu-komunitateko buru Josef Löwenherz doktoreari, zeina denborarekin Eichmannen judu kuttunetako bat bihurtuko baitzen. (Gertatu zen unean, Eichmann desenkusatu egin zen nagusien aurrean, baina kontu hark hala ere traba egin zion beti). Bost milioi juduren heriotza, gutxi gorabehera ofizial eta agintari nazien ahalegin bateratuen ondorioz izandako galera guztira, beretzat hartzea, oso gauza barregarria zen, eta Eichmannek ondo asko zekien hori, baina esaldi kondenatzaile hura *ad nauseam* errepikatzen zion entzungo zuen edonori, baita hamabi urte geroago ere, Argentinan; izan ere, «sekulako bozkarioa ematen zion pentsatzeak era horretan aterako zela agertokitik». (Horst Grell *Legationsrat* ohiak, defentsaren lekukoa izan zenak, Eichmann Hungarian ezagutu zuelarik, bere iritziz Eichmann harrokeriaz ari zela adierazi zuen. Harrokeria hura agerikoa behar zitzaion gertatu baieztapen burugabe hura entzuen

zuen edonori). Harrokeria hutsa zen berak «asmatu» zuela ghettoaren sistema esatea, edota Europako judu guztiak Madagaskarrera eramateko ideia «berari bururatu zitzaiola». Theresienstadt-eko ghettoa —haren «aitatasuna» ere beretzat eskatzen zuen Eichmannek—, Ekialdeko lurralde okupatuetan ghettoen sistema ezarri eta zenbait urte geroago antolatu zen, eta zenbait kategoria pribilegiadunentzat ghetto berezi bat antolatzea, hura Heydrichen «ideia» izan zen, ghettoen sistema bera bezala. Madagaskarreko plana, dirudienez, Alemaniako Atzerriko Arazoetako Ministerioko bulegoetan «jaio» zen, eta Eichmannek berak hari erantsi zizkion xehetasunek, geroago jakin zenez, asko zor zioten haren Löwenherz doktore maiteari, berarengandik hartu baitzituen «zenbait oinarritzko pentsamendu», gerraren ondoren lau milioi judu Europatik ateratzeko moduari buruzkoak, segur aski Palestinara eramateko, Madagaskarreko proiektua erabateko sekretua zenez gero. (Juizioan, Löwenherz txostenaren gaia agertu zenean, Eichmannek ez zuen haren autoretza ukatu; hura izan zen egiaz lotsatua agertu zen une bakanetako bat). Izan ere, beti ahoberokerian jardun beharrak eragin zuen haren atxiloketa —«nekatua [omen] zegoen munduen arteko bidaiari izengabea izateaz»—, eta grina hori askoz ere indartsuagoa bihurtuko zen denbora igaro ahala, ez zuelako bere ustez merezi zuenik ezer egiteko, eta baita gerraondoko garaia «ospe» handi esperogabea ekarri ziolako ere.

Baina ahoberokeria bizio arrunta da, eta Eichmannen beste ezaugarri bereziagoa zen, eta orobat erabakigarriagoa, zeharo ezgauza zela beste pertsona baten ikuspegitik ezeri begiratzeko. Ezaugarri hori inon ez zen agerikoagoa gertatu Vienako gertaldiaren kontaktetan baino. Eichmann eta haren gizonak eta juduak «elkarlanean ari ziren», eta eragozpenak sortzen zirenean funtzionario juduak korrika joaten omen zitzaizkion «bihotzak arintzera», «beren nahigabe guztiak» kontatzera eta laguntza eskatzera. Juduek emigratzeko «gogo» zuten, eta bera, Eichmann, haiei laguntzeko zegoen, noiz eta agintari naziak beren Reicha *judenrein* ikusteko desira adierazi zuten garai berean. Bi desirak bat zetozen, eta berak, Eichmannek, «bi alderdiei justizia egin» ziezaiekeen. Juizioan, ez zuen amore ematen istorioaren parte hau ukitzen zenean, nahiz eta onartzen zuen juizioaren garaian, «denborak horrenbeste aldatu diren honetan», juduak ez zirela askorik poztuko «elkarlanean aritze» hura zela-eta, eta berak ez omen zituen haien «sentimenduak mindu nahi».

1960ko maitzaren 29tik 1961eko urtarrilaren 17a bitartean egin zen polizia-galdeketaaren grabazioaren alemanezko testua —Eichmannek berak zuzendu eta onetsi zituen orri guzti-guztiak—, urrezko altxorra da psikologo batentzat, baldin izugarrikeria, irrigarria ez ezik, guztiz barregarria ere izan daitekeela ulertzeko bezain zuhurra bada. Komediaren parte bat ezin da adierazi, Eichmannen aleman hizkuntzarekiko borroka heroikoari baitagokio, eta hizkuntza irteten da beti, hutsik egin gabe, garaile. Barregarria da mintzatzen denean, askotan, «hitz hegodunez» (*geflügelte Worte*, alemanezko lagunarteko adierazpidea, klasikoen aipamen ospetsuak adierazteko), esapideak, *Redensarten*, edo esloganak, *Schlagworte*, aipatu nahi dituenen. Barregarria izan zen, Sassenen dokumentuen gaineko galdeketa egin zenean, auzitegiko lehendakari nagusiak galdeketa alemanez gidatzen zuelarik, nola erabili zuen *kontra geben* esapidea (errefera eman), adierazi nahian ez ziela amore eman Sassenen desirei, bere istorioei gatz pixka bat eransteke eskatzen zionean; Landauk epaileak, argi geratu zenez, karta-jokoaren misterioen berri ez zekielarik, ez zuen hura ulertu, eta Eichmanni ez zitzaion bururatzen hura adierazteko beste modurik. Eskolan ere traba egingo zion akats baten jakitun zelarik nolabait ere —afasiako kasu arin bat izateraino iristen zen—, barkamena eskatu zuen, «hizkera burokratikoa [*Amtssprache*] da nire hizkuntza bakarra» esanez. Klíxea ez zen esaldi bakar bat esateko zinez ezigauza zelako bihurtu zen, ordea, jargoi burokratikoa Eichmannen hizkuntza. (Klíxe haiek al ziren psikiatrentzat hain gauza «normalak» eta «desiragarriak» zirenak? «Ideia positibo» haiek al ziren elizgizon batek arima zaintzen dien haiengandik espero dituenak? Jerusalem, haren buruko osasunaren eta osasun psikologikoaren ardura zuen polizia gazteak, lasai zedin, *Lolita* eman zionean erakutsi zuen argiena Eichmannek bere izaeraren alderdi positibo hori. Eichmannek, bi egunen ondoren, bueltan bidali zuen liburua, haserre bizian: «Hau arrunt liburu kaltegarria da» —«*Das ist aber ein sehr unerfreuliches Buch*»— esan zion zaindariari). Hori dela-eta, epaileak zuzen zeuden akusatuari azkenean aurpegiratu ziotenean esan zuen guztia «hitz-jario hutsa» zela; baina epaileek hustasun hura gezurrezkoa zela uste zuten, eta akusatuak bestelako gogoetak nahi zituela haiekin estali, izugarriak izanagatik ere, hitz-jario hutsa ez zirenak. Uste hori gezurtatua gertatzen bide da ikusirik nolako tema harrigarritz errepikatzen zituen Eichmannek, bere memoria txarragatik ere hitzez hitz, esapide

berberak eta berak asmatutako klixeak (berak asmatutako esaldi bat osatzea lortzen zuenean, klixe bihurtzen zuen arte errepikatzen zuen), beretzat garrantzitsua zen gertaeraren bat aipatzen zuenean. Argentinan edo Jerusalem, bere memoriak idazten ari zelarik, poliziako galdekatzailearekin edo auzitegian mintzatzen zelarik, gauza bera esaten zuen beti, hitz berberekin adierazia. Zenbat eta gehiago hari entzun, orduan eta argiago ikusten zen Eichmannen hitz egiteko ezintasuna oso estu lotua zegoela *pentsatzeko* ezintasun batekin, eta zehatzago, beste norbaiten ikuspuntutik *pentsatzeko* ezintasunarekin. Ezinezkoa zen harekin komunikatzea, ez gezurretan ari zelako, baizik eta besteen hitzen eta presentziaren kontra, eta, hortaz, errealitatearen beraren kontra, izan daitekeen babesik fidagarrienaz inguratua zegoelako.

Hala, zortzi hilabetez errealitate gogor bati aurre egin behar izan ziolarik —polizia judu batek galdeketa egitea—, Eichmannek luze agertu zion inondik ere, eta askotan, zergatik ez zen ailegatu SSetan gradu altuago bat izatera, eta ez zela beraren erruz izan. Egin beharreko guztia egin zuen, eskatu ere eskatu zuen soldadutza aktibora bidal zezaten: «Frontera, esaten nuen neure artean, orduan lehenago etorriko da *Standartenführer* [koronel] gradua». Juizioan, berriz, postuz aldatzea eskatu zuelako itxurak egin zituen, bere hilketa-eginkizunei ihes egin nahi zielako. Nolanahi ere, hura ez zuen asko azpimarratu, eta, harritzekoa, Less kapitainari esan zizkionak ez zituzten juizioan irakurri; izan ere, berebat aitortu zion hari *Einsatzgruppen* taldeetarako —Ekialdeko unitate hiltzaile mugikorretarako— izendatzea ere espero zuela, zeren, haiek osatu zirenean, 1941eko martxoan, «hila» baitzen beraren bulegoa: jadanik emigraziorik ez zen, eta deportazioak hasi gabeak ziren artean. Eta, azkenik, Eichmannen anbiziorik handiena zegoen: Alemaniako hiriren batean polizia-burua izateraino igotzea; berriz ere, ezer ez egitea. Suerte txarreko istorio baten aurrean ulerpen «normala, gizatiarra» aurkitzea espero zuen pertsona baten tonuan kontatzen zuen hura guztia Eichmannek, eta horrek egiten zituen galdeketa orriak hain barregarriak. «Zernahi gauza antolatu, zernahi asmo hartu, dena oker ateratzen zitzaidan, bai nire gauza pertsonalak, bai nire juduentzat lurra lortzeko urteetan egin nituen ahaleginak. Ez dakit, dena begizko baten azpian zegoela ematen zuen; zernahi gauza desiratzen eta antolatzen nuela, patuak nolabait ere galarazi egiten zuen. Denean nengoen frustratua, gauza guztietan».

Less kapitainak bere iritzia eskatu zionean koronel ohi batek egindako aitorpen kondenatzaile eta agian gezurrezko bati buruz, Eichmannek oihu egin zuen, bat-batean amorratuta eta hitz-totelka: «Harritzekoa da gizon hori SS *Standartenführer* izatea inoiz, oso harritzekoa, egiaz. Ezin da inola ere, inola ere ez, horrelakorik sinetsi. Ez dakit zer esan». Gauza haiek ez zituen Eichmannek inoiz desafiozko tonuan esaten, aitzitik, oraindik ere iraganean bizi izan zituen arauak defendatu nahi izango balitu bezala esaten zituen. «SS» edo «karrera», edo «Himmler» hitzek berek (azken horri titulu ofizial luzea erabiliz deitzen zion beti: *Reichsführer* SS edo aleman poliziako burua, nahiz eta garbi agertu ez zuela miresten batere) erabat ezin aldatuzkoa izatera iritsi zen mekanismo bat jartzen zuten Eichmannengan martxan. Less kapitainaren presentziak ere, zeinak, Alemaniako judua izanik, nekez pentsatuko baitzukeen SSetako kideek beren karreretan kualitate moralen bitartez gora egiten zutenik, ez zuen une batez ere mekanismo hori eten.

Noizean behin, komediak izumena dakar, eta, horren ondorioz, asmakeria surrealistik berak aise gaingitzen dituen umore beltzeko istorioak entzutzen dira. Halakoxea izan zen Eichmannek poliziaren galdeketa Vienako *Kommerzialrat* Storfer zorigabekoari buruz kontaturiko istorioa. Storfer judu-komunitatearen ordezkarietako bat zen, eta halako batean Eichmannek Rudolf Hössen telegrama bat jaso zuen —Auschwitzeko komandantearena—, esanez Storfer Auschwitz zela, eta Eichmann lehenbailehen ikusi behar zuela. «Neure artean esan nuen: konforme, gizon hau ondo portatu da beti, nire arreta merezi du... Hara joango naiz eta zer gertatzen den ikusiko dut. Eta banoa Ebner-engana [Vienako Gestapoko burua], eta hala dio Ebnerrek —hitzez hitz ez naiz gogoratzen—, ‘gizon hori horren zoroa izan ez balitz... ezkutatu eta ihes egiten saiatu zen’, horrelako zerbait. Eta poliziak atxilotu egin zuen eta kontzentrazio-esparrura bidali zuen, eta handik, *Reichsführer*aren aginduen arabera [Himmler], inor ezin zen atera behin barrura sartuz gero. Ezin zen ezer egin, ez Ebner doktoreak, ez nik, ez beste inork, ezin zuen ezertxo ere egin. Auschwitzera joan nintzen, eta Hössi esan nion Storfer nahi nuela ikusi. ‘Bai, bai [esan zuen Hössek], lantalde batean dago’, eta Storferrekin, gero, bada, gauza normala eta gizabidezkoa izan zen, solasaldi normala eta gizabidezkoa izan genuen. Bere pena eta nahigabe guztiak kontatu zizkidan. Nik esan nion: ‘Bueno, Storfer, ene adiskide zintzoa [Ja, mein lieber

guter Storfer], ederra pasatu zaigu! Hauxe bai suerte txarra!'. Eta berebat esan nion: 'Hara, ezin dizut lagundu, zeren, *Reichsführer*aren aginduen arabera inor ezin baita hemendik atera. Ezin zaitut hemendik atera. Ebnerrek ezin zaitu hemendik atera. Badakit okerreko gauza bat egin duzula, ezkutatu egin zinen edo ihes egin nahi izan zenuen, baina, azken finean, horren premiarik ez zenuen'. [Storferrek, funtzionario judua izanik, immunitatea zuela eta ez zutela deportatuko esan nahi zuen Eichmannek]. Ahaztu zait zer erantzun zidan. Eta orduan nik zer moduz zegoen galdetu nion. Eta ea lana uzterik izango ote zuen esan zidan berak, oso lan gogorra omen zen-eta. Eta orduan esan nion nik Hössi: 'Lana... Storferrek ez du lanik egin behar!'. Baina Hössek esan zuen: 'Jende guztiak lan egiten du hemen'. Eta nik esan nuen: 'Konforme, ohar bat idatziko dut, Storferrek erratz bat hartu eta hartxintxazko bidexkak txukundu behar dituela esanez', hartxintxazko bidexka gutxi baitzen han, 'eta eskubidea duela bere erratza hartuta bankuetan esertzeko'. Eta [Storferri] esan nion: 'Horrela ondo, Storfer jauna? Ondo iruditzen zaizu?'. Harekin oso pozik geratu zen, bostekoa eman genion elkarri, erratza eman zioten eta bere bankuan eseri zen. Zinez pozgarria izan zen niretzat hainbeste urtean nirekin lanean aritu zen gizon bat ikustea eta harekin hizketan jardutea». Gizabidezko solasaldi normal hura izan eta sei aste geroago, hila zen Storfer; dirudienez, ez gasez, tiroz baizik.

Fede txarreko kasu tipiko bat al da hau, edo norbera gezurrez engainatzea, ergelkeria lotsagarrienarekin konbinaturik? Edota, besterik gabe, sekula damutuko ez den gaizkilearen kasua ote da, krimena haren parte bihurtu delako errealtateari ezin aurre egin diezaiokeenarena? (Dostoievskik bere egunkarietan aipatzen du nola Siberian, sekulako hiltzaile, bortxatzaile eta lapur pilaren artean, ez zuen bakarra ezagutu oker egin zuela onartuko zuenik). Eichmannen kasua, ordea, ohiko gaizkilearena ez bezalakoa da, ohiko gaizkilea bere taldearen muga estuen barruan baizik ezin baita errealtate ez kriminaletik babestu. Eichmannek aski zuen iragana gogoratzea seguru sentitzeko ez zela gezurretan ari, eta ez zuela bere burua engainatzen, beste garai batean mundua eta biak erabateko harmonian bizi izan baitziren. Eta Eichmannen pentsamoldean orain sustraiturik zeuden bitarteko berberez babestu zen errealtatetik, bere burua modu berberean engainatuz, eta ergelkeria berberaz, laurogei milioi lagunek osaturiko aleman gizartea. Gezur haiek aldatu egiten ziren

urtetik urtera, eta sarritan elkarren kontrakoak ere izaten ziren, areago, ez zuten nahitaez berberak izan behar alderdiko hierarkiaren adar desberdinentzat edo jendearentzat oro har. Baina hain gauza arrunta bihurtua zen nork bere burua engainatzeko usadioa, bizirik irauteko baldintza morala izateraino kasik, non oraindik ere, erregimen nazia desagertu eta hemezortzi urte geroago, gezurren eduki jakin gehienak ahaztuak direnean, zaila gertatzen baita batzuetan ez sinestea faltsukeria bihurtu dela aleman nazio-nortasunaren osagaietako bat. Gerra hasi zenean, aleman herri osoarentzako gezurrik eraginkorrena «aleman herriaren patu-borroka» [*der Schicksalskampf des deutschen Volkes*] eslogana izan zen, Hitlerrek edo Goebbelsek osatua, nork bere burua engainatzea errazten zuena, hiru irizpideren arabera: hasteko, gerra ez zela gerra iradokitzen zuen; bigarrenik, gerra patuak hasi zuela eta ez Alemaniak; eta, hirugarrenik, alemanentzat hil edo biziko auzia zela: etsaiak suntsitu egin behar zituzten, bestela etsaiak alemanak suntsituko zituzten-eta.

Argentinan nahiz Jerusalem, Eichmannek bere krimenak onartzeko agertzen zuen borondate txundigarria, bere burua engainatzeko ahalmen kriminalari ez ezik, Hirugarren Reicheko giro orokoreta orokorki onartua osatu zuen faltsukeria sistematikozko giroari zor zitzaion. «Jakina», eginkizun bat bete zuen juduen deuseztatzean; jakina, «berak garraiatu ez balitu, ez zituzten gero harakinarengana eramango». «Zer» galdetu zuen, «zer dago hor *onartzeko*?». Orain, jarraitu zuen, «bakea egin nahi luke [beraren] aurreko etsaiekin», eta sentimendu hori bera zuten Himmlerrek, gerrako azken urtean halaxe adierazi baitzuen, edota Robert Ley Lan Fronteko buruzagiak (hark, bere buruaz beste egin baino lehen, «adiskidetze-batzorde» bat antolatzea proposatu zuen Nurenbergen, sarraskien erantzule ziren naziek eta bizitarako juduek osatua), eta sinestezina ematen badu ere, gerraren bukaeran modu berean mintzatzen ziren aleman herritar asko ere. Kluxe lotsagarri hau ez zitzaion jadanik goitik iristen, esakune bihurtua zen, jendeak hamabi urtez bizitzeko baliatu zituen kluxe haiek bezain errealitatez gabetua; eta ikusi ere egin zitekeen kasik nolako «bozkario izugarria» ematen zion hiztunari ahotik ateratzen zitzaion momentuan.

Eichmannen gogoia goraino zegoen halako esaldiz betea. Ikusi zen haren memoria ez zela oso fidagarria egiaz gertatu zenari

zegokionean; haserre biziko une batean, galdetu zion Landau epaileak akusatuari: «Zertaz gogoratzen zara?» (ez badituzu gogoratzen Wannsee Konferentzia deritzaneko eztabaidak, hiltzeko metodoen gainekoak), eta erantzuna, jakina, zer izango, eta Eichmann nahiko ondo gogoratzen zela bere karreraren mugarriez, baina mugarri horiek ez zetozen nahitaez bat juduen deuseztatzearen mugarriekin, edota historiako mugarriekin. (Nekeza gertatzen zitzaion beti gerraren hasieraren data edo Errusiako inbasioarena gogoratzea). Baina auziaren puntu nagusia da ez zuela ahaztu «bozkarioa» sentitzeko une batean edo bestean balio izan zion esaldi bakar bat ere. Hala, galdeketan, epaileak haren kontzientziara jotzen saiatzen zirenean, «bozkario» harekin topo egiten zuten beti, eta mindu eta harritu egiten ziren konturatzen zirenean akusatuak klizeak izaten zituela eskura beti bere bizitzako aldi eta jarduera guztientzat. Haren gogoan, ez zegoen kontraesanik gerraren bukaeran egokia zen «Kontentu salto egingo dut hilobira» haren eta «Pozik urkatuko dut jendaurrean neure burua lur honetako antisemita guztien eredu izateko» gerokoaren artean, zeinak orain, arrunt bestelako egoeran, funtzio bera betetzen baitzuen, hots, Eichmannek bere burua goratzea.

Eichmannen usadio horiek eragozpen handiak sortu zizkieten juizioan, Eichmanni berari baino areago, hura akusatzera, defendatzera, epaitzera eta juizioaren berri ematera joan zirenei. Horregatik guztiagatik, funtsezko gauza zen Eichmann benetan hartzea, baina hori oso zaila gertatzen zen, egintzen izugarrikeria ezin esanekoaren eta haiek egin zituen gizonaren burugabekeria ezin ukatuzkoaren arteko dilematik ateratzeko biderik errazena hartzen ez bazen, alegia, Eichmann gezurti buru-argi, kalkulatzailer bat zela esatea; baina, argi zegoen, Eichmann ez zen halakoa. Haren usteak oso urruti zeuden apalak izatetik: «Egiaz mintzatzeko ahalmena da, neure buruaren inguruko auzietan behintzat, patuak eman didan dohain bakanetako bat». Dohain hori aipatu zuen baita fiskalak egin ez zituen delituak leporatu nahi izan zizkionean baino lehen ere. Argentinan, Sassenekiko solasaldirako prestatu zituen ohar eta zirriborroetan, oraindik ere, garai hartan adierazi zuen bezala «bere askatasun fisiko eta psikikoaren erabateko jabea» zenean, abisu fantastiko bat egin zuen «etorkizuneko historialarientzat, hemen jasotako egiaren bidetik urrundu gabe, objektiboak izan daitezen»; fantastikoa, zeren, zirriborro haietako lerro bakoitzak erakusten baitu Eichmann erabat ezjakina zela bere

lanarekin, teknikoki eta burukratikoki, zuzenean lotua ez zegoen gauza orotan, eta berebat erakusten dute haren memoria ikaragarri txarra.

Fiskalaren ahalegin guztiengatik ere, juizioan denek ikusten zuten gizon hura ez zela «monstruo» bat, baina oso zaila zen ez pentsatzea ez ote zen pailazo bat. Eta susmo hura zeharo kaltegarria izango baitzen ekimen osoarentzat, eta nahiko zaila baitzen eusten hark eta haren antzekoek milioika pertsonari eragindako sufrimenduen aurrean, Eichmannen pailazokeriarik okerrenei ez zitzaien kasik igarri ere egin, eta ez zen ia inoiz haien berri eman. Zer egin daiteke, juizioaren hasieran, eta hitzak handikiro azpimarratuz, alferrik xahuturiko bizitza batean ikasi duen gauza bakarra ez dela inoiz zin egin behar adierazten duen gizon batekin? («Gaur egun ez nau inork, ez gizonik, ez epailerik, zinpeko aitorpen bat egiteko konbentziturik, lekuko gisa zinpean ezer adierazteko. Uko egiten diot zinari, arrazoi moralengatik. Esperientziak erakusten didanez, baldin bat bere zinari leial bada, noizbait ere bere gain hartu beharko ditu zinaren ondorioak, eta betiko erabaki dut ez epaileek, ez bestelako agintariek, ez didatela mundu honetan zin eginaraziko, ez dutela nik zinezko lekukotasuna ematea lortuko. Ez dut neure borondatez zin egingo, eta inork ezingo nau behartu»); eta gero, ageriki esaten zaionean, nahi baldin badu bere buruaren aldeko lekukotasuna eman, «zin eginda edo zin egin gabe» eman dezakeela, orduan gizon horrek nahiago duela zin eginda mintzatu esaten badu? Edota, gizon horrek berorrek, bere nahigabe handia erakutsiz, juizioan behin eta berriz segurtatzen badu, polizia galdekatzaileari segurtatu zion bezala, egin dezakeen gauzarik txarrena bere egiazko erantzukinei ihes egitea dela, bere kolkoaren alde borrokatzea, barkamen-eskaera bat egitea; eta gero, bere abokatuak esandakoari jarraituz, eskuz idatzitako barkamen-eskaera bat aurkeztzen baldin badu?

Eichmanni zegokionez, umore-aldaketekin lotutako gauzak ziren haiei guztiak, eta memorian nahiz bat-batean asmatutik, umore-modu haietan erabil zezakeen esaldi-klixe bozkario-emaile bateskuratuz gero, kontentu egoten zen, eta ez zitzaion sekula «funsgabetasun» edo antzekorik bururatuko. Ikusiko dugun bezala, heriotzaren garaian ere ez zuen falta izan bere burua klixeekin kontsolatzeko dohain ikaragarri hori.

IV: AURRENEKO SOLUZIOA: IRAIZTEA

Baldin honako hau epaiketa arrunt bat izan balitz, fiskalaren eta defentsaren arteko ohiko tirabirekin, gertatuak argitara atera eta bi alderdiei justizia egiteko xedeaz, posible litzateke orain defentsaren bertsiora jotzea, era horretan jakiteko ez ote zegoen ematen zuena baino gehiago Eichmannen Vienako jardueren kontaketa barregarrian, edota haren errealitatearen distortsioak ezin ote ziren gizabanako baten gezurkeriari besterik egotzi. Juizioa hasi baino askoz ere lehenago geratu ziren «arrazoizko zalantzarik batere gabe» finkatuak Eichmann urkamendira eramango zuten gertakariak, eta erregimen naziaren azterlari guztiek ezagutzen zituzten oro har. Fiskalak finkatu nahi izan zituen gainerako gertaerak, partez, onartu ziren epaiketan, egia da hori, baina ez ziren inoiz «arrazoizko dudarik batere gabe» gisa agertuko, baldin defentsak bere froga propioak ekarritz ukatu izan balitu. Hortaz, ezin da Eichmannen kasuaren gaineko txostenik osatu —Eichmannen epaiketatik apartekoa—, arreta pixka bat eman gabe ondo ezagunak diren baina Servatius doktoreak ez jakitea aukeratu zuen zenbait gertaerari.

Bereziki egiazkoa da hori Eichmannek «judu-auziaz» zuen ikusmolde eta ideologia orokor nahasiari zegokionez. Galdeketa egin ziotenenan, epaile nagusiari hau esan zion: «Vienan, aurkari gisa, errespetuz begiratzen nien juduei, haientzat soluzio bat bilatu behar zela [pentsatuz], egokia eta bi alderdientzako onartzekoa izango zena. Soluzioa haien oinen azpian lur sendoa ipinita etorriko zela ikusten nuen nik, beren leku propioa, beren lurra, bazuten. Eta ni gustura ari nintzen soluzio horretan lanean. Lankidetzan jardun nuen soluzio hori iritsi nahian, poz-pozik, zeren judu-herriaren beraren erakundeek onartzen zuten soluzioa baitzen, eta gaiarentzat soluziorik egokiena izango zelakoan ikusten nuen nik hura». Horrexegatik, ez

beste ezerengatik, «jardun zuten lankidetzan», horrexegatik zen haien lana «elkarrekikotasunean oinarritua». Juduen ongiagatik, nahiz eta bazitekeen judu guztiek hura ez ulertzea, herrialdetik irten beharra alegia; «lagundu egin behar zitzairen, funtzionarioei lanean lagundu behar zitzairen, eta horixe egin nuen nik». Funtzionario juduak «idealistak» baziren, hau da, sionistak, errespetatzen zituen, «berdinak bezala tratatzen zituen», haien «eskaera eta kexa eta laguntzarako eskabideak» entzuten zituen, haiei egindako «agintzak» betetzen zituen, ahal zuen neurrian. «Jendeak orain horiek ahazteko joera du». Zeinek salbatu zituen, Eichmannek salbatu ez bazituen, juduak milaka? Zerk eraman zituen, bada, garaiz ihes egitera, beraren ardura handiak eta antolamendurako ahalmenak ez baziren? Egia, garai hartan ezin zuen aurrez ikusi Azken Soluzioa zetorrenik, baina judu haiek salbatu egin zituen, hura «egitate» bat zen. (Estatu Batuetan juizioaren garaian emandako elkarriketa batean, Eichmannen semeak istorio bera kontatu zien amerikar kazetariei. Familia-elezahar bat behar zuen izan).

Zentzu batean, ulertzen da zergatik ez zuen defentsak ezer egin Eichmannek sionistekin izan zituen harremanez eman zuen bertsioa bermatzeko. Eichmannek onartu zuen, Sassenen elkarriketan onartu zuen bezala, «ez zuela bere eginkizuna ukuilura daramaten idiaren apatiarekin hartu», «sekula oinarritzko liburu bat [hots, Herzlen *Judenstaat*] irakurri, ondo landuz, beretu, interesez beretu ez zuten [lankideek bezala]». Haiek ez ziren «bulegoko esklaboak baizik», haientzat dena aldeztatik erabakia zegoen, «paragrafo, aginduen bidez, beste ezertan ez zuten interesik», hau da, laburtuz, «makinaren pieza txikiak» ziren; defentsaren arabera, Eichmann bera izan zena bezalakoxeak. Führerraren aginduak erabateko esanekotasunez betetzea, besterik esan nahi ez bazuen horrek, orduan denak izan ziren pieza txikiak —Himmlerrek berak ere, haren masajistak, Felix Kersten-ek, kontatzen digunez, ez zuen Azken Soluzioa poz handiz hartu, eta Eichmannek galdeketa egin zion poliziari segurtatu zionez, bere nagusiak berak, Heinrich Müller-ek, sekula ez zuen proposatuko «deuseztatze fisikoa» bezain gauza «gordinik». Argi zegoen Eichmannen begietan auzia ez zela makinaren pieza txikien teoriaren araberakoa. Gizon hura ez zen izan inondik ere Hausner jaunak ikusarazi nahi zuen bezain handia; azken finean, Eichmann ez zen Hitler, eta garrantzian ezin zen alderatu, judu-auziaren «soluzioari»

zegokionez, Müller, edo Heydrich, edo Himmlerrekin; Eichmann ez zen megalomanoa. Baina defentsak izatea nahi zuen bezain txikia ere ez zen.

Eichmannen errealitatearen distortsioak ikaragarriak ziren ikaragarrikeriei buruzkoak zirelako, baina ez ziren funtsean Hitlerren ondorengo Alemanian ohikoak ziren zenbait gauzaren aldean oso bestelakoak. Horra hor, adibidez, Franz-Josef Strauss, Defentsako Ministro ohia, duela gutxi hauteskunde-kanpaina bat egin duena Willy Brandten kontra, zeina egun Berlin Mendebaldeko alkatea baita, eta Hitlerren garaian iheslari gisa Norvegian egon baitzen. Straussek asko zabaldu zen eta itxuraz arrakasta handia izan zuen galdera bat egin zion Brandti: «Zertan aritu zinen Alemaniatik kanpo eman zenituen hamabi urte horietan? Guk badakigu zertan ari ginen hemen»; eta inolako zigorrrik jaso gabe egin zuen galdera hori, eta ez zuen inork begi bat ere kliskatu, ez Bonngo gobernuako kideak gogoratu ere ondo ezaguna zela zertan ari ziren alemanak Alemanian urte haietan. «Tolesgabetasun» bera ikusten da aleman literatura-kritikari errespetatu eta errespetagarri batek —segur aski ez zen alderdiko kidea izan— duela gutxi bidenabar bezala egin duen ohar batean; Hirugarren Reicharen garaiko literatura-lan baten komentarioa egiten ari dela, haren egilea «basakeriaren hasieran, salbuespenik gabe abandonatu gintuzten intelektual haietako» bat zela dio. Egile hura, jakina, judu bat zen, eta naziak egotzi egin zuten eta jentilek, *Rheinischer Merkur*-eko Heinz Beckmann jauna bezalako jendeak, abandonatu. Bide batez esan dezagun «basakeria» hitza bera, gaur egun alemanek Hitlerren garaiari askotan aplikatzen diotena, errealitatearen distortsio bat dela; badirudi intelektual juduek eta ez-juduek halako batean berentzat aski «fina» ez zen herrialde bat abandonatu zutela.

Eichmannek, nahiz eta gobernariak eta literaturako kritikariak bezain gizon fina izan ez, bestalde, aipa zitzakeen bere istorioa bermatuko zuten zenbait gertaera ezin eztabaidatuzko, baldin horren memoria txarra izan ez balu, edo defentsak lagundu izan balio. Zeren «ezin eztabaidatuzko gauza baita nazionalsozialismoak, judu-politikaren aurreneko urratsak egin zirenean, egokiagotzat jo zuela sionismoaren aldeko jokamoldea» (Hans Lamm), eta aurreneko aldi haietxetan ikasi zituen Eichmanek juduei buruzko lehen irakaspenak. Ez zen Eichmann izan, inondik ere, «sionismoaren aldeko» izate

hori benetan hartu zuen bakarra; aleman juduek berek pentsatu zuten «asimilazioaren» kontra egiteko aski izango zela «disimilaziozko» prozesu bat, eta mordoka sartu ziren erakunde sionistetan. (Ez dago horren gaineko estatistika fidagarriarik, baina uste da *Die Jüdische Rundschau* aldizkari sionistaren banaketa, Hitlerren erregimenaren aurreneko hilabeteetan, bost edo zazpi mila aletik ia berrogei mila ale izatera iritsi zela, eta gauza jakina da funtsak jasotzen zituzten erakunde sionistek 1931-32 urteetan baino hiru bider funts gehiago jaso zutela 1935-36 urteetan, biztanleria oso pobretu batengandik gainera). Horrek ez zuen nahitaez esan nahi juduek Palestinara emigratu nahi zutenik; gehiago zen harrotasun-kontu bat: «Izar horia, eraman harro!», huraxe zen urte haietako eslogan zabalduena, Robert Weltsch-ek, *Jüdische Rundschau* aldizkariaren argitaratzaileak, asmatua, eta garai hartako emozio-giro orokorra ezin hobeto adierazten zuena. Boikotaren Egunari (1933ko apirilaren 1a) emandako erantzun gisa sortu zen eslogan haren puntu eztabaidagarria —naziek juduak banda bat (sei puntako izar horia, oihal zuri baten gainean) eramatera behartu baino sei urte lehenago— «asimilazionistei», eta «bilakaera iraultzaile» berriarekin bat ez zetozen guztiei, «beti denboren atzetik zebiltzan» haiei (*die ewig Gestrigen*) zuzentzen zitzairen. Eslogan hura Alemaniako lekukoez gogoratu zuten juizioan, emozio handiz gogoratu ere. Ahaztu egin zitzairen aipatzea Robert Weltschek berak, ospe handiko kazetaria zenak, nola esan zuen urte batzuk lehenago ez zuela sekula eslogan hura kaleratuko gero gertatu zirenak alde zurretik asmatu izan balitu.

Baina eslogan eta eztabaida ideologiko guztiak alde batera utzita, urte haietan eguneroko gauza izan zen sionistek bakarrik zutela aleman agintariekin negoziatzeko aukera, arrazoi soil batengatik: haien aurkari judu nagusiak, Fede Juduko Aleman Herritarren Elkarte Zentralak —elkarte hartakoak ziren Alemaniako judu-erakundeetako kideen ehuneko laurogeita hamabost— «antisemitismoaren kontra borrokatzea» zela bere eginkizun nagusia zehazten zuen bere arauetan; halako batean, beraz, definizioz «Estatuaren etsai» zen erakunde bat bihurtu zen, eta esetsi egingo zuten—ez zuten esetsi—, egin behar omen zuena egiten ausartu balitz sekula. Aurreneko urteetan, Hitler boterera heldu izana, oroz gain, «asimilazionismoaren porrot erabakigarria» izan zen sionistentzat. Hortaz, sionistek, aldi batez

behintzat, agintari naziakiko lankidetzaz ez-kriminalen jardun ahal izan zuten; sionistek berebat uste zuten «disimilazioa», eta horrekin batera gazteek, eta, hala espero zuten, kapitalista juduek, Palestinara emigratzea, «bi alderdientzako soluzio egokia» izan zitekeela. Garai hartan iritzi bera zuten aleman funtzionario askok, eta solas-modu hori nahiko ohikoa izan bide zen bukaeraraino. Theresienstadt-etik bizirik ateratako aleman judu baten gutun batek kontatzen du nola naziek izendaturiko *Reichsvereinigung* guztien buruak sionistak ziren (eta egiazki juduak ziren *Reichsvertretung* izenekoak sionistek eta ez-sionistek osatzen zituzten), sionistak baitziren, nazien arabera, «judu ‘zintzoak’, haiek ere ‘nazio-terminoetan’ pentsatzen baitzuten». Egia esatera, ez zen goi-mailako nazirik izan jendaurrean halakorik esan zuenik; hasieratik bukaera arte, nazien propaganda ankerki, garbi, zeharo antisemita izan zen, eta azkenean inporta zuen gauza bakarra oraindik gobernu totalitarioaren misterioetan esperientziarik ez zuen jendeak «propaganda hutsa» zelakoan baztertzeko zuten hura zen. Lehen urte haietan agintari nazien eta Palestinarako Bulego Juduaren artean akordio bat izan zen —*Ha'avarah* edo Lekualdatze Akordioa—, bi aldeei oso egokia gertatu zitzaiona; haren bidez, Palestinara zihoan emigratzaile batek aleman ondasunetan eraman zezakeen bere dirua hara, eta iristean librengatik trukatu. Laster izan zen hura judu batek dirua gainean eramateko zeukan legezko bide bakarra (alternatiba orduan kontu blokatu bat zabaltzea zen, atzerrian ehuneko berrogeita hamar-laurogeita hamar bitarteko galera batekin baizik ezin kita zitekeena). Horren ondorioz, hogeita hamarretan, Estatu Batuetako juduak ahaleginean aritu zirenean aleman salgaien kontrako boikot bat antolatzen, aldi berean sekulako gauzak iristen ziren, klase guztietakoak, toki guztietatik Palestinara, «Alemanian eginak».

Garrantzitsuagoak ziren Eichmannentzat Palestinatik heldutako ordezkariak, haiek beren ekimenez joan baitziren Gestapokoengana eta SSengana, aleman sionisten edo Palestinarako Bulego Juduaren agindurik onartu gabe. Laguntza bila etorri ziren britainiar agindupeko Palestinarako juduen legez kanpoko immigrazioarentzat, eta bai Gestapok bai SSek lagundu zieten. Vianan aritu ziren Eichmannekin negoziatzen, eta «ondo hezia» zela, «ez deiadarka aritzen diren horietakoa» zela esan zuten, eta landetxeak eta bestelako hornidurak eman zizkietela etorkizuneko emigratzaileentzako borondatezko trebaleku-esparruak antolatzeko. («Behin, Eichmannek moja talde

bat komentutik aterarazi zuen, bertan judu gazteentzat trebatze-eremu bat antolatzeko», eta beste batean «tren berezi bat [prestatu zuen] eta ofizial naziek lagundu zioten» emigratzaile talde bati, Jugoslaviako trebatze-eremu sionistera zihoalarik, muga arazorik gabe igarotzen zuela segurtatzeko). Jon eta David Kimche-k kontaturikoaren arabera, Palestinako judu haien hizkera, «agente nagusi guztien lankidetzan oso eta bihotz-zabala zutelarik» (*The Secret Roads: The «Illegal» Migration of a People, 1938-1948*, Londres, 1954), ez zen Eichmannek erabiltzen zuenaren aldean oso bestelakoa. Palestinako talde-kokalekuetatik bidali zituzten Europara, eta ez zuten erreskateko operazioetan interesik: «Ez zen haien egitekoa». «Material egokia» nahi zuten aukeratu, eta haien etsai nagusia, deuseztatze-programaren aurretik, ez ziren Europako herri zaharretan, Alemanian edo Austrian, juduei bizitzen uzten ez zieten haiek, baizik eta aberri berrirako sarrera eragozten zutenak: etsaia, argi eta garbi, Erresuma Batua zen, ez Alemania. Izan ere, sionista haiek ia-ia berdintasunean oinarriturik egin zitzaizketen tratuak agintari naziekin, bertako juduek ez bezala, Palestinakoek beharrezko boterearen babesa zutelako; aurreneko juduak izango ziren seguru asko bi alderdien interesez garbi mintzatu zirenak, eta aurren-aurrenekoak izan ziren kontzentrazio-esparruetan zeuden juduen artean «aitzindari judu gazteak» aukeratzeko baimena izan zutenak. Tratu haien inplikazio beltzen berri ez zekiten, jakina, artean etortzekoak zirelarik; baina nolabait ere, bizitarako juduak aukeratu behar baziren, aukera hura juduek berek behar zutela egin uste zuten. Juizio-errakuntza funtsezko horren ondorioz, aukeratu gabeko juduen gehiengoak bi etsairen artean ikusi zuen azkenean bere burua: agintari naziak batetik eta agintari juduak bestetik. Vienako istorioari dagokionez, milaka eta milaka juduren bizitzak salbatu zituelako Eichmannen aldarri irrigari hark, juizioan sekulako barreak eragin zituenak, babes harrigarria aurkitzen du Kimche-tar historialari juduen iritzi ondo pentsatuan: «Halaxe hasi zen erregimen nazi osoko garai paradoxikoenetako bat: herri juduaren hiltzaile handienetako bat zelakoan geratzekoa zena, Europako juduen erreskatean langile aktibo baten gisara sartu zen historian». Eichmannen arazoa zen, ordea, beraren ezin sinetsiko istorioari nondik edo handik eutsiko zion daturik ez zuela batere gogoratzen, eta defentsako abokatuak jakin ere ez zekien gogoratu beharreko ezer zegoenik. (Servatius doktoreak Aliyab Beth-ko agente ohiak deitu zituen defentsaren lekuko gisa [hala

deitzen zen Palestinarako legez kanpoko immigrazioa antolatzen zuen erakunde]; ondo gogoan zuten Eichmann, eta Israelen bizi ziren). Eichmannen memoriak bere karreraren zerikusi zuzena zuten gauzen inguruan baizik ez zuen funtzionatzen. Hala, gogoan zuen Palestinako funtzionario batek Berlinen egin zion bisita bat, nola kontatu zion nolakoa zen bizimodua talde-kokaguneetan, eta bi bider eraman zuela afaltzera; Palestinarako gonbidapen formal batekin bukatu zelako zuen bisita hura gogoan, han juduek beren herria erakutsiko baitzioten. Pozpozik zegoen; ez zen beste ofizial nazirik «urrutiko herrialde arrotz» batera joan zenik, eta bidaia egiteko baimena eman zioten. Epaiaren arabera, «espioitza-misio batean» bidali zuten, eta halaxe zen inondik ere, baina horrek ez zuen ezeztatzen Eichmannek poliziarik kontatu zion istorioa. (Ekimen hartatik ez zen ia ezer ere atera. Eichmannek, Herbert Hagen zeritzan bere bulegoko kazetari batekin, Haifako Cannel mendira igotzeko denbora besterik ez zuen izan, britainiar agintariek biak Egiptora deportatu eta Palestinan sartzeko baimenak ukatu baino lehen; Eichmannen arabera, «Haganah-ko gizona» —Israeleko Armadaren muina bihurtu zen erakunde militar judua zen Haganah—, Kairora joan zitzaion ikustera, eta hark han kontatu ziena Eichmannek eta Hagenek beren nagusien aginduz propaganda-xedeekin idatzi behar izan zuten «txosten erabat negatibo» baten gaia bihurtu zen; txostena behar zuen garaian argitaratu zuten).

Arrakasta txiki horiek alde batera utzita, Eichmannek kasuan kasuko umorea baizik ez zuen gogoratzen, eta haiei egokitzeko asmatzen zituen leloak; Egiptoko bidaia 1937an egin zuen, Vienan lanean hasi baino lehen, eta Vienatik giro orokorra eta zeinen «bozkariotsu» sentitzen zen, besterik ez zuen gogoratzen. Eichmannen tema txundigarria ikusirik, nola ez zuen sekula umore-modu jakin bat eta hari zegokion leloa behin betiko baztertzen —poliziarren galdeketa behin eta berriz erakutsi zuen tema—, nahiz eta ezin adostuzkoa izan umore eta esaldi «bozkario-emaila» berriak behar zituzten aldi berriekin, haren zintzotasunean sinesteko tentazioa sortzen da, Vienako garaiaz idilio batez bezala mintzatzen zenean. Pentsamenduen eta sentimenduen arteko koherentzia falta erabatekoa dela medio, zintzotasun horrek ez du ezer ere galtzen, nahiz eta Vienako urte hura, 1938ko udaberritik 1939ko martxoraino, erregimen naziak sionismoaren aldeko jarrera utzi zuen garaia izan. Mugimendu naziak berezkoa zuen beti mugitzen aritzea, hilabetetik hilabetera erradikalagoa egitea, baina haren kideen

ezaugarri nabarmenenetako bat zen psikologikoki mugimendua baino urrats bat atzerago egoteko joera: ikaragarri kostatzen zitzairen haren urrats berean joatea, edo, Hitlerrek adierazi ohi zuen bezala, ezin zuten «beren itzalaren gainetik salto egin».

Kaltegarriagoa izan zen, nolanahi ere, Eichmannen beraren oroimen txarra, beste edozein gertaera objektibo baino. Baziren judu batzuk Vienan oso ondo gogoratzen zituenak —Löwenherz doktorea eta Storfer *Kommerzialrat* —, baina haiek ez ziren Eichmannen istorioa egiazta zezaketen Palestinako ordezkariak. Josef Löwenherzek Eichmannekin egin zituen negoziazioei buruzko txosten guttiz interesgarri bat idatzi zuen gerraren ondoren (huraxe izan zen, hain zuzen ere, juizioan aurkeztu zen dokumentu berri bakanetako bat, partez Eichmanni erakutsi zitzaiona, eta bat etorri zen hura txosteneko adierazpen nagusiekin), eta bera izan zen komunitate judu oso bat nazien zerbitzura antolatu zuen aurreneko funtzionario judua. Eta funtzionario haien artean, bere zerbitzuengatik sari bat jaso zuen bakarretako bat izan zen: Vienan egoten utzi zioten gerraren amaiera arte, eta orduan Ingalaterrara eta Estatu Batuetara emigratu zuen; Eichmann atzeman eta handik gutxira hil zen, 1960an. Storferren patua, ikusi dugunez, ez zen horren zorionekoa izan, baina hura ez zen izan inondik ere Eichmannen errua. Storferrek aldatu egin zituen Palestinako ordezkariak, independentegiak egin baitziren, eta haren egitekoa, Eichmannek agindu ziona, sionisten laguntzarik gabe, Palestinarako zenbait lege kanpoko judu-garraialdi antolatzea izan zen. Storfer ez zen sionista, eta ez zuen interes berezirik izan juduen auzietan naziak Austriara iritsi baino lehen. Hala ere, Eichmannen laguntzarekin, Europatik hogeita hamabost mila judu inguru ateratzea lortu zuen 1940an, naziak Europa erdia hartua zutenean, eta dirudienez ahaleginean aritu zen palestinarrekin arazoak konpontzen. (Huraxe zen segur aski Eichmannek gogoan zuena Storferren Auschwitzeko istorioari ohar kritiko hau erantsi zionean: «Storferrek ez zion judaismoari traiziorik egin, ezta hitz bakar batekin ere, Storferrek ez»). Azkenik, bazen hirugarren judu bat, Eichmannek hutsik egin gabe bere gerra aurreko eginkizunekin loturik gogoratzen zuena, Paul Eppstein doktorea. Emigrazioaren arduraduna izan zen Berlinen, *Reichsvereinigungen* azken urteetan —erakunde hori, naziak antolaturiko erakunde zentral judua, ez da nahastu behar egiaz judua zen *Reichsvertretungen*ekin, zeina 1939ko uztailan desegin baitzen—.

Eppstein doktorea Eichmannek izendatu zuen Theresienstadten *Judenältester* gisa (Judu Zaharrena) lan egin zezan, eta hantxe hil zuten fusilatuta 1944an.

Bestela esanda, erabat bere mende edukitakoak ziren Eichmannek gogoan zituen judu bakarrak. Ahaztuak zeuzkan, palestinar ordezkariak ez ezik, baita Berlingo lehenagoko ezagunak ere, oraindik informazio-zerbitzuko lanetan ari zenean, ahalmen betearazlerik gabe, ondo ezagutu zituenak. Sekula ez zuen aipatu, adibidez, Franz Meyer doktorea, Alemaniako Erakunde Sionistaren Zuzendaritzako kide ohia, abokatu fiskalak deituta akusatuarekin 1936-1939 urte bitartean izan zituen harremanen gaineko lekukotasuna ematera joan zena. Meyer doktoreak Eichmannen istorioa berretsi zuen neurri batean: Berlinen, funtzionario juduek «kexuak eta galderak aurkez» zitzaketen, lankidetza modu bat bazen. Batzuetan, esaten zuen Meyerrek, «gu zerbait eskatzera joaten ginen haiengana, eta batzuetan berak eskatzen zigun zerbait guri»; Eichmannek garai hartan «benetan entzuten gintuen, eta egiaz saiatzen zen gure egoera ulertzen»; haren jokamoldea «zuzena» omen zen, «niri 'jauna' esaten zidan eta eserlekua eskaintzen zidan». Baina 1939ko otsailean aldatua zen dena. Eichmannek Vienako aleman juduen buruzagiak bildu zituen, «emigrazio behartuaren» metodo berriak agertzeko. Eta hantxe zegoen Eichmann, Rothschild Jauregiko beheko solairuan, gela handi batean eserita, ezagutzeko modukoa, jakina, baina aldatua erabat: «Segituan esan nien nire adiskideei ez nekiela gizon berarekin elkartzera ote nindoan. Hain zegoen aldatua... Orduko hartan bizitzaren eta heriotzaren jabea bailitzan jokatzeko gizon batekin topo egin nuen. Lotsagabe eta zakar hartu gintuen. Ez zigun bere mahaira inguratzen utzi. Zutik egon behar izan genuen». Fiskala eta epaileak bat etorri ziren Eichmannek nortasunaren aldaketa egiazkoa eta iraunkorra izan zuela botere berearazlea zuen postu hartara igo zutenean. Juizioan, ordea, han ere «berrizkaturak» zituela ikusi zen, eta kontua ezin zela hain erraza izan. Lekuko bat izan zen, Theresienstadten 1945eko martxoan berarekin elkarriketa bat izan zuena, Eichmannek berriz ere sionismoaren inguruko gaietan interes handia erakutsi zueneko; lekuko hura gazte-erakunde sionista bateko kidea zen, eta sarrera-agiri bat zeukan Palestinarako. Elkarriketa «oso modu atseginean bideratu zen, eta jarrera adeitsua eta begirunezkoa zen». (Harritzekoa, defentsak ez zuen lekukoaren adierazpena bere alegatuan aipatu).

Eichmannek Vienan izan omen zuen izaera-aldaketaren inguruan zalantzak izan badaitezke ere, zalantzarik ez dago izendapen hark markatu zuela haren karreraren egiazko hasiera. 1937 eta 1941 bitartean, lau bider igo zuten mailaz; hamalau hilabetean, *Untersturmführer* izatetik *Hauptsturmführer* izatera igaro zen (hau da, bigarren lotinanta izatetik, kapitaina izatera); eta beste urte eta erdian *Obersturmbannführer* egin zuten, hau da, lotinant koronela. 1941eko urrian izan zen hura, Jerusalemeko Auzitegira eramango zuen Azken Soluzioan bete behar zuen eginkizunaz arduratu eta handik gutxira. Eta han, bere nahigabe handirako, «trabatua geratu zen»; Eichmannen iritziz, ez zegoen maila altuagorik bere sailean. Baina hura ezin zuen lehenago jakin, hots, sekula bururatuko zitzaiona baino azkarrago eta altuago igo zen lau urte haietan. Vienan argi erakutsi zuen zenbat balio zuen, eta orain, «juduen auziko», erakunde eta antolamendu juduen katramiletako aditutzat ez ezik, emigrazioko eta ebakuazioko «espezializat» jotzen zuten, jendea mugiarazten zekien «maisutzat». Eichmannen arrakastarik handiena *Kristallnacht* gertatu, 1938ko azaroan, eta berehala etorri zen, aleman juduak ahaleginean ari zirenean ihes egin nahian. Göring-ek, Heydrichen ekimenez segur aski, Berlingen Reicharen Juduen Emigraziorako Zentro bat antolatzea erabaki zuen, eta, hartarako arauak ematen zituen gutunean, Eichmannen Vienako bulegoa aipatzen zen, agintaritza zentral bat antolatzeko eredu gisa. Berlingo bulegoko burua, nolanahi ere, ez zen Eichmann izango, hark geroago hainbeste miretsiko zuen nagusia baizik, Heinrich Müller, Heydrichen aurkikuntzetako bat. Heydrichek atera berria zuen Müller bere lanpostutik, Bavariako poliziatik (alderdiko kidea ere ez zen, eta oposiziokoa izan zen 1933 arte), eta Berlingo Gestapora eraman zuen, Sobiet Errusiako polizia-sisteman aditua zelako. Müllerrentzat ere hura izan zen bere karreraren hasiera, eginkizun mugatua zuen arren. (Müller, bidenabar esan dezagun, ez zen Eichmann bezala gizon larderiazalea, aitzitik, bere «esfinge-jarrerarengatik» zen ezaguna, eta erabat desagertzea lortu zuen; inork ez daki haren berri, nahiz eta zurrumuruak diren lehendabizi Ekialdeko Alemaniak eta orain Albaniak enplegatu dutela errusiar poliziako aditua).

1939ko martxoan, Hitler Txekoslovakian sartu zen eta Alemaniaren mendeko babes-herri bat ipini zuen Bohemian eta Moravian. Berehala eman zioten Eichmanni juduentzako beste emigrazio-bulego bat Pragan antolatzeko ardura. «Hasieran ez

nengoen batere pozik Vienatik alde egiteko ideiarekin, zeren, halako bulego bat antolatu baduzu eta dena gozo-gozo eta behar den bezala doala ikusten baduzu, ez baitzaizu gustatzen hura bertan behera uztea». Eta, hain zuzen ere, desilusio txiki bat eman zuen Pragan, nahiz eta sistema Vienako berbera izan, zeren «Erakunde judu txekiarren funtzionarioak Vienara joan ziren eta Vienakoak Pragara, eta, hala, ez nuen esku hartu beharrik batere izan. Vienako eredu, besterik gabe, kopian eta Pragara eraman zuten. Hala, automatikoki jarri zen dena abian». Pragako bulegoa askoz ere txikiagoa zen ordea, eta «penaz diot han ez zela Löwenherz doktorearen neurriko eta indar bereko jenderik». Baina pozik ez egoteko arrazoi haiek, nolabait ere pertsonalak zirenak, txikiak ziren guztiz bestelakoak eta objektiboak ziren zailtasun gero eta handigoen ondoan. Urte gutxian milaka eta milaka judu alde eginak ziren beren aberritik, eta milioika zeuden haien atzean zain, zeren Poloniako eta Errumaniako gobernuak ezin argiago adierazi baitzuten, beren aldarrikapen ofizialetan, berek ere beren juduez nahi zutela libre geratu. Ezin zuten ulertu zergatik behar zuen munduak haserretu, «nazio handi eta kulturaz jantzi» baten urratsei jarraitzen bazieten. (Balizko iheslari izan zitezkeen kopuru izugarri hori Eviango Konferentzian agertu zen, zeina 1938an bildu baitzen, aleman juduen arazoa gobernuarteko ekimenen bidez konpontzeko xedez. Porrot izugarria izan zen, eta kalte handia egin zien aleman juduei). Itsasoaz bestaldera emigratzeko bideak jendez gainezka zeuden eta trabatzean hasiak ziren, lehenago Europa barnean ihes egiteko aukerak ere trabatu ziren bezala, eta, gerrak bere asmoak oztopatu ez balizkio ere, nekez izango zen gai Eichmann Vienako «miraria» Pragan errepikatzeko.

Hura dena oso ondo zekien Eichmannek, egiazko aditua bihurtua zen emigrazio-gaietan, eta ez zen espero izatekoa izendapen berria poz handiz hartuko zuenik. Gerra 1939ko irailean hasi zen, eta hilabete geroago Eichmann atzera Berlina deitu zuten, Müllerren lekua har zezan Reicharen Juduen Emigraziorako Zentroko buruzagitzan. Urtetebe lehenago, postu hura promozio garrantzitsua izango zen, baina orduko hura une desegokia zen. Burutik ondo zegokeen inork ezin zezakeen jadanik pentsatu juduen auzia emigrazio behartuaren bitartez bidera zitekeenik; gerra-garaian jendea herri batetik bestera eramateko izaten diren eragozpenak alde batera utzirik, Reichak, Poloniako lurraldeak irabaziz, bi edo bi milioi eta erdi judu gehiago

bereganatuak zituen. Egia da Hitlerren gobernuak bere juduei joaten utzi nahi ziela oraindik ere (juduen emigrazioa erabat geldiarazi zuen agindua bi urte geroago arte ez zen heldu, 1941eko udazkenean), eta baldin «Azken Soluzio» baten gaineko erabakirik hartu bazen, inork ez zuen artean halako agindurik eman, nahiz eta ordurako Ekialdean juduak ghettoetan kontzentratuak egon, eta *Einsatzgruppen* taldeak juduak garbitzen hasiak izan. Guztiz gauza naturala zen emigrazioa, Berlinen «muntatze-katearen printzipioaren arabera» oso ondo antolatua egonagatik ere, apurka-apurka berez indargabetzea. Hara nola deskribatu zuen Eichmannek prozesu hori: «Hortzak ateratzea bezala... gogorik gabe, esango nuke nik, bi aldeetatik. Juduen aldetik, guztiz zaila zelako emigratzeko egiazko aukerarik izatea, eta gure aldetik ez zegoelako ez mugimendurik ez presarik, ez zegoen joan-etorriarik. Hantxe geuden, eraikin handi bikain batean eserita, aho-zabalka, egitekorik batere gabe». Argi zegoen, juduen kontuek, Eichmanni zegozkionek bereziki, emigrazio-lana izaten jarraitzen bazuten, laster geratuko zen hura lanik gabe.

V: BIGARREN SOLUZIOA: KONTZENTRAZIOA

Gerra hasi zen arte, 1939ko irailaren 1ean, ez zen erregimen nazia argi eta garbi totalitarioa eta kriminala bihurtu. Norabide horretan egindako urrats garrantzitsuenetako bat, antolamenduaren ikuspegitik, Himmlerrek izenpeturiko dekretu bat izan zen; dekretu hark bateratzen zituen Eichmann 1934az gero kide zen eta alderdiaren organoa zen Segurtasun Zerbitzua edo SSak, eta Estatuko Segurtasun Polizia erregularra, zeinaren baitan baitzegoen Estatuko Polizia Sekretua edo Gestapo. Horren emaitza Reicharen Segurtasuneko Bulego Nagusia (RSHA) izan zen, zeinaren burua aurrena Reinhardt Heydrich izan baitzen; Heydrich hil ondoren, 1942an, Eichmannen Linzeko ezagun zahar batek, Ernst Kaltenbrunner doktoreak, hartu zuen postu hura. Poliziako ofizial guztiek, ez Gestapok bakarrik, baita Polizia Kriminalakoek eta Ordenako Poliziakoek ere, hartu zituzten lehendik zuten mailari zegozkien SSetako graduak, kontuan hartu gabe alderdiko kideak ziren edo ez: horren ondorioz, egun bakar batean funtzionario zaharren parte garrantzitsu bat hierarkia naziaren sail erradikalenean sartu zen. Nik dakidala, inork ez zuen protestarik egin, inork ez zuen dimisiorik eman. (Himmler, SSen buru eta fundatzailea, 1936tik aurrera aleman poliziaren burua ere izan zen, baina bi erakundeak bereizita egon ziren ordu arte). RSHA, bestalde, SSen hamabi bulego nagusietako bat besterik ez zen; haietan garrantzitsuenak, garai hartan, bi ziren: Ordena Publikoko Poliziaren Bulego Nagusia, Kurt Dalwege Jeneralaren mendekoa, juduak atxilotzeko ardura izan zuena, eta Administrazio eta Ekonomiako Bulego Nagusia (*Wirtschafts-Verwaltungshauptamt* SSa, edo WVHA), Oswald Pohl buru zuena, kontzentrazio-esparruen ardura zuena eta geroago deuseztatzearen alderdi «ekonomikoaz» arduratuko zena.

Jarrera «objektibo» hori —kontzentrazio-esparruez «administratioko» terminoetan hitz egitea, eta deuseztatze-esparruez «ekonomiako» terminoetan— oso gauza tipikoa zen SSen jokamoldean, eta Eichmann juizioan bertan ere asko harrotzen zen hartaz. Bere «objektibotasun» (*Sachlichkeit*) horren bitartez, SSek baztertu egin zituzten Streicher, «errealismo gutxiko ergel» hura bezalako jende mota «emotiboa», eta baita «larruz eta adarrez jantziak baleude bezala jokatzeko zuten alderdiko ur handietako [zenbait] arrain teutoniko-aleman ere». Eichmannek biziki miresten zuen Heydrich, hark ez baitzuten burugabekeria haiek batere maite, eta Himmler berriz ez zuen gustuko, zeren, beste gauza batzuen artean, *Reichsführer* SSe eta aleman poliziako burua zenak, nahiz eta SSen bulego nagusi guztien buru izan, bere buruari utzi baitzion «luzaroan gutxiena ideia burugabe haien mende egoten». Juizioan zehar ordea, ez zuen akusatuak, SS *Obersturmbannführer* aDk, «objektibotasunaren» saria jasoko; Servatius doktoreak eraman zuen sari hori. Servatius doktorea Koloniako zerga- eta negozioetako abokatu bat zen, ez zen inoiz alderdi naziko kidea izan, eta «emotiboa» ez izatea zer den azalduz ikasbide galanta eman zuen juizioan, entzun zutenetik inork nekez ahaztuko zuena. Ikasbidea, juizio osoko une handi bakanetako bat, defentsaren ahozko alegatu laburrean gertatu zen, zeinaren ondoren epaileak lau hilabetez erretiratu baitziren epaia idaztera. Servatiusek akusatua errugabetzat jo zuen, «eskeleto-biltzea, esterilizazio, gas bidezko hilketa, eta *antzeko gai medikoen*» gaineko arduraz, eta hartan Halevi epaileak eten egin zuen: «Servatius, hizketa-akats bat egin duzu inondik ere, gas bidezko hilketa gai mediko bat zela esan duzunean». Eta Servatiusek honelaxe erantzun zuen: «Jakina gai mediko bat zela, sendagileek prestatzen zuten gero; *hilketa-gai bat zen, eta hilketa ere gai mediko bat da*». Eta, agian guztiz seguru egoteko Jerusalemeko epaileek ez zutela ahaztuko nola ikusten dituzten alemanek —aleman arruntek, ez SSetako kide ohiek, edo alderdi naziak—, gaur egun oraindik beste herrialdeetan hilketa deitzen diren egintzak, errepikatu egin zuen esaldia Auzitegi Gorenaren aurrean akusazioaren laburpena egiteko prestatu zuen «Lehen Instantziako juizioaren gaineko iruzkinak» dokumentuan; han berriz ere esan zuen Servatiusek, ez Eichmann, haren gizon bat baizik, Rolf Günther, «gai medikoetan sartuta ibiltzen zela beti». (Servatius doktoreak primeran ezagutzen zituen Hirugarren Reicheko «gai medikoak». Nurenbergen

Karl Brandt defendatu zuen, Hitlerren sendagile pertsonala, Reicharen «Higienea eta Osasuna» plangintzako ahalguztiduna, eta eutanasia-programaren burua).

SSetako bulego nagusi bakoitza, gerra-garaiko antolamenduan, sailetan eta azpisailetan zegoen zatitua, eta RSHA azkenaldean zazpi sail nagusitan banatu zen. IV. saila Gestapoko bulegoa zen; burua Heinrich Müller *Gruppenführer*-a zen (dibisioko jenerala), eta Bavariako polizian izan zuen gradu bera zeukan. Müllerren eginkizuna «estatuaren etsai ziren aurkariak» gudukatzea zen; etsaiak bi kategoriatan bereizten ziren, eta bi sailetan behar ziren landu: IV-A azpisailaren ardura «aurkariak» ziren, hau da, komunismoz, sabotajez, liberalismoz eta hilketaz akusatuak zeudenak, eta IV-B azpisailaren ardurapean berriz «sektak» zeuden, hau da, katolikoak, protestanteak eta framazonak (postu hori hutsik egon zen) eta juduak. Azpisail hauetako kategoria bakoitzak bere bulego berezia zeukan, arabiar zenbaki batez izendatua, halako eran non Eichmanni azkenean —1941ean— RSHAko IV-B-4ko mahaia izendatu baitzioten. Haren gainekoa, IV-B-ren burua, pertsona ezdeusa baitzen, Müller izan zen beti Eichmannen egiazko burua. Heydrich zen Müllerren goikoa, eta geroago Kaltenbrunner, eta haiek biak, beren aldetik, Himmlerren buruzagitza-aren pean zeuden, zeinak aginduak zuzenean Hitlerrengandik hartzen baitzituen.

Bere hamabi bulego nagusiez gainera, Azken Soluzioa bideratzen oso eginkizun garrantzitsua izan zuen beste erakunde mota guztiz bestelako baten burua zen berebat Himmler. Hura zen eskualdeko erakundearen buruzagitza zuten SSetako eta poliziako goimailako buruzagien sarea; haien aginte-kateak ez ziren RSHAren lotzen, aitzitik, zuzenean behar zuten erantzun Himmlerren aurrean, eta Eichmannen eta haren mendeko gizonen gainetik egon ziren beti. *Einsatzgruppen* taldeak, bestalde, Heydrichen eta RSHAren agintepean zeuden; baina horrek, jakina, ez du esan nahi Eichmannek haiekin nahitaez zerikusirik zuenik. *Einsatzgruppen* taldeetako buruek, bestalde, denek zuten Eichmannek baino maila altuagoa. Teknikoki eta antolamenduen aldetik, Eichmannen posizioa ez zen oso altua; haren postua juduen auziarengatik, ez bestela, gertatu zen garrantzi handikoa, arrazoi huts-hutsik ideologikoengatik, eta gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan zen gerrak aurrera egin ahala, egunetik egunera, astetik atera eta hilabetetik hilabetera, harik eta, porrotaren

urteetan —1943tik aurrera— garrantzi ikaragarria izatera heldu zen arte. Urte haietan, Eichmannena zen oraindik ofizialki «etsaiez, hots, juduez» baizik arduratzen ez zen bulego bakarra, baina monopolio hura, izatez, galdua zuen, zeren ordurako bulego eta aparatu guztiak, estatua eta alderdia, armada eta SSak, denak baitzebiltzan arazo hura «konpontzen». Baita arreta poliziaren makinerian bakarrik ipintzen badugu ere, bestelako erakundeak aintzat hartu gabe, panorama ikaragarri nahasia da, Segurtasun Poliziako eta Segurtasun Zerbitzuko komandanteak eta inspektoreak erantsi behar dizkiegunez gero *Einsatzgruppen* taldeei eta SSetako eta poliziako buruzagi nagusiei. Talde bakoitza bestelako aginte-kate bateko kidea zen, azkenean Himmlerrengana heltzeraino, baina elkarren ondoan maila berekoak ziren, eta talde jakin bateko inork ez zion obediientziarik zor beste talde bateko goragoko buru bati. Fiskalak, onartu beharra dago, oso lan nekeza izan zuen erakunde paraleloen labirinto hartan bidea bilatzen, eta horixe egin behar zuen Eichmanni erantzukizun jakinen bat egotzi behar zion aldi bakoitzean. (Juizioa gaur egun egingo balitz, eginkizun hori askoz ere errazagoa zatekeen, Raul Hilbergekin lortu baitu bere *The Destruction of the European Jews* lanean suntsiketako makineria ezin nahasiago hori aurrenekoz argi deskribatzea).

Are gehiago, gogoan izan behar da organo horiek guztiak, botere izugarria zutelarik, elkarrekin lehia gogorrean aritzen zirela; baina horrek ez zien biktimei laguntzen, gauza bera desiratzen baitzuten denek: ahalik eta judu gehienak hiltzea. Lehiakortasun horrek taldearenganako leialtasun handia eragiten zuen gizon ororengan, eta gerraren ondoren ere bizirik dirau, baina alderantziz: gainerakoen lepotik «norberaren taldea salbuestea» bihurtu da guztien desira. Azalpen huraxe eman zuen Eichmannek Rudolf Hössen memoria-liburua aurkeztu ziotenean. Höss Auschwitzeko komandantea zen, eta zenbait gauzaz salatzen du Eichmann liburu horretan; baina Eichmannek zioenez, gauza haiek ez omen zituen berak egin, eta bere posizioan ezin egin zitzakeen gainera. Eichmannek nahiko erraz onartu zuen Hössek ez zuela arrazoi pertsonalik berari egin ez zituenak leporatzeko, aski harreman adiskidetsuak izan baitzituzten; baina Eichmannek behin eta berriz esan zuen, alferrik, Hössek bere taldea, Administrazio eta Ekonomiako Bulego Nagusia, nahi zuela errugabetu, eta errua osorik RSHari leporatu. Antzeko gauza gertatu zen Nurenbergen: han akusatuek ikuskari higuigarri bat eskaini

zuten, batak bestea akusatuz; baina inortxok ere ez zion errua Hitlerri egotzi! Hala ere, ez zuten hura norberaren burua beste inoren lepotik salbatzeko egin; juizioko gizonak erakunde erabat desberdinetakoak ziren, eta aspaldiko etsaitasuna, sakon sustraitua, zioten elkarri. Lehenago ere aipatu dugun Hans Globke doktorea Atzerriko Arazoetako Ministerioaren lepotik saiatu zen bere Barne Ministerioa errugabetzen, Nurenbergen fiskalaren lekuko gisa mintzatu zenean. Eichmann, bestalde, beti saiatu zen Müller, Heydrich eta Kaltenbrunner babesten, azken horrek gaizki tratatu zuen arren. Fiskalak Jerusalemen egin zuen errakuntza objektibo handienetako bat, inondik ere, akusazioa goi-mailako nazi ohi bizien nahiz hilen zinpeko aitorten edo zin egin gabeetan gehiegi oinarritzea izan zen; ez zuen ikusi, eta agian ezin zen ikusterik espero, zeinen zalantzazkoak ziren dokumentu haiek gertakariak finkatzeko iturri gisa. Epaiak berak ere, beste kriminal nazien lekukotasun kondenatzaileak ebaluatzerakoan, aintzat hartu zuen (defentsaren lekukoetako baten hitzetan), «gerrako krimenen juizioen garaian usadiozko gauza [zela] ahal zen errurik handiena aurrean ez zeudenei edo ustez hilak zirenei leporatzea».

Eichmann bere bulego berrian sartu zenean, RSHako IV. sailean, dilema deseroso baten aurrean gertatzen zen artean ere: alde batetik, «emigrazio behartua» zen juduen auziaren soluziorako formula ofiziala, eta, beste aldetik, emigrazioa ezinezkoa zen ordurako. SSetan egin zituen urteetan, aurreneko (eta ia azkeneko) aldiz, egoerak bere kabuz jokatzera bultzatu zuen, hau da, ezin ote zuen «ideiaren bat asmatu» ikustera. Poliziaren azterketan eman zuen bertsioaren arabera, hiru ideiaren asmazioaren bedeinkapena izan zuen. Hirurak, onartu beharra zeukan, ustelak atera ziren; bere kabuz egiten zituen saio guztiak oker ateratzen ziren; azkeneko kolpea bere Berlingo gotorleku pribatua «abandonatu» behar izan zuenean etorri zen, errusiar tankeen kontra borrokatzen saiatzeko aukera izan baino lehen. Frustrazioa besterik ez; suerte txarreko istorio bat, inondik ere. Arazo-iturri ezin agortuzkoa zen, Eichmannen ikuspegitik, bera eta beraren gizonak ez zituztela sekula bakean uzten, estatuko eta alderdiko bulego guztiek nahi zutela «soluzioan» esku hartu, eta horren emaitza zer izango, eta «juduetan adituak» ziren osteak nonahi sortu zirela, eta elkarri traba egiten ziotela ezer ez zekiten esparru batean aurrenekoak izateko ahaleginetan. Eichmannek biziki mespretxatzen zuen jende hura, partez iritsi berriak zirelako, partez aberastu nahi zutelako —sarritan lortzen

zuten lanean aberastea—, eta partez ezjakinak zirelako, «oinarrizko liburuak» edo bi liburuak ere irakurri gabeak.

Eichmannen hiru ideiak, ikusiko zenez, «oinarrizko liburu» haiek inspiratu zituzten nonbait, baina orobat agertu zen hiru ideietatik bi ez zirela harenak inondik ere, eta hirugarrenari zegokionez —bueno, «dagoeneko ahaztu zait Stahlecker-i [Eichmannen nagusia Vienan eta Pragan] edo neroni bururatu ote zitzaidan ideia, baina, nolanahi ere, ideia jaio egin zen». Azkeneko ideia hori, kronologikoki, lehendabizikoa izan zen; «Niskoko ideia» zen, eta ideia haren porrota izan zen, Eichmannentzat, gaitzaren interferentziaren frogarik argiena. (Orduko hartan Hans Frank zen erruduna, Poloniako Gobernari Nagusia). Plana behar bezala ulertzeko, gogoratu beharra dago Poloniaren konkistaren ondoren eta Alemaniak Errusiari eraso egin baino lehen, Poloniako lurak Alemaniaren eta Errusiaren artean zatituak zeudela; Alemaniaren partea mendebaldeko eskualdeak ziren, Reichean sartu zirenak, eta Errusiarena Ekialdeko Eremua deitua, Varsovia barne, zeinari Gobernu Nagusia esaten baitzitzaion, eta garai hartan Ekialdeko Eremua lurralde okupatua bailitzan tratatzen zen. Juduen auziaren soluzioa orduan «emigrazio behartua» baitzen artean ere, Alemania *judenrein* bihurtzeko xedeaz, gauza naturala zen lurralde anexionatueta bizi ziren poloniar juduak, Reicheko beste lekuetan geratzen ziren beste juduekin batera, Gobernu Nagusira bultzatzea, zeina, zena zela, ez baitzen Reicharen partetzat hartzen. 1939ko abenduan hasiak ziren ekialderako ebakuazioak, eta milioi bat judu gutxi gorabehera, seiehun mila bereganatutako eremuetatik eta laurehun mila Reichetik, hasi ziren Gobernu Nagusira iristen.

Eichmannen Niskoko abenturaren bertsioa egia baldin bada —eta ez dago ez sinesteko arrazoirik—, berak, edo, gertagarriagoa dena, beraren Pragako eta Vienako nagusiak, Franz Stahlecker *Brigadeführer* zenak (brigada-jeneralak), zenbait hilabete lehenago behar izan zituen gertaera hauek aurrez ikusi. Stahlecker *doktore* hura, Eichmannek ardura handiz deitzen zuen bezala, haren iritzian oso gizon fina zen, ondo hezia, zentzuzkoa, eta bostekoa eman ohi zien funtzionario juduei, «inolako gorroto eta txaubinismorik gabe», Vienan. Urte eta erdi geroago, 1941eko udaberrian, jaun ondo hezi hura *Einsatzgruppe* A taldearen komandante-buru izendatu zuten, eta urtebete pasan (bera guduan hil zen, 1942an), berrehun eta berrogeita

hamar mila judu lortu zuen tiroka hiltzea, Himmlerri berari harro-harro esan zion bezala, nahiz eta *Einsatzgruppen* taldeetako buruzagia, polizia-unitateak zirelarik, Segurtasun Poliziaren eta SDren burua zen, hau da, Reinhardt Heydrich. Baina hura geroago gertatu zen, eta une hartan, 1939ko irailean, Alemaniar Armada artean Poloniako lurraldeak okupatzen ari zenean, Eichmann eta Stahlecker doktorea «pribatuki» ziren gogoeta egiten hasiak, asmatu nahian nola lor ote zezakeen Segurtasun Zerbitzuak Ekialdean eragin-parte bat izatea. Haiek behar zutena zen «ahalik eta eremurik handiena Polonian, bertan estatu judu autonomo bat antolatzeko, babes-herri baten moduan... Hura izen zitekeen *soluzioa*». Eta hantxe joan ziren, beren kabuz, inoren agindurik gabe, lurraldea miatzera. Radom Barrutira joan ziren, San ibaiaren ingurura, Errusiako mugatik urruti ez, eta hantxe «lurralde zabal-zabala ikusi zuten, herriak, azokak, hiri txikiak», eta «esan genion geure buruari: hauxe da guk behar duguna, eta zergatik ez, aldatzeko, poloniarrek birkokatu, toki guztietan jendea birkokatzen ari direnez gero»; huraxe izango zen «juduen auziaren soluzioa»: lur sendoa oinen azpian, pixka batean behintzat.

Hasieran dena oso ondo zihoala ematen zuen. Heydrichengana joan ziren, eta Heydrichetik, haiekin bat etorrita, aurrera egiteko esan zien. Izan ere —nahiz eta Eichmannek, Jerusalem, erabat ahaztua izan hura—, haien proiektua oso ondo txertatzen zen garai hartan Heydrichetik juduen auzia konpontzeko zeukan plangintza orokorrean. 1939ko irailaren 21ean, RSHako eta *Einsatzgruppen* (jadanik Polonian lanean ari ziren) taldeetako «sailburuak» bilera batean elkartu zituen. Bilera hartantxe eman ziren segituan abian jarri beharreko araubideak: juduak ghettoetan kontzentratu, judu zaharren kontseiluak antolatu, eta judu guztiak Gobernu Nagusiko eremura eramane. Eichmannek ere parte hartu zuen «Juduen Emigration Zentroa» sortu zen bilera hartan, juizioan batzar-agirien bidez frogatu zen bezala, zeinak Israeleko poliziaren 06 Bulegoak Washingongo Artxibo Nazionaletan aurkitu baitzuen. Hortaz, Eichmannen ekimena, edo Stahleckerrena, Heydrichen araubideak abian jartzeko plangintza konkretu bat izatera besterik ez zen heldu. Eta orain milaka eta milaka pertsona, Austriakoak gehienak, ari ziren arrapaladan deportatzen Jainkoak ahaztutako leku hartara, zeren leku hura, SSetako ofizial batek —Erich Rajakowitsch, geroago holandar juduen deportazioaren arduraduna izango zena— azaldu zuen bezala, «Führerrak aberri berri bat agindu

baitie juduei. Ez dago etxebizitzarik, ez dago eraikinik. Eraikitzen badituzue, teilatu bat izango duzue buruen gainean. Urik ez dago, inguruko iturri guztiek gaixotasunak zabaltzen dituzte, badira kolera, disenteria eta sukar tifoideak. Lurra zulatu eta ura aurkitzen baduzue, ura edukiko duzue». Ikusten denez, «denak zoragarria ematen zuen», salbu eta SSek judu batzuk paradisu hartatik egotzi zituztela, Errusiako mugaz haruntzago eramanez, eta beste batzuk beren borondatez ihes egiteko bezain argiak izan ziren. Baina orduan, kexatu zen Eichmann, «eragozpenak hasi ziren, Hans Frank-en aldetik», hari informazioa ematea ahaztu baitzitzairen, nahiz eta «beraren» lurraldea izan. «Frank Berlinen kexatu zen, eta sekulako zalaparta sortu zen. Frankek bere kabuz nahi zuen konpondu bere juduen auzia. Ez zuen bere Gobernu Nagusian judu gehiago hartu nahi. Iritsi zirenek lehenbailehen behar zuten desagertu». Eta desagertu egin ziren; eta batzuk atzera bere sorlekura bidali ere egin zituzten, lehenago sekula gertatu ez zen gauza eta berriz ere gertatuko ez zena: Vienara itzuli zirenak «borondatezko trebakuntzatik zetozelakoan» erregistratu ziren poliziaren txostenetan, mugimenduaren garai sionismozalerako itzulera bitxian.

Bere karreraren ikuspuntutik begiratuta hobeto ulertzen da Eichmannek «bere» juduentzat lurraldea eskuratzeko zuen irrika hura. Niskoko plana haren goraldi lasterraren garaian «jaio» zen, eta oso litekeena da Eichmannek bere burua etorkizuneko «estatu judu» bateko etorkizuneko gobernari nagusi gisa ikustea, Hans Frank Polonian bezala, edo etorkizuneko babesle gisa, Heydrich Txekoslovakian bezala. Ekimenaren porrot handiak, nolanahi ere, irakatsiko zion zer edo zer ekimen «pribatu» batek izan zitzakeen aukerez eta desiragarritasunaz. Eta bera eta Stahlecker Heydrichen araubideen baitan eta haren ageriko baimenarekin arituak zirenez gero, juduen aberriratzeko berezi honek, zeina behin-behineko porrota izan baitzen, argi eta garbi, polizia eta SSentzat, erakutsi behar izan zion Eichmanni bere taldearen boterea, gero eta handiagoa izan arren, ez zela halere guztiahaltasunera iristen, eta Estatuko ministerioak eta alderdiko beste erakundeak ongi prestatuak zeudela urriagotzen ari zitzairen aginpideari eusteko eta helburu horren alde borrokatzeko.

Madagaskarreko proiektua izan zen Eichmannek «juduen oinen azpian lur sendo pixka bat ipintzeko» egin zuen bigarren ahalegina. Lau milioi judu Europatik Afrikako hego-ekialdeko kostaldeko

frantses uhartera eramateko plana —bertako biztanleak 4.370.000 lagun ziren, eta bertako lurra, pobre-pobrea, 227.678 milia karratu—, Atzerriko Arazoetako Ministerioan sortu zen eta ondoren RSHara igaro zen, zeren, Wilhelmstrassen juduen arazoen arduraduna zen Martin Luther doktorearen hitzetan, poliziak baizik ez «baitzeuzkan juduen masa-ebakuazio bat gauzatzeko eta ebakuatuen ikuskaritza bermatzeko esperientzia eta bitarteko teknikoak». «Estatu judu» hark Himmlerren agintepeko polizia-gobernu bat izango zuen. Proiektuak berak istorio bitxia zuen. Eichmannek, Madagaskar eta Uganda nahastuz, amets hura «Estatu juduaren protagonista juduak, Theodor Herzlek, behin izan zuen ametsa» zela esaten zuen beti, baina egia da izan zutela bestek ere, lehenago, amets bera: lehendabizi Poloniako gobernua, zeinak 1937an neke handiak hartu baitzituen ideia aztertzen, azkenean konturatzeko ezingo zituela bere ia hiru milioi juduak denak akabatu gabe hara eraman, eta geroxeago, Georges Bonnet Frantziako Atzerriko Arazoetako Ministroak; hark plan apalago bat antolatu zuen, hain zuzen ere Frantziako atzerriar juduak, berrehun mila lagun inguru, frantses koloniararen eramatea. Bere aleman kide Joachim von Ribbentrop-i kontsulta ere egin zion asmo hura zela-eta, 1938an. Nolanahi ere, 1940ko udan, emigrazio-kontua ez aurrera eta ez atzera zegoenean, lau milioi judu Madagaskarrera ebakuatzeke plan xehe bat antolatzeke eskatu zioten Eichmanni, eta proiektu hura lantzen aritu bide zen buru-belarri Errusiako inbasioaren garaia arte, urtebete geroago. (Lau milioi harrigarri kopuru baxua da Europa *judenrein* egiteko. Argi dago Poloniako juduak, hiru milioi, ez zirela kopuru hartan sartzen, haiek, edonork dakienez, gerrako lehen egunetik bertatik hasi baitziren garbitzen). Ez dirudi oso uste izatekoa inork kontu hura benetan hartu zuenik, Eichmannek eta beste zenbait pertsona ez oso buru-argik izan ezik; izan ere—lurralde desegokia zela gauza jakina izateaz gainera, uhartea, izan, frantses jabetza zen—, plan hark lau milioi pertsona itsasoz garraiatzea eskatzen zuen, noiz eta gerra baten erdian eta Britainiako itsas armadak Atlantikoa bere mende zeukan une batean. Madagaskarreko plana estalki baten moduan baliatzea pentsatu zen beti, haren itzalpean Mendebaldeko Europako judu guztien deuseztatze fisikoarentzako prestaketak bideratu ahal izateko (ez zen batere estalkirik behar Poloniako juduak deuseztatzeke), eta bazuen abantaila handi bat antisemita trebatuen

ondoan, haiek, egiten zituzten ahalegin guztiengatik ere, Führerra baino urrats bat atzerago geratzen baitziren beti; alegia, plan harekin zerikusia zuten guztiak konturatuko ziren judu den-denak Europatik ebakuatzeak baizik ez zuela balio izango, hots, ez legedi bereziak, ez «disimilazioa», ez ghettoak ez zirela aski izango. Hala, urtebete geroago, Madagaskarreko proiektua «zaharkitu» egin zela adierazi zenean, jende guztia zegoen psikologikoki, edo, areago, logikoki, hurrengo urratserako prestatua: nora «ebakatu» ez zegoenez gero, deuseztatzea zen «soluzio» bakarra.

Eichmannek, etorkizuneko belaunaldiari egia errebelatuko zien hark, ez zuen sekula susmatu ere egin halako plan gaiztorik, hori egia da. Harentzat, denbora faltak hondatu zuen Madagaskarreko ekimena, eta denbora hura beste bulegoen interferentzia etengabeen bidez xahutu zen. Jerusalem, bai polizia bai epaileak saiatu ziren Eichmann bere uste goxotik ateratzen. Gorago aipaturiko 1939ko irailaren 21eko bilerarekin zerikusia zuten bi dokumentu erakutsi zizkioten; haietako batean, Heydrich-ek teletipoz bidalitako gutun batean, *Einsatzgruppen* taldeentzat zenbait araubide zituenak, aurreneko aldiz bereizten ziren, batetik, «azken xede bat, epe luzeagoak behar zituen», eta «erabateko sekretu» gisa tratatu behar zena, eta, bestetik, «azken xede hori iristeko urratsak». «Azken soluzio» esapidea ez zen artean agertzen, eta dokumentuak ez du ezertxo ere esaten «azken xede» haren esanahiaz. Hor, Eichmannek esan zezakeen, esan ere, «azken xede» bere Madagaskarreko proiektua zela, une hartan Alemaniako bulego guztietan atzera eta aurrera zerabiltena; zeren judu guztiak masa-ebakuazio bat egiteko kontzentratzea, aurretiko «urrats» bat zen. Baina Eichmannek, dokumentua arduraz irakurri ondoren, bertatik esan zuen sinetsia zegoela «azken xede» hark «deuseztatze fisikoa» baizik ezin zuela adierazi, eta bukatu zuen esanez nola «oinarrizko ideia hori sustraitua zegoen ordurako buruzagi gorenen edo goi-goian zeuden gizonen buruetan». Horixe izan zitekeen hain zuzen ere egia, baina hala bazen, Eichmannek onartu beharko zuen Madagaskarreko proiektua asmakeria bat besterik ezin izan zitekeela. Ez zuen, ordea, halakorik egin; sekula ez zuen bere Madagaskarreko istorioa aldatu, eta seguru asko ezin aldatu zuelako. Istorio hori Eichmannen memoriako zinta berezi batean grabatua zegoela ematen zuen, eta bere memoriako grabazio hori erabateko babesa gertatu zitzaion arrazoi, argudio, informazio eta ulermen ororen kontra.

Memoriak jakinarazi zion Eichmanni etenaldi bat izan zela Mendebaldeko eta Erdialdeko Europako juduen kontrako ekimenetan, hain zuzen ere gerraren hasieraren (Hitlerrek, Reichstagari 1939ko urtarilaren 30ean egin zion hitzaldian, gerrak «Europako judu-arrazaren ezereztea» ekarriko zuela «iragarri» zuen) eta Errusiako inbasioaren artean. Dударik gabe, Reicheko eta lurralde okupatuetako zenbait bulego «aurkariak, juduak» hiltzeko ahaleginean ari zen, baina ez zuten politika bateraturik; bulego bakoitzak bere «soluzio» propioa zuela ematen zuen, eta gainerakoek soluzioen lehian uzten zitzaiola hura aplikatzen. Eichmannen soluzioa polizia-estatu bat zen, eta horretarako lurralde ukigarri bat behar zuen. Haren «ahalegin guztiak ustelak atera ziren zegokien buruen arteko ulerpen faltagatik», «aurkaritasunengatik», eztabaidengatik, borrokengatik, denak «nagusitasunarengatik lehiatzen» zirelako. Eta halako batean beranduegi izan zen; Errusiaren kontrako gerrak «inork uste ez zuela jo zuen, trumoi batek bezala». Huraxe izan zen Eichmannen ametsen amaiera, eta hark markatu zuen «bi alderdientzat egokia izango zen soluzio bat bilatzen zen garaia». Hura izen zen, Argentinan idatzi zituen memorieta onartu zuen bezala, «juduak banaka-banaka tratatzeko legeak, aginduak, dekretuak zeuden garai baten bukaera». Eta, Eichmannen arabera, hori baino gehiago ere izan zen, bere karreraren amaiera izan zen, eta horrek, ondorengo «fama» gogoan hartuta gauza burugabea ematen bazuen ere, ezin ukatu da bazuela funtsik. Izan ere, Eichmannen taldea, bai «emigrazio behartuaren» errealitatean, bai nazien mendeko Estatu judu baten ametsetan, juduei zegozkien gai guztietan agintaritza nagusia izan zena, «bigarren mailara igaro zen» orain juduen auziaren Azken Soluzioari zegokionez, zeren hasia zegoena zenbait unitatetara aldatu baitzen, eta negoziazioak beste bulego nagusi batek bideratzen zituen, aurreko *Reichsführer* SS eta aleman poliziaren buruaren agintepean. «Zenbait unitate» haiek hiltzaile-talde hautatuak ziren, Ekialdean armadaren atzealdean jarduten zutenak, eta bertako biztanle zibilak, eta bereziki juduak, sarraskitzea zen haien eginkizun nagusia; eta beste bulego nagusia WVHA zen, Oswald Pohl-en mendekoa, eta harengana jo behar zuen Eichmannek juduen garraialdi bakoitzaren azken helmuga jakiteko. Azken helmuga hilketa-instalazioen «absortzio-ahalmenaren» arabera kalkulatzeko; orobat kalkulatzeko zen esklabo-langileen eskariaren arabera, enpresa askori errentagarria iruditu baitzitzaizen zenbait

heriotza-esparruren inguruan lantegi-adarrak ipintzea. (SSen lantegi oso garrantzi handikoez aparte, ospe handiko zenbait aleman konpainiak, besteak beste I.G. Farben-ek, Krupp Werke-k eta Siemens-Schuckert Werke-k, fabrikak ipini zituzten Auschwitzeko eta baita Lublineko heriotza-esparruetan ere. SSen eta enpresa-gizonen arteko lankidetzak primerakoa izan zen; Hössek, Auschwitzeko buruak, oso gizarte-harreman onak zituela I.G. Farbeneko ordezkariekin adierazi zuen. Lan-baldintzei zegokienez, asmoa, zalantzarik gabe, langileak lanaren bidez hiltzea zen; Hilbergen arabera, I.G. Farben fabriketako batean lan egiten zuten hogeita hamabost mila langile ingurutik, gutxiena hogeita bost bat mila hil ziren). Hala, Eichmanni zegokionez, ebakuazioa eta deportatzea ez ziren jadanik «soluzioaren» azkeneko urratsak, eta sailari lanabes-balioa geratu zitzaion huts-hutsik. Hortaz, arrazoi guztia zuen, Madagaskarreko proiektua baztertu zutenean, oso «mindua eta desilusionatua» sentitzeko; eta kontsolatzeko geratzen zitzaion gauza bakarra *Obersturmbannführer* kargura igotzea izan zen. 1941eko urrian hartu zuen kargu berria.

Eichmannek gogoan zuenez, 1941eko irailean ahalegindu zen azkeneko aldiz bere kabuz zerbait egiten, hau da, Errusiaren inbasioa gertatu eta handik hiru hilabetera. Heydrich, artean Segurtasun Poliziako eta Segurtasun Zerbitzuko buru zena, Bohemia eta Moraviako babesle izendatu zuten. Hura ospatzeko, Heydrich, prentsako konferentzia bat bilduta, zortzi hilabetearen babes-herria *judenrein* egongo zela agindu zuen. Konferentziaren ondoren, eginkizun hura bideratu behar zutenekin jardun zuen: Franz Stahlecker-ekin, zeina orduan Pragako Segurtasun Poliziako buruzagi lokala baitzen, eta Karl Hermann Frank Estatuko idazkariordearekin, zeina Sudeteetako buruzagia izan baitzen, eta Heydrich hil ondoren *Reichsprotektor* gisa haren ondorengoa izango baitzen. Frank, Eichmannen iritzian, behe-mailako tipoa zen, «Streicherren klase» berekoen moduan juduak gorrotatzen zituen, «soluzio politikoei buruz hitzik ez zekiena», «modu autokratikoan, eta, hala esan dezadan, beren aginpidearen mozkorrean, aginduak ematen baizik ez dakiten» horietako bat. Baina gainerakoan, konferentzia atsegina izan zen. Heydrich, aurreneko aldiz, «alderdi gizatiarrago bat» erakutsi zuen eta onartu zuen, zintzotasun zoragarritz, «gehiegi hitz egin» zuela —«ez zitzaien oso harritzekoa gertatu Heydrich ezagutzen zutenei»—, «izaera goranahia eta bizi-bizia» baitzuen, «sarritan hitzei hortzen harresitik ondoren

nahi izango zuena baino lasterrago ateratzen uzten ziena». Hala, bada, Heydrichék berak esan omen zuen: «Hortxe dago saltsa. Zer egin behar dugu guk orain?». Eta horri esan omen zion Eichmannek: «Aukera bakarra dago, ezin baduzu esan duzunetik atzera egin. Eman ezazu espazio zabal bat bertara babes-herriko juduak igortzeko, orain sakabanatuak bizi dira-eta». (Aberri judu bat, Diasporako erbesteratuen elkartzea). Eta orduan, zoritxarrez, Frankek —Streicherren erako juduen gorrotatzaileak— proposamen konkretu bat egin omen zuen, eta hura izan zen espazio hura Theresienstadt antolatzea. Eta hala Heydrichék, agian bere boterearen mozkorrean hura ere, besterik gabe agindu zuen Theresienstadteko bertako biztanleak, txekiarrak, ebakuatzea, juduentzat lekua egiteko.

Hara bidali zuten Eichmann, gauzak ikuskatzera. Desilusio handia: Bohemiako gotorleku-hiria, Eger ibaiaren ertzean, oso-oso txikia zen; gehienera ere, Bohemiako eta Moraviako laurogeita hamar mila juduen ehuneko jakin batentzat tokialdatze-esparrua izan zitekeen. (Berrogeita hamar mila inguru txekiar judurentzat, Theresienstadt hain zuzen ere tokialdatze-esparrua izan zen, Auschwitzerako bidean, eta beste hogeit bat mila, kalkuluen arabera, zuzenean heldu ziren hantxe, Theresienstadt, xede berera). Eichmannen memoria akastuna baino iturri hobeetatik dakigu, hasieratik bertatik, zenbait judu-kategoria pribilegiadunentzako ghetto berezi baten moduan antolatu zuela Heydrichék Theresienstadt, bereziki, baina ez osorik, funtzionario aleman-judentzat, pertsona garrantzitsuentzat, goi-mailako ohoredinak zituzten gerrako beteranoentzat, elbarrientzat, bikote mistoen kide juduentzat eta hirurogeita bost urtetik gorako aleman-judentzat (hortik zetorkion *Altersghetto* goitizena). Baina kategoría mugatu haientzat ere txikiegia gertatu zen hiria, eta 1943an, esparrua antolatu eta urtebeteren buruan, «urritze» edo «arintzeko» (*Auflockerung*) prozesua jarri zen martxan, eta erregulariki hasi zen jende-metaketa konpontzen, bertakoak Auschwitzera bidaliz. Baina puntu batean, Eichmann ez zuen bere memoriak engainatu. Theresienstadt izan zen hain zuzen ere WVHAren aginpidearen mende geratu ez zen kontzentrazio-esparru bakarra; aitzitik, Eichmannen ardurapean egon zen azkena arte. Haren mendekoak bere taldeko gizonak ziren, bera baino beheragoko mailakoak denak; esparru bakarra izan zen Eichmannek Jerusalemeko fiskalak egozten zion aginpidearen parte bat behintzat egiaz izan zuena.

Eichmannen memoria, urteen gainetik arrunt aise jauzi eginez —bi urte aurreratu zen gertaeren sekuentzian galdeketa egiten zion poliziari Theresienstadteko istorioa kontatu zionean—, ez zegoen ordena kronologikoaren mende; alderrai zebilen, besterik gabe. Biltegi baten modukoa zen, tankera okerreneko giza intereseko istorioez betea. Pragaz gogoratzean, Heydrich handiaren aurrera eraman zuten eguna atara zen, «alderdi gizatiarrago bat» erakutsi zuen hura. Saio batzuk geroago, Bratislavara, Eslovakiara, egin zuen bidaia bat aipatu zuen, Eichmann hantxe zen-eta Heydrich hil zutenean. Gogoan zuen Bratislavan alemanek ezarritako Eslovakiako txotxongilo-gobernuko Sano Mach Barne Ministroaren gonbidatu gisa zegoela. (Gobernu katoliko guztiz antisemita hartan, Mach antisemitismoaren aleman bertsioa zen; ez zuen judu bataiatuekin salbuespenik egiterik onartu, eta Eslovakiako juduen deportazio handiaren arduradun nagusietako bat izan zen). Eichmannek ondo gogoan zuen hura, ez baitzen berarentzat ohiko gauza gobernuko kideen gonbidapen sozialak jasotzea; ohore bat zen. Mach, Eichmann gogoratzen zenez, gizon ireki atsegina zen, eta bola-jokoan aritzera gonbidatu zuen. Ez al zuen Eichmannek Bratislavan, noiz eta gerraren erdian, Barne Ministroarekin bola-jokoan ibiltzea beste eginkizunik? Ez, ez zuen beste eginkizunik; oso ondo gogoratzen zen hartaz, nola ibili ziren boletan, eta nola edariak zerbitzatu berriak zirenean heldu zen Heydrichen kontrako erasoaren albistea. Lau hilabete eta berrogeita hamabost grabazio-zinta geroago, Less kapitaina, Israeleko galdekatzailea, berriz ere puntu honetara itzuli zelarik, Eichmannek ia hitz berberekin kontatu zuen istorioa, istorio berbera, egun hura «ezin ahaztuzkoa» izan zela erantsiz, bere «nagusia erail zutelako». Orduko hartan, nolanahi ere, dokumentu bat erakutsi zioten, eta dokumentu hartan ageri zenez «indarrean zegoen Eslovakiako juduen kontrako ebakuazio-ekimenaz» hitz egiteko bidali zuten Eichmann Bratislavara. Bertatik onartu zuen bere hutsa: «Jakina, jakina, Berlingo agindu bat zegoen, ez ninduten hara bola-jokoan aritzera bidali». Bi bider aritu ote zen gezurretan, koherentzia handiaz gainera? Nekez halakorik. Juduak ebakutzeari eta deportatzea errutinazko kontua bihurtua zen; bola-jokoa geratu zitzaion gogoan itsatsia, ministro baten gonbidatua izatea, eta Heydrichen kontrako erasoaren berri jakitea. Eta Eichmannen memoria motari zegokion moduan, ezin zuen inola ere gogoratu zein urtetan gertatu zen egun gogoangarri hura, txekiar abertzaleek «borreroa» hil zutena.

Memoria hobeia izan balu, ez zuen sekula Theresienstadteko istorioa aipatu ere egingo. Zeren hura guztia «soluzio politikoen» garaia igaroa zenean gertatu baitzen, eta «soluzio fisikoen» hasia zenean. Hura guztia, beste testuinguru batean berez, naturalki, onartuko zuenez, Führerrak Azken Soluzioaren gainean emandako aginduaren berri eman ziotenean gertatu zen. Herrialde bat *judenrein* bihurtzeak, Heydrichék Bohemian eta Moravian huraxe egingo zuela agindu zuen garai berean, esanahi bakarra izan zezakeen, hots, juduak hilketa-zentroetara erraz garraia zitezkeen puntuetan kontzentratzea eta haietara deportatzea. Theresienstadtek azkenean beste helburu baterako balio izatea, kanpoko munduarentzat erakuslekua izatea —Nazioarteko Gurutze Gorriaren ordezkariak onartu ziren ghetto edo esparru bakarra izan zen— beste kontu bat zen, Eichmannek une hartan, seguru kasik, batere ez zekiena, eta, nolanahi ere, beraren ahalmenetatik erabat kanpo geratzen zena.

VI: AZKEN SOLUZIOA: HILTZEA

1941eko ekainaren 22an, Hitlerrek Sobiet Batasunaren kontrako erasoari ekin zion, eta sei edo zazpi aste geroago Berlingo Heydrichen bulegora deitu zioten Eichmanni. Uztailaren 31n, Heydrichetik Hermann Göring *Reichsmarschall*aren gutun bat jaso zuen. Göring Aire Armadako komandante-burua zen, Prusiako Lehen Ministroa, Lau Urteko Planaren komisarioa, eta, azkenik, baina ez garrantzi gutxiagorekin, Hitlerren ordezkaria zen estatuko hierarkian (ez alderdian). Gutun hartan, prestatzeko agintzen zitzaion Heydrichi «juduen auziaren soluzio orokorra [*Gesamtlösung*] aleman eraginpeko Europako eremuan», eta aurkezteko «proposamen orokor bat juduen auziaren Azken Soluzio [*Endlösung*] desiratuaren inplementaziorako». Heydrichetik araubide haiek jaso zituen garairako —1941eko azaroaren 6ko gutun batean armadako agintaritza nagusiari azalduko zionaren arabera—, «urteak zeramatzan juduen auziaren Azken Soluzioa prestatzeko eginkizunarekin arduratuta» (Reitlinger), eta Errusiaren kontrako gerra hasi zenetik, Ekialdeko *Einsatzgruppen* taldeetako masa-hilkintzen arduraduna izana zen.

Heydrichetik, Eichmannekin izan zuen solasaldian, hasteko, «emigrazioari buruzko hitzaldi labur bat» egin zuen (emigrazioa etena zegoen ia osorik, nahiz eta, Himmlerrek berak aztertu behar zituen kasu berezietan izan ezik, hilabete batzuk geroago eman zen juduen emigrazioa erabat debekatzen zuen haren agindua), eta ondoren esan zuen: «Führerrak juduen deuseztatze fisikoa agindu du». Eta hura esan eta gero, «bere usadioen kontra guztiz, isilik egon zen luzaroan, bere hitzen eragina neurtu nahi izango balu bezala. Ondo gogoan dut oraindik ere. Aurreneko unean, ez nintzen kapaz izan Heydrichetik esan zuenaren garrantziaz ohartzeko, ardura handiz aukeratzen baitzituen hitzak, eta gero ulertu egin nuen, eta ez nuen ezer esan, ez zegoen-eta

beste ezer esateko. Niri ez baitzitzaidan sekula horrelakorik bururatu, horrelako soluziorik, indarkeriaren bidezkorik. Une hartan dena galdu nuen, nire lanerako poz guztia, ekimen-indar guztia, interes guztia; nolabait esateko, jota geratu nintzen. Eta gero esan zidan: ‘Eichmann, zoaz Lublineran Globocnik ikustera [goi-mailako buruzagia, Himmlerren goi-mailako SSetako eta polizia buruzagietako bat, Lublinen, Gobernu Nagusian], *Reichsführerrak* [Himmler] eman ditu dagoeneko beharrezko aginduak, zoaz eta ikusi zer lortu duen bitarte honetan. Errusiar tankeen lubakiak erabiltzen dituela uste dut juduak akabatzeko’. Gogoan ditut oraindik ere hitz haiek, ez baititut inoiz ahaztuko, ezta oso luze bizitzen banaiz ere, ordurako bukatzen ari zen elkarriketan esan zituen hitz haiek». Alabaina —eta Argentinan bertan ere gogoan zuen Eichmannek honako hau, baina ahaztu egin zitzaion Jerusalem, eta lastima handia izan zen berarentzat, lotura estua zuen-eta, juduen hilketa-prozesuan berean, Eichmannek zuen aginpidearekin—, gehixeago ere esan zuen Heydrich: ekimena osorik «SSen Ekonomia eta Administrazioako bulego nagusiaren aginpidearen mende» ipini zela —hau da, ez Eichmannen beraren RSHAren mende—, agertu zion Eichmanni; eta berebat agertu zion «Azken Soluzioa» izango zela deuseztatzea adierazteko kode-izen ofiziala.

Eichmann ez zen izan inondik ere Hitlerren asmoaren berri zekien aurrenetakoa. Ikusi dugu nola Heydrich urteetan zen jomuga horrekin lanean jarduna, gerraren hasieratik segur aski, eta Himmlerrek berriz, berak zioenez, Frantziaren porrotaren ondoren, 1940ko udan, jakin (eta protestatu) omen zuen «soluzio» haren berri. 1941eko martxorako, Eichmann eta Heydrich elkarriketatu baino sei hilabete lehenago «alderdiko goi-mailako zirkuluetan, ez zen inolako sekretua juduak deuseztatu behar zituztela», Führerraren Kantzelergoko kidea izandako Viktor Brack-ek Nurenbergeko Epaiketan adierazi zuenez. Eichmann, ordea, Jerusalem alferrik azaltzen saiatu zenez, ez zen inoiz alderdiko goi-mailako zirkuluetako kidea izan; inoiz ez zioten esaten lan mugatu jakin bat egiteko jakin behar zuena baino gehiago. Egia da, behereneko mailetan, Eichmann «erabateko sekretu» hau jakinarazi zitzaion aurrenetako bat izan zela, eta erabateko sekretua jarraitu zuen izaten baita albistea alderdiko eta estatuko bulego guztietan, esklabo-lanarekin lotutako negozio-enpresa guztietan eta (gutxiena) indar armatuetako ofizial-talde guztietan zabaldu zenean

ere. Hala ere, izate sekretu horrek bazuen helburu praktiko bat. Führerraren aginduak ageriki esan zitzaizkienak, esan zitzaien unetik bertatik, ez ziren jadanik «agindu-eramaile» hutsak, areago ziren «sekretu-eramaileak», eta zin berezi bat eginarazi zitzaien. (Segurtasun Zerbitzuko kideak, eta haietakoa zen Eichmann 1934az gero, sekretu-zina eginak ziren nolanahi ere).

Are gehiago, gai honi zegozkion gutun guztiek «hizkuntza-arau» zurrinak behar zituzten bete, eta, *Einsatzgruppen* taldeen txostenetan izan ezik, nekez aurkitzen dira «deuseztatze», «akabatze» edo «hilkintza» bezalako hitz gordinak ageri diren dokumentuak. Hilketa adierazten zuten aginduzko kode-izenak «Azken Soluzioa», «ebakuazioa» (*Aussiedlung*), eta «tratabide berezia» (*Sonderbehandlung*) ziren; deportazioari —salbu eta Theresienstadtera zihoazen juduak baziren, judu pribilegiadunentzako «zahar-ghetto» hartara, eta kasu horretan «egoitza-aldaketa» esaten zitzaion—, «birkokatzea» (*Umsiedlung*) eta «Ekialdeko lana» (*Arbeitseinsatz im Osten*) deitzen zioten; azken hitz horien zergatia zen juduak askotan, denboraldi batez, ghettoetan birkokatzen zituztela eta halako ehuneko bat, denboraldi batez hori ere, lanerako erabiltzen zutela. Egoera berezietan, aldaketatxo batzuk egin behar izaten ziren hizkuntza-kodean. Hala, adibidez, Atzerriko Arazoetako Ministerioko goimailako funtzionario batek Vatikanoarekiko gutun-truke guztietan juduen hilkintzari «errotikako soluzioa» deitzea proposatu zuen behin; ideia argia izan zen, zeren Eslovakiako txotxongilo-gobernu katolikoa, zeinaren aurrean Vatikanoak zenbait kasutan esku hartu baitzuen, nazien ikuspegitik —oinarrizko huts bat egin zuelarik, eta hura izan zen judu bataiatuak salbuestea— ez baitzen juduen aurkako legedian «behar bezain errotikakoa» izan. «Sekretu-eramaileak» beren artean bakarrik mintza zitezkeen kodetu gabeko hizkeran, eta ez da batere uste izatekoa hala mintzatuko zirenik beren eginkizun hilgarriaren ohiko jardueretan, ez behintzat idazkarien eta bulegoko beste langileen aurrean. Hizkuntza-arau haiek, bestelako arrazoiengatik sortuak izan arren, lagungarriak gertatzen ziren oso ordenari eta baretasunari eusteko auzi honetan garrantzizko lankideak ziren zerbitzu eta bulego ugarietan. Areago, «hizkuntza-arau» adierazpidea bera ere (*Sprachregelung*) kode-izena zen berez; hizkera arruntan gezurra deitzen dena esan nahi zuen. Zeren «sekretu-eramaile» batek, kanpoko mundutik zetorren norbaitekin elkartzera bidaltzen zutenean —hala,

Eichmannek, Suitzatik heldutako Nazioarteko Gurutze Gorriari Theresienstadteko ghettoa erakustera bidali zutenean—, hartarako aginduekin batera, «hizkuntza-arau» bereziak ere jasotzen zituen, aipatu kasu horretan Bergen-Belsen-eko kontzentrazio-esparruan ez zegoen tifus-izurrite bati buruzko gezurra izan zena, esparru hura ere nahi baitzuten jaun haiek bisitatu. Hizkuntza-sistema honen eragin zuzena ez zen jende hura egiten ari zenaz ezjakin mantentzea, baizik eta egintza haiek hilketaren eta gezurren ezagutza «normal» zaharrarekin ez berdintzea. Eichmann, hitz eta esapide eginak ikasteko zuen joera eta hizkera arruntarekiko zuen gaitasun falta zirela medio, «hizkuntza-arau» haien subjektu ideala zen.

Sistema, nolanahi ere, ez zen errealitatearen kontrako babes hutsezina, Eichmann laster konturatuko zen bezala. Lublinera joan zen Odilo Globocnik *Brigadeführer*a, Vienako *Gauleiter* ohia, ikustera —ez ordea «hari zuzenean eramateko juduak fisikoki deuseztatzeko agindu sekretua», jakina, nahiz eta fiskalak halaxe esan, Globocnikek Eichmannek baino lehenago jakin baitzuen inondik ere haren berri—, eta «Azken Soluzioa» esapidea erabili zuen bere burua identifikatzeko pasahitz moduan. (Fiskalak antzeko gauza bat esan zuen, noraino zebilen Hirugarren Reicheko burokraziaren labirintuan galdua ondo erakusten zuena, Rudolf Höss Auschwitzeko komandanteari buruz, haren ustez Hösssek ere Eichmannen bidez jaso baitzuen Führerraren agindua. Hutsegite hori behintzat aipatu zuen defentsak, «froga berreslerik gabea» zelakoan. Geroago, Nurenbergeko Epaiketan Hösssek berak adierazi zuen Himmlerrengandik jaso zituela zuzenean aginduak, 1941eko ekainean, eta erantsi zuen Himmlerrekin esan ziola Eichmannek hainbat «xehetasuni» buruz hitz egin behar zuela berarekin. Xehetasun horiek, hala dio Hösssek bere memorietan, gasaren erabilerari buruzkoak ziren, Eichmannek zeharo ukatu zuen gauza. Eta seguruena Eichmannek arrazoia izango zuen, beste iturri guztiek gezurtatu egiten baitute Hössen istorioa, eta diote desuseztatze-aginduak, ahozkoak nahiz idatziak, WVHAren bidez igortzen zirela eta haien buruek, Oswald Pohl *Obergruppenführer*ak [lotinant jeneral], edo Hössen gaineko zuzena zen Richard Glücks *Brigadeführer*ak, ematen zituztela (Hössen lekukotasunaren fidagarritasun eskasa dela-eta, ikus halaber R. Pendorf, *Mörder und Ermordete*, 1961). Eta gasaren erabilerarekin Eichmannek ez zuen inolako zerikusirik. Hössekin noizbehinka zehazten zituen «xehetasun» haiek esparruaren hilkintza-ahalmenari

buruzkoak izaten ziren —zenbat garraialdi har zitzakeen astean—, eta, beharbada, baita zabalkunde-planei buruzkoak ere). Globocniketik, Eichmann Lublinerara iritsi zenean, oso atsegin jokatu zuen, eta haren agindupeko batek erakutsi zion esparrua. Baso bat gurutzatzen zuen errepide batera heldu ziren, eta eskuinaldean etxe arrunt bat agertu zen, langileak bizi zirena. Ordenako Poliziaren kapitain bat (agian *Kriminalkommissar* Christian Wirth bera, Alemanian «ezin sendatuzko pertsona eriak» gaseztatzearen alderdi teknikoen arduraduna izan zena, Führerraren Kantzelergoaren babespean) etorri omen zitzaien agurtzera, eraman zituen egurrezko etxola txiki batzuetara, eta han hasi omen zen, «ahots zakar arrunt hezigabe batean», azalpenak ematen: «Dena ondo-ondo isolatu, errusiar itsaspeko baten motorra abian jarri, eta gasak eraikinean sartuta, juduak pozoitu egingo ziren. Niretzat ere ikaragarria zen hura. Nik ezin dut horrelako gauza bat batera erreaktziorik gabe eraman, ni ez naiz horren gogorra... Gaur bertan, zauri ireki bat erakutsiko balidate, ez dut uste begiratzeko gauza izango nintzatekeenik. Ni horrelakoa naiz, eta, hala, askotan esan didate ni ezingo nintzakeela sendagilea izan. Gogoan dut oraindik nola irudikatu nuen hura neure buruan, eta gaizkitu egin nintzen, gauza aztoragarriren bat gertatu balitzait bezala. Horrelako gauzak edonori gertatzen zaizkio, eta halako barne-dardara bat uzten dute gero».

Suertea izan zuen bada, Treblinkako geroko karbono-monoxidozko ganberen prestakuntzak baizik ez baitzituen ikusi. Treblinka Ekialdeko sei heriotza-esparruetako bat izan zen, ehunka mila judu hilko zirena. Handik gutxira, urte bereko udazkenean, bere hurrengo nagusiak, Müllerrek, Reichari erantsitako Poloniako Mendebaldeko Eskualdeetako (alemanez, Warthegau esaten zioten eskualde hari) hilkintza-zentroa ikuskatzera bidali zuen Eichmann. Heriotza-esparrua Kulm-en zegoen (polonieraz, Chelmno), eta han, 1944an, Europa osoko hirurehun mila judutik gora hil zituzten, aurrena Lodzeko ghettoan «birkokatu» zituztenak. Han dena martxan zegoen, baina sistema diferentea zen; gasezko ganberen ordeztu, gasezko kamioi mugikorrek erabiltzen ziren. Hona zer ikusi zuen Eichmannek: juduak gela handi batean zeuden; erantzeko agindu zieten; orduan kamioi bat ailegatu zen, zuzenean gelako sarreran gelditu, eta bertan sartzeko esan zieten judu biluziei. Ateak itxi zituzten eta kamioia abiatu egin zen. «Ezin dut esan [zenbat judu sartu ziren], begiratu ere ez nuen ia egin. Ezin nuen begiratu; ezin nuen; ezin nuen eraman. Garrasiak, eta... Oso

jota nengoen, eta halaxe esan nion Müllerri haren berri eman nionean; nire txostena ez zitzaion probetxu handikoa gertatu. Gero kamioiaren atzetik joan nintzen autoan, eta orduan ikusi nuen askogatik nire bizitzan sekula ikusi dudan gauzarik ikaragarriena. Kamioia arroila batera inguratu zen, ateak zabaldu, eta gorpuk arroilara bota zituzten, eta oraindik bizirik ematen zuten, hain zeuzkaten zangoak eta besoak malguak. Arroilara bota zituzten, eta oraindik ere ikusten dut zibil bat hortz-aliketekin gorpuei hortzak ateratzen. Eta orduan alde egin nuen; autora salto egin eta ez nuen berriz ahoa zabaldu. Harez geroztik, orduak eman nitzakeen nire gidariaren ondoan eserita harekin hitz bat ere trukatu gabe. Gehiegi izan zen. Arrunt jota nengoen. Gauza bakarra dut gogoan, mantal zuri batez jantzitako sendagile batek esan zidala begiratzeko kamioiko zulo batetik, jendea artean barruan zegoenean. Ezetz esan nion. Ezin nuen begiratu. Desagertu beharra neukan».

Handik gutxira gauza ikaragarriago bat ikusiko zuen ordea. Müllerrek bidali zuen berriz ere, orduko hartan Minsk-era, Errusia Zurian, eta esan zion: «Minsken juduak tiroka hiltzen dituzte. Horren berri ematea nahi dut, hango egoeraren berri». Joan zen, eta hasieran suerte ona izango zuela ematen zuen, zeren, heldu zen garairako, «bukatua zen kasik egitekoa», eta horrekin poz-pozik geratu zen. «Gizaseme gazte batzuk besterik ez zeuden, arroila handi batean zeuden pertsona hilen burura tiraka saioak egiten». Hala ere, ikusi zuen, «eta hura aski izan nuen, emakume bat besoak atzeraka luzatuta zituena, eta orduan belaunek huts egin zidaten eta ospa egin nuen». Bueltan zetorrela, Lviven gelditzea bururatu zitzaion; ideia ona ematen zuen, zeren Lviv (Lvov edo Lemberg) Austriako Inperioko hiria izana baitzen, eta hara heldu zenean «izugarrikerien ondorengo aurreneko irudi atsegina» ikusi omen zuen. Tren-geltokia zen, Frantzisko Josef en erreinaldiaren hamaseigarren urtearen ohoretan eraikia; garai hura beti «adoratu» omen zuen Eichmannek, gauza atsegin asko entzun baitzuen hartaz gurasoen etxean; kontatzen omen zuten gainera gurasoek nola bere amaordearen ahaideek (juduek ulertarazi nahi digu Eichmannek), gizarte-estatus erosoa izan zuten eta dirua franko irabazi zuten. Tren-geltokia ikusteak pentsamendu beltz guztiak uxatu zizkion, eta xehetasun guzti-guztiak gogoan zeuzkan, urteurrenaren urtea horman grabaturik, adibidez. Baina orduan, non eta Lviv zoragarrian, huts handi bat egin zuen. Bertako SSen buruzagia ikustera joan, eta esan omen zion: «Izugarria da inguruotan egiten ari direna; nire ustez

gazte-jendea sadikoa ari da bihurtzen. Nola liteke hori, emakumeak eta haurrak tiroka hiltzea? Hori ezin da egin. Gure jendea erotu egingo da». Baina gauza zen Lviven ere Minsken egiten aritu ziren gauza bera ari zirela egiten, eta Eichmannen gonbidatzailea zoratzten zegoen Lviveko ikuskariak hari erakusteko, nahiz eta Eichmann, jendetasunez, desenkusatzten saiatu. Hala, bada, beste «ikuskari ikaragarri bat [ikusi behar izan zuen]. Arroila bat zegoen han, betea ordurako. Eta hantxe, lurretik turrustan, odol-iturburu bat ageri zen, iturri handi bat bezalakoxea. Halako gauzarik ez nuen nik lehenago sekula ikusi. Nazka-nazka egina nengoen agindu zidaten egiteko harekin, eta Berlina itzuli nintzen eta ikusitakoaren berri eman nion *Gruppenführer* Müllerri».

Baina hura ere ez zen azkena izan. Nahiz eta Eichmannek esan bera ez zela «behar bezain gogorra» ikuskari haientzat, inoiz ez zela soldadua izan, ez zela inoiz frontean egon, ez zuela inoiz egintzarik ikusi, ezin zuela lorik egin eta amesgaiztoak izaten zituela, Müllerrek, bederatzi bat hilabete geroago, Lublineko eskualdera bidali zuen Eichmann ostera ere. Globocnik suharrak eginak zeuzkan ordurako han egin beharreko prestakuntza guztiak. Eichmannek esan zuen hura izan zela bere bizitzan ikusi zuen gauzarik higuingarriena. Ailegatu zenean, ez omen zuen tokia ezagutu, garai batean egurrezko etxola batzuk besterik ez zituen hura. Haren ordezt, ahots zakarreko gizon berak gidaturik, tren-geltoki batera joan zen; «Treblinka» kartela zegoen ipinia, eta Alemaniako beste geltoki guztien itxura bera zeukan: eraikin, seinale, erloju, instalazio berberak; haien imitazio betegina zen. «Atzean geratu nintzen, ahal nuen bezain urruti, ez nintzen inguratu hura guztia ikustera. Hala ere, judu-lerro bat ikusi nuen, biluzik denak, areto handi batean kokatuak, gaseztatuak izateko prest. Han hiltzen zituzten, esan zidatenez, zianuro-azidoa zeritzan zerbaitekin».

Baina Eichmannek ez zuen gauza handirik ikusi. Egia da sarritan egon zela Auschwitz, heriotza-esparrurik handi eta ospetsuenean, baina Auschwitz, hemezortzi milia karratuko eremu bat hartzen zuelarik, Silesia Garaian, ez zen inondik ere deuseztatze-esparrua bakarrik; enpresa ikaragarri handi bat zen, ehun mila lagun ere eduki zituen, eta era guztietako presoak egoten zirena, baita juduak ez zirenak ere, eta orobat zeuden bertan langile esklaboak,

gaseztatzekoak ez zirenak. Ez zen zaila hilkintza-instalazioetara ez inguratzea, eta Hössek, Eichmannen adiskidea zelarik, ikuskari gogorrenetatik urruti eduki zuen. Eichmann ez zen behin ere fusilatuz egindako masa-hilkintza batean egon, ez zuen behin ere gaseztatze bidezko hilketarik ikusi, ez haren aurretik egiten zen lanerako egokiak zirenen aukerarik (garraialdi bakoitzeko ehuneko hogeita bost inguru, batez beste). Suntsiketa-makineriak nola funtzionatzen zuen ondo jakiteko behar zuena ikusi zuen, ez besterik: bi hilketa-metodo zeudela, suzko armen bidezkoa bata eta gas bidezkoa bestea: suzko armen bidezkoa *Einsatzgruppen* taldeen esku zegoela, eta gaseztatzea, berriz, deuseztatze-esparruetan aplikatzen zela, ganberetan nahiz kamioi mugikorretan; eta esparru haietan ardura handia izaten zela biktimak azkeneraino engainatzeko.

Nik hemen erabili ditudan poliziaren grabazio-zintak, juizioan guztira izan ziren ehun eta hogeita bat saiotatik hamarren batean ipini ziren auzitegian, juizioak iraun zuen ia bederatzi hilabeteetatik bederatzigarren egunean. Magnetofonotik ateratzen zen ahots gorpuzgabe bitxiak —bi bider gorpuzgabe, zeren ahotsaren jabe zen gorputza hantxe baitzegoen, baina hura ere bitxiki gorpuzgabea ageri zen inguratzen zuten beirazko horma lodien beste aldean— esan zuenetik, ez berak ez defentsak, ezer ez zuten ukatu. Servatius doktoreak ez zuen eragozpenik jarri, bakarrik aipatu zuen «geroago, defentsaren txanda iristean», aurkeztuko zizkiela berak ere epaileei akusatuak poliziari emandako froga batzuk; ez zuen halakorik egin ordea. Defentsak, hala ematen du, aipa zitzakeen bere eragozpenak une hartan bertan, zeren akusatuaren kontrako prozedura penalak, «juizio historiko» hartan, hasiera-hasieratik bukatuak ematen baitzuten, eta berebat ematen zuten hasiera-hasieratik finkatuak fiskalak egozten zizkion salaketak. Kasuko gertakariak, Eichmannek egin zituenak —ez ordea fiskalak nahi zituen guztiak— ez ziren inoiz auzitan jarri; finkatuak zeuden juizioa hasi baino askoz ere lehenago, eta Eichmannek behin eta berriz aitortuak zituen. Nahikoa eta gehiago ere bazen, Eichmannek berak inoiz esan zuen bezala, urkatzeko. («Ez al da nahikoa esan dizuedan guztia?») bota zuen, poliziako galdekatzailea inoiz izan ez zituen ahalmenak leporatzen saiatu zitzaionean). Baina Eichmannek bere lanpostua garraioan zuenez gero, ez zuzenean hilkintzan, legez, formalki behintzat, galderak hortxe jarraitzen zuen, alegia, ba al zekien zertan ari zen; eta, horrez gainera, beste galdera

bat ere bazen, bere egintzen ikaragarrikeria epaitzeko gai ote zen: osasunaren aldetik ondo zegoela alde batera utzita, ea legearen aldetik erantzulea zen. Bi galderek zuten orain baiezeko erantzuna: Eichmannek ikusi zuen garraialdiak nora egiten ziren, eta erabat jota geratu zen. Bazen azken galdera bat, denetan aztoragarriena, eta epaileek, eta epaile nagusiak bereziki, behin eta berriz egin zuten: juduen hilketa beraren kontzientziaren kontrakoa gertatu zen? Hori, ordea, galdera morala da, eta gerta zitekeen erantzunak legearen aldetik garrantzirik ez izatea.

Baina gertakariak finkatuak egon arren, beste bi galdera sortu ziren, legeari zegozkionak. Aurrenik, erantzukizun kriminala salbuets al ziezaiokeen, aplikatu zitzaion legearen 10. atalak zioen bezala, egin zituenak «bere burua berehalako heriotzaren arriskutik salbatzeko helburuaz» egin zituelako? Eta, bigarren, ba al zuen inguruabar aringarriak aipatzerik, lege beraren 11. atalak zioen bezala: saiatu al zen «ahal zuen guztia egiten delituaren ondorioen larritasuna murrizteko» edo «izan zirenak baino ondorio larriagoak saihesteko»? 1950eko Nazien eta Nazien Laguntzaileen (Zigor) Legea, argi eta garbi, «laguntzaile» juduak gogoan izanik osatu zen. *Sonderkommando* (unitate bereziak) juduak toki guztietan egon ziren hilkintzaren beraren prozesuan enplegatuak, egintza kriminalak egin zituzten «bere burua berehalako heriotzaren arriskutik salbatzeko helburuaz», eta juduen kontseiluak eta buruzagiak ere naziekin elkarlanean aritu ziren, era horretan «izan zirenak baino ondorio larriagoak saihestuko» zituztela uste zutelako. Eichmannen kasuan, haren lekukotasunak berak bi galderei erantzuten zien, eta erantzuna, argi eta garbi, ezezkoa zen. Egia da, suizidioa izango zuela irtenbide bakarra esan zuen behin, baina hori gezurra zen, bai baitakigu deuseztatze-taldeetako kideek zeinen erraza zuten, harrigarri erraza, lana uztea, hargatik ondorio larriarik pairatu behar izan gabe; baina Eichmannek ez zuen bide horretatik jarraitu nahi izan, ez zuen bere esanak hitzez hitz hartzea nahi. Nurenbergeko dokumentuetan, «kasu bakar bat ere ezin izan zen aurkitu, SSetako kide batek hilketa batean parte hartzeari uko egin ziolako heriotza-zigorra izan zuena [Herbert Jager, «Betrachtungen zum Eichmann-Prozess», in *Kriminologie und Strafrechtsreform*, 1962]. Eta juizioan bertan gai honen inguruko adierazpen bat izan zen, von dem Bach-Zelewski defentsaren lekukoarena. Halaxe esan zuen: «Bazegoen eginkizun bati uko egitea, lekualdaketa eskatuz.

Egia da, banan-banako kasuetan, prest egon behar zuen batek halako diziplinazko zigorrak hartzeko. Baina bizitza-arriskurik, nolanahi ere, ez zegoen batere». Eichmannek ondo zekien bera, inondik ere, «agindu bati desobeditzen badio gerra-auzitegi batek fusila dezakeen eta obeditzen badio epaile batek eta epaimahai militar batek urka dezakeen» soldadu baten «posizio zail» klasikoan zegoela —Dicey-k behin bere *Konstituzioaren Lege* famatuan esan zuen bezala—; baina, Eichmann, SSetako kidea zelarik, ez zegoen auzitegi militarren esku, eta poliziaren eta SSen auzitegi baten aurrera baizik ezin zuten eraman. Jerusalem auzitegiaren aurrean egin zuen azkeneko mintzaldian, Eichmannek onartu zuen aitzakia batekin edo besterekin bazuela atzera egitea, eta beste batzuek atzera egin zutela. Urrats hori egitea «onartezina» zela pentsatu omen zuen beti, eta juizioan bertan ere ez zuen uste gauza «miresgarria» zenik; beste lanpostu ondo ordaindu batera aldatzea, ez zen besterik izango. Ageriko desobedientziaren gerraondoko nozioa maitagarri-ipuin bat zen: «Egoera hartan halako jokamolde bat ezinezkoa zen. Inork ez zuen modu horretan jokatzeko». «Ezin pentsatuzkoa» zen. Heriotza-esparru bateko burua izan balitz, Höss bere adiskide ona bezala, bere buruaz beste egingo zukeen, bera ez baitzen inor hiltzeko gauza. (Höss, bidenabar esango dugu, gartzetan pertsona bat eraila zen. Walter Kadow izeneko gizon bat hil zuen, Leo Schlageter —Rhinelandeko terrorista nazionalista bat, naziek geroago nazioko heroi bihurtu zutena— okupazioko frantses agintarien aurrean salatu zuen gizona, eta auzitegi aleman batek Höss bost urtez espetxeratu zuen. Auschwitz, jakina, Hössek ez zeukan inor hiltzeko premiarik). Baina ez zen batere espero izatekoa Eichmanni lan mota hura eskainiko ziotenik; izan ere, aginduak ematen zituztenek «oso ondo zekiten noraino eraman daitekeen pertsona bat». Ez, Eichmann ez zen «berehalako heriotzaren arriskupean» egon, eta berak beti harro-harro adierazten zuenez, bere «eginkizuna bete zuen», egindako zinak eskatzen zizkion agindu guztiei obeditu zien, eta hortaz, jakina, juizioan «delituaren ondorioak» larriagotzen saiatu zen, murrizten baino areago. «Beharrezkoak ez ziren lazeriak ahalik eta gehiena saihesten» ahalegindu zela bere eginkizuna betetzerakoan, hura izan zen Eichmannek aipatu zuen «inguruabar aringarri» bakarra; alde batera utzirik hori egia edo gezurra ote zen, eta berebat alde batera utzirik, egia bazen, nekez izango zela kasu berezi honetan «inguruabar aringarria» izateko aski, eskakizuna

bera ere alferrikakoa zen, zeren, eman zizkieten araubide orokorren artean baitzegoen «nahitaezkoak ez ziren lazериak ahalik eta gehiena saihestea».

Hortaz, grabazioa auzitegian entzun zenean, heriozko epaia ondorio segurua zen, baita legearen aldetik ere, ez bazen zigorra goragoko aginduen pean egindako egintzak zirela medio arintzen, aukera hori ere ematen baitzuen Israeleko legearen 11. sailak; azken hori, krimenaren ikaragarritasuna gogoan izanik, oso gertagaitza zen ordea. (Garrantzitsua da gogoratzea defentsaren abokatuak ez zuela Eichmann goragoko enaginduzaritzenik argudiatu, aitzitik, «estatuaren egintzak» aipatu zituen, eta horretan oinarriturik absuluzioa eskatu zuen —Servatius doktoreak dagoeneko Nurenbergen, alferrik, erabili zuen estrategia bera zen, Fritz Sauckel defendatu zueneko, Lau Urteko Plangintzaren Göringen bulegoko lan-banaketarako ahalguztiduna, milaka eta milaka langile juduren hilkintzaren arduraduna izan zena eta 1946an merezi zuen bezala urkatu zutena. «Estatuaren egintzak», aleman jurisprudentziak are argiago *gerichtsfreie* edo *justizlose Hoheitsakte* deitzen dituenak, «botere subiranoaren baliatzean» oinarritzen dira [E.C. S. Wade, *British Year Book for International Law*, 1934], eta, hortaz, legearen esparrutik kanpo daude erabat, baina aginduak berriz, teorian behintzat, denak dira justiziaren mendeak. Eichmann egin zituenak estatuaren egintzak baldin baziren, orduan haren nagusiak, eta Hitler, estatuko burua, gutxiena, ezingo ziren inongo auzitegietan epaitu. «Estatuko egintzen» teoria hain ederki adosten zen Servatius doktorearen filosofia orokorrarekin, non ez baitzen harritzekoa berriz ere bide beretik saiatzea; harritzekoa zena zen ez zuela berriz jo, inguruabar aringarriak zirelakoan, goragoko en aginduen argudiora, erabakia irakurri ondoren eta epaia eman baino lehen). Puntu horretara helduta, bazuen batek pozik egotea juizio hau juizio arrunta ez zelako, auziperaturiko egintzen gainean pisurik ez zuten adierazpenak garrantzi gabeak eta hutsalak zirelakoan bazter zitezkeena. Izan ere, argi zegoen, gauzak ez ziren legeen egileek uste bezain errazak, eta, legearen aldetik garrantzi handirik izan ez arren, politikaren aldetik interes handia zuen zenbat denbora behar duen pertsona arrunt batek krimenaren berezko higuina gaintzeko jakiteak, eta zer gertatzen zaion zehatz-mehatz pertsona horri behin puntu horretara heldu denean. Galdera horri, Adolf Eichmannen kasuak erantzun ezin argiago eta zehatzagoa eman zion.

1941eko irailean, Ekialdeko hilkintza-zentroetara aurreneko bisitaldi ofiziala egin ondoren, Eichmannek bere lehen masa-deportazioak antolatu zituen Alemaniatik eta babes-herritik, Hitlerren «desira» baten arabera, Reicha ahalik eta azkarrena *judenrein* bihurtzeko agindu baitzion hark Himmlerri. Aurreneko txandan Rhinelandeko hoge mila judu eta bost mila ijito joan ziren; eta lehen garraialdi hartan bitxikeria bat gertatu zen. Eichmannek ez zuen inoiz bere kabuz erabakirik hartzen, ardura handia izaten zuen beti aginduen «babespean» aritzeko, eta —harekin lan egin ohi zuen jende gehien-gehienak adierazi zuen bezala— gauzak proposatzea ere gustatzen ez zitzaionlarik, «zuzentaruak» eskatzen zituen beti. Orduko hartan, ordea, Eichmannek «aurreneko eta azkeneko aldiz», aginduen kontrako ekimen bat jarri zuen abian: jende hura zuzenean Errusiako lurraldeetara bidali ordeztuz, Rigara edo Minskera, non *Einsatzgruppe*ek segituan tiroka hilko baitzituzten, Lodzeko ghettoara bideratu zituen, bai baitzekien deuseztatze-prestakuntzak egin gabeak zirela han, bertako ghettoaren arduradunak, *Regierungspräsident* Uebelhör zelako batek, «bere» juduengandik irabazi handiak ateratzeko bidea eta modua bilatu zituelako. (Lodz, izan ere, antolatu zen lehendabiziko ghettoa eta desegin zen azkena izan zen; gaixorik edo goseak hil ez zirenak, 1944ko uda arte bizi izan ziren bertan). Erabaki horrek arazo handiak ekarriko zizkion Eichmanni. Ghettoa leporaino bete zegoen, eta Uebelhör ez zegoen jende gehiago hartzeko umorean, non kokaturik ere ez baitzeukan. Haserre bizian, Himmlerri kexatu zitzaion, Eichmannek bera eta bere gizonak engainatu zituela esanez, «ijitoei ikasitako amarruekin». Himmlerrek, Heydrich bezala, Eichmannen alde egin zuen, eta gertaera hura laster barkatu eta ahaztu zuten.

Ahaztu zuen, aurren-aurrenik, Eichmannek berak, ez baitzuen kontu hura behin ere aipatu, ez poliziaren azterketan, ez bere zenbait autobiografiatan. Auzitara eraman zutenean, bere abokatuak, galderak egiten ari zitzaioela, dokumentuak erakutsi zizkion, eta Eichmannek «aukera» bat izan zuela adierazi zuen. «Hor, aurreneko eta azkeneko aldiz, baneukan zer aukeratu. Aukera bat Lodz zen. Lodzen eragozpenak sortuz gero, jende hura urrutirago bidali behar zen, Ekialdera. Eta prestakuntzak ikusi nituenenez gero, erabakita nengoen ahal nuen guztia egiteko, eskura nituen bitarteko guztiak erabiliz, jende hura Lodzera joan zedin». Defentsaren abokatua, gertaera hura zela-eta, Eichmannek ahal izan zuenean juduei lagundu zielako ondorioa ateratzen saiatu

zen, ageriko gezurra zen gauza. Fiskala, berriz, geroago gertaera beraren inguruko galderak egin zizkiolarik, frogatzen saiatu zen Eichmannek berak erabaki zuela garraialdi guztien azken jomuga, eta, hortaz, berak erabakitzen zuela garraialdi jakin bat deuseztatu behar zen ala ez; eta hori ere gezurra zen. Eichmannen beraren azalpena ere, alegia, berak ez ziola aginduari desobeditu, aldiz, «aukera» baten abantailaz baliatu zela, ez zen egia; zeren Lodzen eragozpenak izan baitziren, Eichmannek berak ondo asko zekienez, eta haren aginduak, azken-azkenean, azken jomuga Minsk edo Riga zirela esan nahi zuen. Eichmannek hura guztia ahaztua bazeukan ere, huraxe izan zen argi eta garbi juduak salbatzen saiatu zen aldi bakarra. Hiru aste geroago, nolanahi ere, bilera bat izan zen Pragan, Heydrichen aginduz, eta han Eichmannek esan zuen ezen «[errusiar] komunistak [*Einsatzgruppen* taldeek bertan garbitzekoa zen kategoria] atxilotzeko erabili diren esparruetan sar daitezkeela juduak ere», eta, hori zela-eta, «akordio batera heldu [omen] zen» bertako agintariekin; Lodzeko arazoez ere izan zen eztabaidaren bat, eta azkenean Reicheko hamabost mila judu (hau da, baita Austria, Bohemia eta Moraviakoak ere) *Einsatzgruppen*en Rigako eta Minskeko jardueraguneetara bidaltzea erabaki zen. Hortaz, orain erantzun geniezaioke agian Landau epailearen galderari —juizioa jarraitu zuten gehien-gehienen gogoan zegoen galdera nagusiari—, ea akusatuak ba ote zuen kontzientziarik: bai, kontzientzia bazuen, eta kontzientzia horrek espero zitekeen moduan jardun zuen lau bat astez, eta ondoren beste modu batean hasi zen jarduten.

Baina Eichmannen kontzientziak normaltasunez jardun zuen aste haietan ere, muga bitxien baitan aritu zen. Gogoan izan behar dugu Führerraren aginduen berri izan baino asteak eta hilabeteak lehenago, bazekiela Eichmannek zein zen *Einsatzgruppen* taldeen jarduera hilgarria Ekialdean. Bazekien fronteko lerroen beste aldean errusiar funtzionario guztiak («komunistak»), klase profesionaletako poloniar guztiak eta bertako judu guztiak masa-fusilamenduetan ari zirela garbitzen. Are gehiago, urte bereko uztailean, Heydrichengana joateko deia jaso baino aste batzuk lehenago, Eichmannek Warthegau-n zegoen SS baten txosten bat jaso zuen, «datorren neguan ezingo dira juduak elikatu» esanez, eta proposamen bat eginez, azter zezala Eichmannek ez ote zen «soluzio gizatiarragoa izango lan egiteko gauza ez ziren juduak bitarteko lasterragoren batez erailtzea. Hura, nolanahi ere, atseginagoa izango zen goseak hiltzen uztea baino».

Proposamenarekin batera zihoan gutun batean, «Eichmann lankide maiteari» zuzendurik, onartzen zuen idazleak: «Gauza hauek batzuetan fantastikoak ematen dute, baina egingarriak dira». Argi dago idazleak ez zuela artean Führerraren beste agindu askoz ere «fantastikoagoa» ezagutzen, baina gutunak ongi erakusten du noraino zegoen agindu hura giroan zabaldua. Eichmannek ez zuen gutun hura inoiz aipatu, eta segur aski ez zitzaion batere harrigarria gertatu. Baina proposamen hura *hango* juduei buruzkoa bakarrik zen, ez Reicheko edo mendebaldeko herrialdeetakoei buruzkoa. Eichmannen kontzientzia, ez erailketaren ideiarekin, baizik eta aleman juduak erailtzearen ideiarekin oldartzen zen. («Nik ez dut inoiz esan *Einsatzgruppen* taldeek hiltzeko agindurik zutela ez nekienik, baina ez nekien Reichetik Ekialdera ebakuatzen zituzten juduei tratabide bera ematen zitzaienik. Hori nik ez nekien»). Wilhelm Kube delako baten kontzientzia mota berbera da; Kube alderdiko kide zahar bat zen, Errusia okupatuko *Generalkommissar* kargua zuena, eta iraindua sentitu zen Burdinazko Gurutzea zuten aleman juduak Minskera «tratabide berezia» hartzera ailegatu zirenean. Kubek bere gogoetak Eichmannek baino hobeto adierazten zituenenez, haren hitzek lagunduko digute ulertzen zer zerabilen Eichmannek gogoan kontzientziak traba egiten zion garaian: «Pertsona gogorra naiz eta prest nago juduen auzia konpontzen laguntzeko», idatzi zion Kubek bere nagusiarri 1941eko abenduan, «baina geure inguru kulturaletik datorren jendea ez da inondik ere hemengo jendaila animalia hau bezalakoa». Kontzientzia mota horrek, «geure inguru kulturalako» jendearen hilketarekin oldartzen zenak, baldin oldartzen bazen, bizirik dirau Hitlerren erregimenaren ondoren ere; egungo alemanen artean ere bada «okerreko informazio» bat, zeina baita *Ostjudenak* «bakarrik», Europa Ekialdeko juduak, garbitu zituztela.

Pentsamolde hau, jende «primitiboaren» eta jende «kulturadunaren» erailketa bereizten duena, ez da aleman herriarena bakarrik. Harry Mulisch-ek kontatzen du nola, Salo W. Baron irakasleak judu-jendearen lorpen kultural eta espiritualei buruz emandako lekukotasuna irakurri eta gero, ondorengo galdera hauek bururatu zitzaizkion bat-batean: «Juduen heriotza hainbesteko gaiztakeria izango ote zen, kulturarik gabeko jendea izan balira, berebat deuseztatu zituzten ijitoak bezala? Nola dago Eichmann auziperatua, gizakien suntsitzaile gisa edo kultura-deuseztatzaile gisa? Gizaki-hiltzaile bat errudunagoa al da gizakiak hiltzeko prozesu horretan

kultura bat ere suntsitzen denean?». Eta galdera horiek fiskal nagusiari egin zizkionean, hona emaitza: «Berak [Hausnerrek] baietz uste du, nik ezetz». Gai hau ez dagoela baztertzerik, ez dagoela auzi gogaikarri hau iraganarekin batera lurperatzerik, oraintsu ikusi da *Dr Strangelove* filmean: bonba-maitale bitxiak —nazi baten tankera bera du, egia da hori—, ehunka lagun aukeratzea proposatzen du etorkizuneko hondamendian, lurpeko babeslekuetan, bizirik iraun dezaten. Eta zein izango bizitarako zoriontsuak? Adimen-kozienterik altuena dutenak!

Kontzientzia-auzi hau, Jerusalemen hainbeste arazo sortu dituen, oso ondo ezagutzen zuen erregimen naziak, eta ondo gogoan izan zuen. Hala, ikusirik nola 1944ko uztailako Hitlerren kontrako konspirazioan parte hartu zutenek oso nekez aipatzen zituzten Ekialdeko sarraski sistematikoak elkarri idatzitako gutunetan edota, Hitlerren kontrako erasoak arrakasta bazuen, erabiltzeko prest zeuzkaten azalpenetan, tentazioa sortzen zaio bati ondorioztatzeko naziak askoz ere garrantzi praktikoa eman ziotela auzi honi behar zena baino. Erabat bazter genezake hemen Hitlerren kontrako aleman oposizioaren lehen garaia, oposizioa oraindik antifaxista eta erabat ezkerreko mugimendua zenekoa, ezkerrek, printzipioz, ez baitzien auzi moralei garrantzirik ematen, eta are gutxiago juduen esespenari, ezkerrearen iritiz hura eszena politiko osoa gidatzen zuen klase-borrokaren «desbiderapen» hutsa baitzen. Are gehiago, oposizioa ia osorik zen desagertua aztertzen ari garen garaian, SA osten izumen ikaragarriak kontzentrazio-esparruetan eta Gestapoko sotoetan deseginik, berrarmatzearen bidez lortutako enplegu osoaren ondorioz desegituraturik, Alderdi Komunistaren taktikak —«Troiaiko zaldi» baten moduan, Hitlerren alderdian sartu— adoregabaturik. Oposizio horretatik gerraren hasieran geratzen zenak —zenbait sindikatu-buruzagi, «ezker etxegabeko» zenbait intelektual, jarraitzailerik bazuten ez zekitenak eta ezin jakin zutenak—, azkenean uztailaren 20a ekarri zuen konspirazioaren bitartez lortu zuen bakar-bakarrik garrantzirik. (Ezin onartuzko gauza da, jakina, aleman erresistentziaren indarra kontzentrazio-esparruetatik igaro zirenen zenbatekoaren bidez neurtzea. Gerra hasi baino lehen, era askotako jendea zegoen kontzentrazio-esparruetan preso, eta askok eta askok ez zuten zerikusirik batere erresistentziarekin: baziren guztiz «errugabeak» zirenak, juduak adibidez; «asozialak», hala gaizkile errepikatzaileak eta homosexualak; honen edo bestearen errudunak

ziren naziak, etab. Gerra-garaian, Europa okupatu osotik etorritako erresistentziako borrokalariez zeuden esparruak beteak).

Uztaileko konspiratzaile gehienak nazi-ohiak ziren, izan, edo Hirugarren Reichean kargu garrantzitsuak izandakoak. Haien oposizioa ez zuen juduen auziak piztu, baizik eta Hitler gerra prestatzen ari zela jakiteak, eta gogoan zerabiltzaten gatazka eta kontzientzia-krisi amaigabeak, goi-mailako traizioaren eta Hitlerrenganako leialtasun-zina haustearen ingurukoak ziren gehien-gehienak. Are gehiago, ezin konponduzko dilema batean sartuak zeuden: Hitlerren arrakasten egunetan iruditzen zitzairen ezin zutela ezer egin jendeak ez zuelako ulertuko, eta Alemaniaren porrotaren egunetan, berriz, ezeri ez zioten ikara handiagorik beste «jokaldi makur» baten elezaharrari baino. Beren egintzaren ondoren sor zitekeen kaosari aurrea hartzeko eta gerra zibilaren arriskua saihesteko zer egin, huraxe zen haien ardurarik handiena. Eta soluzioa zen aliatuek «zentzuzkoak» behar zutela izan eta «luzamendu» bat eman, harik eta berriz ordena ezartzen zen arte, eta harekin batera, jakina, aleman armadaren buru egiteko gaitasuna. Oso ondo zekiten zer gertatzen ari zen Ekialdean, baina ia batere dudarik ez dago haietako inor ez zela ausartuko ezta pentsatzera ere Alemanian, noiz eta une haietan, matxinada irekia eta gerra zibila izan zitezkeenik gerta zitezkeen gauzarik hoberenak. Alemaniako erresistentzia aktiboa eskuinaren aldetik etorri zen gehienbat, baina aleman sozial-demokraten iragana gogoan harturik, dudan jar daiteke bestelakoa izango ote zen egoera ezkerrek konspiratzaileen artean eginkizun garrantzitsuagoa izan balu. Kontua, nolana ere, akademikoa da, zeren gerrako urteetan ez baitzen Alemanian «erresistentzia sozialista antolaturik» izan, Gerhard Ritter aleman historialariak egoki azpimarratu duen bezala.

Gauzak gertatu ziren moduan, egoera oso argia zen, eta berebat zen itxaropengabea: aleman herritar gehien-gehienek Hitlerrengan sinesten zuten, baita Errusiako erasoaren ondoren eta bi frontetako gerra beldurgarriaren ondoren ere, baita Estatu Batuak gerran sartu ondoren ere, areago, baita Stalingradoren, Italiaren desertzioaren eta Frantziako lehorreratzeen ondoren ere. Gehiago trinko horren kontra, gizabanako-kopuru ezin zehaztuzko bat zegoen, hondamendi nazionalaz eta moralaz oso ondo ohartzen zena; tarteka elkarrekin topo egiten zuten, elkarri sinesten zioten, adiskideak ziren eta iritziak

trukatzen zituzten, baina ez zegoen matxinada-plan edo -asmorik. Azkenean, geroago konspiratzaile deituko zitzaienen taldea zegoen, baina ez ziren inoiz gai izan ezertan adostasunera iristeko, ezta konspirazioari zegozkionetan ere. Carl Friedrich Goerdeler zen haien liderra, Leipzigezko alkate ohia, nazien agindupean prezio-kontrolatzaile gisa hiru urtez lan egina, baina dimisioa nahiko goiz, 1936an, eman zuena. Goerdeler monarkia konstituzional baten aldekoa zen, eta Wilhelm Leuschner-ek, ezkerreko ordezkaria, sindikatuko buruzagia eta sozialista izandakoak, «masaren babesa» segurtatu zion; Kreisauko zirkuluan, Helmuth von Moltkeren eraginaren pean, tarteka-tarteka kexuak izaten ziren, legearen antolamendu juridikoa orain «politikaren hankapean» zegoela, baina zirkulu hartako kideen ardura nagusia bi eliza kristauen adiskidetzeari zen, eta orobat haiek «estatu sekularrean zuten misio sakratua», federalismoaren aldeko jarrera adierazi gabeko batekin batera. (Bada azterlan ondo dokumentatu eta inpartzial bat, George K. Romoser-en doktore-tesia, laster argitaratuko dena, erresistentziako mugimenduak 1933az gero bere osotasunean izan zuen hondamen politikoa gainekoa).

Gerrak aurrera egin ahala eta porrota gero eta garbiagoa zela, badirudi politikaren alorreko diferentziak gutxitu eta ekimen politikoaren premia larriagotu egin zela, baina honetan ere Gerhard Ritterrek arrazoia duela ematen du: «[Klaus von] Stauffenberg [kondearen] erabakimena gabe, erresistentziako mugimendua trabatua geratuko zen gelditasun aski etsi batean». Gizon haiek elkartzen zituena zen «iruzurgile» bat, «diletante» bat ikusten zutela Hitlerrengan, «adituen aholkuaren kontra, armada osoak sakrifikatzen zituena», «zoroa» eta «deabrua», «gaiztakeria ororen hezurmamitzea», zeinak, aleman testuinguruan, aldi berean gehiago eta gutxiago esan nahi baitzuen «kriminala eta ergela» deitzen zutenean baino, batzuetan hala deitzen baitzuten. Baina beranduko urteetan Hitlerri buruz halako iritziak izatea «ez zuen inondik ere SSetako edo alderdiko kide izatea edo gobernuan postu bat izatea baztertzen» [Fritz Hesse], eta, hortaz, ez zituen konspiratzaileen zirkulutik kanpo uzten erregimenaren delituetan oso sartuak zeuden zenbait gizon, hala nola Helldorf kondea, Berlingo polizia ikuskatzailea, estatu-kolpeak arrakasta izan balu aleman poliziaren burua izango zena (Goerdelerren etorkizuneko ministroen zerrenda baten arabera); edo RSHako Arthur Nebe, Ekialdeko unitate hiltzaile mugikorretako baten buruzagi ohia. 1943ko

udan, Himmlerrek gidaturiko deuseztatze-programa bere gorenera iritsia zenean, Himmler eta Goebbels aliatuak izan zitezkeelakoan zerabiltzan Goerdelerrek gogoan, «biak konturatu baitira Hitlerrekin galduak daudela». (Himmler, izan ere, «aliatu posible» izatera heldu zen —Goebbels ez—, eta plan guztien berri eman zioten; porrotaren ondoren baizik ez zuen konspiratzaileen kontra ekin). Azaldu berri dudana finkatzeko, Goerdelerrek von Kluge landa-mariskalari idatzitako gutun batean oinarritu naiz; baina aliantza bitxi horiek ezin dira esplikatu armadako buruzagiak erakartzeko «kontsiderazio taktikoak» direla medio, Kluge eta Rommel izan baitziren «bi munstro haiek [Himmler eta Göring] garbitzeko agindu bereziak» eman zituztenak [Ritter]; eta hori ez da eragozpena Goerdelerren biografoak, Ritterrek, goian aipaturiko gutunak «Hitlerren erregimenari [Goerdelerrek] zion gorrotoaren adierazpenik biziena islatzen duela» azpimarratzeko.

Argi dago bizitzarekin ordaindu zutela egin zutena, eta heriotzarik ikaragarrienaz hil zirela, Hitlerri, berandu bazen ere, kontra egin zioten gizon haiek; miresgarria izan zen haietako askoren adorea, baina ez zen gaitzidura moraletik edo beste pertsona sufriarazi zitzaientetik sortua; Alemaniaren etorkizuneko porrotaren eta hondamenaren segurtasunak eraginda jardun zuten batez ere. Ezin uka daiteke haietako batzuk, besteak beste York von Wartenburg kondea, hasieran, «1938ko azaroko juduen matxinadaren bidez abiatu zirela [oposizio politikoa]» [Ritter]. Hilabete hura, ordea, sinagogei su eman zitzaiena izan zen, eta jende guztiak ematen zuen ikaratua: Jainkoaren etxeak erre zituzten, eta bai sinestunak eta bai superstiziosoak Jainkoaren mendekuaren beldur ziren. Egia esatera, goi-mailako ofizialak asaldatu egin ziren 1941eko maiatzean Hitlerren «komisario-agindua» deitu zena eman zenean, eta jakin zutenean berehala zetorren Errusiaren kontrako kanpainan sobietar funtzionario guztiak, eta, jakina, judu guztiak, garbitu beharko zirela, besterik gabe. Zirkulu haietan, bazen, jakina, halako kezka bat, zeren, Goerdelerrek esan bezala, «eremu okupatuetan eta juduen kontra gizakiak akabatzeko eta erlijio-esespenezko teknikak ari dira erabiltzen... eta hori beti geratuko da zama astun baten moduan gure historian». Baina dirudienek sekula ez zitzaion bururatu horrek gehiago esan nahi zuenik, ez eta izugarriagoa zenik, «gure posizioa [aliatuekin bake-itun bat negoziatzea] ikaragarri zaila egitea» baino, «Alemaniaren izen onean arrasto bat» uztea baino, eta armadaren morala galaraztea baino. «Zer demontre egin duzue Liberazio Gerretako

[Napoleonen kontra, 1814an] eta Gilen I.aren [1870ko franko-prusiar gerran] armada harroaz!» oihu egin zuen Goerdelerrek, SSetako gizon baten txostena entzun zuenean, «lasai-lasai kontatzen zuelarik ‘ez zela, egia esatera, gauza polita milaka juduz betetako zanga-zuloak metrailadore-suz jostea, eta ondoren artean mugitzen ziren gorpuen gainean lurra botatzea’». Era berean, ez zitzairen bururatu izugarrikeria haiek nolabait ere lotuak egon zitezkeela aliatuen baldintzarik gabeko errenditzeko eskaerarekin, eta eskaera hura gogotik kritikatzten zuten, «nazionalista» eta «zentzugabea» zelakoan, gorrotoitsuak eragina. 1943an, Alemaniaren porrota ia gauza segurua zenean, eta baita geroago ere, sinesten zuten artean bazutela etsaiekin «berdinak» bezala negoziatzeko eskubidea, «bidezko bake» baten alde, nahiz eta ondo asko zekiten nolako gerra bidegabe eta guztiz probokatugabeari ekin zion Hitlerrek. Are harrigarriagoak dira «bidezko bake» batentzako irizpideak. Goerdelerrek behin eta berriz eman zuen haien berri, txosten askotan: «1914ko nazio-mugak berriz ipintzea [horrek Alsazia-Lorrenaren anexioa esan nahi zuen], Austria eta Sudeteak erantsita»; are gehiago, «lehen mailako posizioa Alemaniarentzat kontinentean» eta agian Hegoaldeko Tirol berreskuratzea!

Berebat dakigu, prestatu zituzten adierazpenengatik, nola aurkeztu behar zuten kasua jendearen aurrean. Bada adibidez armadarentzako adierazpen baten zirriborro bat, Ludwig Beck jeneralak egina, hura baitzen estatuburu izatekoa; luze mintzatzen da bertan Hitlerren erregimenaren «egoskorkeriaz», «gaitasunik ezaz eta moderazio faltaz», haren «harrokeriaz eta handiustez». Baina zein izango puntu nagusia, erregimenaren «egintzarik gaiztoena», eta «indar armatuen buruzagiak [nahi zituztela egin] porrot hurbilaren lazerien erantzuleak»; eta horri Beckek eransten zion krimen batzuk egin zirela «Alemaniako nazioaren ohorean arrasto bat direnak eta munduaren begietan eskuratu duen izen ona doilortzen dutenak». Eta zein ote zen Hitler akabatu ondorengo hurrengo urratsa? Alemaniarrak armadak borrokatzen jarraituko zuen, «harik eta gerraren bukaera ohoragarri bat segurtatzen den arte»: horrek Alsazia-Lorrena, Austria eta Sudeteen anexioa esan nahi zuen. Era guztietako arrazoiak daude, egon, Friedrich P. Reck-Malleczewen aleman eleberrigileak gizon haiez egin zuen epai mingarriarekin bat etortzeko. P. Reck-Malleczewen hondamendia baino lehentxeago hil zuten kontzentrazio-esparruan, eta ez zuen Hitlerren kontrako konspirazioan parte hartu.

Bere «Gizon etsi baten egunkaria» [*Tagebuch eines Verzweifelten*, 1947] liburu ia guztiz ezezagunean, Reck-Malleczewenek honako hau idatzi zuen, Hitlerren bizitzaren kontrako atentatuaren porrotaren berri jakin zuenean, porrota deitoratuz, jakina: «Berandutxo, jaunok, zuek, Alemaniaren artxisuntsitzaile hau sortu duzuenok, dena ondo zihola ematen zuen bitartean haren atzetik joan zaretenok; zuek... dudarik batere egin gabe eskatu zitzaizkizuen zinak oro egin zenituztenok eta zeuen burua makurtu duzuenok milaka eta milaka pertsonaren erailketaren erruduna den, mundu osoaren deitoreen eta maldizioaren zama gainean duen kriminal honen lekaio mespretxagarri izateraino; orain traizioa egin diozue... Orain, hondamena jadanik ezin ezkutatu denean, traizioa egin diote etxe lur-joari, zurigarri politiko bat izateko, zeinek eta boterera heltzeko bidean traba egiten zioten gauza orori traizioa egin dioten gizon berberek».

Frogarik ez dago, eta ez dirudi gertagarria, Eichmann uztailaren 20ko gizonekin harremanak izatera heldu zenik, eta badakigu Argentinan traidoretzat eta gizon zitaltzat hartzen zituela haiek denak. Baina juduen auziari buruz Goerdelerrek zituen ideia «originalak» ezagutzeko aukeraren bat izan balu, aurkituko zituen Eichmannek harekiko zenbait adostasun-puntu. Egia esatera, Goerdelerrek proposatzen zuen «aleman juduei kalte-ordainak pagatzea, izan zituzten galerengatik eta tratu txarrengatik», eta hori 1942an, hots, kontua *aleman* juduena bakarrik ez zenean, eta haiek, gaizki tratatu eta lapurtu ez ezik, gaseztatzen ere hasiak zirenean; baina xehetasun tekniko horiez gainera, bazuen gauza eraikitzaileago bat gogoan, hau da, «soluzio iraunkor» bat, «[Europako judu guztiak] beren egoera desagokitik salbatuko zituena, Europako 'nazio gonbidatu' gutxi-asko desiratu gisa». (Eichmannen hizkera administratiboan, «haien oinen azpian lur sendo pixka bat» ipintzea esaten zitzaion horri). Helburu horrekin, Goerdelerrek «estatu independente bat herrialde kolonial batean» eskatzen zuen, Kanadan edo Hego Amerikan, dudarik gabe entzunda zeukan Madagaskarren moduko zerbait. Hala ere, gauzaren batean amore emango zuen; ez zituzten judu guziak egotziko. Erregimen naziaren aurreneko garaietan bezala, eta orduan ohikoak ziren kategoria pribilegiadunen arabera, prest zegoen «aleman herritartasuna ez ukatzeko Alemaniaren alde sakrifizio militar bereziak egin zituztelako frogak eman zitzaizuten juduei edo aspaldiko tradizioa zuten familietako kide zirenei». Baina, zena zela Goerdelerren «juduen

auziaren soluzio iraunkor» hark esan nahi zuena, ez zen zehatz-mehatz «originala» —Ritter irakasleak, 1954an esaten zuen bezala, artean bere heroiarenganako miresmenez beterik—, eta Goerdelerrek «balizko aliatu» ugari beharko zituen bilatu bere programaren parte horrentzat ere, alderdiaren eta baita SSen baitan ere.

Gorago aipaturiko von Kluge landa-mariskalari idatzitako gutunean, Goerdelerrek Klugeren «kontzientziaren ahotsari» dei egiten zion. Baina Goerdelerrek esan nahi zuena zen jeneral batek ere behar duela ulertu «gerrarekin jarraitzea, garaipenerako aukerarik izan gabe, ageriko krimena zela». Bildu diren frogen arabera, ondorio bakarra atera daiteke: kontzientzia, berez, galdua zela Alemanian, eta hainbestearino gainera, non jendeak gogoratu ere ez baitzuen egiten eta ez zuen jadanik ulertzen «aleman balioen sorta berria» ez zela kanpoko munduaren sorta bera. Hori, egia esatera, ez da egia osoa. Izan baitziren pertsona batzuk Alemanian erregimenaren hasiera-hasieratik, eta sekula jarreraz aldatu gabe, Hitlerren kontrakoak izan zirenak; inork ez daki zenbat ziren, baliteke ehun mila izatea, baliteke askoz ere gehiago izatea, edo askoz ere gutxiago, haien ahotsak ez baitziren behin ere entzun. Nonahi aurki zitezkeen, gizartearen maila guztietan, jende arruntaren artean bezala jende ongi heziaren artean, alderdi guztietan, agian baita NSDAParen baitan ere. Oso gutxi izan ziren, gorago aipaturiko Reck-Malleczewen edo Karl Jaspers filosofoa bezala, jendaurrean ezagunak. Batzuk egiaz eta bihotz-bihotzez zintzoak ziren, nik ezagutzen nuen eskulangile bat bezala; nahiago izan zuen hark bere bizimodu independentea galdu eta fabrika bateko langile soila izan, alderdi nazian sartzeko «formulismo txikia» bete baino. Beste batzuek berriz, zin bat seriozki hartzen zutelarik, nahiago izan zuten karrera akademiko bati uko egin Hitlerren izenean zin egin baino. Talde ugariagoa izan zen, Berlinen bereziki, ezagutzen zituzten juduei laguntzen saiatu ziren langile eta intelektual sozialistena. Izan ziren azkenik bi mutil, baserritarrak, haien istorioa Günther Weisenborn-en *Der lautlose Aufstand* (1953) lanean kontatzen dena. SSek errekrutatu zituzten gerraren amaieran, baina uko egin zioten armadan sartzeari; heriotza-zigorra eman zieten, eta exekuzioaren egunean honako hau idatzi zuten familiari bidalitako azken gutunean: «Nahiago dugu hil, kontzientzia horrelako gauza ikaragarritz zamatatu baino. Badakigu SSek nolako gauzak egin behar izaten dituzten». Jende horren posizioa, nahiz eta, praktikoki mintzatuz, alferrikakoa

izan, konspiratzaileena ez bezalakoa zen guztiz. Haien ongia eta gaizkia bereizteko ahalmena oso-osorik egon zen beti, eta ez zuten inoiz «kontzientziako krisirik» izan. Izango ziren halako pertsonak erresistentziako kideen artean, baina nekez izango ziren ugariagoak erresistentziakoen artean jende arruntaren artean baino. Ez ziren ez heroiak ez santuak, eta isil-isilik egon ziren. Behin bakarrik, keinu etsi bakar batean, agertu ziren jendaurrean elementu guztiz isolatu eta mutu hauek: hura izan zen Scholl-darrak, Municheko Unibertsitateko bi ikasle, anai-arrebak, Kurt Huber beren irakaslearen eraginpean, azkenik Hitlerri zena —«masa-hiltzailea»— deitzen zioten panfleto famatuak banatu zituztenean.

Nolanahi ere, uztailaren 20ko konspirazioak arrakastarik izan balu garaile izango zen «beste Alemania» haren gaineko dokumentuak eta adierazpenak aztertuz gero, txundituta geratzen da bat ikusirik nolako leize handiak bereizten zituen haiek ere gainerako mundutik. Nola azal daitezke bestela Goerdelerren ilusioak, edota Himmler, bat aipatzeagatik, baina baita Ribbentrop ere, gerrako azken hilabeteetan, amets egiten hasiak zirela negoziatzaile gisa izango zuten eginkizun berri bikainarekin, Alemania garaitu baten aldetik aliatuekin negoziatuz. Eta Ribbentrop egiaz gizon ergela baldin bazen, Himmler, zena zela gainerakoan, tontoa ez zen.

Hierarkia nazian, Himmler zen kontzientziako arazoak konpontzeko gaitasunik handiena zuen gizona. Esloganak osatzen zituen, SSen goiburu famatua bezalakoa, Hitlerrek 1931n SSen aurrean egin zuen mintzaldi batetik hartua, «Nire leialtasuna da nire ohorea» —Eichmannek «hitz hegodunak» eta epaileek «hitz hutsak» deitzen zituzten leloak—, eta hark plazaratzen zituen, Eichmannek gogorarazi zuen bezala, «urtearen amaiera aldera», Gabonetako opari batekin inondik ere. Eichmannek haietako bat besterik ez zuen gogoan, eta behin eta berriz errepikatzen zuen: «Datozen belaunaldiak berriz ere borrokatu behar izango ez dituzten guduak dira hauek», emakumeen, haurren, zaharren eta beste «alferreko ahoen» kontrako «guduak» aipatuz. Honako hauek ziren tankera horretako beste esaldi batzuk, Himmlerrek *Einsatzgruppen* taldeetako buruei eta goi-mailako SSei eta polizia-buruei egiten zizkien hitzaldietatik hartuak: «Urrats bat egin eta eutsi izanak, giza ahultasunak eragindako salbuespenak alde batera utzirik, zintzo jarraitu izanak, horrexek zaildu gaitu. Honako hau gure historiako aintzazko orri bat da, inoiz idatzi ez dena eta

inoiz idatziko ez dena». Edo: «Judu-auzia konpontzeko agindua, hori izan da erakunde batek sekula jaso ahal izan duen agindurik beldurgarriena». Edo: «Konturatzen gara zuengandik espero duguna ‘gizakiaz gaidikoa’ dela, ‘gizakiaz gaidi gizagabea’ izan beharra». Esan daitekeen gauza bakarra da Himmlerren itxaropenak ez zirela ustelak gertatu. Azpimarratzekoa da, nolanahi ere, Himmler ez zela ia inoiz justifikazio ideologikoak bilatzen saiatu, eta, bilatu zituenean, itxuraz behintzat segituan ahaztu zirela. Hiltzaile bihurtu ziren gizon haien gogoan geratu zena zen, besterik gabe, gauza historiko, bikain, bakar batean ari zirelako nozioa («eginkizun handi bat, bi mila urtez behin besterik gertatzen ez dena»), eta, hortaz, zaila izan behar zuela eramaten. Hori oso garrantzitsua zen, zeren borreroak ez baitziren, berez, gizon sadikoak edo hiltzaileak; aitzitik, ahalegin sistematiko bat egin zen bere egitekoak betetzean atsegin fisikoa hartzen zuten guztiak hartatik aldentzeko. *Einsatzgruppen* osteak SS armatuetako gizonekin osatu ziren; SS armatuak unitate militar bat ziren, gainean Alemaniako armadako beste edozein unitate arruntek baino krimen gehiagorik ez zuena, eta haien buruzagiak Heydrichék hautatu zituen, gradu akademikoak zeuzkaten SSetako eliteko gizonen artean. Hortaz, kontzientzian baino areago, sufrimendu fisikoaren aurrean gizon normal orori eragiten dion animalia-errukia gaiditzean zetzan arazoa. Himmlerrek erabili zuen amarrua —Himmlerri berari, dirudienez, nahiko gogor eragiten zioten senezko erreakzio horiek— oso soila eta segur aski oso eraginkorra zen: sen horiek hankazgoratu egin behar ziren, nolabait esateko, eta norberarengana zuzendu. Hala, esan beharrean: «Bai gauza ikaragarriak egin dizkiodala jende horri», hiltzaileek gai izan behar zuten esateko: «Bai gauza ikaragarriak ikusi behar ditudala nire eginkizuna betetzerakoan, bai zama astuna nire lepoan!»

Eichmannen memoria akastunak ondo adieraz dezake, Himmlerren esapide zorrotzei zegokienez, bazirela beste tresna batzuk, eraginkorragoak, kontzientzia-arazoari irtenbide bat emateko. Haien artean aurrenekoa, Hitlerrek aldeztu aurretik oso ondo ikusi zuen bezala, gerra bera zen. Eichmannek behin eta berriz azpimarratzen zuen heriotzari buruz «bestelako jarrera pertsonala» izaten zela «jende hila nonahi ikusten zenean» eta norberaren heriotza ardura handirik gabe espero zenean: «Ez zitzaigun axola gaur edo bihar hil behar baguenen, eta batzuetan madarikatu egiten genuen bizirik aurkitu gintuen goiza».

Bortizkeriazko heriotza-giro hartan bereziki eraginkorra zen Azken Soluzioa, azkeneko urratsetan, ez zela tiroka gauzatzen, bortizkeriaz alegia, gas-fabriketan baizik, eta hura, hasieratik bukaera arte, oso estu lotua egon zen Hitlerrek gerrako lehen asteetan agindutako «eutanasia-programekin», zeina Errusiako inbasioa arte aplikatu baitzitzairen Alemanian buruko gaixotasunak zituztenei. 1941eko udazkenean abian jarri zen deuseztatzeko-programa bi bide guztiz diferentetatik eraman zen. Bide batek gas-fabriketara zeraman, eta besteak *Einsatzgruppen* taldeetara; haien operazioak armadaren atzealdean, Errusian bereziki, partisansoen kontrako borrokaren aitzakiarekin justifikatzen ziren, eta haien biktimak ez ziren inondik ere denak juduak izaten. Egiazko partisansoez gainera, errusiar funtzionarioak, ijitoak, asozialak, eroak eta juduak ere haien xedea ziren. Juduak «etsai posible» bezala sartzen ziren talde hartan, eta, zoritxarrez, hilabeteak igaro ziren errusiar juduak hura ulertzerantz heldu ziren arte, eta, ulertu zutenean, beranduegi zen alde egiteko. (Belaunaldi zaharra Lehen Mundu Gerraz gogoratzen zen, nola hartu zuten Alemaniako armada askatzailatzat; ez gaizteak ez zaharrek ez zuten ezer aditu «juduak Alemanian, edota Varsovian, tratatzen zituzten moduaren gainean»; «oso gaizki informatuak» zeuden, Alemaniako Inteligentzia Zerbitzuak Errusia Zuritik bidalitako txosten batek zioen bezala [Hilberg]. Areago, noizean behin aleman juduak ere iristen ziren eskualde haietara, Hirugarren Reicheko «aitzindari» gisa bidali zituztela sinetsita). Unitate hiltzaile mugikor haiek lau besterik ez ziren, bakoitza batailoi baten neurrikoa, eta ez ziren guztira hiru mila gizon baino gehiago; indar armatuen lankidetzak estua behar zuten, eta izan zuten; hala, haien arteko harremanak normalean «bikainak» eta batzuetan «amultsuak» (*herzlich*) izaten ziren. Jeneralek «juduenganako harrigarri jarrera ona» erakutsi zuten; beren juduak *Einsatzgruppen*ei emateaz gainera, sarritan beren gizonak uzten zizkieten, soldadu arruntak, sarraskietan laguntzeko. Hilbergen arabera, haien biktima juduen kopurua guztira ia milioi eta erdira iritsi zen, baina hilkintza hura ez zen izan Führerrak judu-herri osoa fisikoki deuseztatzeko eman zuen aginduaren emaitza. Lehenagoko agindu baten emaitza zen; Hitlerrek 1941eko martxoan eman zion agindu hura Himmlerri, SSak eta polizia «Errusian eginkizun bereziak betetzeko» presta zitezen.

Geroago eman zen arren Führerraren judu guztiak deuseztatzeko agindua, ez bakarrik errusiarrek eta poloniarrek, berez askoz atzerago

eraman daiteke. Ez zen RSHAn ez Heydrichen edo Himmlerren beste bulegoetan sortu, Führerraren kantzelergoan baizik, hots, Hitlerren bulego pertsonalean. Ez zuen batere zerikusirik gerrarekin eta inoiz ez zuen aitzakia gisa premia militarrik baliatu. Gerald Reitlingerren *The Final Solution* liburuaren meritu handi bat da, inolako dudarik uzten ez duten dokumentu eta frogen bidez, Ekialdeko gas-fabriketako deuseztatze-programa Hitlerren eutanasia-programatik sortu zela frogatu izana, eta pena da Eichmannen juizioak, «egia historikoarekin» horrenbeste arduratzen zenak, gertaeren lotura horri kasurik ez egin izana. Horrek argituko zuen pixka bat asko eztabaidatu den auzi bat, zeina baita ea Eichmann, RSHAkoa izanik, *Gasgeschichten* delakoan sartua ote zegoen. Ez dirudi hala zenik, nahiz eta haren gizonetako bat, Roll Günther, bere kabuz interesatu ahal izan zen. Globocniketik, adibidez, zeinak Lublineko eremuko gaseztatze-instalazioak ipini baitzituen, Eichmannek tarteka bisitatzen zuelarik, ez zuen Himmlerrengana edo beste polizia edo SSetako agintariengana jo gizon gehiagoren premia izan zuenean; Führerraren Kantzelergoko Viktor Bracki idatzi zion, eta hark pasatu zion eskaera Himmlerri.

Aurreneko gas-ganberak 1939an eraiki ziren, Hitlerren urte horretako irailaren 1eko dekretua betetzeko, zeinak honela baitzioen: «Sendabiderik gabeko pertsona eriei errukizko heriotza eman behar zaie». (Gaseztatzearen jatorri «mediko» horrek inspiratu zuen segur aski Servatius doktorearen uste harrigarri hura, hots, gas bidezko erailketari «gai mediko» baten modura behar zaiola begiratu). Ideia, berez, askoz ere zaharragoa zen. 1935ean jadanik, Hitlerrek esan zion Reicheko sendagintza-burua zen Gerhard Wagnerri «gerra etortzen bazen, eutanasiaren gaiaz arduratu beharko zuela, eutanasia errazagoa izango zelako gerra-garaian». Dekretua segituan aplikatu zen, buruko gaixotasunak zituztenekin, eta, hala, 1939ko abenduaren eta 1941eko abuztuaren artean, berrogeita hamar mila aleman inguru hil zituzten karbono-monoxidozko gasarekin, heriotza-gelak gero Auschwitzten moztortutuko ziren bezalaxe moztortutak zeuden instituzioetan: dutxa-gelak eta bainugelak. Programak huts egin zuen. Gaseztatzea ezin zen inguruko aleman biztanleengandik ezkutatu; alde guztietatik heltzen ziren protestak, segur aski artean medikuntzaren nolakotasunaren eta sendagilearen eginkizunaren ulerpen «objektiboa» iritsi ez zuen jendearengandik. Ekialdean, gaseztatzeak —edo, nazien hizkera erabiliz, hiltzeko «modu gizatiarra», «jendeari errukizko

heriotza emanez»— Alemaniako gaseztatzeak bukatu ziren egun berean hasi ziren kasik. Orduan, Alemaniako eutanasia-programan enplegatuak egon ziren gizonak ekialdera bidali zituzten, herri osoak deuseztatuko zituzten instalazio berriak eraikitza. Gizon haiek Hitlerren Kantzelergotik nahiz Reicharen Osasun Saitetik zetozen, eta Himmlerren administrazio-aginpidearen mende egotera igaro ziren.

Engainatzeko eta mozorrotzeko ardura handiz sortu ziren «hizkuntza-arau» haietatik, ez zen izan hiltzaileen pentsaeran eragin erabakigarriagorik izan zuenik Hitlerren aurreneko gerra-dekretua baino, zeinean «hilketa» hitzaren ordez «errukizko heriotza eman» esaldia ageri baitzen. Eichmannek, poliziako galdekatzaileak galdetu ziolarik ez ote zen apur bat ironikoa «beharrezkoak ez ziren lazeriak» saihesteko zioen zuzentarau hura, kontuan harturik jende haren helmuga heriotza segurua zela nolanahi ere, ez zuen galdera ulertu ere egin, hainbestearaino zeukan gogoan iltzatua ez zela jendea hiltzea ezin barkatuzkoa zena, premiarik gabeko oinazea eragitea baizik. Juizioan, Eichmanni egiaz haserretzen zela igarri zitzaion lekukoek SSetako gizonak eragindako krudelkeriak eta izugarrikeriak kontatu zituztenean, nahiz eta auzitegikoek eta entzule askok ez zioten ezertxo ere sumatu, nahastu egin baitzituen Eichmannek bere burua menderatzeko egiten zuen ahalegin erabakiak, eta gizon «sor» eta axolagabe baten tankera hartu zioten; baina Eichmannen zinezko aztoramendu hura ez zuen milioika lagun heriotzara bidali zituelako salaketak sortu, lekuko baten salaketak baizik (epaileek ez zuten aintzat hartu), Eichmannek behin mutil judu bat akabatu arte jipoitu zuela esanez. Egia esatera, Eichmannek bidali zituen inoiz presoak *Einsatzgruppen* taldeen eremura, «errukizko heriotzarik merezi» ez zutenak; aitzitik, fusilatuta hiltzea merezi omen zuten, baina lasaitu egingo zen inondik ere ekimenaren azkenaldian, gas-ganberen ahalmen gero eta handiagoa zela medio, fusilatze premiarik izan ez zenean. Berebat pentsatu izango zuen metodo berriak hobekuntza erabakigarria adierazten zuela naziek juduengana zuten jarreraren, gaseztatze-programaren hasieran espresuki esan baitzen eutanasiaren onurak egiazko alemanentzat bakarrik zirela. Gerrak aurrera egin ahala, heriotza-modu bortitz eta ikaragarriak edonon zabaltu zirelarik —Errusiako frontean, Afrikako basamortuetan, Italian, Frantziako hondartzetan, Alemaniako hirietako hondakinetan—, Auschwitz eta Chelmno, Majdanek eta Belzek, Treblinka eta Sobiborrek gaseztatze-

zentroek, errukizko heriotzaren adituek aipatzen zituzten «Artatze Instituzionaleko Errukizko Fundazio» haien antzeko itxura izan behar zuten. Are gehiago, 1942ko urtariletik aurrera, eutanasiako taldeak aritu ziren Ekialdean lanean, «izotzetan eta elurretan zauritutakoei laguntzen», eta nahiz eta soldadu zaurituen garbitze hura ere erabateko sekretua izan, askok zekiten haren berri, besteren artean, dudarik gabe, Azken Soluzioa betetzen zutenek.

Sarritan azpimarratu da buruko eritasunak zituztenen gaseztatzea eten egin behar izan zela Alemanian, biztanleriaren eta elizetako zenbait buruzagi adoretsuren protestak zirela medio, baina ez zen halako protestarik izan programa juduen gaseztatzeri aldatu zenean, nahiz eta hilkintza-zentro batzuk Alemaniako lurraldean eta aleman biztanlez inguratuak egon. Protestak, nolanahi ere, gerraren hasieran izan ziren; «eutanasiako hezkuntzaren» eragina alde batera utzirik, «gaseztatze bidezko oinazetik gabeko heriotza» baten aldeko jarrera zeharo aldatu zen gerrak aurrera egin ahala. Horrelako gauzak zailak dira frogatzen; ekimen osoa ezkutukoa zelarik, ez dago halakorik frogatze dezakeen dokumenturik, eta gerrako kriminaletatik batek ere ez zuen aipatu, ezta akusatuek ere Nurenbergeko Doktorearen Epaietan, nahiz eta nazioarteko literaturatik harturiko aipamen ugari izan (eutanasiari buruzkoak). Agian ahaztu egin zitzaizkien nolako zen hilketan ziharduten tokiko iritzi publikoaren giroa, agian ez zitzaizkien jakitea ere axola, iruditzen baitzitzaizkien, oker, beren jarrera «objektibo eta zientifikoa» askoz ere aurreratuagoa zela jende arruntaren iritziak baino. Nolanahi ere, badira istorio gutxi batzuk guztiz baliotsuak, gizon sinesgarrien gerrako egunkarietan aurki daitezkeenak —ondo konturatu baitziren haiek ingurukoek ez zutela jada beren harrimenezko erreakzioa partekatzen—, nazio oso baten hondamendi moralaren artean gailendu direnak.

Gorago aipatu dudan Reek-Malleczewenen 1944ko udan Bavariako nekazariei mitin bat ematera joan zen emakume «lider» baten berri kontatzen du. Ez dirudi denbora alferrik galdu zuenik «arma miragarritz» eta «garaipenaz» hizketan; hark zuzen-zuzenean begiratzen zion hurbil sumatzen zen porrotari, baina aleman zintzok ez zuten zertan kezkatu, zeren Führerrak «bere ontasun handian, Alemaniako herri osoarentzat heriotza gozo bat prestatu baitu, gaseztatze bidezkoa, baldin gerrak zorigabeko amaiera badu». Eta eransten du idazleak:

«A, ez, ez naiz gauzak asmatzen ari, andre maitagarri hura ez zen gezurrezkoa, neure begiekin ikusi nuen: emakume azal-hori bat, berrogei bat urtekoa, begi-eroa... Eta zer gertatu zen? Ez al zuten Bavariako nekazari haiek herriko putzura bota, ea hozten zitzaion heriotzaren aldeko kartsutasuna? Ez zuten halakorik ezertxo ere egin. Etxera joan ziren, buruan hazka eginez».

Nire hurrengo istorioa are zuzenago lotzen zaio gai honi, «liderra» ez zen, eta agian alderdiko kidea ere ez zen pertsona bati buruzkoa baita. Königsberg-en gertatu zen, Prusiako Ekialdean, Alemaniako bazter zeharo diferente batean, 1945eko urtarrilean, errusiarrek hiria suntsitu, hondakinak okupatu eta probintzia osoa anexionatu baino egun batzuk lehenago. Istorioa Hans von Lehnstorff kondeak kontatzen du bere *Ostpreussisches Tagebuch* egunkarian (1961). Lehnstorff sendagilea zen eta hirian geratu zen, ezin ebakutu ziren soldadu zaurituak zaintzen; eta halako batean ordurako Armada Gorriak okupatua zeukan landaldeko iheslarientzako zentro handietako batetik deitu zioten. Han emakume bat joan zitzaion, eta zango barizedun bat erakutsi omen zion, urteetan eduki zuena, baina orduan nahi zuen tratatzea, astia zuen-eta. «Emakumeari azaltzen saiatu nintzen hobe zuela Königsbergetik alde egin eta tratamendua geroagorako utzi. Nora joan nahi duzu?, galdetzen diot. Ez daki, baina badaki denak Reichera eramango dituztela. Eta orduan, ustekabean, eransten du: 'Errusiarrek ez gaituzte inoiz harrapatuko. Führerrak ez die utziko. Lehenago gaseztatuko gaitu denok'. Kontu handiz, ingurura begiratu nuen, baina ez zuen ematen esaldi hura inori bitxia gertatu zitzaionik». Istorioa, sumatzen du batek, egiazko istorio gehienak bezala, ez da osoa. Beste ahots bat egon behar zuen, aukeran emakume batena, eta ahots hark, hasperen handi bat eginez, erantzungo zuen: «Eta juduekin xahutu dugu gas on, garesti hori guztia!»

VII: WANNSEEKO KONFERENTZIA EDO PONTZIO PILATO

Eichmannen kontzientziaren gainean idatzi ditudanak, honaino, hark ahaztuak zeuzkan datuetan oinarritzen dira. Eichmannek berak gai hau aipatu zuenean, une erabakigarria, ez lau aste, baizik eta lau hilabete geroago gertatu zela adierazi zuen, 1942ko urtarrilean, *Staatssekretäreen* (Estatuko idazkariordeen) konferentzian, naziak esaten zuten moduan, edo Wannseeko Konferentzian, orain esaten zaion bezala, Heydrichék Berlingo auzo horretako etxe batera gonbidatu zituelako hartan parte hartu zutenak. Konferentziaren izen ofizialak adierazten duen bezala, bilera hura beharrezkoa zen; izan ere, Azken Soluzioak, baldin Europa osoari aplikatu behar bazitzaion, Reicharen estatu-aparatuaren onespena behar zuen: ministerio guztien eta administrazio osoaren lankidetzak aktiboaren premia zeukan. Ministroak, Hitler aginpidera heldu eta bederatzi urte geroago, aspaldiko alderdikideak ziren; erregimenaren hasierako garaietan «egokitza» mugatu zirenak —arazo handirik gabe—, ordezkatuak zeuden ordurako. Hala ere, denak ez ziren guztiz fidagarriak, inondik ere, gutxik zor baitzieten, Heydrichék edo Himmlerrek bezala, beren karrera osoa naziei; eta, horrez gainera, asko pertsona ezgauzak ziren, Joachim von Ribbentrop esate baterako, Atzerriko Arazoetako Ministerioko burua, xanpain-saltzaile izandakoa. Arazoa askoz ere larriagoa zen, nolanahi ere, zuzenean ministeriokoen mendeko ziren administrazioako kargu altuei zegokionez, zeren gizon haiek, administrazio publikoaren bizkarrezurra zirenak, ez baitziren errazak ordezkatzeko, eta Hitlerrek toleratu egin behar izan zituen, Adenauerrek gero toleratuko zituen bezala, nazismoarekin guztiz konprometituak egon ez zirenak behintzat. Hala, bada, ministerioetako idazkariordeak eta beste aditu asko ez ziren alderdiko kideak, eta ulertzekoa zen Heydrichen beldurra, ez baitzekien jende hark laguntza aktiboa emango ote zion masa-hilketetan. Eichmannek esan zuen bezala, Heydrichék «eragozpen handiak espero zituen». Oker zegoen, zeharo.

Ahalegin guztiak bateratzea zen Konferentziaren helburua, Azken Soluzioa inplementatzeko xedeaz. Eztabaida, hasieran, «lege-auzi bihurrien» gainera izan zen; besteak beste, zer tratatu eman judu-erdiei eta judu-laurdenei: akabatu egin behar ziren, edo antzutu bakarrik? Haren ondoren, «arazoaren soluzio posibleak» aztertu ziren, hiltzeko metodo desberdinak alegia, eta horretan ere, «adostasun zoriontsua izan zen parte-hartzaileen aldetik»; Azken Soluzioa «gogoberotasun harrigarri» hartu zuten bertan ziren guztiek, eta bereziki Wilhelm Stuckart doktoreak, Barne Ministerioiko idazkariordeak, zeina uzkur eta zalantzati samarra baitzen alderdiaren «errotikako» neurrien aurrean, eta legearen aldeze sutsua zen gainera, Hans Globkek Nurenbergen eman zuen lekukotasunaren arabera. Eragozpenak ere baziren, nolanahi ere. Josef Bühler idazkariordea, Poloniako Gobernu Nagusiko bigarren agintaria, jota geratu zen juduak mende baldetik ekialdera ebakuatuko zituztela entzun zuenean, horrek judu gehiago izango zela Polonian esan nahi zuen-eta; hala, ebakuazio haiek atzeratzeko proposatu omen zuen, eta «Gobernu Nagusian abiarazteko Azken Soluzioa, han ez baitzen garraio-arazorik». Atzerriko Arazoetako Ministerioiko jaunak beren txosten arduraz prestatuekin agertu ziren, «Atzerriko Arazoetako Ministerioaren desirak eta ideiak Europako juduen auziaren erabateko soluzioari buruz» adieraziz haietan, baina inork ez zien jaramon handirik egin. Garrantzitsua izan zen, Eichmannek ondo azpimarratu zuen bezala, administrazioko zenbait adarretako kideek, iritziak adierazi ez ezik, proposamen konkretuak ere egin zituztela. Bilera ez zen ordubetez edo ordu eta erdiz baino gehiago luzatu, eta ondoren edariak zerbitzatu ziren eta denek elkarrekin bazkaldu zuten, hots, «bilkura sozial txiki atsegin» bat izan zen, beharrezkoak ziren harreman pertsonalak estutzeko pentsatua. Oso egun garrantzitsua izan zen hura Eichmannentzat, ez baitzen inoiz tankera horretako bilkura sozial batean egon, hainbeste «goi-mailako pertsonarekin»; askogatik, Eichmann zen maila beherenekoa Wannseko guztien artean, graduz nahiz posizioz. Eichmannek gonbidapenak bidali zituen eta material estatistikoa prestatu zuen (akats ikaragarri bete), Heydrichen sarrera-hitzaldirako —hamaika milioi judu behar ziren akabatu, ekimenak bazuen halako munta bat— eta ondoren batzar-agiriak idatzi behar izan zituen. Laburtuz, bilkurako idazkari-lanak egin zituen. Horregatik utzi zioten, besteek alde egin zutenean, Müller bere nagusiarekin eta Heydrichekin sutondoan esertzen, «eta huraxe

izan zen Heydrich erretzen eta edaten ikusi nuen aurreneko aldia». Ez ziren «berritsukerian jardun, atsedean hartu zuten, ordu askoan lanean jardun ondoren», eta oso gustura egon ziren, Heydrich bereziki; hura zoratzen omen zegoen.

Eichmannentzat konferentziaren eguna ezin ahaztuzkoa egin zuen beste arrazoi bat ere izan zen. Ahaleginean jardungo zuen arren Azken Soluzioan bere partea behar bezala betetzen, artean zalantzak zituen, «bortizkeriazko soluzio odoltsu hura» zela-eta, baina zalantza haiek guztiak desagertu egin zitzaizkion bilkuraren ondoren. «Han, konferentzia hartan, garai hartako jenderik garrantzitsuen mintzatu zen, Hirugarren Reicheko aita santuak». Eta konferentzian bere begiekin ikus zezakeen eta bere belarriekin aditu, nola lehiatzen ziren, Hitler, Heydrich edo Müller «esfingea» ez ezik, baita administrazio zahar zintzoaren elite osoa ere, kontu «odoltsu» haietan aurrena izateko ohorearengatik. «Une hartan, Pontzio Pilatoren modukoa sentitu nintzen, erru oro libre sentitu bainintzen». *Zein zen bera ezer epaitzeko?* Zein zen bera «auzi hari buruz [bere] iritzi propioak izateko»? Tira, Eichmann ez zen ez aurrenekoa ez azkenekoa izan apaltasunak errekara eramango zuena.

Hurrena etorri zena, Eichmannek gogoratzen zuenez, nahiko erraz joan zen eta errutina bihurtu zen laster. Berehala bihurtu zen «ebakuazio behartuan» aditua, «emigrazio behartuan» aditua izan zen bezala. Lehendabizi herri batean, hurrena bestean, juduek errolatu egin behar zuten, izar horia eraman behar zuten ezagutzen errazak izateko, ondoren bildu eta deportatu egiten zituzten, eta Ekialdeko deuseztatze-zentro batera edo bestera garraiatzen zituzten, zentroen unean uneko ahalmenaren arabera; tren bat zentro batera iristen zenean, juduz betea, indartsuenak lanerako aukeratzen zituzten, deuseztatze-makinetan lan egin zezaten sarritan, eta besteak berehala akabatzen zituzten. Arazoak izaten ziren, baina ez larriak. Atzerriko Arazoetako Ministerioa harremanetan egoten zen herrialde okupatuetakoa edo nazien aliatuak ziren herrialdeetako agintariekin, eta beren juduak deportatzera hertsatzen zituzten, edo adierazten zieten, gerta zitekeen bezala, ez zitzatela Ekialdera arrapaladan ebakuatu, gauzak behar bezala antolatu gabe, hots, heriotza-zentroen absortzio-ahalmena behar bezala aztertu baino lehen. (Halaxe gogoratzen zuen Eichmannek prozesua; gero, errealtatean, gauzak ez ziren hain errazak izaten).

Lege-adituek biktimak estatugabeak egiteko behar ziren legeak prestatu zituzten, eta hori bi aldetatik zen garrantzitsua: batetik, zegozkien herrialdeek ezin zuten biktimen berri galdetu, eta, bestetik, haien jabetzak konfiskatzeko ahalmena ematen zion estatugabe bihurturiko juduak bizi ziren estatuari. Finantzako Ministerioak eta Reichsbank-ek Europa osotik zetorrena, baita erlojuak eta urrezko hortzak ere, hartzeko bitartekoak prestatu zituzten; haiek denak Reichsbanken sailkatzen eta gero Prusiako diru-fabrikara bidaltzen zituen. Garraio Ministerioak behar ziren bagoiak antolatzen zituen, karga-bagoiak normalean, baita ibilgailuen urritasuna oso handia zen garaietan ere, eta deportazio-trenen ordutegiak gainerakoen ordutegiak ez oztopatzeaz arduratzen zen. Eichmannek edo haren gizonek zenbat judu behar ziren tren bakoitza betetzeko esaten zieten zahar juduen kontseiluei, eta kontseiluek deportatuen zerrenda egiten zuten. Juduak erroldatu egiten ziren, ezin konta ahala inprimaki betetzen zituzten, orriak eta orriak erantzuten zituzten beren ondasunei buruzko galdetegietan, errazago harrapaka zitzaten; biltzen ziren gero elkartze-puntuetan eta trenetara igotzen ziren. Ezkutatzen edo ihes egiten saiatzen ziren bakanak poliziako talde judu berezi batek biltzen zituen. Eichmannek ikusi zuenez, inork ez zuen protestarik egin, inork ez zion elkarlanari uko egin. *Immerzu fahren hier die Leute zu ihrem eigenen Begrabnis* («Hemen, egunero-egunero, jendea bere hiletara abiatzen da»), artikulugile judu batek Berlinen 1943an esan zuen bezala.

Esanekotasun hutsa ez zen inoiz nahikoa izango, ez naziek okupaturiko edo nazien aliatua zen Europako parte osoa laster hartuko zuen operazio baten eragozpen ikaragarriak gainditzeko, ez eragileen kontzientziak lasaitzeko, haiek, azken finean, «Ez duzu hilko» aginduarekin heziak baitziren, eta buruz zekiten Jerusalemeko Barrutiko Auzitegiaren epaian hain egoki aipatu zen Bibliako bertsoa, «Hil duzu eta heredatu duzu». Eichmannek «heriotzaren zurrunbiloa» deitu zuenak, Estalingradoko galera ikaragarrien ondoren Alemaniari etorri zitzaionak —Alemaniako hirien bonbardatze masiboak, Eichmannen betiko aitzakia zibilak erailtzea zurrutze, eta gaur egun ere Alemanian hilkintzak zurrutze erabiltzen den aitzakia—, ikuskari beldurgarriak, Jerusalemen kontatuak ez bezalakoak izan arren ez haiek baino gozoagoak, haiek denek, eguneroko esperientzia bihurturik, lagun zezaketen kontzientziak lasaitzen, edo, areago, sorgortzen, gertatu zirenean kontzientziarik batere geratzen bazen;

eskura ditugun frogen arabera, ordea, ez zen halakorik gertatu. Gerraren izugarrikeriak Alemania bera jo baino askoz ere lehenago, antolatua eta biribildua zen deuseztatze-makina bere xehetasun guztiekin, eta bertako burokraziak egokitasun eta sendotasun berberaz funtzionatu zuen garaipen errazen urteetan nahiz aise iragartzen zen porrotaren azken urteetan. Agintarien elitean eta SSetako goi-mailako kideen artean, desertziorik ez zen ia izan hasieran, jendeak artean kontzientziarik izan zezakeenean; Alemaniak gerra galduko zuela ageriko gauza izan zenean bakarrik agertu ziren halakoak. Areago, desertzioak ez ziren inoiz makineria geldiarazteko bezain ugariak izan; banakako egintzak izan ziren, ez errukizkoak, ustelkeriazkoak baizik, eta ez zituen kontzientziak eragin, aitzitik, hurbil ziren egun beltzetarako diru pixka bat edo harremanak lortzeko desirak bultzatu zituen. Himmlerrek 1944ko udazkenean eman zuen agindua, hilkitzak gelditu eta heriotza-lantegietako instalazioak eraistekoa, haren uste burugabe baina egiazko batetik zetorren: jakingo zutela aliatuek keinu adeitsu hura nola estimatu; Eichmann sinesgogor samar bati kontatu zion, nola, keinu haren indarrean oinarriturik, *Hubertusburger-Frieden* bat negoziatu ahal izango zuen: Hubertusburg-eko bake-ituna zuen gogoan, haren bidez, Prusiako Frederiko II.aren Zazpi Urteko gerra bukatuta, Prusiak, nahiz eta gerra galdu, Silesiari eutsi baitzion.

Eichmannek esan zuen bezala, bere kontzientzia lasaitu zuen faktore nagusia izan zen ez zuela pertsona bakar bat ere ikusi Azken Soluzioaren kontra zegoena. Salbuespen bat aurkitu zuen, nolanahi ere, zenbait bider aipatu zuena, eta dirudienez zirrara handia eragin ziona. Hungarian gertatu zen, Kastner doktorearekin Himmlerren eskaintza bat negoziatzen ari zenean: milioi bat judu libre utzi hamar mila kamioiren truke. Kastnerrek, adoretuta nonbait egoera berriarekin, «Auschwitzeko heriotza-lantegiak» gelditzeko eskatu zion Eichmanni, eta Eichmannek erantzun zion «plazerik handienaz» (*herzlich gern*) geldituko zituela, baina, hara, beraren ahalmenaz kanpoko gauza zen, eta beraren nagusien ahalmenaz kanpoko; eta halaxe zen, izan ere. Eichmannek ez zuen espero, jakina, juduek, beren herriaren suntsiketa zela-eta, besteen suhartasun zabal bera partekatuko zutenik, baina esanekotasuna baino gehiago espero zuen, espero zuen —eta jaso zuen, maila zinez harrigarri bateraino— haien lankidetzak. Hura zen «jakina, [egiten zuen guztiaren] oinarri-oinarria», Vienako jardueren oinarria izan zen bezala. Juduek ez bazuten administrazio-

eta polizia-lanetan laguntzen —Berlinen, juduen azkeneko bilketa, lehen esan dudana bezala, polizia juduak egin zuen oso-osorik—, edota erabateko kaosa izango zen edo aleman langileak jarri beharko ziren lan hura egiten, eta hori ezinezkoa zen guztiz. («Dudarik ezin da izan, biktimen lankidetzak gabe, nekez moldatuko zirela milaka batzuk, gehienak bulegoetako langileak gainera, milaka eta milaka lagun garbitzen... Poloniar juduek, oro har, oso aleman gutxi ikusi zuten heriotzarako bidean», dio R. Pendorfek goian aipaturiko lanean. Are zabalago aplikatzen zaie hori Poloniara hiltzera eramane zituzten beste herrialdeetako juduei). Hortaz, lurralde okupatuetan gobernu kolaborazionistak ipintzen zirenean, aldi berean bulego zentral judu bat antolatzen zen beti, eta, geroago ikusiko dugun bezala, naziak ez zutenean behar bezalako txotxongilo-gobernu bat antolatzea lortzen, berebat huts egiten zuten juduen lankidetzak lortzen. Gobernu kolaborazionistetako kideak normalean oposizioko alderdietatik hartzen ziren, baina judu-kontseilueta kideak, berriz, zegokion hiriko aginte handiko judu ezagunak izaten ziren, eta naziak sekulako ahalmenak eman zizkieten, harik eta haiek ere deportatu zituzten arte, Theresienstadtera edo Bergen-Belsenera Europa Erdialdekoak edo Mendebaldekoak, eta Auschwitzera Europa Ekialdekoak.

Juduentzat, agintari juduek beren herria suntsitzen bete zuten eginkizuna da inondik ere istorio beltz osoaren kapitulurik beltzena. Lehenagotik ere gauza jakina zen, baina Raul Hilbergekin (aipatu dut lehenago haren obra klasikoa, *The Destruction of the European Jews*), agertu du aurreneko aldiz bere xehetasun tamalgarri eta doilor guztiekin. Lankidetzari zegokionez, ez zen diferentziarik izan Europa Erdialdeko edo Mendebaldeko judu oso asimilatuen eta Ekialdeko masa yiddish-eledunen artean. Amsterdamen eta Varsovia, Berlinen eta Budapesten, ordezkari juduek pertsonen eta haien ondasunen zerrendak osatu behar zituzten, deportatuen dirua eskuratu behar zuten haien deportazioaren eta deuseztatzearen gastuak ordaintzeko, etxebizitza hustuen arrastoari jarraitu behar zioten, beste juduak harrapatzen eta trenetara eramaten lagunduko zuten polizia-indarrak antolatzen zituzten, eta, elkarlanaren azken keinu gisa, azken konfiskaziorako, txukun-txukun aurkezten zizkieten naziak komunitate juduaren aktiboak. Izar horiaren bandak banatzen zituzten, eta batzuetan, Varsovia adibidez, «besoko banden salmenta negozio on bat izatera heldu zen; baziren besoko banda arruntak, oihalezkoak,

baziren banda hobeak, plastikozkoak, garbi zitezkeenak». Ondoren etorri ziren naziak inspiraturiko (ez diktaturiko) agirietan, sumatzen da oraindik ere nola gozatzen zuten ordezkari juduek ahalmen berri haiekin: «Judu Kontseilu Nagusiari erabateko eskuduntzaren eskubidea eman zaio juduen aberastasun espiritual eta material ororen eta juduen giza baliabide guztien gainean», Budapesteko kontseiluaren aurreneko adierazpenak zioen bezala. Badakigu nola sentitzen ziren funtzionario juduak heriotzaren tresna bihurtu zirenean: kapitainak bezala, «ontzia urperatzekotan zutenak, baina, zama baliotsuaren parte handi bat kanpora jaurtikiz, kaira eramatea lortu zutenak»; «ehun biktimarekin mila lagun, milarekin hamar mila salbatzen dituzten» salbatzaileak bezala. Errealitatea gogorragoa zen. Kastner doktoreak, Hungarian, adibidez, 476.000 biktima ingururekin, 1.684 lagun salbatu zituen. Bizitarakoak eta hiltzekoak aukeratzea «patu itsuaren» eskuetan ez uzteko, beharrezkoak ziren «printzipio egiaz santuak, pertsona ezezagunaren izena paperean ipintzen duen eta haren bizitzeko edo hiltzeko erabakia hartzen duen gizakiaren esku ahularen indar gidaritzat». Eta zein bereizten zuten salbaziorako «printzipio santu» haiek? «*Zibur*-arentzat [komunitatearentzat] bizitza osoan lan egin zutenak», hau da, funtzionarioak, edo «judu gailenak», Kastnerrek bere txostenean esaten duen bezala.

Inork ez zuen funtzionario juduei sekretuzko zina eginarazteko lana hartu; borondatezko «sekreto-eramaileak» ziren haiek, era horretan lasaitasuna segurtatzen eta izua saihesten zutenak, Kastner doktorea adibide baterako, edota «gizatasunagatik», besteak beste, «noiz gaseztaturik hilko bizitzea askoz ere gogorragoa izango zelako», Leo Baeck doktoreak, Berlingo Errabino Nagusi ohiak, esan zuen bezala. Eichmannen epaiketan, lekuko batek «gizatasun» mota horren zoritxarreko ondorioak azpimarratu zituen: izan ziren Theresienstadtetik Auschwitzera beren borondatez deportaturik joan zirenak, eta haiek egia esaten zutenak salatu zituzten, «burutik gaizki» zeudela esanez. Oso ondo dakigu nolakoak ziren nazien garaiko lider juduak; era askotakoak ziren. Bazen, adibide baterako, Chaim Rumkowski, Lodzeko juduetako Zaharrena, Chaim I deitua, bere sinadura zuten diru-billeteak eta bere argazkia zeukaten posta-zigiluak ghettoan irarri zituen, eta zalgurdi zaharkitu batean ibili ohi zena; bazen Leo Baeck, gizon intelektuala, manera adeitsukoa, kulturaz oso jantzia; haren ustez, polizia judua «atseginagoa eta lagungarriagoa»

izango zen, eta «oinazea arinduko zuen» (eta, jakina, polizia juduak naziak baino gogorragoak ziren eta saldukeriarako zailagoak, asko-asko jokatzeko baitzuten); eta baziren, azkenik, bere buruaz beste egin zuten bakan batzuk, Adam Czerniakow esate baterako, Varsoviako judu-kontseiluko lehendakaria, errabinoa ez zena, sinesgabea baizik, ingeniaria eta poloniera-egile, artean errabino-esan hura gogoan izango zuena: «Utzi hil zaitzaten, baina ez lerroa gurutzatu».

Berezko gauza zen kasik Jerusalemeko fiskala, Adenauerren administrazioari trabarik ez egiteko hainbesteko lanak hartu zituen, gogotik saiatarazten historiaren kapitulu hau ez plazaratzen. (Gai hauek, nolabait ere, nahiko modu irekian eta, harritzekoa dena, batere tolesik gabe ageri dira israelar eskola-liburuetan, Mark M. Krug-en «Young Israelis and Jews Abroad-A Study of Selected History Textbooks» artikuluan ikusten den bezala, *Comparative Education Review* obran, 1963ko urria). Nolanahi ere, nahitaez aipatu behar da atal hau hemen, ezin ulertuzko hutsuneak sortzen baitira bestela dokumentatuegia ere badagoen kasu honetan. Epaileek dokumentazio-hutsune bat aipatu zuten, hain zuzen ere H. O. Adler-en *Theresienstadt 1941-1945* liburua (1955), fiskalak, lotsatuta, «egiazkoa, iturri ezeztazinetan oinarritua» zela onartu zuena. Oso argi zegoen zergatik falta zen liburu hura dokumentazioan: xehetasun handiz deskribatzen du nola osatzen zituen Theresienstadtetako judu-kontseiluak, SSetako zenbait araubide orokor jaso ondoren, «garraio-zerrenda» beldurgarriak, zenbat pertsona behar ziren bidali, zer adin, sexu, ogibidetakoak, eta sortzez nongoak ziren zehaztuz. Akusazioa kaltetua geratuko zen fiskala onartzerat behartzen bazuten administrazio juduaren eginkizuna izaten zela, salbuespen gutxiarekin, heriotzara zein bidali eta zein ez erabakitzea. Eta Estatuko fiskalak ere, Ya'akov Baror jaunak, hark erantzun baitzuen Adlerren liburuaren berri galdetu zutenean, huraxe seinatu zuen nolabait ere, esan zuenean: «Akusatuari dagozkion gauzak agertzen saiatu gara, irudia bere osotasunean kaltetu gabek». Irudia, egia, kaltetua geratuko zen oso Adlerren liburua juizioko dokumentazioan sartu balitz, Theresienstadtetako lekuko nagusiak egindako adierazpena gezurtatuko baitzuen, hark esan baitzuen Eichmannek berak egiten zituela banakako aukerak. Eta are garrantzitsuagoa, fiskalak aurkeztu zuten irudi osoa, esesleen eta biktimen arteko bereizketa erabatekoaren irudia, geratuko zen honda-honda egina. Akusazioa gezurtatzen duten frogak aurkeztea defentsaren eginkizuna izaten da normalean, eta

zaila da esaten Servatius doktoreak, lekukoen aitorpenetan hainbat kontraesan sumatu zituelarik, zergatik ez zuen halako dokumentazio lortzen erraza eta guztiz ezaguna eskuratu. Azpimarra zezakeen nola Eichmannek, emigrazioan aditua izatetik «ebakuazioan» aditua izatera igaro eta berehala, emigrazioaren alorrean bere laguntzaile judu izandakoak —Paul Eppstein doktorea, Berlinen emigrazio-arduraduna izan zena, eta Benjamin Murelstein errabinoa, Vienan lan bera egin zuena—, «Judu Zaharrenak» izendatu zituen Theresienstadten. Askoz ere hobeto erakutsiko zuen horrek nolakoa zen Eichmannek lanean ziharduen giroa, zinen, leialtasunaren eta esanekotasun itsuaren bertuteen gaineko hizketaldi desatsegin eta inoiz laidoztatzaileak ere izaten ziren haiek guztiek baino.

Charlotte Salzberger andreak Theresienstadti buruz eman zuen lekukotasunak, gorago aipatu dudanak, begirada bat behintzat egiten lagundu zigun fiskalak behin eta berriz «irudi osoa» deitzen zuenaren bazter abandonatu hari. Epaila nagusiari ez zitzaion esapidea gustatzen eta ez zitzaion irudia gustatzen. Behin baino gehiagotan esan zion fiskal nagusiari «hemen ez gara irudiak marrazten ari», esan zion bazela «akusazio bat, eta akusazio hori da epaiketa honen esparrua», auzitegiak bazuela «bere ikuspegia juizioaz, akusazioaren arabera», eta «fiskala legeak agintzen duenari egokitu behar zaio»: zigor-prozedura batentzako arrunt ohar egokiak, eta batere jaramonik egin ez zitzaizkion. Fiskalak jaramonik ez egitea baino okerragoa ere egin zuen: uko egin zion, besterik gabe, bere lekukoak gidatzeari, edo, auzitegiak behartuz gero, galdera lauso batzuk egiten zizkien, helburu jakinik gabeak; eta horren ondorioz, lekukoek fiskal nagusiak gidaturiko bilera bateko hizlariak balira bezala jokatzeko zuten, hark mintzalekura igaro baino lehen aurkezten zizkielarik entzuleei. Ia-ia nahi bezain luze mintza zitezkeen, eta oso gutxitan egiten zitzaizkien galdera zehatzak.

Giro hura, ez ikuskarizko epaiketa batena, masa-mitin batena baizik, zeinean hizlari bat besteari atzetik eginahalean saiatzen baitzen entzuleak erakartzen, bereziki deigarria gertatu zen fiskalak lekuko bati besteari atzetik deitu zionean akusatuaren delituekin inolako loturarik ez zuten Varsoviako ghettoan matxinadaz eta Vilna-ko eta Kovno-ko (Kaunas) matxinada-saioez mintza zitezen. Jende haren lekukotasunak egingo zion ekarpenen bat juizioari, beren

ahalegin heroikoak kontatzerakoan halako eginkizun garrantzitsua eta ezin okerragoa bete zuten judu-kontseiluen jardueren berri eman balute. Izan ziren, jakina, jarduera haiei buruzko aipamen batzuk —«SSetako gizon eta haien laguntzaile» izan zirenei buruz mintzatu ziren lekukoek, esan zuten azken horien artean sartzen zutela «ghettoko polizia, berebat baitzen hura hiltzaile nazien eskuetan zegoen tresna bat», eta mintzatu ziren *Judenräte* izenekoari buruz ere—; baina ez zuten inondik ere istorioaren alderdi hori gehiago «zehaztu», eta egiazko traidoreen eginkizunen aldera eraman zuten beren mintzaldia, eta haiek bakan batzuk ziren, eta «izenik gabeko jendea zen, juduek ezagutzen ez zutena, klandestinitatean nazien kontra borrokatu zirenak bezala». (Entzuleak, lekuko haiek mintzatzen ziren bitartean, aldatuak ziren ostera ere; *Kibbuznikak* ziren orain, hau da, hizketan ari ziren lekukoak bizi ziren israeldar kokaleku berekoak). Kontaketarik argiena Zivia Lubetkin Zuckerman-ek egin zuen; emakume honek berrogei bat urte izango ditu gaur egun, oso ederra da oraindik ere, eta ez zuen inolako sentimentaltasunik edo bere burua erakusteko nahirik agertu, gertakariak ondo antolatuak zeuzkan gogoan, eta segurtasunez adierazi zuen beti adierazi nahi zuena. Legearen aldetik, lekuko haien adierazpenek ez zuten garrantzirik —Hausner jaunak ez zuen bat ere aipatu bere azken alegatuan—, partisano juduen eta poloniar eta errusiar borrokalari klandestinoen harreman estuak frogatzen zituzten neurrian izan ezik, eta horrek, beste lekukotasunak gezurtatzeaz gainera («Biztanleria guztia kontra geneukan»), izan zezakeen baliorik defentsarentzat, askoz justifikazio hobea eskaintzen baitzuen zibilen hilkintza osoarentzat Eichmannek behin eta berriz errepikatzen zuen hark baino, «Weizmannek 1939an gerra aldarrikatu zion Alemaniari». (Azkeneko hori guztiz gauza zentzugabea da. Chaim Weizmannek, gerra aurreko azken Batzar Sionistan, Mendebaldeko demokrazien gerra «gure gerra da, haien borroka gure borroka da», ez zuen besterik esan. Tragedia zen, hain zuzen ere, Hausnerrek ondo adierazi zuen bezala, naziek ez zituztela juduak gerrako parte-hartzailetzat ezagutu, zeren, hala ezagutu balituzte, bizirik aterako baitziren, gerrako atxilotuentzako edo zibilentzako barnetegi-esparruetan). Servatius doktoreak ikuspegi hori azpimarratu izan balu, behartuta geratuko zen fiskala onartzeraz zeinen errukarriro txikiak izan ziren erresistentzia taldeak, zenbateraino ahulak eta funtsean kaltegabeak, eta garrantzitsuena, biztanleria juduaren zeinen parte txikia ziren

(une jakin batean juduak haien kontrako armak hartzera ere ailegatu ziren).

Errukarriro argia zen hainbeste denbora hartzen zuten lekukotasun haiek legearen aldetik zuten desegokitasuna, eta, era berean, ez zen batere zaila asmatzen Israeleko gobernuak haiek froga gisa proposatuz zuen asmo politikoa. Hausner jaunak (edo Ben-Gurion jaunak), erresistentzia, batere erresistentziarik izan bazen, sionistengandik etorri zela nahi zuen segur aski frogatu, judu guztiengandik sionistek bakarrik jakingo balute bezala, ezin bada bizitza salbatu, merezi dezakeela agian ohorea salbatzea, Zuckerman andreak esan zuen bezala; «errugabea» izatea eta halaxe jarraitzea dela gizaki bati egoera horretan gerta dakioken gauzarik okerrenea, argi adierazi zuenez Zuckerman andrearen lekukotasunaren tonuak eta esanahiak. Nolanahi ere, asmo «politiko» haiek huts egin zuten, zeren lekukoak egiaz mintzatu baitziren, eta judu-erakunde eta alderdi guztiek esku hartu zutela erresistentzian kontatu zuten auzitegian, eta, hortaz, egiazko bereizketa ez zela sionisten eta ez-sionisten artekoa, jende antolatua eta jende ez-antolatua artekoa baizik, eta, are garrantzitsuagoa, gazteen eta helduen artekoa. Egia esatera, iharduki zutenak gutxi izan ziren, oso-oso gutxi, baina egoera hartan, «miraria zen», lekuko batek esan zuen bezala, «gutxi haiek ere izatea».

Lege-auziak alde batera utzirik, ongi ikusi zen judu-erresistentziako borrokariak izandakoak etortzea lekukotasuna ematera. Lankidetzaren osoaren mamu beldurgarria, Azken Soluzioa inguratu zuen giro itogarri eta pozoitsu hura, ezabatu zuten. Fiskalaren lekukoek argi adierazia utzi zuten erailtzeko egintza bera, deuseztatze-zentroetan, komando juduen eskuetan egon ohi zela, ondo jakina zen gauza: nola juduak aritzen ziren gas-ganberetan eta errausketa-labeetan lanean, nola ateratzen zizkieten gorpuei urrezko hortzak eta ilea mozten zieten, nola zulatzen zituzten hilobiak eta nola, gero, hilobiak berriz zabaldu zituzten masa-hilketaren arrastoak ezabatzeko, nola teknikari juduek eraiki zituzten Theresienstadteko gas-ganberak; Theresienstadt hainbesterainokoa izan zen «autonomia» judua, non berreroa bera ere judua baitzen. Hura dena lazgarria zen, baina besterik ez zen, ez zen arazo morala. Esparruetako langileen aukera eta sailkapena SSek egiten zuten, eta gaizkileenganako zaletasun berezi bat zuten; eta, nolanahi ere, okerrearen arteko aukera baizik ezin zen izan. (Bereziki egia izan

zen hori Polonian; han, intelektual juduen parte handi bat garbitu zuten naziek, eta aldi berean poloniar intelektualak eta profesionalak ere erail zituzten; Mendebaldeko Europan, berriz, politika-bideak zeharo desberdinak ziren, judu garrantzitsuak salbatzea baitzen Mendebaldeko joera, aleman zibil atxiloen edo gerrako presoek truke aldatzeko; Bergen-Belsen, berez, «judu-trukea» egiteko esparru bat zen). Arazo morala zen zenbateraino zen egiazkoa Eichmannek juduen lankidetzaz egin zuen deskribapena, baita Azken Soluzioaren giroan ere: «Judu-kontseiluaren osaketa [Theresienstadt] eta eginkizun-banaketa kontseiluaren beraren esku utzi zen, lehendakariaren izendapena izan ezik, lehendakaria geuk hautatzen baikenuen, jakina. Nolanahi ere, kontseiluko kideen izendapena ere ez zen aginduzko erabaki baten moduan egin. Kontu handiz behar ziren tratatu gurekin etengabeko harremanetan zeuden funtzionarioak. Ez zitzaizkien agindu zorrotzak ematen; izan ere, funtzionario nagusiei zer egin behar zuten esanez gero, ‘hau egin behar duzu’, ‘bestea egin behar da’ aginduz, horrek ez zuen batere lagunduko. Pertsona bati ez bazaio egiten duena gustatzen, lanean igarriko da hori gero... Gu eginahalean saiatzen ginen dena atsegina egiten». Eta halaxe egin zuten, egin ere; nola lortu zuten, hortxe dago koska.

Hala, «irudi oso» hartako hutsunerik larriena izan zen lekuko bat falta izan zela agintari nazien eta agintari juduen arteko harremanen berri emango zuena, hutsune horren ondorioz ondoko galdera hau egiteko aukera galdu baitzen: «Zergatik lagundu zenuen zeure herria suntsitzen; azken finean, zergatik zeure hondamendiari lagundu?». Pinchas Freudiger, Philip von Freudiger Baroi ohia, Budapestekoa, izan zen *Judenräte* bateko kide garrantzitsua izandako lekuko bakarra, eta hura lekukotasuna ematen ari zela gertatu ziren juizioko istilu serio bakanak; jendeak garrasi egin zion lekukoari, hungarieraz eta yiddishez, eta epaileak saioa eten behar izan zuen. Freudiger, judu ortodoxoa, duintasun handiko gizona, jota geratu zen: «Bada hemen ez ihes egiteko esan zietela dioen jendea. Baina ihes egin zutenengandik, ehuneko berrogeita hamar harrapatu eta akabatu zuten» —aldera bedi hori ihes egin ez zutenen ehuneko laurogeita hemeretziarekin—. «Nora joango ziren? Nora ihes egin?» —berak ordean ihes egin zuen, Errumaniara, aberatsa zelako eta Wisliceny-k lagundu ziolako—. «Zer egin genezakeen? Zer egin genezakeen?». Eta epaile nagusiak eman zuen horrek izan zezakeen erantzun bakarra: «Ez dut uste hori egin

den galderari erantzutea denik». Entzuleriak egindako galdera zen, ez auzitegiak.

Bi bider aipatu zuten epaileek lankidetzaren auzi hau; Yitzak Raveh epaileak lortu zuten erresistentziako lekukoetako batek «ghettoko polizia» «hiltzaileen eskuetan zegoen tresna» bat zela onartzea, eta «*Judenräte*en politika naziekiko elkarlanean jardutean» zetzala aitortzea; eta Halevi epaileak birgalderak eginez lortu zuen Eichmannek onartzea lankidetzara hura, nazientzat, beren judu-politikaren giltzarrietako bat izan zela. Baina fiskalak, erresistentziako borrokalariei izan ezik, lekuko guzti-guztiei egin zien galdera bat, juizioaren atarikoek ezer ez zekitenei zeharo naturala iruditzen zitzaiena, «Zergatik ez zinen errebelatu?», kezko pantaila bat gertatu zen azkenean, beste galdera bat, egin ez zena, ezkutatzen zuena. Eta azkenean zer gertatuko, eta urruti zeudela «egia, egia osoa eta egia baizik ez» izatetik Hausner fiskalak bere lekukoei egiten zien ezin erantzunezko galderari eman zitzaizkien erantzunak. Egia zen judu-herria, bere osotasunean, ez zegoela antolatua, ez zeukala ez lurralderik, ez gobernurik, ez armadarik, ez zeukala, premiarik handieneko uneetan, aliatuen aurrean ordezkatzeko zuen erbesteko gobernurik (Palestinarako Bulego Judua, Weizmann doktorearen lehendakaritzapean zegoena, egiazko gobernu baten ordezkoko miserablea zen onenean ere), ez armarik, ez militarik entrenatutako gazterik. Baina egia zen, halaber, bazirela judu-komunitatearen erakundeak, eta alderdi- eta laguntza-erakundeak, lokalak nahiz nazioartekoak. Juduak bizi ziren lekuetan agintari juduak zeuden, eta agintari haiek, salbuespenik gabe ia, naziekin lankidetzan jardun zuten modu batean edo bestean, arrazoi batengatik edo bestearengatik. Egia osoa zen, baldin juduek antolamendurik izan ez balute, ezta agintaririk ere, kaosa sortuko zela eta hondamena ikaragarria izango zela, baina biktimen kopuru osoa nekez izango zen lau eta erdi eta sei milioi bitartekoa. (Freudigerren kalkuluen arabera, haien erdia inguru bere kabuz salbatuko zen judu-kontseiluen aholkuei jarraitu izan ez balie. Hori, jakina, gutxi gorabehera egindako kalkulua da, baina, hala ere, bat dator Holandatik datozen eta Gerrako Dokumentazioko Holandako Estatu Institutuko buru L. de Jong doktoreari zor dizkiogun aski kopuru fidagarriekin. Holandan ere, *Joodsche Raad* zeritzana, holandar aginte-erakunde guztiak bezala, berandu gabe bihurtuko zen «nazien tresna»; 103.000 judu deportatu zituzten heriotza-esparruetara eta bost mila inguru Theresienstadtera, ohiko bidetik denak, hau da,

judu-kontseiluekiko elkarlanean. Heriotza-esparruetatik bostehun eta hemeretzi judu baizik ez ziren itzuli. Zifra horrekiko kontrastean, naziengandik ihes egin zuten hogeitahogeita bost mila juduetatik —eta kopuru horretan berebat sartzen dira judu-kontseiluari obeditu ez ziotenak—, hamar mila ezkutatu eta bizirik atera ziren; berriz ere, ehuneko berrogei-berrogeita hamar. Theresienstadtera bidalitako judu gehienak Holandara itzuli ziren).

Luzatu egin naiz Jerusalemeko juizioak munduaren begien aurrean bere egiazko neurrian jartzen asmatu ez zuen istorioaren kapitulu honetan, naziek Europako gizarte errespetagarrian —ez Alemanian bakarrik, Europako herrialde gehien-gehienetan baizik, eta esesleen artean ez ezik, baita biktimen artean ere—, eragin zuten kolapso moralaren ikuspegi osoa eta guztiz zehatza eskaintzen duelako. Eichmann, mugimendu naziko beste elementu batzuk ez bezala, beldurtu egiten zen beti «gizarte onaren» aurrean, eta funtzionario judu aleman-eledunei erakusten zien adeitasuna, neurri handi batean, gizarte-mailaketan beraren gainetik zegoen jendearekin ziharduera jakitearen ondorioa zen. Inondik ere ez zen, lekuko batek deitu zion bezala, *Landsknechtnatur* bat, hots, mertzenario bat, Hamar Agindurik ez dagoen eta gizon batek nahi dituen guztiak egin ditzakeen lurretara ihes egin nahi zuena. Eichmannek, oroz gain, eta azken-azkenerraino, arrakastan sinesten zuen, arrakasta baitzen Eichmannentzat «gizarte onaren» neurri nagusia. Oso berezkoa zuen Hitlerren gainean esan zuen azkeneko hitza, zeren Hitlerri, Eichmannek eta haren lagun Sassenek, beren kontaktetan «garrantzi gutxi» ematea erabaki baitzuten; Hitler, esan zuen, «baliteke guztiz oker ibiltzea, baina bada gauza bat ezin uka dakiokeena: gai izan zen gora egiteko, Alemaniako Armadan, kaboa izatetik ia laurogei milioi laguneko herri baten Führerra izateraino... Arrakasta horrek adierazi zidan gizon haren mende behar nuela nik jarri». Lasai geratu zen, oso, Eichmannen kontzientzia, ikusi zuenean nolako grinaz eta suhertasunez erreakzionatzen zuen nonahi «gizarte onak». Ez zuen zertan «belarriak kontzientziaren ahotsaren aurrean itxi», epaiak esan zuen bezala, ez kontzientziarik ez zuelako, baizik eta kontzientzia «ahots errespetagarritz» mintzatzen zitzaiolako: inguruan zeukan gizarte errespetagarriaren ahotsarekin.

Ez zela kontzientzia esnatuko zion kanpoko ahotsik izan, hura zen Eichmannen argudioetako bat, eta fiskalaren eginkizuna izan zen hura gezurra zela frogatzea, izan zirela bestelako ahotsak, eta, nolanahi

ere, betebeharrak eskatzen zionaren oso gainetik zegoen grina batez egin zuela bere lana. Eta hori egia zela ikusi zen, salbu eta, harrigarria dirudien arren, Eichmannen grina hilgarria ez zela behin edo behin atzera eginarazi nahi izan zioten ahotsen anbiguitatetik guztiz aparte egon. Bidenabar bakarrik aipatuko dut hemen Alemanian «barne-emigrazioa» esaten zitzaiona: Hirugarren Reichen karguak izan zituzten pertsonak —inoiz kargu altuak—, beti egon zirela «barren-barrenean [erregimenaren] kontra» esaten zioten bere buruari eta munduari oro har gerra bukatu ondoren. Kontua ez da hemen egia ala gezurra esaten zuten; kontua da, areago, ez zela beste sekreturik izan Hitlerren erregimenaren sekretuz betetako giroan hobeto gordea «barren-barrenean [erregimenaren] kontra» egote hura baino. Ia berezko gauza zen izumen naziaren pean; «barne-emigratzaile» aski ezagun batek behin esan zidan bezala, eta hark bere zintzotasunean sinesten zuen, «kanpotik» naziago agertu behar zuten haiek nazi arruntek baino, beren sekretua gordetzeko. (Horrek azal dezake, bidenabar, zergatik ez ziren armadako buruzagiengandik etorri, alderdiko aspaldiko kideengandik baizik, deuseztatzeko-programaren kontra ezagutzen diren protesta bakanak). Hala, Hirugarren Reichen bizitzeko modu bakarra, nazien moduan jokatu gabe, batere ez agertzea zen: «Bizitza publikoan esku-hartze garrantzizkoa izatetik apartatu» zen, hain zuzen, banakoaren errua neur zezakeen irizpide bakarra, Otto Kirchheimer-ek bere *Political Justice* lanean (1961) duela gutxi azpimarratu duen bezala. «Barne-emigratzaile» esapideak ezer esan nahi bazuen, «sinesle-masa itsuen artean, herikideen artean, erbesteratu baten moduan» bizitzea esan nahi zezakeen, ez besterik, Hermann Jahrreiss irakasleak Nurenbergeko Auzitegian bere «Defendatzaile guztien Txostenean» adierazi zuen bezala. Zeren oposizioa, egia, «zeharo gauza alferrekoa» baitzen, inolako antolamendurik ez zeukanez gero. Egia da izan zirela aleman batzuk hamabi urtez «kanpoko hotz» hartan bizi izan zirenak, baina kopuru ezdeusa zen, baita erresistentziako kideen artean ere. Azken urteotan, «barne-emigrazioa» esapidea (esapideak berak badu zera nahasgarri bat; alde batetik, norberaren arimako barreneko eskualdeetarako emigrazioa esan nahi dezake, eta, bestetik, norbera emigratzailea balitz bezala jardutea) txiste moduko bat bihurtu da. Otto Bradfisch doktore beldurgarriak, *Einsatzgruppen* talde bateko kide ohiak, gutxiena hamabost mila lagunenez hilak izan zirenak, auzitegi alemaniar batean kontatu zuen bera beti

egon zela «barren-barrenean [egiten ari zenaren] kontra». Baliteke hamabost mila lagun heriotza beharrezkoa izatea «egiazko nazien» begietan zurigarri bat izateko. (Argudio bera eman zuen, askoz ere arrakasta gutxiagorekin ordea, Arthur Greiser Warthegauko *Gauleiter* ohiak Poloniako auzitegi batean: haren «arima ofizialak» bakarrik egin omen zituen 1946an urkamendira eramango zuten krimenak, haren «arima pribatua» haien kontra egon omen zen beti).

Baliteke Eichmannek bere buruan «barne-emigratzaile» bat inoiz ez topatzea, baina ondo ezagutu behar zituen funtzionario asko gaur egun diotenak kalteak «arintzeko» eta «egiazko naziek» beren postuak har zitzaten eragozteko bakar-bakarrik jarraitu zutela beren lanpostuetan. Aipatu dugu Hans Globke doktorearen kasu famatua. Estatuko idazkariordea izan zen, eta Alemaniako Mendebaldeko Kantzelergoko langile-saileko burua izan zen 1953-1963 bitartean. Jerusalemeko juizioan aipatu zen administrazioko maila horretako funtzionario bakarra izan zenez gero, merezi du haren jarduera «aringarriak» gogoratzea. Globke doktoreak Prusiako Barne Ministerioan lan egiten zuen Hitler aginpidera heldu baino lehen, eta juduen auziarekiko interes goiztiar samarra agertu zuen. Hark formulatu zuen «ariar jatorriaren frogia» eskatzen zen aurreneko araubidea, izenak aldatzeko baimena eskatzen zuten pertsonak bete beharrezkoa. 1932ko abenduko zirkular hark—Hitler aginpidera iristea, erabat segurua ez, baina bai oso gertagarria zen garai batean eman zen—, modu bitxian aurreratu zituen «dekretu sekretuak», hau da, jendaurrera eramaten ez diren legeen bidezko aginpide mota totalitario tipiko hori, Hitlerren erregimenak askoz ere geroago zabalduko zuena, «araubide hauek ez dira argitaratzekoak» argudiatuz. Globke doktoreari, lehen esan dudanez, abizenak interesatzen zitzaizkion, eta berebat da egia «1935eko Nurenbergeko Legeen Iruzkina» askoz ere gogorragoa zela Barne Ministerioko judu-auzietako aditua eta alderdiko kide zaharra zen Bernhard Lösener doktoreak *Rassenschande* haiez egindako lehenagoko interpretazioa baino, eta, beraz, balegoke Globke doktorea gauzak «egiazko nazien» agintepean baino okerrago jartzeaz akusatzea. Baina asmo on horiek guztiak ontzat emango bagenizkio ere, zaila da ikusten zer egingo zuen, egoera hartan, gauzak gainerakoan izango ziratekeenak baino arinagoak egiteko. Aspaldi ez dela, nolanahi ere, aleman egunkari batek, ikerketa asko egin ondoren, erantzun bat eman zion auzi txundigarri horri. Dokumentu bat aurkitu

zuten, Globke doktoreak behar bezala sinatua, eta bertan irakurtzen da aleman soldaduen txekiar emaztegaiek argazkiak eraman behar zituztela, bainujantzia soinean, ezkontza-baimena eskuratzeko. Globke doktoreak azaldu zuen bezala: «Isilpeko agindu harekin, *arindu* egin zen hiru urtez luzatua zen eskandalu bat»; eta hala zen, zeren, haren esku-hartzearen aurretik, txekiar emaztegaiek guztiz biluzik agertzen ziren argazkiak behar baitzituzten eraman.

Globke doktoreak, Nurenbergen azaldu zuenez, oso suerte ona izan zuen, beste «arintzaile» baten agindupean lan egiten baitzuen: Wilhelm Stuckart, Estatuko idazkariordea, Wannseeko Konferentziako kide suharrenetako bat, lehen ezagutu duguna. Stuckarten jarduera aringarriak judu-erdiei buruzkoak ziren, eta haiek antzutzea proposatu zuen. (Nurenbergeko auzitegiak, Wannseeko Konferentziako agiriak zeuzkalarik, ez zion agian sinetsi ezer ez zekiela deuseztatze-programaz, baina, haren osasun txarra gogoan harturik, behin-behineko espetxealdira zigortu zuen. Aleman desnazifikazio-auzitegi batek bostehun markoko isuna ipini zion eta «alderdiko izenezko kidea» —*Mitläufer*— izan zela adierazi zuen, Stuckart alderdiko «guardia zaharreko» kidea izan zela jakin behar zuen arren, eta SSetakoa, hura sortu eta berehala, ohorezko kide gisa). Argi dagoenez, Hitlerren bulegoetako «arintzaile» haien istorioa gerraondoan zabaldu ziren maitagarri-ipuinen ugarietako bat da, eta Eichmannen kontzientziara heldu ziren ahotsak zirelakoan bazter genitzake.

Heinrich Grüber apaiz agurgarria auzitegian agertu zenean hartu zuen garrantzi berezia kontzientziaren ahotsen gaiak. Grüber apaiz protestante bat zen, juizioan egon zen fiskalaren aleman lekuko bakarra eta ez-judu bakarra, Estatu Batuetako Michael Musmanno epaileaz gainera. (Defentsaren aldeko aleman lekukoak hasieratik geratu ziren baztertuak, zeren atxilotuak eta auziperatuak izateko arriskuan egongo baitziren Israelen, Eichmanni aplikatu zitzaion lege beraren arabera). Grüber jauna, bere printzipioengatik —ez nazionalismoagatik—, Hitlerren arerioak izan ziren eta juduen auzian beti jokamolde sendoa izan zuten talde kopuruz txikia eta politikoki garrantzirik gabekoko kidea izan zen. Lekuko bikaina izango zela ematen zuen, Eichmann behin baino gehiagotan aritu baitzen harekin negozioaziotan, eta haren agertze hutsak halako txundimen bat sortu zuen auzitegian. Zoritxarrez, aski lekukotasun lausoa eman zuen;

ez zen gogoratzen, hainbeste urteren ondoren, noiz hitz egin zuen Eichmannekin, edo, eta hau garrantzitsuagoa da, zertaz hitz egin zuen. Ondo gogoan zeuzkan gauza bakarrak ziren nola behin ogi legamigabea eskatu zion Eichmanni Pazko juduan Hungariara bidaltzeko, eta nola gerra-garaian Suitzara joan zen beste behin, bere adiskide kristauei egoeraren larritasunaren berri ematera eta emigraziorako aukerak zabaltzeko eskatzera. (Negoziazio haiek Azken Soluzioa abian jarri baino lehenago egin bide ziren, emigrazioa erabat debekatzen zuen Himmlerren deketuaren garaian izan baitzen; segur aski, Errusiako inbasioaren aurretik gertatu zen). Lortu zuen Grüber jaunak bere ogi legamigabea, eta arazorik gabe egin zuen Suitzako joan-etorria. Arazoak geroago etorri zitzaizkion, deportazioak hasiak zirenean. Grüberrek eta haren apaiz protestanteen taldeak, hasieran, «Lehen Mundu Gerran zaurituak izan zirenen eta goi-mailako ohore-dominak eman zitzaizkien alde, zaharren alde eta Lehen Mundu Gerran hildakoen alargunen alde» esku hartu zuten huts-hutsik. Kategoria haiek naziek berek hasieran salbuetsi zituzten berberak ziren; une hartan, ordea, egiten ari zena «gobernuaren politikaren kontra joatea» zela esan zioten Grüberri, baina ez zitzaion hala ere okerrik gertatu. Alabaina, handik gutxira, guztiz gauza izugarri bat egin zuen Grüber jaunak: Gurseko kontzentrazio-esparrura joaten saiatu zen, Frantziako ekialdera; hara eramanez zituen Vichyko Frantziak, aleman judu iheslariekin batera, zazpi mila eta bostehun bat judu, Baden-goak eta Saarpfalz-ekoak, Eichmannek 1940ko udazkenean aleman-frantses mugatik ezkutuan eramanez zituenak, eta haiek, Grüberren informazioaren arabera, Poloniara deportaturiko juduak berak baino okerrago ere omen zeuden. Saio haren emaitza izan zen Grüber atxilotu eta kontzentrazio-esparru batean espetxeratu zutela, aurrena Sachsenhausen-en eta gero Dachau-n. (Antzeko gauza gertatu zitzaion Berlingo Katedralako Bernard Lichtenberg apaiz katolikoari; judu guztien alde, izan bataiatuak edo bataiatugabeak, jendaurrean otoitz egiteaz gainera —eta hori askoz ere arriskitsuagoa zen «kasu berezien» alde esku hartzea baino—, juduei Ekialderako bidaian laguntzen uzteko ere eskatu zuen. Kontzentrazio-esparru baterako bidean hil zen).

«Beste Alemania» baten existentziaren lekukotasuna emateaz aparte, Grüber jaunak ez zion ekarpen handirik egin juizioaren esanahi legeko edo historikoari. Eichmanni buruzko aurreiritzi mordo bat zuen —«izotz-puska» bat bezalakoa zen, «marmola» bezalakoa,

Landsknechtsnatur bat, «txirrindulari» bat (nagusien aurrean makurtzen den eta mendekoak ostikoka darabiltzanarentzat erabiltzen den aleman esapidea)—; argi geratu zen ez zela batere psikologo ona, eta, gainera, «txirrindulari» akusazioa gezurtatua geratu zen, hainbat lekukok esan baitzuten Eichmann gizon zintzoa zela bere mendekoekin. Nolanahi ere, juizio-agirietatik baztertuko ziren interpretazioak eta ondorioak ziren haiek, baina epaiarentzako bidea aurkitu zuten Jerusalem. Haiek gabe, Grüber jaunaren lekukotasuna baliagarria izan zitekeen defentsarentzat, zeren Eichmannek ez baitzion inoiz Grüberri erantzun zuzenik eman; berriz etortzeko esaten zion beti, berak aginduak eskatu behar baitzituen. Are garrantzitsuagoa, Servatius doktoreak, behingoz iniziatiba hartuta, guztiz bidezkoa zen galdera bat egin zion: «Saiatu al zinen Eichmannen ganean eragiten? Saiatu al zinen, elizgizon gisa, haren sentimenduei eragiten, hura aholkatzen, jokamolde hura moraltasunaren kontrakoa zela esaten?». Elizgizon guztiz ausart hark, jakina, ez zuen halakorik batere egin, eta haren erantzunak lotsagarriak izan ziren arrunt. «Egintzak hitzak baino eraginkorragoak» direla esan zuen, eta «hitzak alferrekoak» izango zirela; klixek erabiliz mintzatu zen, egoeraren errealitatearekin zerikusirik batere ez zutenak. Izan ere, egoera hartan hitzak egintzak izango ziren, eta «hitzak alferrekoak» ote ziren ikustea zen beharbada elizgizon baten betebeharra.

Servatius doktorearen galdera baino bidezkoagoa izan zen Eichmannek gertaera hari buruz bere azken deklarazioan esan zuena: «Ez zen inor nigana etorri», errepikatu zuen, «nire eginbeharrak betetzerakoanegin nuen ezerengatik erantzuki egitera. Grüber Artzainak ere ez du esan halakorik egin zuenik». Eta erantsi zuen: «Nigana etorri zen, jendearen sufrimendua arintzeko eskatuz, baina ez zuen ezer esan nire eginbeharrak betetzearen beraren kontra». Grüberren beraren lekukotasuna gogoan hartuta, badirudi «sufrimendua arindu» nahian baino areago, salbuespenen bila zebilela, naziek lehendik finkaturiko kategorien arabera. Kategoria haiek hasiera-hasieratik onartu zituzten aleman juduek, batere protestarik gabe. Eta kategoria pribilegiadunak onartzea —aleman juduak poloniar juduen aurrez aurre, gerrako beteranoak eta judu dominadunak judu arrunten aurrez aurre, arbasoak jatorriz alemanak zituzten familiak herritartasuna berriki hartutako hiritarren aurrez aurre, etab.— izan zen gizarte judu errespetagarriaren hondamen moralaren hasiera. (Gai hauek gaur egun sarritan ikusten dira giza nolakotasunaren lege berezi bat balego bezala, hondamendiaren

aurrean jende oro bere duintasuna galtzera bultzatzen duena; baina frantses judu gerrako beteranoen jarrera gogora genezake: gobernuak abantaila berberak eskaini zizkielarik, honako hau adierazi zuten: «Hotsandiz adierazten dugu uko egiten diegula militar-ohi gisa dugun estatusetik etor daitekeen salbuespenezko abantaila orori» [*American Jewish Yearbook*, 1945]). Esan beharrik ere ez dago, bereizkuntza haiek ez zituzten naziek sekula benetan hartu, haientzat judua judua baitzen, baina kategoria-bereizkuntzek bukaera-bukaeraraino bete zuten halako eginkizun bat, aleman biztanleek sumatzen zuten deserosotasuna arintzen lagundu baitzuten: poloniar juduak bakarrik deportatzen zituzten, soldadutza egin nahi ez zuen jendea bakarrik, eta abar. Begiak itxi nahi ez zituztenentzat, hasieratik behar zuen argi egon nola «usadio orokorra zen halako salbuespen batzuk onartzea, arau nagusiari errazago eusteko xedeaz» (Louis de Jong-en hitzak dira, «Juduak eta ez-juduak naziek okupaturiko Holandan» izeneko artikulu argigarri batean argitaratuak).

Moralaren aldetik okerreña zen kasu jakin batentzat «salbuespena» eskatzen zuten guztiek, kategoria pribilegiadunak onartuz, inplizituki, araua onartzen zutela, baina puntu horretaz, nonbait, ez ziren sekula ohartu «gizon zintzo» haiek, juduak nahiz jentilak, lehentasunezko tratua eska zitekeen «kasu bereziak» bideratu nahian zihardutenak. Zenbateraino onartu zituzten, baita biktima juduek berek ere, Azken Soluzioaren printzipioak, ez da agian inon argiago ageri Kastner Txostena izenekoan baino (alemanez eskura daiteke, *Der Kastner-Bericht über Eichmanns Menschenhandel in Ungarn*, 1961). Gerraren amaieraren ondoren ere, Kastner harro zegoen «judu gailenak» salbatzen izan zuen arrakastarengatik. Kategoria hura naziek sortu zuten ofizialki 1942an, eta Kastnerren ikusmoldean ere bistako gauza zen judu famatu batek eskubide gehiago zuela bizitzeko judu arrunt batek baino; halako «erantzukizunak» hartzeak —naziei jende «famatu» masa izengabetik bereizten laguntzea, horixe besterik ez baitzen—, «heriotzari aurre egiteak baino adore handiagoa» behar zuen. Baina baldin «kasu bereziak» eskatzen zituzten juduak eta jentilak beren nahigabeko konplizitateaz konturatzen ez baziren, arauaren aitortpen inplizitu horretaz, kasu ez-berezi guztientzat heriotza zen hartaz, hilketaren eginkizunean aritzen ziren guztientzat, berriz, ageri-ageriko gauza behar zuen horrek izan. Sentitu behar izan zuten, gutxienez, salbuespenak egiteko eskatzen zietelarik, eta inoiz

salbuespen horiek emanda eskatzaileen esker ona eskuratzen zutelarik, etsaiei sinetsarazi zietela legezkoa zela egiten ari zirena.

Are gehiago, Grüber jaunak eta Jerusalemeko auzitegiak huts handi bat egin zuten, pentsatuz salbuespenen eskaerak erregimenaren etsaien artetik baizik ez zirela sortzen. Aitzitik, Heydrichék Wannseeko Konferentzian ageriki esan zuen bezala, alde guztietatik heldutako eskaera ugarien ondorioz antolatu zen Theresienstadt kategoria pribilegiodunentzako ghetto baten moduan. Atzerriko bisitarientzako erakuslekua bihurtuko zen gero, kanpoko mundua engainatzeko balio izan zuena, baina ez zen hura izan ghetto haren sorburua. «Paradisu» hartan ere —«beste esparruen ondoan, eguna eta gaua bezain desberdina», Eichmannek ondo esan zuen bezala—, behar-beharrezkoa zen eta erregulartasunez gertatzen zen ohiko urritze-prozesu beldurgarria, inoiz ez baitzen aski lekuri izaten pribilegiodun guztientzat; hala, Ernst Kaltenbrunner RSHAko buruak emandako araubide batetik dakigun bezala, «ardura berezia izan zen kanpoko munduan loturak eta harreman garrantzitsuak zeuzkaten juduak ez deportatzeko». Beste hitzetan, etengabe sakrifikatzen zituzten judu ez hain «gailenak», Ekialdean desagertuz gero, galdera desatseginak eragingo zituzten beste haien alde. «Kanpoko munduko loturak» ez ziren derrigor Alemaniatic kanpo bizi; Himmlerren arabera, «laurogei milioi aleman zintzo ziren, eta denek zuten nork bere judu zintzoa. Argi zegoen, «besteak zerriak dira, baina judu jakin hau lehen mailako judua da» (Hilberg). Hitlerrek berak, diotenez, hirurehun eta berrogei «lehen mailako judu» ezagutzen omen zituen, aleman estatusera igo zituenak edo erdi-juduen pribilegioak eman zizkienak. Milaka judu-erdi salbuetsi zituzten debeku guztietatik, eta horrek azal dezake zergatik zuten hain postu gorena Heydrichék SSetan eta Erhard Milch *Generalfeldmarschall*ak Göring-en Aire Armadan, gauza jakina zelarik Heydrich eta Milch erdi-juduak zirela. (Gerrako kriminalik handienen artean, bi besterik ez ziren heriotzaren aurrean damutu: Heydrich, txekiar abertzaleek eragindako zaurien ondorioz hiltzeko behar izan zituen bederatzi egunetan, eta Hans Frank, Nurenbergeko heriotza-gelan; aztoragarria da, aise sortzen baita Heydrich azken unean gizakiak erail izanaz damutu ez zelako susmoa, bere herriari traizioa egin izanaz baizik). Judu «gailenen» aldeko esku-hartzeek, jende «gailenetik» zetozenean, arrakasta izaten zuten askotan. Hala, Sven Hedin-ek, Hitlerren miresle sutsuenetako batek, geografialari

ezagun baten alde esku hartu zuen, Bonngo Philippsohn irakaslea bera, «Theresienstadten duintasunik gabeko egoeran bizi baitzen»; Hitlerri bidalitako gutun batean, Hedinek mehatxu egiten zion, «bere Alemaniarekiko jarrera Philippsohnen patuaren mende zegoela» esanez, eta, era horretan (H. G. Adler-en Theresienstadti buruzko liburuaren arabera) laster eman zizkioten gela hobeak Philippsohn jaunari.

Alemanian, gaur egun, ez da oraindik judu «gailenen» nozioa ahaztu. Beteranoak eta beste talde pribilegiadunak ez dira dagoeneko aipatzen, baina judu «famatuen» patua deitoratzen da gainerako guztien gainetik. Pertsona bakan batzuk baino gehiago dira, elite kulturalaren artekoak bereziki, jendaurrean deitoratzen dutenak Alemaniak Einstein egotzi izana, konturatu gabe askoz ere krimen handiagoa zela aldameneko etxeko Hans Cohn txikia hiltzea, nahiz eta jeinua izan ez.

VIII: HIRITAR LEGE-ERRESPETATZAILE BATEN EGINKIZUNAK

Hala, bada, Eichmannek aukera franko izan zuen Pontzio Pilato bezala sentitzeko. Gero, hilabeteak eta urteak igaro ahala, ezertxo ere sentitzeko premia galdu zuen. Halaxe zeuden gauzak, halakoxea zen Alemaniako lege berria, Führerraren aginduetan oinarritzen zena; Eichmannek, zernahi eginkizun betetzen zuela, bere ikuspuntutik, legea errespetatzen zuen hiritar baten moduan betetzen zuen beti. Egin behar zituenak egiten zituen, poliziari eta epaileei behin eta berriz esan zien bezala; aginduak obeditu ez ezik, legea ere obeditzen zuen. Eichmannek bazuen halako susmo bat bereizketa hura garrantzizkoa izan zitekeela, baina ez defentsak, ez epaileek, ez zioten haren gaineko galderarik egin. Ideia zaharkitu haiek, «gorenako aginduak» eta «estatuaren egintzak», behin eta berriz baliatu ziren juizioan; osorik gidatu zuten Nurenbergeko juizioetan gai hauei buruzko eztabaida, arrazoi bakar batengatik, eta hura zen guztiz aurrekaririk gabeak izan zirenak, haiekin batera desagerturiko aurrekari eta estandarren arabera epai zitezkeelako irudipena sorrarazten zutelako. Eichmann, adimen-dohain aski apaleko gizona izanik, azkeneko pertsona zen areto hartan nozio horiek auzitan jarri eta berriak sor zitzakeela espero zitekeena. Haren ustez, legea errespetatzen zuen herritar batek egin beharrekoak egiteaz gainera, beti aginduak obedituz jardun zuenez gero —ondo «estalia» egoteko arduraz beti—, guztiz nahastu zen, eta, azkenean, batean esanekotasun itsuaren alde onak —edo «gorpuen esanekotasuna», *Kadavergehorsam*, berak esan ohi zuen bezala— eta bestean harexen alde txarrak azpimarratzen zituen.

Poliziaren galdeketa, Eichmannek halako batean adierazi zuen bizitza osoan Kanten agindu moralei eta bereziki Kanten betebeharraren definizioari jarraituz bizi izan zela, eta orduantxe erakutsi zuen nozio lauso baten aurreneko zantzua, hots, bazela kontu hartan guztian izatez eta asmoz argi eta garbi kriminalak diren

aginduak bete behar dituen soldaduaren auzia baino zer bait gehiago. Gauza ezin lotsagarriagoa zen, eta orobat zen ulertezina, zeren Kanten filosofia morala estu-estu lotua baitago esanekotasun itsua alboratzen duen gizonaren epaitzeko ahalmenarekin. Galdeketa egiten zuen poliziak ez zion hariari heldu, baina Raveh epaileak, Eichmann Kanten izena bere krimenekin lotuta aipatzera ausartu zelako jakin-minez edo haserre, akusatuari galderak egitea erabaki zuen. Eta, guztion harrimenerako, agindu kategorikoaren definizio zuzen samarra eman zuen Eichmannek: «Kanti buruzko ohar horrekin esan nahi nuen neure borondatearen printzipioek halakoak izan behar dutela beti, non lege orokorren printzipio bihurtzeko gai izan behar baitute» (baina hori ez da lapurretaren edo erailketaren kasua, adibidez, lapurrak eta eraileak ez baitute bizi nahi, ustez, besteri berari lapurtzeko edo bera erailtzeko eskubidea emango liekeen lege-sistema baten azpian). Galdera gehiago egin zitzaionalarik, Kanten *Arrazoi praktikoaren kritika* irakurri zuela erantsi zuen Eichmannek. Eta Azken Soluzioa bideratzeko ardura eman zioten unetik bertatik konturatu omen zen ez zela gehiago Kanten printzipioen arabera bizi izango, bazekiela hori, eta bere burua kontsolatu omen zuen pentsatuz ez zela jadanik «bere egintzen jabea», ez zela kapaz «ezer ere aldatzeko». Juizioan ez zuen esan, ordea, «estatuak legeztaturiko krimenen garai» hartan, berak esaten zuen bezala, Kanten formula alboratu ez ezik, jadanik ezin baitzen aplikatu, aldatu egin zuela, ondoko zentzu honetan: joka ezazu zeure egintzen printzipioa herrialdeko legelariaren edo legearen berbera balitz bezala, edo, Eichmannek ezagut zezakeen Hans Franken «Hirugarren Reicheko agindu kategorikoak» zioen bezala: «Joka ezazu Führerrak, zure egintzaren berri jakinez gero, ontzat emango lukeen moduan» (*Die Technik des Staates*, 1942, 15-16 or.). Kantek, egia esatera, ez zuen inoiz horrelako gauzak esateko asmorik izan; aitzitik, harentzat gizonak oro legelariak dira jokatzeko hasten diren unean bertan: gizonak bere «arrazoi praktikoa» erabiliz aurkitzen ditu legearen printzipioak izan daitezkeenak eta izan beharko luketenak. Baina egia da, bestalde, Eichmannen nahasketa oharkabea bat datorrela berak «gizon arruntaren etxeko erabilerarako» deitzen zion Kanten bertsioarekin. Etxe barneko erabilera horretan, Kanten espiritutik geratzen dena da gizonak legea obeditu baino gehiago ere egin behar duela, esanekotasunaren betekizun hutsa baino harantzago behar duela joan, eta legearen atzean dagoen printzipioarekin behar duela bere borondatea identifikatu,

hots, legea sortzen den iturburuarekin. Kanten filosofian, iturburu hori arrazoi praktikoa da, eta Eichmannen etxe barnerako bertsioan, berriz, Führerraren borondatea. Azken Soluzioaren aplikazioaren zehaztasun arretatsu beldurgarriaren parte handi bat —behatzaileari normalean aleman gauza tipikoa iruditzen zaiona, edo, bestela, burokrata biribila denari berez dagokion gauza— garai hartan Alemanian oso arrunta zen nozio zelebren batean sumatzen da, eta hura zen legea errespetatzeak ez duela bakarrik legeak obeditzea esan nahi; berebat nahi du esan obeditzen diren legeen legeak bailitzan behar duela batek jokatu. Hortik dator eginbeharrak betetze hutsa baino harantzago joan beharra dagoelako ustea.

Edonolakoa ere zela Kanten garrantzia Alemaniako «gizon arruntaren» pentsamoldean, dudarik txikiena ere ez dago gauza batean behintzat jarraitu ziela Eichmannek Kanten aginduei: lege bat lege bat zen, ezin zitekeen salbuespenik izan. Jerusalem, Eichmannek bi salbuespen egin zituela onartu zuen, «laurogei milioi alemanek» zeinek «bere judu zintzoa» zeukan garai hartan: lehengusu erdi-judu bati lagundu zion, eta baita Vienako bikote judu bati ere, zeinaren alde Eichmannen osabak esku hartu baitzuen. Funsgabetasun hark Jerusalem bertan ere deseroso sentiarazten zuen, eta birgalderak egiterakoan hari buruz galdetu ziotenean, barkamenezko doinua erabili zuen argi eta garbi: «bere bekatuak aitortu» omen zizkien nagusiei. Epailen begietan, beste ezerk baino kalte handiagoa egin zion Eichmanni bere eginkizun hilgarrien aldera zuen jarrera zurrin horrek, eta ulertzekoa zen, baina Eichmannen begietan, berriz, horrexek berak justifikatzen zuen, horrexek isildu zuen behin izan zezakeen kontzientzia-apurra. Salbuespenik ez: huraxe zen beti bere «joeren» kontra jokatu zuelako frogak, izan joera haiek sentimentalak edo interesak inspiratuak; huraxe zen beti bere «eginbeharra» bete zuelako frogak.

«Eginbeharrak» betetzeak bere buruzagiekiko gatazka betera eramane zuen azkenean Eichmann. Gerrako azken urtean, Wannseeko Konferentzia egin eta bi urte pasa geroago, izan zuen Eichmannek kontzientziako azkeneko krisia. Porrota hurbildu ahala, bere mendeko gizonak gero eta salbuespen gehiago eskatzen zioten, eta, azkenean, baita Azken Soluzioa geldiarazteko ere. Une hartantxe desagertu ziren Eichmannen ikarak, eta orduan hasi zen, beste behin, gauzak

bere kabuz egiten: Budapesteko juduak Austriako mugara oinez eramateko plana antolatu zuen adibidez, aliatuen bonbek garraio-sistema lur jota utzi zutenean. 1944ko udazkena zen, eta Eichmannek bazekien Himmlerrek Auschwitzeko deuseztatze-tresnak eraisteko agindu zuela. Garai hartantxe izan zen Eichmannek Himmlerrekin izan zituen solasaldi pertsonal bakanetako bat; solasaldi hartan, Himmlerrek oihu egin zion nonbait, «orain arte juduak akabatzen aritu zara, baina, hemendik aurrera, eta beste agindurik ez badago, juduak zaindu egin beharko dituzu, haien neskamea bazina bezala beharko duzu jokatu. Gogorazten dizut nik sortu nuela RSHA 1933an, ez Müller *Gruppenfuhrer*ak ez zuk; hemen nik ematen ditut aginduak!». Lekuko bakarra zegoen hitz horiek berresteko, Kurt Becher jauna, fidagarritasun eskasekoa; Eichmannek ukatu egin zuen Himmlerrek garrasi egin ziola, baina solasaldia izan zenik ez zuen ukatu. Himmlerrek ezin izan zituen hitz horiek esan, bazekien RSHA 1939an sortua zela, ez 1933an, eta ez zuen Himmlerrek sortu, Heydrichek baizik, haren onespenearekin. Hala ere, antzeko zerbait gertatu bide zen, garai hartan Himmler juduak ondo erabiltzeko aginduak ematen ari baitzen —haren «inbertsiorik hoberena» ziren—, eta solasaldi hark oso esperientzia gogorra izan behar zuen Eichmannentzat.

Eichmannen azkeneko kontzientzia-krisia Hungariako betekizunekin hasi zen, 1944ko martxoan, Armada Gorria Karpato mendietan barna Hungariako muga aldera zetorrenean. Hungaria 1941ean sartu zen gerran, Hitlerren aldamenean, inguruko herrialdeetako lurralde batzuk, Eslovakia, Errumania eta Jugoslaviakoak, beretzeko xedeaz huts-hutsik. Hungariako gobernu antisemita zen lehendik ere, eta une hartan lurralde eskuratu berrietako judu estatugabe guztiak hasi zen deportatzen. (Herrialde gehienetan, pertsona estatugabeekin hasten ziren juduen aurkako ekimenak). Deportazio haiek Azken Soluziotik kanpo zeuden, eta, izan ere, ez ziren ondo egokitzen Europa «mendebaldetik ekialdera orrazturik» utziko zuten eta orduan prestatzen ari ziren planetan, eta, hortaz, Hungariak ez zuen lehentasunik ekimenen hurrenkeran. Hungariar poliziak Errusiako parterik hurbilenera eramane zituen judu estatugabeak, eta bertako okupazioko agintariek protesta egin zuten juduak iristen zitzaizkielako; hungariarrek atzera ekarri zituzten berriz gizon osasuntsuak, milaka batzuk, eta besteak hungariar osteek fusilatu zituzten, aleman polizia-osteen gidaritzapean. Horthy almiranteak, Hungariako estatuburu

faxistak, ez zuen urrutirago joan izan nahi, nolanahi ere —segur aski, Mussoliniren eta Italiako faxismoaren eragin bridatzailearen ondorioz—, eta hurrengo urteetan, Hungaria, Italiaren antzera, babeslekua izan zen juduentzat, eta hara ihes egin zuten Poloniako eta Eslovakiako iheslari batzuek ere. Lurraldeen anexoak eta iheslarien isuriak gogotik handitu zuten Hungariako juduen kopurua; bostehun mila ziren gerra baino lehen, eta zortziehun mila inguru 1944an, Eichmann bertara heldu zenean.

Orain dakigunez, Hungariak eskuratu berri zituen hirurehun mila judu haien segurtasunaren arrazoia da, hungariarrek haiek babestu nahi izatea baino areago, alemanek ez zutela nahi izan kopuru mugatu batentzako ekimen berezi bat abian jarri. 1942an, Alemaniako Atzerriko Gaietako Ministerioaren presiopean (hutsik egin gabe, Atzerriko Gaietako Ministerioak beti agertzen zien Alemaniaren aliatuei, gerra irabazten baino areago, alemanei «juduen auzia konpontzen» laguntzean zetzala bere uste onaren giltzarria), Hungariak iheslari judu guztiak alemanei ematea eskaini zuen. Atzerriko Gaietako Ministerioak urrats egokitzen hartu nahi izan zuen hura, baina Eichmannek eragozpen bat jarri zuen: arrazoi teknikoengatik, haren ustez «hobe zen ekimen hura atzeratzea, harik eta Hungaria prest egon arte hungariar juduak ere emateko»; garestiagoa izango zen sail bakar batentzat «ebakuazioaren makineria osoa martxan jartzea», eta «Hungariako juduen arazoaren konponbidean batere aurreramendurik egin gabe» gainera. Baina 1944an, Hungaria «prest» zegoen, martxoaren hemeretziaren Aleman Armadaren bi dibisiok herrialdea okupatu baitzuten. Haiekin heldu zen Reicheko ahalguztiduna, Edmund Veessenmayer SS *Standartenführer*a, Himmlerren Atzerriko Arazoetako Ministerioko ordezkaria, eta Otto Winkelmann SS *Obergruppenführer*a, SSetako goi-mailako agintaria eta poliziako buruzagia, eta, hortaz, Himmlerren mendeko zuzena. Eichmann zen Hungariara ailegatu zen SSetako hirugarren ofiziala, juduen ebakuazioko eta deportazioko espezialista, RSHako Müller eta Kaltenbrunnerren agindupean zegoena. Hitlerrek berak zalantzarik ez zuen utzi hiru gizon haiek Hungariara heldu izanak zeukan esanahiaz: elkarriketa famatu batean, herrialdearen okupazioa baino lehenago, Horthyri esan omen zion «Hungariak ez ditu oraindik juduen auzia konpontzeko behar diren urratsak egin», eta «ez zuela utzi juduak sarraskitzen» leporatu omen zion (Hilberg).

Argi zegoen zertan zetzan Eichmannen zeregina. Haren bulego osoa eraman zuten Budapestera (haren karrerari zegokionez, «beheraldi» bat zen hura), «beharrezko urrats» guztiak hartzeaz ardura zedin. Eichmannek ez zuen gertatu behar zuenaren susmorik izan; haren ikararik handiena hungariarren erresistentziari zegokion, sortuz gero ezingo baitzion aurre egin, agintea falta zuelarik eta bertako egoeraren berri ez zekieliarik. Ikara haiek funsgabeak gertatu ziren ordea. Hungariar polizia desiratzen zegoen behar zen guztia egiteko, eta Barne Arazoetako Hungariako Ministerioko auzi politikoen (juduen) ardura zuen Estatuko idazkari berria, Lászlo Endre, «ondo jantzia zegoen juduen arazoan»; Eichmannen adiskide mina egin zen, eta elkarrekin ematen zuten askotan denbora librea. «Amets batean bezala» joan zen dena, Eichmannek pasarte hura gogoratzen zuenean behin eta berriz esaten zuen bezala; inolako eragozpenik ez zen izan. Baldin, jakina, ez bazaio eragozpen deitzen Eichmannen aginduen eta haren adiskide berriaren arteko zenbait diferentzia txikiri; adibidez, Armada Gorria Ekialdetik hurbiltzen ari zelako inondik ere, Eichmannen aginduek ziotela «ekialdetik mendebaldera orraztu» behar zela herrialdea, eta horrek esan nahi zuen Budapesteko juduak ez zirela aurreneko asteetan edo hilabeteetan ebakuatuko: hungariarrak biziki atsekabetu zituen gauza, hiriburua izatea nahi baitzuten haiek *judenrein* geratzen aurrenekoa. (Eichmannen «ametsa» ezin sinetsizko amesgaiztoa izan zen juduentzat: beste inon ez zen halako denbora laburrean hainbeste jende deportatu eta ezereztatu. Bi hilabete eskasean, 147 tren, kargabagoi zigitatueta 434.351 pertsona zeramatzatela, ehun lagun bagoiko, atera ziren Hungariatik, eta Auschwitzeko gas-ganberak ozta-ozta moldatu ziren jendetza harekin guztiarekin).

Eragozpenak beste leku batetik sortu ziren. Ez gizon bakar bati, hiru gizoni eman zitzaien «juduen arazoa konpontzen» laguntzeko agindua; talde banatatik zetozen, eta aginte-kate diferentekoak ziren. Teknikoki, Winkelmann Eichmannen gainekoa zen, baina goi-mailako SSak eta polizia-buruzagiak ez zeuden RSHAren agintepean, eta Eichmann RSHAkoa zen. Eta Veessenmayer, Atzerriko Arazoetako Ministeriokoa, ez zen ez batekoa ez bestekoa. Nolanahi ere, Eichmannek ez zuen beste bien agindurik hartu nahi izan, eta ez zegoen batere pozik haien ondoan. Baina arazorik okerrean laugarren gizon batek ekarri zuen, zeinari Himmlerrek «eginkizun berezi» baten ardura eman baitzion, artean judu kopuru handi samarra ez ezik, egoera

ekonomiko onean zeuden juduak ere bazeuzkan Europako herrialde bakarrean. (Hungarian ehun eta hamar mila saltoki eta industria zeuden guztira, eta haietatik berrogei mila, dirudienez, juduen eskuetan zeuden). Gizon hura Kurt Becher zen, *Obersturmbannführer* aurrena, *Standartenführer* gero.

Becher, Eichmannen aspaldiko etsai bat, gaur egun merkatari aberatsa Bremen-en, defentsaren lekuko bezala egon zen Jerusalem, harritzekoa badirudi ere. Ezin izan zen Jerusalemera joan, bistakoa denez, eta Alemanian, bere etxean, egin zioten galdeketa. Haren lekukotasuna ezin izan zen onartu, askoz ere lehenagotik erakutsi baitzizkioten zinpean erantzun behar zituen galderak. Lastima handia izan zen Eichmann eta Becher elkarren aurrez aurre ez jartzea, eta ez legearen alorreko arrazoiengatik bakarrik. Hala egin balitz, «irudi osoaren» beste partea agertuko zen, eta hura, baita legeen aldetik ere, urruti zegoen garrantzirik gabea izatetik. Becher, berak esandakoaren arabera, «1932az gero ez ziolako inoiz utzi zaldiz ibiltzeari» sartu zen SSetan. Duela hogeita hamar urte, Europako goi-mailako klaseak baizik ez baitziren zaldi-kirolean ibiltzen. 1934an, Becher SSetako zalditeria-erregimentuan sartzeko konbentzitu zuen entrenatzaileak, huraxe egin behar baitzuen une hartan «mugimenduan» sartu eta aldi berean bere gizarte-maila zaindu nahi zuen gizon batek. (Ez zen sekula aipatu Becherrek bere lekukotasunean zaldiketa aipatzeko izan zezakeen arrazoi posible bat: Nurenbergeko Auzitegiak erakunde kriminalen zerrendatik alboratu egin zuen *Reiter-SS* zeritzana). Gerratearen hasieran, Becherrek frontean jardun zuen, ez armadako kide gisa, SS Armatuetako kide gisa baizik, zeinean armadako komandanteekiko harremanen arduraduna baitzen. Laster utziko zuen frontea SSetako langile-saileko zaldi-erosle nagusia izateko; eginkizun hartan orduan eskura zitezkeen ia domina guztiak eskuratu zituen Becherrek.

SSentzako hogeit mila zaldi erosteko xedeaz bidali zutela Hungariara adierazi zuen Becherrek; baina ez dirudi hala izan zenik, zeren, bertara heldu orduko, negozioazio oparoak egiten hasi baitzen juduen negozio handien buruekin. Himmlerrekin primeran moldatzen zen, eta nahi zuen guztietan ikus zezakeen. Becherren «eginkizun berezia» nahiko argia zen. Juduen negozio nagusien kontrola lortu behar zuen, Hungariako gobernuaren ezkutuan, eta, ordainetan, herrialdetik ateratzeko baimena ematen zien jabeei, dibisa kopuru eder batekin

batera. Tratu nagusia Manfred Weiss altzairu-enpresa taldearekin egin zuen. Enpresa erraldoi bat zen, hogeita hamar mila langile zituen eta denetik ekoizten zuena, hegazkin, kamioi eta txirringak, poteak, orratzak eta jostorratzak. Negoziazio haien ondorioz, Weiss familiako berrogeita bost kidek Portugalera emigratu zuten, eta Becher jaunak hartu zuen enpresaren zuzendaritza. Eichmann, *Schweinerei* haren berri izan zuenean, amorratzen jarri zen: tratu hark mehatxupean jartzen zituen berak hungariarrekin zituen harreman onak, zeren hungariarrek, jakina, beren lurretan konfiskaturiko juduen jabetzak eskuratzea espero baitzuten. Eichmannek bazuen zertan haserretu: tratu haiek nazien ohiko jardunbideen kontrakoak ziren, naziak aski eskuzabalak izaten baitziren. Alemanek, besteren herrian juduen auzia konpontzen laguntzeagatik, ez zuten juduen jabetzaren parterik nahi izaten; haien deportazioaren eta deuseztatzearen kostuak baizik ez zituzten eskatzen. Kostu haiek ez ziren inondik ere berdinak izaten toki guztietan: eslovakiarrek hirurehun-bostehun Reichsmark ordaindu behar zuten juduko, kroaziarrek hogeita hamar besterik ez, frantsesek zazpiehun, eta belgikarrek berrehun eta berrogeita hamar. (Dirudienez, inork ez zuen ezer ordaindu, kroaziarrek salbu). Hungarian, gerraren azkenaldi hartan, alemanek salgaietan ordaintzea eskatu zuten: janari-garraialdiak Reicherako, judu deportatuek kontsumituko zuketen janariaren araberrako kopuruetan.

Weisstarren kontua hasiera besterik ez zen izan, eta gauzak gero eta okerrago zihoazen, Eichmannen ikuspuntutik. Becher berez zen negozio-gizona, eta Eichmannek antolamendu- eta administrazio-lan ikaragarriak baizik ikusten ez zituen lekuan, hark dirua egiteko aukera ia mugagabeak ikusten zituen. Bidea galarazten zion gauza bakarra Eichmann bezalako mendeko izaki adimen-laburrak ziren, beren lana zintzoki hartzen zuten haiek. Becher *Obersturmbannführer*aren proiektuek laster eraman zuten Rudolf Kastner doktorearen erreskate-ahaleginetan esku hartzera. (Kastner, geroago, Nurenbergen, Becherrek beraren alde emandako lekukotasunari esker geratu zen libre. Aspaldiko sionista izanik, Kastner Israelera joan zen gerraren ondoren, eta han oso posizio ona izan zuen, harik eta kazetari batek haren SSekiko lankidetzari buruzko istorio bat argitaratu zuen arte; Kastnerrek, libeloa zela-eta, kazetaria auzitara eraman zuen. Nurenbergen eman zuen lekukotasuna oso kontrakoa gertatu zitzaion, eta kasua Jerusalemeko Auzitegira igaro zenean, Halevi epaileak, Eichmannen juizioko hiru epaileetako batek,

«arima deabruari saldu ziola» esan zion Kastnerri. 1957ko martxoan, haren kasua Israeleko Auzitegi Nagusira eraman baino lehentxeago, erail egin zuten; eraileetatik, dirudienez, bat ere ez zen Hungariakoa. Auzitegian epaia baliogabetu egin zen, eta Kastner guztiz birgaitu zuten). Becherrek Kastnerren bitartez egin zituen tratuak askoz ere errazagoak izan ziren negozioetako magnateekiko negozioazio konplikatuak baino; erreskatatu beharreko judu bakoitzeko prezio bat finkatzean zezaten. Eztabaida handiak izan ziren prezioen inguruan, eta, dirudienez, hasieran Eichmannek ere parte hartu zuen eztabaida batzuetan. Espero izatekoa zenez, Eichmannen prezioa zen baxuena, berrehun dolar juduko, eta ez, jakina, judu gehiago salbatu nahi zuelako, baizik eta, besterik gabe, eskala handian pentsatzeko ohiturarik ez zuelako. Azkenean finkatu zen prezioa berrehun dolar izan ziren, eta 1.684 juduz osatutako talde bat, Kastner doktorearen familia bertan zela, Bergen-Belsen truke-esparrura abiatu zen Hungariatik, eta handik Suitzara igaro zen gero. Antzeko tratu bat zela-eta —haren bitartez Becherrek eta Himmlerrek hogei milioi suitzar franko lortzea espero zuten, American Joint Distribution Committee-k ordaintzekoa, era guztietako salgaiak erosteko—, atzera eta aurrera ibili ziren denak errusiarrek Hungaria askatu zuten arte, baina tratu hura ez zen onik atera.

Dudarik ez dago Becherren jarduerak Himmlerren onespen osoa zutela, eta «errotikako» agindu zaharren ezin kontrakoagoak gertatzen zirela, nahiz eta agindu zaharrak artean Eichmannengana heldu, haren gaineko RSHa Müller eta Kaltenbrunnerren bitartez. Eichmannen ikuspuntutik, Becherren tankerakoak ustelkeriak jotako pertsonak ziren, baina ustelkeriak ezin izan zion Eichmanni kontzientzia-krisia eragin, zeren, nahiz eta bera tentazio mota horretan erortzen den gizon klasea izan ez, urte askoan bizi behar izan zuen ordurako ustelkeriaz inguratua. Zaila da imajinatzen ez zekiela adiskidea eta mendekoa zuen *Hauptsturmführer* Dieter Wisliceny-k, 1942an, berrogeita hamar mila dolar onartu zituela, Bratislavako Juduen Laguntzarako Batzordeak emanak, Eslovakiako deportazioak atzeratzearen truke; baina 1944an, nolanahi ere, gauzak bestelakoak ziren Hungarian, ez Himmler «negozioetan» sartua zegoelako, baizik eta negozioak politika-bide ofiziala bihurtuak zirelako; ez ziren jadanik ustelkeria huts-hutsik.

Hasieran, Eichmann jokoan sartzen saiatu zen, eta arau berrien arabera jokatzek; hura izan zen «odola salgaien truke» tratu fantastiko

hartan sartu zenean —milioi bat judu aleman armada deseginarentzako hamar mila kamioiren truke—, tratu hura, inondik ere, ez baitzuen berak abian jarri. Kontu hura Jerusalemen nola azaldu zuen kontuan harturik, argi ikusten da nola justifikatu zuen bere artean: emigrazio-auzian eginkizun berri baten onura ere ekarriko zion premia militar baten gisa. Baina sekula bere artean onartu ez zuen gauza bat izan bide zen, nonahitik zetozen gero eta eragozpen handiagoen ondorioz, denbora gutxian lanik gabe gera zitekeela (eta halaxe gertatu zen, gertatu ere, hilabete batzuk geroago), baldin ez bazuen euskarriren bat lortzen ordurako zabaldua zen boterea eskuratzeko lehia gogorrean. Trukearen proiektua espero izatekoa zen porrotera heldu zenean, gauza oro har jakina zen Himmlerrek, bere zalantza etengabeak gorabehera —Hitlerrek sortzen zion ikara fisiko justifikatuak eraginak gehienbat—, Azken Soluzioa bertan behera uzteko erabakia hartu zuela, ez negozioak, ez premia militarrek, ezer ere kontuan hartu gabe, salbu eta Alemaniari bakea ekarri zion gizona izan zelakoan etorkizunean beteko zuen eginkizunaz izan zituen ilusioak. Garai hartan «adar moderatu» bat sortu zen SSetan; adar hura osatzen zuten, alde batetik, erail zitzakeen bezainbeste ez zituela erail frogatzen zuen hiltzaileak zurigarri bikaina izango zuela sinesteko bezain ergelak zirenek, eta, bestetik, «egoera normalera» itzuli beharra zegoela, eta egoera hartan dirua eta harreman onak berriz ere garrantzi handikoak izango zirela ikusteko bezain buruargiak zirenek.

Eichmann ez zen behin ere «adar moderatu» hartakoa izan, eta ez dago batere argi onartuko ote zuten ere, sartzan saiatu izan balitz. Konprometituegia egoteaz gainera, funtzionario juduekin harreman etengabeak izan zituelarik, oso gizon ezaguna zen; baina, horrez gainera, gizon primitiboegia zen goi -eta erdi-mailako «gizon prestu» heziketa oneko haienezat, zeinen kontra Eichmann arrunt erresumindua egon baitzen bukaera-bukaera arte. Kapaz zen milioika lagun heriotzara bidaltzeko, baina ez hartaz behar bezala hitz egiteko, ez bazioten zegokion kodeko «hizkuntza-araua» ematen. Jerusalemen, batere araurik gabe, libreki mintzatzen zen «hiltzeaz» eta «erailteaz», «estatuak legeztaturiko krimenez»; gauzak beren izenez deitzen zituen, defentsak ez bezala; izan ere, behin baino gehiagotan sumatu zen Servatius doktoreak, gizarte-mailari zegokionez, Eichmann baino gorago zegoela sentitzen zuela bere burua. (Dieter Wechtenbruch doktorea, Servatiusen laguntzailea —Carl Schmitten dizipulua—,

Jerusalemen juizioko lehenengo asteetan egon zena, gero defentsaren lekukoei galderak egitera Alemaniara joan eta abuztuko azkeneko astean berriz agertu zena, prest egoten zen beti kazetariei erantzuteko; ematen zuen gehiago txunditzen zuela Eichmannen gustu eta hezibide faltak, haren krimenek baino. «Pertsona ezdeusa» esan zuen; «ikusi egin behar, hesiak nola pasarazten dizkiogun», *wie wir das Wurstchen über die Runden bringen*. Servatiusek berak adierazi zuen, juizioa hasi baino lehen, bere bezeroaren izaera «postari arrunt batena zela»).

Himmler «moderatua» bihurtu zenean, Eichmannek, ausartu zen neurrian, sabotajea egin zien haren aginduei, ahal zueneraino, edo, gutxiena, bere hurrengo nagusiek «estaltzen» zutela iruditzen zitzaion neurriraino. Behin galdetu zion Kastnerrek Wislicenyri: «Nola ausartzen da Eichmann Himmlerren aginduei sabotajea egitera?» (kasu hartan, oinezko ibilaldiak geldiarazteko agindua zen, 1944ko udazkenean). Eta erantzuna izan zen: «Telegramaren bat erakutsiko du. Müllerrek eta Kaltenbrunnerrek estaliko zuten». Litekeena zen Eichmannek plan lausoren bat izatea Theresienstadt Armada Gorria ailegatu baino lehen suntsitzeko, nahiz eta Dieter Wislicenyren dudazko lekukotasunaren arabera bakarrik dakigun hori (Wisliceny, bukaera baino hilabete batzuk lehenago, urte batzuk lehenago agian, zurigarri bat prestatzen hasi zen beretzat, Eichmannen lepotik, Nurenbergeko auzitegian, fiskalaren lekukoa izan zelarik han; ez zion mesederik egin, Txekoslovakiara estraditatu baitzuten, eta Pragan auziperatu eta urkatu zuten, han ez baitzuen harremanik, eta diruak ez zion ezertarako balio). Beste lekuko batzuek adierazi zuten, Rolf Güntherr-ek, Eichmannen gizonetako batek, suntsitu zuen Theresienstadt, eta ba omen zen, alderantziz, Eichmannen idatzizko agindu bat, ghettoa ez ukitzeko zioena. Nolanahi ere zela, dudarik ez dago 1945eko apirilean bertan ere, nazi gehien-gehienak «moderatuak» bihurtuak zirenean, Suitzako Gurutze Gorriko Paul Dunand jaunak Theresienstadtera egin zuen bisitaldi bat baliatu zuela Eichmannek berak ez zuela Himmlerren juduenganako politika-bide berria onesten agerrarazteko.

Hala, bada, argi zegoen Eichmann gogotik ahalegindu zela beti Azken Soluzioa egiaz azkena izan zedin, eta horrelakorik ez zegoen auzitan. Galdera bakarra zen ea hori haren fanatismoaren, haren juduenganako gorroto mugagabearen erakuskaria zen; gezurra esan ote zion poliziari eta gezurrezko zina egin ote zuen juizioan,

berak aginduak obeditzen zituela beti esan zuenean. Epaileei ez zitzaien bestelako azalpenik bururatu, nahiz eta biziki saiatu ziren akusatua ulertzen, eta begiramenez tratatu zuten beti, eta bizitza osoan sekula aurkitu ez zuen gizatasun egiazko eta bikainez seguru asko. (Wechtenbruch doktoreak esan zien kazetariei Eichmannek «uste osoa zuela Landau epailearengan» —Landauk Eichmannen arazoak konpontzeko ahalmena izango balu bezala—, eta Eichmannek nolabaiteko agintepean jarduteko beti zuen premiari egotzi zion. Uste on hori, zernahitan ere oinarritzen zela, agerikoa izan zen juizio osoan, eta agian horregatik eragin zuen epaiak halako «desilusio» handia Eichmannengan; gizatasuna eta bigunkeria nahastu zituen). Epaileak ez ziren Eichmann ulertzera iritsi, eta ulertezintasun horrek hiru gizonen «zintzotasuna» erakusten bide du; gizon haiek beren ogibidearen oinarri moraletan zuten fede oso eta apur bat zaharkituaren frogia izan daiteke. Izan ere, zer izango auzi osoaren egia triste eta zeharo aztoragarria, eta, fanatismoak ez baina kontzientziak eraman zuela Eichmann gerraren azkeneko urtean jokamolde sendo hura hartzera, hiru urte lehenago, aldi labur batez, kontrako norabidean bultzatu zuen bezalaxe. Eichmannek bazekien Himmlerren aginduak Führerraren aginduen kontra-kontrakoak zirela. Hala, ez zeukan xehetasun berezirik jakin beharrik, nahiz eta xehetasun horiek babestu egingo zuten: fiskalak Auzitegi Gorenaren aurrean azpimarratu zuen bezala, Hitlerrek jakin zuenean, Kaltenbrunnerren bitartez, juduak kamioien truke aldatzeko negozioazioak abian zirela, «Himmlerren posizioa guztiz hondatua geratu zen Hitlerren begietan». Eta Himmlerrek Auschwitzeko hilketak geldiarazi baino aste batzuk lehenago, Hitlerrek, Himmlerren azken mugimenduen berri ez zekielarik, jakina, ultimum bat bidali zion Horthyri, «Budapesteko juduen kontrako neurriak segituan bideratuko zirela espero zuela [esanez], hungariar gobernuak eragindako beste atzerapenik gabe». Budapestera iritsi zenean Himmlerren hungariar juduen ebakuazioa geldiarazteko agindua, Eichmannek mehatxu egin zuen, Veessenmayerren telegrama baten arabera, «Führerraren beste erabaki bat eskatuko zuela» esanez, eta telegrama hura, epaian, «ehun lekuko ere baino kaltegarriagoa» gertatu zen.

Eichmannek galdu egin zuen *Reichsführer* SS eta aleman poliziaren buruak gidatzen zuen «adar moderatuaren» kontrako borroka. Porrotaren aurreneko seinalea 1945eko urtarrilean etorri zen, Kurt Becher, *Obersturmbannführer* zena, *Standartenführer* mailara

igo zutenean, hain zuzen ere gerra osoan Eichmannen ametsa izan zen mailara. (Eichmannek esan ohi zuena, bere sailean ez zeukala gorago igotzerik, ez zen egia osoa; IV-B-4 azpisailean geratu gabe, IV-B saileko burua izatera igo zitekeen, eta orduan automatikoki igoko zen mailaz. Egia zen, funtsean, behereneko mailetatik zetorren Eichmann bezalako jendea ez zitzaiola inoiz lotinant koronelaren mailatik gora igotzen uzten, frontean ez bazen). Hilabete hartantxe askatu zuen Armada Gorriak Hungaria, eta Eichmanni atzera berriz Berlinera deitu zioten. Han, Himmlerrek Eichmannen etsaia, Becher, *Reichssonderkommissar* izendatu zuen, hau da, kontzentrazio-esparru guztietako arduraduna, eta Eichmann «juduen auziaz» arduratzen zen bulegotik, «Elizen kontrako borroka» bideratzen zuen sail ezin hutsalagora aldatu zuten, zeinaz, gainera, ez baitzekien ezer. Eichmannen beheraldi lasterrak, gerrako azken hilabeteetan, ezin argiago agertzen du Hitlerrek arrazoi zuela, Berlingo bunkerrean, 1945eko apirilean, SSak ez zirela jadanik fidagarriak esan zuenean.

Jerusalemen, Eichmanni erakutsi zizkiotenean Hitlerri eta haren aginduei zien leialtasun izugarriaren frogak dokumentalak, hainbat aldiz saiatu zen azaltzen nola, Hirugarren Reichen, «Führerraren hitzek legean indarra duten» (*Führerworte haben Gesetzeskraft*), eta horrek esan nahi zuen, beste gauzen artean, aginduak ez zuela zertan idatziz etorri zuzenean Hitlerrengandik zetorrenean. Eichmann agertzen saiatu zen horrexegatik ez zuela inoiz Hitlerren idatzizko agindurik eskatu (ez da Azken Soluzioaren gaineko idatzizko agindurik aurkitu; segur aski, ez zen inoiz existitu), baina Himmlerren idatzizko aginduak ikusi nahi izaten zituen. Egia esatera, oso egoera zelebrea zen hura, eta oso iruzkin juridiko «jantziak» eta ugariak idatzi dira, frogatuz denak Führerraren hitzak, haren ahozko adierazpenak, zirela herrialdeko oinarritzko legea. «Legezko» ingurune horren baitan, Hitlerrek esandako hitz baten kontrakoa zen agindu oro (hitzez hitz edo espirituan), definizioz, legez kanpokoa zen. Eichmannen posizioak, hortaz, antz guztiz desatsegina zuen sarritan aipatzen den soldadu haren kasuarekin: soldadu batek, lege-inguru normal batean diharduela, zenbait agindu betetzea uko egiten dio, agindu horiek beraren legezkotasunaren ohiko ezagutza ez bezalakoak direlako, eta, hortaz, kriminalizat jotzen ditu. Gai honi buruzko literatura zabala «lege» hitzaren esanahi nahasgarrian oinarritzen da. Izan ere, testuinguru honetan, batzuetan, «lege» hitzak herrialdeko legea

esan nahi du —hau da, lege aldarrikatua, positiboa—, eta besteetan, ustez gizaki guztion bihotzean, ahots berberaz, mintzatzen den legea. Praktikoki hitz eginez, nolanahi ere, desobeditzen diren legeek —epaiak zioen bezala—, «ageriki legez kontrakoak» behar dute izan, eta «legez kontrako izateak bandera beltz baten moduan agertu behar du [haien] gainean, idatzizko abisu bat bailitzan: *debekatua!*». Eta erregimen kriminal batean, «bandera beltz» hori, bere «abisuzko ikurrarekin», «ageriki» inarrostean da normalean legezko ordena denaren gainetik —adibidez, jende errugabea ez hiltzea, zergatik eta juduak gertatu direlako—, egoera normalean delako «bandera beltza» agindu kriminal baten gainean inarrostean den bezala. Kontzientziaren ahots ezin nahasizko batera jotzeak —edo, legegileen hizkera are lausoagoan esanda, «gizatasunezko sentimendu orokor» batera jotzeak (Oppenheim-Lauterpacht, *International Law*, 1952)—, horrek esan nahi du, auzia desbideratzeaz gainera, berariaz uko egiten zaiola gure mendeko fenomeno moral, legal eta politiko nagusiari.

Egia esatera, Eichmannen egintzak ez zituen huts-hutsik Himmler une hartan agindu «kriminalak» ematen ari zela uste izateak bideratu. Bazen, inondik ere, elementu pertsonal bat, baina ez fanatismoa, «Hitlerrenganako mirespen muga eta neurririk gabea» baizik (defentsaren lekukoetako batek deskribatu zuen bezala), «kaboa [izate] Reicheko Kantzelaria» izatera heldu zen gizon harenganako erabateko mirespena. Alferrik da zer ote zen Eichmannentzat garrantzitsuagoa asmatzen aritzea, Hitlerrenganako mirespena edo, Alemania jadanik lur jota zegoenean, Hirugarren Reicheko herritar lege-errespetatzailea izaten jarraitzea. Bata eta bestea zeuden gerrako azken egunetan, Eichmann Berlinen zenean eta guztiz suminduta ikusi zuenean nola bere inguruko guztiak, aski agerian, errusiarren edo amerikarren etorrerako ari ziren prestatzen, paper faltsuak eskuratuz. Aste batzuk geroago, Eichmann bera ere gezurrezko izena hartuta hasi zen mugitzen, baina Hitler ordurako hila zen, eta «lege nagusia» ez zen ordurako existitzen; Eichmann ere, berak azpimarratu zuen bezala, ez zegoen jada zinak lotua. Izan ere, SSetako gizonek egiten zuten zina ez zen soldaduen zin militarra bezalakoa, SSak beren zinak Hitlerrekin bakarrik lotzen baitzituen, ez Alemaniarekin.

Adolf Eichmannen kontzientziaren kasua, inondik ere oso kasu zaila dena, baina ez bakarra, ezin da aleman jeneralen kasuarekin alderatu; haietako batek, Nurenbergen galdetu ziotenean, «Nola liteke

zuek denek, jeneral ohoragarriek, hiltzaile bat halako leialtasun itsuz zerbitzatzea?», erantzun zuen ez zela «soldadu baten eginkizuna beren agintari nagusia epaituz jokatzela. Hori Historiak egin behar du, eta zeruko Jainkoak». (Alfred Jodi jenerala, Nurenbergen urkatua, mintzatu zen horrela). Eichmann, jeneral hura baino askoz adimen-laburragoa eta ia batere heziketarik gabea izan arren, konturatu zen nola edo hala lege batek, ez agindu batek, bihurtu zituela denak kriminalak. Agindu baten eta Führerraren hitzaren arteko diferentzia zen azken horren balioak ez zuela ez denborazko ez lekuzko mugarik, eta horixe da legearen ezaugarri nagusia. Berebat horrexegatik, funtsean, etorri zen erregulazio eta araubide mordo hura Führerraren Azken Soluzioaren aginduaren ondoren, legeetako espezialistek eta aholkulariek idatziak denak, ez administratzaile soilek; agindu hura, agindu arruntak ez bezala, legea bailitzan landu zen. Erantsi beharrik ere ez dago kasik haien ondoriozko lege-parafernaliak, aleman pedanteriaren edo zehaztasunaren sintoma hutsa izatetik urruti, kontu guztiari legezkotasun-itxura emateko balio izan zuela, erabatekoa gainera. Nola kontzientziaren ahotsak «ez duzu hil behar» esaten diela denei emandakotzat jotzen duen herrialde zibilizatueta legeak, nahiz eta gizakiaren desirak eta joerak hilgarriak izan inoiz, hala eskatzen zuen Hitlerren lege nagusiak kontzientziaren ahotsak «Hil egin behar duzu» esan behar ziela denei, nahiz eta hilkintzen antolatzaileek ondo asko jakin jende gehienaren desira eta joera normalen kontrakoa dela erailketa. Hirugarren Reichean, galdua zuen gaizkiak jende gehienak hura ezagutzeko baliatzen duen ezaugarria: tentazioaren ezaugarria. Aleman askok eta nazi askok, segur aski gehien-gehienek, izango zuten *ez* erailtzeko, *ez* lapurtzeko, auzoei kondenaziora joaten *ez* uzteko tentazioa (bai baitzekiten, jakina, juduak kondenaziora garraiatzen zituztela, nahiz eta agian askok xehetasun lazgarrien berri jakin ez), eta krimen haietan guztietan, onura atereaz, konplizeak ez izateko tentazioa. Baina, Jainkoak ondo daki, ondo ikasi zuten tentazioari buru egiten.

IX: REICHEKO DEPORTAZIOAK: ALEMANIA, AUSTRIA ETA BABES-HERRIA

1942ko urtarrileko Wannseko Konferentziaren —Eichmann Pontzio Pilato bezala sentitu zenean eta eskuak errugabe garbitu zituenen—, eta Himmlerren 1944ko udako eta udazkeneko aginduen artean —hau da, Hitlerrek ezer jakin gabe, Azken Soluzioa abandonatu zenean, sarraskiak hutsegite deitoragarri bat baizik izan ez balira bezala—, kontzientzia-arazoez ez zuten Eichmann kezkatu. Haren gogoetak erabat hartuak zeuden antolamendu- eta administrazio-lan izugarriarekin, mundu-gerra baten erdian ez ezik, Eichmannentzat garrantzitsuagoa zena, «juduen auzia konpontzen» zebiltzan estatuko eta alderdiko bulegoen arteko agintearen inguruko intriga eta borroka amaigabeen erdian. Eichmannen lehiakide nagusiak goi-mailako SSak eta polizia-buruak ziren, zuzen-zuzenean Himmlerren aginpidean zeudenak; erraz jo zezaketen harengana, eta Eichmannen gainetik jartzen ziren beti. Atzerriko Arazoetako Ministerioa ere tartean zen, eta, Martin Luther estatuko idazkariorde berriaren eskutik (Ribbentropen babespekoa zen), indar handia hartu zuen judu-auzietan. (Luther Ribbentrop alboratzen saiatu zen, 1943an, oso intriga landu baten bidez, baina huts egin zuen eta kontzentrazio-eremu batera eramane zuten; Eberhard von Thadden *Legationsrat* haren ondorengoaren mende, Luther judu-auzien *Referent* bihurtu zen; Jerusalemeko juizioan defentsaren lekukoa izan zen). Atzerriko Arazoetako Ministerioak deportazio-aginduak ematen zituen tarteka, atzerriko ordezkariak bideratu behar zituztenak, baina, prestigio-arrazoiak zirela medio, nahiago zuen goi-mailako SSen eta polizia-buruen bitartez lan egin. Ekialdeko lurralde okupatueta armadako komandanteak ere baziren, arazoak «lekuan bertan» konpondu nahi izaten zituztenak, eta horrek fusilamendua esan nahi zuen; Mendebaldeko herrialdeetan zeuden militarrek, berriz, ez zuten lagundu nahi izaten, ezta juduak

bildu eta atxilotzeko beren osteak utzi ere. Azkenik, baziren *Gauleiter* izenekoak, eskualde-buruak, eta haiek denek aurrenekoak izan nahi izaten zuten beti beren agindupeko eskualdea *judenrein* deklaratzeko, eta inoiz beren kabuz ere jarri zituzten abian deportazio-prozedurak.

Eichmannek «ahalegin» haiek guztiak koordinatu behar zituen, ordena pixka bat behar zuen jarri berak «erabateko kaosa» deitzen zuen hartan, non «bakoitzak bere aginduak ematen dituen» eta «nahi duena egiten duen». Eta lortu zuen prozesu osoan aski posizio garrantzitsua izatea, beraren bulegoak antolatzen baitzituen garraio-bitartekoak. Rudolf Mildner doktorearen arabera —Gestapoko burua izan zen Silesia Garaian (hau da, Auschwitz zegoen lekuan) eta Danimarkako Segurtasun Poliziaren burua gero, eta fiskalaren lekukoa izan zen Nurenbergen—, deportaziorako aginduak Himmlerrek ematen zizkion idatzirik RSHako buru Kaltenbrunnerri; hark Gestapoko edo RSHako IV. saileko buru Müllerri ematen zion aginduen berri, eta Müllerrek, bere aldetik, ahoz igortzen zizkion IV-B-4 azpisailari, hau da, Eichmanni. Himmlerrek orobat ematen zizkien aginduak bertako goi-mailako SSei eta polizia-buruei, eta ondoren haien berri ematen zion Kaltenbrunnerri. Beste zenbait auzi, zer egin behar zen judu deportatuekin, zenbat ziren deuseztatzeakoak eta zenbat utzi behar ziren gatibu-lanetarako, haiek ere Himmlerrek erabakitzen zituen, eta gai horiei buruzko haren aginduak Pohl-en WVHara joaten ziren; bulego hark Richard Glücks-i komunikatzen zizkion, hots, kontzentrazio- eta deuseztatze-esparruetako buruari, zeinak, bere aldetik, esparruetako komandanteei igortzen baitzizkien. Fiskalak ez zituen gogoan hartu Nurenbergeko Juizioetako dokumentu haiek, Eichmannek omen zeukan aginpide izugarriaren teoriaren kontrakoak baitziren; defentsak aipatu zituen Mildnerren zinpeko aitortpenak, baina ez zuen gauza handirik lortu. Eichmannek berak, «Poliakoff eta Reitlingerrekin kontsulta egin ondoren», hamazazpi grafiko koloredun aurkeztu zituen, askorik lagundu ez zutenak Hirugarren Reicharen makineria burokratiko nahasia hobeto ulertzen, nahiz eta totalitarismoaren aztertzaileari sinesgarria gertatuko zaion hark egin zuen deskribapen orokorra —«etengabeko isurian zegoen dena beti, ur-laster etengabe bat bezala»—, ondo jakina baita gobernu mota honen izate monolitikoa mito bat dela. Eichmannek gogoan zuen artean nola esaten zioten bere gizonek, herrialde okupatu eta erdi-independente guztietan judu-auzien gainera aholkulariak zirenek, «zer egintza zen

bideragarria», nola berak orduan prestatzen zituen «gero onetsi edo baztertuko ziren txostenak», eta nola Müllerrek bere jardunbideak ematen zituen orduan; «praktikan, horrek esan zezakeen Parisetik edo Hagatik heldutako proposamen bat hamabost egun geroago atzera Parisera edo Hagara joaten zela, RSHak onetsiriko jardunbide baten moduan». Eichmannen posizioa operazio osoko transmisio-uhaltzaren garrantzitsu batena zen, hark eta haren gizonek erabakitzen baitzuten eremu jakin batetik zenbat judu garraia zitezkeen edo garraiatu behar ziren, eta haren bulegoan onartzen zen garraialdiaren azken jomuga, nahiz eta jomuga bera ez zuen Eichmannek finkatzen. Baina irteerak eta helduerak sinkronizatzeko zailtasuna, burdinbideetako agintarien eta Garraio Ministerioaren aldetik aski ibilgailu lortzeko ahalegin eta kezka amaigabeak, egutegiak finkatu beharra eta trenak behar adinako «absortzio-ahalmena» zuten zentroetara bideratzea, behar zen unean aski judu eskura edukitzea trenak «alferrik xahu» ez zitezkeen, herrialde okupatuetakoa eta aliatuetakoa agintarien laguntza segurtatzea atxilotetako egiteko, judu-kategoriei buruzko aginduei eta araubideei jarraitzea (kategoria horiek aldatu egiten baitziren herrialde batetik bestera, eta baita denboran ere), hura guztia errutina bihurtu zen, eta Jerusalemeko joan baino askoz ere lehenago ahaztuak zituen Eichmannek xehetasunak.

Hitlerrentzat, Azken Soluzioaren konspiratzaile bakarra eta bakartia izan zen harentzat (inoiz ez du konspirazio batek, baldin hura konspirazioa bazen, konspiratzaile gutxiagoren eta berrero gehiagoren premiarik izan) huraxe zen gerraren helburu nagusietako bat, eta, alderdi ekonomikoak eta militarrek gogoan hartu ere gabe, haren inplementazioari eman zitzaion erabateko lehentasuna; eta Azken Soluzioa, Eichmannentzat lana zena, bere eguneroko errutinarekin, bere gorabeherekin, munduaren bukaera izan zen juduentzat, hitzaren zentzu berezkoenean. Juduak, ehunka urteetan, beren historia, oker edo zuzen, sufrimenduzko historia luze baten moduan ikustera ohitu ziren, fiskalak bere juizioko lehen mintzaldian deskribatu zuen bezala; baina haren atzean «Am Yisrael Chai» garaipenezko uste sendoa egon zen luzaroan, Israeleko *herria* biziko da; banakako juduak, judu-familia osoak hil daitezke pogrometan, komunitate osoak desagertu daitezke, baina judu-herriak bizirik jarraituko du. Judu-herria genozidioa ikusi gabea zen. Eta, areago, garai bateko kontsolamenduak ez zuen jadanik balio, ez behintzat Mendebaldeko Europan. Erromako antzinaroaz

geroztik, hau da, Europaren historiaren hasieratik, juduak, onerako edo txarrerako, miserian edo oparotasunean, Europako nazio-komunitateko kideak izan ziren; baina azken ehun eta berrogeita hamar urteetan gauzek hobera egin zuten, eta oparotasun-aukerak hain ugariak bihurtu ziren, non Erdialdeko eta Mendebaldeko European araua ematen baitzuten. Hala, herriak azkenean bizirik jarraituko zuelako usteak ez zuen jadanik garrantzi handirik komunitate juduen parte handientzat; ez zitzairen Europako zibilizaziotik kanpo legokeen bizimodu judurik bururatzen, Europa *judenrein* bat bururatzen ez zitzairen bezalaxe.

Munduaren bukaerak, monotonia nabarmenez bideratuagatik ere, European zenbat herrialde, beste horrenbeste tankera eta itxura hartu zuen. Hori ez zaio harritzekoa gertatuko Europako nazioen garapena eta nazio-estatuaren sistemaren sorrera ezagutzen duen historialariari, baina sorpresa handia izan zen nazientzat, sinetsiak baitzeuden arrunt antisemitismoa izan zitekeela Europa osoa elkartuko zuen elementu bateragarria. Akats ikaragarria izan zen, eta oso garestia. Berehala ikusi zen, praktikan, nahiz eta agian teorian ez, nongoak izan, alde handiak zeudela antisemiten artean. Are gogaikarriagoa zen, nahiz eta alde z aurretik asmatzekoa izan, Ekialdeko herrialdeek baizik ez zutela aleman antisemitaren bertsio «erradikala» behar bezala aintzat hartzen —ukrainarrek, estoniarrek, letoniarrek, lituaniarrek, eta, neurri batean, errumaniarrek—, hau da, naziak horda «giza azpiko» barbaroak bailiran begiratzea erabaki zuten haiek. Eskandinaviar nazioak, berriz, oso-oso eskasak ziren juduen aurkako etsaitasun txukun bati zegokionez (Knut Hamsun eta Sven Hedin salbuespenak dira), nahiz eta, nazien arabera, Alemaniaren odolezko anaiak izan.

Munduaren bukaera, jakina, aleman Reichen hasi zen. Garai hartan, aleman Reichak, Alemania ez ezik, Austria, Moravia eta Bohemia, Txekiar Babes-herria eta Poloniako Mendebaldeko Eskualde anexionatuak ere hartzen zituen. Azken horretan (Warthegau), juduak, poloniarrekin batera, gerraren bukaera aldera, ekialderantz deportatu zituzten Ekialdeko aurreneko birkokatze-proiektu handian —«nazioen joan-etorri antolatu» hartan, Jerusalemeko Auzitegiko epaiak deitu zuen bezala—, eta mendebaldera eraman zituzten aleman jatorriko poloniarrek (*Volksdeutsche*), «Reichera berriz». Himmlerrek, Aleman Herritartasuna Sendotzeko Reicheko Arduraduna izateak ematen zion ahalmenarekin, Heydrichi eman zion «emigrazioaren eta

ebakuazioaren» ardura, eta 1940ko urtarrean antolatu zen Eichmannek RSHAn izan zuen aurreneko sail ofiziala, IV-D-4 azpisailean. Nahiz eta posizio hura, administrazioaren aldetik, ondoren IV-B-4 azpisailean izango zuen lanaren aurrekaria izan, Eichmannen lana han ozta-ozta izan zen trebatze-saio bat baino gehiago, jendea emigrarazteko lan zaharraren eta hura deportatzeko etorkizuneko eginkizunaren artekoa. Eichmannen lehen deportazio-lanak ez ziren Azken Soluzioaren baitakoak izan; Hitlerrek agindu ofizial hura eman baino lehen gertatu ziren. Geroagokoak ikusirik, proba edo saio moduan baizik ezin zaie deportazio haiei begiratu, hondamendi-esperimentu baten moduan. Aurreneko deportazioa Stettin-go hirurehun judurena izan zen, eta gau bakar batean egin zen, 1940ko otsailaren 13an. Hura izan zen aleman juduen lehen deportazioa, eta Heydrichek agindu zuen, «gerrako ekonomiarekin lotutako arrazoiengatik, haien apartamentuen premia larria zegoelako» aitzakiarekin. Poloniako Lublineko eremura eraman zituzten, egoera bereziki lazgarrian. Bigarren deportazioa urte bereko udazkenean egin zen. Badeneko eta Saarpfalzeko judu guztiak —zazpiehun eta berrogeita hamar inguru, gizonak, emakumeak eta umeak—, Frantzia okupatu gabea eraman zituzten, lehenago aipatu dudana bezala, baina hura une hartan segada bat zen, Frantzia eta Alemaniaren arteko armistizioko itunean ezerk ez baitzuen adierazten Vichyko Frantzia judu-zabortege bat bihurtuko zenik. Eichmannek berak joan behar izan zuen trenean, mugako geltokiko frantses burua hura aleman «garraio militar» bat zela konbentzitzeko.

Bi operazio haiek erabat falta izan zituzten geroagoko «legezko» prestakuntza landuak. Reichetik deportatu zituzten unean ez zen juduei herritartasuna kentzen zien legerik, eta gerora juduek beren jabetzaren konfiskazioa antolatzeke bete beharko zituzten agiri ugarien ordeztu, Stettingo juduek uko-agiri bakarra izenpetu zuten, besterik gabe, zeukaten oro hartzen zuena. Argi zegoen, lehen operazio haietan ez zen administrazioaren aparatuarekin probarik egin nahi. Helburua, hala ematen du, baldintza politiko orokorrak nolakoak ziren ikustea zen: joango ote ziren juduak beren kabuz azken beltzera, beren maletatxoak eskuan hartuta, gauaren erdian, aldeztu aurretik abisurik eman gabe; nolakoa izango ote zen auzokoen erreakzioa biharamunean, bizilagunen apartamentuak hutsik aurkitzean; eta, azkenik, baina ez garrantzi gutxiagoarekin, Badeneko juduen kasuan, nolako erreakzioa izango zuen atzerriko gobernu batek bat-batean bere lurretan milaka

judu «iheslari» zuela ikusita. Nazien ikuspuntutik, oso ondo atera zen dena. Alemanian, hainbat interbentzio izan zen «kasu berezien alde», esate baterako, Alfred Mombert poetaren alde; Mombert Stefan George-ren taldeko kidea zen, eta Suitzara alde egiten utzi zioten; baina herritarrei, oro har, hura bost axola zitzaien, jakina. (Une hartantxe konturatu zen Heydrich, inondik ere, zeinen garrantzitsua zen harreman onak zituzten juduak masa izengabearengandik bereiztea, eta orduan erabaki zuen, Hitlerren adostasunarekin, Theresienstadt eta Bergen-Belseneko esparruak antolatzea). Frantzian, hobeto ere joan ziren gauzak: Vichyko gobernuak Gurseko kontzentrazio-esparru ezagunean jarri zituen, Pirinioen oinetan, Badeneko zazpiehun eta berrogeita hamar juduak. Esparru hura Espainiako Errepublikaren armadarentzat sortua zen berez, eta 1940ko maiatzaz geroztik *réfugiés provenant d'Allemagne* entzat erabili zen, Alemaniatik zetozen iheslari entzat, zeinetarik gehien-gehienak, jakina, juduak baitziren. (Azken Soluzioa Frantzian aplikatu zenean, Gurseko esparruan zeuden guztiak Auschwitzera bidali zituzten). Naziek, gauzak orokortzeko desiratzen beti, juduak nonahi «jendaila» zirela frogatu zutela uste izan zuten, eta ez-juduak oro antisemitak zirela, aktualak edo balizkoak. Zergatik, orduan, behar zuen inork kezkatu baldin arazo hari «errotik» heltzen bazitzaion? Artean orokortze haien lilurapean, Jerusalem behin eta berriz kexatu zen Eichmann herrialde bat bera ere ez zela juduak onartzeko prest agertu, eta hark, eta hark besterik ez, eragin zuela hondamendia. (Europako nazio-estatu sendo antolatu haiek beste era batera erreakzionatuko balute bezala, beste edozein atzerritar talde bat-batean bertara heldu balitz, xentimorik gabe, pasaportetik gabe, bertako hizkuntza ezin mintzaturik!). Nolanahi ere, ofizial nazien amaierarik gabeko harrimenerako, atzerriko herrialdeetako uste osoko antisemitek berek ere ez zuten «koherenteak» izateko gogorik, eta «errotikako» neurrietatik urruntzeko joera tamalgarria zuten. Haietarik gutxik adierazi zuten beren ikusmoldea Berlingo Espainiako Enbaxadako kide batek bezain argi —«Jakingo bagenu behintzat ez dituztela akabatuko», halaxe esan zuen hark espainiar pasaporteak eman zitzaizkien espainiar jatorriko seiehun bat juduri buruz, nahiz eta judu haiek sekula Espainian izan gabeak izan, eta Francoren erregimena aleman jurisdikzioera eramateko desiratzen egon—, baina atzerriko herrialde gehien-gehienek modu horrexetan ikusten zituzten gauzak.

Lehen saio haien ondoren, etenaldi bat izan zen deportazioetan, eta ikusi dugu nola Eichmannek Madagaskarren ideiarekin bueltaka aritzeko baliatu zuen geldialdi behartu hura. Baina 1941eko martxoan, Errusiaren kontrako gerraren prestakuntzak egiten ari zirenean, Eichmann, bat-batean, sail berri baten arduradun izendatu zuten; zehatzago, Eichmannen azpisailaren izena aldatu zuten, eta «Emigrazioa eta Ebakuazioa» zena, «Judu Auziak, Ebakuazioa» bihurtu zen. Handik aurrera, nahiz eta Azken Soluzioaren berri ez zioten eman, konturatu behar izan zuen bukatua zela emigrazioa betiko, eta deportazioek hartuko zutela haren lekua. Baina Eichmann ez zen aieruez ohartzen zen gizon klasea, eta inork ez ziolarik bestelakorik esan, emigrazioa zuela gogoan jarraitu zuen lanean. Hala, 1940ko urrian Atzerriko Arazoetako Ministerioko ordezkariekin izan zen bilera batean, atzerrian ziren aleman judu guztien herritartasuna ezeztatu behar zela proposatu zen, eta Eichmannek protesta egin zuen, kementsu, esanez «halako urrats batek eragina izan zezakeela artean judu emigratzaileei ateak irekitzeko eta sarrera-baimenak emateko prest zeuden beste herrialdeen gainean». Eichmannek unean-unean baliozkoak ziren legeen eta aginduen muga estuen baitan pentsatzen zuen beti, eta juduen kontrako legedi berriaren zaparrada ez zitzairen Reicheko juduei ailegatu Azken Soluziorako Hitlerren aginduak inplementatu behar zituztenei ofizialki igorri zitzaizkienean baizik. Aldi berean, Reichari erabateko lehentasuna behar zitzaiola eman erabaki zen, eta bertako lurraldeak segituan behar zirela *judenrein* utzi; harrigarria da, baina ia bi urte behar izan ziren lan hura egiteko. Prestakuntzazko arauak, laster beste herrialde guztietan eredu-balioa izango zutenak, ziren, aurrenik, banda horia erabiltzea (1941eko irailaren 1a); bigarren, herritartasunaren legea aldatzea, gogoan izanik judu bat, Reicheko mugetatik kanpo bizi bazen, ezin zela aleman herritartzat hartu (eta, jakina, juduak hara deportatuko ziren); hirugarren, Reichak herritartasuna galdutako aleman juduen jabetza guztiak konfiskatuko zirela zioen dekretu bat (1941eko azaroaren 25a). Prestakuntza haiek guztiak burutuz, Otto Thierack Justiziako Ministroak eta Himmlerrekin akordio bat izenpetu zuten, eta haren bitartez aurrenekoak bertan behera uzten zuen «poloniar, errusiar, judu eta ijitoen gaineko» jurisdikzioa, SSen eskuetara aldatzeko, zeren, «Justiziako Ministerioak ekarpen txiki bat baizik ezin baitio egin herri horiek deusteztatzeari [sic]». (Azpimarratzekoa

da hizkera-modu ageriko hori, 1942ko urrian Justiziako Ministroak Alderdiko Kantzelergoko burua zen Martin Bormanni bidali zion gutun batean erabiltzea). Araubide apur bat diferenteak eman behar ziren Theresienstadtera deportatu zirenentzat, esparru hura Reicharen lurraldean baitzegoen, eta hara deportaturiko juduak ez ziren automatikoki estatugabeak bihurtzen. Kategoria «pribilegiadun» haien kasuan, 1933ko lege zahar baten bitartez, «nazioen eta estatuaren kontrako» jardueretarako erabili ziren jabetzak konfiska zitezkeen. Konfiskazio modu hura nahitaezkoa zen kontzentrazio-esparruetan zeuden preso politikoen kasuan, eta, nahiz eta juduak kategoria horretakoak izan ez —1942ko udazkenerako Alemania eta Austriako kontzentrazio-esparru guztiak *judenrein* bihurtuak ziren—, beste arau bat besterik ez zen prestatu behar izan, 1942ko martxoan eman zena, judu deportatu guztiak «nazioaren eta estatuaren kontrakoak» zirela finkatzeko. Naziek oso serio hartzen zuten beren legedia, eta nahiz eta Theresienstadteko ghettoari beren artean «zahar-ghetto» esan, Theresienstadt kontzentrazio-esparru baten moduan zegoen ofizialki sailkatua, eta bertako presoak ziren haren berri ez zekiten bakarrak; ez ziren nonbait jende haren sentimenduak mindu nahi, «egoitza» hura «kasu berezietarako» gordea baitzegoen. Eta segurtatzeko hara bidaliko juduek ez zutela susmo txarrik hartuko, Berlingo Judu Elkarteari (*Reichsvereinigung*) akordio bat eginarazi zioten deportatu bakoitzarekin, Theresienstadten «egoitza eskuratzeko». Zegokionak Judu Elkarteari transferitzen zizkion bere ondasun guztiak, eta Elkarreak, haien truke, bizitza osoko etxea, elikadura, jantziak eta sendagintza bermatzen zizkion. Azkenean, *Reichsvereinigung* hartako azken ofizialak berak Theresienstadtera bidali zituztenean, Reichak, besterik gabe, konfiskatu egin zuen Elkarteko diru-kutxan zegoen diru kopuru aski handia.

Eichmannek eta haren IV-B-4 saileko edo RSHako lankideek antolatu eta koordinatu zituzten mendealdetik ekialdera egin ziren deportazio guztiak, juizioan auzitan jarri ez zen gauza. Juduak trenetan jartzeko, ordea, polizia-unitate arruntan laguntza behar zen; Alemanian, Ordena Publikoko Poliziak zaintzen zituen trenak, eta Ekialdean Segurtasun Polizia (ez da nahastu behar Himmlerren Segurtasun Zerbitzu edo SDrekin), helmugan zain egoten zen, trenean heldutakoak hilkintza-zentroetako agintariengana eramateko. Jerusalemeko auzitegiak Nurenbergen finkatu zen «erakunde krimi-

nal» delakoen definizioari jarraitzen zion; horren ondorioz, ez Ordenako Polizia ez Segurtasuneko Polizia ez ziren behin ere aipatu, nahiz eta ondo frogatua egon ordurako haiek ere aktiboki esku hartu zutela Azken Soluzioaren inplementazioan. Baina polizia-unitate guztiak erantsiz gero ere «kriminaltzat» jo ziren lau erakundeei —Alderdi Naziko talde gidaria, Gestapo, SD eta SSak—, Nurenbergeko bereizkuntzek desegokiak izaten jarraituko zuten, eta Hirugarren Reicheko errealitateari ezin aplikatuzkoak. Zeren gertatuaren egia da ez zela izan Alemanian erakunde bakar bat, ezta instituzio publikorik ere, gerrako urteetan behintzat, egintza eta operazio kriminaletan sartua egon ez zenik.

Theresienstadt sortuz konpondu zen interbentzio pertsonalen auzi gogaikarriaren ondoren, bi eragozpen zeuden oraindik «errotikako» eta «azkeneko» soluzio baten bidean. Bata erdi-juduen arazoa zen, «erradikalek» judu osoekin batera nahi baitzituzten haiek deportatu, eta «moderatuak», berriz, antzutu egin nahi zituzten; izan ere, erdi-juduak akabatzen utziz gero, alferrik galduko zen «alemana den haien odolaren erdia», Barne Arazoetako Ministerioko Stuckartek Wannseko Konferentzian esan zuen bezala. (Azkenean, ez zen ezer egin *Mischlinge* edo ezkontza mistoetako juduekin; «eragozpen-baso batek», Eichmannen hitzetan, inguratzen eta babesten zituen: ahaide ez-juduek, alde batetik, eta, bestetik, beren agindu guztiengatik ere, masako esterilizaziorako sistema lasterrik, zoritxarrez, aurkitu ez zuten sendagile naziak). Bigarren arazoa zen atzerritar judu milaka batzuk zeudela Alemanian, eta haiei ezin zitzaien deportazioaren bitartez herritartasuna kendu. Amerikar eta ingeles ehunka judu batzuk atxilo hartu eta trukeak egiteko xedeaz gorde zituzten, baina merezi du herrialde neutraletako edo Alemaniaren aliatuetako herritarrekin jarduteko antolatu ziren metodoak hemen deskribatzea, halako garrantzi bat izan baitzuten, gainera, juizioan. Jende hura zela-eta akusatu zuten Eichmann, hain zuten, judu bakar batek ihes egin ez ziezaion zuen grina itxuragabeaz. Grina hura bera zuten, Reitlingerrek dioen bezala, «Atzerriko Arazoetako Ministerioko burokrata profesionalek, [haientzat] oso auzi larria baitzen judu bakan batzuek torturari eta heriotza motelari ihes egitea», eta haiekin kontsultatu behar izaten zuen Eichmannek aipatu ditugun kasuetan. Eichmanni zegokionez, herritartasuna gogoan hartu ez, eta judu guztiak deportatzea zen soluziorik errazena eta logikoena. Hitlerren garaipenen gailurrean bildu

zen Wannseeko Konferentziako araubideen arabera, Azken Soluzioa judu guztiei aplikatu behar zitzairen; hamaika miloi zirela kalkulatzaren, eta herritartasuna, edota herrialde neutralek edo aliatuek beren hiritarren gainean izan zitzaketan eskubideak, halako txikikeriak aipatu ere ez ziren egin. Baina, gerrako egunik distiratsuenetan ere, Alemania inguruko herrialdeen borondate onaren eta elkarlanaren mende zegoenez gero, formalitate txiki haiek ezin izan ziren baztertu. Atzerriko Arazoetako Ministerioako diplomatiko eskarmentudunen eginkizuna izan zen «eragozpen-baso» berezi hartan bideak bilatzea, eta denetan asmotsuena izan zen aleman lurraldean zeuden atzerriar juduak erabiltzea haien jatorrizko lurraldeetan nolako giroa zegoen jakiteko. Hura egiteko metodoa, konplikatua ez bazen ere, asmotsua zen, eta Eichmannen adimenaren helmena eta pertzepzio politikoa baino harantzago zegoen inondik ere. Juizioan hori guztia dokumentuen bidez frogatu zen; Kaltenbrunnerrek edo Müllerrek izenpetzen zituzten Eichmannen sailak gai hauei buruz Atzerriko Arazoetako Ministerioari idazten zizkion gutunak. Atzerriko Arazoetako Ministerioak beste herrialdeetako agintariei idazten zien, esanez Aleman Reicha *judenrein* bihurtzeko prozesuan zegoela, eta, hortaz, nahitaezkoa zela kanpoko juduak sorterrira itzul zitezen, haiei ere neurri antisemitak aplikatzea nahi ez bazuten. Ultimatum hark ematen duena baino gehiago esan nahi zuen. Atzerriar judu haietatik, oro har, batzuk zein bere herrialdeko herritarrak ziren, eta beste batzuk, okerrago, berez estatugabeak ziren, baina aski sistema zalantzazkoen bitartez lortutako pasaporteak zeuzkaten, jabeak atzerrian ziren bitartean nahiko ondo funtzionatzen zutenak. Azken hori Latinoamerikako herrialdeetan gertatzen zen gehienbat: atzerriko kontsulek agerian saltzen zizkieten pasaporteak juduei; pasaporte haien zorioneko jabeek eskubide oro zuten, baita kontsuletxearen nolabaiteko babesare ere, baina ezin ziren «aberrian» sartu. Hortaz, Atzerriko Arazoetako Ministerioaren ultimatumaren xedea zen atzerriko gobernuak Azken Soluzioaren aplikazioarekin bat etortzea, izenez baizik beren herrikideak ez ziren juduei zegokienez behintzat. Ez al zen gauza logikoa uste izatea ehunka juduri babesik eman nahi ez zien gobernu batek —judu haiek egoitza iraunkorra inon finkatzeko moduan ez zeudelarik gainera—, ez zuela eragozpen handirik jarriko haren judu-biztanleria osoa deportatu eta ezeztatu behar zen egunean? Bazitekeen logikoa izatea, baina zentzuzkoa ez zen, laster ikusiko dugun bezala.

1943ko ekainaren 30ean, Hitlerrek espero zuena baina dezente geroago, Reicha —Alemania, Austria eta Babes herria—, *judenrein* zela adierazi zen. Zifra zehatzik ez dago eremu hartatik guztira zenbat judu deportatu zen jakiteko, baina badakigu 1942ko urtarrila baino lehen, aleman estatistiken arabera, ordurako deportatuak edo deportatzekoak ziren berrehun eta hirurogeita bost mila lagunetik, oso gutxik ihes egin zutela; ehunka bakan batzuek, gehienera ere milaka bakan batzuek, lortu zuten ezkutatzea eta gerratik bizirik ateratzea. Juduen auzoen kontzientzia lasaitzea oso gauza erraza zela, ezin argiago azaltzen du deportazioen azalpen ofizialak, zeina Alderdiko Kantzelergoak 1942ko udazkenean zabaldutako zirkular batean ematen baitzen: «Gauzen berezko ezaugarria da ezen, zenbait aldetatik oso zailak diren arazo hauek, gure herriaren segurtasun iraunkorraren onuragatik, *gogortasun errukigabeaz* baino —*rücksichtsloser Härte* (etzanak nireak dira)— ezin direla konpondu».

X: MENDEBALDEKO EUROPAKO DEPORTAZIOAK: FRANTZIA, BELGIKA, HOLANDA, DANIMARKA, ITALIA

«Gogortasun errukigabea», Hirugarren Reicheko agintariak biziki estimatzen zuten bertutea, iragan nazia aipatzeko eufemismorako talentu ikaragarria garatu duen gerra ondoko Alemanian, *ungut* zelakoan hartu izan da sarritan, hau da, ez-ona, ontasuna falta zuena, ezaugarri hori zutenei ezer txarrik gertatuko ez balitzaie bezala, ez bazen akats tamalgarri bat zutela, hots, karitate kristauak zehazten duen modu-moduan ez jardutearena. Nolanahi ere, Eichmannen bulegoak «judu-auzietako aholkulari» gisa beste herrialdeetara misio diplomatiko erregularretako bidaltzen zituen gizonak, edo bulego militarretakoak, edo Segurtasun Poliziako atxikiak izaten zirenak, bertute hori goren mailaraino zutelako aukeratu zituzten denak. Hasieran, 1941-42ko udazkenean eta neguan, haien eginkizun nagusia, dirudienez, zegokien herrialdeetako aleman ofizialekin harreman egokiak sortzea zen, aleman enbaxadakoekin izenez behintzat burujabeak ziren lurraldeetan, eta Reicheko mandatariekin lurralde okupatuetan; baina judu-auzien jurisdikzioaren gaineko gatazka etengabeak izaten ziren denetan beti.

1942ko ekainean, Frantziako, Belgikako eta Holandako aholkulariei deitu zien Eichmannek herrialde haietako deportazioak antolatzen hasteko. Himmlerrek agindu zuen Frantziari lehentasun erabatekoa eman behar zitzaiola «Europa mendebaldetik ekialdera orraztu» esaten zioten eginkizun hartan, partez, hura zelako *nation par excellence*, eta, partez, Vichyko gobernuak judu-auziaren zinez «ulerpen» harrigarria erakutsi zuelako, eta juduen kontrako lege asko bere kabuz prestatu zituelako; Judu Auzietarako Sail berezi bat ere antolatu zuen, aurrena Xavier Valiant buru izan zuena eta geroxeago Darquier de Pellepoix, antisemita ezagunak bata zein bestea. Antisemitismoaren frantses adarrari egindako kontzesio gisa

—antisemitismo hura, biztanleriaren maila guztietan, xenofobia gogor, gehienetan xobinista batekin lotua zegoen—, atzerritar juduekin hasiko zen operazioa, eta 1942az geroztik Frantziako kanpotar juduen erdiak baino gehiago estatugabeak zirenez gero (Errusia, Alemania, Austria, Polonia, Errumania, Hungariakoak, hau da, edo alemanen mendean zeuden edo juduen aurkako legedia gerraren aurrekoa zuten herrialdeetakoak), ehun bat mila judu estatugabe deportatuz hastea erabaki zen. (Frantziako judu-biztanleria osoa une hartan hirurehun milatik aski gorakoa zen; 1939an, 1940ko Belgikako eta Holandako iheslariak heldu baino lehen, berrehun eta hirurogeita hamar mila inguru judu ziren, eta haietatik ehun eta hirurogeita hamar mila, gutxiena, kanpokoak ziren edo kanpoan jaioak). Berrogeita hamar mila ziren eremu okupatutik berehala atera beharrekoak, eta beste hainbeste Vichyko Frantziatik atera beharrekoak. Eginkizun zaila zen, Vichyko gobernuaren adostasuna ez ezik, frantses poliziaren laguntza aktiboa ere behar baitzen, Alemanian Ordenako Poliziak egiten zuen lana egin behar baitzuen hark. Hasieran ez zen inolako arazorik izan, zeren, Pétain Mariskalaren gobernuko Lehen Ministro Pierre Lavalek adierazi zuen bezala, «atzerritar judu horiek arazoa izan dira Frantzian», eta, hortaz, «frantses gobernua pozik zegoen, alemanen juduenganako joerak haiez libratzeko aukera ematen baitzion Frantziari». Esan behar da Lavalek eta Pétainek judu haiek Ekialdean birkokatuko zirela uste zutela; artean ez zekiten «birkokatze» hark zer esan nahi zuen.

Bi gertakarik erakarri zuten Jerusalemeko auzitegiko arreta, eta 1942ko udan gertatu ziren biak, Frantziako okupazioa hasi eta handik aste gutxira. Aurrenekoa uztailaren 15ean Bordeletik atera behar zuen tren baten ingurukoa izan zen; garraioa bertan behera utzi behar izan zen, Bordelen ez ziren-eta ehun eta berrogeita hamar judu besterik aurkitu, hau da, nahikoak ez Eichmannek neke handiz eskuratu zuen trena betetzeko. Ez dakigu Eichmann konturatu ote zen gauzak jende guztiari iruditzen zitzaiona baino zailxeagoak izan zitezkeelako aurreneko seinalea zela hura, baina, nolanahi dela ere, biziki aztoratu zen, eta bere mendekoei esan zien «prestigio-kontua» zela —ez frantsesen begietan, Garraioko Ministeriokoan begietan baizik, okerreko irudipenen bat izan baitzezaketen haiek Eichmannen antolamenduaren eraginkortasunari buruz—, eta «pentsatuko zuela, ez ote zen Frantzia bertan behera utzi beharko juduak iraitzeari zegokionez», osteria ere halakorik gertatuz gero. Jerusalemen, mehatxu

hura oso serio hartu zen, Eichmannek, nahi izanez gero, «Frantzia bertan behera uzteko» boterea zeukala frogatzen zuelakoan. Baina Eichmannen ateraldi irrigarrietako bat besterik ez zen hura, haren «kemenaren» froga bat, nekez ordea «bere mendekoen begietan zuen estatusaren erakusgarria», ez bazen mehatxu egin ziela haiei ondoren galduko zituztela gerrako lanpostu goxoak. Baina baldin Bordelen gertatua fartsa bat izan bazen, ondoren kontatu zuena Jerusalem aditu ziren istorio lazgarri ugarietako bat, okerrenetakoa, kontatzeko abiapuntua izan zen. Hura izan zen lau mila haurren istorioa, ordurako Auschwitzera bidean ziren gurasoengandik bereziak. Haurrak Frantziako bilgunean utzi zituzten, Drancyko kontzentrazio-esparruan, eta uztailaren 10ean Eichmannen frantses ordezkariak, Theodor Dannecker *Hauptsturmführer*ak, telefonoz deitu zion hari ume haiekin zer egin behar zen galdetzeko. Eichmannek hamar egun behar izan zituen erabakia hartzeko; gero Danneckerri hots egin zion, esanez trenak berriz «Gobernu Nagusiko eremura [Poloniara] bidaltzeko pronto egon bezain azkar, haurren garraioak abian jar daitezke». Servatius doktoreak azpimarratu zuen gertaera hark guztiak frogatzen zuela azkenean nola «zegokien pertsonak ez zituen izendatzen ez akusatuak, ez haren bulegoko inork». Baina, zoritxarrez, inork ez zuen aipatu nola esan zion Danneckerrek Eichmanni Lavalek berak proposatu zuela hamasei urtetik beherako haurrak ere deportazioetan sartzea; horrek esan nahi zuen izugarrikeria hura ez zela «goi-mailako aginduen» emaitza izan, Frantziaren eta Alemaniaren artean mailarik gorenean negoziaturiko akordio batena baizik.

1942ko udan eta udazkenean, hogeita zazpi mila judu estatugabe —hemezortzi mila Paristik eta bederatzi mila Vichyko Frantziarik— deportatu zituzten Auschwitzera. Eta une hartan, Frantzia osoan hirurogei mila inguru judu estatugabe geratzen zirenean, egin zuten alemanek beren aurreneko hutsegitea. Zeharo sinetsirik frantsesak hain ohituak zeudela ordurako juduak deportatzen non ez zitzairen frantses juduak ere deportatzea inportako, haiek ere deportatzeko baimena eskatu zuten, administrazio-kontuak errazteagatik huts-hutsik. Baina zer gertatuko, eta horrek gauzak erabat aldatu zituela: frantsesek ezezko biribila eman zioten beren juduak alemanen esku uzteari. Eta Himmlerrek, egoeraren berri eman ziotelarik —ez Eichmannek edo haren gizonak, goi-mailako SSeK eta polizia agintariek baizik— amore eman zuen segituan, eta frantses juduak uzteko agindu zuen.

Beranduegi zen ordea. Helduak ziren Frantziara «birkokatzea» zela-eta aurreneko zurrumurruak, eta nahiz eta frantses antisemitek, eta baita ez-antisemitek ere, nahiago zuten atzerritar juduak beste nonbait kokatu, ez zuten nahi, ezta antisemitek berek ere, masa-hilkintzaren konplizeak izan. Hala, bada, frantsesek uko egin zioten lehentxeago pozik ikusten zuten urrats bat egiteari —juduei 1927aren ondoren, edo 1933aren ondoren, eman zitzaizkien herritar-dokumentuak baliogabetzeari—, hura eginez gero berrogeita hamar mila judu gehiago izango baitziren deporta zitezkeenak. Aldi berean, hainbeste eragozpen hasi ziren jartzen, sekula bukatzen ez zirenak, judu estatugabeen eta atzerritarren deportazioa zela-eta, non juduak Frantziatik ebakuatzeko plan handinahi guztiak, hain zuzen ere, «bertan behera utzi» behar izan ziren. Milaka eta milaka pertsona estatugabe ezkutatu ziren, eta beste milaka batzuek Italiak okupaturiko frantses eremura ihes egin zuten, Côte d'Azur-era, han juduak salbu baitziren, zena zela haien jatorria edo herritartasuna. 1943ko udan, Alemania *judenrein* deklaratu zutenean eta aliatuak Sizilian lehorreratu berriak zirenean, berrogeita hamabi mila judu baizik ez ziren deportatu, edonola ere judu guztien ehuneko hogeai baino gehiago ez, eta haietatik sei mila bakarrik ziren frantses herritartasuna zutenak. Alemaniako frantses armadarentzako esparruetan zeuden gerrako presoak ere ez ziren bereizi «tratabide berezia» emateko. 1944ko apirilean, aliatuak Frantzian lehorreratu baino bi hilabete lehenago, berrehun eta berrogeita hamar mila judu zeuden artean bertan, eta denak bizirik zeuden gerra amaitu zenean. Naziek, ikusi zenez, ez zuten ez giza baliabiderik, ez borondaterik, «gogorrak» izaten jarraitzeko, erabateko oposizioarekin topo egiten zutenean. Auziaren egia osoa da, ikusiko dugunez, Gestapoko eta SSetako kideek berek ere biguntasunarekin konbinatzen zutela gogortasuna.

1942ko ekainean Berlinen egin zen batzarrean, ez ziren oso kopuru handiak finkatu Belgikatik eta Herbehereetatik berehala deportatzekoak zirenenak, segur aski Frantziarako oso kopuru altua ipini zelako. Belgikako hamar mila judu eta Holandako hamabost mila baizik ez ziren bertatik atxilotu eta deportatzekoak. Kasu batean zein bestean kopuruak asko handitu ziren gero, Frantziako operazioan aurkitu ziren eragozpenen ondorioz inondik ere. Belgikako egoera berezia zen, hainbat alderditatik. Aleman agintari militarrek baizik ez zuten bertan agintzen, eta poliziak, auzitegian aurkeztu zen Belgikako

gobernuaren txosten batek adierazten zuenez, «ez zeukan beste lekuetan eduki zuen eragin bera aleman administrazio-zerbitzuen gainean». (Belgikako gobernaria, Alexander von Falkenhausen jenerala, 1944ko uztaileko Hitlerren kontrako konspirazioan inplikatur egon zen gero). Belgikako bertako kolaborazionistak Flandrian baizik ez ziren garrantzitsuak izan; Degrellek gidaturiko waloi frantses-eledunen mugimendu faxistak oso indar gutxi izan zuen. Belgikako poliziak ez zien alemanei lagundu; deportazioko trenak ezin ziren Belgikako burdinbideetako langileen ardurapean bakarrik utzi, ateak giltza eman gabe uzteko edo zelatak antolatzeko moldatzen baitziren, juduek ihes egin zezaten. Bitxiagoa zen judu-biztanleriaren osaketa. Gerra hasi baino lehen, laurogeita hamar mila judu zeuden Belgikan; haietatik hogeita hamar mila inguru aleman judu iheslariak ziren, eta berrogeita hamar mila Europako beste herrialdeetatik etorriak. 1940aren bukaerarako, berrogei bat mila judu ihes eginak ziren, eta han geratzen ziren berrogeita hamar mila judutatik, gehienara ere bost mila baino ez ziren Belgikan jaioak eta Belgikako herritarrak. Are gehiago, ihes egin zutenen artean judu-buruzagi nagusi guztiak zeuden, gehien-gehienak kanpotarrak, eta, hala, judu-kontseiluak ez zeukan inolako aginpiderik bertako juduen artean. Alde guztietatik zetorren «ulerpen falta» harekin, ez da harritzekoa oso belgikar judu gutxi deportatu izana. Baina herritartasuna hartu berriak ziren juduei eta judu estatugabeei —txekiarrak, poloniarak, errusiarrak eta aleman jatorrikoak, ailegatu berriak asko— segituan antzematen zitzairen, eta oso zaila egiten zitzairen herrialde txiki eta erabat industrializatu hartan ezkutatzea. 1942ko bukaerarako, hamabost mila bidaliak ziren Auschwitzera, eta 1944ko udazkenean, hots, aliatuek Belgika askatu zutenean, hogeita bost mila ziren hilak guztira. Eichmannek bere ohiko «aholkularia» zeukan Belgikan, baina aholkulari hark ez bide zuen oso aktiboki jokatu juduen aurkako operazioetan. Azkenean administrazio militarrek bideratu zituen operazioak, Atzerriko Arazoetako Ministerioaren presio gero eta handiagoaren pean.

Beste herri gehien-gehienetan bezala, judu estatugabeekin hasi ziren Holandako deportazioak ere; kasu honetan ia denak Alemaniako iheslariak ziren, gerra aurreko holandar gobernuak ofizialki «gizatxar» izendatu zituenak. Biztanle juduak guztira ehun eta berrogei bat mila ziren, eta haietatik hogeita hamabost mila inguru ziren atzeritarrak. Belgika ez bezala, alemanek Holanda administrazio zibilaren pean

ipini zuten, eta, Frantziak ez bezala, ez zeukan gobernu propiorik, ministro taldeak, errege-familiarekin batera, Londresa ihes egin baitzuen. Nazio txiki hau alemanen mende zegoen osorik, eta Willi Zöpf izeneko bat zen Eichmannen SSetako Holandako «aholkularia» (duela gutxi atxilotu dute Alemanian, Dannecker Frantziako aholkulari askoz ere eraginkorragoa ez bezala, hura libre baitago oraindik), baina hark ez zuen nonbait gauza handirik esateko, eta nekez egin zezakeen Berlingo bulegora albisteak bidaltzea baino gehiago. Deportazioak eta deportazioekin lotuak zeuden gauzak oro Erich Rajakowitsch abokatuak bideratzen zituen, hots, Eichmannen Vienako eta Pragako lege-aholkulari ohiak, SSetan Eichmannek gomendaturik sartu zenak. Heydrichek bidali zuen Rajakowitsch Holandara, 1941eko apirilean, eta Wilhelm Harsten doktorea, Hagako Segurtasun Zerbitzuko buruaren aurrean zen erantzulea, ez Berlingo RSHaren aurrean; Harsten bere aldetik Hans Rauter *Obergruppenführer* goi-mailako SSen eta polizia-buruzagiaren mendekoa zen, eta haren judu-auzietako laguntzaile Ferdinand aus der Fünften-en mendekoa. (Rauterri eta Fünteni heriotza-zigorra eman zien holandar auzitegi batek; Rauter exekutatu egin zuten, eta Funtenen epaia, Adenauerren esku-hartze bereziarengatik nonbait, bizitza osoko espetxeagatik aldatu zuten. Harsten ere auziperatu egin zuten Holandan, hamabi urteko espetxe-zigorra eman, eta libre utzi zuten 1957an; ondoren Bavariako estatu-gobernuko administrazioan hasi zen lanean. Holandar agintariak aztertzen ari dira abian jarriko ote dituzten Rajakowitschen kontrako prozedurak, dirudienez Suitzan edo Italian bizi baita. Xehetasun horiek guztiak iaz jakin ziren, zenbait holandar dokumenturen argitalpenaren eta *Basler Nationaizeitung* suitzar egunkariaren berriemaile E. Jacob-ek prestaturiko txosten baten bitartez). Jerusalemeko fiskalak, partez Eichmann kosta ahala kosta kondenatu nahi zuelako eta partez aleman burokraziaren misterioetan erabat galduta zebilelako, gizon haiek denek Eichmannen aginduak betetzen zituztela azpimarratu zuen. Baina goi-mailako SSek eta polizia-buruzagiek Himmlerrengandik hartzen zituzten zuzenean aginduak, eta ez dirudi Rajakowitsch artean Eichmannen agindupen zegoenik, batez ere Holandan gertatzekoa zena gogoan hartzen bada. Epaia, auzi-mauzietan nahastu gabe, fiskalak egindako akats asko zuzentzen zituen —denak ez segur aski— eta argi erakusten zuen RSHaren, goi-mailako SSen eta polizia-buruzagien eta beste

bulegoen artean boterea eskuratzeko izaten zen lehia gogorra: «negoiazio nekaezinak, eternalak, amaigabeak», Eichmannnek esaten zuen bezala.

Eichmann bereziki gogaitu zuten Holandan hartutako neurriek, argi baitzegoen Himmler bera ari zela beraren alorrean sartu nahian, alde batera utzirik han zeuden jaunen grinak traba handiak sortzen zizkiola bere garraialdi propioen egutegia antolatzeko, eta irri egiten ziotela Berlingo «koordinazio-zentroaren» garrantziari. Hala, hasieran bertan, hogeit mila judu deportatu zituzten hamabost mila deportatu beharrean, eta Zöpf jauna, Eichmannen mendekoa, graduz eta mailaz bertako guztiak baino askoz beheragokoa zena, deportazioak lasterragotzera behartua gertatu zen 1943an. Gaiotako juridisdikzio-arazoek gogaitzen zuten Eichmann beti, eta alferrik agertzen zien entzungo zien guztiei «*Reichsführer* SSren [hau da, Himmlerren] aginduen kontrakoa litzateke, eta logikarik gabeko gauza, uneotan berriz ere beste agintari batzuk judu-arazoz arduratzea». Holandako azkeneko gatazka 1944an gertatu zen, eta orduko hartan Kaltenbrunner bera ere saiatu zen esku hartzen, oraindik indarrean zeuden arauak bete zitezen. Holandan, judu sefardiak, espainiar jatorrikoak, salbuetsi egin zituzten, nahiz eta Salonikan jatorri bereko juduak Auschwitzera bidali. Epaiak huts egiten zuen «esku nagusia eztabaida hartan» RSHak zuela zioenean, zeren, Jainkoak daki zergatik, hirurehun eta hirurogeita hamar judu sefardi inguru bake-bakean utzi baitzituzten Amsterdamem.

Aise asmatzen da zergatik nahiago zuen Himmlerrek Holandan goi-mailako SSen eta polizia-buruen bidez lan egin. Gizon haiek bazekiten herrialdean barna nola mugitu, eta holandar biztanleriak sortzen zuen arazoa ez zen inondik ere txikia. Holanda izan zen irakasle juduak kaleratu zituztenean ikasleek greba egin zuten Europa osoko herrialde bakarra, eta greba-olde batek erantzun zion han juduen Alemaniako kontzentrazio-esparruetarako aurreneko deportazioari; deportazio hura, gainera, deuseztatze-esparruetarakoa ez bezala, zigor-neurria besterik ez zen, Azken Soluzioa Holandara heldu baino askoz ere lehenago hartu zena. (Alemanei, de Jong-ek azpimarratzen duen bezala, irakasbide bat eman zitzaien. Handik aurrera, «esetsaldia ez zen eraso-oste nazien baioenetekin egin... *Verordeningenblad* aldizkariak argitaraturiko dekretuen bidez baizik, zeinak *Joodsche*

Weekblad behar baitzituzten bideratu». Kalean poliziak ez zuen beste sarekadarik egin, eta holandarrek ez zuten grebarik egin berriz). Nolanahi ere, bi faktorek eutsi zieten juduen aurkako neurriek Holandan aurkitzen zuten etsaitasun zabalari eta holandar herriak antisemitismoaren aurrean zuen immunitate erlatiboari, eta, azkenean, bata zein bestea zorigaiztokoak izan ziren juduentzat. Aurrena, bazen Holandan mugimendu nazi bat oso indartsua, eta lasai eman ziezaiokeen hari juduak beren ezkutalekuetatik atereaz harrapatzeko eta bestelako neurriak bideratzeko eginkizuna; bigarren, bertako juduek holandar juduak eta kanpokoak erabat bereizteko joera zuten, segur aski holandar gobernuak Alemaniatik heldutako iheslariengana zuen jarrera desatseginak eragina, eta berebat, agian, Holandako antisemitismoa, Frantziakoa bezalaxe, gehienbat atzeritar juduen kontrakoa izateak eragina. Horren guztiaren ondorioz, nazientzat nahiko erraza izan zen Holandako judu-kontseilua osatzea, *Joodsche Raad* zeritzana, zeinaren kideak sinetsita egon baitziren luzaroan deportazioen biktimak aleman eta atzeritar juduak besterik ez zirela izango, eta, berebat horren ondorioz SSek polizia-indar juduen laguntza izan zuten, holandar polizia-unitateena izateaz gainera. Haren guztiaren emaitza Mendebaldeko beste inongo lekutan parekorik izan ez zuen hondamendi bat izan zen; bakar-bakarrik konpara daiteke, guztiz desberdina eta hasieratik bertatik erabat etsia zen egoeran gertatu zelarik, Poloniako juduen suntsiketarekin. Nahiz eta Herbehereetan, Polonian ez bezala, herritarren jarrerari esker judu asko ezkutatu zen —hogei-hogeita bost mila bitarte, oso kopuru altua horrelako herrialde txikia izateko—, isilgordean bizi izan zen judu kopuru harrigarri handi bat, erdiak gutxiena, aurkitua izan zen, zelatari profesionalen eta noizbehinkakoen bitartez inondik ere. 1944ko uztaileko, ehun eta hogeita hamar mila judu ziren deportatuak, gehienak Sobiborrera. Sobibor Poloniako Lublineko eskualdean zegoen esparru bat zen, Bug ibaiaren ondoan, eta han ez zen inoiz langile fisikoki gaituen aukerarik egiten. Holandan bizi ziren judu guztietatik hiru laurden akabatu zituzten; hirutik bi holandarrak ziren jaiotzez. Azken garraialdia 1944ko udazkenean abiatu zen, aliatuen patruilak Holandako mugan zirenean. Ezkutatu eta bizirik atera ziren hamar mila juduetatik, ehuneko hirurogeita hamabost inguru kanpotarrak ziren: holandar juduek ez ziotela errealtateari aurre egin nahi izan argi adierazten duen kopurua.

Eskandinaviako herrialdeetan, bereziki Norvegian eta Danimarkan, traba handiak izango zituztela iragarri zuen Wannseeko Konferentzian, Atzerriko Arazoetako Ministerioiko Martin Lutherrek. (Suedia ez zuten alemanek okupatu, eta Finlandia, nahiz eta gerran Ardatzaren aldean egon, herrialde bakarra izan zen naziek juduen auzia ia ukitu ere egin ez zutena. Finlandiako salbuespen harrigarria, bertan bi mila judu inguru bizi zirelarik, Hitlerrek finlandiarrei zien estimazio handiaren ondoriozkoa izan daiteke, agian ez zituelako mehatxuen eta xantaia umiliagarriaren mende jarri nahi). Lutherrek Eskandinaviako deportazioak atzeratzea proposatu zuen, eta Danimarkari zegokionez, herrialdeak bere gobernu burujabeari eutsi zion, eta alemanek estatu neutral gisa errespetatu zuten 1943ko udazkena arte, nahiz eta aleman armadak 1940ko apirilean inbaditu hura eta Norvegia. Danimarkan ez zegoen aipatzea merezi zuen mugimendu faxista edo nazirik, eta, hortaz, kolaborazionistarik ere ez zen. Norvegian, berriz, alemanek jarraitzaile suharrak aurkitu zituzten; hala, Norvegiako alderdi nazi eta antisemitaren buruzagiak, Vidkun Quisling-ek, bere izena eman zion geroago «quisling gobernu» deituko zitzaionari, hau da, «txotxongilo-gobernu». Norvegiako hamazazpi mila juduetatik, gehien-gehienak estatugabeak ziren, Alemaniatik heldutako iheslariak; 1942ko urrian eta azaroan atxilotu eta espetxeratu zituzten, zenbait ekimen lasterretan. Eichmannen bulegoak haiek denak Auschwitzera deportatzeko agindu zuenean, Quislingen gobernuako kide batzuek dimisioa eman zuten. Agian hura ez zen sorpresa izan Luther jaunarentzat eta Atzerriko Arazoetako Ministerioarentzat, baina askoz ere gauza serioagoa izan zen, eta, inondik ere, guztiz esperogabea, suediarrek berehala babesa eskaintzea, eta zenbaitetan baita suediar herritartasuna ere, esesten zituzten guztiei. Ernst von Weizsäcker-ek, Atzerriko Arazoetako Ministerioiko Estatu idazkariordeak, suediarren proposamena jaso zuelarik, gogoan hartu ere ez zuen egin, baina eskaintza hura, hala ere, onuragarria izan zen. Nahiko gauza erraza izaten da herrialde batetik legez kanpo ihes egitea, baina ia guztiz ezinezkoa da babes-herrian baimenik gabe sartzea eta immigrazioko agintariak saihestea. Hortaz, bederatzehun lagun inguru, Norvegiako judu-komunitate txikiaren erdia baino gehixeago, isilgordean igaro ahal izan zen Suediara.

Danimarkan, nolanahi ere, ulertu zuten alemanek Atzerriko Arazoetako Ministerioak bazuela zertan ikaratu. Danimarkar juduena *sui generis* istorio bat da, danimarkar herriaren eta gobernuaren

jokamoldea berezia izan baitzen Europako herrialde guztien ondoan, izan herrialde okupatuak, izan Ardatzekoak, neutralak edo egiaz burujabeak. Tentazioa sortzen zaio bati istorio hau zientzia politikoko ikasle guztiei nahitaezko irakurketa gisa gomendatzeko, ikas dezaten egintza ez-biolentoak eta erresistentziak nolako indar ikaragarria duten bitarteko askoz ere bortitzagoak dituen etsai baten kontra. Egia esatera, Europako beste herrialde batzuek ere falta izan zuten behar bezalakoa «judu-auziaren ulerpena», eta «errotikako» eta «azken» soluzioen kontrakoak ziren gehienak. Danimarka bezala, antisemitismoaren aurrean ia immuneak gertatu ziren Suedia, Italia eta Bulgaria, baina Alemaniaren eraginpean zeuden hiruretatik, daniarrak bakarrik ausartu ziren beren aleman nagusiei gai hartaz ageriki hitz egitera. Italiak eta Bulgariak sabotajea egin zieten alemanen aginduei, engainu-eta traizio-joko nahasi batean sartu ziren, eta, tolesgabetasunez eta balentriaz, juduak salbatu zituzten, baina nazien politikabideari berari ez zioten inoiz erantzun. Daniarrek egin zutena guztiz bestelakoa izan zen. Alemanak etorri zitzaizkienean, arreta handiz, juduek banda horia erabili behar zutela esanez, daniarren erantzuna izan zen erregea izango zela izarra eramaten aurrea, eta adierazi zuten gobernuko kideek juduen kontrako neurriak, zirenak zirela, bertatik beren dimisioa eragingo zutela. Auzi honetan guztian erabakigarria izan zen alemanek ez zutela arrakastarik izan ezta bereizketa nagusia egiten ere, hau da, jatorri juduko daniar herritarrak alde batetik (sei mila lauhun), eta mila eta lauhun aleman judu iheslariak bestetik; gerra baino lehen aurkitu zuten iheslariak babesa Danimarkan, eta aleman gobernuak estatugabeak deklaratu zituen. Daniarren ukoak guztiz ustekabea harrapatu behar izan zituen alemanak, guztiz gauza «ilogikoa» ematen baitzuen gobernu batek herritartasuna eta lanerako baimena zeharo galarazi zien pertsonak babestea gero. (Legez, Danimarkako juduen gerra aurreko egoera ez zen Frantzian zutenaren oso bestelakoa, baina, Frantziako Hirugarren Errepublikako ustelkeria zabaldua zela medio, batzuen batzuek herritartasun-dokumentuak eskuratu ahal izan zituzten, eroskeriaren bidez edo «harremanen» bidez, eta Frantzian zeuden iheslari gehienek lan egin zezaketen, lan-baimenik ez izan arren. Baina Danimarka, Suitza bezala, ez zen *se débrouiller* erraza zen herria). Daniarrek, nolanahi ere, azaldu zieten aleman funtzionarioei, iheslari estatugabeek aleman herritartasuna galdua zutenez gero, naziak ezin zirela daniarren onespenez gabe haiez

jabetu. Huraxe izan zen estatugabea izatea aldekoa gertatu zen kasu bakanetako bat, nahiz eta, jakina, ez zituen estatugabea izateak berak juduak salbatu, baizik eta daniar gobernuak haiek babesteko erabakia hartu izanak. Hala, sarraskiaren burokraziarentzat hain garrantzitsuak ziren prestakuntza-mugimenduetatik ezin izan zen batere bideratu, eta ekimenak 1943ko udazkena arte atzeratu ziren.

Zinez harrigarria izan zen orduan gertatu zena; Europako beste herrialdeetan gertatu zenarekin konparatuta, hankaz gora joan zen dena. 1943ko abuztuan —aleman erasoaldiak Errusian huts egin, Afrika Korps-ak Tunisian errenditu eta aliatuek Italia inbaditu ondoren—, Suediako gobernuak 1940an Alemaniarekin egin zuen hitzarmena ezeztatu zuen, aleman osteei Suediako lurraldetik igarotzeko baimena ematen ziena. Haren ondorioz, daniar langileek laguntzea erabaki zuten, gauzak lasterragotuz; matxinadak izan ziren Danimarkako ontzioletan, kaietako langileek uko egin zioten aleman itsasontziak konpontzeari eta grebara joan ziren. Aleman komandante militarrek larrialdi-egoera aldarrikatu zuen eta gerra-legea ezarri zuen, eta Himmlerrek erabaki zuen huraxe zela judu-auziari heltzeko une egokia, aspalditik dilindan baitzegoen haren «soluzioa». Ez zuen, ordea, gogoan hartu, daniarren erresistentziaz gainera, bertan bizitzen urteak zeramatzaten aleman ofizialak ez zirela lehengo berak. Hala, von Hanneken jeneralak, komandante militarrek, ezetza eman zion bere osteak Werner Best Reicheko ahalguztidunaren esku jartzeari; Danimarkan enplegaturiko SSetako unitate bereziek (*Einsatzkommando*) sarritan kontra egiten zieten «erakunde zentralak agintzen zituen neurriei», Bestek Nurenbergen adierazitakoaren arabera. Eta Best bera, Gestapoko aspaldiko kidea eta Heydrichen lege-aholkulari ohia, orduan famatua zen poliziar buruzko liburu baten egilea, Parisko gobernu militarrean bere nagusien gogara lan egin zuena, hura ere ez zen jadanik fidagarria, nahiz eta ez dakigun zenbateraino jakin ote zen hori Berlinen. Hala ere, argi zegoen, hasieratik, gauzak ez zirela ondo joango, eta Eichmannen bulegoak bere gizon hoberenetako bat bidali zuen Danimarkara: Rolf Günther, inork inoiz beharrezko «gogortasun errukigabe» hura ez izatea leporatu ez ziona. Güntherrek ez zien inolako zirrararik eragin bere Kopenhageko kideei, eta, areago, von Hannekenek ezetza eman zion dekretu bat emateari judu guztiak lanean aurkezteko eskatuz.

Bestek, Berlina joanda, agintza bat eskuratu zuen, Danimarkako judu guztiak Theresienstadtera bidaliko zituztela zioena, kategoriarik

bereizi gabe; oso kontzesio garrantzitsua, nazien ikuspuntutik. Urriaren 1eko gaua finkatu zen juduak atxilotu eta segituan abiatzeko —ontziak prest zeuden portuan—, eta ez daniarrak, ez juduak, ez Danimarkan zeuden aleman osteak, ez baitziren lan hartarako fidagarriak, zenbait polizia-unitate heldu ziren Alemaniatic, atez ateko bilaketa bat egiteko. Azkeneko unean, Bestek esan zien ezin zirela etxeetan indarrez sartu, hala eginez gero daniar poliziak esku har zezakeen-eta, eta ez zitzaien komeni daniarrekin arazoak sortzea. Hala, bada, ateak beren borondatez zabaldu zituzten juduak baizik ezin izan zituzten harrapatu. Zehatz-mehatz, 477 lagun aurkitu zituzten, 7.800tik gorako kopuru batetik, etxean zeudenak eta sartzen utzi zietenak. Kondenazio-eguna baino egun batzuk lehenago, aleman kontsignatario batek, Georg F. Duckwitz-ek, segur aski Bestek berak eskupekoa emanda, plan osoa azaldu zion daniar gobernuari, eta hark, bere aldetik, segituan eman zien haren berri judu-komunitatearen buruei. Haiek, beste herrialdeetako buruzagi juduek ez bezala, argi eta garbi eman zituzten albisteak sinagogetan, Urte Berriko ospakizunetan. Juduek justu-justu izan zuten etxetik atera eta ezkutatzeako astia, eta hori oso gauza erraza zen Danimarkan, zeren, epaiaren hitzetan, «daniar herriaren alderdi guztiak, erregearengandik hasita eta hiritar arruntarenganaino», prest baitzeuden juduak hartzeko.

Gerra bukatu arte ezkutatzeako modua izango zuten, baldin daniarrek Suedia aldamenean edukitzearen bedekazioa izan ez balute. Arrazoizko gauza ematen zuen juduak Suediara bidaltzea, eta halaxe egin zen, Danimarkako arrantza-ontzidiaren laguntzarekin. Bitartekorik gabeko jendearen garraioaren kostua —ehuna dolar inguru— gehienbat daniar herritar aberatsek ordaindu zuten, eta huraxe izan zen beharbada egitandi denetan harrigarriena; izan ere, garai hartan juduak beren deportazioak ari ziren ordaintzen, eta judu aberatsek sekulako dirutzak ordaintzen zituzten irteera-baimenak eskuratzeako (Holandan, Eslovakian, eta, geroago, Hungarian), bai tokiko agintariak erosiz, bai SSekin «legalki» negoziatuz; SSek dibisa sendoa baizik ez zuten onartzen, eta irteera-baimenak saltzen zituzten Holandan, bosna edo hamarna mila dolarretan. Juduek egiazko ulerpena eta laguntzeko borondatea aurkitzen zuten lekuetan ere, ordaindu beharra izaten zuten, eta, hala, jende behartsuaren ihes egiteko aukerak hutsak izaten ziren.

Urriko hilabete osoa behar izan zen kasik judu guztiek Danimarka eta Suedia bereizten dituen bost eta hamabost milia bitarteko itsas tartea igarotzeko. Suediarrek 5.919 iheslari hartu zituzten; haietatik, gutxiena 1.000 alemanak ziren jatorriz, 1.310 erdi-juduak ziren, eta 686 juduekin ezkonduko ez-juduak. (Dirudienez, daniar juduen erdiak ia Danimarkan bertan geratu ziren, eta ezkutaturik bizi izan ziren gerra bukatu zen arte). Judu ez-daniarrak sekula baino hobeto bizi izan ziren, lanerako baimena eman baitzitzaien denei. Aleman poliziak atxilotu ahal izan zituen ehunka judu bakanak Theresienstadtera bidali zituzten. Zaharrak eta behartsuak ziren, albisteak garaiz hartu ez zituztenak edo behar bezala ulertu ez zituztenak. Ghettoan, beste talde guztiak baino hobeto tratatzen zituzten, daniar erakundeek eta pertsona pribatuek haiei buruz sortzen zuten «iskanbila» amaigabeak zirela-eta. Berrogeita zortzi hil ziren, aski kopuru apala, taldearen batez besteko adina kontuan hartuz gero. Dena bukatu zenean, dirudienez, «zenbait arrazoiengatik, Danimarkako juduen kontrako ekimenak huts egin duela» zen Eichmannen iritzia, eta aldi berean honako hau adierazi zuen Best doktore bitxiak: «Operazioaren helburua ez zen judu kopuru handi bat atxilotzea, Danimarka juduz garbitzea baizik, eta helburu hori bete da».

Politikoki eta psikologikoki, Danimarkako aleman agintariek bete zuten eginkizuna bide da gertaera haietako punturik interesgarriena, Berlingo aginduei sabotajea egin baitzieten inondik ere. Ezagutzen dugun kasu bakarra da naziek bertakoen erresistentzia aktiboari aurre egin behar izan ziotena, eta horren emaitza izan zen, dirudienez, aldatu egin zela erresistentzia hura ezagutu zutenen ikusmoldea. Haiek ere herri oso bat garbitzea ez zela gauza normala konturatu ziren nonbait. Printzipioetan oinarrituriko erresistentzia batekin topo egin zutenean, haien «gogortasuna» gurina eguzkitan bezala urtu zen; areago, egiazko ausardiaren hastapen herabeak erakusten hasteko gauza ere izan ziren. Nurenbergeko Juizioetan ezin argiago agertu zen «gogortasun» haren ideala, astakirten erdi ero batzuen kasuan izan ezik, nork bere burua engainatzeko mito bat besterik ez bide zela izan, edozein preziotako konformidadearen desira errukigabea baino ezkututzen ez zuena; Nurenbergeko akusatuek krimenak leporatu eta traizioa egin zioten bata besteari, mundu osoari segurtatuz «haren kontra egon zirela beti», geroago Eichmannek beraren ezaugarririk hoberenak nagusiek «gaizki erabili zituztela» segurtatuko zuen bezala. (Jerusalem, 1961).

«boterean zeudenei» beraren «esanekotasuna» gaizki erabili izana leporatu zien. «Gobernu on baten mendekoa dena zorionekoa da, gobernu txar baten mendekoa dena zoritxarrekoa. Nik ez nuen zori onik izan»). Nurenbergen giroa aldatua zen, eta nahiz eta auziperatu gehienek kondenatuak zeudela behar zuten jakin, haietako batek ere ez zuen ideologia nazia defendatzeko bezainbesteko adorerik izan. Werner Bestek joko bikoitz neketsu bat egin zuela esan zuen Nurenbergen, eta berari eskerrak jakinarazi zitzaizela daniar funtzionarioei hondamendi bat zetorrela; dokumentuzko frogek, aitzitik, erakusten zuten Bestek berak proposatu zuela Berlinen Danimarkako operazioa, baina, haren azalpenen arabera, hura ere jokoaren partea zen. Danimarkara estraditatu eta hiltzera kondenatu zuten, baina Bestek gora jo zuen epaiaren aurka, emaitza harrigarriekin; «froga berriak» zirela medio, epaia kartzelako bost urtegatik konmutatu zuten, eta handik gutxira aske utzi zuten. Daniar auzitegia asetzeko moduan frogatuko zuen inondik ere, egiazki, ahal zuen guztia egiten ahalegindu zela.

Italia zen Alemaniak Europan zeukan egiazko aliatu bakarra, berdintzat tratatzen eta estatu independente burujabe gisa errespetatzen zuena. Hitzarmena, ustez, bi herrialdeen interes komunean oinarritzen zen, eta bi gobernu mota berri elkarren antzekoek lotzen zituen, berdinberdinak ez izan arren; bestalde, egia da Mussolini biziki miretsia izan zela garai batean Alemaniako zirkulu nazietan. Baina gerra hasi eta Italia, zenbait dudaren ondoren, Alemaniaren alde berean sartu zenean, hura guztia iraganeko gauza zen. Naziak ondo zekiten askoz gauza gehiago zituztela Stalinen komunismoaren antzekoak Italiako faxismoaren antzekoak baino; Mussolinik berak ez zuen oso uste onik Alemanian, eta ez zuen Hitler askorik miresten. Hura guztia, nolanahi ere, gorenekoen sekretua zen, Alemanian batez ere, eta gobernu mota totalitarioaren eta faxistaren arteko alde handi, erabakigarriak, munduak oro har ez zituen inoiz osorik ulertu. Alde haiek inon ez ziren argiago agertu judu-auzia bideratzeko moduan baino.

Badoglioren 1943ko udako *coup d'état*aren aurretik, alemanek Erroma eta Italiako iparraldea okupatu baino lehen, Eichmanni eta haren gizonari ez zitzaion Italian jarduten utzi. Are gehiago, Italiak Frantzia, Grezia eta Jugoslavian okupaturiko eremuetan ezer ere ez konpontzeko italiar moduari aurre egin behar izan zioten, zeren judu esetsi guztiek eremu haietara ihes egiten baitzuten, haietan aldi baterako

babesa aurkitzen baitzuten. Eichmannen mailan baino askoz ere gorago, Italiak Azken Soluzioari egin zion sabotajea garrantzi handikoa izatera heldu zen, batez ere Mussolinik eragin handia zuelako Europako beste gobernu faxisten gainean: Pétainen gobernuan Frantzia, Horthyrenean Hungaria, Antonescurenean Errumanian, eta baita Francorenean ere, Espainian. Italia ondo moldatzen bazen bere juduak akabatu gabe, Alemaniaren herrialde sateliteek ere gauza bera egin zezaketen. Hala, Dome Sztojai-k, alemanek Horthyri indarrez ezarritako hungariar Lehen Ministroak, juduen aurkako neurriak etortzen zirenean, Italian araubide berberak aplikatzen ote ziren jakin nahi izaten zuen beti. Eichmannen nagusiak, Müller *Gruppenführer*ek, gai hari buruzko gutun luze bat idatzi zion Atzerriko Arazoetako Ministerioari, baina Atzerriko Arazoetako Ministerioko jaunek ezin izaten zuten gauza handirik egin, erresistentzia lauso berbera, agintza berak eta agintza haiek betetzeko hutsegite berberak aurkitzen baitzituzten betiere. Sabotajea are sumingarriagoa zen agerian egiten zelako, modu irrigarrian kasik. Aginduak Mussolinik berak edo goi-mailako beste funtzionario batzuek ematen zituzten, eta baldin jeneralek, besterik gabe, huts egiten bazuten agindu haiek betetzerakoan, Mussolinik desenkusatu egingo zituen, «bestelako prestakuntza intelektual» baten aitzakiarekin. Oso tarteka baizik ez zuten naziek ezezko biribila hartzen, adibide baterako Roatta jeneralak adierazi zuenean «italiar armadaren ohorearekin ezin adostuzko gauza» zela zegokien aleman agintariei ematea Italiak okupaturiko Jugoslaviako lurraldean zeuden juduak.

Gauzak askoz ere okerragoak izan zitezkeen italiarrek agintzak betetzen zituztela zirudienean. Halaxe gertatu zen, adibide baterako, aliatuak Afrikako Iparralde frantsesean lehorreratu zirenean, Frantzia osoa alemanek okupatua zegoen garaian, hegoaldeko italiar eremua izan ezik, non berrogeita hamar mila judu inguru lasai-lasai bizi baitziren. Alemanen presio handiaren pean, italiar «Judu Auzietarako Komisariotza» bat antolatu zen, eginkizun bakarra zuena, eskualde hartako judu guztiak erregistratu eta Mediterraneoko kostaldetik bidaltzea. Hala, hogeita bi mila judu hartu eta Italiar Eremuaren barnealdera eramane zituzten, eta haren emaitza zer izango, eta Reitlingerren arabera, «milaren bat judu, klaserik pobreenetakoak, Isère eta Savoiako hotelik hoberenetan bizitzen jarri zituztela». Eichmannek orduan Alois Brunner, bere gizon gogorrenetako bat,

bidali zuen Nizara eta Marseillara, baina hura heldu zen garairako, frantses poliziak suntsituak zeuzkan erregistratuak zeuden juduen zerrenda guztiak. 1943ko udazkenean, Italiak Alemaniari gerra deklaratu zionean, aleman armada joan ahal izan zen azkenean Nizara, eta Eichmann bera ere segituan joan zen Côte d'Azur-era. Han esan zioten —eta sinetsi zuen— hamar-hamabost mila judu Monakon ezkutaturik bizi zirela (printzerri txiki horrek hogeita bost bat mila egoiliar ditu guztira, eta lurralde osoa, *New York Times Magazine* azpimarratzen zuenez, «nekerik gabe sar daiteke Central Parken»), eta, haren ondorioz, RSHak bilaketa-programa baten antzeko bat jarri zuen abian. Italiar txiste tipiko bat ematen du. Juduak, nolanahi ere, joanak ziren ordurako; Italiara bertara ihes eginak ziren, eta artean inguruko mendietan ezkutaturik zeudenek asmatu zuten Suitzara edo Espainiara ailegatzen. Gauza bera gertatu zen italiarrek beren Jugoslaviako eremua utzi behar izan zutenean; juduek italiar armadarekin alde egin zuten eta Fiumen aurkitu zuten babesa.

Fartsako elementuak ez ziren inoiz falta izan, ezta Italiak bere adiskide eta aliatu indartsuenari egokitzeko egin zituen ahaleginik serioenetan ere. Mussolinik, alemanen presioaren pean, hogeita hamarren bukaeran juduen kontrako legedia aldarrikatu zuenean, ohiko salbuespenak ipini zituen —gerrako beteranoak, goi-mailako ohore-dominak zituzten juduak eta antzekoak—, baina beste kategoria bat erantsi zuen, Alderdi Faxistako kide ohiak, haien aita-ama eta aitona-amonekin, emazte eta seme-alabekin eta ilobekin. Ez dut gai honi buruzko estatistikarik ikusteko aukerarik izan, baina haren ondorioz italiar judu gehienak geratu ziren segur aski salbuetsiak. Oso familia gutxi izan zen kide bat behintzat Alderdi Faxistan ez zuenik, zeren garai hartan, juduek, gainerako italiarrek bezala, ia hogeit urte zeramatzaten mugimendu faxistan arrapaladan sartzen, administrazioko lanpostuak alderdikideentzat baizik ez baitzeuden zabalik. Eta beren printzipioengatik faxismoaren kontra agertu ziren judu bakanak, sozialistak eta komunistak gehienak, joanak ziren ordurako Italiatik. Italiar uste osoko antisemitak berak ere ez zuen ematen gauza serio hartzeko gai zirenik: hala, Roberto Farinaccik, italiar mugimendu antisemitaren buruak, idazkari judu bat zeukan lanean. Egia esatera, Alemanian ere izan ziren halakoak: Eichmannek esan zuen, eta ez dago zertan ez sinetsi, SS arruntan artean ere bazirela juduak, baina Heydrich, Milch eta halako beste zenbaiten jatorri judua

guztiz isilpeko kontua zen, pertsona bakan batzuek baizik ez zekitena, eta Italian, aldiz, gauza haiek denen agerian egiten ziren, eta, nolabait esateko, errugabeki. Igarkizunaren giltza zen, jakina, Italia zela, izan, Europako herrialde bakanetako bat juduen kontrako neurriak oso gaizki ikusiak zeudena, zeren, Cianoren hitzetan, «zorionez existitzen ez zen arazo bat sortzen zuten».

Asimilazioa, horren gaizki erabili den hitza, gauza egina zen Italian: Bertako judu-komunitateak berrogeita hamar mila italiar judu baizik ez zituen biltzen, baina haien historia Erromako Inperioko mendeetara heltzen zen. Ez zen ideologia bat, hots, sinetsi behar zen gauza bat, aleman hizkuntzako herrialdeetan bezala, edo mito bat edo nork bere burua ageriki engainatzea, Frantzia nabarmen gertatzen zen bezala. Italiar faxismoa, «gogortasun errukigabea» ez zezan inork gainditu, nazioa judu atzerritar eta estatugabez garbitzen saiatu zen gerra hasi baino lehen. Saio hark ez zuen arrakasta handirik izan, bigarren mailako italiar funtzionarioek ez baitzuten «gogor» jokatu nahi, eta, gauzak hil edo bizikoak bihurtu zirenean, italiarrek uko egin zioten, beren burujabetzari eusteko aitzakiarekin, beren judu-biztanleriaren parte hori abandonatzeari; horren ordeztu, juduak italiar esparruetan ipini zituzten, eta haietan salburik egon ziren, alemanek herria okupatu zuten arte. Jarrera hori nekez ager daiteke baldintza objektiboen bitartez bakarrik —«judu-auzi» baten falta—, atzerritar juduek berez sortzen baitzuten arazo bat Italian, biztanleen homogeneotasun etniko eta kulturean oinarrituriko Europako nazio-estatu guztietan sortzen zuten bezala. Danimarkan egiazko sen politiko baten, herritartasunaren eta independentziaren eskakizunen eta erantzukizunen berezko ulerpen baten emaitza izan zena —«daniarrentzat... juduen auzia auzi politikoa zen, ez humanitarioa» (Leni Yahil)—, Italian herri zahar eta zibilizatu baten gizatasun orokor ia automatiko baten emaitza izan zen.

Italiar gizatasunak, areago, gerrako azken urte eta erdian herriari etorri zitzaion izumenaren frogari eutsi zion. 1943ko abenduan, Alemaniako Atzerriko Arazoetako Ministerioak laguntza-eskaera formal bat egin zion Eichmannen nagusiari, Müllerri: «Azken hilabeteotan italiar funtzionarioek Duceak gomendaturiko juduen kontrako neurrien inplementazioan erakutsi duten lehia falta ikusirik, guk, Atzerriko Arazoetako Ministeriokook, larritzat eta premiazkotzat

jotzen dugu inplementazio hori... aleman funtzionarioek ikuskatzea». Haren ondorioz, Poloniako judu-hiltzaile famatuak, Odilo Globocnik besteren artean, Lublin aldeko hilkintza-esparruetakoa, bidali zituzten Italiara; administrazio militarren burua bera ere ez zen armadako gizona, Poloniako Galitziako gobernari-ohi bat baizik, Otto Wächter *Gruppenführer*a. Hantxe bukatu ziren txorakeriak. Eichmannen bulegoak zirkular bat bidali zuen, bere mendekoei iragarritz «italiar herritartasuneko juduei» lehenbailehen behar zitzaizkiela «beharrezko neurriak» aplikatu. Lehenengo kolpea Erromako zortzi mila juduei emango zitzaien; aleman polizia-erregimentuek atxilotu behar zituzten, italiar polizia fidagarria ez zenez gero. Garaiz abisatu zieten, kasu askotan Alderdi Faxistako kide zaharrek, eta zazpi mila lagunek ihes egin zuten. Alemanek, erresistentzia topatzen zutenean egin ohi zuten bezala, amore eman zuten eta onartu zuten italiar juduak, nahiz eta kategoria salbuetsitakoak izan ez, ez zirela deportatu behar, baizik eta, besterik gabe, italiar esparruetan behar zirela kontzentratu; «soluzio» hura aski «azkena» izango zen Italiarentzat. Italiako iparraldeko hogeita hamabost judu inguru atxilotu eta Austriako mugatik gertu zeuden kontzentrazio-esparruetara eraman zituzten. 1944ko udaberrian, Armada Gorriak Errumania okupatu eta aliatuak Erroman sartzekoak zirenean, alemanek agindutakoa hautsi eta judu haiek Italiatik Auschwitzera bidaltzen hasi ziren, zazpi mila bostehun inguru, zeinetarik ez baitziren seiehun baino gehiago itzuli. Hala ere, Italian bizi ziren judu guztien ehuneko hamar baino dezente gutxiago zen.

XI: BALKANETAKO DEPORTAZIOAK: JUGOSLAVIA, BULGARIA, GREZIA, ERRUMANIA

Fiskalaren akusazioari arretaz jarraitu ziotenak eta «irudi orokor» nahasia eta nahasgarria berregiten zuen epaia irakurri zutenak, harrituta geratu ziren ikusirik ez zela inoiz lerro zorrotz hori aipatzen, Europa Erdialdeko eta Mendebaldeko nazio-estatuaren sistematik ekialdera eta hego-ekialdera zeuden nazien mendeko lurraldeak bereizten zituen. Iparraldetik Itsaso Baltikoraino eta hegoaldeetik Adriatikoraino doan biztanleria nahasiko gerrikoa, gaur egun ia osorik Burdinazko Hesiaren beste aldean dagoena, Estatu Oinordekoak deitzen ziren orduan, eta botere irabazleek ezarritakoak ziren, Lehen Mundu Gerraren ondoren. Antolamendu politiko berria eman zitzairen gizaldi askoan inperioen aginpidearen mende bizi izan ziren talde etniko ugariak: Errusiako Inperioa iparraldean, Austria-Hungariako Inperioa hegoaldean, eta Turkiako Inperioa hego-ekialdean. Haietatik sortu ziren nazio-estatuetatik, batek ere ez zeukan politikoki osatzeko eredutzat hartu zituzten Europako nazio zaharretako homogeneotasun etnikoa. Horren ondorioz, agintean zegoen gobernuaren etsai amorratuak ziren talde etniko handiak bizi ziren herrialde haietan guztietan, haien nazio-xedeak zapuztuak geratu baitziren kopuruz gehixeago baino ez ziren beren auzokoen mesedetan. Estatu sortu berri haien egongaitasun politikoaren frogarik behar bazen, Txekoslovakiako kasuak eman zuen. Hitler 1939ko martxoan joan zen Pragara, eta harrera bero-beroa egin zioten, *Sudetendeutschen* aleman gutxiengoak ez ezik, baita eslovakiarrek ere, «askatu» egin baitzituen, estatu «independente» bat eskainiz. Gauza berbera gertatu zen Jugoslavian gero; bertan, naziak etsaitzat hartu zuten serbiar gehiengoa, herrialdearen agintaritza izandakoa, eta kroaziar gutxiengoari berriz gobernu nazionala eman zitzaion. Are gehiago, eskualde haietako biztanleak ere ez ziren berberak beti, ez baitzegoen muga natural edo historikorik, eta Trianon eta St.

Germaineko Itunek ezarri zituztenak nahiko arbitrarioak ziren. Hortaz, ez zen batere zaila Hungaria, Errumania eta Bulgaria Ardatzarentzat irabaztea, haien lurraldeak eskuzabalki handituz. Eremu anexionatu berri haietako juduei beti ukatu zitzairen herritartasuna; judu haiek estatugabeak bihurtu ziren automatikoki, eta, hortaz, Mendebaldeko Europako iheslarien patu bera izan zuten: haiek izaten ziren beti aurreneko deportatuak eta erailak.

Urte haietan hautsi zen, halaber, gutxiengoaren estatutuen sistema landua, zeinaren bidez aliatuek nazio-estatuaren egitura politikoaren baitan ezin konponduzkoa zen arazo bat konpontzea espero baitzuten, alferrik ordea. Juduak ofizialki onetsiriko gutxiengoa ziren Estatu Oinordeko guztietan; estatus hori ez zitzairen indarrez ezarri, aitzitik, haien ordezkariak Versailleseko Bake Konferentzian egindako eskaeren eta bideraturiko negoziazioen emaitza izan zen. Aldaketa-une garrantzitsua izan zen hura juduen historian, aurreneko aldia izan baitzen Mendebaldeko juduak edo judu asimilatuak herri judu osoaren ordezkari gisa ezagutu ez zirena. Harriturik, eta baita zenbaitetan atsekabeturik ere, Mendebaldean hezitako judu «gailenak» ohartu ziren judu gehien-gehienek autonomia-modu sozial eta kultural bat nahi zutela, ez ordea autonomia politikoa. Legearen aldetik, Ekialdeko Europako juduen estatusa beste gutxiengo guztiena bezalakoa zen, baina politikaren aldetik —eta hori erabakigarria izango zen— eskualdeko talde etniko bakarra zen «aberri» gabea zena, hau da, biztanleriaren gehiengoa izanik lurralde bat ez zeukana. Hala ere, judu haiek ez ziren Mendebaldeko eta Erdialdeko Europako kideak bezain sakabanaturik bizi, Mendebaldean eta Erdialdean, Hitler baino lehenago, judu bati judu deitzea antisemitismo-seinalea izan baitzen; Ekialdeko Europako juduak, berriz, adiskideek zein etsaiek, denek, jende berezitzat hartzen zituzten. Garrantzi handiko ondorioak izan zituen horrek Ekialdeko judu asimilatuen estatusarentzat, eta Mendebaldeko judu asimilatuen estatusaren guztiz bestelakoa bihurtu zuen, tankera bateko edo besteko asimilazioa baitzen Mendebaldean araua. Ekialdean ez zen existitzen Mendebaldeko eta Erdialdeko Europan hain ohikoa zen klase ertaineko juduen talde handia; Ekialdean, klase goren-ertaineko familiez osaturiko geruza mehe bat zegoen, agintarien klasekoa zena, eta haien asimilazio-maila gizarte jentilean —diruaren, bataioaren, ezkontzaren bidez— askoz ere handiagoa zen Mendebaldeko judu gehienena baino.

Azken Soluzioaren eragileek egoera horrekin topo egin zuten aurreneko herrialdeetako bat Kroaziako txotxongilo-gobernua izan zen, Jugoslavian, hiriburua Zagreb zena. Kroaziar gobernua, Ante Pavelic doktorearen buruzagitzapean, gobernua sortu eta handik hiru astera aplikatu zuen zintzo-zintzo juduen kontrako legedia, eta galdetu zitzaionean zer egin behar zen Alemanian ziren kroaziar judu bakanekin, idazki bat bidali zuen «estimatuko zuela Ekialdera deportatzea» esanez. Barne Ministerioko Reicheko Ministroak adierazi zuen 1942ko otsailerako Kroaziak *judenrein* behar zuela egon, eta Eichmannek Franz Abromeit *Hauptsturmführer*a bidali zuen Zagreben zegoen aleman polizia atxikiarekin lan egitera. Deportazioak kroaziarrek egiten zituzten, gehienbat bertako Ustasa edo Ustashi mugimendu faxista indartsuko kideek berek; kroaziarrek naziei hogeita hamarna marko ordaintzen zieten judu deportatu bakoitzeko, eta deportatuen jabetza guztiak hartzen zituzten ordainetan. Alemanen «lurralde-printzipioaren» ondoriozkoa zen printzipio hura Europako herrialde guztietan aplikatzen zen, eta, haren arabera, estatuak heredatzen zuen bere mugen barnean egondako judu erail ororen jabetza, haren herritartasuna gorabehera. (Naziek ez zuten «lurralde-printzipioa» beti errespetatu; modu asko zeuden delako printzipioa alboratzeko, merezi bazuen. Aleman negozio-gizonek zuzenean erosten zizkieten juduei beren jabetzak deportatuak izan baino lehen, eta Rosenberg *Einsatzstab* delakoak, hasieran Hebraica eta Judaica guztiak (hebrear eta judu-gaietako literatura- edo historia-materialak) konfiskatzeko ardura zuenak, aleman ikerketa-zentro antisemitetara eramateko gero, laster zabaldu zituen bere jarduerak, eta altzari eta artelan baliotsuak konfiskatzeaz ere arduratu zen). 1942ko otsaileko hasierako epea ezin izan zen bete, Kroaziatik Italiak okupaturiko lurraldera ihes egin baitzuten juduek, baina Badoglioren estatu-kolpearen ondoren Eichmannen beste gizon bat, Hermann Krumei, heldu zen Zagrebera, eta 1943ko udazkenerako baziren hogeita hamar mila judu hilketa-zentroetara deportatuak.

Orduan konturatu ziren alemanak herrialdea ez zegoela artean *judenrein*. Juduen kontrako hasierako legedian, bazen paragrafo bitxi bat, «kroaziar kausari» ekarpenak egin zizkieten judu guztiak «ariar ohorezko» bihurtzen zituen. Judu haien kopurua, jakina, asko hazi zen urte haietan. Bestela esanda, aberats-aberatsak, jabetzak beren borondatez uzten zituztenak, salbuetsi egiten zituzten. Are

interesgarriagoa zen beste gertaera bat, SSen Inteligentzia Zerbitzuak (*Sturmabführer* Wilhelm Höttl-en gidaritzapean, zeina defentsaren lekuko gisa eraman baitzuten Jerusalemara, baina fiskalak erabili zuen gero haren lekukotasuna) jakin zuena: Kroaziako agintarien taldeko kide gehien-gehienak, gobernuburutik hasita Ustasako buruzagiaraino, emakume juduekin ezkonduak zeuden. Eremu honetan izan ziren mila eta bostehun bizitarakoak, guztien ehuneko bost, Jugoslaviako gobernuaren txosten baten arabera, judu talde arrunt asimilatu eta ikaragarri aberats hartako kideak ziren denak. Eta judu asimilatuak ehunekoa, Ekialdeko masen artean, estimazio askoren arabera, ehuneko bost zenez gero, tentagarria da ondorioztatzea asimilazioak Ekialdean, aukerarik izanez gero, askoz aukera gehiago eskaintzen zuela bizirik ateratzeko Europako gainerako lekuetan baino.

Aipatu dut lehenago Eichmann Serbiako juduen hilkintzarekin lotzen zuen gertaera bakarra. Epaiak onartzen zuenez, «Serbiako juduekin zerikusia zuen ohiko aginte-sarea ez da argia guretzat», eta horren zergatia da Eichmannen bulegoak ez zuela han batere zerikusirik izan, Serbian ez zelako judurik deportatu: hantxe bertan heldu zitzaion «arazoari». Partisanoen borrokan atxilo hartutako bahituak exekutatzeak aitzakiarekin, armadak fusilatu egin zituen gizon juduak; emakumeak eta haurrak Segurtasun Poliziako komandanteari eman zizkioten; Emmanuel Schäfer izeneko doktore bat zen hura, Heydrichen begiko berezi bat, eta gas-kamioetan hil zituen denak. 1942ko abuztuan, *Staatsrat* Harald Turner-ek, gobernu militarren adar zibilaren buruak, harrotasunez adierazi zuen Serbia zela «juduen nahiz ijitoen arazoa, biak, konpondu diren herrialde bakarra», eta Berlinera bidali zituen atzera gas-kamioiak. Bost mila judu inguru partisanoeekin elkartu ziren, eta huraxe izan zuten ihesbide bakarra.

Schafer juiziora eraman zuten gerraren ondoren, aleman zigor-auzitegi batean. Sei urte eta sei hilabeteko kartzelaldira zigortu zuten 6.280 emakume eta haur gaseztatzeagatik. Eskualdeko gobernari militarrek, Franz Böhme jeneralak, bere buruaz beste egin zuen, baina *Staatsrat* Turner Jugoslaviako gobernuaren eskuetan ipini zuten, eta heriotza-zigorra eman zioten. Istorio bera errepikatzen da behin eta berri: Nurenbergeko Juizioetatik ihes egin zutenak eta krimenak egin zituzten herrialdeetara estraditatu ez zituztenak, edo ez zituzten

auziperatu, edo Alemaniako auzitegietan izan daitekeen «ulerpenik» handiena aurkitu zuten. Zoritzarrez, Weimarko Errepublika etortzen zaio bati gogora, erailketa politikoa barkatzea baitzen haren espezialitatea, baldin hiltzailea errepublikaren kontrako eskuineko indarkeriazko taldeetako kidea bazen.

Bulgariak Balkanetako beste herri guztiek baino arrazoi gehiago zuen Alemania naziarekin estimatua egoteko, haren lurraldea aski zabaldu baitzuen, Errumania, Jugoslavia eta Greziari zatiak kenduta. Eta hala ere Bulgaria ez zegoen estimatua, eta ez gobernua ez herria ez ziren «gogortasun errukigabe» egingarritzko politika modu bat bideratzeko bezain bigunak izan. Bulgariako monarkiak ez zuen zertan bertako mugimendu faxistarekin kezkatu (Ratnizi), kopuruz txikia zelako, eta eragin politikorik gabea; Parlamentua, bestalde, erakunde errespetagarria zen, erregearekin elkarlanean arazorik gabe aritzen zena. Hala, bada, bulgariarrak Errusiari gerra ez deklaratzera ausartu ziren, eta ez zuten «boluntarioez» osaturiko espedizio talderik bidali Ekialdeko frontera. Baina, denetan harrigarriena, biztanleria nahasiko gerriko hartan, antisemitismoa talde etniko guztien artean gorantz zihoalarik eta Hitler ailegatu baino askoz ere lehenago gobernu-politika ofiziala bihurtu zelarik, bulgariarrek ez zuten «juduen arazoa ulertu». Egia da Bulgariako armadak onartu zuela judu guztiak lurralde anexionatu berrietatik deportatzea —hamabost mila inguru ziren—, haiek gobernu militar baten pean baitzeuden, eta bertako biztanleria antisemita zen; baina dudazkoa zen ba ote zekien «Ekialdean birkokatzea» esapideak egiaz zer esan nahi zuen. Lehentxeago, 1941eko urtarrilean, gobernuak berebat onartu zuen juduen kontrako lege batzuk aldarrikatzea, baina lege haiek, nazien ikuspuntutik, barregarriak ziren zeharo: sei bat mila gizon osasuntsu lanerako mobilizatu zituzten; judu bataiatu guztiak, kristautzearen data gorabehera, salbuetsi zituzten, eta horren ondorioz, kristautze-izurrite bat izan zen; beste bost mila juduri —guztira berrogeita hamabost mila inguru ziren— pribilegio bereziak eman zitzaizkien; eta *numerus clausus* bat ipini zen sendagile eta negozio-gizon juduentzat, aski altua, hirietako juduen ehunekoan oinarritzen zenez gero, eta ez landa aldeko juduen ehunekoan. Neurri haiek aplikatu zirenean, Bulgariako gobernuko ofizialek gauzak jende ororen gogara orekatuak zeudela adierazi zuten jendaurrean. Argi zegoen, naziek bulgariarrei «juduen auziaren soluzio» baten eskakizunak nolakoak ziren argitzeaz gainera,

berebat erakutsi beharko zietela lege-egonkortasuna eta mugimendu totalitarioa ezin direla adostu.

Aleman agintariak igarri behar izan zieten aurrean zeuzkaten eragozpenei. 1942ko urtarrilean, gutun bat idatzi zion Eichmannek Atzerriko Arazoetako Ministerioari, «Bulgariako juduak hartzeko moduan zegoela» adieraziz; Bulgariako gobernuarengana hurbiltzea proposatzen zuen, eta Sofiako poliziako atxikiak «deportazioaren inplementazio teknikoaz arduratuko zela» segurtatu zion Atzerriko Arazoetako Ministerioari. (Poliziako atxiki hark ere ez zuen nonbait bere lana oso gogo beroz hartu, eta, hala, Eichmannek bere gizonetako bat bidali zuen, Theodor Dannecker, Paristik Sofiara, «aholkulari» moduan). Merezi du azpimarratzea gutun hori hilabete batzuk lehenago Eichmannek Serbiara bidali zuen ohar baten kontra-kontrakoa zela, gauzak ez zeudela artean juduak hartzeko prest, eta Reicheko juduak ere ezingo zirela deportatu adieraziz. Bulgaria *judenrein* egiteko eginkizunari eman zitzaion lehentasuna bakar-bakarrik azal daiteke gogoan hartuz, ezer lortu nahi bazen, lastertasunez behar zela jokatu zioen informazioa jaso zela Berlinen. Hala, bada, Alemaniako enbaxadak bulgariararengana jo zuen, baina sei hilabete igaro ziren neurri «errotikakoen» norabideko aurreneko urratsa egin zuten arte. Nazientzat, hura ere desilusio handia izan zen. Hasteko, aleman enbaxadak nagusiei zintzo-zintzo bidali zien txosten batek zioenez, ezaugarria «izar txiki-txiki» bat besterik ez zen; bigarren, judu gehienek ez zuten soinean eramaten; eta, hirugarren, eramaten zutenek «hainbeste atxikipen-erakutsi [hartzen dute] biztanleria engainatuarengandik, non azkenean ikurraz harrotzen baitira», Walter Schellenberg-ek RSHako Kontraespionatzako Buruak Atzerriko Arazoetako Ministerioari 1942ko azaroan bidalitako txosten batean zioen bezala. Haren ondorioz, Bulgariako gobernuak izar horia eramateko dekretua baliogabetu zuen. Alemanen presio gogorrenaren pean, gobernuak azkenean Sofiako judu guztiak landa aldera bidaltzea erabaki zuen, baina neurri hura ez zen inondik ere alemanek eskatzen zutena, juduak, kontzentratu ez ezik, sakabanatu egin baitzituen.

Kanporatze hark, berez, egoera osoaren aldaketa garrantzitsu bat markatu zuen: Sofiako biztanleak juduak tren-geltokirako bidean geldiarazten saiatu ziren, eta ondoren manifestaldi bat egin zuten erregearen jauregiaren aurrean. Alemanen iritzi, bulgariar juduek izan

zuten babesaren erantzule nagusia Boris erregea zen, eta litekeena da erregea aleman espioitzako agenteek erail izana. Baina ez erregearen heriotzak, ez Dannecker-en etorrerak, 1943aren hasieran, ez zuten egoera batere aldatu, zeren Parlamentuak nahiz biztanleriak, argi eta garbi, juduen aldean jarraitzen baitzuten. Danneckerrek Bulgariako Judu Auzietarako Komisarioarekin sei mila «judu gailen» Treblinkara deportatzeko itun bat izenpetzea lortu zuen, baina judu haietatik bat ere ez zen Bulgariatik atera. Ituna bera azpimarratzekoa da, argiro erakusten baitu naziek ez zutela itxaropenik buruzagi juduak beren asmoetara ekartzeko. Sofiako errabino nagusia ez zegoen han, Sofiako Stephan metropolitanoak ezkutatu baitzuen, jendaurrean adierazi zuelarik «Jainkoak finkatu du juduen patua, eta gizonek ez dute eskubiderik haiek torturatzeko eta esesteko» (Hilberg); askoz ere gehiago izan zen hura Vatikanoko sekula egin zuena baino. Azkenean, Danimarkan hilabete batzuk geroago gertatuko zen gauza bera gertatuko zen Bulgarian: bertako aleman funtzionarioek, bere buruarekiko segurtasuna galdu zutelarik, fidagarritasuna ere galdu zuten. Halaxe gertatu zitzaion poliziako atxikiari, SSetako kidea bera, juduak bildu eta atxilo hartu behar zituena, eta beste horrenbeste gertatu zitzaion Adolf Beckerle Sofiako aleman enbaxadorearekin; Beckerlek 1943ko ekainean dena galdua zela iragarri zion Atzerriko Arazoetako Ministerioari, zeren «bulgariarrak luzeegi bizi izan dira armeniarrek, grekoak eta ijitoak bezalako jendearekin juduen arazoari antzemateko»: baina horrek, jakina, batere zentzurik ez zeukan, gauza bera esan baitzitekeen, *mutatis mutandis*, Europako ekialdeko eta hego-ekialdeko herrialde guztiei buruz. Berebat Beckerlek adierazi zion RSHAri, ageriki gogaiturik, ezin zela besterik egin. Eta horren emaitza izan zen bulgariar judu bakar bat ere ez zutela deportatu eta ez zela heriotza ez-naturalez hil, 1944ko abuztuan, Armada Gorria gertu zela-eta, juduen kontrako legeak baliogabetu zituztenean.

Biztanleria nahasiko gerrikoan bakarra izan zen bulgariar herriaren jokamoldea agertzen saiatu diren lanen berririk ez dut nik. Baina Georgi Dimitrov datorkio bati gogora, naziak boterera heldu zirenean Alemanian zegoen bulgariar komunista bat, eta *Reichstagsbrand*, 1933ko otsailaren 27an Berlingo Parlamentuan izan zen su misterioitsuaz akusatzea erabaki zutena. Aleman Auzitegi Gorenean epaitu zuten, eta Göringen aurrez aurre jarri zutelarik, Dimitrovek hainbat galdera egin zizkion, bera izango balitz bezala

auzitegiko lehendakaria; eta hari esker, van der Lubbe izan ezik, akusatu guztiak aske utzi zituzten. Halako jarrera izan zuen, non mundu osoaren mirespena irabazi baitzuen, baita Alemaniarena ere. «Gizon bakarra geratzen da Alemanian» esan ohi zuen jendeak, «eta hura bulgariarra da».

Greziak, alemanek iparraldea eta italiarrek hegoaldea okupatua zutelarik, ez zuen arazo berezirik sortzen, eta, hortaz, *judenrein* geratzeko txandaren zain gera zitekeen. 1943ko otsailean, Eichmannen bi espezialista, Dieter Wisliceny eta Alois Brunner *Hauptsturmführer*a, joan ziren Greziara, Salonikako juduen deportaziorako behar zirenak antolatzerara, hantxe kontzentratuak baitzeuden Greziako juduen bi heren, berrogeita hamabost bat mila lagun. «Europako judu-auziaren Azken Soluzioaren esparruaren baitan» zegoen plan hura, IV-B-4 azpisailaren izendapen-gutunak zioen bezala. Segituan antolatu zen ohiko judu-kontseilua, Koretz errabino nagusia buru zena, eskualde hartako gobernu militarren ordezkaria zen *Kriegsverwaltungsrat* Max Merten doktore delako batekin lankidetza estuan jarduteko. Wislicenyk, zeina Salonikako *Sonderkommando für Judenangelegenheiten*-en burua baitzen, banda horia erabiltzeko obligazioa ezarri zuen, eta ez zela salbuespenik onartuko jakinarazi zuen. Merten doktoreak ghetto batera eraman zituen judu guztiak; handik oso erraz atera zitezkeen, ghettoa tren-geltokitik bertan baitzegoen. Katgoria pribilegiadun bakarrak atzerritar pasaporteak zeuzkaten juduak ziren, eta, ohi bezala, *Judenrätet*ako langileak, ehunka batzuk denera, azkenean Bergen-Belseneko truke-esparrura garraiatu zituztenak. Ihesbiderik ez zegoen, ez bazen hegoalderantz, han italiarrek, beste toki guztietan bezala, uko egin baitzioten juduak alemanen eskuetan uzteari; hala ere, italiar eremuko segurtasunak ez zuen askorik iraun. Grekoei, hoberena ere, ez zitzaizkien deportazio-operazioak axola, eta partisano talde batzuek berek «onespenez» ere ikusten zituzten. Bi hilabeteren buruan, komunitatea osorik deportatua zen; egunero-egunero abiatzen ziren trenak Auschwitzera, bi mila-bi mila bostehun judu eramanez bakoitzak, karga-bagoietan. Urte bereko udazkenean, italiar armadak erreka jo zuenean, azkar-azkar egin zen Greziako hegoaldeko (Atenas eta uharteak barne) hamahiru bat mila juduren ebakuazioa.

Auschwitzen, judu greko asko zegoen heriotza-komando izenekoetan enplegatua, hau da, gas-ganberetan eta errausketa-labeetan,

eta 1944an bizirik jarraitzen zuten, hungariar juduak denak akabatuak eta Lodzeko ghettoa suntsitua zenean. Uda-bukaeran, gaseztatzeak laster amaitu eta instalazioak eraitsiko zirelako zurrumurrua zabaltzen hasi zenean, esparruetan izan zen matxinada bakanetako bat sortu zen; heriotza-komandoak seguru zeuden berak ere hilko zituztela. Matxinadak huts egin zuen zeharo; haren berri emango zuen gizon bat besterik ez zen bizirik geratu.

Pentsa liteke grekoek beren juduen patuaren aurrean erakutsi zuten axolagabekeriak nolabait ere bizirik iraun zuela askapenaren ondoren ere. Merten doktoreak, Eichmannen juizioan defentsaren lekukoa izan zenak, berak deportazioen berri ez zekiela esan zuen, eta, aldi berean, berak ezagutzen ez omen zuen patu hartatik salbatu zituela juduak. Gerraren ondoren ezkutuan itzuli zen Greziara, bidaiia-agentzia bateko ordezkari gisa; atxilotu egin zuten, baina laster askatu zuten berriz eta Alemaniara itzultzen utzi zioten. Baliteke haren kasua bakarra izatea, zeren gerrako krimenen juizioetan, Alemanian izan ezik, beste herrialde guztietan zigorrak oso gogorrak izan baitira. Eta Merten doktoreak defentsaren lekuko gisa egin zuen adierazpena, defentsaren eta fiskalaren ordezkariaren aurrean Berlinen emana, bakarra izan zen inondik ere. Han adierazi zuenez, Eichmannek lagundu zion Salonikako hogeitabat mila emakume eta haur salbatzen, eta gauza txar guztiak Wislicenyk egin zituen. Nolanahi ere, azkenean aitortu zuen adierazpena egin baino lehen Eichmannen anaia etorri zitzaiola, Linzeko abokatu bat, eta baita SSetako kide ohien aleman erakunde bat ere, eta biek presionatu zutela. Eichmannek berak ukatu egin zuen hura guztia: sekula ez omen zen Salonikan izan, eta sekula ez omen zuen Merten doktorea ikusi.

Eichmannek behin baino gehiagotan esan zuen bere antolamendu-ahalmenek, bere bulegoak burututako ebakuazioen eta deportazioen koordinazioak, lagundu egin zietela biktimei; errazago heldu ziren beren jomugara. Gauzak egin behar baziren, argudiatzen zuen, hobe zen denak ordena txukunean egitea. Juizioan bertan inork ez zion iritzi hari jaramonik egin, zeina milaka eta milaka juduen bizitzak «emigrazio behartuaren» bidez salbatu zituelako iritzi ergel eta egoskorren maila berekoa baitzen. Eta, hala ere, Errumanian gertatuak gogoan hartuz gero, zalantza sortzen da. Han ere hankaz gora joan zen dena, baina ez Danimarkan bezala, han Gestapoko

gizonak berak ere Berlinetik bidalitako aginduei sabotajea egiten hasi baitziren; Errumanian SSak berak ere harrituta geratu ziren, eta ikaratuta inoiz, eskala erraldoian egin ziren tankera zaharreko pogrom espontaneoan izugarrikeriekin; eta maiz esku hartu zuten juduak sarraski gorritik salbatzeko, haien arabera, hau da, modu zibilizatuan, egin zedin erailketa.

Ez da seguruenak gehiegi esatea Errumania zela gerra aurreko Europako herrialderik antisemitena. XIX. mendean bertan ere, gauza ondo finkatua zen errumaniar antisemitismoa; 1878an, botere handiak esku hartzen saiatu ziren, Berlingo Itunaren bitartez, Errumaniako gobernuak bertako biztanle juduak errumaniar herritartzat ezagut zitzan, nahiz eta bigarren mailako herritar gisa geratu. Ez zuten arrakastarik izan, eta Lehen Mundu Gerraren amaieran errumaniar judu guztiak, familia sefardi ehunka batzuk eta aleman jatorriko judu batzuk izan ezik, atzerritar egoiliarrak ziren. Aliatuen ahalmen osoa behar izan zen, bake-itunaren negoziatioetan, errumaniar gobernuak «konbentzitzeko» gutxiengo-itun bat onar zezan eta juduei gutxiengo-herritartasuna eman ziezaien. Mundu-irritziari egindako kontzesio hori bertan behera utzi zen 1937 eta 1938an, orduan iruditu baitzitzairen errumaniarrei, Hitlerren Alemaniaren indarrean uste osoa ipinita, sala zezaketela gutxiengo-ituna, beren «burujabetzari» indarrez ezarritakoa izan zelakoan; hala, bada, milaka juduei kendu zioten herritartasuna, judu-biztanleria osoaren laurden bati gutxi gorabehera. Bi urte geroago, 1940ko abuztuan, Errumania Hitlerren Alemaniaren aldean gerran sartu baino hilabete batzuk lehenago, Ion Antonescu mariskalak, Burdinazko Guardia berriaren buruak, errumaniar judu guztiak estatugabeak deklaratu zituen, bake-itunen aurretik errumaniar herritarrak ziren ehunka familiaren salbuespenarekin. Hilabete berean, Antonescuk juduen aurkako legedia ere aldarrikatu zuen, Europako gogorrena, Alemania salbuetsi gabe. Katgoria pribilegiadunak gerrako beteranoak eta 1918aren aurretik errumaniar herritartasuna eskuratutakoak ziren, guztira hamar mila lagun baino gehiago ez, talde osoaren ehuneko bat baino gehixeago. Hitlerrek berak bazekien Alemania Errumaniak gainditzeko arriskuan zegoela, eta 1941eko abuztuan Goebbelsi kexatu zitzaion, Azken Soluziorako aginduak eman eta handik gutxira, «Antonescu bezalako gizon batek kontuotan askoz ere modu erradikalagoan jokatzan du guk orain arte jokatu duguna baino» esanez.

Errumania 1941eko otsailean sartu zen gerran, eta Errumaniar Legioa hurbil-hurbil zen Errusiako inbasioan gogoan hartu beharreko indar militarra bihurtu zen. Odessan bakarrik, errumaniar soldaduak hirurogei mila pertsonaren hilkintzaren erantzuleak izan ziren. Balkanetako beste herrialdeetako gobernuek ez bezala, Errumaniakoak hasiera-hasieratik zekien, xehetasun guztiekin, nola ari ziren Ekialdean juduak akabatzen, eta errumaniar soldaduek, baita Burdinazko Guardia gobernutik egotzi ondoren ere, 1941eko udan, «[urte bereko urtarileko] Bukaresteko Burdinazko Guardiaren oldarraldia motz utzi zuen» hilkintza- eta deportazio-plan bati ekin zioten, bere izugarrikeriagatik lazeriazko zerrenda osoan parekorik izan ez zuena (Hilberg). Errumaniar tankerako deportazioa bost mila lagun karga-bagoietan sartu eta hantxe itota hiltzen uztean zetzan, trenak herrialdean barna bidaiatzen zuen bitartean, asmorik edo jomuga jakinik gabe, eguna joan eta eguna etorri; hilkintza-operazio haien ondorengo pauso gogokoenetako bat juduen gorpuak harategietan ikusgai jartzea izaten zen. Era berean, Errumaniako kontzentrazio-esparruetako ikaragarrikeriak —errumaniarrek berek ipini zituzten eta errumaniarrak berak arduratzen ziren haien antolamenduaz, Ekialderako deportaziorik ezin baitzen egin—, bihurriagoak eta latzagoak ziren, dakigunez, Alemaniakoak baino. Eichmannek ohiko judu-auzietako aholkularia Bukarestera bidali zuenean, Gustav Richter *Hauptsturmführer*a, hark atzera idatzi zion esanez Antonescuk ehun eta hamar mila judu nahi zituela eraman, nora eta «Bug ibaiaren ondoko bi basoetara», hau da, alemanek okupaturiko errusiar lurraldera, bertan akabatzeko. Alemanak izututa geratu ziren, eta denek esku hartu zuten: armadako komandanteak, Rosenbergen Ekialdeko Lurralde Okupatuetao Ministerioak, Berlingo Atzerriko Arazoetako Ministerioak, *Freiherr* Manfred von Killinger Bukaresterako Ministro akreditatuak; azken hori SAetako goi-mailako agintaria izana zen, Röhmen adiskidea zen, eta, hortaz, susmagarria SSen begietan, eta Richterrek zelatatuko zuen segur aski, berak «aholkatzen» baitzuen judu-auzietan. Kontu hartan, nolanahi ere, ados zeuden denak. Eichmannek berak erregutu zion Atzerriko Arazoetako Ministerioari, 1942ko apirileko data duen gutun batean, geldiarazteko «juduez libratzeko» errumaniarren ahalegin nahasi eta goiztiar haiek; «dagoeneko bete-betean dagoen aleman juduen ebakuazioak» zuela lehentasuna ulertarazi behar zitzaien errumaniarrei, eta mehatxu eginez bukatzen zuen, «Segurtasun Poliziari ekinaraziko» ziola esanez.

Alemanek, nahiz eta gogo handirik izan ez Errumaniari Azken Soluzioan Balkanetako beste herrialde guztiei hasieran eman zitzaiena baino lehentasun handiagoa emateko, plana aldatu behar izan zuten, egoera kaos odoltsu batera iritsiko ez bazen, eta nahiz eta Eichmanni asko gustatu Segurtasun Polizia erabiltzeko mehatxua, juduak salbatzeko ez zuten polizia hura trebatu. Hortaz, abuztuaren erdian —ordurako errumaniarrek hilak zituzten beren juduetatik ia hirurehun mila, alemanen laguntzarik batere gabe—, Atzerriko Arazoetako Ministerioak itun bat izenpetu zuen Antonescurekin «Errumaniako juduen ebakuaziorako, zeina aleman-unitateek bideratuko baitute» eta Eichmann negoziazioetan hasi zen aleman burdinbidean arduradunekin, Lublineko heriotza-esparruetara berrehun mila judu eramateko behar ziren bagoiak segurtatzeko. Baina une hartan, dena prest zegoenean eta kontzesio handi haiek emanak zeudenean, bat-batean erabat aldatu zen errumaniarren jarrera. Inork uste ez zuela, Richter jaun zintzoaren gutun bat heldu zen Berlinera: Antonescu mariskala beste asmo bat hartua zen; Killinger enbaxadoreak jakinarazi zuen bezala, mariskalak «modu erosoan» nahi zuen juduez libratu. Alemanek ez zuten, ordea, gogoan hartu neurririk gabe zela handia herrialde hartan eraile arrunten kopurua; eta, horrez gainera, Errumania zela Balkanetako herrialderik ustelena. Hilkinzekin batera, salbuespen-salmentako negozio oparo bat sortu zen, burokraziako adar orok, nazionala nahiz udalekoa izan, poz-pezik esku hartu zutena. Gobernuaren beraren espezialitatea zerga ikaragarriak ipintzea zen, zenbait talderi edo judu-komunitate osoei modu apetatsuan jarriz. Errumaniarrak, juduak atzerrian dibisen truke saldu zitezkeela jakin zutenean, mila hirurehun dolar buruko, juduen emigrazioaren aldeko sutsuak bihurtu ziren. Halaxe bihurtu zen Errumania juduek gerra-garaian Palestinara emigratzeko izan zuten abiapuntu bakanetako bat. Eta Armada Gorria hurbildu ahala, Antonescu are «moderatuagoa» egin zen: inolako ordainik gabe nahi zien juduei joaten utzi.

Gauza bitxia da Antonescu, hasieratik bukaera arte, ez zela naziak baino «erradikalagoa» izan (Hitlerrek uste zuen bezala); haiek baino urrats bat aurrerago zegoen beti, besterik gabe. Aurrenekoa izan zen judu guztiei beren herritartasuna kentzen, eta eskala handiko hilkinzak egin zituen, agerian eta lotsarik batere gabe, naziak oraindik lehendabiziko saiotxoak egiten ari zirenean. Himmlerrek «odola salgaien truke» eskaini baino urtebete pasa lehenago bururatu zitzaion

Antonescuri salmenten ideia, eta azkenik, Himmlerrek ere azkenean egin zuen bezala, kontua guztiz geldiarazi zuen, txantxetako gauza izan balitz bezala. 1944ko abenduan, Errumania Armada Gorriari errenditu zitzaion, eta Eichmann, ebakuazioen espezialista, zalaparta batean bidali zuten hara zenbat «aleman etniko» salbatzera, arrakastarik gabe ordea. Errumaniako zortziehun eta berrogeita hamar mila judu atera ziren bizirik, eta haietatik askok, zenbait ehunka milak, Israelera iristea lortu zuten. Inork ez daki zenbat judu geratzen diren gaur Errumanian. Errumaniar hiltzaileak merezi bezala exekutatu zituzten, eta Killingerrek bere buruaz beste egin zuen errusiarrek harrapatu baino lehen; Richter *Hauptsturmführer*a bakarrik, hark ez baitzuen jarduteko aukerarik ere izan, hori egia da, bake-bakean bizi izan zen Alemanian 1961 arte, urte hartan Eichmannen epaiketako beranduko biktima bihurtu baitzen.

XII: EUROPA ERDIALDEKO DEPORTAZIOAK: HUNGARIA ETA ESLOVAKIA

Hungaria, Eichmannen kontzientziako arazo nahasiarekin loturik lehenago ere aipatu dena, konstituzionalki erregerik gabeko erreinu bat zen. Herrialde hau, nahiz eta itsasorik izan ez, ezta itsas armada edo merkatari-ontzidirik ere, almirante batek gidatzen zuen, Nikolaus von Horthy *Reichsverweser* edo erregeordeak, hots, existitzen ez zen erregearen fideikomisodunak. Erregetzaren ageriko ikur bakarra *Hoträte* izenekoen ugaritasuna zen, hots, existitzen ez zen gorteko aholkulariena. Behin batean, Erromatar Enperadore Santua Hungariako erregea ere izan zen, eta, berrikiago, 1806aren ondoren, Habsburgokoek nola edo hala baturik eutsi zioten Danubioko *kaiserlichkönigliche Monarchie* hari, Austriako enperadore (*Kaiser*) eta Hungariako errege (*König*) baitziren. 1918an, Habsburgoko enperadorea desagin zelarik, Estatu Oinordekoak sortu ziren, eta Austria errepublika bihurtu zen, *Anschluss* zeritzanaren zain, hau da, Alemaniarekin noiz elkartuko. Otto von Habsburgo erbestean zen, eta, bestalde, magiar nazionalista sutsuek hura ez zuten inoiz Hungariako erregetzat onartuko; hungariar erregetza egiazkorik, bestalde, ez zen sekula historian ezagutu. Hortaz, Hungaria zer zen, gobernu modu ezagunei dagokienez, Horthy almiranteak baizik ez zekien.

Errege-handitasunaren liluraren pean egitura feudal heredatu bat zegoen, eta, pobrezia jotako lurraldeotan, Europako umezurtzen aberri honetan, beste inon baino handiagoa zen nekazari lurgabeen miseria, eta beste inon baino luxu handiagoa zuten herrialdearen zinezko jabeak ziren familia aristokratiko bakanek. Gizarte-auzi konpondugabeko eta atzerapen orokorreko giro horrek ematen zion Budapesteko gizarteari bere tankera berezia, hungariarrak ilusionistak balira bezala, hain luzaroan bere burua engainatuz bizi izan zirenak, non galdua baitzuten zeharo inkongruentziaren sena. Hogeita hamarren hasieran, italiar

faxismoaren eraginaren pean hungariar mugimendu faxista indartsu bat sortu zen, Gezi Gurutzeen alderdia. 1938an Italiak zabaldutako bideari jarraitu zion, juduen kontrako beren aurreneko legedia onartuz; Eliza Katolikoak indar handia izan arren, 1919aren ondoren kristaututako juduei ere aplikatzen zitzaizkien neurri antisemitak, eta hiru urte geroago 1919 baino lehenago bataiatu zirenak ere sartu ziren zerrendan. Eta, hala ere, erabateko antisemitismoa, arrazan oinarritua, gobernuaren politika ofiziala bihurtu zenean, hamaika juduk Parlamentuko goiko ganberan jarraitu zuten, eta Hungaria izan zen oste juduak Ekialdeko frontera bidali zituen Ardatzeko herrialde bakarra; ehun eta hogeita hamar mila gizon ziren, laguntzazko eginkizunak zituztenak, baina hungariar uniformeak jantziak. Kontraesan horien zergatia da hungariarrek, gobernuaren politika ofizialagatik ere, beste herrialdeek baino are indartsuago bereizten zituztela bertako juduak eta *Ostjuden* zirenak, hots, «Trianongo Hungariako» judu «magiarizatuak» (gainerako Estatu Oinordekoak bezala, Trianongo Itunak sortuak), eta lurralde anexionatu berrietakoak. Hungariaren burujabetza 1944ko martxoan arte errespetatu zuen gobernu naziak, eta, horren ondorioz, «suntsipenezko itsaso batean» zegoen segurtasunezko uharte bat bihurtu zen hungariar lurraldea. Nahiko erraz ulertzen da —Armada Gorria Karpatoetan barrena inguratzen ari zela, eta hungariar gobernuak etsi-etsian Italiako bideari jarraitu eta aparteko armistizio bat izenpetu nahian zebilela— aleman gobernuak herrialdea okupatzeko erabakia hartu izana, baina, aldiz, ezin sinetsizkoa da orduan ere, horren berandu, «eguneko gai-zerrendan, lehena judu-arazoa ulertzea» izatea, juduak «suntsitzea nahitaezko baldintza baitzen Hungaria gerran sartzeko», Veessenmayerrek 1943ko abenduan Atzerriko Arazoetako Ministerioari bidalitako txosten batean zioen bezala. Zortziehun mila judu, gehi ehun edo ehun eta berrogeita hamar mila judu kristautu, ebakuatu behar zirela esan nahi zuen horrek.

Nolanahi ere zela, lehen esan dudan bezala, egitekoaren handitasuna eta premia larria zirela-eta, 1944ko martxoan iritsi zen Eichmann, bere talde osoarekin, Budapestera. Ez zuen neke handirik izan taldea biltzeko, haien lana beste toki guztietan burutua baitzen. Wisliceny-ri eta Brunner-i Eslovakiatik eta Greziazetik joan zitezen deitu zien, Abromeit-i Jugoslaviatik, Dannecker-i Parisetik eta Bulgariatik, Siegfried Seidl-i Theresienstadteko komandantetzatik, eta Hermann Krumei-ri Vienatik; Krumei izan zen gero Eichmannen Hungariako

ordezkaria. Berlinetik, bere bulegoko gizon garrantzitsu guztiak eraman zituen: Rolf Günther, Eichmannen ordezeko nagusia izan zena; Franz Novak, deportazio-ofiziala; eta Otto Hunsche, lege-aditua. Horrela, bada, Eichmannen *Sondereinsatzkommando* hura (Eichmannen Operazio Berezieta Unitatea) hamar bat gizonen zegoen osatua, gehi zenbait bulegariz, Eichmannek bere jardueragune nagusia Budapestean ipini zuenean. Eichmannek, ailegatu zen eguneko arratsean bertan, batzar batera gonbidatu zituen buruzagi juduak, judu-kontseilu bat osatzeari begira, haren bitartez aginduak emateko; horren ordainetan, Hungariako judu guztien gaineko erabateko jurisdikzioa emango zioten kontseiluari. Une hartan eta leku hartan, ez zen batere jokaldi erraza. Izan ere, ordurako, Aita Santuaren Nuntzioak adierazi zuenez, «mundu osoak zekien deportazioak praktikan zer esan nahi zuen», areago, juduek «aukera paregabea zuten Europako juduen patuari jarraitzeko. Oso ondo genekien *Einsatzgruppen* taldeen lanaren berri. Behar baino gehiago genekien Auschwitz buruz», Kastner doktoreak Nurenbergen esango zuen bezala. Argi zegoen Eichmannen balizko «botere hipnotikoak» baino gehiago beharko zela inori sinetsarazteko naziak judu «hungariartuen» eta Ekialdekoen arteko bereizkuntza sakratua onetsiko zutela; nork bere burua engainatzea goi-mailako artea izateraino eraman behar zen, baldin une hartan hungariar juduen buruzagiek ez zela «han gertatuko» sinetsi behar bazuten («Nola bidal ditzakete Hungariako juduak Hungariatik kanpora?»). Nola lortu zen hori, lekukoaren postutik inoiz aditu den kontraesanik handienetako baten bitartez argitu zen: Juduen Batzorde Zentraleko etorkizuneko kideek (hala deitzen zen-eta judu-kontseilua Hungarian) aldameneko Eslovakian aditu zuten Wisliceny, une hartantxe juduekin negoziatzeko ari zelarik, dirua onartzeko prest egoten zela beti, eta berebat zekiten eroskeria ororen gainetik ere, «judu guztiak Eslovakiara deportatu» zituela... Eta ondorio hau ateratzen zuen Freudiger jaunak: «Wislicenyrekiko harremanak sortzeko bideak eta bitartekoak bilatu behar zirela ulertu nuen».

Bera eta beraren gizonak ustelkerian arituko balira bezala agertzea izan zen Eichmannen amarrurik argiena negoziazio zail haietan guztietan. Komunitate juduaren lehendakaria, *Hofrat* Samuel Stern, Horthyren errege-kontseiluko kidea, adeitasun zoragarritz tratatu zuten, eta hura ados agertu zen judu-kontseiluaren buru izateko. Stern eta kontseiluko beste kideak oso lasai geratu ziren idazmakina eta

ispiluak, emakume-linjeria eta kolonia-ura, Watteau originalak eta zortzi piano eskatu zizkietenean, nahiz eta haietarik zazpi *Hauptsturmführer* Novakek jendetasunez itzuli zituen, esanez: «Baina, jaunok, nik ez dut piano-denda bat zabaldu nahi. Nik pianoa jo nahi dut, besterik ez». Eichmannek Judu Liburutegia eta Judu Museoa bisitatu ere egin zituen, eta neurri guztiak aldi baterako baino ez zirela izango segurtatu zien denei. Eta ustelkeria, hasieran trikimailu bezala erabilia, laster izan zen egiazkoa, nahiz eta ez zuen juduek espero zuten tankera hartu. Beste inon ez zuten juduek hainbeste diru gastatu, hain emaitza kaskarrak izateko gero. Kastner jaun bitxiaren hitzetan, «bere bizitzarengatik eta bere familiarengatik dardarka dagoen judu batek zeharo galtzen du diruaren sena» (Sic!). Juizioan, halaxe berretsi zuen Philip von Freudiger-ek emandako lekukotasunak, gorago aipatu denak, eta orobat berretsi zituen hitz haiek Joel Brandek, Hungariako talde judu arerio baten (Laguntza eta Erreskateko Batzorde Sionista) ordezkaria izan zenak. 1944ko apirilean Krumeck berrehun eta berrogeita hamar mila dolar jaso zituen, gutxienez, Freudigerrengandik, eta Erreskate Batzordeak hogeita mila dolar ordaindu zituen Wislicenyekin eta SSen Kontraespioitza Zerbitzuko gizon batzuekin elkartzeagatik huts-hutsik. Bilera hartan zeuden guztiek mila dolarreko eskupeko gehigarri bat jaso zuten, eta Wislicenyk berriz ere mahairatu zuen Europa Plana zeritzana, 1942an alferrik proposatu zuena: plan haren arabera, Himmlerrek prest egon behar zuen judu guztiak, Poloniakoak izan ezik, bizirik uzteko, bi edo hiru milioi dolarreko bahisari baten truke. Aspalditik baztertuta zegoen proposamen hartan oinarriturik, juduak epeka hasi ziren Wislicenyri ordaintzen. Eta mirarizko lurralde oparo hartan Eichmannen beraren «idealismoa» ere hautsi zen. Fiskalak, nahiz eta ezin izan zuen frogatu Eichmannek lanean ari zen bitartean onura ekonomikoak ateratu zituenik, azpimarratu zuen, eta zuzen zegoen, haren Budapesteko bizitza maila altua; hotelik hoberenetako batean hartu baitzuen egoitza, txoferrarekin ibiltzen zen Kurt Becher bere geroko arerioaren opari ezin ahaztuzkoa izan zen auto urlehortar batean, ehizean eta zaldian ibiltzen zen, eta ezagutu ere egiten ez zituen era guztietako luxuak izan zituen Hungariako gobernuko bere adiskide berrien babespean.

Bazen Hungarian judu talde handi samar bat, ordea, zeinaren buruzagiek norberaren engainua ez baitzuten horren aise onartzen. Mugimendu sionistak indar handia izan zuen beti Hungarian, eta

une hartan bere ordezkari propioak zeuzkan Laguntza eta Erreskate Batzorde sortu berrian (Vaadat Ezra va Hazalah). Hark, Palestinako Bulegoarekiko harreman estuan, Poloniako eta Eslovakiako, Jugoslaviako eta Errumaniako iheslariei lagundu zien; batzordea komunikatua egoten zen beti lana finantzatzen zuen American Joint Distribution Committee-rekin, eta judu batzuk Palestinara eramatea ere lortu zuen, legez kanpoko bideetatik eraman arren. Hondamena beren herrira ere ailegatu zen hartan, «kristau paper» faltsuak egitera jarri ziren, hau da, bataio-agiriak, errazago ezkututzen baitziren bataio-agiriak zituztenak. Beste edozer gauza izanik ere, lider sionistek bazekiten legez kanpo zeudela, eta horren arabera jokatzeko zuten. Joel Brand izan zen, Laguntza eta Erreskate Batzordeko buru nagusietako bat, Himmlerren proposamena —milioi bat judu hamar mila kamioren truke emateko plana—, gerraren erdian aliatuei aurkeztu behar izan zien mandatarari zorigabea. Eichmannekin izan zituen tratuek lekukotasuna ematera joan zen Jerusalemara, eta berebat joan zen Philip von Freudiger, haren Hungariako etsai ohia. Freudigerrek —esan dezagun, bide batez, Eichmann zeharo ahaztua zegoela hartaz— elkarrizketa hartan nolako zakartasunez erabili zuten gogoratu zuen, baina Branden lekukotasunak, berriz, Eichmannen beraren sionistekiko tratuei buruzko kontaketa berretsi zuen. Brandi esan zioten «aleman idealista» batek berarekin, «judu idealista» batekin, behar zuela hitz egin: bi etsai ohoragarri, maila berean elkartzekoak, guduaren etenaldi batean. Eichmannek esan zion: «Baliteke bihar aurrez aurre egotea ostera ere gudu-zelaian». Komedia beldurgarri bat zen hura dena, jakina, baina balio izan zuen erakusteko Eichmannen esaldi adore-emaileen zaletasuna ez zela Jerusalemeko juiziorako berariaz osatutako pose bat. Are interesgarriagoa da nola, sionistekin bildurik, ez Eichmannek ez *Sondereinsatzkommando*ko kideek ez zuten gezur biribilaren taktika erabiltzen, judu-kontseiluko jaunen onurarako erabiltzen zuten bezala. «Hizkuntza-arauak» berak ere bertan behera utzi zituzten, eta gehienetan gauzak beren izenez deitzen zituzten. Are gehiago, negoziazioak serioak zirenean —irteera-baimen bat eskuratzeko beharko zen diru kopurua, edo Europa Plana, edo bizitzak hamar mila kamioren truke—, Eichmannek ez ezik, denek esku hartzen zuten, eta Wislicenyk, Becherrek, Joel Brandekin goizero kafetegi batean elkartzen ziren Kontraespioitzako gizonak, sionistengana jotzen zuten, besterik gabe. Gauza zen Laguntza eta

Erreskate Batzordeak beharrezko harremanak zeuzkala atzerrian eta dibisak erraz eskura zitzakeela, eta judu-kontseiluko kideek, berriz, ezer ez zuten atzetik, ez bazen Horthy erregeordearen babes guztiz zalantzazkoa. Era berean, argi geratu zen Hungariako funtzionario sionistek pribilegio handiagoak eskuratu zituztela judu-kontseiluko kideei eman ohi zitzaizen atxiloketaren eta deportazioaren aurreko aldi bateko immunitatea baino. Sionistak nahi zuten bezala ibiltzen ziren joan-etorrian, salbuetsiak zeuden izar horia eramaten, baimenak ematen zitzaizkien Hungariako kontzentrazio-esparruetara bisitak egiteko, eta, geroxeago, Kastner doktoreak, Laguntza eta Erreskate Batzordearen lehen sortzaileak, Alemania nazian barna bidaiatu ere izan ahal zuen judua zela erakusten zuen identifikazio-paperik gabe.

Judu-kontseilu bat antolatzea, Viena, Praga eta Berlineko esperientzia guztiaren ondoren, errutinazko kontua besterik ez zen izan Eichmannentzat, eta ez zion bi aste baino gehiago hartu. Arazo bat zegoen ordea, lortuko ote zuen hungariar funtzionarioek halako ekimen handi batean laguntzea. Eichmannentzat hura berria zen. Gertaerak normal joan balira, Atzerriko Arazoetako Ministerioa eta haren ordezkariak arduratuko ziren lanaz, kasu hartan, Edmund Veessenmayer doktorea, Reicheko ahalguztiduna, eta hari Eichmannek «judu-auzietako aholkulari» bat bidaliko zion. Eichmannek berak ez zuen batere gogorik aholkulari-eginkizunak betetzeko, eginkizun hark ez baitzuen inoiz inor *Hauptsturmführer* edo kapitain maila baino gorago eraman, eta berak *Obersturmbannführer* gradua zeukan, lotinant koronela, bi maila gorago. Eichmannek Hungarian izan zuen arrakastarik handiena bere harreman propioak sortzea izan zen. Harreman haietan, hiru gizon ziren nagusiak: László Endre, Horthyk berak ere «zoroa» zela esan zuen antisemitismo bat zela medio Estatu idazkari izendatua, Barne Ministerioko Arazo Politikoen (Juduen) arduraduna, izendatu berria zena; László Baky, hura ere Barne Ministerioko idazkaria, hungariar poliziaren arduraduna; eta Ferenczy, poliziako lotinant koronela, zuzenean deportazioez arduratzen zena. Haien laguntzarekin, Eichmann seguru egon zitekeen «tximista bezain laster» joango zela dena, hots, beharrezko dekretuak osatzea eta juduak probintzietan kontzentratzea. Bilkura berezi bat egin zen Vienan Alemaniako Burdinbideetako funtzionarioekin, Hungariako eginkizun hark milioi erdi lagun kasik garraiatu behar zirela esan nahi baitzuen. Hössi, Auschwitz zegoelarik, bere gainekoak, WVHAko

Richard Glücks jeneralak, eman zion planen berri, eta burdinbide-adar berri bat eraikitzeko agindu zuen, bagoiak erretegietatik metro gutxira irits zitezen; gas-ganberetan lan egiten zuten heriotza-komandoen kopurua 224tik 860ra igo zen, eta era horretan prest geratu zen dena egunean sei mila eta hamabi mila lagun bitarte hiltzeko. Trenak iristen hasi zirenean, 1944ko maiatzean, oso gizon «osasuntsu» gutxi aukeratu zuten lanerako, eta gutxi haiek Kruppen Auschwitzeko pizgailu-lantegira bidali zituzten lanera. (Breslautik bertan zegoen Kruppen lantegi berrian ere —Berthawerk zuen izena—, Alemanian, ahal zen lekutik ateratako langile juduek lan egiten zuten, eta langile haiek heriotza-esparruetako langile taldeak berak baino gaizkiago ere edukitzen zituzten).

Ekimen osoak, Hungarian, bi hilabete baino gutxiago hartu zituen, eta uztailaren hasieran bat-batean gelditu zen. Sionisten bidez batez ere, Hungariako hondamenaren berri zabala eman zen, beste lekuetan baino askoz gehiago, eta Horthyk sekulako protestak jaso zituen herrialde neutraletatik eta Vatikanotik. Aita Santuaren Nuntzioak, nolanahi ere, egoki iritzi zion azpimarratzeari Vatikanorekin protesta ez zela «errukizko sentimendu faltsu» batetik sortzen: betiereko monumentua izango den esaldia, inondik ere, ezin hobeto agertzen duena zenbateraino eragin zioten Elizako goreneko agintarien pentsamoldeari «gogortasun errukigabearen» ebanjelioa predikatzen zuten gizonetara tratatu etengabeak eta haiekin konprometitzeko desirak. Orduko hartan ere Suediak zabaldu zien bidea neurri praktikoei, sarrera-baimenak banatuz; Suitzak, Espainiak eta Portugalak bide harixe jarraitu zioten, eta, hala, azkenean, hogeita hamar mila judu inguru zeuden Budapesten bizitzen, etxe berezietan, herrialde neutralen babespean. Aliatuek hirurogeita hamar gizonen osaturiko zerrenda bat jaso eta argitaratu zuten, Hungariako hondamenaren errudun nagusiei zegokiena, eta Rooseveltek ultimatum bat bidali zuen, mehatxu eginez «Hungariaren patua ez [da] beste nazio zibilizatuena bezalakoa izango...». Aliatuek are argiago utzi zuten gauza uztailaren 2an Budapestean egin zen aireko eraso bereziki gogor baten bitartez. Era horretan, alde guztietatik beharturik, Horthyk deportazioak geldiarazteko agindua eman zuen, eta Eichmannen kontrako froga kondenatzaileetako bat izan zen, hain zuzen ere, «ergel» haren aginduari ez ziola obeditu, eta, aitzitik, uztailaren erdian, beste mila eta bostehun judu deportatu zituen, Budapestetik gertu zegoen

kontzentrazio-esparru batean zeudenak. Ordezkarri juduek Horthyri ez ziezaioten ezer esan, Eichmannek bi judu taldeak bere bulegoan bildu zituen, eta Hunsche doktoreak zenbait aitzakiarekin hantxe geldiarazi zituen, trena hungariar lurraldetik aterea zela jakin zen arte. Eichmann zeharo ahaztua zegoen Jerusalemen gertakari hartaz, eta nahiz eta epaileak sinetsiak egon «akusatuak oso ondo gogoratzen [duela] Horthyren gaineko garaipena», dudatzekoa da, zeren Eichmannetzat Horthy ez baitzen oso gizon garrantzitsua.

Dirudienez, hura izan zen Hungariatik Auschwitzera atera zen azkeneko trena. 1944ko abuztuan Armada Gorria Errumanian zen, eta Eichmann hara bidali zuten judu-bilaketa etsian. Itzuli zenean, Horthyren erregimena Eichmannen komandoari erretiratzeko eskatzeko adina adore bildua zen, eta Eichmannek berak Berlini eskatu zion uzteko berari eta bere gizoni itzultzen, «alferrekoak bihurtu» zirelako. Berlinek, ordea, ez zuen halakorik batere egin, eta zuzen zebilela ikusi zen, zeren urri erdialdera, egoera erabat aldatu baitzen ostera ere. Errusiarrak Budapestetik ehun eta berrogeita hamar bat kilometrora zeudela, naziek Horthyren gobernua eraistea lortu zuten, eta Gezi Gurutzeen nagusia, Ferenc Szalasi, izendatu zuten estatuburu. Ezin zen garraialdi gehiago bidali Auschwitzera, deuseztatze-instalazioak eraistekotan baitziren, eta, aldi berean, ordurako ikaragarria zen langile falta Alemanian. Veesenmayerrek, Reicheko ahalguztidunak, Hungariako Barne Ministerioarekin, berrogeita hamar mila judu (hamasei eta hirurogei urte bitarteko gizonak eta berrogei urtetik beherako emakumeak) Reichera bidaltzeko baimena negoziatu zuen; bere txostenean erantsi zuen Eichmannek beste berrogeita hamabost mila lagun bidaltzea espero zuela. Burdinbiderik ez zegoenez gero, 1944ko azaroko ibilaldiak antolatu ziren, Himmlerren agindu batez baizik eten ez zirenak. Reichera bidali ziren juduak hungariar poliziak zoriz atxilotutakoak ziren, salbuespenik egin gabe, erruz baitziren ordurako salbuespen-eskubidea zutenak, eta berebat hasierako araubideetan zehazturiko adin-mugen araberako salbuespenik egin gabe. Ibilaldiak Gezi Gurutzeetako gizonak zaintzen zituzten; presoei lapurtzen zieten eta tratabidea ezin basatiagoa zen. Eta halaxe bukatu zen hungariar juduen istorioa. Zortziehun mila lagunek osaturiko judu-biztanleriatik, ehun eta hirurogei mila gelditu behar izan zuten Budapesteko ghettoon —landa aldea *judenrein* zegoen—, eta haietatik milaka eta milaka

pogrom espontaneoan biktima izan ziren. 1945eko otsailaren 13an, Hungaria Armada Gorriari errenditu zitzaion. Hilakintzaren hungariar errudun nagusi guztiak auziperatu zituzten, heriotza-zigorra eman eta exekutatu zituzten. Alemaniaren esleuetatik, Eichmannek izan ezik, inork ez zuen eragindako kaltea kartzelako urte gutxi batzuekin baizik ordaindu.

Eslovakia, Kroazia bezala, Atzerriko Arazoetako Aleman Ministerioaren asmakeria bat zen. Alemanek 1939an Txekoslovakia okupatu ere baino lehen joan ziren eslovakiaarrak Berlinera beren «independentzia» negoziatzera, eta Göringi agindu zioten leialtasunez lagunduko ziotela Alemaniari juduen auzia bideratzen. Baina hura 1938-39ko neguan gertatu zen, artean inork ez zuenean Azken Soluzioaz ezertxo ere entzun. Herrialde txiki hura, bi milioi eta erdiko nekazari-biztanleria pobre bat eta lauogeita hamar mila judu zituen, primitiboa, atzeratua eta oso katolikoa zen. Garai hartan apaiz katoliko bat zen estatuburua, aita Josef Tiso. Bertako mugimendu faxista bera ere, Hlinka Guardia, katolikoa zen jarreraz, eta faxista eliztar edo eliztar faxista haien antisemitismo suharra, bai tankeraz, bai edukiz, beren aleman maisuen arrazismo ezin modernoagoa ez bezalakoa zen. Antisemita moderno bakarra zegoen Eslovakiako gobernuan, eta hura zen Sano Mach, Barne Arazoetako Ministroa, Eichmannen lagun ona. Gainerako guztiak kristauak ziren, edo kristauak zirela uste zuten, eta naziak, printzipioz, jakina, kristauen kontrakoak ziren, juduen kontrakoak ziren bezala. Eslovakiarren kristau izateak esan nahi zuen, hasteko, behartuak sentitzen zirela nazientzat «zaharkitua» zen judu bataiatuen eta judu bataiatu gabeen arteko bereizkuntza hura azpimarratzera, eta berebat esan nahi zuen Erdi Arokoa zen ikuspuntu batetik ikusten zutela auzi guztia. Haienztat, juduak iraitzea eta haien ondasunez jabetzea zen arazoaren «soluzio» bat, baina ez «deuseztatze» sistematikoa, nahiz eta tarteka-tarteka judu batzuk hiltzea ere inporta ez. Juduen «bekatu» handiena ez zen atzerriko «arrazak» batekoak izatea, aberatsak izatea baizik. Eslovakiako juduak, Mendebaldeko estandarren ikuspegitik, ez ziren oso aberatsak; baina berrogeita hamabi mila eslovakiar juduk, berrehun dolarretik gorako ondasunak zeuzkatela-eta, beren jabetzak deklaratu behar izan zituztenean, haien ondasunak, guztira, ehun milioi dollarrera iristen zirela ikusi zen, eta, hala, judu bakoitza Kreso berpiztu bat bide zen eslovakiarren begietan.

«Independentziaren» lehen urte eta erdian, eslovakiarrak beren gisara saiatu ziren judu-auzia konpontzen. Judu-enpresarik handienak ez-juduen eskuetara pasatu zituzten, juduen kontrako lege batzuk onetsi zituzten —alemanen arabera, «oinarrizko akats» bat zutenak, 1918 aurretik kristautu ziren judu bataiatuak salbuestea—, ghettoak antolatzeke asmoa hartu zuten, «Gobernu Nagusiaren ereduari jarraituz», eta juduak gatibu-lanak egiteko errekrutatu zituzten. 1940ko irailean, oso goiz beraz, aholkulari judu bat eman zieten alemanek eslovakiarrei, Dieter Wisliceny *Hauptsturmführer*a, Eichmannen Segurtasun Zerbitzuko nagusi biziki miretsia eta adiskide mina izan zena (Eichmannen seme zaharrenak Dieter zuen izena), eta une hartan, Bratislavako aleman ordezkariatzako atxikia zelarik, haren maila berekoa zena. Wisliceny ezkongabea zen, eta, hortaz, ezin zuen gorago egin; hala, urtebete geroago, Eichmannek gorago egin zuelarik, Wisliceny haren mendeko bihurtu zen. Eichmannen ustez, Wisliceny mindu egin zen aldaketa harekin, eta horrela uler daiteke zergatik egin zuen hark Eichmanni buruz halako aitorpen kondenatzailea Nurenbergeko Juizioetan, haren ezkutalekua bilatzen laguntzeko eskaintza ere egin baitzuen. Eichmannen interpretazioa ez da, hala ere, oso sinesgarria. Wislicenyren interes bakarra, seguruen, bere burua salbatzea izango zen; ez zen inondik ere Eichmann bezalakoa. Hura SS kulturadunetakoa zen, liburuen eta txostenen artean bizi zen, Hungariako juduek «baroi» titulua emanez hitz egin behar zioten, eta, oro har, askoz gehiago arduratzen zen diruaz bere karreraz baino; horren ondorioz, joera «moderatuak» izan zituen aurrenetako SS bat izan zen.

Lehen urte haietan, ez zen gauza handirik gertatu Eslovakian; baina 1942ko martxoan Eichmann Bratislavan agertu zen, hogeita mila «langile judu gazte eta sendoren» ebakuazioa negoziatzera. Lau aste geroago, Heydrich bera joan zen Lehen Ministroa ikustera, Vojtek Tuka, eta judu guztiak Ekialdean kokatzen uzteko konbentzitu zuen, baita ordu arte salbuetsiak egondako judu kristautuak ere. Apaiz batek gidatzen zuen gobernu hari ez zitzaion axola izan «oinarrizko akatsa» —hots, erlijio-irizpideetan oinarrituta, kristauak eta juduak bereiztea— zuzentzea, jakin zuelarik «judu haien jabetzak zirela-eta, alemanek ez zutela inolako prozedurarik abian jarriko, salbu eta bostehun Reichsmark eskatutako zituztela eramandako judu bakoitzaren truke»;

aitzitik, gobernuak berme gehigarri bat eskatzen zion Alemaniako Atzerriko Arazoetako Ministerioari, hots, «Eslovakiatik ateratako eta [alemanek] hartutako juduek, betiko behar zuten Ekialdeko lurretan geratu, eta ez zitzairen Eslovakiara itzultzeko aukerarik eman behar». Negoziazio haiek mailarik altuenean egiten jarraitzeko, Eichmannek bigarren bisitaldi bat egin zuen Bratislavara. Heydrich erail zutenean gertatu zen hura, eta 1942ko ekainerako eslovakiar poliziak berrogeita bi mila judu zituen Poloniako hilkintza-zentroetara deportatuak.

Hogeita hamabost mila judu inguru geratzen ziren artean Eslovakian, hasieran salbuetsitako kategorietakoak denak: judu kristautuak eta haien gurasoak, ogibide jakin batzuk zituztenak, gatibu-lanetako batailoietako gizasemeak, negozio-gizon batzuk. Une hartantxe, judu gehienak «birkokatuak» zeudenean, Bratislavako Laguntza eta Erreskate Batzordeak, Hungariako izen bereko talde sionistako kide zenak, Wisliceny sobornatzea lortu zuen, eta hala, deportazioak motelduko zituela agindu zuen hark; berebat proposatu zuen Europa Plana izenekoa, geroago Budapesten aurkeztuko zuena. Ez dirudi Wislicenyk sekula ezer egin zuenik liburuak irakurtzetik eta musika entzutetik aparte, eta, jakina, eskura zezakeen guztia onartzen zuen. Baina une hartan, «birkokatze» hitzaren egiazko esanahia zein zen adierazi zion Vatikanoko elizgizon katolikoei. Handik aurrera, Alemaniako enbaxadoreak, Hans Elard Ludinek, Berlingo Atzerriko Arazoetako Ministerioari adierazi zion bezala, deportazioek izen ona galdu zuten, eta eslovakiar gobernuak alemanak presionatzen hasi zen, «birkokatze» zentroak bisitatzeko baimena eman ziezaion; baina, jakina, ez Wislicenyk ez Eichmannek ezin zuten halako baimenik eman, judu «birkokatuak» ez baitzeuden jadanik bizien artean. 1943ko abenduan, Edmund Veessenmayer doktorea Bratislavara joan zen aita Tiso ikustera; Hitlerrek bidalia zen, eta haren aginduek ziotenez, «esateko esan beharreko guztiak» (*Fraktur mit ihm reden*) adierazi behar zion Tisori. Tisok agindu zuen hamasei-hemezortzi mila judu kristautu gabe ipiniko zituela kontzentrazio-eremuetan, eta esparru berezi bat antolatuko zuela hamar bat mila judu bataiaturentzat, baina deportazioen auzian ez zen ados agertu. 1944an, Veessenmayer, Hungariako Reicharen ahalguztiduna ordurako, berriz ere Eslovakian agertu zen, eta bertan geratzen ziren juduak Hungariako ekimenetan sartzeko eskatu zuen. Tisok ezetz esan zion berriz ere.

1944ko abuztuan, Armada Gorria gero eta hurbilago zela, matxinada handi bat izan zen Eslovakian, eta alemanek herrialdea okupatu zuten. Ordurako Wisliceny Hungarian zen, eta segur aski galdua zuten nagusiek harenganako uste ona. RSHAk Alois Brunner bidali zuen Bratislavara, geratzen ziren juduak atxilotu eta deportatzeko. Brunnerrek aurrena Laguntza eta Erreskate Batzordeko kideak atxilotu eta deportatu zituen, eta, ondoren, orduko hartan aleman SSetako unitateen laguntzarekin, beste hamabi edo hamalau mila lagun deportatu zituen. 1945eko apirilaren 4an, errusiarrak Bratislavara heldu zirenean, hogeit mila judu inguru ziren bertan, hondamenditik bizirik aterak.

XIII: EKIALDEKO HILKINTZA-ZENTROAK

Naziek, Ekialdeaz mintzatzen zirenean, ikaragarri eremu handia zuten gogoan, Polonia eta Baltikoetako estatuak eta Errusiako lur okupatuak hartzen zituen. Lau administrazio-esparrutan zegoen Ekialdea banatua: Warthegau zeritzana, Reichari anexionaturiko Poloniako Mendebaldeko Eskualdeak hartzen zituen eta Artur Greiser *Gauleiter*aren mendean zegoena; Ostland, hots, Lituania, Letonia, Estonia eta Errusia Zuriko eremu lauso samar bat, okupazioko agintarien egonlekua Rigan zeukana; Poloniako Erdialdeko Gobernu Nagusia, Hans Franken mendekoa; eta Ukraina, Alfred Rosenbergen Ekialdeko Lurralde Okupatuetaiko Ministerioaren buruzagitzapekoa. Fiskalak lurralde hauen gainean mintzatu ziren lekukoak aurkeztu zituen aurrenik, eta epaian, berriz, azkenak agertu ziren.

Dudarik gabe, bai fiskalak, bai epaileek, bazuten arrazoirik erabaki diferente haiek hartzeko. Ekialdea izan zen juduen sufrimenduaren gertaleku nagusia, deportazioen helmuga laugarria, ihesbiderik gabeko lekua eta bizitarakoen kopurua ozta-ozta ehuneko bostetik gorakoa izan zena. Ekialdea zen, gainera, gerraren aurretik, Europako juduen zentro nagusia; Polonian hiru milioi judu baino gehiago bizi ziren, berrehun eta hirurogei mila bizi ziren Baltikoko estatuetan, eta hiru milioi errusiar judutatik (kalkuluen arabera), Errusia Zurian, Ukrainan eta Krimean bizi ziren erdiak baino gehiago. Fiskalaren desirarik handiena judu-herriaren sufrimendua eta hari eragindako «genozidioaren zenbaterainokoa» agertzea zenez gero, gauza logikoa zen handik hastea, ondoren infernu hartatik akusatuari zenbateko erantzukizuna lepora ziezaiokeen aztertze. Arazoa zen, ordea, «urriak» zirela Eichmann Ekialdearekin lotzen zuten frogak, eta naziek Gestapoko artxiboak eta bereziki Eichmannen saileko artxiboak suntsitu izanari egotzi zitzaion froga-urritasun hori. Dokumentuzko

frogen eskasiak aitzakia eman zion fiskalari, ongi etorria inondik ere, lekuko-prozesio amaigabe bat eramateko auzitegira Ekialdeko gertaeren berri ematera, nahiz eta nekez izan zitekeen dokumentu falta hainbeste lekukori deitzeko arrazoi bakarra. Israeldar bizitarakoek, zeinak gaurko Israeleko biztanleriaren ehuneko hogeitaz inguru baitira, biziki presionatu zuten fiskala, juizioan adierazi zenez; presio haien berri zehatzagoa emango zuen geroago Yad Vashem-ek, nazien garaiko israeldar artxiiboak, 1962ko apirilean kaleratutako Buletin berezian. Oldeka joan ziren, beren kabuz, juizioa prestatzen ari ziren agintariengana, eta baita Yad Vashemera ere; Yad Vashem ofizialki izendatu zuten dokumentuzko frogak presta zitzen, eta hara joan ziren denak, lekuko gisa joan nahi zutela-eta, bere burua eskaintzera. «Irudimen biziko» kasurik okerrenak, «Eichmann sekula egon ez zen tokietan ikusi zuten» pertsonak emanak, baztertu egin ziren, baina berrogeita hamasei «judu herriaren sufrimenduen lekuko» —hala deitzen zituzten juizioaren antolatzaileek—, eraman zituzten azkenean auzi-gelara, hamabost edo hogeitaz «giroaren lekuko» eraman ordez, hasieran pentsatu zen bezala; hogeita hiru saio, guztira izan ziren ehun eta hogeita batetik, eskaini zitzaizkion osorik «giroari», hau da, epaitzen zenarekin ez zuten berez zerikusirik. Nahiz eta defentsak eta epaileek fiskalaren lekukoei oso-oso galdera gutxi egin, epaiak ez zuen Eichmannekin lotutako adierazpenik onartu, baldin ez bazeukan beste moduren bateko berrespenik. Hala, epaileek ez zioten Eichmanni egotzi nahi izan Hungarian mutil judu bat erail izana, ezta Alemanian eta Austrian *Kristallnacht* gaueko gertaerak sustatu izana ere, garai hartan Eichmannek ez baitzekien haren berri; areago, Jerusalem bertan ere, askoz gutxiago zekien *Kristallnacht* gauaz garai hura ezagutzen zuen azterlari gaizkien informatuak baino; ez zioten Lidiceko laurogeita hamar haur erail izana egotzi, Heydrichen erailketaren ondoren, Lodzera deportatu zituztenak, «ez baita arrazoizko zalantzarik gabe frogatu, aurrean ditugun datuen arabera, erailak izan zirenik»; ez «fiskalak aurkezturiko froga guztietatik parterik ikaragarrienetako bat diren» 1005 Unitatearen operazio higuingarrien erantzukizuna ere: unitate hark, hilkintzaren aztarna guztiak ezabatzeko xedeaz, Ekialdeko masa-hilobiak berriz zabaltzeko eta gorpuez libratzeko eginkizuna zeukan; burua *Standartenführer* Paul Blobel zen, eta hura, Nurenbergen eman zuen lekukotasunaren arabera, RSHAko IV. saileko burua zen Müllerren agindupean zegoen; eta, era berean, ez zioten

Eichmanni egotzi, gerrako azken hilabeteetan, aleman deuseztatze-eremuetan bizirik geratu ziren juduak ebakuatu zituzten modu hilgarria, Bergen-Belsenera bereziki. «Giroaren lekuko» zeritzanen aitorpenen alderdi nagusia, Poloniako ghettoen egoeraz, heriotza-esparruetan erabilitako bitartekoez, gatibu-lanaz eta lanaren bidez erailtzeko planaz oro har, ez zen inoiz auzitan jarri; aitzitik, kontatu zutenetik gehien-gehiena jakina zen lehendik ere. Eichmannen izena aipatzen baldin bazen, zeharkako gauzen inguruan aipatzen zen beti, «egin omen zuen» eta halakoak esanez, eta, hortaz, adierazpide haiek baliogabeak ziren legearen aldetik. Galdera bat egiten zitzaien unetik bertatik, alferrekoak gertatzen ziren «Eichmann beren begiekin ikusi» zuten lekuko guztien hitzak, eta epaiaren arabera, «Reicharen beraren barruan, Babes-herrian eta Europako herrialdeetan, mendebaldean, iparraldean, hegoaldean, hego-ekialdean eta Europako Erdialdean [zegoen] haren jardueren grabitate-ardatza», hau da, Ekialdean izan ezik beste nonahi. Zergatik, orduan, ez zituen epaileak bertan behera utzi asteetan eta hilabeteetan luzatu ziren aitorpen haiek? Auzi honi buruz, epaiak barkamena eskatzen zuen nolabait ere, eta bitxiki funsgabea zen azalpen bat ematen zuen azkenean: «Akusatuak salaketa guztiak ukatzen dituenenez gero», epaileek ezin zuten «giroari buruzko frogarik» baztertu. Akusatuak, nolanahi ere, ez zituen salaketan aipatzen ziren gertakariak inoiz ukatu; «salaketaren zentzuan» izatea haien erantzulea, hori ukatzen zuen.

Azkenean, dilema guztiz desatsegin baten aurrean geratu ziren epaileak. Juizioan, hasieratik bertatik, Servatius doktoreak inpugnatu egin zuen epaileen alderdikierarik eza; haren iritzian, judurik ez zen Azken Soluzioaren inplementatzaileak epaitzeko gai izan zitekeenik, eta hona nola erantzun zion epaile nagusiak: «Gu epaile profesionalak gara, eta ohituak gaude ekartzen dizkiguten frogak balioesten eta geure lana jendaurrean eta jendaurreko kritikari loturik egiten... Auzitegi bat osatzen duten epaileak gizakiak dira, gezur eta haragizkoak, beren sentimendu eta zentzuekin, baina legeak sentimendu eta zentzu horiei eustera behartzen ditu. Bestela, ez litzateke sekula aiherkundea sor dezakeen kasu kriminal bat epaitzeko epailerik aurkituko.... Ezin da ukatu holokausto naziaren oroitzapenak juduak oro aztoratzen dituela, baina kasu hau geure aurrean epaitzen den bitartean sentimendu horiei eutsi egin beharko diegu, eta betebehar hori bete egingo dugu». Eta hura egokia eta zuzena zen, baldin Servatius doktoreak ez bazuen esan

nahi juduek ez zutela behar bezala ulertzen beren presentziak munduko nazioen erdian sortzen zuen arazoa, eta, hortaz, ez ziotela arazo haren «azken soluzioari» behar bezala antzemango. Baina egoeraren ironia zen ezen, argudio horren aldera egin izan balu, akusatuak erantzun zezakeela, haren beraren lekukotasun enfatikoki errepikatuaren arabera, egile judu-sionistengandik ikasi zuela judu-auziaz zekien guztia, Theodor Herzl eta Adolf Böhm-en «oinarrizko liburuetan». Zein, orduan, gazte-gaztetandik sionista izandako hiru gizon haiek baino egokiago Eichmann epaitzeko?

Hala, bada, epaileak juduak izatea, edo bost lagunetik bat bizitarakoa zen herri batean bizitzea, «giroaren» lekukoei zegokienez zen gauza larria, ez akusatuari zegokionez. Hausner jaunak «jendetza tragiko» bat bildu zuen, erruz sufritutako jendea, den-denak aukera bakar hura ez galtzeko desiratzen, den-denak sinetsita bazutela egun batez auzitegian egoteko eskubidea. Epaileek kargu hartu zioten fiskalari, aukera hura «irudi orokorrak margotzeko» erabiltzearen zuzentasuna eta egokitasuna zela-eta, baina behin lekuko bat hitz egiten hasten zenean oso zaila zen etetea, aitorpena laburtzea, «lekukoaren ohorearengatik eta aipatzen dituen gaiengatik», Landau epaileak esan zuen bezala. Zein ziren epaileak, bada, gizatasunaren aldetik, jende hari guztiari egun batez auzitegian egoteko eskubidea ukatzeko? Eta zein ausartuko zen, gizatasunaren aldetik, haien adierazpenen xehetasunen egia auzitan jartzen, lekukoek «jendaurrean bihotza osorik zabaltzen zutenean», nahiz eta kontatzeko zutena «juizioaren albo-emaizta gisa baizik ezin zitekeen ikusi»?.

Beste eragozpen bat. Israelen, lekurik gehienetan bezala, auziperatzen den pertsona errugabetzat hartzen da, erruduna dela frogatzen ez den bitartean. Eichmannen kasuan, ordea, agerikoa zen gauzak bestelakoak zirela. Jerusalemen agertu aurretik Eichmann erruduntzat jo ez balitz, arrazoizko zalantzarik batere gabe erruduntzat, israeldarrak ez ziren bahitzera ausartuko, edo ez zuten bahitu nahi izango; Ben-Gurion Lehen Ministroak, 1960ko ekainaren 3ko gutun batean Argentinako lehendakariari agertzen ziolarik zergatik egin zuen Israelek «Argentinako legearen urratze formal» bat, idatzi zion «Eichmann izan zela [gure herriko sei milioi lagun] masa-hilketa antolatu zuena, eskala erraldoi eta aurrekaririk gabean, Europa osoan zehar». Ohiko delituetakoa atxiloketa normaletan ez bezala, haietan erruaren susmoak sendoa eta arrazoizkoa izan behar baitu,

baina ez arrazoizko zalantzarik batere gabea —ondorengo juizioaren eginkizuna da hori—, Eichmannen legez kanpoko atxiloketa justifika zitekeen, eta halaxe justifikatu zen munduaren aurrean, epaia arazorik batere gabe iragar zitekeelako bakarrik. Azken Soluzioan bete zuen eginkizuna, gero ikusi zenez, asko handizkatu zen juizioan, partez Eichmannen beraren ahoberokeriarengatik, partez Nurenbergeko eta gerra ondoko beste juizioetako akusatuek bere burua haren lepotik desenkusatu nahi izan zutelako, eta, oroz gain, funtzionario juduekin harreman estuak izan zituelako, bera zelako «judu-auzietan [ez beste ezertan] aditua» zen aleman funtzionario bakarra. Fiskalak, akusazioa batere handizkatu ez ziren sufrimenduetan finkatu zuelarik, mugarik gabeko gehiegikeriaz handizkatu zuen gehiegikeria, edo hala pentsa zitekeen, Apelazio Auzitegiak bere epaia eman zuen arte, honela zioena: «Gertaera bat da apelatzaileak ez zuela ‘nagusien agindurik’ batere jaso. Eichmann bera zen bere buruaren nagusia, eta berak ematen zituen agindu guztiak judu-auziei zegozkien gauzetan». Huraxe izan zen, hain zuzen ere, fiskalaren argudioa; Barrutiko Auzitegiko epaileek ez zuten onartu, baina, gauza zentzugabea eta arriskutsua bazen ere, Apelazio Auzitegiak argudioa osorik onetsi zuen. (Apelazio Auzitegiaren epaia Michael A. Musmanno jaunaren lekukotasunean oinarritu zen gehienbat. Musmanno *Ten Days to Die* liburuaren egilea zen [1950], eta epailea izan zen Nurenbergen; Amerikatik joan zen Jerusalemara, fiskalaren aldeko lekukoa izateko. Musmannok kontzentrazio-eremuetako administratzaileen juizioetan jardun zuen epaile gisa, eta Ekialdeko erailketa-unitate mugikorretako kideen juizioetan; eta Eichmannen izena juizioko agirietan agertu bazen ere, behin baizik ez zen epaietan aipatu. Nolanahi ere, Musmannok galdeketak egin zizkien Nurenbergeko akusatuei, eta Ribbentropen esan omen zion ezingo zela Hitler ezertaz akusatzerik izango Eichmannen eraginpean gertatu ez balitz. Musmanno jaunak, jakina, ez zuen esaten zioten guztia sinesten, baina sinesten zuen Hitlerrek berak eman ziola Eichmanni bere egitekoa, eta «Himmler eta Heydrich bozeramaile gisa baliatuz» gauzatzen zuela Eichmannek bere boterea. Saio batzuen ondoren, Gustave M. Gilbert, Long Island Unibertsitateko psikologiako irakaslea eta *Nuremberg Diary* liburuaren egilea [1947], agertu zen fiskalaren lekuko gisa, eta zuhurragoa izan zen Nurenbergeko akusatuak aurkeztu zizkion Musmanno epailea baino. Gilbertek juizioan adierazi zuenez, «gerrako kriminal nazi

nagusiek ez zuten garai hartan Eichmann askorik estimatzen», eta berebat adierazi zuen Eichmann, biek hila zela uste zutena, ez zela aipatu ere egin Musmanno eta biak gerrako krimenez aritu zirenean). Barrutiko Auzitegiko epaileak, orduan, batetik fiskalaren gehiegikeria ikusten zutelako eta, bestetik, ez zutelako Eichmann Himmlerren nagusi eta Hitlerren inspiratzaile bihurtu nahi, akusatua defendatu beharrean gertatu ziren. Baina horrek, desatsegina izateaz aparte, ez zuen ondoriorik izan ez epaian ez zigor-erabakian, zeren, «biktimak heriotzara eramaten dituenaren legezko erantzukizuna eta erantzukizun morala, geure iritzian, ez baita txikiagoa, eta handiagoa ere izan daiteke, biktima erailtzen duen harena baino».

Konpromisoa izan zen epaileek eragozpen haietatik guztietarik ateratzeko hautatu zuten bidea. Epaiak bi parte dauzka, eta, alde handiz, salaketaren berridazketa da parterik handiena. Baina epaileek argi erakutsi zuten beren ikusmolde zeharo diferentea, Alemaniarekin hasi eta Ekialdearekin bukatu baitzuten epaia, juduen sufrimenduan ez baina egin zirenetan nahi zutela oinarritu adieraziz era horretan. Fiskalari kontra eginez, epaileek ageriki zioten eskala ikaragarri hartako sufrimenduak «giza ulerpenaz haratagokoak» zirela, «egile eta poeta handien» gaia, eta ez zegozkiola auzitegi bati; baina sufrimendu haiek eragin zituzten egintzak eta motiboak, berriz, haiek ez ziren ez ulerpenaz ez epaiaz haratagokoak. Esatera ere iritsi ziren erabakia beren aurkikuntza propioetan oinarrituko zutela, eta aise galduko ziren asmo horrek zekarren lan ikaragarriari heldu ez baliote. Nazien suntsiketa-makinariaren egitura burokratikoaz jabetu ziren, akusatuaren posizioa behar bezala ulertzeko xedeaz. Dagoeneko liburu gisa argitaratua dagoen Hausner jaunaren sarrera-mintzaldia ez bezala, epaia probetxuz azter dezakete garai honetan interes historikoa dutenek. Baina oratoria merkerik batere gabeko epai hark erabat baliogabetuko zuen akusazioa, baldin epaileek ez balute motiboren bat aurkitu Eichmanni Ekialdeko krimenetan erantzukizunen bat egozteko, delitu nagusian zuen erantzukizunaz gainera, zeinari buruz aitortu baitzuen, zehazki, zer egiten ari zen ondo jakinik garraiatu zuela jendea heriotzara.

Lau puntu ziren, batez ere, auzitan zeudenak. Aurrenik, Eichmanek parte hartu ote zuen *Einsatzgruppen* taldeek Ekialdean egin zuten masa-hilkintza batean, zeina Heydrichetik antolatu baitzuen

martxoaren 1941ean egin zen bilera batean, Eichmann bertan zegoelarik. Nolanahi ere, *Einsatzgruppen* taldeetako komandanteak SSetako elite intelektualeko kideak zirenez gero, eta osteak, berriez, edo kriminalak edo zigor moduan errekrutaturiko soldatu arruntak —inor ez zen hara bere borondatez joango—, hiltzaileen txostenetan aipaturik ageri zelako, ez bestela, zegoen Eichmann Azken Soluzioaren parte garrantzitsu honekin lotua, txosten haiek bere nagusiei laburtu behar baitzizkien berak gero. Txosten haiek, «erabateko sekretuak» baziren ere, ziklostilean inprimatzen ziren, Reicheko beste berrogeita hamar-hirurogeita hamar bulegoetara joaten ziren, eta bulego haietan, jakina, *Oberregierungsrat* bat izaten zen beti, goragokoentzat laburpenak egiten zituen. Horrez gainera, Musmanno epailearen lekukotasuna zegoen; haren arabera, Walter Schellenbergek, Musmannorekin Nurenbergen izan zuen elkarrizketa batean — Schellenbergek prestatu zuen Heydrichen eta agintaritzaren militarreko Walter von Brauchitsch jeneralaren arteko akordioaren zirriborroa, eta han ageri zen *Einsatzgruppen* taldeek erabateko askatasuna izango zutela «beren planak betetzeko, biztanleria zibilari dagokionez», hots, zibilak hiltzeko—, Eichmannek «kontrolatzen zituela operazio haiek», eta «pertsonalki ikuskatu» ere egin zituela esan zion hari. Epaileek, «zuhurtasunez», ez zuten Schellenbergen lekukotasun berretsi gabeen oinarritu nahi izan, eta ez zuten frogara hura aintzat hartu. Schellenbergek oso iritzi txarra zuen nonbait Nurenbergeko epaileez, Hirugarren Reicheko administrazio-egituraren labirintuan barna bidea bilatzeko zuten gaitasunari zegokionez. Hortaz, geratzen ziren frogetan ageri zenez, Eichmannek oso ondo zekien zer ari zen gertatzen Ekialdean —sekula auzitan jarri ez zen gauza—, eta epaiak ondorioztatu zuen, eta harritzekoa da, aski zela hori Eichmannek Ekialdeko egintzetan parte hartu zuelako frogari izateko.

Bigarren puntua juduen deportazioari zegokion —Poloniako ghettoetatik inguruko hilkintza-zentroetara—, eta garrantzitsuagoa zen. Izan ere, «logikoa» zen uste izatea garraioetan aditua zenak lanean jardungo zuela Gobernu Nagusiaren mendeko lurretan. Nolanahi ere, beste iturri askotatik dakigunez, goi-mailako SSak eta polizia-buruzagiak ziren han garraioaren arduradunak, Hans Frank Gobernari Nagusiaren nahigabe handirako, zeina, Eichmannen izena aipatu ere egin gabe, behin eta berriz kexatzen baitzen bere egunkarian auzi honetan izaten ziren interferentziez. Franz Novakek, Eichmannen

garraio-ofizialak, defentsaren lekuko gisa joanda, Eichmannen bertsioa berretsi zuen: tarteka, jakina, Ostbahn edo Ekialdeko Burdinbideetako zuzendariarekin negoziatu behar izaten zuten, Europako mendebaldetik zetozen garraialdiak bertako operazioekin adostu behar baitziren. (Tratu haiei buruz, Wisliceny mintzatu zen Nurenbergen: Novak Garraio Ministerioarekin harremanetan jartzen omen zen, eta hark, bere aldetik, armadaren baimena behar zuen eskuratu trenak gerra-leku batean sartzen baziren. Armadak betoa ipini ziezaiekeen garraialdiei. Baina Wislicenyk ez zuen kontatu, eta horixe da agian interesgarriena, beto-eskubidea hasierako urteetan baizik ez zuela armadak erabili, aleman osteak erasoaldian ari zirenean; 1944an, Hungariako deportazioek ihes etsian zetozen aleman osteei erretirako lerroak tratatzen zizkietenean, ez zen batere betorik izan). Baina, adibide baterako, 1942an Varsoviako ghettoa ebakuatu zenean, egunean bost mila lagun eramanez, Himmler bera aritu zen burdinbideetako agintariekin negoziazioetan, eta Eichmannek eta haren taldeak ez zuten negoziazio haietan inolako zerikusirik izan. Epaiak, azkenean, Hössen juizioko lekuko batek egin zuen adierazpenera jo zuen; haren arabera, Gobernu Nagusiaren eremuko judu batzuk Bialystok-eko juduekin batera heldu omen ziren Auschwitzera; Bialystok Ekialdeko Prusiako aleman probintziari atxiki zitzaion hiri bat zen, eta, hortaz, Eichmannen jurisdikzioaren barruan zegoen. Baina Warthegaun bertan ere, eta hura Reicharen lurraldea zen, RSHA ez ezik, Greiser *Gauleitera* izan zen deuseztatzearen eta deportazioaren arduraduna. Eta nahiz eta 1944an Eichmannek Lodzeko ghettoa bisitatu —Ekialdeko ghettorik handiena, eta hustu zen azkena—, Himmler bera izan zen berriz ere, hilabete geroago, Greiser ikustera joan eta Lodzeko ghettoa suntsitzea agindu zuena. Eichmannek Himmlerren aginduak inspiratzen zituelako fiskalaren aldarri harroa onartu ezean, Eichmannek juduak Auschwitzera garraiatze hutsak ezin zuen segur aski frogatu berak bidali zituenik hara iritsi ziren judu guztiak. Eichmannen uko amorratuak eta froga berresleen falta gogoan harturik, puntu honi buruzko epaiaren ondorioek, zoritxarrez, *in dubio contra reum* printzipioaren aplikazioa ematen zuten.

Eichmannek deuseztatze-esparruetan gertatzen zenaren gainean izan bide zuen erantzukizuna zen gogoan hartu beharreko hirugarren puntua, zeren, haietan ere, fiskalaren arabera, aginpide handia izan baitzuen. Baina epaileek alboratu egin zituzten lekukoek gai honi

buruz egin zituzten aitorpen guzti-guztiak, beren independentzia eta zintzotasuna ezin argiago erakutsiz. Haien argudioak, gai honetan, akasgabeak ziren guztiz, eta argi erakusten zuten epaileek primeran ulertzen zutela aurrean zuten arazoa. Esparruetan bi judu-kategoria zirela agertuz hasi ziren epaileak: alde batetik, «garraio-juduak» (*Transportjuden*), presoan parterik handiena osatzen zutenak eta sekula deliturik egin ez zutenak, ezta nazien begietan ere, eta, bestetik, delituren bat egin zutela-eta «zaintza babesgarrian» zeudenak (*Schutzhaftjuden*); azken horiek Alemaniako kontzentrazio-esparruetara bidaltzen zituzten, eta, erregimenaren izumen osoa «errugabeen» kontra bideratzeko printzipio totalitarioaren arabera, besteak baino askoz ere hobeto zeuden, baita, Reicheko kontzentrazio-esparruak *judenrein* uzteko xedeaz, Ekialdera garraiatzen zituztenean ere. Auschwitzeko lekuko bikaina izan zen Raja Kagan andrearen hitzetan, hura zen «Auschwitzeko paradoxa handia. Delitu bat egiten harrapatu zituztenak besteak baino hobeto tratatzen zituzten». Haiekin ez zen aukerarik egiten, eta gehien-gehienak bizirik atera ziren. Eichmannek ez zuen *Schutzhaftjuden* haiekin zerikusirik; baina *Transportjuden* zirenak —haren espezialitatea—, definizioz, heriotzara zeuden kondenatuak, pertsona bereziki indartsuen ehuneko hogeita bost bat izan ezik, haiek, zenbait esparrutan, lanerako hautatuak izan baitzitezkeen. Epaian ageri zen bertsioan, alabaina, puntu hori ez zen landu. Eichmannek bazekien, jakina, bere biktima gehien-gehienak heriotzara kondenatuak zeudela; baina lanerakoen aukera SSetako sendagileek egiten zutenez gero, esparruan bertan, eta deportatuen zerrendak normalean, jatorrizko herrialdean, judu-kontseiluek edo Ordenako Poliziak osatzen zituztelarik, inoiz ere ez Eichmannek edo haren gizonek, egiaz gertatzen zena zen Eichmannek ez zuela nor hilko eta nor biziko zen esateko aginpiderik; jakin ere ezin zuen egin. Eichmann gezurretan ari ote zen jakitea zen gauza, esan zuenean: «Nik ez dut inoiz judu bat hil, ezta ez-judu bat ere... Nik ez dut inoiz agindurik eman judu bat edo ez-judu bat hiltzeko». Fiskala, inoiz inor hil ez zuen (eta, kasu jakin honetan, segur aski hiltzeko adorerik ere ez zuen) masa-hiltzaile bat ulertzeko gauza ez-eta, etengabe aritu zen gizabanako baten erailketa frogatzeko ahaleginean.

Honek laugarren eta azken puntura garamatza, Eichmannek Ekialdeko lurretan zeukakeen agintaritza orokorrari dagokiona: zer erantzukizun izan zuen ghettoetako bizimoduan, haietan pairatzen

zen miseria ezin esanekoan, eta lekuko gehienen adierazpenaren gaia izan zen ghettoen azken suntsiketetan. Berriz ere, Eichmannek oso ondo zekien haien guztien berri, baina zerikusirik ez zuten batere beraren lanarekin. Fiskala ahaleginean aritu zen zerikusia bazela frogatu nahian, eta horretarako oinarritzat hartu zuen Eichmannek libreaki onartu zuela tarteka-tarteka erabaki behar izaten zuela, gai hari buruzko araubide aldakorren arabera, zer egin Polonian harrapatuak geratu ziren atzerriko juduekin. Hura, esan zuen Eichmannek, «garrantzi nazionala» zuen gai bat zen, Atzerriko Arazoetako Ministerioari zegokiona, eta tokiko agintarien «eskumena baino harantzago» zegoen. Judu haiei zegokienez, bi joera zeuden aleman funtzionario guztiengan: joera «erradikala», bereizketarik batere egiten ez zuena —judu bat judu bat zen, eta kito— eta joera «moderatua», judu haiek «izotzetan» uztea nahiago zuena, trukeei begira. (Juduak trukatzeko ideia, dirudienez, Himmlerreña izan zen. Estatu Batuak gerran sartu ondoren, Himmlerrek idatzi zion Müllerri, 1942ko abenduan, «Estatu Batuetan ahaide eraginkorrak dituzten judu guztiak esparru berezi batean ipini beharko lirateke... eta bizirik utzi», erantsiz, «judu horiek balio handiko bahituak dira guretzat. Hamar milako kopuru bat darabilkit gogoan»). Esan beharrik ere ez dago Eichmann «erradikala» zela, eta salbuespenak egitearen kontra zegoen, arrazoi administratibo eta «idealistentatik». Baina 1942ko apirilean, Atzerriko Arazoetako Ministerioari idatzi zionean «Segurtasun Poliziak Varsoviako ghettoan hartzen dituen neurri berak aplikatuko zaizkie hemendik aurrera atzerritarrei», ghetto hartan atzerritar pasaporteak zeuzkaten juduak aldeztetik, ardura handiz, aukeratu baitziren, nekez ari zen jokatzeko Ekialdeko «RSHAren izenean, erabaki-hartzaile» baten moduan, eta gainera han ez zeukan «ahalmen betearazlerik». Are gutxiago etor zitekeen ahalmen edo aginte hura Heydrichetik edo Himmlerrek tokiko komandantei inoiz agindu jakin batzuk Eichmannen bitartez igorri izanetik.

Zentzu batean, Jerusalemeko auzitegiak uste zuena baino ere okerragoa izan zen egiaz gertatu zena. Heydrichi, argudiatzen zuen epaiak, Azken Soluzioaren inplementazioaren gaineko aginpide zentrala eman zitzaion, lurralde-mugarik batere gabe, eta hortaz Eichmann, esparru honetako haren ordezkari nagusia, haren modu berean, nonahi zen erantzulea. Hori egia zen Azken Soluzioaren egitura orokorrari zegokionez, baina nahiz eta Heydrichetik,

koordinazio-xedeekin, Hans Franken Gobernu Nagusiko ordezkari bat eraman Wannseeko Konferentziara, Josef Bühler doktorea hain zuzen ere, Estatuko idazkariordea, Ekialdeko lurralde okupatuetan Azken Soluzioa ez zen egiazki aplikatu, zergatik eta hango juduen patua sekula ez zelako zalantzan jarri. 1939ko irailean erabaki zuen Hitlerrek Poloniako juduen sarraskia, ez 1941eko maiatzean edo ekainean, Erwin Lahousenek, Aleman Kontraespioitzakoak, Nurenbergen emandako lekukotasunagatik epaileek ondo zekiten bezala: 1939ko irailerako, Hitlerrek erabakia zeukan poloniar juduak erailteza». (Hala, izar judua Polonia okupatu eta segituan ipini zen Gobernu Nagusian, baina Alemaniako Reichean 1941 arte ez zen ipini, Azken Soluzioaren garaian). Epaileek berebat zituzten aurrean gerraren hasierako bi bilkuraren agiriak; haietako bat Heydrichetik antolatu zuen, 1939ko irailaren 21ean, «erailketa-unitate mugikorren sailburu eta komandanteen» bilkura gisa, eta han Eichmann, oraindik *Hauptsturmführer* besterik ez zena, Juduen Emigraziorako Berlingo Zentroaren ordezkari moduan egon zen; bestea 1940ko urtarrilaren 30ean egin zen, eta bertan «ebakuazio- eta birkokatze-auziak» landu ziren. Bilkura batean zein bestean, lurralde okupatuetako biztanleria osoaren patuaz mintzatu ziren, hau da, poloniarren «soluzioaz» eta «juduen auziaz».

Goiz bazen ere, «poloniar auziaren soluzioa» ondo bideratua zen: «gidaritzat politikotik», txostenen arabera, ehuneko hiru baizik ez zen utziko; eta «ehuneko hiru hura kaltegabea izan zedin», politikari haiek «kontzentrazio-esparruetara bidaliko zituzten». Erdimailako poloniar intelektualak —«maisua, elizgizonak, nobleak, legionarioak, funtzionario jakin batzuk, etab.»— erregistratu eta atxilotu egingo zituzten, eta «poloniar primitiboak», berriz, aleman langileriari erantsiko zitzaizkion, «langile migratzaile» moduan, eta beren etxetatik «ebakuatuko» zituzten. «Helburua hau da: poloniarrek langile sasoikakoa eta migratzailea behar du bihurtu, eta haren egoitza finkoa Krakoviako eskualdean egongo da». Juduak hiri-zentroetan bildu, eta «ghettoetan behar ziren kontzentratu, aise kontrolatzeko eta geroago behar bezala ebakutzeko». Reichari atxikitako Ekialdeko lurraldeak —Warthegau izenekoa, Mendebaldeko Prusia, Danzig, Poznango probintzia eta Silesia Garaia—, judu guztiez behar ziren segituan gabetu; 30.000 ijitorekin batera, karga-bagoietan bidali behar ziren Gobernu Nagusira. Himmlerrek, azkenean, «Aleman

Herritartasuna Sendotzeko Reicharen Arduraduna» zenez gero, poloniar biztanleriaren parte handiak Reichari berriki atxikitako lurraldeetatik ebakutzeko aginduak eman zituen. Epaian aipatzen zen «herrien migrazio antolatu» hura inplementatzeko eginkizuna Eichmanni eman zioten, RSHako IV-D-4 azpisaileko buru gisa, eta eginkizuna bera «emigrazioa, ebakuazioa» zen. (Garrantzitsua da gogoratzea «politika demografiko negatibo» hau ez zela bat-batean antolatu, alemanek Ekialdean izandako garaipenen ondorioz. 1937ko azaroan egin zen plan haren lehen zirriborroa, Hitlerrek aleman armadako agintari nagusiei zuzendu zien ezkutuko mintzaldian (ikus Hössbach Protokoloa deritzana). Hitlerrek esan zuen baztertu egiten zituela atzeritar nazioak konkistatzeko asmoak oro, berak «espazio jendegabe» [*volkloser Raum*] bat nahi zuela Ekialdean eskuratu, alemanak bertan birkokatzeko. Haren entzuleek —Blomberg, Fritsch eta Räder, besteren artean— ondo zekiten halako «espazio jendegaberik» ez zela existitzen, eta hortaz, bazekiten Alemaniak Ekialdean garaipen bat izaten zuenean, ondoren, automatikoki, bertako biztanleriaren «ebakuazioa» etorriko zela. Ekialdeko juduen kontrako neurriak ez ziren antisemitismoaren emaitza bakarrik, berebat ziren politika demografiko orohartzaile baten parte bat; politika hari jarraituz, alemanek gerra irabazi izan balute, poloniarrek juduen patu bera izango zuten, hots, genozidioa. Ez da aieru hutsa: Alemaniako poloniarrek banda bereizgarri bat eraman beharra zeukaten ordurako, juduen izarraren ordeztatu «P» bat zeukana, eta horixe izaten zen beti, ikusi dugunez, suntsiketa-prozesuaren antolamenduan poliziak hartzen zuen aurreneko neurria).

Juizioan aurkeztu ziren dokumentuen artean, bazen interes berezia zuen gutun bat, iraileko bilkuraren ondoren erailketa-unitate mugikorretako komandantei bidali zitzaiena. «Juduen auzia lurralde okupatuetan» zen gutun haren gai bakarra, eta zehaztasunez bereizten zituen «azken xedea», sekretupean eduki beharrekoa, eta hura iristeko «aldez aurretikako neurriak». Azken horien artean, dokumentuak espresuki aipatzen du juduak burdinbideetatik gertu kontzentratzea. Espero izatekoa denez, «juda-azkiaren Azken Soluzioa» esapidea ez da inon ageri; «azken xedea» inondik ere poloniar juduak suntsitzea zen, eta hura ez zen gauza berria bileran zeudenentzat; berria zen, ordea, Reichari berriki atxikitako probintzietan bizi ziren juduak Poloniara behar zirela ebakatu,

hura baitzen Alemania *judenrein* uzteko aurreneko urratsa, ondoren Azken Soluziora iristeko.

Eichmanni zegokionez, dokumentuek argi erakusten zuten, baita beranduko aldi hartan ere, ez zuela zerikusirik izan kasik Ekialdean gertatzen ari zenarekin. Orduan ere, «garraioko» eta «emigrazioko» aditu baten eginkizuna betetzea izan zen haren eginkizuna; Ekialdean, ez zen «juduetan aditurik» behar, ez zegoen «araubide» berezien premiarik, eta ez zen kategoria pribilegiadunik existitzen. Judu-kontseiluetako kideak berak ere den-denak akabatzen zituzten azkenean, ghettoak suntsitzen zituztenean. Salbuespenik ez zen, langile esklaboei eman zitzaien patua beste era bateko heriotza baitzen, motelagoa. Hortaz, Ekialdean, burokrazia juduak —Mendebaldean, burokrazia hark hilkitzen antolaketa administratiboetan betetzen zuen eginkizunak hain funtsezkoa ematen zuen, non bertatik antolatu baitziren «judu-kontseilu zaharrak»—, ez zuen parte hartu juduak atxilotzen eta kontzentratzen. Pasarte osoak gudarosteen erretaguardiako aurreneko masa-fusilamendu basati haien amaiera seinalatzen du. Dirudienez, armadako komandanteek protestatu egin zuten zibilen sarraskien kontra, eta Heydrich akordio batera heldu zen goi-mailako aleman agintariekin, juduen, poloniar intelektualen, elizgizon katolikoen eta nobleen erabateko «behin eta betiko garbiketa» baten printzipioa finkatuz, baina erantsiz, bi milioi judu «garbitu» beharko ziren operazio baten handitasuna aintzat harturik, juduek beharko zutela izan ghettoetan kontzentratu behar ziren aurrenekoak.

Baldin epaileek Eichmann errugabetu balute ere lekukoek juizioan behin eta berriz kontatzen zituzten istorio lazgarriekin lotutako karguetatik, ez ziren bestelako epai batera iritsiko, eta Eichmannek ez zion heriotza-zigorrari ihes egingo. Azken emaitza berbera izango zen. Baina erabat desegingo zuen, eta atzerabiderik gabe, salaketa, fiskalak aurkezten zuen moduan.

XIV: FROGAK ETA LEKUKOAK

Gerrako azken asteetan, SSetako burokrazia, oroz gain, nortasun-dokumentu faltsuak prestatzen eta ezin konta ahala paper suntsitzen aritu zen, erailketa sistematikoko sei urteren lekukotasuna ematen zutenak. Eichmannen sailak, besteek baino arrakasta handiagoz, bere artxiboak erre zituen; artxibo haiek, ordea, ez ziren ezer asko, sail hartako gutun guztiak Estatuko eta alderdiko beste bulegoetara zuzenduak izaten baitziren, eta haiek aliatuen eskuetan geratu ziren. Behar baino ere dokumentu gehiago geratu da Azken Soluzioaren berri jakiteko, eta gehienak Nurenbergeko Juizioetan eta ondorengoetan ezagutu ziren. Zinpeko eta zin egin gabeko aitorpenek berretsi zituzten hilkintzak; aitorpen haiek gehienak Jerusalemeko juizioa baino lehen egindako juizioetako lekukoez eta akusatuek, eta asko ordurako bizirik ez zeuden pertsonak emanak ziren. (Hura guztia, eta harekin batera entzutezko zenbait adierazpen, frogabide gisa onartu zen Eichmann auziperatzen zen legearen 15. sailaren arabera, zeinak baitio epailea «frogaren arauetatik desbidera daitekeela, baldin agirietan desbideratze hori eragin duten arrazoiak jasotzen baditu»). Atzerrian, Alemania, Austria eta Italiako auzitegietan, Jerusalemeko ezin joan izan ziren hamasei lekukok egindako aitorpenekin osatu ziren dokumentuzko frogak, Fiskal Nagusiak iragarri baitzuen «[haiek ere] auziperatu egingo zituela juduherriaren kontra egindako delituengatik»; nahiz eta aurreneko saioan esan zuen «... eta defentsak hona etortzeko eta lekuko izateko prest dauden pertsonak baldin baditu, nik ez dut bide hori galaraziko. Ez dut inolako eragozpenik jarriko», gero ez zion jende hari immunitatea eman nahi izan. (Immunitate hura osorik zen Israeleko gobernuaren borondatearen arabera, Nazien eta Nazien Laguntzaileen (Zigor) Legearen mendeko delituak ez baitira derrigor esetsi beharrekoak).

Ez zirudien hamasei gizon haietatik bat ere Israelera joango zenik —zazpi, une hartan, espetxean zeuden—, eta puntu hura, hortaz, teknikoa gertatu zen, baina aski garrantzitsua. Baliogabetu egin zuen, teknikoki gutxienez, «Azken Soluzioaren inplementatzaileak epaitzeko egokiena» israeldar auzitegi bat zelako Israelen aldarria, han dokumentuak eta lekukoak «beste herrialde guztietan baino ugariagoak» baitziren; eta, dokumentuei zegokienez ere, aldarri hura zalantza zkoa zen; izan ere, Yad Vashem israeldar artxiboa aski sortu berria zen, eta ez zen inondik ere beste artxiboak baino hobe. Berehala ikusi zen Israel zela defentsaren lekukoak ezin entzungo ziren mundu osoko herrialde bakarra, eta fiskalaren zenbait lekukori ere ezingo zizkiela defentsak galderak egin, aurreko juizioetan zinpeko aitortpenak egin zituztenei. Eta hura are larriagoa zen, zeren akusatua eta haren abokatua ez baitzeuden «beren defentsarako dokumentu propioak eskuratzeko moduan». (Servatius doktoreak ehun eta hamar dokumentu aurkeztu zituen, eta fiskalak, berriz, hamabost mila, baina hasieran dozena bat inguru besterik ez zituen defentsak aurkeztu, gehienak Poliakoven edo Reitlingerren liburuetatik ateratako zatiak; gainerako guztiak, Eichmannek egindako hamazazpi grafikoak izan ezik, fiskalak eta Israeleko poliziak bildutako material oparotik hartuak ziren. Argi zegoen, aberatsaren mahaitik eroritako apurrak eman zitzaizkion defentsari). Izan ere, defentsak ez zituen izan auzia behar bezala bideratzeko beharrezkoak ziren «ez bitartekoak, ez denbora», ez zeuzkan eskura «mundu osoko artxiboak eta gobernu baten tresnak». Kritika bera egin zen Nurenbergeko Juizioetan, are nabarmenagoak izan baitziren han fiskalaren eta defentsaren arteko aldeak. Defentsaren eragozpen nagusia, hala Nurenbergen nola Jerusalem, dokumentuen masa aztertzeko behar ziren laguntzaile trebatuen falta izan zen, defentsarako baliagarriak izan zitezkeen testuak bila zitzaten. Gaur egun ere, gerra bukatu eta hemezortzi urte geroago, erregimen naziaren artxiboko material ikaragarriaz dakiguna, hein handi batean, fiskalaren asmoetarako egindako aukeraren baitakoa da.

Inor ez zen konturatzen defentsaren desabantaila erabakigarri horretaz Servatius doktorea baino hobeto, Nurenbergen ere defentsaren abokatuetako bat izan zelarik gainera. Eta horren ondorioz, hasteko, are nekezago uler daiteke zergatik eskaini zituen bere zerbitzuak. Galdera horri eman zion erantzuna izan zen «negozio-kontua» zela

hura huts-hutsik, eta «dirua irabazi nahi zuela», baina ondo jakin behar zuen, Nurenbergen izandako esperientziaren ondoren, Israeleko gobernuak ordainduko zion dirua —hogei mila dolar, berak eskatu zuena— kopuru desegokia eta barregarria zela, baita Eichmannen Linzeko familiak eman zizkion beste hamabost mila marko erantsita ere. Juizioaren aurreneko egunean kasik hasi zen gutxiegi pagatzen ziotela-eta kexuka, eta handik gutxira jendaurrean adierazi zuen Eichmannek espetxean idatzi zituen «memoriak» saltzea espero zuela, «etorkizuneko belaunaldientzat». (Artxibo Nazionaletan dago orain dena gordea). Eichmannek «liburu» bat idatzi zuen auzitegiaren abuztuko azkeneko saioaren eta abenduko epaiaren irakurketaren artean, eta defentsak «egintzen gaineko frogak berri» baten gisara —halakorik ez zen, jakina— aurkeztu zuen testu hura Apelazio Auzitegiaren aurrean kasazioa egin zenean.

Akusatuaren posizioari zegokionez, auzitegia fida zitekeen Eichmannek Israeleko polizia-galdetzaileari egin zion adierazpen xehean; juizioaren prestakuntzarako behar izan ziren hamaika hilabeteetan Eichmannek eskuz idatzi zituen ohar ugariak erantsi zitzaizkion, gainera, adierazpen hari. Dударik ez zen izan aitorpen haiek borondatezkoak zirela; gehienak galdetu ere gabe emanak ziren. Eichmanni mila eta seihun dokumentu aurkeztu zizkieten, eta haietako batzuk, geroago jakin zenez, lehendik ikusiak zituen, Argentinan erakutsi baitzizkieten, Sassenekin izan zuen elkarrizketan, zeinari Hausner jaunak, eta zuzen zegoen, «juizioaren azken probasaioa» deitu baitzion. Baina Jerusalemen hasi zen Eichmann dokumentuak egiazki lantzen, eta deklaratzera atera zenean, berehala ikusi zen ez zuela denbora alferrik galdu: bazekien dokumentuak irakurtzen, poliziak galdeketa egin zionean ez bezala, eta abokatuak berak baino hobeto ere irakurtzen zituen gainera. Eichmannek auzitegian eman zuen lekukotasuna izan zen azkenean kasu osoko frogak biderik hoberena. Defentsaren abokatuak ekainaren 20an aterarazi zuen aurreneko deklaratzera, juizioko hirurogeita hamabosgarren saioan, eta ia etenik egin gabe galdekatu zuen hamalau saiotan, uztailearen 7a arte. Egun hartan bertan, laurogeita zortzigarren saioan, hasi zitzaion fiskala galderak egiten, beste hamazazpi saiotan, uztailearen 20a arte. Izan ziren gorabehera batzuk: Eichmannek behin mehatxu egin zuen «dena kontatuko zuela», Moskuko estiloan, eta beste batean kexatu egin zen, «denbora askotxo zeramala zartaginean eta xerra erretzera zihoala»;

baina normalean nahiko lasai egoten zen, eta ez zen egiaz aritzen esaten zuenean, mehatxuka, ez ziola galdera gehiagori erantzungo. Halevi Epaileari esan zion «pozik [zegoela] hamabost urtez leporatu zizkieten gezurretatik egia bereizteko aukera zuelako», eta oso harro zegoela ordu arte inoiz izandako birgaldera-saiorik luzeenak egin zizkiotelako. Bere abokatuak bigarren galdeketa bat egin ondoren, saio bat baino gutxiago hartuz hartarako, hiru epaileen txanda etorri zen, eta bi saio eta erdian gehiago atera zioten haiek fiskalak hamazazpi saiotan atera ziona baino.

Ekainaren 20tik uztailaren 24ra aritu zen Eichmann deklaratzeko; hogeita hamahiru saio eta erdi izan ziren guztira. Bi halako kasik, ehun eta hogeita bateko guztizkotik hirurogeita bi, eman ziren fiskalaren ehun lekukoren adierazpenetan, eta haiek, herrialde bat bestearen atzetik, beren izugarrikeriazko istorioak kontatu zituzten. Haien lekukotasunak apirilaren 24tik ekainaren 12raino luzatu ziren, eta bitarteko denboran dokumentuzko frogak eman ziren; gehienak Fiskal Nagusiak ozen irakurtzen zituen, agirietan jasoak gera zitezten, eta agirien kopia ematen zitzaion gero egunero prentsari. Bakan batzuk izan ezik, lekuko guztiak israeldar hiritarrak ziren, eta lekuko izan nahi zuten milaka lagun artean aukeratu ziren. (Haietatik, lauogeita hamar zentzu hertsian ziren bizitarakoak, nazien modu bateko edo besteko gati buak zirela atera baitziren gerratik bizirik). Askoz ere zuhurragoa izango zen, inondik ere, presio haiei guztiei amore eman gabe (puntu bateraino halaxe egin zen, ez baitziren auzi-gelara eraman bi israeldar kazetarik emandako materialaren gainean Quentin Reynoldsek idatzitako *Minister of Death* lanean aipatzen ziren balizko lekukoak), lekukoak bere burua eskaini ez zutenen artean bilatzea. Horixe bera frogatu nahian bezala, fiskalak idazle bat eramanarazi zuen, K-Zetnik ezizenez —kontzentrazio-zelaietako presoak izendatzen dituen argoteko hitza— Atlantikoaren bi alderdietan ondo ezaguna, Auschwitzten gaineko zenbait libururen egilea, putetxeen, homosexualen eta «giza intereseko beste istorio» batzuen berri emanez. Han hasi zen K-Zetnik hura, beste agerraldi publiko askotan bezala, bere ezizenaren nondik-norakoak agertuz. Hura ez zen «literatura-ezizena», agertu zuen. «Izen hau, nazio bat gurutziltzatu ondoren, mundua esnatzen den arte behar dut eraman... gizadia, gizon bat gurutziltzatu ondoren, altxatu zen bezala». Txango txiki bat egin zuen gero astrologiara: izarrak «gure patuari eragiten dio, Auschwitzeko errautsezko izarrak eragiten duen

bezala, gure planetaren aurrean, gure planetarentzat distiraturaz». Eta ordu arte berari zutik eutsi zion «Naturaren gaineko botere ez-natural» batera iritsi zenean, eta, aurreneko aldiz arnasa hartzera gelditu zelarik, Hausner jaunari berari ere iruditutik ziztaion zerbait egin behar zela «lekukotasun» haren gainean, eta, oso herabe, oso adeitsu, eten egin zuen: «Egin al diezazkizuket, arren, galderatxo batzuk, axola ez bazaizu?». Eta epaileak ere abagune egokia zuela ikusi zuen: «Dinoor jauna, *mesedez, mesedez*, aditu Hausner jaunari eta niri». Eta erantzun gisa, lekuko desilusionatuak, oso minduta seguruen, kordea galdu zuen eta ez zion galdera gehiagori erantzun.

Hura, egia esatera, salbuespen bat izan zen, baina normaltasunaren araua frogatzen zuen salbuespena izanik ere, ez zuen frogatu istorio bat kontatzeko soiltasunaren edo gaitasunaren araua, eta are gutxiago frogatu zuen lekukotasuna ematen ari zenari hamasei urte lehenago, batzuetan hogeiei urte lehenago gertatutakoak eta bitarte hartan irakurri, entzun eta imajinatu zituen gauzak bereizteko gaitasuna. Eragozpen haiek ezin ziren saihestu, baina fiskalak nolabaiteko ospea zuten lekukoak hautatzeko zuen zaletasunak ere ez ziren batere onik egin; asko ziren beren esperientziei buruzko liburuak argitaratu zituztenak, eta lehendik idatzitakoa edo behin eta berriz kontatu zutena kontatzen zuten juizioan. Ordena kronologikoan jarduteko eginahalak alferrekoak izan zirelarik, Alemaniako zortzi lekukorekin hasi zen prozesioa; aski pertsona zuhurrak ziren denak, baina ez ziren «bizitarakoak»; judu-komunitatearen goi-mailako buruak izanak ziren Alemanian eta garrantzitsuak ziren Israeleko bizimodu publikoan, eta gerra hasi baino lehen alde eginak ziren denak Alemaniatik. Haien atzetik, Pragako bost lekuko etorri ziren, eta gero Austriako bakar bat; azken herrialde horri zegokionez, Löwenherz doktorea zenaren txosten baliotsuak aurkeztu zituen fiskalak, gerra-garaian edo gerra bukatu eta berehala idatziak. Lekuko bana joan zen Frantzia, Holanda, Danimarka, Norvegia, Luxenburgo, Italia, Grezia eta Sobiet Batasunetik; bi Jugoslaviatik; hiruna Errumania eta Eslovakiatik, eta hamahiru Hungariatik. Baina lekuko gehien-gehienak, berrogeita hamahiru, Poloniatik eta Lituaniatik joan ziren, hain zuzen ere Eichmannen eskumena eta agintaritzak ia hutsa izan zen lekuetatik. (Belgika eta Bulgaria izan ziren lekukorik izan ez zen herrialde bakarrak). «Giroaren lekukoak» ziren denak, eta beste horrenbeste izan ziren Auschwitz (hamar) eta Treblinka (bost), Chelmno eta Majdanek-i

buruz mintzatu ziren hamasei lekukoak. Gauzak bestelakoak izan ziren Theresienstadt buruzko lekukotasuna eman zutenekin —Reich-eko lurraldean zegoen Theresienstadt, zaharren ghettoa, eta hura izan zen Eichmannek botere handia izan zuen esparru bakarra—; lau lekuko izan ziren Theresienstadtekoak, eta bat Bergen-Belsen truke-esparrukoa.

Prozesio haren amaieran, halako sendotasunez finkatu zen «lekukoek garrantzi gabeak izateko duten eskubidea», Yad Vashemek lekukoen aitortpenak bere *Bulletinean* laburbilduz adierazi zuen bezala, non formalitate hutsa izan baitzen Hausner jaunak, hirurogeita hamahirugarren saioan, auzitegiari «irudia bukatzeko» baimena eskatzea, eta Landau epaileak, zeinak berrogeita hamar bat saio lehenago protesta gogorra egin baitzuen «irudi-margotze» haren kontra, berehala onartu zuen Brigada Juduko kide ohi bat lekuko gisa agertzea (Brigada Judua palestinar juduen oste bat zen, gerra-garaian Britainiako Zortzigarren Armadari atxikia). Fiskalaren azken lekuko hori Aharon Hoter-Yishaj jauna izan zen, une hartan Israelen legelaria zena; gerra bukatzean, judu bizitarakoak Europa osoan barna bilatzeko saioen koordinazioa eman zitzaion hari, Palestinarako legez kanpoko immigrazioa antolatzeko ardura zuen Aliyah Beth erakundearen babespean. Europa osoko zortzi milioi lagun lekualdaturen artean zeuden bizitarako juduak sakabanatuak: gizaki-masa lauso bat zen, aliatuek ahalik eta lasterrena aberriratu nahi zutena. Eta arrisku bat zegoen, juduak ere beren lehengo etxeetara nahiko zituztela aliatuek berriz eraman. Hoter-Yishaj jaunak kontatu zuen nola agurtzen zituzten bera eta bere lankideak «judu-nazio borrokalariko kideak» zirelakoan aurkezten zirenean, eta nola «aski zen Daviden izar bat maindire batean tintaz margotzea eta erratz-makila batean iltzatzea» jende hura hiltzeko moduko goseak eragindako apatia arriskutsutik kolpetik ateratzeko. Kontatu zuen, halaber, haietako batzuek «kontzentrazio-esparruetatik, neke handiz, etxera iristea lortu zutela», zertarako eta beste esparru batera iristeko, zeren «etxea», adibidez, poloniar hiri txiki bat baitzen, eta lehengo sei mila biztanle juduetatik hamabost atera ziren bizirik, eta bizitarako haietatik lau, itzultzerakoan, poloniarrek akabatu zituzten. Azkenik deskribatu zuen nola bera eta bere kideak aliatuen aberriratze-saioak galarazten ahalegindu ziren, eta nola askotan beranduegi heldu ziren: «Theresienstadt, hogeita hamabi mila bizitarako zeuden. Aste gutxiren buruan, lau mila

baizik ez genituen aurkitu. Hogeita zortzi bat mila itzuli egin ziren, edo itzularazi egin zituzten. Han aurkitu genituen lau mila haietatik, jakina, bat ere ez zen bere sorterrira itzuli, zeren, bien bitartean, guk bidea erakutsi baikenien», hau da, orduan Palestina zen eta laster Israel izango zenerako bidea. Ordu arte entzundako beste ezeri baino gehiago zerion lekukotasun hari propaganda-usaina, eta gertakarien aurkezpen nahasgarria egin zen. 1944ko azaroan, Theresienstadtetik Auschwitzera azken garraialdia abiatu zenean, hamar mila preso inguru besterik ez ziren esparru hartan geratu. 1945eko otsailean, beste sei-zortzi mila lagun iritsi ziren bertara, ezkontza mistoen kide juduak, alemaniar garraio-sistema ia osorik desegina zegoenean naziek Theresienstadtera eraman zituztenak. Gainerako guztiak —hamabost bat mila lagun— kamioietan edo oinez heldu ziren Theresienstadtera, 1945eko apirilean, Gurutze Gorriak esparruaren ardura hartu eta gero. Auschwitzeko bizitarakoak ziren, gatibu-lanetako kideak, gehienak Poloniakoak eta Hungariakoak. Errusiarrek esparrua askatu zutenean, 1945eko maiatzaren 9an, txekiar judu asko, Theresienstadtan hasieratik egondakoak, segituan atera ziren esparrutik eta etxera abiatu ziren; haiek beren herrian zeuden. Izurriteak zirela-eta errusiarrek agindutako berrogeialdia bukatu zenean, gehien-gehienek beren ekimenez alde egin zuten. Hala, Palestinako ordezkariak aurkitu zituztenak, beren kabuz ezin itzuli zirenak edo ezin itzularazi zirenak ziren, zenbait arrazoirengatik: gaixoak, adinekoak, familia osoetako bizitarako bakarrak, nora jo ez zekitenak. Eta hala ere Hoter-Yishai jaunak egia hutsa esan zuen: ghettoetatik eta esparruetatik bizirik atera zirenak, erabateko babesgabetasunaren eta abandonuaren amesgaiztotik irtendako haiek —mundua oihan handi bat balitz bezala, eta berak harrapakina—, gauza bakarra nahi zuten: sekula berriz ez-judurik ikusiko ez zuten leku batera joan. Palestinako juduen ordezkarien premia zuten jakiteko iritsi zitezkeela leku hartara, nola edo hala, legezko bideetatik edo bestela, eta ongietorriak izango zirela; ez zuten ordezkari haien premiarik hartaz konbentzitzeko.

Hala, tarteka-tarteka, pozgarria gertatzen zen Landau epaileak bere gudua galdu izana. Aurreneko porrota gudua hasi baino lehen ere gertatu zen: hala, Hausner jaunaren aurreneko «inguruaren lekukoak» ez zuen bere borondatez joana ematen. Agure xahar bat zen, usadiozko judu-txanoa zeramana, txikia, oso ahula, ile eta bizar zuri bakanekoa, eta oso tente eusten zion bere buruari; zentzu batean,

haren izena «famatu» zen, eta ondo ulertzen zen zergatik nahi zuen akusazioak bere irudia harekin osatzen hasi. Zindel Grynspan zen, Herschel Grynspanen aita, zeinak, 1938ko azaroaren 7an, hamazazpi urte zituela, Parisko aleman enbaxadara joan eta bertako hirugarren idazkaria, Ernst vom Rath *Legationsrat* gaztea, tiro batez hil baitzuen. Erailketa hark eragin zituen Alemaniako eta Austriako pogromak, azaroaren 9ko *Kristallnacht* izenekoa, Azken Soluzioaren aurrekaria izan zena; baina haren prestakuntzan Eichmannek ez zuen batere zerikusirik izan. Grynspanek egindakoaren motiboak ez ziren argitu, eta haren anaiak, hura ere eraman baitzuen fiskalak lekuko gisa, ez zuen hartaz hitz egin nahi izan. Auzitegian segurutzat eman zen mendekuzko egintza bat izan zela, 1938ko urriko azken egunean poloniar hamazazpi bat mila familia judu, Grynspandarrak haien artean, aleman lurraldetik egotzi izanagatik; gauza jakina da, ordea, azalpen hori ez dela oso egokia. Herschel Grynspan psikopata bat zen, ezin izan zuen eskola bukatu, eta urteetan ibili zen Parisen eta Bruselan bueltaka, leku batetik bestera bidaltzen zutela. Auziperatu zuen Frantziako auzitegiko abokatu defentsariak istorio nahasi bat aipatu zuen, harreman homosexualei buruzkoa, eta alemanek estraditatu egin zuten gero, baina ez zuten auziperatu. (Gerratik bizirik atera zelako zurrumurruak izan ziren, «Auschwitzeko paradoxa» sustatzeko bezala, hots, delituak egindako juduak salbatu zirela). Vom Rath biktima bereziki desegokia zen; Gestapo zelatan ibili zitzaion nazien kontrako ageriko iritzia eta juduenganako sinpatia zirela-eta; haren homosexualitatearen istorioa Gestapok asmatua zen segur aski. Baliteke Grynspanek Gestaporen tresna desiragabe gisa jokatu izana Parisen, harekin harri bakar batez bi txori hiltzen baitziren: alde batetik aitzakia zuten Alemaniako pogromentzat eta bestetik gainetik kentzen zuten erregimen naziaren kontrako pertsona bat. Ez ziren konturatzen, ordea, ezin zirela bi gauzak bateratu, hau da, Vom Rath mutil juduekin harreman ez-zilegiak izateagatik desfamatu, eta aldi berean «munduko juduen» martiri eta biktima bihurtu.

Nolanahi ere zela, Poloniako gobernuak, 1938ko udazkenean, dekretu bat eman zuen urriaren 29tik aurrera Alemanian bizi ziren poloniar judu guztiek beren herritartasuna galduko zutela adieraziz; poloniar gobernuak jakin zuen segur aski aleman gobernuak Poloniar nahi zituela judu haiek bidali, eta ez zuen halakorik nahi. Baina oso zalantzazko gauza da Zindel Grynspan jauna bezalako jendeak halako

dekretu bat existitzen zenik ere jakitea. 1911n iritsi zen Grynspan Alemaniara, artean hogeita bost urteko gizaseme gaztea zela, Hannoverren janari-denda bat irekitzeko asmoz; Hannoverren zortzi haur izango zituen. 1938an, hondamenak jo zuenean, hogeita zazpi urte zeramatzan Alemanian bizitzen, baina, bera bezalako beste asko bezala, ez zen sekula arduratu ez dokumentuak eskuratzeaz, ez aleman herritartasuna eskatzeaz. Hala, bada, Jerusalemara joan zen bere istorioa kontatzera, eta hantxe ari zen, fiskalak egiten zizkion galderak txintxo erantzuten; argi eta sendo mintzatzen zen, apaingarririk gabe, behar-beharrezko hitzak bakarrik erabiliz.

«1938ko hogeita zazpian, astearte gau batean, zortzietan, polizia bat etorri, eta 11. Eskualdera [polizia-etxera] joan behar genuela esan zigun. Eta esan zuen: Berehala itzuliko zarete; ez ezer hartu, pasaporteak, besterik ez». Hantxe joan zen, bada, Grynspan familiarekin, hau da, semea, alaba eta emaztearekin. Polizia-etxera heldu zenean, han zer ikusiko, eta «jendetza handia, batzuk eserita, zutik besteak, negarrez asko. Polizia garrasika ari zen, ‘sinatu, sinatu, sinatu!’». Nik ere sinatu behar izan nuen, denek sinatu zuten. Batek ez zuen sinatu, Gershon Silber zuen izena, uste dut, eta bazter batean zutik geratu behar izan zuen hogeita lau orduz. Kontzertu-aretoa eraman gintuzten, eta... Hiriko bazter guztietatik etorritako jendea zen, seiehun lagun inguru. Hantxe egon ginen ostiral gaua arte, hogeita lau ordu inguru, bai, ostiral gaua arte... Polizia-kamioietan sartu gintuzten, atxilotuen kamioietan, hogeinaka, eta tren-geltokira eraman gintuzten. Kaleak beltz-beltzak zeuden, garrasika ari zen jendeaz lepazurreraino beteta: *‘Juden raus Palestinara!’*... Trenean, Neubenschenera eraman gintuzten, aleman-poloniar mugara. Larunbat-jaian iritsi ginen hara, goizeko seietan. Leku guztietatik heltzen ziren trenak, Leipzigeretik, Koloniatik, Düsseldorfetik, Essenetik, Biederfeldetik, Bremenetik. Hamabi mila lagun inguru ginen guztira... Larunbat-jaia zen, urriaren hogeita zortzia... Mugara iritsi ginenean, denak miatu gintuzten inork dirurik ba ote zeukan ikusteko, eta hamar markotik gorakoa kendu egiten zuten. Hura aleman legea zen, ezin ziren hamar marko baino gehiago Alemaniatik atera. Ez zenuen gehiago ekarri etorri zirenean, ezin duzu gehiago atera, hala zioten alemanek». Milia bat pasa egin behar izan zuten oinez, Poloniako mugaraino, alemanek ezkutuan nahi baitzituzten Polonian sartu. «SSetako gizonek zigorrekin jipoitzen gintuzten, atzera geratzen zirenak astintzen zituzten, eta odol-

isuri bat zihoan bidean behera. Maletak kendu zizkiguten, modurik basatienean tratatu gintuzten, aurreneko aldia izan zen alemanen animalikeria ikaragarria ikusten nuena. Garrasi egiten ziguten, ‘Lasterka! Lasterka!’ Jo egin ninduten eta erretenera erori nintzen. Semeak lagundu zidan, eta esan zidan: ‘Lasterka, aita, zoaz lasterka, hilko zara bestela!’ Mugara iritsi ginenean... aurrenekoak emakumeak sartu ziren. Poloniarrek ez zekiten ezer. Poloniar jeneral bati eta ofizial batzuei deitu zieten, eta gure paperak aztertu zituzten, eta ikusi zuten poloniar herritarrak ginela, pasaporte bereziak geneuzkala. Sartzen uztea erabaki zuten. Sei mila biztanle inguruko herri batera eraman gintuzten, eta gu hamabi mila ginen. Euria gogotik ari zuen, jendeak kordea galtzen zuen, agure eta atso zaharrak ikusten zenituen bazter guztietan. Ikaragarri sufritu genuen. Janaririk ez zegoen, ostegunaz geroztik jan gabe geunden...» Esparru militar batera eraman, eta «ukuiluetan ipini gintuzten, beste inon ez baitzegoen tokirik... Gure bigarren eguna zela uste dut [Polonian]. Aurreneko egunean, kamioi bat etorri zen, ogia zekarrena, Poznanetik; igandea zen. Eta orduan gutun bat idatzi nuen Frantziara... nire semeari: ‘Ez idatzi Alemaniara. Orain Zbaszyn-en gaude’».

Hamar minutu besterik ez ziren behar izan istorio hura kontatzeko, eta bukatu zenean —hogeita lau ordu eskasetan nola hogeita zazpi urte desegin ziren, ergelki, ezeren premiarik gabe—, pentsamendu burugabe bat zetorkion bati gogora: denek, denek behar lukete auzitegian nork bere eguna izan. Baina gero konturatu ginen, haren ondoren amairik gabe etorri ziren saioetan, zeinen gauza zaila zen istorio hura poesiaren esparru eraldatzaitetik kanpo kontatzea, arimaren araztasun bat behar zela horretarako, bihotzeko eta adimeneko tolesgabetasun bat, ispilatu gabea, islatu gabea, zintzoek bakarrik dutena. Inor ez zen izan, ez lehenago ez geroago, Zindel Grynszpanen zintzotasun distiratsua berdindu zuenik.

Inork ezin izan zuen esan Grynszpanen lekukotasunak «une dramatiko» baten antzeko gauzarik sortu zuenik. Baina une hura ere etorri zen, aste batzuk geroago, inork espero ez zuela etorri ere, hain zuzen ere Landau epailea eginahalean ari zenean lekukoen adierazpenak auzitegi penal bateko ohiko prozeduretara bideratu nahian. Abba Kovner zegoen mintzalekuan, «poeta eta idazlea», jendaurrean hitz egiteko usadioa duen eta behekoen etenak gustatzen ez zaizkion

hizlariaren erraztasunarekin, entzule talde bati mintzatzen ari zitzaiona, lekukotasuna ematen baino areago. Epaille nagusiak labur hitz egiteko esan zion, Kovnerri nonbait batere gustatu ez zitzaion gauza, eta Hausner jaunari, berriz, hura bere lekukoaren alde mintzatu zelarik, esan zion ezin zela «kexatu epaileek pazientzia galtzen bazuten», eta hori ere, jakina, ez zitzaion Kovnerri batere gustatu. Une zailtxo hartan, lekukoak Anton Schmidt aipatu zuen, aleman armadako *Feidwebel* edo sarjentua zena; izen hura ez zen auzitegian guztiz ezezaguna, zeren Yad Vashemek bere hebrear *Bulletinean* argitaratu baitzuen Schmidten istorioa, eta ondoren Amerikako zenbait yiddish-egunkarik atera zuten. Anton Schmidt Poloniako patruila bateko burua zen, beren unitateetatik bereizitako aleman soldadu sakabanatuak biltzen zituen. Eginkizun hartan, erresistentziako zenbait judu ezagutu zituen, haien artean Kovner jauna, kide gailena, eta lagundu egin zien, paper faltsuak eta kamioi militarrek emanez. Eta denetan garrantzitsuena: «Ez zuen hura diru truke egin». Bost hilabetez luzatu zen harremana, 1941eko urritik 1942ko martxora, orduan Anton Schmidt atxilotu eta exekutatuta egin baitzuten. (Kovnerrek Eichmannen istorioa aurrenekoz Schmidte ngandik aditu zuela deklaratu zuelako eraman zuen fiskalak istorio hura auzitegira, eta kontatu omen zion «dena antolatzen duena» Eichmann zelako zurrumurruak zebiltzala armadan).

Huraxe izan zen kanpoko mundutik, mundu ez-judutik, etorritako laguntza aipatu zen aurren-aurreneko aldia. Halevi epaileak oso maiz galdetzen zion lekukoei: «Izan al zuten juduek laguntzarik?», hain zuzen ere fiskalak «Zergatik ez zinen errebelatu?» oso maiz galdetzen zuen bezala. Erantzunak era askotakoak izan ziren, eta eztabaidagarriak: «Jende guztia gure kontra zegoen», familia kristauek ezkutaturiko juduak «esku bateko behatzekin zenbatu zitezkeen», bost edo sei izango ziren, hamahiru milako guztizko batetik; baina egoera, oro har, eta harritzekoa bada ere, hobea izan zen Polonian Europako Ekialdeko beste herrialde guztietan baino. (Ez zen izan, esan dut lehenago ere, Bulgariari buruzko lekukotasunik). Poloniar emakume batekin ezkondua dagoen eta orain Israelen bizi den judu batek kontatu zuen beraren emazteak bera eta beste hamabi judu ezkutatuak eduki zituela gerrak iraun zuen denbora guztian; beste batek lagun kristau bat omen zeukan, eta, esparru batetik ihes eginda, harengana joan eta hark lagundu omen zion, eta gero exekutatuta egin zuten juduei laguntzeagatik. Lekuko batek esan zuen poloniar erresistentziak armak eman zizkiola

judu askori, eta milaka haur judu poloniar familietan sartu eta salbatu zituela. Arriskua ezin zen handiagoa izan; izan zen poloniar familia bat osorik exekutatu zutena, modu ezin gordinagoan, sei urteko neska judu bat alabatzakotzat hartu zutelako. Alabaina, Schmidten aipamen hura izan zen aleman batez kontatu zen era horretako aurreneko eta azkeneko istorioa; aleman batekin zerikusia zuen beste gertakari bat dokumentu batean baizik ez zen aipatu: armadako ofizial batek, zeharka, juduei lagundu zien, poliziaren zenbait aginduri sabotajea eginez; ez zitzaion ezer gertatu, baina Himmlerren eta Bormannen arteko gutunean aipatua izateko bezain kontu larria izan zen.

Kovnerrek aleman sarjentu batengandik iritsitako laguntzaren berri emateko behar izan zituen minutuetan, isiltasun bitxi bat zabaldu zen auzi-gelan; ematen zuen jendetza hark guztiak bat-batean erabaki zuela isiltasunezko ohiko bi minutuak eskaintzea Anton Schmidt izeneko gizonaren ohoretan. Eta belztasun itxi zeharo ulergaitz haren erdian bat-bateko argitasun-isuri baten gisakoak izan ziren bi minutu haietan, pentsamendu bakar bat nabarmendu zen beste guztien gainetik, argia, ezin ukatuzkoa, ezin zalantzan jarri zena: zeinen desberdina izango zen egun hura, auzi-gela hartan ez ezik, baita Israelen, Alemanian, Europa osoan, eta agian munduko herrialde guztietan ere, tankera hartako istorio gehiago izan balitz kontatzeko.

Badira, jakina, urritasun hilgarri hori agertzen duten arrazoiak, eta askotan aipatu dira. Nagusiak Alemanian argitaratu diren gerrako memoria subjektibo zintzo bakanetako bateko hitzak baliatuz emango ditut. Peter Bamm-ek, Errusiako frontearen egon zen aleman armadako sendagile batek, *Die Unsichtbare Flagge* lanean (1952) Sebastopoleko juduen hilketaren berri ematen du. «Besteek» bildu zituzten —hala deitzen zien SSetako erailketa-unitate mugikorrei, ohiko soldaduengandik bereizteko, soldaduen zintzotasuna goraipatzen delarik liburuan—, eta lehengo GPUaren espetxeko parte itxi batean ipini zituzten, Bammen beraren unitatea zegoen ofizialen egoitzari atxikia zegoen toki batean. Gero gas-kamioi batera igoarazi zituzten, eta minutu gutxian hil ziren; ondoren gidariak gorpuk hiritik kanpo garraiatu eta tankeen kontrako erretenetan deskargatu zituen. «Guk hura bagenekien, eta ez genuen ezer egin. Inork egiaz unitate hiltzaileen kontra protestatu edo ezer egin izan balu, hogeita lau ordu baino lehenago atxilotuko zuten eta desagerrarazi egingo zuten. Gure

gizaldiko gobernu totalitarioen sofistikazio bat da ez dietela etsaiei bere sinesteengatik hiltzen den martiriaren modura hiltzen uzten, handikiro, dramatikoki. Gutako askok onez hartuko zuten horrelako heriotza bat. Baina estatu totalitarioak izengabetasun isilean hiltzen ditu bere etsaiak. Egia da krimena isilik toleratu gabe heriotza isila pairatzera ausartuko litzatekeenak bere bizitza alfer-alferrik sakrifikatuko zukeela. Horrek ez du esan nahi halako sakrifizio bat moralaren aldetik garrantzirik gabea izango zenik. Praktikoki izango zen garrantzirik gabea, alferrekoa. Gure artean inork ez zeukan praktikoki alferrekoa zen sakrifizio bat, goragoko esanahi moral baten izenean, bere gain hartzera bultzatuko zuen sineste sendorik». Esan beharrik ere ez dago, idazlea ez da konturatzen zeinen gauza hutsala den bere «zintzotasun» hain azpimarratu hori, ez dagoenean, berak dioen bezala, «goragoko esanahi moral bat».

Baina Anton Schmidt sarjentuak emandako adibidean ez zen errespetagarritasunaren hustasuna agertu; zeren zintzotasuna, egoera horretan, errespetagarritasuna besterik ez baita. Areago zen hasieran hain onargarria ematen duen Bammen argudioaren beraren zorigaitzeko hutsune bat. Egia da aginte totalitarioa saiatu zela ahanzturazko zulo horiek osatzen, egintza guztiak, onak eta txarrak, haietan desager zitezen, baina naziek 1942ko ekainetik aurrera hilketen arrastoak oro ezabatzeko egin zituzten ahalegin biziak —errausketaren bitartez, arrastoak putzu irekietan errez, lehergailuak, gar-jaurtitzailak eta hezurak txikitzeko makinak erabiliz— huts egitera kondenatuak egon arren, alferrik izan ziren berebat beren etsaiei «izengabetasun isilean desagertzen» uzteko ahalegin guztiak. Ahanzturazko zulorik ez dago; ez dago horren biribila den giza gauzarik, eta jende gehiegi dago munduan, besterik gabe, ahanztura posible izateko. Beti izaten da istorioa konta dezakeen norbait. Hortaz, ezer ezin da izan «praktikoki alferrikakoa», ez behintzat epe luzera. Garrantzi handiko gauza izango litzateke gaurko Alemaniarentzat, atzerrian duen izenari dagokionez ez ezik, baita herriaren beraren egoera goibel nahasiari dagokionez ere, modu horretako zer kontatu gehiago balego. Zeren istorio hauen irakasbidea oso erraza baita, eta edonork uler dezake: horren arabera, politikaren ikusmoldeetik, izumenezko egoera batean jende gehienak obeditu egingo du, baina *batzuek ez dute obedituko*, eta, modu berean, Azken Soluzioa proposatu zen herrialdeetan, lekuri gehienetan «gerta zitekeen», baina *ez zen leku orotan gertatu*. Gizatasunari dagokionez,

ez da gehiago behar, eta ezin da gehiago eskatu, planeta honek, gizakiarentzat, bizitzeko leku egokia izaten jarrai dezan.

XV: EPAIA, APELAZIOA ETA EXEKUZIOA

Gerrako azken hilabeteak Berlinen zain eman zituen Eichmannek, batere egitekorik gabe eta RSHAk beste sailburuetatik aparte; haiek egunero-egunero Eichmannen bulegoa zegoen eraikin berean bazkaltzen bazuten ere, behin ere ez zioten hari berekin elkartzekorik esan. Eichmann bere defentsazko instalazioekin entrentenitzen zen, Berlinen defentsarako «azken gudurako» prestatuz, eta, eginkizun ofizial bakarra zuen, noizik behin Theresienstadtera joan, Gurutze Gorriko ordezkariEI esparrua erakustera. Zeini, eta haiei zabaltzen zien Eichmannek arima, eta haiei agertzen zien Himmlerrek juduei zegokienez hartutako «giza ildo» berria, eta «hurrengoan», kontzentrazio-esparruak «ingeles ereduaren» arabera antolatuko zirela esaten zien, besteak beste. 1945eko apirilean gertatu zen Eichmannek Himmlerrekin izan zuen solasaldi bakanetako bat; Himmlerrek Theresienstadt «ehun edo berrehun judu gailen» aukeratzeko agindu zion, eramateko haiek Austriara eta jartzeko hoteletan, «bahitu» gisa erabiliko baitzituen Eisenhowerrekiko etorkizuneko negoziazioetan. Ez dirudi Eichmann eginkizun haren burugabekeriak konturatu zenik; han joan zen, «bihotza nahigabeturik, nire defentsazko instalazioak utzi behar izan baintuen», baina ez zen Theresienstadtera iritsi, errepide guztiak blokatuak baitzeuzkaten gerturatzen ari ziren errusiar osteek. Horren ordezt, Alt-Aussee-era iritsi zen, Austrian, han baitzegoen Kaltenbrunner babestua. Kaltenbrunnerrek ez zuen inolako interesik Himmlerren «judu gailen» haiengan, eta Austriako mendietan gerrillakomando bat antolatzeko agindu zion Eichmanni. Eichmannek pozpizik erantzun zion: «Merezi zuen gauza bat zen berriz ere, nire gustukoa zen eginkizun bat». Baina bildu zituenean nolabaiteko sasoiari zeuden ehun bat gizon, errifle bat ikusi berriak gehienak, eta era guztietako arma abandonatuez jabetua zenean, Himmlerren azken

agindua heldu zen: «Ingelesei eta amerikanoei ez zaie eraso egin behar». Hura azkena zen. Eichmannek etxera bidali zituen gizonak, eta kutxa gotor txiki bat, diru-papera eta urrezko txanponak zeuzkana, eman zion bere lege-aholkulari leialari, *Regierungsrat* Hunscheri: «Izan ere, esan nuen neure artean, gizon hau goi-mailako funtzionarioa da, ondo asmatuko du funtsak kudeatzen, ez du alferreko gasturik egingo... zeren egunen batean kontuak eskatuko zizkidatela uste bainuen artean».

Hitz horiexekin bukatu zuen Eichmannek polizia-galdetzaileari inork eskatu gabe eskaini zion autobiografia. Idazteak egun batzuk baizik ez zizkion hartu, eta grabazioetatik atera ziren 3.564 orrietatik, 315 orri baizik ez ziren biografiarenak. Gustura jarraituko zuen, eta, jakina, gainerako guztia ere kontatu zion poliziari, baina auzitegi-agintariek, zenbait arrazoirengatik, erabaki zuten gerra bukatu ondorengo denborari zegokion lekukotasunik ez zutela onartuko. Nolanahi ere, Nurenbergen egin ziren zinpeko aitorpenak, eta, are garrantzitsuago, Moshe Pearlman israeldar funtzionario ohiaren indiskrezio biziki eztabaidatu bat direla medio (juizioa hasi baino lau aste lehenago agertu zen haren *The Capture of Adolf Eichmann* liburua Londresen), osa daiteke Eichmannen istorioa. Pearlmanen kontakizuna, argi zegoen, epaiketaren prestaketaz arduratzen zen poliziaren 06 Bulegoaren materialean oinarritzen zen. (Pearlman jaunaren beraren bertsioaren arabera, Eichmann bahitu baino hiru aste lehenago lanetik erretiratu zenez gero, «pertsona pribatu» gisa idatzi zuen liburua; hori ez da oso sinesgarria, ordea, Pearlman erretiratu baino zenbait hilabete lehenago ere israeldar poliziak jakin behar baitzuen Eichmann berehala atxilotzekoa zela). Liburuak halako lotsa bat sortu zuen Israelen: alde batetik, Pearlman jaunak behar baino lehenago zabaldu zuen fiskalaren dokumentu garrantzitsuei buruzko informazioa, eta berebat zioen juizioko agintariek aspalditik erabaki zutela Eichmannen lekukotasuna ez zela sinesgarria, eta, beste aldetik —eta hau garrantzitsuagoa zen—, kontatzen zuen nola atxilotu zuten Eichmann Buenos Airesen, eta huraxe zen, jakina, Israelek argitara ateratzea nahi zuen azkeneko gauza.

Pearlman jaunak kontatu zuena inondik ere ez zen aurreko kontaketen oinarri izan ziren zurrumurruak bezain zirrargarria. Eichmann ez zen sekula egon ez Ekialde Hurbilean ez Erdialdeko

Ekialdean, ez zeukan inolako loturarik inongo arabiar herrirekin, ez zen Argentinatik Alemaniara itzuli, ez zen Latinoamerikako beste herrialdeetan egon, ez zuen inolako eginkizunik izan gerraondoko jarduera edo erakunde nazietan. Gerraren amaieran, behin saiatu zen Kaltenbrunnerrekin hitz egiten, hura artean Alt-Ausseen baitzen, bakar-bakarrik, baina Eichmannen nagusi ohia ez zegoen hura ikusteko umorez, zeren «gizon harentzat ez baitzuen jadanik aukerarik ikusten». (Kaltenbrunnerrek berak zituen aukerak ere ez bide ziren bikainak, Nurenbergen urkatu baitzuten). Handik laster, amerikar soldadu batzuek Eichmann atxilotu zuten eta SSentzako esparru batera eraman zuten, eta han, galdeketa ugariengatik ere, ez zuten haren nortasuna agerian jartzerik lortu, nahiz eta haren presokide batzuek nor zen jakin. Arduratsu jokatu zuen eta ez zion bere familiari idatzi, aitzitik, hila zela sinetsarazi zien; emaztea heriotza-agiri bat lortzen saiatu zen, baina huts egin zuen, jakin zenean Eichmannen heriotzaren «begizko lekuko» bakarra beraren koinatua zela. Emaztea sosik gabe zegoen, baina Eichmannen Linzeko familiak hartu zuen haren eta bikotearen hiru haurren ardura.

1945eko azaroan, gerrako gaizkilerik handienek juizioak hasi ziren Nurenbergen, eta Eichmannen izena erregulartasun deseroso batez hasi zen aipatzen. 1946ko ekainean, Wisliceny agertu zen akusazioaren lekuko gisa, eta Eichmann kondenatzen zuen aitorpena egin zuen; eta orduan erabaki zuen Eichmannek hobe zuela desagertzea. Esparrutik ihes egin zuen, bertako beste atxilotuen laguntzarekin, eta Lüneburger Heide izeneko leku batera joan zen, Hanburgotik berrogeita bost bat milia hegoaldera zegoen mendialde batera, eta han bere espetxe-kide baten anaiak lana eman zion egurgile gisa. Hantxe egon zen, Otto Heninger izena hartuta, lau urtez, asper-asper eginda segur aski. 1950. urtearen hasieran, ODESSAren harremanetan jartzea lortu zuen (ODESSA SSetako beteranoen erakunde klandestino bat zen), eta urte hartako maiatzean, Austrian barna, Italiara joan zen; Italian, frantziskotar apaiz batek, Eichmannen nortasunaren berri ondo zekienak, iheslari-pasaporte bat eman zion, Richard Klement baten izeneko, eta Buenos Airesera bidali zuen. Uztail-erdialdean heldu zen, eta, batere eragozpenik gabe, identifikazio-paperak eta lan-baimena eskuratu zituen, Ricardo Klementen izenean: katolikoa, estatugabea, hogeita hamazazpi urte, bere egiazko adina baino zazpi urte gutxiago.

Ardura handiz zebilen artean ere, baina, hala ere, emazteari idatzi zion, eskuz, esanez «beraren haurren osaba» bizirik zela. Hainbat eratako lanak egin zituen —saltzaile, garbitegi batean, untxi-haztegi batean—, gaizki ordainduak denak, baina 1952an emaztearekin eta haurrekin elkartu zen Argentinan. (Eichmann andreak aleman pasaporte bat lortu zuen Zurichen, Suitzan, nahiz eta garai hartan Austriako egoiliarra izan, bere egiazko izenarekin, Eichmann izeneko baten «dibortziatu» gisa. Nola gertatu zen hori misterio bat da oraindik ere, eskaeraren artxiboa desagertu egin baita Zuricheko aleman kontsuletzetik). Eichmann Argentinara iritsi eta aurreneko lanpostu finkoa Mercedes-Benz lantegian izan zuen, Buenos Aireseko Suarez auzoan, lehendabizi mekanikari gisa eta langileburu gisa gero, eta, laugarren semea jaio zenean, berriz esposatu zuen emaztea, ustez Klement izenpean. Horrek, dena dela, ez du oso gertagarria ematen, haurra Ricardo Francisco (segur aski italiar apaizarenganako adiskidetasun-ordainez) Klement *Eichmann* izenarekin erregistratu baitzen; hura izan zen Eichmannek, urteak igaro ahala, bere egiazko nortasunaren gainean utzi zituen arrasto ugarietako bat. Egia ematen du, nolanahi ere, seme-alabei Adolf Eichmannen anaia zela esan ziela, nahiz eta haurrek, Linzeko aitona-amonak eta osaba-izebak oso ondo ezagutzen zituztelarik, tonto samarrak behar zuten izan hura sinesteko; seme zaharrenak, behintzat, bederatzi urte zituen aita azkena ikusi zuenean, eta ezagutu behar izan zuen zazpi urte geroago Argentinan. Eichmann andrearen Argentinako nortasun-agiria, gainera, ez zuten aldatu («Veronika Liebl de Eichmann» ageri zen bertan), eta 1959an, Eichmannen amaordea hil zenean, eta urtebete geroago, aita hil zenean, Linzeko egunkarietako hil-iragarkian, Eichmann andrearen izena ageri zen bizirik zeuden ahaideen artean, dibortzioaren eta bigarren ezkontzaren istorioak oro gezurtatuz. 1960ko hasieran, atxilotu baino hilabete batzuk lehenago, Eichmannek eta haren seme zaharrenek adreiluzko etxe kaskar bat, argindarrik eta iturriko urik gabea, eraikitzen bukatu zuten, Buenos Aireseko aldirietako auzo pobreenetako batean, eta hara joan zen familia bizitzera. Oso pobreak behar zuten izan, eta Eichmannek oso bizimodu gogorra izan zuen inondik ere, seme-alabak berarekin edukitzeak ere behar bezala ordainduko ez zuena, haiek ez baitzuten erakusten «heziketa bat eskuratzeko batere gogorik, eta saiatu ere ez ziren egiten beren balizko talentuak garatzen».

Eichmannen konpentsazio bakarra kolonia nazi handiko kideekin hizketan jardutea zen, haiei berehala adierazi baitzien egiaz zein zen. Harreman haien ondorioz, azkenean, 1955ean, Willem S. Sassen holandar kazetariak elkarriketa bat egin zion. Sassen SS Armatuetakoko kide ohi bat zen, gerra-garaian holandar herritartasuna utzi eta aleman pasaportearekin hartu zuena; gero, Belgikan, *in absentia*, heriotza-zigorra eman zioten, gerrako kriminal gisa. Eichmannek ohar asko egin zuen elkarriketa hartarako; elkarriketa bera Sassenek grabatu eta berridatzi zuen, apaingarri askorekin. Denborarekin, Eichmannen beraren eskuz idatzitako oharra aurkitu ziren, eta frogak gisa onartu ziren juicioan, nahiz eta elkarriketa bera osorik ez zen onartu. Sassenen bertsioa, laburturik, *Der Stern* aleman aldizkarian agertu zen aurrena, 1960ko uztailan, eta gero, azaroan eta abenduan, *Life* aldizkarian, artikulua-sorta batean emana. Baina Sassenek, Eichmannen onespenezekin inondik ere, istorioa lau urte lehenago eskaini zion *Time-Liferen* Buenos Aireseko berriemaile bati, eta, egia bada ere ezkutatu egin zela Eichmannen izena, materialaren edukiak arrunt argi adierazten zuen nondik zetorren informazioa. Egiaz gertatu zena zen Eichmann biziki ahalegindu zela bere izengabetasuna hausten, eta harritzekoa da Israeleko Zerbitzu Sekretuek zenbait urte behar izatea, 1959ko abuztuan jakin zuen arte Adolf Eichmann Argentinan bizi zela, Ricardo Klement izena hartuta. Israelek ez du inoiz argitu nondik atera zuen informazioa, eta gaur egun gutxienez dozena-erdi bat lagunek diote berek aurkitu zutela Eichmann; Europako «ondo informaturiko zirkuluek», berriz, askotan esan dute errusiar inteligentzia-zerbitzuengandik atera zela albisteak. Nolanahi ere dela, gaur egun misterioa ez da nola aurkitu zen Eichmannen ezkutalekua, baizik eta, areago, nolaz ez zen lehenago aurkitu, baldin israeldarrek egiaz urteak eman bazituzten Eichmannen bila. Eta horrek, gertatuak gertaturik, aski zalantzarik gauza ematen du.

Zalantzarik ez da, nolanahi ere, atzemaileen nortasunari dagokionean. Hasieran bertan gezurtatu zuen Ben-Gurionek berak «mendekatzailerik» pribatuei buruzko aipamen oro, 1960ko maiatzaren 23an albisteak pozez zoratzen hartu zuen Knesset Isralego parlamentuari Eichmann «Israeleko Zerbitzu Sekretuek aurkitu zutela» jakinarazi baitzion. Servatius doktorea eginahalean ibili zen, alferrik ordea, Barrutiko Auzitegiari eta Apelazioko Auzitegiari eskaka eramateko juicioa lekuko gisa Zvi Tohar, Eichmann Argentinatik

atera zuen El-Al hegazkineko pilotu nagusia, eta Yad Shimoni, Argentinako hegazkin-konpainia bereko ofizial bat, eta Ben-Gurionek parlamentuan esandakoak aipatu zituen; epaile nagusiak erantzun zion esanez Lehen Ministroak «Zerbitzu Sekretuak *aurkitu egin zuela* Eichmann, ez zuela besterik onartu», ez gobernuako agenteek bahitu zutenik. Baina, egiaz, alderantzizkoa gertatu zela ematen du: Zerbitzu Sekretuko gizonak ez zuten Eichmann «aurkitu», harrapatu besterik ez zuten egin, saiotoxo batzuk egin ondoren iritsi zitzaien informazioa egiazkoa zela segurtatzeko. Eta saio haiek ere ez ziren oso trebeak izan, Eichmannek ondo asko baitzekien jendea zelatan zebilkola: «Orain hilabete batzuk esan nuen hori, uste dut, ba al nekien aurkitu nindutela galdetu zidatenean, eta nik banekiela esan nuen, eta ondo zehaztu nuen zergatik [hau da, prentsari eman ez zitzaion polizia-galdeketa] ... Jakin nuen pertsona batzuk ibili zirela nire auzoan galderak egiten, josteko makinak lantegi bat ipintzeko eraikin bat erosi nahi zutela-eta, baina hori ezinezko gauza zen erabat, leku hartan ez baitzen ez argindarrik ez urik. Areago, galdezka ibili zirenak Ipar Amerikako juduak zirela esan zidaten. Aise desager nintekeen, baina ez nuen horrelakorik egin, beti bezala jarraitu nuen, eta gauzei berez joaten utzi nien. Nekerik gabe aurki nezakeen beste enplegu bat, nire paperekin eta nire erreferentziekin. Baina ez nuen horrelakorik egin nahi».

Eichmannek Israelera joan nahi zuela auzipera zezaten adierazten zuten beste frogak batzuk ere agertu ziren Jerusalem. Defentsaren abokatuak, jakina, azpimarratu behar izan zuen, azken finean, akusatua bahitu eta «nazioarteko legearen kontra, Israelera eraman» zutela, zeren, horretan oinarrituta, defentsak zalantzan jar baitzezakeen auzitegiak Eichmann epaitzeko zuen eskubidea, eta, nahiz eta ez fiskalak ez epaileek ez zuten onartu bahiketa «estatu-egintza» izan zenik, ukatu ere ez zuten egin. Nazioarteko legearen hutsuneak Argentina eta Israeleko estatuei zegozkiela bakar-bakarrik argudiatu zuten, ez akusatuaren eskubideei, eta hutsune hori «osatu» egin zela bi gobernuak 1960ko abuztuaren 3an elkarturik egin zuen adierazpenarekin, esanez «deliberatu zirela konpondutzat ematera Argentinako estatuaren oinarritzko eskubideak urratu zituzten zenbait israeldar herritarrek eragindako gertakaria». Israeldar haiek zer ziren, gobernuako agenteak edo herritar pribatuak, horrek ez zuela inporta erabaki zuen auzitegiak. Baina ez defentsak ez auzitegiak ez zuten

aipatu Argentinak ez ziela bere eskubideei hain adeitsuki uko egingo Eichmann argentinar herritarra izan balitz. Eichmann gezurrezko izen batekin bizi izan zen, hau da, bere buruari Argentinako gobernuaren babesaren eskubidea ukatuz, Ricardo Klement gisa behintzat (1913ko maiatzaren 23an Bolzano-n jaioa, Hego Tirolen, haren Argentinako nortasun-agiriak zioen bezala), nahiz eta berak «aleman herritarra» zela esan. Eta inoiz ez zuen eskatu babes politikoaren zalantzazko eskubidea, nolanahi ere lagunduko ez ziona, zeren Argentinak, nahiz eta kriminal nazi ezagun askori babes politikoa eskaini, Nazioarteko Konbentzio bat izenpetu baitzuen, gizadiaren kontrako krimenen egileak «ez direla gaizkile politikotzat hartuko» zioena. Horrek guztiak ez zuen Eichmann estatugabe bihurtzen; legearen aldetik, ez zion aleman herritartasuna kentzen, baina Mendebaldeko Alemaniako errepublikari aitzakia eroso bat eman zion bere atzerriko herritarrei zor zien babesari uko egiteko. Bestela esanda, eta legezko argudioz betetako orri ugariengatik ere —hainbeste aurrekaritan oinarritzen ziren, non irakurleari bahiketa atxiloketa modu ohikoenetako bat zelako irudipena sortzen baitzitzaion—, Eichmann estatugabea izateak, eta ez besterik, eman zion Jerusalemeko auzitegiari hura epaitzeko abagunea. Eichmannek, lege-aditua ez izan arren, konturatu behar zuen, bere lanean egindakoengatik, pertsona estatugabeekin, eta haiekin bakarrik, nahi dena egin daitekeela; juduei herritartasuna kendu behar izaten zieten akabatu baino lehen. Baina Eichmann ez zegoen txikikeria horiez konturatzeko tenorean, zeren, gezurra bazen ere bere borondatez joan zela epai zezaten, egia baitzen inork espero zuena baino eragozpen gutxiago jarri zuela. Egia esatera, batere eragozpenik ez zuen jarri.

1960ko maiatzaren 11n, arratsaldeko sei eta erdietan, Eichmann, egunero bezala, lantokitik etxera zekarren autobusetik jaitsi zenean, hiru gizonen harrapatu zuten, eta, minutu bat ere eman gabe hartan, sartu zuten zain zegoen auto batean, eta aldeztu aurretik Buenos Aireseko urrutiko auzo batean alokatutako etxe batera eraman zuten. Ez drogarik, ez sokarik, ez esku-burdinik ez zen erabili, eta, behar ez zen bortxarik erabili ez zelarik, segituan konturatu zen Eichmann lan profesionala zela hura; ez zuten zauritu. Zein zen galdetu ziotelarik, bertatik esan zuen: *Ich bin Adolf Eichmann*, eta, gauza harrigarria, erantsi zuen: «Badakit israeldarren eskuetan nagoela». (Geroago agertu zuenez, egunkariren batean irakurri omen zuen Ben Gurionek bera

bilatzeko eta atzemateko agindu zuela). Zortzi egunez, israeldarrak berak eta beren presoa Israelera eramango zituen El-Al hegazkinaren zain egon ziren bitartean, Eichmann ohe batera lotuta eduki zuten; kontu guztian, hartaz besterik ez zen kexatu. Gatibualdiaren bigarren egunean eskatu zioten adierazteko idatziz ez zuela eragozpenik israeldar auzitegi batek epai zezan. Adierazpena, jakina, lehendik prestatua zegoen, eta Eichmannek hura kopiazu besterik ez zuen egin behar. Denen harrimenerako, hala ere, bere testu propioa idatzi nahi zuela esan zuen, eta hartan, ondorengo lerroetan ikus daitekeenez, prestatua zeukan adierazpenaren lehenengo lerroak erabili zituela dirudi: «Nik, behean izenpetzen duen Adolf Eichmannek, gutun honen bidez adierazten dut, neure borondatez, egiaz nor naizen jakin denez gero, argi ikusten dudala alferrik dela epaiketari iheska jarraitzea. Gutun honen bidez adierazten dut prest nagoela Israelera joateko eta auzitegi baten aurrean agertzeko, baldin zilegizko auzitegia bada. Argi dago eta ulertzen dut lege-aholkuak emango dizkidatela [horraino, segur aski, testua kopiazu egin zuen], eta idatziz ematen saiatuko naiz Alemanian jarduera publikoetan eman nituen azkeneko urteetako egintzen berri, inolako edergarririk gabe, etorkizuneko belaunaldiek egiaz gertatuak jakin ditzaten. Adierazpen hau neure borondatez, libreki, egiten dut, ez ezer agindu edo mehatxurik egin didatelako. Neure buruarekin bakean egon nahi dut behingoz. Xehetasun guztiak ezin gogoratu ditudanez gero, eta gertakariak nahasten bide baititut, laguntza eskatzen dut, eta jar ditzatela neure eskura egia bilatzeko eginahaletan lagunduko didaten dokumentuak eta zinpeko aitorpenak». Izenpetua: «Adolf Eichmann, Buenos Aires, 1960ko maiatza». (Dokumentu honek, nahiz eta egiazkoa izan, berezitasun bat dauka: zer egunetan izenpetu zen ez da datan ageri. Hutsune hori dela-eta, susmoa sortzen da gutuna ez ote zen Jerusalemen idatzi, ez Argentinan, Eichmann maiatzaren 22an heldu baitzen Jerusalemenera. Gutun hura, juiziorako baino areago, zeinean fiskalak frogatzea aurkeztu baitzuen, nahiz eta garrantzi handirik eman ez, Israelek Argentinako gobernuari eman zion azalpeneko lehen ohar ofizialarentzat zen beharrezkoa, eta azalpen hari erantsi zitzaien bere garaian. Servatiusek galdetu zion Eichmanni juizioan gutun haren berri, baina datarena ez zuen aipatu, eta Eichmannek ezin izan zuen hura behar bezala agertu, zeren, bere abokatuak erantzun jakina zuen galdera bat egin ziolarik, berretsi egin baitzuen, uzkur samar halere, indarpean egin zuela adierazpen hura, Buenos Aireseko aldirietako

etxean oheari lotua zegoenean. Fiskalak, informatua bide zegoen arren, ez zion puntu horri buruz galderarik egin nahi izan; argi zegoen, zenbat eta gutxiago hartaz hitz egin, orduan edo hobeto). Eichmann andreak eman zion Argentinako poliziari senarra desagertu zelako berri, baina haren nortasuna agertu gabe, eta, hortaz, ez ziren miatu ez tren-geltokiak, ez errepedeak, ez aireportuak. Israeldarrek suerte ona izan zuten; ezin izango zuten Eichmann Argentinatik desagerrarazi atzeman eta handik hamar egunera, poliziari behar bezalako abisua eman balitzaio.

Eichmannek bi arrazoi eman zituen juizioko agintariekiko lankidetza txundigarri hura agertzeko. (Epaileek berek ere, nahiz eta Eichmann gezurti bat besterik ez zela zioten, onartu behar izan zuten galdera honetarako ez zutela erantzunik: «Zergatik aitortu zizkion akusatuak Less superintendenteari zenbait xehetasun kondenatzaile, Eichmannen beraren aitorpenak baino ezin froga zitzakeenak, Ekialdera egin zituen bidaiei buruzkoak bereziki, non izugarrikeriak bere begiekin ikusi baitzituen?»). Argentinan, atxilotu baino urte batzuk lehenago, izengabetasunarekin nekatua zegoela idatzi zuen, eta zenbat eta gauza gehiago irakurri berari buruz, orduan eta nekatuagoa behar zuen egon. Bigarren azalpena, Israelen eman zuena, dramatikoagoa zen: «Duela urte eta erdi [hau da, 1959ko maiatzean], Alemaniari iritsi berria zen ezagun bati aditu nion aleman gazte batzuk halako erru-sentipen batek hartuak zirela... eta erru-konplexu hura niretzat mugarri bat izan zen, esan dezagun, aurreneko kohete pilotuduna ilargira heltzearen parekoa. Funtsezko puntua bihurtu zen nire barne-bizitzan, eta haren inguruan kristaldu ziren nire gogoeta asko. Horregatik ez nuen ihes egin... jakin nuenean oso gertu neukala nire bila zebilen komandoa... Alemaniako gazte-jendeak sentitzen zuen erruari buruzko elkarrizketa haien ondoren, halako zirrara handia eragin zidatelarik, iruditzen zitzaidan ez neukala desagertzeko eskubiderik. Eta berebat horregatik eskaini nuen, idatzizko adierazpen batean, galdeketa haren hasieran ... jendaurrean neure buruaz beste egitea. Nik ere lagundu nahi zion aleman gaztediari erruaren zama kentzen, zeren gazte-jende hori, azken finean, errugabea baitzen azkeneko gerran gertatuetan, gurasoek egindakoetan»; bide batez esango dut, azkeneko gerrari, beste testuinguru batean, «Aleman Reichari indarrez ezarri zitzaion gerra» deitzen ziola Eichmannek. Hura dena, jakina, berrietsukeria besterik ez zen. Zergatik ez zen Alemaniara poliziari entregatzera bere borondatez

itzuli? Galdera hori egin ziotelarik, erantzun zuen bere iritzian aleman auzitegiek ez zutela artean bera bezalako jendearekin jarduteko behar zen «objektibotasunik». Baina nahiago bazuen israeldar auzitegi batek juzgatzea —berak nolabait ere adierazten zuen bezala, baina ez da batere sinestekoa—, izan zuen Israeleko gobernuari denbora eta arazoak aurrezteko modurik. Ikusi dugu lehenago hizketa modu horrek bozkario-sentipen bat ematen ziola, eta, hain zuzen ere, sentipen horri esker umore on samar bati eutsi zion Israeleko espetxean egon zen bitartean. Areago, hari esker oreka nabarmen batez begiratzen zion heriotzari: «Badakit heriotza-zigorra dudala zain», adierazi zuen poliziaren galdeketa-aren hasieran.

Berritsukeria hartan bazen egiatik zer edo zer, eta hura aski argi agertu zen bere defentsaz galdetu ziotenean. Bistako arrazoiak zirela medio, israeldar gobernuak atzerritar abokatu bat onartzea erabaki zuen, eta 1960ko uztailaren 14an, poliziaren galdeketa hasi eta sei aste geroago, Eichmannen ageriko onespenearekin, esan zioten hiru abokatu posible zeudela eta haietako bat aukera zezakeela, bere defentsa antolatzeko: Robert Servatius doktorea, Eichmannen familiak gomendatua (Servatiusek bere zerbitzuak eskaini zizkion, telefonoz hots eginda, Eichmannen Linzeko anaiordeari), une hartan Chilen bizi zen beste aleman abokatu bat eta Estatu Batuetako legelari-firma bat, New Yorkekoa, juizioko agintariek kontratatu zutena. (Servatius doktorearen izena baizik ez zen plazaratu). Izan zitezkeen bestelako aukerak ere, jakina, Eichmannek azter zitzakeenak, eta behin baino gehiagotan esan zioten hartzeko behar zuen denbora guztia. Ez zuen halakorik batere egin, eta, bat-batean, pentsatu gabe, Servatius doktorea nahi zuela esan zuen, beraren anaiordearen ezaguna zelako nonbait; Servatiusek, gainera, gerrako beste kriminal batzuk defendatu zituen, eta segituan izenpetu nahi izan zituen izendapen-dokumentuak. Ordu eta erdi geroago, epaiketak «neurri globalak» har zitzakeela bururatu zitzaion Eichmanni, «prozesu munstro» bat bihur zitekeela, zenbait abokatu zirela fiskal-lana egiteko, eta Servatius, bakarrik egonez gero, nekez izango zela gai «material guztia digeritzeko». Gogorarazi zioten Servatiusek esan zuela, defentsari-izendapena eskatzten zuen gutunean, «abokatu talde baten burua izango zela» (ez zen halakorik gertatu), eta poliziako ofizialak erantzun zuen, «Espero izatekoa da Servatius doktorea bakarrik ez egotea. Fisikoki ere ezinezkoa da». Baina Servatius doktorea, azkenean, bakarrik agertu

zen saio gehien-gehienetan. Eta haren guztiaren ondorioz, Eichmann bera bihurtu zen bere abokatu defentsariaren laguntzailea, eta, «etorkizuneko belaunaldientzako» liburuak idazteaz gainera, eginahalean jardun zuen juizioan lanean, hasi zenetik bukatu zen arte.

1961eko ekainaren 29an, juizioa apirilaren 11n hasi eta hamar aste geroago, fiskalak amaitutzat eman zuen bere lana, eta Servatius doktorearena hasi zen; abuztuaren 14an, ehun eta hamalau saioaren ondoren, bukatu zen ikustaldia. Auzitegiak orduan lau hilabeteko etena egin zuen, eta abenduaren 11n bildu zen berriz epaia irakurtzeko. Bi egunez, guztira bost saiotan, epaia osatzen zuten berrehun eta berrogeita lau atalak irakurri zituzten hiru epaileek. Fiskalaren «konspirazio» kargua alboratuz —kargu hark Eichmann «gerrako kriminal nagusia» bihurtuko zuen, hots, automatikoki gertatuko zen Azken Soluzioarekin zerikusia zuen gauza ororen erantzule—, Eichmann akusazioaren hamabost kargutan deklaratu zuten errudun, denetan beraz, nahiz eta xehetasun batzuk asketsi zizkieten. «Besteekin batera», delituak egin zituen «judu-herriaren kontra», hots, juduen kontrako delituak, *herria suntsitzeko asmoarekin*, lau modutara: (1) «milioika juduren heriotza eraginez»; (2) «milioika judu suntsiketa fisikora heltzeko moduko egoeran» jarritz; (3) haiei «gorputzeko eta buruko kalte larriak eraginez»; eta (4), Theresienstadten, «emakume juduengan jaiotzak galarazteko eta haurdunaldiak eteteko aginduak emanez». Baina asketsi egin zizkieten 1941eko abuztuaren aurretik gertatukoei zegozkien karguak (orduan eman zioten Führerraren aginduen berri); lehenagoko eginkizunetan, Berlinen, Vienan eta Pragan, ez zuen «judu-herria suntsitzeko» asmorik. Haiek izan ziren salaketaren lehen lau karguak. 5 eta 12 bitartekoak «gizadiaren kontrako krimenei» buruzkoak ziren: Israeleko legean arrotza zen kontzeptua, eta bere baitan hartzen zituen, bai genozidioa eta herri ez-juduen kontrako egintzak (ijitoen eta poloniarren kontrakoak, besteren artean), bai beste krimen guztiak, erailketa barne, izan juduen edo ez-juduen kontrakoak, baldin krimen horiek herriak osorik suntsitzeko asmoarekin ez baziren egin. Hortaz, Eichmannek Führerraren agindua baino lehen egindako guztia eta ez-juduei eragindako guztiak gizadiaren kontrako krimenen izenpean bildu ziren denak, eta haiei erantsi zitzaizkien, berriz ere, juduen kontrako ondorengo delitu guztiak, delitu arruntak ere bazirenez gero. Horren ondorioz, bosgarren karguak 1. eta 2. karguetan aipatzen ziren delitu guztiak kondenatzen zituen, eta 6. karguak «arraza-, erlijio- eta politika-

arrazoiengatik juduei esetsi zielako» kondenatzen zuten Eichmann; 7. karguan «judu horien... jabetza harrapakatzea... erailketarekin lotua» aipatzen zen, eta 8. karguak egintza horiek guztiak batzen zituen, berriz ere, «gerrako krimen» gisa, gehienak gerra-garaian egin baitziren. 9-12 bitarteko karguak ez-juduen kontrako delituak ziren: 9. karguak «milaka eta milaka poloniar... beren etxeetatik egotzi» izanagatik kondenatzen zuen; 10. karguak «hamalau mila esloveniar Jugoslaviatik» egotzi izanagatik, eta 11. karguak «milaka eta milaka ijito» Auschwitzera deportatzeagatik. Baina, epaiak zioenez, «ez da gure aurrean frogatu akusatuak ijitoak suntsitzera zeramatzatela zekienik», eta horrek esan nahi zuen ez zitzaiola genozidiorik egotzen, «judu-herriaren kontrako krimenagatik» salbu. Zaila zen hura ulertzen, zeren, gauza oro har jakina izateaz gainera ijitoak akabatzen zituztela, Eichmannek, poliziaren azterketan, bazekiela haren berri onartu baitzuen. Lausoki gogoratzen zen hura Himmlerren agindu bat izan zela, ez zela «araubiderik» izan ijitoentzat juduentzat ziren bezala, eta ez zela «ikerketarik» egin «ijito-arazoaren» gainean, hots, haien «jatorri, usadio, ohitura, antolamendu, folklore... ekonomiaz». Eichmannen sailari esleitu zioten Reicheko lurraldeetatik hogeita hamar mila ijito «ebakuatzeko» eginkizuna, baina xehetasunez ez zen ondo gogoratzen, ez baitzen kanpoko esku-hartzerik izan; baina ijitoak, juduak bezala, hiltzera zeramatzatela, horri buruz ez zuen inoiz zalantzarik egin. Haien suntsiketaren errudun zen, juduen suntsiketaren errudun zen modu berean. 12. kargua Lidiceko laurogeita hamar haurren deportazioari buruzkoa zen (Heydrichen erailketaren ondoren suntsitu eta bertako biztanleak akabatu zituzten txekiar herria zen Lidice); nolana ere, arrazoiz, asketsi egin zioten haur haien erailketa. Azkeneko hiru karguek Nurenbergeko Juizioetan «kriminaltzat» jo ziren hiru edo lau erakunderen kidetasuna egotzi zioten: SSak, Segurtasun Zerbitzua edo SD, eta Estatuko Polizia Sekretua edo Gestapo. (Lugarren erakunde kriminala, Alderdi Nazionalsozialistako goi-mailako agintaritzak, ez zen aipatu, zeren Eichmann, argi zegoen, ez baitzen alderdiko buruzagia izan). 1940ko maiatzaren aurretik Alderdi Nazionalsozialistako kidea izatea delitu bakuna zen, eta hogeitaz igarota baliogabeturik geratzen zen. (1950eko Legeak, Eichmann haren arabera epaitu baitzen, ez dagoela delitu larrientzako baliogabetze-eparik zehazten du, eta ezin dela haietan *res judicata* salbuespena baliatu; hau da, pertsona bat epai daiteke Israelen «nahiz eta, delitu berarengatik, lehendik atzerrian

epaitua izan, nazioarteko auzitegi baten aurrean edo atzerriko estatu bateko auzitegi baten aurrean»). 1-12 bitarteko karguetan aipatzen ziren delitu guztien zigorra heriotzazkoa zen.

Eichmannek, gogoratuko denez, behin eta berriz esaten zuen bera «laguntzeaz eta bultzatzeaz» bakarrik zela erruduna egozten zitzaizkion delituetan, eta berak ez zuela inoiz zuzeneko egintzarik egin. Epaiak, gure lasaitasun handirako, aitortzen zuen, nolabait ere, fiskalak ez zuela lortu puntu hori oker zegoela frogatzea. Izan ere, puntu garrantzitsua zen; Eichmannen delituaren funtsari berari zegokion, ez baitzen krimen arrunta, eta berebat zegokion Eichmannen gaizkile-izaerari berari, ez baitzen gaizkile arrunta; inplikazioz, berebat onartzen zuen egintza zital bat, hots, heriotza-esparruetan bertan espetxeratuak eta biktimak izaten zirela «tresna hilgarriak beren eskuekin» erabiltzen zituztenak. Epaiak puntu honi buruz esaten zuena zuzena baino gehiago ere bazen, egia zen: «Akusatuaren jarduerak gure Kode Kriminalen Ordenantzen 23. sailaren arabera adieraziz gero, esan behar dugu besteei kontseilua edo aholkua ematen dien, eta besteak egintza [kriminallean] gaitzen edo haiei laguntzen dieten pertsonari dagozkionak direla». Baina «gu orain aztertzen ari garen bezalako delitu ikaragarri eta nahasian, jende askok esku hartu zuelarik, hainbat mailatan eta hainbat eratako jardueratan —plangintza-egileak eta antolatzaileak, eta egintzak betetzen zituztenak, zein bere graduaren arabera— alferrekoak gertatzen dira delitu bat egiteko kontseiluaren edo aholkuaren ohiko kontzeptuak. Zeren delitu hauek masa-delituak izan baitziren, biktimen zenbatekoari dagokionez ez ezik, baita delituak egin zituztenen kopuruari dagokionez ere, eta zenbateraino zegoen gaizkile ugarietako bakoitza hiltzaile materialetik gertu edo urruti, erantzukizunaren neurriari dagokionez, horrek ez du ezer esan nahi. Aitzitik, oro har, *erantzukizunaren maila handitu egiten da tresna hilgarria bere eskuetan daukan gizonarengandik urrundu ahala* [letra etzanak nireak dira]».

Epaiaren irakurketan hurrena etorri zena errutina zen. Berriz ere, fiskala aski mintzaldi luzea egitera altxatu zen, heriotza-zigorra eskatuz, zeina, gorabehera aringarririk ez zegoenez gero, nahitaezkoa baitzen, eta Servatius doktoreak lehen baino ere laburrago erantzun zion. Akusatuak «estatuaren egintzak» egin zituen, hari gertatu zitzaiona etorkizunean edonori gerta zekiokkeen, mundu zibilizatu osoa

gertatzen zen arazo haren aurrez aurre, Eichmann «ahuntz-buru» bat zen, eta une hartako aleman gobernuak, bere erantzukizuna gainetik kentzeko, abandonatua utzi zuen Jerusalemeko auzitegian, nazioarteko legeak agintzen zuenaren kontra. Auzitegi haren eskuduntza, Servatius doktoreak inoiz onartu ez zuena, bakar-bakarrik ager zitekeen baldin akusatua epaitzen bazen «ordezkaritza-eskuduntzaz, [aleman auzitegi bati] emandako legezko botereen ordezkari gisa», hain zuzen ere, aleman estatu-fiskal batek Jerusalemeko auzitegiaren eginkizuna formulatu zuen moduan esanda. Servatius doktoreak lehenago argudiatu zuen auzitegiak akusatua asketsi behar zuela, zeren, Argentinako balio gabetze-epaia arabera, 1960ko maiatzaren 7tik aurrera, «bahiketa baino lehentxeagotik», Eichmann ezin baitzen auziperatu; eta, ildo beretik, une hartan ezin zela heriotza-zigorrik eman argudiatzen zuen, heriotza-zigorra ezeztatua baitzen, kasu guztietan, Alemanian.

Eta orduan Eichmannen azken mintzaldia etorri zen: haren justizia-itxaropenak zapuztuak zeuden; auzitegiak ez zion sinetsi, nahiz eta bera egia esaten saiatu zen beti. Auzitegiak ez zuen ulertu: berak ez zituen juduak sekula gorrotatu, eta sekula ez zuen gizakiak erailteza desiratu. Beraren errua esanekotasunetik zetorren, eta esanekotasuna bertutetzat estimatzen da. Agintari naziak gaizki erabili zuten beraren bertutea. Baina bera ez zen agintarien taldekoa, bera biktima zen, eta buruzagiek baizik ez zuten zigorra merezi. (Ez zen garrantzi gutxiagoko beste gerrako kriminalak bezain urruti joan, haiek biziki kexatzen baitziren, «erantzukizunez» ez arduratzeko esan zieten, eta orain ezin zuten erantzuleengana kargu eske jo, «itzuri egin baitzieten», bere buruaz beste eginez, edo bestek urkaturik). «Ni ez naiz egin nahi duten munstro hori» esan zuen Eichmannek. «Gezurkeriaren biktima naiz». Ez zuen «ahuntz-buru» hitza erabili, baina Servatiusen esan zuena berretsiz zuen: «sinetsita zegoen arrunt [berak] bestek eginenatik behar zuela sufritu». Bi egunen ondoren, 1961eko abenduaren 15ean, ostirala, goizeko bederatzieta, heriotza-epaia eman zen.

Hiru hilabete geroago, 1962ko martxoaren 22an, berrikusteprozadura jarri zen abian Apelazio Auzitegian, Israeleko Auzitegi Gorenean, Itzhak Olshan-en lehendakaritza peko bost epaileren aurrean. Hausner fiskala lau laguntzailerekin agertu zen berriz ere, eta Servatius doktorea, defentsaren abokatu, laguntzailerik gabe. Abokatu

defendatzaileak Israeleko auzitegiaren ahalmenaren kontrako argudio zaharrak aipatu zituen osteraren eguna, eta alfer-alferrik ahalegindu baitzen Mendebaldeko Alemaniako gobernuak estradizio-prozedura abian jar zezan konbentzitzen, estradizioa eskaintzeko eskatu zion Israeli. Lekuko-zerrenda berria zekarren, baina bakarra ere ez zen «froga berriak» edo antzeko gauzarik eskaini zezakeenik. Zerrendan zeuden, besteren artean, Hans Globke doktorea, Eichmannek bere bizitza osoan ikusi ez zuena, eta aurreneko Jerusalem aipatzen entzun bide zuena; are harrigarriagoa, zerrendan zegoen, halaber, Chaim Weizmann doktorea ere, hamar urte hilik zeramatzana. Defentsaren alegatua ezin sinetsizko nahas-mahasa zen, akatsez betea (batean, lehendik fiskalak aurkeztua zuen dokumentu baten frantsesezko itzulpena froga berri moduan eskaini zuen defentsak, beste bitan gaizki irakurri zituen dokumentuak, eta abar); arduragabekeria hark kontraste bizia sortzen zuen auzitegiari laidogarriak gertatu bide zitzaizkion tartekaturik ageri ziren zenbait pasarterekin: gaseztatzea «gai medikoa» zen berriz ere; auzitegi judu batek ez zeukan eskubiderik Lidiceko haurren patua epaitzeko, haur haiek juduak ez zirenez gero; israeldar lege-prozedurak Europako prozeduren kontrakoak ziren, eta Europakoak aplikatu behar zitzaizkion Eichmanni, haren jatorria gogoan harturik; israeldar legearen arabera, akusatua eman behar zituen bere defentsarako frogak, eta halakorik ezin izan zuen egin, zeren Israelen ez baitzegoen ez defentsaren lekukorik, ez defentsaren dokumenturik. Laburtuz, juizioa bidegabea izan zen, eta epaia zuzengabea.

Apelazio Auzitegia, izapideek astebete baino ez zuten iraun, eta ondoren auzitegiak bi hilabeteko etenaldia egin zuen. 1962ko maiatzaren 29an, bigarren epaia irakurri zen. Aurrekoa baino laburxeagoa zen, baina hala ere berrogeita hamaika folio espazio-bakar ziren. Oso-osorik berresten zuen Barrutiko Auzitegiaren epaia, puntu guztietan, eta argi zegoen berrespen hori egiteko epaileek ez zutela izan bi hilabeteren eta berrogeita hamaika orriren premiarik. Apelazio Auzitegiaren epaia behe-auzitegiaren epaiaren berrikuste bat zen, izan, nahiz eta halakorik esan ez. Jatorrizko epaiarekiko kontraste nabarmenean, bigarren epaiaren arabera, «apelatzaileak ez zuen 'nagusien agindurik' batere jaso. Bera zen bere buruaren nagusia, eta berak ematen zituen agindu guztiak judu-auziei zegozkien gauzetan»; areago, «garrantziari zegokionez, bere gaineko guztiak gainditu zituen, baita Müller bera ere». Eta defentsaren begi-bistako argudioari

erantzunez —juduak ez zirela hobeto egongo Eichmann existitu ez balitz—, Auzitegi Goreneko epaileek ondoko hau esan zuten: «Azken Soluzioaren ideiak ez zituen inoiz milioika juduren azal larrutuaren eta haragi oinazetuaren deabruzko formak hartuko, apelatzailearen eta haren gaizkideen grina fanatikoa eta odol-gosea gabe». Israeleko Auzitegi Gorenak, fiskalaren argudioak ez ezik, haren hizkera-molde bera ere bereganatu zuen.

Egun berean, maiatzaren 29an, Israeleko lehendakari Itzhak Ben-Zvi-k Eichmannen erruki-eskaera jaso zuen; eskuz idatzitako lau orri ziren, «nire abokatuaren gidaritzapean» eginak, eta haiekin batera emaztearen eta Linzeko familiaren gutunak ere baziren. Berebat jaso zituen lehendakariak ehunka gutun eta telegrama, munduko bazter guztietatik etorriak, errukia eskatuz; haien artean Amerikar Errabinoen Konferentzia Zentrala nabarmentzen zen, Estatu Batuetako judaismo erreformatuaren talde nagusia, eta Jerusalemeko Hebrear Unibertsitateko irakasle talde bat, Martin Buber buru zuena; talde hura hasieratik bertatik juizioaren kontra egon zen, eta une hartan Ben-Gurion barkamenaren alde esku har zezan konbentzitzen saiatu zen. Maiatzaren 31n, Ben-Zvi jaunak erruki-eskaera guztiak arbuiatu zituen, Auzitegi Gorenak bere epaia eman eta bi egunen buruan, eta egun hartan bertan, ordu batzuk geroago —osteguna zen—, gauerdia baino lehentxeago, Eichmann urkatu egin zuten, gorpua erre eta errautsak Mediterraneoan barreiatu zituzten, israeldar uretatik kanpo.

Heriotza-zigorra lastertasun harrigarritz gauzatu zen, baita gogoan hartuta ere, ostegun-gaua izanik, hura zela ondorengo astelehena arte exekuziorako azkeneko eguna, zeren ostirala, larunbata eta igandea erlijio-jaiak baitira Israeleko hiru sinesteetako batentzat edo bestearentzat. Eichmannek erruki-eskaera arbuiatu zutela jakin, eta bi ordu ere igaro gabe gauzatu zen exekuzioa; azken otorduarentzako ere ez zen astirik izan. Presa horren zergatia Servatius doktoreak bere bezeroa salbatzeko azken-azken unean egin zituen bi saiok ager dezakete: alde batetik, Alemaniako Mendebaldeko auzitegi bati eskatu zion behartzeko aleman gobernua Eichmannen estradizioa eskatzera, eta, bestetik, Giza Eskubideen eta Oinarritzko Askatasunen Babeserako Konbentzioaren 25. artikulura joko zuela mehatxu egin zuen. Ez Servatius doktorea, ez haren laguntzailea, ez zeuden Israelen Eichmannen eskaera arbuiatu zutenean, eta Israeleko gobernuak

lehenbailehen itxi nahi zuen kasua, ordurako bi urtez luzatua baitzen, defentsak exekuzioaren eguna atzeratzeko eskaera egiteko aukera ere izan baino lehen.

Heriotza-zigorra espero zen gauza zen, eta ia inork ez zuen haren kontra ezer esan; baina gauzak aldatu egin ziren israeldarrek exekuzioa gauzatu zutela jakin zenean. Protestaldia ez zen luzea izan, baina oso protesta zabalak izan ziren, eta eragin eta ospe handiko pertsonak egin zituzten. Argudiorik erabilienean izan zen Eichmannek egindakoek giza zigorraren helmena gainditzen zutela, gauza zentzugabea zela heriotza-epaia ematea halako krimen handientzat; eta hori, jakina, alde batetik egia izan arren, ezin esan zezakeen milioika pertsona hil zituenak, arrazoi horrexegatik beragatik, zigorrari itzuri egin diezaiokeenik. Askoz beheragoko mailetan, heriotza-epaiak «irudimena falta zuela» esan zen, eta irudimen handiko alternatibak proposatu ziren: Eichmannek une hartatik aurrera «Negeveko lur elkorretan eman behar zuen bizitza osoa gatibu-lanetan, bere izerdiarekin juduen aberria berreskuratzen laguntzen», inondik ere egun batez ere bizirik irauten utziko ez zion zigor bat betez, eta, gainera, Israeleko hegoaldeko basamortu horri ez zaio zigor-leku bailitza begiratzen; edo, Madison Avenueko estilo bete-betean, Israel «jainkozko gailurretara» iritsiko zen, «lege-, politika- eta baita giza gogoeta ulergarriak ere» gaindituz, «atxiloketan, juizioan eta epai-ematean esku hartu zuten guztiak zeremonia publiko batean [elkartzen bazituen], eta hantxe Eichmann, girgiluekin lotua, telebista-kameren eta irratiauren aurrean, haiek denak zigaldiko heroien moduan dekoratuz».

Martin Buberrek «dimentsio historikoko hutsegitea» zela esan zuen exekuzioaz, «Alemaniako gazte-jende askok sentitzen zuen errua garbitzeko balio zezakeelako»: bitxia bada ere, Eichmannek gai hari buruz zituen ideien oihartzuna gertatzen zen argudio hura, nahiz eta Buberrek jakin ez Eichmannek, Alemaniako gazte-jendearen erruaren zama arintzeko xedeaz, bere burua jendaurrean urkatu nahi izan zuela. (Harritzekoa da nolaz ez zen Buber konturatu, garrantzi handiko gizona ez ezik, oso gizon buru-argia izanik, zeinen faltsuak ziren erru-sentimendu hain plazaratu haiek. Izan ere, atsegin handia ematen du, batere okerrik egin ez denean, errudun sentitzeak: hori prestutasuna! Aitzitik, gogorra izaten da, eta tamalgarria inondik ere, errua onartzea eta damutzea. Alemaniako gazteak, alde guztietatik eta bizitzaren alor

guztietan, guztiz errudunak diren baina halakorik *sentitzen* ez duten gizonez daude inguratuak, eta gizon horiek agintezko postuetan eta administrazio publikoan daude. Egoera horretan, erreakzio normalak haserrea beharko luke izan, baina haserrea arriskua gerta daiteke... ez hil edo biziko arriskua, baina bai eragozpen bat edonoren karreran. Aleman gizon-emakume gazte horiek, tarteka-tarteka —adibide baterako, *Anne Franken egunkaria* atera eta ondorengo iskanbilan, eta Eichmannen juizioan—, erru-sentimenduzko ateraldi histerikoekin mehatxatzen gaituztenak, ez dabilta iraganaren zamarekin, gurasoen erruarekin aldaroka; areago, beren orainaldiaren eta beren orainaldiko arazoen presioari itzuri egin nahian dabilta, sentimentalkeria merke batera joaz). Buber irakasleak, ondoren, esan zuen ez zuela «inolako errukirik» sentitzen Eichmannengandik, zeren «neure bihotzean ulertzen ditudan egintzak egin dituzten haiengatik» bakarrik senti baitzezakeen errukirik, eta urte asko lehenago Alemanian esan zuena azpimarratu zuen: «zentzu formal batean bakarrik partekatzen zuen berak gizatasuna [Hirugarren Reicheko egintzetan] esku hartu zutenekin». Jarrera harro hori, jakina, Eichmann epaitu behar zutenek ezin balia zezaketen luxu bat zen, zeren legeak, hain zuzen ere, emandako gauzatzen hartzen baitu akusatzen, epaitzen eta zigortzen ditugun haiekiko gizatasuna partekatzen dugula. Nik dakidala, Buber izan zen Eichmannen exekuzioaz jendaurrean mintzatu zen filosofo bakarra (juizioa hasi baino lehentxeago, Karl Jaspers geroago *Der Monat* aldizkarian argitaratu zen irati-elkarrizketa batean mintzatu zen Basilean, Eichmann nazioarteko auzitegi batek epaitu beharko lukeelako argudioaren alde eginez). Tamalgarria izan zen ikustea nola Buberrek, mailarik gorenean, Eichmannek eta haren egintzek sortzen zuten arazoa bera saihesten zuen.

Gutxiena entzun zirenak izan ziren printzipioz, baldintzarik gabe, heriotza-zigorren kontra zeudenen ahotsak; haien argudioak baliozkoak izango ziratekeen, ez baitzuten kasu hartarako berariazko argudioak zehazteko premiarik izango. Irudituko zitzaien nonbait —eta zuzen, nik uste— hura ez zela, heriotza-zigorren kontrako geroako borrokari begira, etorkizun handiko kasua.

Adolf Eichmann oso duin joan zen urkamendira. Botila bat ardo beltz eskatu eta erdia edanda joan zen. Uko egin zion William Hull apaiz protestantearen laguntzari, hark Biblia elkarrekin irakurriko

zutela eskaini zionean: bi ordu baizik ez zitzaizkion bizitzeko geratzen, eta, hortaz, ez zeukan «alferrik galtzeko denborarik». Lasai eta tente egin zituen bere gelatik exekuzio-tokiraino zeuden berrogeita hamar metroak, eskuak atzean lotuta zituela. Guardiek orkatilak eta belauak lotu zizkiotenean, korapiloak lasaitzeko eskatu zien, zutik egon ahal izateko. «Nik ez dut horren beharrik», esan zuen kapusai beltza eskaini ziotenean. Bere buruaren jabe zen arrunt, baita gehiago ere: zen bezalakoxea zen. Ezerk ezin izan zuen hori hobeto frogatu esan zituen azkeneko hitzen txatzukeria irrigarriak baino: handikiro azpimarratuz hasi zen bera *Gottgläubiger* bat zela, hau da, nazien moduan adieraziz bera ez zela kristaua, eta ez zuela heriotzaren ondorengo bizitzan sinesten. Eta jarraitu zuen gero: «Puska labur baten ondoren, jaunok, *denok elkartuko gara oster*a. Horixe da gizon guztion patua. Gora Alemania! Gora Argentina! Gora Austria! *Sekula ez ditut ahaztuko*». Heriotzaren aurrean, hiletaren oratorian erabiltzen den klíxea aurkitu zuen. Urkamendian, memoriak bere azken jokaldi makurra egin zion; «bozkarioa» sentitzen zuelarik, ahaztu egin zitzaion orduko hura beraren hileta zela.

Nolabait ere, ematen zuen Eichmannek, azkeneko minutu haietan laburbildu egin zuela giza zitalkerian egin zuen bide luzeak guri erakutsi digun irakasbidea: hitza eta pentsamendua motz uzten dituen) *gaizkiaren hutsaltasuna* beldurgarriaren irakasbidea.

Epilogo

Hainbeste izan ziren, hainbeste eratakoak, eta legearen alde-tik hain nahasiak, Jerusalemeko juizioaren irregulartasunak eta bitxikeriak, non estali egin baitzituzten, bai epaiketak iraun bitartean, bai epaiketaren ondorengo testu harrigarri bakanetan, juizioak berak nahitaez sortzen zituen arazo moralak, politikoak eta baita legezkoak ere. Israeleko Estatuak berak, Ben Gurion Lehen Ministroak juizioaren aurretik egindako adierazpenen bitartez, eta berebat fiskalak akusazioa antolatu zuen moduagatik, areago nahastu zituen gauzak, juizioak lortu behar omen zituen xede ugariak aipatuz, nahiz eta xede horiek legeaz eta auzitegiko prozedurez harantzagokoak izan. Juizio baten helburua justizia egitea da, besterik ez; ondorengo helburuetatik, baita prestuenak berak ere —«analisi historikoaren frogari eutsiko dion Hitlerren erregimenaren lekukotasun bat erregistratzea», halaxe formulatu zuen Robert G. Storey-k, Nurenbergeko juizioko abokatu aholku-emaileak, Nurenbergeko Juizioen ustezko xede gorena—, eragotzi egiten dute legearen egiteko nagusia: akusatuaren kontra egin diren salaketak aztertzea, epaia ematea, eta dagokion zigorra ipintzea.

Eichmannen kasuan eman zen epaia, zeinaren lehen bi atalak arnasa handiagoko xedearen teoriari emandako erantzun gisa idatzi baitziren (teoria hura auzitegi barruan nahiz kanpoan adierazi zen bezala), ezin argiagoa eta egokiagoa zen gai honi dagokionez: aurre egin behar izan zitzaion juizioaren helmena zabaltzeko eginahal orori, auzitegiak ezin baitu «bere esparrutik kanpo dauden lekuetara eraman dezaten onartu... Prozesu judizialak bere bideak dauzka, legeak ipintzen dituenak, eta beti berak direnak, zeinahi ere delarik juizioaren gaia». Are gehiago, auzitegiak ezin zituen muga horiek gainditu «erabateko porrotean» amaitu gabe. «Auzi orokorrak ikertzeko

beharrezkoak diren tresnak» ez izateaz gainera, auzitegiaren aginpidea aginpide horren mugek berek emana da, aginpide horrezez mintzatzen da. Legearen helmenetik kanpo dauden auzietan, «inork ez gaitu epaile egin» eta «guk auzi horiei buruz dugun iritzia ez zaio sinesgarritasun handiagoa eman behar, auzi horiek lantzen eta haiez gogoeta egiten duen edonoren iritzia baino». Hala, bada, Eichmannen juizioaz sarriena egiten zen galderak —zertarako balio du?—, erantzun bakarra izan zezakeen: justizia egingo du.

Eichmannen juizioaren kontra egin ziren eragozpenak hiru eratakoak ziren. Lehendabizi, Nurenbergeko Juizioen kontra egin ziren eragozpenak zeuden, Eichmannenean berriz ere egin zirenak: Eichmann atzeraeraginezko lege baten arabera epaitzen zen, eta irabazleen auzitegian agertzen zen. Bigarren, baziren Jerusalemeko auzitegiari baizik aplikatzen ez zitzaizkion eragozpenak, hots, auzitegi gisa zuen ahalmena zalantzan jartzen zutenak, eta Eichmann bahiturik eraman zutela hara gogoan ez hartzea. Eta, azkenik, eta haxe zen garrantzitsuena, bazen salaketaren beraren kontrako eragozpen bat ere: salaketaren arabera, Eichmannek «judu-herriaren kontrako delituak» baino areago, «gizadiaren kontrako delituak» egin zituen eta, hortik, eragozpen bat jartzen zitzaion kasu honetan aplikatzen zen legeari ere; eta eragozpen horrek ondorio logiko bat zeukan, hots, nazioarteko auzitegi bat zela Eichmannen delituak epai zitzakeen auzitegi bakarra.

Auzitegiak aurreneko eragozpenari eman zion erantzuna oso erraza zen. Nurenbergeko Juizioak baliozko aurrekari gisa aipatu ziren Jerusalem, eta, Israeleko legeen arabera zihardutelarik, epaileek nekez egin zezaketen bestelakorik, zeren 1950eko Nazien eta Nazien Laguntzaileen (Zigor) Legea bera ere aurrekari horretan oinarritzen baitzen. «Legedi berezi hori», azpimarratzen zuen epaiak, «zigorkodeetan ohikoa den beste legedia oro ez bezalakoa da zeharo», eta diferentzia horren arrazoia epaitzen ziren delituen nolakotasunean zetzan. Atzeraeraginezko legea izateak, erants daiteke, formalki bakarrik urratzen du, ez mamiari dagokionez, *nullum crimen, nulla poena sine lege* printzipioa, zeren printzipio hori legelariak ezagutzen dituen egintzei baizik ez baitzaie aplikatzen; bat-batean lehendik ezagutzen ez zen delitu bat agertzen bada, genozidioa esate baterako, justiziak lege berri baten arabera epaitzea eskatzen du; Nurenbergeko

kasuan, lege berri hori Gutuna izan zen (1945eko Londreseko Ituna), eta, Israeleko kasuan, 1950eko Legea. Egin beharreko galdera ez da lege horiek atzeraeraginezkoak ote ziren, halaxe behar zuten-eta, baizik eta egokiak ote ziren, hau da, lehendik ezagutzen ez ziren krimenei bakarrik aplikatzen ote zitzaizkien. Atzeraeraginezko legediaren baldintza horrek zeharo huts egin zuen Nurenbergen, Nazioarteko Auzitegi Militarra antolatzen zuen Gutunean, eta baliteke arrazoi horrengatik nolabait ere nahasiak gertatzea gai hauei buruzko gogoetak.

Nurenbergeko Gutunak hiru eratako delituen gaineko jurisdikzioa finkatzen zuen: «bakearen kontrako delituak», Auzitegiak «nazioarteko gorenko delituak» deitzen zituenak, «bere baitan metaturik dutelako beste guztien gaiztakeria»; «gerrako delituak»; eta «gizadiaren kontrako delituak». Haietatik, azkena bakarrik zen berria eta aurrekaririk gabea, hots, gizadiaren kontrako krimena. Erasozko gerra historia idatzia bera bezain zaharra bada, eta, lehendik ere, eta sarritan, «kriminala» zelako salaketa egin arren, zentzu formalean ez da inoiz halakotzat jo. (Nurenbergeko auzitegiak auzi honetan zuen eskuduntzaren justifikazio aktual guztiek falta zuten oinarri egokia. Egia da Lehen Mundu Gerraren ondoren aliatuen auzitegi baten aurrean aipatu zela, baina Alemaniako Kaiser ohiari egotzi zitzaion delitua ez zen gerra, itunak urratzea baizik; eta, zehatzago, Belgikaren neutraltasuna apurtzea. Berebat da egia 1928ko abuztuko Briand-Kellogg itunak gerra galarazi egin zuela politika nazionaleko tresna gisa, baina itun horretan ez zen eraso definitzen, eta zigorren aipamenik ere ez zen egiten; eta, horrez gainera, itun honek ekarri behar zuen segurtasun-sistema huts egina zen Bigarren Mundu Gerra hasi baino lehen). Areago, epaileetakoa zen herrialdeetako bati ere, Sobiet Errusiari, *tu-quoque* argudioa aplika ziezaiokeen. Ez al zioten errusiarrek, inpunitate osoz, 1939an Finlandiari eraso egin, eta ez al zuten Polonia zatitu? «Gerrako delituak», bestalde, «bakearen aurkako delituak» bezalaxe, ez ziren aurrekaririk gabeak, eta haiek nazioarteko legediak arautuak zeuden. Hagako eta Genevako Konbentzioek «gerrako legeak edo usadioak urratze» horiek definitu zituzten; atxilotuak gaizki erabiltzeari eta biztanleria zibilen kontrako gerra-egintzei zegozkien gehienbat. Alde horretatik, ez zegoen atzeraeraginezko indarreko lege baten premiarik, eta Nurenbergeko eragozpen nagusia izan zen han ere, beste behin, *tu-quoque* argudioa aplika zitekeela: Errusiak

ez zuen Hagako Konbentzioa izenpetu (Italiak ere ez, bidenabar esan dezadan), presoak gaizki erabiltzen zituelako susmopean zegoen, eta, egin berri diren ikerketen arabera, errusiarrak direla dirudi gorpuak Katyn-go Basoan (Smolensk-en inguruan, Errusian) aurkitu ziren hamabost mila poloniar ofizialen erailketaren erantzuleak. Are okerrago, hiri irekien bonbardatze intentsiboa, eta, oroz gain, Hiroshima eta Nagasakiko hirietara bonba atomikoak botatzea, argi eta garbi dira gerrako krimenak Hagako Konbentzioaren arabera. Eta egia bada ere Alemaniako hirien bonbardatzea Londres, Coventry eta Rotterdam hirien bonbardatzeak eragina izan zela, ezin da gauza bera esan arma ikaragarri indartsu eta osorik berri baten erabileraz, haren existentzia beste era askotara iragarri eta froga zitekeen-eta. Egia esatera, Nazioarteko Auzitegi Militarra izenez bakarrik zen nazioartekoa, eta, legearen ikuspegitik, horrexegatik ez ziren auzitan jarri Hagako Konbentzioaren aliatuen urratzeak; zeren auzitegi haiek, izan, irabazleen auzitegiak baitziren, eta haien epaiaren balioa, nolanahi ere zalantzazkoa zena, ez zen sendotu gerra irabazi ondoren ekimen bateratu honi heldu zion koalizioa desegin zenean, Otto Kirchheimer-en hitzak erabiliz, «Nurenbergeko epaien tintak lehortzeko astia izan ere baino lehen». Baina arrazoi hori, agerikoena izanagatik ere, ez da bakarra, ezta agian indartsuena ere, azaldu nahi bada zergatik ez ziren aliatuen delituak Hagako Konbentzioaren arabera ez aipatu ez auziperatu; eta bidezkoa da eranstea Nurenbergeko Auzitegiak oso-oso ardura handiz jokatu zuela aleman akusatuak *tu-quoque* argudioari zabalik zeuden salaketengatik zigortzeari zegokionez. Izan ere, auziaren egia da Bigarren Mundu Gerraren amaierarako jende orok zekiela indarkeriazko tresnen garapen teknikoak halabeharrezkoa bihurtu zuela gerra «kriminala». Soldaduak eta zibilak, armada eta herritarrak, jomuga militarrek eta hiri irekiak: bereizketa haietan oinarritzen zen Hagako Konbentzioaren gerrako krimenen definizioa, baina zaharkitua zegoen. Hortaz, egoera berri horretan, gerrako krimenak premia militarrek baino harantzagoko zirenak bakarrik ziren, hau da, berariazko asmo gizagabe bat erakusten zutenak.

Animalikeria funsgabe horren faktorea irizpide baliagarria izan zen, egoera hartan, zer zen gerrako krimen bat finkatzeko; zoritxarrez, baliozkoa ez izan arren, osorik berria zen krimen bat, «gizadiaren kontrako krimena» trakeskeriaz definitzeko erabili zen. Delitu hori «egintza gizagabe» gisa definitzen zuen Gutunak (6-c

artikulu), gizagabetasuna gehiegikeria kriminallezko kontu bat balitz bezala gerrako eta garaipena eskuratzeko bidean. Nolanahi ere, ez zien inondik ere mota horretako delitu ezagunak aliatuei esanarazi, Churchillen hitzetan, «gerrako kriminalak zigortzea [zela] gerraren helburu nagusietako bat», baizik eta, oso bestela, ezagutzen ez ziren izugarrikerien berri jakiteak, herri osoak desagerrarazteak, eskualde osoak bertako biztanleek «garbitzeak», hau da, ez bakarrik «premia militarren arabera inola ere ezin zuritu daitezkeen» delituek, baizik eta gerrarekin zerikusirik ez zuten delitu zirenek, eta bake-garaian ere etengo ez zen erailketa sistematikoko politika bat iragartzen zutenek. Ez zegoen delitu hura aintzat hartuko zuen ez nazioarteko ez nazioko legerik, eta, areago, *tu-quoque* argudioa aplikatzen ez zen delitu bakarra zen. Eta hala ere, delitu harexen aurrean bereziki deseroso sentitzen ziren Nurenbergeko epaileak, eta, hala, anbiguitate-egoera tentagarri batean utzi zuten. Egi-egia da ezen —juizioaren analisi hoberenetako bat (*Le Procès de Nuremberg*, 1947) eskaini digun Donnedieu de Vabres Nurenbergeko frantses epailearen hitzetan—, «Gizadiaren kontrako krimenen kategoria, Gutunak ate txiki-txiki batetik sartzen utzi zuena, Auzitegiaren epaiaren eraginez, lurrindu egin zen». Epaileak, nolanahi ere, Gutuna bera bezain funsgabeak izan ziren, zeren, nahiz eta nahiago izan zituzten delituak zigortu, Kirchheimerrek dioen bezala, «gerrako krimenaren salaketan oinarrituta, hark bere baitan hartzen baititu ohiko krimen arrunt guztiak, eta ahalik eta gehiena gutxietsi zituzten gizadiaren aurkako krimenen karguak», eta, epaia emateko garaia heldu zenean, argi erakutsi zuten egiaz sentitzen zutena, zigorrik gogorrena emanek, heriotza-zigorra, izugarrikeria zeharo ez-ohiko haien errudun aurkitu zirenei bakarrik, hots, «gizadiaren aurkako krimena» zirenak egin zituztenei, edo, François de Menthon frantses fiskalak egokiago esan zuen bezala, «giza estatusaren kontrako krimenak» egin zituztenei. Erasoko gerra «nazioarteko krimenik handiena» delako nozioa isil-isilik baztertu zen, bakearen kontrako «konspirazioagatik» kondenatu ez ziren gizon batzuei heriotza-zigorra eman zitzaientean.

Eichmannen juizioa justifikatzeko, sarritan esan izan da, nahiz eta Bigarren Mundu Gerran egin zen krimenik handiena juduen kontrakoa izan, juduak ikusle hutsak izan zirela Nurenbergen; hala, Jerusalemeko epaiak azpimarratu zuen une hartan, aurrenekoz, juduen hondamendiak «leku nagusia zuela auzitegiko prozeduretan, eta horrexek bereizten zuen juizio hau lehenago izan zirenetatik»,

Nurenbergen eta beste nonahi. Baina hori, hoberenean ere, egiaren erdia da. Juduen hondamendiak bultzatu zituen hain zuzen ere aliatuak «gizadiaren kontrako krimena» definitzera, aurrenik, zeren, Julius Stone-k *Legal Controls of International Conflict* lanean (1954) idatzi zuen bezala, «juduen masa-hilketari, judu horiek Alemaniako bertako herritarrak zirenean, gizadiaren aurkako delitu gisa baizik ezin zitzaion esetsi». Eta Nurenbergeko Auzitegiari krimen hari justizia osoa egiten utzi ez ziona ez zen izan haren biktimak juduak izatea, baizik eta Gutunak eskatzen zuela krimen hau, gerrarekin hain zerikusi gutxi izan zuena non gerra bera ere eragotzi baitzuen, beste krimenekin behar zela lotu. Noraino hartu zuten aintzat Nurenbergeko epaileek juduen kontra eragindako izugarrikeria, hobeto neur daiteke agian gogoan harturik Julius Streicher izan zela gizadiaren kontrako delituen salaketa zela medio heriotza-zigorra eman zitzaion akusatu bakarra; lizunkeria antisemitak ziren haren espezialitatea, eta, orduko hartan, epaileek ez zituzten gainerako kontsiderazioak gogoan hartu.

Jerusalemeko juizioaren aurretik, judu-herriak ez zuen behin ere auzitegi batean leku nagusia hartu, baina ez zuen horrek besteetatik bereizi. Horri dagokionez, aitzitik, Polonian eta Hungarian, Jugoslavian eta Grezian, Sobiet Batasunean eta Frantzian, laburtuz, naziak okupatu zituzten herrialde guztietan, egin ziren gerra ondorengo juizio guztien antza izan zuen. Delituak leku jakinetan ezin finkatu ziren gerrako gaizkileentzat osatu zen Nurenbergeko Nazioarteko Auzitegi Militarra; gainerakoak delituak egin zituzten herrialdeetara bidali zituzten. «Gerrako kriminal nagusiek» bakarrik jardun zuten lurralde-mugarik gabe, eta Eichmann ez zen haietako bat izan. (Horrexegatik —eta ez, sarri askotan esan den bezala, desagertu zelako— ez zen Eichmann Nurenbergen auziperatu; Martin Bormann, esate baterako, *in absentia* auziperatu zuten, epaitu eta heriotzara zigortu). Eichmannen jarduerak Europa osora zabaldu ziren, baina ez bera oso garrantzitsua zelako eta lurralde-mugarik ez zuelako, baizik eta bere eginkizunei, hots, judu guztiak bildu eta deportatzeari, berez zegokielako bera eta beraren gizonak kontinentean barna mugitzea. Juduak Europa osoan sakabanatuak egoteak bihurtu zuen haien kontrako krimena «nazioarteko» auzia Nurenbergeko Gutunaren zentzu mugatu, legezkoan. Behin juduek beren lurralde propioa izan zutenean, Israeleko Estatua, ageriko gauza zen bazutela beren herriaren kontra egindako delituak epaitzeko eskubidea, poloniarrek Polonian egindako

delituak epaitzeko eskubidea zuten bezala. Jerusalemeko juizioaren kontra sortu ziren eragozpen guztiak, lurralde-jurisdikzioan oinarritzen zirenak, zeharo legalistak izan ziren, eta nahiz eta auzitegiak hainbat saio eman eragozpen haiek guztiak aztertzen, ez ziren berez garrantzi handikoak izan. Dударik txikiena ere ez zen juduak judu zirelako erail zituztela, garai hartan zuten herritartasuna batere gogoan hartu gabe, eta nahiz eta egia izan naziek beren jatorri etnikoa ukatzea erabaki zuen judu franko erail zutela, eta agian haiek nahiago izango zutela frantses edo aleman gisa hil, halakoetan ere justizia egin zezakeen, kriminalen asmoa eta xedea gogoan hartuz gero.

Era berean, oinarririk gabea zen, nik uste, are zabalduagoa zen epaile juduen balizko alderdikeriaren kontrako argudioa, alegia, haiek, eta areago estatu judu bateko herritarrak izanik, aldi berean epaile eta alderdi izatea. Nekez ikusten da zertan izan zitezkeen israeldar epaileak, gai honi dagokionez, beste juizio nazionalako epaileak ez bezalakoak; hala, poloniar epaileek poloniar herriaren kontrako delituak juzgatu zituzten, eta txekiar epaileek Pragan eta Bratislavan gertatuak. (Hausner jaunak, *Saturday Evening Post* aldizkariako bere azken artikuluetako batean, erregaia erantsi zion argudio honi: haren iritzian, fiskala berehala konturatu omen zen Eichmann ezin zuela israeldar legelari batek defendatu, arazoak sortuko zitzaizkiolako «eginkizun profesionalen» eta «emozio nazionalen» artean. Hala, bada, gatazka hori izan zen epaile juduen kontrako eragozpen guztien muina, eta Hausner jaunak haien alde emandako argudioa —epaile batek gorrota dezakeela delitua baina, hala ere, zuzen jokatu gaizkilearekin—, aplikatu dakioke defentsako abokatuari ere: hiltzaile bat defendatzen duen abokatuak ez du hilketa defendatzen. Gertatuaren egia da, auzitegitik kanpoko presioak zirela medio, ez zela gauza gomendagarria, gozo esateko, Eichmannen defentsa israeldar herritar bati egotea). Azkenik, delitua egin zen garaian judu-estaturik ez zelako argudioa hain da formalista, hain da errealitatetik eta justizia-eskaera guztietatik kanpoko, non arazorik batere gabe utzi baikenezake adituen eskuetan, eztabaida jantziak izan ditzaten. Justizia egiteko xedez (hau da, zenbait prozedurarekiko objektuaz bestelakoa den neurrian, zeren, nahiz eta haiek berez garrantzitsuak izan, ezin baitzaie inoiz zuzenbidearen gainetik egoten utzi, zuzenbidea da-eta, ez besterik, legearen xede nagusia), auzitegiak, bere eskuduntza justifikatzeko, ez zuen zertan nortasun pasiboaren printzipiora jo —hau da, biktimak juduak zirela

eta Israeliek baizik ez zuela haien izenean hitz egiteko eskubidea—, ezta jurisdikzio unibertsalaren printzipiora ere, *hostis generis humani* zelako, Eichmanni itsaslapurretari aplika dakizkiokeen arauak aplikatuz. Bi teoria horiek, Jerusalemeko auzitegiaren barruan eta kanpoan luze eztabaidatu zirelarik, juizioeko auzi nagusiak lausotu zituzten, eta ilundu egin zuten Jerusalemeko juizioaren eta haren aurretik beste herrialdeetan egin ziren juizioen arteko begi-bistako antza; haietan ere, gainera, legedi berezi bat prestatu zen nazien edo haien lankideen zigorra segurtatzeko.

Nortasun pasiboaren printzipioa —alegia, egoera jakinetan, «*forum patriae victimae* egokia izan daiteke kasua epaitzeko»—, P. N. Drost-en *Crime of State* laneko (1959) iritzi jantzian oinarritu zen Jerusalemen, eta, zoritxarrez, prozedura penalak gobernuak jartzen dituela abian esan nahi du, biktimen izenean, ustezko mendekuekubide bat aitortzen baitzaie haiei. Huraxe izan zen, hain zuzen ere, fiskalaren ikusmoldea, eta, hala, Hausner jauna ondoko hitz hauekin hasi zen bere mintzaldia egiten: «Hemen, auzitegi honetan, Israeloko epaileok, Adolf Eichmann akusatzera zuen aurrean zutitu naizenean, ez naiz ni bakarrik zutitu. Hementxe, une honetantxe, sei milioi fiskal daude nirekin. Baina, horra, ezin altxatu dira akusazioaren behatza beirazko kabinaren aldera jaso eta hor eserita dagoen gizonari *J'accuse* garrasi egitera... Haien odola zeruari oihuka ari da, baina ezin da haien ahotsa entzun. Hortaz, niri egokitu zait haien bozeramailea izatea eta akusazio latza haien izenean egitea». Erretolika harekin, fiskalak epaiketaren kontrako argudio nagusia sustatzen zuen, hots, epaiketa hura, justiziaren eskakizunak asetzeko ezik, biktimen mendeku-desira eta, agian, eskubidea, asetzeko antolatu zela. Telford Taylor-en hitzak erabiliz, *New York Times Magazine* aldizkarian agertuak, «delitu bat ez da biktimaren kontra bakarrik egiten, baizik eta, nagusiki, legea urratzen den komunitatearen kontra» delako printzipioa funtsezkoa duten legeetan oinarritzen diren zigor-prozedurak nahitaezkoak dira, eta, hortaz, abian jartzen dira baita biktimak nahiago badu ere ahaztu eta barkatu. Gaizkilearen egintzak komunitatea bere osotasunean aztoratu eta arrisku larrian jarri duelako auziperatzen da gaizkilea, eta ez, auzibide zibiletan bezala, ordain-eskubidea duten gizabanakoei kaltea egin zaielako. Kasu penaletan eragiten den ordaina bestelakoa da guztiz; gorputz politikoa osorik dago «ordain» premian, eta ordena publiko orokorra aztoratu da eta hura behar da berregin, nolabait

esateko. Bestela esanda, legeak, ez pertsona auzi-jartzaileak, behar du nagusitasuna izan.

Fiskalak bere kasua nortasun pasiboaren printzipioan oinarritzeko egiten zituen ahaleginak baino are nekezago justifikatzen zen auzitegiak ere bere eskuduntza jurisdikzio unibertsalaren izenean aldarrikatzeko zuen joera, azken hori argi eta garbi kontrajartzen baitzitzaion juizioa egitearen arrazoiari berari, eta berebat kontrajartzen zitzaion Eichmanni aplikatu zitzaion legeari. Jurisdikzio unibertsalaren printzipioa, hala zioten, gizadiaren kontrako krimenak itsaslapurretaren krimen zaharraren antzekoak direlako aplika zitekeen, eta halakoak egiten dituen, itsaslapurra bezala, nazioarteko jendeen legedian bezala, *hostis humani generis* bihurtzen da. Eichmann, nolana ere, judu-herriaren kontrako krimenez akusatu zuten batez ere, eta haren atxiloketa, jurisdikzio unibertsalaren teoriak desenkusatu behar zuena, ez zuen gizadiaren kontrako krimenak eragin, judu-auziaren Azken Soluzioan bete zuen einkizunak baizik.

Hala ere, baita Israelek Eichmann *hostis humani generis* zelako bahitu izan balu ere, ez *hostis Judaeorum* zelako, zaila izango zen haren atxiloketaren legezkotasuna zuzenesten. Itsaslapurraren salbuespena, lurralde-printzipioari dagokionez —eta hori da, nazioarteko zigor-leggedirik ez badago, baliozko lege-printzipio bakarra—, ez da egiten itsaslapurra denen etsaia delako, eta, hortaz, denek juzga dezaketelako, baizik eta haren krimena itsas zabalean egina delako, eta itsas zabala inorena ez den eremua da. Itsaslapurra, areago, «legeei oro erronka eginez, inolako banderari men egin gabe» (H. Zeisel, *Britannica Book of the Year*, 1962), definizioz, bere buruarentzat dihardu oso-osorik; gizatalde antolatu guztietatik kanpo jartzea aukeratu duelako da gaizkilea, eta arrazoi horrengatik bihurtu da «modu berean guztion etsaia». Ez du, noski, inork esango Eichmannek bere buruarentzat ziharduenik edo ez ziola inolako banderarik men egiten. Puntu horri dagokionez, itsaslapurraren teoriak era honetako krimenek sortzen dituzten arazo nagusietako bat saihesteko baizik ez zuen balio izan, eta hura da krimen haiek egin zirela, eta bakarrik egin zitezkeela, *lege* kriminal baten pean eta *estatu* kriminal baten eskutik.

Genozidioaren eta itsaslapurretaren arteko parekotasuna ez da berria, eta, hortaz, azpimarratu beharra dago Genozidioaren gaineko Konbentzioak, zeinaren erabakiak Nazio Batuen Batzar Nagusiak

1948ko abenduaren 9an onetsi baitzituen, espresuki arbuiatu zuela jurisdikzio unibertsalaren aldarrikapena, eta haren ordezkia hauxe adierazi zuela: «Genozidioz akusaturiko pertsonak... egintza eragin zen lurraldeko estatueta auzitegi eskudun batek epaitu behar ditu, edo jurisdikzioa izan dezakeen nazioarteko auzitegi penal batek». Israelek ere izenpetu zuen Konbentzio haren arabera, Jerusalemeko auzitegiak saiatu behar izan zuen, edo nazioarteko auzitegi bat osatzen, edo lurralde-printzipioa Israeli ere aplikatzeko moduan berriro formulatzen. Bi alternatibak zeuden auzitegiaren aukeren eta eskumenaren baitan. Jerusalemeko epaileek arrazazko zuten nazioarteko auzitegi bat osatzeko aukera, geroago aztertuko ditugun arrazoiengatik, baina zergatik ez zuten lurralde-printzipioa beste modu batean formulatu —hiru printzipiotan oinarriturik aldarrikatu zuen Jerusalemeko auzitegiak, azkenik, jurisdikzioaren eskuduntza: lurralde-printzipioan, nortasun pasiboan eta jurisdikzio unibertsalean, hiru lege-printzipio guztiz desberdinak elkarri erantsita, emaitzak batere balioko balu bezala—, hura, argi eta garbi, estu-estu lotua zegoen alderdi interesdun guztiek bide ezezagunak urratzeari eta aurrekaririk gabe jarduteari zioten beldurrarekin. Israelek aise eska zezakeen lurralde-jurisdikzioa, besterik gabe, «lurraldea», legeak ulertzen duen moduan, politikako eta zuzenbideko kontzeptua dela azalduz, eta ez geografiakoa huts-hutsik. Lur zati bati baino areago, eta lehenago, gizatalde bati dagokio, eta era guztietako harremanek lotzen eta aldi berean bereizten eta babesten dituzte gizatalde horretako kideak: hizkuntza berak, erlijio berak, historia berak, usadio eta lege berak. Harreman horiek espazioan agerikoak gertatzen dira baldin harremanek berak talde bateko kide desberdinak elkarri lotzen zaien eta elkarrekin jarduten duten espazioa osatzen badute. Ez zen Israeleko Estaturik izango judu-herriak bere bitarteko espazio berezia sortu ez balu eta sakabanatze-mende luzeetan, hau da, bere lurralde zaharraz jabetu baino lehen, hari eutsi ez balio. Auzitegia, nolani ere, ez zen iritsi aurrekaririk gabe jokatu behararren erronkara, ezta Israeleko Estatuaren jatorriaren aurrekaririk gabeko nolakotasuna gogoan hartuta ere, nahiz eta hura epaileen bihotzetik eta gogotik oso gertu egon. Horren ordezkia, prozedurak aurrekari mordo baten azpian estali zituzten —epaiaren aurreneko berrogeita hamahiru atalak zegozkion juizioko lehen asteko saioetan—, eta haietako askok, ezjakinarentzat behintzat, sofisma landuak ziruditen.

Eichmannen juizioa, beraz, konkretuki, Nurenbergeko Juizioen atzetik etorri ziren juizio ugarietan azkena izan zen, ez gehiago eta ez gutxiago. Eta akusazio-erabakiak, eranskin batean, guztiz egoki zekarren 1950eko legearen interpretazio ofiziala, orduko Justiziako Ministroa zen Pinhas Rosenek egina, ezin argiagoa izan zitekeena: «Beste herri batzuek, gerra bukatu eta berehala, eta batzuetan baita bukatu baino lehen ere, naziak eta haien laguntzaileak zigortzeko beharrezkoa zen legedia onesten zuten bitartean... judu-herriak... ez du izan aginte politikorik kriminal naziak eta haien laguntzaileak auziperatzeko, Israeleko Estatua antolatu den arte». Hortaz, Eichmannen juizioa, Nurenbergekoaren ondorengo juizioen aldean, gauza batean bakarrik zen berezia: akusatua ez zen behar bezala atxilotu eta Israelera estraditatu; aitzitik, nazioarteko lege bat urratu zen, argiro, Eichmann auziperatzeko helburuaz. Esan dugu lehenago ere Eichmannen *de factoko* naziogabetasunean oinarrituta lortu zuela Israeliek hura bahitzea, eta ulertzekoa da, bahitzea zuritzeko Jerusalemen aipatu ziren aurrekari kontaezinengatik ere, aipatu ere ez zela egin eskura zegoen aurrekari garrantzitsu bakarra, Berthold Jakob kazetari aleman judu ezkertiarren atxiloketa, Gestapoko agenteek 1935ean Suitzan egin zutena. (Beste aurrekariak ez zuten balio, justiziatik ihesi zebilen jendeari buruzkoak baitziren, eta delitugilea atzera bere krimenen gertalekura eramanez ez zekien, baliozko atxiloketa-agindu bat eman zen, edo eman zitekeen, eta baldintza horiek ezin zituen Israeliek bete). Kasu honetan, Israeliek lurralde-printzipioa urratu zuen; printzipio horren ondorio nagusia da lurrian herri asko dagoela eta herri horiek lege diferente askoren araupean bizi direla, halako gisan non lurralde bateko legearen zabalpenak, indarrean dagoen lurraldeko mugez gaindi, bertatik sortuko duela beste lurralde bateko legearekiko gatazka.

Horixe izan zen, zoritxarrez, Eichmannen juizio osoko aurrekaririk gabeko ezaugarri bakarra, eta, inondik ere, baliozko aurrekaria bihurtu zitekeen azkena zen. (Zer esango genuke bihar Afrikako estatu batek bere agenteak Mississippira bidaliko balitu eta bertako mugimendu segregazionistako buruetako bat atxilotuko balu? Eta zer erantzun genuke Ghanako edo Kongoko auzitegi batek aurrekari gisa Eichmannen kasua aipatuko balu?). Eichmannen delitua aurrekaririk gabea izateak eta Israeleko Estatu berriaren sorrerak zuritzen zuten bahiketa. Baziren, nolana ere, gorabehera

aringarriak, hots, Eichmann auziperatu nahi bazen, ez zela egiazko alternatibarik. Argentina marka guztiak apurtua zen kriminal naziak ez estraditatzeko; eta Israelen eta Argentinaren artean estradizio-itun bat izan balitz ere, estradizio-eskaera ez zen segur aski beteko. Era berean, ez zuen askorik lagunduko Eichmann Argentinako poliziaren eskuetan jartzeak, Mendebaldeko Alemaniara estradita zezaten; zeren Bonngo gobernuak eskatu baitzuen lehenago ere Argentinak zenbait kriminal nazi ezagun estraditatzeko, besteren artean Karl Klingenfuss eta Josef Mengele doktorea (azken hori, Auschwitzeko esperimentu mediko izugarriaren inplikaturik, eta «aukeren» arduraduna), batere arrakastarik gabe ordea. Eichmannen kasuan, alfer-alferrik izango zen halako eskaera bat egitea, zeren, Argentinako legearen arabera, Bigarren Mundu Gerrari zegozkion delitu guztiak gerra bukatu eta handik hamabost urtera baliogabetuak geratu baitziren, eta, hortaz 1960ko maiatzaren 7aren ondoren Eichmann ezin izango zen legez estraditatu. Laburtuz, legezketasunak ez zuen irtenbiderik eskaintzen, eta bahiketa zen alternatiba bakarra.

Sinetsita daudenak zuzenbidea dela, ez beste ezer, legean xedea, bahiketa desenkusatuko dute, ez aurrekaririk baduelako, baizik eta, aitzitik, egintza etsi gisa, aurrekaririk gabea eta aurrekari ezin izan daitekeena, nazioarteko legearen hutsuneek eragina delako. Ikuspegi horretatik, egiazko alternatiba bakarra zeukan Israelek egin zuenak: atxilotu eta Israelera eraman ordez, israeldar agenteek Eichmann bertan hiltzea, Buenos Aireseko kaleetan. Ideia hori sarritan aipatu zen kasuaren inguruko eztabaidetan, eta, bitxia bada ere, atxilotetarekin izutuenak zeudenek gomendatzen zuten gehiena. Ideia bera ere ez zen horren burugabea, Eichmannek egindakoak ez baitziren auzitan jartzen, baina proposatu zutenei ahaztu egin zitzaion legea bere eskuan hartzen duenak zuzenbidea zerbitzatuko duela bakar-bakarrik legeak berriz ere jarduteko moduan aldatu nahi badu egoera, eta haren egintza, atzera begira bada ere, baliozkoa bihur badaiteke. Badira, hori dela-eta, gertuko bi aurrekari, berehala datozenak gogora. Shalom Schwartzbard-en kasua da bat; 1926ko maiatzaren 25ean, Parisen, tiro batez hil zuen Simon Petlyura, ukrainar ostenen buruzagi ohia, Errusiako gerra zibilean egindako pogromen erantzulea, eta 1917 eta 1920 bitartean ehun bat mila biktima eragin izanaz harrotzen zena. Eta beste kasua Tehlirian armeniarrena zen. Hark, 1921ean, Berlinen, hiriaren erdi-erdian, tiroka erail zuen Talaat Bey, Armeniako 1915eko

pogrometako hiltzaile ikaragarria; pogrom haietan Turkiako armeniar biztanleriaren heren bat (seihun mila lagun) sarraskitu bide zituzten. Gauza da hiltzaile haiek, bata zein bestea, ez zirela lasai geratu «beren» kriminala hilda; bata zein besteak, berehala poliziarengana joanda, auziperatzea nahi izan zuten. Biek erabili zuten juizioa munduari erakusteko, auzitegiko prozeduren bitartez, nolako krimenak eragin zizkieten beren herriari, eta krimen haiek ez zituztela zigortu. Schwartzbarden juizioan, bereziki, Eichmannen juizioan erabilitako metodoen oso antzekoak erabili ziren. Modu berean, ahalegin handia egin zen krimenen gaineko dokumentazio zabala eskaintzeko, baina kasu honetan defentsarentzat prestatu zen dokumentazioa (*Comité des Delegations Juives* erakundeak prestatu zuen, Leo Motzkin doktorea zenaren lehendakaritzapean; urte eta erdi behar izan zuen materiala biltzeko eta *Les Pogromes en Ukraine sous les gouvernements ukrainiens 1917-1920* liburuan argitaratzeko, 1927); Schwartzbarden juizioan, akusatuak eta haren abokatuak hitz egin zuten biktimen izenean, eta Schwartzbardek, bide batez esango dut, nola juduek «ez zuten inoiz bere burua defendatu» aipatu zuen. (Ikus Henri Torrès-en txostena, beraren *Le Procès des Pogromes* liburuan, 1928). Bi gizonak asketsi zituzten, eta bi kasuetan ikusi zen haien jokamoldeak «esan nahi zuela haien arrazak azkenean erabaki zuela bere burua defendatzea, abdikazio morala atzean uztea, laidoen aurrean etsi ona gainditzea», Georges Suarezek Shalom Schwartzbarden kasuan mirespenez adierazi zuen bezala.

Agerikoak dira guztiz justiziari traba egiten dioten legalismoak gainditzeko sistema honen abantailak. Juizioa, bistan da, «ikuskarizko» juizioa bihurtu da berriz ere, eta baita ikuskari hutsa ere, baina juizioko «heroia», begiak oro harengan iltzatuta, emanaldiaren erdi-erdian dagoena, huraxe da oraingo honetan egiazko heroia, eta aldi berean lege-prozedurari dagokion juizio-izaerari eusten zaio, ez baita «emaitzak aldeztu aurretik antolatutako dituen ikuskaria», eta «ezin murriztuzko arriskuaren» elementu hori dauka, eta hori, Kirchheimerren arabera, nahitaezko faktorea da auzibide penaletan. Era berean, *J'accuse* hori, biktimaren ikuspegitik hain ezinbestekoa, askoz ere sinesgarriagoa gertatzen da legea bere eskuan hartzera behartua gertatu den gizonaren ahotan, gobernuak izendatu eta batere arriskurik hartzen ez duen agente baten ahotan baino. Eta hala ere —gogoeta praktikoak alde batera utzita, besteak beste, hirurogeietako Buenos Airesek nekez

eskaintzen ziola akusatuari hogeietako Parisek eta Berlinek eskaintzen zuten berme edo publizitate bera—, dudazkoa baino gehiago ere bada soluzio hau desenkusatzeko modukoa izatea Eichmannen kasuan, eta begi bistako gauza da ezingo zela inola ere desenkusatu gobernuko agenteek akabatu balute. Schwartzbardek eta Tehlirianek beren alde zuten gauza zen biak zirela Estatu eta lege-sistema propiorik gabeko talde etnikoetako kideak, eta ez zela munduan talde haiek beren biktimak eraman zitzaizketen auzitegirik. Schwartzbard 1938an hil zen, judu-estatua aldarrikatu eta hamar urte geroago; ez zen sionista, ez nazionalista. Baina dudarik ez dago gogo beroz egingo ziola ongiatorria Israeleko Estatuari, hain maiz zigorrik gabe geratu ziren krimenentzako auzitegi bat eskainiko zuelako. Aserik geratuko zen haren justizia-sena. Eta Pariseko kartzelatik Odessako anai-arrebei bidali zien gutuna irakurtzen dugunean —*Faites savoir dans les villes et dans les villages de Balta, Proskouro, Tzcherkass, Ownan, Jitomir ... portez-y le message édifiant: la colère Juive a tiré sa vengeance! Le sang de l'assassin Peitlioura, qui a jailli dans la ville mondiale, à Paris... rappellera le crime féroce... commis envers le pauvre et abandonné peuple juif*—, une horretan, berehala datozkigu gogora, ez, agian, Hausner jaunak juizioan esan zuena (askoz ere prestuagoa eta hunkigarriagoa zen Shalom Schwartzbarden mintzamoldea), baina bai Eichmannen auzia derrigor interesatu behar zitzaien mundu osoko juduen sentimenduak eta gogo-egoera.

Azpimarratu egin ditut Schwartzbarden 1927ko Parisko juizioaren eta Eichmannen 1961eko Jerusalemeko juizioaren arteko parekotasunak, oso argi erakusten dutelako Israel, eta judu-jendea oro har, ez zegoela batere prestatua, aurrekaririk gabeko krimen bat ikusteko Eichmanni egozten zitzaizkion delituetan, eta oso zaila izan behar zuela judu-jendearentzat aurrekari falta hori ulertzea. Juduen begietan, beren historia baizik ez zutela gogoan, Hitlerrek ekarri zien hondamendia, herriaren heren bat desagerrarazi zuena, ez zen krimen guztietan azkena, genozidioaren krimen aurrekaririk gabea, baizik eta, aitzitik, ezagutzen eta gogoratzen zuten krimenik zaharrena zen. Jerusalemeko juizioko huts eta gabezia guztien sustraian okerreko ulerpen horixe dago, ezinbestekoa kasik gogoan hartuz gero, juduen historian gertatuak ez ezik, baita juduek beren historia ulertu ohi duten modua ere. Juizioko parte-hartzaileetatik inor ez zen iritsi behar bezala ulertzera Auschwitzeko izugarrikeria

iraganeko basakeria guztiak ez bezalakoa izan zela, zeren bai fiskalei bai epaileei juduen historiako pogromik ikaragarriena iruditzen baitzitzaien, baina ez besterik. Hortaz, haien ustez lerro zuzen bat zegoen Alderdi Naziaren hasierako antisemitismotik Nurenbergeko Legeetara, Nurenbergeko Legeetatik juduak Reichetik iraitzera, eta, azkenik, gas-ganberetara. Politikaren eta legearen aldetik, ordea, «krimen» haiek bestelakoak ziren; bestelakoak, mailaz eta larritasunez ez ezik, baita izatez ere.

1935eko Nurenbergeko Legeek legeztatu egin zuten aleman gehiengoak judu-gutxiengoari lehenagotik eragiten zion diskriminazioa. Nazioarteko legearen arabera, aleman nazio burujabearen pribilegioa zen egoki zeritzon bere biztanleriaren zatia gutxiengo nazionala zela deklaratzeara, delako gutxiengoaren legeak nazioartean onetsiriko gutxiengo-itunek zehazturiko eskubideei eta bermeei egokitzen zitzaizkien neurrian. Nazioarteko judu-erakundeak, beraz, berehala ahalegindu ziren Alemaniako azken gutxiengoarentzat, Genevan adostutakoaren arabera, Europako ekialdeko eta hego-ekialdeko gutxiengoei eman zitzaizkien eskubide eta berme berak lortzen. Baina babes hori eman ez bazen ere, beste nazioek aleman legearen partetzat hartzen zituzten Nurenbergeko Legeak, eta, horren ondorioz, aleman herritar batek ezin zuen Holandan, adibidez, judu bat esposatu, hots, ezin zen bikote misto bat osatu. Nurenbergeko Legeen delitua delitu nazionala zen; eskubide eta askatasun nazionalak eta konstituzionalak urratzen zituen, baina hori ez zegokien beste nazioei. «Emigrazio behartuak», nolanahi ere, edo judu-iraitzeak, 1938aren ondoren politika ofiziala bihurtu zenak, izan zuen eragina nazioarteko komunitatean, arrazoi soil batengatik: kanporatzen zirenak beste herrialdeetako mugetan agertzen ziren, eta gonbidatu gabeko haiek onartzera behartuta gertatzen ziren, edo isilgordean beste herrialde batera bidaltzera, nahiz eta hark ere onartu nahi ez. Herritarrak iraitzea, bestela esanda, gizadiaren kontrako delitua da, baldin «gizadi» hitzaz ez badugu nazioen komunitatea baino gehiago ulertzen. Ez diskriminazio legeztatuaren krimen nazionala, ez herritarrak iraitzearen nazioarteko krimena, ez ziren aurrekaririk gabeak, eta aro modernoan ere izan dira halakoak. Diskriminazio legeztatua Balkanetako herri gutxietan egindako gauza zen, eta iraultza askoren ondoren gertatu izan dira masa-eskalako iraitzeak. Baina erregimen naziak deklaratu zuenean aleman herriak ez zuela judurik eduki nahi Alemanian, eta, areago,

judu-herri osoa nahi zuela lurraren azaletik desagerrarazi, orduan agertu zen gizadiaren kontrako krimena, «gizatasunaren kontrako» krimen baten zentzuan, hots, gizadiaren beraren izaeraren kontrakoa delakoa. Iraiztea eta genozidioa nazioarteko delituak diren arren, ondo bereizita egon behar dute; aurrenekoa beste nazioen kontrako delitua da, eta bigarrena, berriz, gizakien aniztasunaren beraren kontrako eraso da, hau da, «gizatasuna» definitzen duen ezaugarri baten kontrakoa, eta ezaugarri horrez gabeturik, «gizadi» edo «gizatasun» hitzek beren esanahia galduko lukete.

Jerusalemeko auzitegiak ulertu izan balu badirela aldeak diskriminazioaren, iraitzearen eta genozidioaren artean, berehalakusiko zen han aipatu zen delitu nagusia, judu-herriaren suntsitze fisikoa, gizadiaren kontrako krimena zela, judu-herriaren gorputzaren gainean eragina, eta biktimen aukera bakarrik, ez delituaren nolakotasuna, izan zitekeela juduenganako gorrotoaren edo antisemitismoaren historia luzearen ondorioa. Biktimak juduak zirenez gero, zuzen eta egoki zen Eichmann auzitegi judu batek epaitzea; baina delitua gizadiaren kontrakoa zenez gero, nazioarteko auzitegi bat behar zen hari justizia egiteko. (Auzitegiak egin zuen hutsa, bereizketa hori ez egitea, harrigarria izan zen, bereizketa huraxe egin baitzuen lehenago Israeleko Justiziako Ministroak, Rosen jaunak; hark 1950ean azpimarratu zuen «bereizi egin behar direla lege-proiektu hau [judu-herriaren kontrako delituei buruzkoa] eta Genozidioaren Prebentzioaren eta Zigorren Legea», Israeleko Parlamentuan eztabaidatu bai, baina onartu ez zena. Argi zegoen, Jerusalemeko auzitegiarentzat, ezin zituela Estatuko legearen mugak gainditu, eta, hala, genozidioa, israeldar legedian sailkaturik ez zegoelarik, ezin zuen gogoan hartu). Jerusalemeko auzitegiari eragozpenak jarri zizkioten eta nazioarteko auzitegi baten aldekoak ziren ahots ugari eta oso jantzien artean, bakar batek, Karl Jaspersek, adierazi zuen argi eta garbi —juizioa hasi baino lehen egin zen eta geroago *Der Monat* aldizkarian argitaratu zen irratiko elkarrizketa batean—, «juduen kontrako delitua berebat zela gizadiaren kontrako krimena», eta, «horren ondorioz, gizadi osoaren ordezkari den justiziako auzitegi batek bakarrik eman dezake epaia». Jaspersek proposatzen zuen Jerusalemeko auzitegiak, froga-bideak aztertu ondoren, «uko egin behar ziola» epaia emateko eskubideari, horretarako «ezgai» zela esanez, delitu haren legezko nolakotasuna artean ere eztabaidagarria baitzen, eta berebat zen eztabaidagarria

zein zen epaia emateko agintaritza eskuduna, delitua gobernu baten aginduen arabera egindakoak izanik. Jaspersek, aurrerago, gauza bakar bat zela segurua zioen: «Delitu hau aldi berean da erailketa arrunta baino gehiago eta gutxiago», eta nahiz eta «gerrako krimena» izan ez, zalantzarik ez zen «gizadia suntsituko zela estatuei halako delituak egiten utziz gero».

Jaspersen proposamena, Israelen inortxok ere aipatu ere ez zuena, formulatua zegoen moduan, ezin bideratuzkoa bide zen ikuspegi huts-hutsik teknikotik. Juizioa hasi baino lehen erabaki beharreko gauza da auzitegi baten jurisdikzioaren helmena; eta behin epaitegi bat eskuduntzat onartu denean, epaia ere eman behar du. Nolanahi ere, eragozpen huts-hutsik formal horiek aise gaudituko ziren, baldin Jaspersek, auzitegiari ez ezik, Israeleko estatuari eskatu balio uko egiteko zigortzeko eskubideari, behin epaia emana zenean, auzitegiak aztertutako delituak aurrekaririk gabeak zirela gogoan izanik. Israelek orduan Nazio Batuetara jo zezakeen, eta frogatu, eskura zituen frog guztiekin, nahitaezkoa zela nazioarteko auzitegi penal baten premia, gizadiaren kontrako delitu berri haiek guztira harturik. Israelen esku egongo zen istiluak sortzea, «aztoramen osasuntsu» bat sortzea, behin eta berriz galdetuz zer egin behar zen atxiloturik zeukan gizon harekin; galdera horrek, sarritan errepikaturik, mundu osoko iritziz publikoari pentsaraziko zion nazioarteko auzitegi penal iraunkor bat antolatu beharra zegoela nahitaez. Era horretan, nazio guztietako ordezkarien kezka izango zen «egoera aztoragarri» bat sortuz, ezingo zuen «gizadiak gogoia sosegatu», ezta «juduen hilakintza etorkizuneko delituen eredu bihurtu ere, etorkizuneko genozidioen eskala txikiko eredu kaskarra agian». Gertakarien munstrokeria bera «arras txikiagotua» geratzen da nazio bakar bat ordezkatzan duen auzitegi baten aurrean.

Nazioarteko auzitegi baten aldeko edo kontrako argudio hori, zoritxarrez, nahastu egin zen bestelako gogoetetan oinarritutako beste proposamen batzuekin, nahiz eta haiek askoz pisu gutxiago izan. Israeleko herriaren adiskide asko, juduak eta ez-juduak, ikaraz zeuden juizioak ez ote zuen Israelen izen ona kaltetuko, eta juduen kontrako erreakzio bat mundu osoan sortuko. Haien ustez, juduak ezin ziren aldi berean epaile eta alderdi izan, eta salatzaile gisa baizik ezin zuten jokatu; Israelek, hortaz, Eichmann preso eduki behar zuen, harik eta Nazio Batuek hura epaitzeko auzitegi berezi bat sortu

arte. Alde batera utzirik Israel, Eichmannen kontrako auzibideetan, Alemaniak okupaturiko herrialde guztiek aspalditik egin zutena baino gehiago ez zela egiten ari, eta justizia zegoela han auzitan, ez Israelen edo judu-herriaren izen ona, proposamen haiek guztiek akats bera zuten: Israelek aise gezurta zitzakeen. Baina ez ziren, izan, oso errealistak, gogoan harturik NBetako Batzar Nagusiak «bi bider arbuiatu dituela nazioarteko auzitegi penal iraunkor bat antolatzeko proposamenak» (*A.D.L. Bulletin*). Baina Nahum Goldmann-ek, Munduko Batzar Juduaren lehendakariak, beste proposamen bat egin zuen, praktikoagoa, egingarria *zelako* normalean aipatzen ez dena. Goldmanek Ben-Gurionengana jo zuen, nazien okupazioa sufritu zuten herrialde guztietako epaileak bilduz, Jerusalem nazioarteko auzitegi bat antolatzeko eskatuz. Hura, ordea, ez zen aski izango; Nurenbergekoaren ondorengo juizioak luzatzea besterik ez zen izango, eta justiziari eragindako kalterik handienak —garaileen auzitegi bat ari zela bideratzen—, ez zuen irtenbiderik izango. Baina urrats praktikoa izango zen, norabide egokian egina.

Israelek, gogoratuko denez, biziki oldarturik erreakzionatu zuen hiru proposamen horien aurrean. Eta egian den arren, Yosel Rogat-ek azpimarratu duen bezala (Center for the Study of Democratic Institutions-ek argitaraturiko *The Eichmann Trial and the Rule of Law* lanean, Santa Barbara, Kalifornia, 1962), Ben-Gurionek, beti, «gaizki ulertzen zuela galdetzen ziotenean ‘Zergatik ez du nazioarteko auzitegi batek epaitzen?’», era berean da egia galdera hori egiten zutenek ez zutela ulertzen juizio hark aurrekaririk gabeko ezaugarri bakarra zuela Israelentzat: aurreneko aldiz (erromatarrek Jerusalem suntsitu zuten 70. urteaz geroztik), juduak gai ziren beren herriaren kontrako delituak epaitzeko, aurreneko aldiz ez zuten inorengana jo behar babes eta justizia bila, edo Gizakiaren Eskubideen esaldi sorta zalantzazkora, eskubide horiek, eta juduek beste inork baino hobeto zekiten hori, «ingeles eskubideak» defendatzeko eta beren lege propioak bideratzeko adina indarririk ez duten pertsonak *bakarrik* aldarrikatzen baitituzte. (Israelek bere lege propioa izatea bera, halako juizio bat egiteko ahalmena ematen ziona, Eichmannen juizioa hasi baino askoz ere lehenago, «judu-herriaren posizio politikoan gertatu den aldaketa iraultzaile bat» zela esan zuen Rosen jaunak, 1950eko Legearen aurreneko irakurketan, Knesset edo Israeleko Parlamentuan). Esperientzia eta asmo bizi horiek gogoan zituela, esan

zuen Ben-Gurionek: «Israelek ez dauka nazioarteko auzitegi baten babesaren premiarik».

Are gehiago, judu-herriaren kontrako delitua, oroz gain, gizadiaren kontrako delitua zelako argudioa —harexen gainean oinarritzen ziren nazioarteko auzitegi baterako proposamenak—, Eichmanni aplikatu zitzaion legearen kontra-kontrakoa gertatzen zen. Hortaz, beste urrats bat egin behar izan zuten Israelek bere presoa nazioarteko auzitegi baten eskuetan utzi behar zuela proposatzen zutenek, esanez 1950eko Nazien eta Nazien Laguntzaileen (Zigor) Legea okerra zela, egiaz gertatu zenaren kontrakoa adierazten zuela, eta ez zituela gertakari guztiak bere baitan hartzen. Eta hori egi-egia da. Izan ere, hiltzaile bat komunitatearen legea urratu duelako auziperatzen den bezala, ez familia jakin bati senarra, aita eta euskarri ekonomikoa kendu diolako, era berean, masa-hiltzaile modernoak, estatuak enpleguak diren hauek, gizadiaren antolamendua urratu dutelako behar dira auziperatu, eta ez milioika lagun hil dituztelako. Ezerk ez du delitu berri hauek ulertzea gehiago galarazten, edota haiez arduratuko litzatekeen nazioarteko zigor-legedi baten sorrera gehiago oztopatzen, erailketaren krimena eta genozidioaren krimena funtsean gauza bera direlako gezurrezko iritziak baino, hots, bigarrena «berez, ez da delitu berria, zehaztasunez hitz eginez». Bigarren delituaren ezaugarri bereizlea da ordena erabat bestelako bat hausten duela, eta komunitate erabat bestelako bat urratzen duela. Eta, hain zuzen ere, ederki zekielako eztabaida osoak Israeleko legea auzitan jartzen zuela, erreakzionatu zuen Ben-Gurionek makurkeriaz, ez oldartuta, israeldarren zuzenbide-prozeduren aurkako kritiken kontra: zernahi zutela esateko «ustezko aditu» haiek, haien argudioak «sofismak» ziren, antisemitismoak eraginak, edota, juduak baziren, gutxiagotasun-usteek. «Uler beza hau munduak: ez dugu geure presoa beste inoren esku utziko».

Esan beharreko gauza da azken hitz horiena izan zela Jerusalemeko juizioko giro nagusia. Baina nik uste dut egokia dela iragartzea Nurenbergekoaren ondorengoetan azkena izan den juizio honek ez duela balioko, eta agian aurrekoek baino gutxiago balioko duela, tankera honetako delituen etorkizuneko juizioen aurrekari gisa. Horrek ez luke garrantzi handirik izango, kontuan hartzen bada lortu zela epaiketaren helburu nagusia —Adolf Eichmann salatzea

eta defendatzea, epaitzea eta zigortzea—, baldin aski deserosoa zen baina nekez uka zitekeen aukera bat egon ez balitz, hots, etorkizunean ere antzeko delituak egin daitezkeela. Mentura beltz horren arrazoiak orokorrak eta partikularrak dira aldi berean. Giza gauzen izatean berean dago egintza oro, aurrenekoz agertu eta gizadiaren historian idatzirik geratu denean, gizadiaren posibilitate gisa geratzen dela, haren oraingotasuna iraganeko gauza bihurtu eta baita askoz geroago ere. Ez dago delituak eragozteko adina indar duen zigorrik. Aitzitik, zernahi den zigorra, behin delitu jakin bat aurreneko aldiz gertatu denean, gauza gertagarriagoa da delitu hori errepikatzea, lehen aldiz gertatzea baino. Are gertagarriagoak dira naziek eragindako delituak berriz gerta daitezkeelako menturaz mintzatzeko arrazoi partikularrak. Aski beharko luke izan denok dardarka jartzeko, alde batetik, gaur egungo biztanleria-eztanda eta, automatizazioaren bidez, baita lanari dagokionez ere, biztanleriaren parte handiak «alferrikakoak» egingo dituzten tresna teknikoek aurkikuntza, eta, bestetik, arrisku bikoitz horri energia nuklearraren bitartez aurre egin dakiokeela jakitea, zeinaren aldean Hitlerren gas-instalazioek haur bihurri baten jostailu traketsak ematen baitute.

Horren arrazoiak, da, funtsean, aurrekaririk gabea dena, behin agertu denean, etorkizunean aurrekari bihur daitekeela, eta, hortaz, «gizadiaren kontrako krimenak» epaitzen dituzten juizio guztiak oraingoz «teorikoak» diren irizpideen arabera behar direla gaur juzgatu. Baldin gaur egun genozidioa etorkizuneko aukera bada, orduan inor ez dago lurraren gainean —eta gutxiena, jakina, judu-jendea, Israelen edo beste edonon— jarraituko duela seguru-seguru dakienik, nazioarteko legearen laguntza eta babesa ez badu. Une jakin bat arte aurrekaririk gabea izan den hari heltzerakoan arrakasta izatea edo huts egitea, gauza bakar baten arabera da, eta hori da zenbateraino balio lezakeen aurrekari gisa nazioarteko zigor-legearen bidean. Eta halako juizioetan epaileei egiten zaien eskakizun hori, aurrekaria finkatzeko, ez da inondik ere gehiegizkoa, ez da bidezkoa dena baino gehiago eskatzea. Nazioarteko zuzenbidea, esan zuen Jackson epaileak Nurenbergen, «nazioen eta usadio onartuen arteko itunen eta akordioen emaitza da. Usadio orok, ordea, egintza bakan batean izaten du sorburua... Geure egunak eskubidea du nazioarteko zuzenbide berri, indartsuago baten sorburu izango diren usadioak abiarazteko eta itunak egiteko». Baina Jackson epaileak ez zuen azpimarratu ezen, nazioarteko zuzenbidearen

amaitu gabeko izate horren ondorioz, prozedura arruntetako epaileen eginkizuna izaten dela zuzenbide positiboaren laguntzarik gabe, edo zuzenbide positiboak ezartzen dituen mugez haraindi, justizia egitea. Epailearentzat hori estualdi bat gerta daiteke, eta argudia dezake, eta ez litzateke harritzekoa izango, eskatzen zaion «egintza bakarra» ez dagokiola berari, legegileari baizik.

Jerusalemeko auzitegiko arrakastari edo porrotari buruzko ondorio jakin batera iritsi baino lehen, azpimarratu behar dugu epaileak etsiak zeudela ez zutela legegile bihurtzeko eskubiderik, beren lana Israeleko legediaren mugen baitan egin behar zutela, alde batetik, eta legezkotasun orokorraren baitan, bestetik. Onartu beharra dago, bestalde, haien hutsegiteak ez zirela izan, ez izatez, ez mailaz, Nurenbergeko juizioetakoak edo Europako beste herrialdeetakoak baino handiagoak. Aitzitik, Jerusalemeko auzitegiaren hutsegite batzuk Nurenbergeko juizioko aurrekariari ahalik eta gehiena atxikitzeko desiraren ondoriozkoak izan ziren.

Laburtuz, Jerusalemeko auzitegiko porrota funtsezko hiru arazoren ondoriozkoa izan zen, ez baitziren behar bezala ulertu, nahiz eta hirurak ondo ezagunak izan, eta oso landuak, Nurenbergeko auzitegia osatu zenez geroztik: garaileek osatutako auzitegi baten alderdikeriaren arazoa; «gizadiaren kontrako krimena» behar bezala ez definitu izana; eta argiro ez zehaztea nolakoa den era horretako delitua egin duen gaizkile berria.

Aurrenekoari dagokionez, zuzenbidea larrikiago kaltetu zen Jerusalemen Nurenbergen baino, Jerusalemeko auzitegiak ez baitzuen defentsaren lekukorik onartu. Lege-prozedura egoki baten tradiziozko eskakizunen aldetik, huraxe izan zen Jerusalemeko epaiketaren hutsik larriena. Areago: gerra bukatu zen unean nahitaezkoa izan zitekeen garaileen auzitegi batek ematea epaierabakia (Jackson epaileak Nurenbergen emandako argudioari: «Edo garaileek behar dituzte garaituak epaitu, edo garaituei utzi behar diegu bere burua epaitzen», erantsi beharko litzaioke, aliatuen iritzia, ulertzekoa dena: «dena arriskuan jarri zutenek ezin zituzten neutralak onartu» [Vabres]); baina hamasei urte geroago, eta herrialde neutralak onartzearen kontrako argudioak zentzurik ez zeukan egoera batean, gauzak bestelakoak ziren oso.

Bigarren auziari dagokionez, Jerusalemeko auzitegiak emandako epaiaren arrazoiak Nurenbergekoak emandakoak baino

hobeak ziren askoz ere. Aipatu dut lehenago ere nola definitzen zituen Nurenbergeko Gutunak «gizadiaren kontrako krimenak», «egintza gizagabeak» zirela esanez; inondik ere gizaldi honetako eufemismorik handiena denarekin itzultzen da hori alemanez: *Verbrechen gegen die Menschlichkeit*, hau da, naziek gizatasuna falta izan balute bezala, ez besterik. Egia esatera, Jerusalemeko juizioaren jardunbidea fiskalaren arabera izan balitz osorik, oinarritzko ulerpen-errakuntzak Nurenbergekoak baino okerragoak ere izango ziren. Baina epaiak ez zuen izugarrikeria-uholde batean itotzen utzi nahi izan delituaren funtsezko nolakotasuna, eta ez zen sartu krimen hau gerrako krimen arruntekin berdintzearen segadan. Nurenbergen oso tarteka baino esan ez zena, eta, nolabait esateko, bidenabar bezala baizik aipatu ez zena —«frogek ikusarazten dutenez, masa-hilketak eta ankerkeriak ez ziren oposizioa zapaltzeko xede hutsez egin», aitzitik, «biztanleria natibo osoak garbitzeko plangintza baten parte gisa baizik»—, auziaren erdi-erdian egon zen Jerusalem, bistakoa zen arrazoi batengatik: Eichmann judu-herriaren kontrako krimen batez zegoen akusatua, hau da, asmo erabilgarriek ezin agertu zuten krimen batez; Europa osoan erail zituzten juduak, ez Ekialdean bakarrik, eta haien suntsiketa ez zettorren «alemanek kolonizatzeke erabil zitzaizketen» lurraldeak irabazteko desiretatik. Judu-herriaren kontrako krimenaren inguruan antolatutako juizio baten abantaila handia zen, alde batetik, bereizten zituela gerrako krimenak (besteak beste, erresistentziako kideak fusilatzea eta bahituak erailteza), eta «egintza gizagabeak» (hots, biztanleria natiboak «iraiztea eta suntsitzea», inbaditzaile batek koloniza zitzaizketen), eta, beste aldetik, bereizketa hori etorkizuneko nazioarteko zigor-araudiaren parte bihurtzeko bezain argiro egin zela; baina, horrez gainera, argitu egin zen «egintza gizagabeak» (asmo jakin batekin eraginak, nahiz eta asmo kriminala izan, kolonizazio bidezko hedapena esate baterako), eta asmoa eta helburua aurrekaririk gabeak zituen «gizadiaren kontrako krimena» bereizten dituen diferentzia. Nolanahi ere, Jerusalemeko juizioak ez zuen aipatu, ez prozeduretan ez epaian, judu-, poloniar edo ijito-herrien kontrako krimen bat baino gehiago izan zitekeenik talde etniko osoak —juduak, poloniarrek edo ijitoak— suntsitzea, eta nazioarteko ordena, eta gizadia bera osorik, larriki kaltetua, eta arrisku handian gerta zitekeela.

Hutsegite horrekin oso estu lotua egon zen epaileek agertu zuten ezintasun nabarmena, gutxiena saihesten zezaketen egingizuna

betetzea egokitu zitzaientean: ezin ulertu epaitu behar zuten gaizkilea. Argi zegoen ez zela aski epaileek ez onartzea fiskalak akusatuaz esandakoa, oker zeharo, «sadiko perbertitu» gisa deskribatu zuenean; orobat ez zen aski izango, urrats bat gehiago eginez, fiskalaren ikusmoldearen funsgabetasuna agerraraztea, Hausner jaunak munduak sekula ikusi duen munstrorik anormalena nahi baitzuen epaitu, eta, aldi berean, harengan epaitu nahi zituen «hura bezalako asko», baita «mugimendu nazi osoa eta antisemitismoa oro har» ere. Epaileek oso ondo zekiten, jakina, oso eroso izango zela Eichmann munstro bat zela sinestea, nahiz eta, hala izan balitz, Israelen epaiketak erreka jo, edo, gutxien-gutxiena, interesa guztiz galdu. Ezin zaio, noski, mundu osoari dei egin eta lurreko bazter guztietatik berri-emaileak ekarri, zertarako eta auzi-gelan Bizar-urdin bat ikusgai jartzeko. Eichmannen kasuko gauzarik larriena zen, hain zuzen ere, asko eta asko zirela bera bezalakoak, eta haiek ez zirela ez perbertituak ez sadikoak, aitzitik, ikaragarri eta beldurgarriro normalak zirela, eta direla oraindik ere. Gure lege-erakundeen eta gure irizpide moralen arabera, normaltasun hori askoz ere beldurgarriagoa da ankerkeria guzti-guztiak baino, zeren horrek esan nahi baitzuen —Nurenbergen akusatuek eta haien abokatuek behin eta berriz esan zuten bezala—, gaizkile mota berri honek, izan, *hostis generis humani* izanik, krimenak egiten dituela kaltea egiten ari dela jakiten edo sumatzen ia uzten ez dion egoera batean. Alderdi honetatik, Eichmannen kasuan aurkeztutako frogabideak sinesgarriagoak ere izan ziren gerrako kriminal nagusien juizioan aurkeztutakoak baino; izan ere, Nurenbergen epaituek kontzientzia garbia zutelako aldarrikapenak errazago bazter zitezkeen, «gorenako aginduen» esanera jardun zutelako argudioa, noizbehinkako desobedientziaren gaineko aldarriekin konbinatzen zutelako. Baina nahiz eta akusatuen fede gaiztoa agerikoa izan, gizon haiek kontzientzia ez zutela garbi frogatzen zezakeen gauza bakarra zen naziak, eta batez ere Eichmann kide zen erakunde kriminalak, ahaleginean aritu zirela gerrako azken hilabeteetan krimenen frogak suntsitzen. Eta arrazoi hori ere ez zen oso sendoa, gauza bakarra erakusten baitzuen, alegia, naziek aitortzen zutela masa-erailketaren legea, bere berritasunagatik, ez zutela oraindik beste nazioek onartzen; edo, nazien hizkeran, galdu egin zutela gizadia «giza azpikoen agindupetik askatzeko» borroka, Siongo Zaharren agindupetik askatzekoa bereziki; edo, eguneroko

hizkeran, porrota onartzen zutela besterik ez zuen erakusten. Izango ote zuten kontzientziako kezkarik gerra irabazi balute?

Eichmannen juizioan azaldu ziren auzi handienetan aurren-aurrenekoa izan zen ontzat ematen zela lege-sistema moderno guztietan ohikoa den uste bat: krimen bat egiteko beharrezkoa dela kaltea egiteko asmoa. Ezertaz ez da beharbada jurisprudentzia zibilizatua hainbeste harrotu faktore subjektiboa deritzana aintzat hartzeaz baino gehiago. Kalterako asmorik ez dagoenean, edonolako arrazoiengatik, eromen moraleko arrazoiengatik bada ere, galdu egiten da ongiaren eta gaizkiaren artean bereizteko gaitasuna, deliturik ez dela egin iruditzen zaigu. Uko egiten diegu ondokoaren moduko esanei, eta basakeriatzat hartzen ditugu gainera: «krimen handiak halako gisaz iraintzen du natura, non lurra berak mendekua oihuka eskatzen baitu; gaizkiak ordainak baizik ezin kitatu duen harmonia naturala urratzen du; kalteturiko gizatalde batek gaizkilea zigortzea zor dio ordena moralari» (Yosal Rogat). Eta hala ere, nik uste dut ezin ukatuzko gauza dela aspaldi ahazturiko esan horietan oinarriturik auziperatu zutela, hasteko, Eichmann, eta haiexek izan zirela heriotza-zigorra emateko justifikazio nagusiak. Zenbait «arraza» jakin lurraren gainetik betiko desagerrarazteko xede agerikoa zuen egitasmo batean sartua egon zelako eta egitasmo hartan funtsezko eginkizuna bete zuelako, Eichmann suntsitu beharra zegoen. Eta egia bada «justizia, egin ez ezik, ikusi egin behar dela egiten», berebat da egia ikusi egingo zela, denek ikusiko zutela, Jerusalem egin zen justizia, epaileak ausartu balira akusatuari hitz hauek edo antzekoak esatera:

«Onartu egin duzu gerra-garaian judu-herriaren kontra egin zen krimena, historia idatziko krimenik handiena izan zela, eta onartu duzu krimen hartan bete zenuen eginkizuna. Baina berebat esan duzu ez zenuela motibo zitalengatik horrela jokatu, ez duzula inoiz inor hiltzeko joerarik izan, ez dituzula inoiz juduak gorrotatu, eta hala ere ezin izan zenuela beste era batera jokatu eta ez zarela errudun sentitzen. Zaila gertatzen zaigu hori sinesten, nahiz eta guztiz ezezkoa gertatu ez; asko ez badira ere, badira frogaren batzuk zure kontra, arrazoizko dudarik batere gabeak, motibazioen eta kontzientziaren gai hauen ingurukoak. Orobat esan duzu Azken Soluzioan izan zenuen eginkizuna bigarren mailakoa zela, eta ia edozeinek har zezakeela zure lekua; hortaz, aleman guztiak kasik izan daitezke modu berean errudunak.

Zuk esan nahi zenuena da denak, edo gehien-gehienak, errudunak diren lekuan, inor ez dela erruduna. Hori, izan, oso ondorio zabaldua da, baina guk ez dugu onetsi nahi. Eta gure eragozpena ulertzen ez baduzu, Sodoma eta Gomorraren istorioa gogoratzea gomendatzen dizugu, Zerutik etorritako suak suntsitu zituen Bibliako bi auzo-hiri haiena, bertako guztiak modu berean errudunak izan zirelako. Horrek, bide batez, ez du zerikusirik batere «erru kolektibo» deritzanaren nozio modernoarekin, zeinaren arabera jendea erruduna omen da, edo erruduna sentitzen da, beren izenean, ez berek, egindako gauzez, esku hartu ez duten eta irabazirik atera ez dieten gauzez. Bestela esanda, errua eta errugabetasuna, legearen aurrean, izaera objektiboa duten gauzak dira, eta laurogei milioi alemanek zuk egin duzun gauza bera egin balute ere, horrek ez zintuzke zu desenkusatuko.

«Zorionez, ez daukagu horren urruti joan beharrik. Zerorrek aipatu duzu helburu politiko nagusia krimen ezezagunak egitea zuen estatu batean bizi ziren guztiek erru bera zutela, ez aktualki, potentzialki baizik. Eta ez dio inporta zer gorabeherak edo kanpoko edo barneko nolako bultzadak eraman zintuzten gaizkilea izatera, baina leize handi bat dago zuk egin zenuenaren errealitatearen eta besteek egin ahal izan zutenaren potentzialtasunaren artean. Hemen zuk egin zenuena baizik ez zaigu ardura, ez zure barne-bizitzaren edo zure motiboen balizko izaera ez-kriminala edo zeure inguruan zeudenen kriminaltasun potentziala. Suerte txarreko istorio baten gisara kontatu duzu zuk zeure istorioa, eta, egoeraren nolakotasuna gogoan izanik, maila bateraino, onartuko dizugu, aldekoagoko egoera batean, arras gauza gertagaitza litzatekeela zu gure aurrean edo beste edozein auzitegi penalen aurrean agertzea. Onar dezagun, argudioaren onerako, zoritxarra besterik ez zela izan zu masa-hilkintzaren antolamenduaren tresna gogotsua egin zintuena; hala ere, gertaera bat dago oraindik hortxe, masa-hilkintzako politika bat bideratu zenuela, eta, hortaz, politika hori aktiboki babestu zenuela. Izan ere, politika ez da ama-eskola bezalakoa; politikan, esanekotasuna eta babesa gauza bera dira. Eta zuk lurra judu-herriarekin eta beste zenbait herriarekin ez partekatu nahi izateko politika bat babestu eta bideratu zenuenez gero —zuk eta zure nagusiek munduan zeinek bizi behar duen eta zeinek ez duen bizi behar erabakitzeko eskubidea bazenute bezala—, guk uste dugu ez duela inork, hau da, giza arrazetako kide batek berak ere, lurra zurekin partekatu nahiko. Horixe da zu urkatu behar izateko arrazoiak, arrazoi bakarra».

Post scriptum

Liburu hau, funtsean, *juizio baten txosten* bat da, eta Jerusalemen zeuden hedabideen ordezkarietako bat bera zitzaien epaile-jardunaren transkripzioa da txosten honen sorburu nagusia. Fiskalaren aurreneko mintzaldia eta defentsaren txosten orokorra izan ezik, auzibidearen agiriak ez dira argitaratu, eta ez dira eskuratzen errazak. Auzitegiko hizkuntza hebreera zen; prentsari eman zitzaizkion materialak «aldibereko itzulpenaren transkripzio zuzendu eta ikuskatu gabea» omen ziren, eta «ez ziren hartu behar estilistikoki perfektuak edo hizkuntza akatsik gabeak bailiran». Nik ingelesezko bertsioa erabili dut, prozedurak alemanez egin ziren kasuetan izan ezik: alemanezko transkripzioan berez alemanez esandako hitzak agertzen zirenean, neroni ausartu naiz haiek ingelesera itzultzen.

Fiskalaren hasierako mintzaldia eta azken epaia kenduta —aldibereko itzulpena gorabehera, auzitegitik kanpo prestatu ziren haien itzulpenak—, beste testuak ezin dira inola ere guztiz fidagarritzat hartu. Bertsio fidagarri bakarra hebreerazko agiri ofiziala da, eta nik ez dut hori erabili. Hala eta guztiz ere, material hori guztia ofizialki eman zitzaizen berriemaileei haietan oinarri zitezen, eta, nik dakidala, ez da oraingoz esan hebreerazko agiri ofizialaren eta itzulpenaren artean alde garrantzitsurik dagoenik. Alemanezko aldibereko itzulpena oso eskasa da, baina ingeles eta frantses itzulpenak fidagarriak direla esan daiteke.

Ondorengo auzitegi-material hauekin, berriz, ez da iturrien fidagarritasunari buruzko zalantzarik sortzen, eta hauek ere, salbuespen bakar batekin, prentsari eman zitzaizkion:

1) Poliziak Eichmanni egindako galdeketa alemanezko transkripzioa, zintan grabatua eta ondoren makinaz idatzia, eta Eichmanni zuzentzeko eman zitzaiona. Auzitegiko jarduerekin batera, hauxe da dokumenturik garrantzitsuena.

2) Fiskalak aurkeztutako dokumentuak, eta hark eskaini zuen «lege-materiala».

3) Berez defentsak eramandakoak ziren lekukoek zinpean egindako hamasei aitorpenak, nahiz eta lekukotasunen parte bat ondoren fiskalak erabili zuen gero. Erich von dem Bach-Zelewski, Richard Baer, Kurt Becher, Horst Grell, Wilhelm Hotti doktorea, Walter Huppenkothen, Hans Jüttner, Herbert Kappler, Hermann Krumei, Franz Novak, Alfred Josef Slawik, Max Merten doktorea, Alfred Six irakaslea, Eberhard von Thadden doktorea, Edmund Veessenmayer doktorea, Otto Winkelmann.

4) Azkenik, eskura izan nuen Eichmannek berak idatzitako hamazazpi orriko idazki bat, makinaz idatzia. Fiskalak aurkeztu zuen froga gisa eta auzitegiak onartu egin zuen, baina ez zitzaion prentsari eman. Tituluak, itzulita, honela dio: «Erref.: *Judu-auzia eta Aleman Reicharen Gobernu Nazionalsozialistaren neurriak, auzi horren soluzioari buruzkoak, 1933-1945 urteetan*». Izkribu honek Eichmannek Argentinan Sassenen elkarriketarako egindako oharra dauka (ikus bibliografia).

Bibliografian, lan hau idazteko erabili dudan materialaren zerrenda bakarrik agertzen da, ez Eichmannen bahiketaren eta haren exekuzioaren arteko bi urteetan irakurri eta bildu nituen ezin konta ahala liburu, artikulua eta aldizkari. Lastima da hutsune hori izatea, baina aleman, suitzar, frantses eta estatubatuar prentsako berriemaileen txostenei dagokienez, ez besterik; izan ere, arrasa maila jasoagoa zuten haietako askok, gai honi trataera sarritan askonahia eman dioten liburu eta aldizkari askok baino. Hutsune hori betetzea, ordea, neurritz kanpoko lana izango zen inondik ere. Hortaz, edizio berrikusi honen bibliografian, nire liburua argitaratu ondoren agertu ziren liburu eta aldizkari-artikuluen sorta hautatu bat erantsi besterik ez dut egin, baldin fiskalaren txostenaren bertsio lardaskatu bat baino gehiago baziren. Badira horien artean juizioaren puntu askotan neure ondorioen harrigarri parekoak diren ondorioetara iristen diren bi azterlan, eta bada Hirugarren Reicheko irudi nagusien azterketa bat, orain nire oinarritzko iturburuei erantsi diedana. Lan horiek dira Robert Pendorf-en *Mörder und Ermordete. Eichmann und die Juden-politik des Dritten Reiches*, zeinak orobat gogoan hartzen baitu judu-kontseiluek Azken Soluzioan izan zuten eginkizuna; *Strafsache* 40/61, Harry Mulisch holandar berri-

emailarena (alemanezko itzulpena erabili dut): Mulisch izan zen bere lanaren ardatzean akusatuaren pertsona ipini zuen idazle bakarretako bat, eta hark Eichmannez egin zuen ebaluazioa neurearekin bat dator zenbait funtsezko puntutan; eta, azkenik, T. C. Fest-ek bere *Das Gesicht des Dritten Reiches* lanean egin dituen agintari nazi nagusien erretratu bikainak, duela gutxi argitaratuak; Fest oso egile jantzia da, eta haren iritziek arras maila handia dute.

Txosten baten egileari sortzen zaizkion arazoak monografia historiko baten egileari sortzen zaizkien arazoez aldera daitezke. Kasu batean zein bestean, lanak berak eskatzen du lehen eta bigarren mailako materiala ondo bereiztea. Lehen mailako iturburuak gai nagusia lantzeko baizik ezin erabil daitezke —kasu honetan, juizioa bera—, eta bigarren mailakoak testuinguru historikoa osatzen duen gauza ororentzat dira. Hala, bada, aipatu ditudan dokumentuak berak ere, oso salbuespen gutxiarekin, froga-bide gisa aurkeztu ziren juizioan (kasu horretan, nire lehen sorburuak izan ziren), edota dagokion garaia lantzen duten liburu fidagarrietatik hartuak dira. Testuan ikus daitekeenez, Gerald Reithinger-en *The Final Solution* erabili dut, eta are gehiago Raul Hilberg-en *The Destruction of the European Jews*, juizioaren ondoren kaleratu zena, horixe baita dokumentazio-oinarririk sendoena duen Hirugarren Reicharen judu-politikaren azalpena.

Argitaratu baino lehen ere, liburu hau aldi berean bihurtu zen eztabaida baten ardatza eta kanpaina antolatu baten gai nagusia. Beti gertatzen denez, kanpainak, irudi-egileen eta iritzi-manipulatzailen ohiko tresna guztiekin bideratu zelarik, askoz ere arreta handiagoa erakarri zuen eztabaidak baino; hala, bigarrena irentsita eta itota geratu zen aurrenekoaren zarata artifizialaren azpian. Bereziki argi geratu zen hori bien nahasketa bitxi bat, esaldi sorta berdinekin ia —«kopiagailu batetik atereak» balira bezala (Mary McCarthy) liburuaren kontra (eta, sarriagotan, egilearen kontra) idatzitako testuak—, Estatu Batuetatik Ingalaterrara eta gero Europara eraman zutenean, han liburu ez baitzegoen artean eskuragarri. Eta zalaparta sekula idatzi ez zen liburu baten «irudian» oinarritzen zelako gertatu ahal izan zen hura, eta, aipatu ez ezik, bururatu ere egin ez zitzaizkidan gaiak ukitzen zirelako.

Eztabaida —baldin eztabaida bazen— interesgarria zen oso. Iritziaren manipulazioek, oso interes jakinek sustatzen dituztelarik,

arrunt xede mugatuak izaten dituzte; haien eragina, nolanahi ere, egiazko arreta sortzen duen gai bati burukoak direnean, ez da manipulazioen mende geratzen, eta aise ekar ditzakete iragartzen edo desiratzen ez ziren ondorioak. Eta azkenean ematen zuen Hitlerren erregimenaren garaia, bere krimen erraldoi, aurrekaririk gabeekin, «menderatu gabeko iragan» bat zela, aleman herriarentzat edo mundu osoko juduentzat ez ezik, mundu osoarentzat; izan ere, mundua ez zegoen Europako bihotzean gertatutako hondamendi handiarekin ahaztua, baina ez zen gauza izan hura behar bezala ulertzeko. Areago —eta bazitekeen hau horren espero izatekoa ez izatea—: bat-batean, zenbait auzi moral orokor agertu zen, bere korapilo eta konplexutasun moderno guztiekin, interes publikoaren lehen mailan, gaurko gizakien gogoari enbarazua egiten eta haien bihotzak abailtzen zituztenak nonbait, nik sekula pentsatuko ez nuen bezala.

Judu-jendeak Azken Soluzioaren urteetan izan zuen jarrera zela-eta abiatu zen eztabaida, eta aurrenekoz israeldar fiskalak egin zuen galderari jarraitu zitzaion horretarako, hots, juduek bere burua defendatu behar ote zuten edo defenda zezaketen. Nik auzi hori baztertu egin nuen, ergela eta ankerra iruditzen baitzitzaidan, gerra-denboretako ezjakintasun tamalgarriaren adierazpena zenez gero. Gai hau bazterrak nazkatu arte eztabaidatu da, eta ondoriorik txundigarrienak atera dira. Behin eta berriz aipatu da «ghettoko pentsamolde» kontzeptu historiko-soziologiko ondo ezaguna (Israeleko historiako testu-liburuetan ere bere lekua hartu duena, eta baita herrialde honetan ere, Estatu Batuetan, non Bruno Bettelheim psikologoak defendatu baitu oroz gain, Estatu Batuetako judaismo ofizialaren protesta sutsuen kontra), judu-jendera mugatzen ez zen eta, hortaz, judu-faktore berezien bidez ezin agertu den jokamolde bat agertu nahian. Iradokizunak arras ugaltu ziren, harik eta eztabaida hura aspergarriegia iruditzen zitzaion norbaiti ideia distiratsu bat bururatu zitzaion arte: Freuden teoriak baliatuz, «heriotza-desira» bat egotzi zitzaion judu-herri osoari, inkontzientea, nola ez bada. Huraxe izan zen interes talde jakinek osatu zuten liburu baten «iruditik» zenbait kritikarik atera nahi izan zuten ondorio esperogabea, hau da, juduek bere burua erail zutela esaten nuela nik. Eta zergatik esaten nuen nik, bada, horrelako gezur gertagaitz ikaragarria? «Auto-gorrotoagatik», bistan da.

Juizioan agintari juduen eginkizuna atera zenez gero, eta nik haren berri eman eta komentatu nuenez, nahitaezko gauza zen hura ere eztabaidagai izatea. Hau, nire iritzian, auzi larria da, baina eztabaidak ez du argitzen lagundu. Ez aspaldi, Hirsch Birnblat delako baten epaiketan Israelen ikusi den bezala —judu-poliziaren buru izan zen Birnblat Poloniako herri batean, eta Israeleko Operako zuzendaria da gaur—, lehendabizi, barrutiko auzitegi batek bost urteko kartzelaldira zigortu zuen, baina gero Jerusalemeko Auzitegi Gorenak asketsi egin zuen; epaia aho batekoa izan zelarik, zeharka judu-kontseiluak oro asketsi ziren, baina agintari juduak mingarriki banatuak daude gai honen inguruan. Eztabaidan, nolanahi ere, gehiena mintzatu zirenak izan ziren, bai judu-herria judu-agintariekin berdintzen zutenak —kontraste deigarria sortuz bizitarakoen kontaketa gehien-gehienetan egiten zen bereizketa argiarekin, zeina Theresienstadteko preso-ohi baten hitzetan labur baitaiteke: «Judu-herriak, bere osotasunean, jokamolde bikaina izan zuen. Gidariek bakarrik huts egin zuten»—, bai funtzionario juduak desenkusatzan zituztenak, gogora ekarriz gerra baino lehen eta, batez ere, Azken Soluzioaren garaia baino lehen, haiek egin zituzten zerbitzu laudagarri guztiak, batere alderik ez balego bezala juduei emigratzen laguntzearen eta naziei haiek deportatzen laguntzearen artean.

Auzi horiek bazuten liburu honekin loturarik, nahiz eta neurri guztien gainetik puztu ziren; baziren beste batzuk, ordea, inolako zerikusirik ez zutenak. Eztabaida bizi-bizi bat izan zen, adibide baterako, Hitlerren erregimenaren hasieratik bertatik izan zen aleman erresistentzia-mugimenduari buruz, baina nik hura ez nuen aipatu, jakina, Eichmannen kontzientziaren auzia, eta haren inguruko egoerarena, gerraren garaiarekin eta Azken Soluzioarekin lotua baitago, ez besterekin. Baina izan ziren gai fantastikoagoak ere. Eztabaidan jardun zuten batzuek, ez ote ziren esetsaldiaren biktimak hiltzaileak baino «zatarragoak» beti; edo ba ote duen iragana «epaitzeko» eskubiderik egintzak gertatu zirenean aurrean ez zegoenak; edota zeinek hartzen duen juizio batean nagusitasuna, akusatuak edo biktimak. Azkeneko puntuaz esatera iritsi ziren batzuk, hasteko, oker nenbilela nolako pertsona zen Eichmann jakin nahian, eta, areago, Eichmanni ez zitzaiola utzi behar batere hitz egiten, hau da, juizioa batere defentsarik gabe egin behar izan zela.

Emozio-erakustaldi handiekin egiten diren eztabaidetan sarritan gertatzen den bezala, zenbait talderen interes praktikoa, haien emozioa interes materialen gainekoa baita oso-osorik, eta, hortaz, gertakariak desitxuratzen saiatzen baitira, berehala nahastu zen, ezin bereizizko moduan nahastu ere, gertakariak batere axola ez zaizkien eta «ideien» abiapuntutzat baizik lantzen ez dituzten intelektualen asmo txintxo orbangabeekin. Baina gudu faltsuak izanik ere, halako seriotasun bat sumatzen zen sarritan, zinezko kezka bat, baita liburua irakurri ez izanaz harrotzen zirenen eta ez zutela irakurriko agintzen zutenen adierazpenetan ere.

Hain urrutira desbideratzen ziren eztabaida haien aldean, liburuak tristeki bakarra den eta zoritxarrez ondo mugatua dagoen gai bat lantzen du. Juizio baten gaineko txostenak juizioan landu ziren gaiak baino ezin ditu aipatu, edo zuzenbidearen izenean landu behar zirenak. Juizioa egiten den herrialde baten egoera orokorra garrantzitsua gertatzen bada juizioaren jardunbideari dagokionez, orduan egoera hori ere gogoan hartu behar da. Liburu honek, beraz, ez du lantzen judu-herriari sekula gertatu zaion hondamendirik handienaren historia; ez da, ez totalitarismoaren kondaira, ez Hirugarren Reicharen garaiko aleman herriarena, eta, azkenik, eta are gutxiago, gaizkiaren izaeraren azterlan teorikoa ere ez da. Akusatua da juizio ororen ardatza: hezur-haragizko gizon bat, bakarkako historia duena, bere ezaugarri, berezitasun, jokamolde-eredu eta gorabehera beti bereziekin. Harantzago doazen gauza guztiek, hala judu-herri barreiatuaren eta antisemitismoaren historiak, aleman herriaren eta beste herrien jokamoldearenak, edo garai hartako ideologiaren eta Hirugarren Reicheko gobernu-aparatuarenak, akusatuak egintzak egin zituen ingurunea eta egoera osatzen duten neurrian eragiten diote juizioari, ez bestela. Akusatuarekin loturarik ez zuten gauza guztiak, edo harengan eraginik izan ez zutenak, baztertu egin behar ziren juizioaren prozeduretatik, eta, horren ondorioz, juizioaren gaineko txostenetik.

Gai hauei buruz hizketan hasi orduko oharkabea egiten ditugun galdera orokor guztiek —zergatik izan behar zuten alemanek?, zergatik izan behar zuten juduek?, zein da aginpide totalitarioaren nolaketasuna?—, argudia daiteke, askoz ere garrantzi handiagoa dute epaitzen den delitu motari eta epaia eman behar zaion akusatuaren

nolakotasunari buruzko galderek baino; esan daiteke galdera horiek garrantzi handiagoa dutela, berebat, jakiteak baino zenbateraino den gai gure egungo zuzenbide-sistema Bigarren Mundu Gerraz geroztik behin eta berriz epaileen aurrean agertu den delitu eta gaizkile mota berezi hau epaitzeko. Esan daiteke, halaber, auzia ez dagokiola gizaki jakin bati, auzi-gelan dagoen banako berezi bati, aleman herriari oro har baizik, edo berebat dagokiola antisemitismoari, bere tankera guztietan, edo historia moderno osoari, edo gizonaren izaerari eta jatorrizko bekatuaren nolakotasunari; bide horretatik joanez gero, azkenean gizadi osoa egongo da auzi-gelan, akusatua ondoan eserita. Argudio horiek denak maiz eman dira, eta «gu guztiongan Eichmann» bana aurkitu arteko onik izango ez dutenek aldeztuko dituzte oroz gain. Akusatua sinbolo baten gisara aurkezteko, eta juizioa pertsona baten erruduntasuna edo errugabetasuna baino interesgarriagoak diruditen gaiak mahairatzeko aitzakia gisa hartzen bada, koherentziak eskatuko digu makurtzeko Eichmannek eta haren legelariak egin zuten baieztapenaren aurrean: ahuntz-buru bat behar zutelako eraman zuten Eichmann auzi-gelara. Horixe eskatzen omen zuten, Alemaniako Errepublikak ez ezik, gertakarien osotasunak eta gertakariak eragingarriak bihurtu zituenak, hots, antisemitismoak eta gobernu totalitarioak, eta orobat eskatzen zuten giza arrazak, eta jatorrizko bekatuak.

Esan beharrik ere ez daukat ni ez nintzela Jerusalemara joango ikuspuntu hori izan banu. Nire iritzian, orduan eta orain, juizio hau zuzenbidearen izenean egin behar zen huts-hutsik, besterik ez. Era berean, nire ustez zuzen zeuden epaileak «Israeleko Estatua Juduen Estatu gisa antolatu eta onetsi» zela azpimarratu zutenean epaian, eta, hortaz, bazuela eskumenik judu-herriaren kontra egindako delitu baten gainean; eta zuzenbidearen munduan zigorraren esanahiaren eta baliagarritasunaren inguruan dagoen nahasmena ikusirik, gogotik poztu nintzen epaiak Grozio aipatzen zuela ikusirik; eta Groziok, bera baino egile zaharrago bat aipatuz, azaltzen zuen zigorra beharrezkoa dela «delituak kaltetu duen haren ohorea edo aginpidea defendatzeko, zigor faltak ez dezan hura doilortu».

Dudarik ez dago, jakina, akusatua eta haren egintzen izaerak, eta baita juizioak berak ere, arazo orokorrak sortzen dituztela, Jerusalem aztertutako gaiak baino askoz ere harantzago doazenak.

Arazo horietako batzuk epilogoan saiatu naiz lantzen, atal hori ez baita txosten hutsa. Ez nintzateke harrituko jendeari gustatuko ez balitzaio nola landu ditudan gai horiek, eta pozik hartuko nuke gertakari guztien esanahi orokorrari buruzko eztabaida bat, zenbat eta gertaera jakinetatik hurbilago egon, orduan eta sakonagoa izango litzateke-eta. Era berean, ez da harritzekoa liburuaren azpituuluak eztabaida bizi bat eragin izana; zeren, gaizkiaren hutsalkeriaz ari naizenean, gertakari hutsen mailan ari bainaiz, juizioan oso nabarmena gertatu zen fenomeno bat azpimarratuz. Eichmann ez zen ez Iago bat ez Macbeth bat, eta ezer ez zegoen haren burutik urrutiago Rikardo III. arekin batera «gaiztagin gertatzea» baino. Bere aurreramendu pertsonala zaintzeko zuen prestutasun harrigarria salbu, hark ez zeukan ezertarako motiborik. Eta prestutasun hori, berez, ez zen inondik ere gaiztoa; Eichmannek ez zuen bere gainekoa hilko haren postua heredatzeko. Eichmannek, *besterik gabe*, eta lagunarteko hizkeran esateko, *ez zekien zertan ari zen*. Irudimen falta horixe esker, hain zuzen ere, izan zen kapaz polizia-galdeketa gidatzen zuen aleman judu baten aurrean hilabeteak eta hilabeteak emateko, gizon hari bihotza zabalduz eta behin eta berriz agertuz nola SSetako lotinant koronelaren mailara baizik ez zen heldu, eta ez zela beraren errua izan mailaz igo ez bazuten. Teorian, nahiko ondo zekien zer zen hura dena, eta «gobernuak [gobernu naziak] agindutako balio-eskala berria» aipatu zuen auzitegiaren aurrean egin zuen azkeneko adierazpenean. Eichmann ez zen ergela. Buruarinkeria hutsak —ergelkeriarekin inola ere ezin berdindu den gauza— bultzatu zuen garai hartako gaizkile handienetako bat bihurtzera. Eta hori «hutsala» baldin bada, baita xelebrea ere, munduko borondaterik onenarekin ere ezin baldin bazaio Eichmanni deabruzko sakontasunik egotzi, hala eta guztiz ere, ezin esan genezake gauza arrunta denik. Ezin da horren gauza arrunta izan heriotzaren aurrean dagoen gizon batek, areago, urkamendian dagoen gizon batek, bakar-bakarrik bere bizitza osoan hiletetan entzun dituen hitzetan pentsatzeko gaitasuna izatea, eta bere heriotzaren errealitatea «hitz jaso» horiek osorik ezkutatzea. Errealitatetik horren urruti egotea, buruarinkeria hori, kaltegarriagoa izan daiteke gizakiak, ausaz, berezkoak dituen sen gaizto guztiak batera hartuta baino, eta huraxe izan zen, hain zuzen ere, Jerusalem eman zen irakasbidea. Baina hura irakasbide bat zen, ez gertatuaren azalpena, ez hari buruzko teoria.

Nahasiagoa dirudi, baina berez buruarinkeriaren eta gaizkiaren arteko elkarmendekotasun bitxia aztertzea baino askoz ere errazagoa da, jakitea zer eratako delitua den egiaz Eichmannek egindakoa, eta are gehiago jende oro ados zegoelarik aurrekaririk gabeko delitua zela. Izan ere, genozidioaren kontzeptua, lehendik ezagutzen ez zen delitu bat zehazteko berariaz osatu zena, neurri batean aplika daiteke, baina ez da osorik egokia, herri osoen hilkintzak ez baitira aurrekaririk gabeak. Antzinaroan eguneroko gauza ziren, eta kolonizazioak eta inperialismo-mendeek era honetako saioren adibidea franko ematen digute, alde batera utzirik beren xedea bete zuten edo ez. Egokiagoa dirudi, puntu honi dagokionez, «hilkintza administratibo» adierazpideak. Adierazpide hau britainiar inperialismoarekin loturik sortu zen; ingelesek baztertu egin zituzten era horretako jardunbideak Indiaren gaineko aginteari eusteko tresna gisa. Esapide horrek alde on bat du: halako munstrokeriak atzerriko nazio baten edo arraza diferente baten kontra baizik ezin egin daitezkeelako aurreiritzia saihesten du. Gauza jakina da Hitler «ezin sendatuzko eri» zirenei «errukizko heriotza» emanez hasi zela masa-erailketak egiten, eta aleman «genetikoki kaltetuak» (bihotzeko eta biriketako eritasunak zituztenak) akabatuz nahi zuela bere deuseztatze-programa bukatu. Baina, bestalde, argi dagoela ematen du erailketa modu hori talde jakin baten kontra baizik ezin dela bideratu, hau da, aukera-irizpidea egoera jakinei lotutako faktoreen arabera izaten dela. Aski sinesgarria gertatzen da, etorkizun ez oso urrun bateko ekonomia automatizatuan, maila jakin batetik beherako adimen-kozientea duten guztiak deuseztatzeko tentazioa sor daitekeela.

Gai hau ez zen behar bezala eztabaidatu Jerusalem, oso zaila baita legearen aldetik sailkatzen. Defentsaren protestak aditu genituen, Eichmann Azken Soluzioaren makinerian «pieza txiki» bat besterik ez zela-eta esanez, eta baita fiskalarenak ere, haren ustez Eichmann bera baitzen makineria osoaren motor eragilea. Nik neronek ez nien eman teoria haiei Jerusalemeko auzitegiak eman ziena baino garrantzi gehiago, zeren pieza txikiaren teoriak, legearen ikuspegitik, ez baitu inolako baliorik, eta, hortaz, ez dio batera axola zenbaterainoko neurria ematen zaion Eichmann izeneko «piezari». Auzitegiak, jakina, agertu zuen epaian delitu hura burokrazia erraldoi batek besterik ezin izan zuela egin, gobernuaren baliabideak erabiliz. Baina delituak delitua izaten jarraitzen duenez gero —eta horixe da, jakina, juizio baten

premia— makineriaren pieza guztiak, zeharo hutsalak izanagatik ere, auzitegian bertatik bihurtzen dira egile, hau da, gizaki. Akusatuak bere burua desenkusutzen badu, argudiatuz ez zuela gizon gisa jokatu, funtzionario huts baten gisa baizik, beste edonork berdin-berdin egin zitzakeen eginkizunak betez, gaizkile batek delituen estatistikak azpimarratuko balitu bezala da —estatistika horien arabera, halako eta halako krimenak egiten dira eguneko halako eta halako lekutan—: estatistikoki espero izatekoa zena besterik ez zuela egin adierazi ondoren, delitu haiek halabeharrez egin zituela berak, ez beste inork, argudiatuko du, azken finean, norbaitek egin behar zituen-eta.

Garrantzitsua da azpimarratzea, jakina, gizarte- eta politika-zientzietarako, gobernu totalitarioak, berez, bere izatez, eta agian baita burokrazia orok ere, gizonak funtzionario eta administrazioaren makineriako pieza hutsak bihurtzen dituela, eta, era horretan, gizatasuna kentzen diela. Eta luze eta probetxuz jardun daiteke Ez-inoren agintaritzaz, horixe baita burokrazia deritzan forma politikoa funtsean dena. Alabaina, ulertu beharra dago, argi ulertu ere, faktore horiek delituaren ingurukoak osatzen dituzten neurrian baizik ezin dituela zuzenbideak aintzat hartu, lapurretaren kasuan bezala: auzitegian, gogoan hartzen da lapurraren estuasun ekonomikoa, baina ez da lapurreta desenkusitzen, eta are gutxiago lapurretaren delitua kodetik ezabatzen. Egia da psikologia eta soziologia modernoek, burokrazia modernoak ez esateagatik, aspalditik ohitu gaituztela gaizkileak delituan duen erantzukizuna determinismo honen eta bestearen bitartez agertzen. Giza egintzen agerpen horiek zuzenak edo okerrak diren —lehen begiratu batean, bestelakoak baino sakonagoak dira—, hori eztabaidagarria da oso. Ez da batere eztabaidagarria, ordea, zientzia horietan oinarrituta ezingo litzatekeela zuzenbiderik finkatu, eta zuzenbidearen administrazioa, teoria horien arabera, ez dela batere erakunde modernoa, modatik pasatua dela ez esateagatik. Hitlerrek esan zuenean etorriko zela egun bat Alemanian legelaria izatea «zoritxarreko» gauzatzen joko zena, erabateko koherentziaz ari zen gogoan zuen burokrazia biribilari buruz.

Nik ikus dezakedanez, jurisprudentziak, auzi hauek denak lantzeko, bi kategoria besterik ez dauzka eskura, eta bata zein bestea, neure iritzian, arrunt desegokiak dira gai hau bideratzeko. «Estatu-egintzak» eta «goragokoen aginduz» egindako egintzak dira kategoria

horiek, eta, nolanahi ere, horiexek dira juizio mota honetan halako auziak arautzen dituzten kategoria bakarrek, akusatuaren eskaeraz normalean. Estatu-egintzaren teoriaren oinarria da estatu burujabe batek ezin duela beste estatu bat epaitu, *par in parent non habet jurisdictionem*. Praktikoki mintzatuz, argudio hau erabili zen jadanik Nurenbergen; hasieratik bertatik, ikusi zen ez zuela aurrera egingo, zeren, onartu izan balitz, Hitlerri berari ere, hitzaren zentzu bete-betean hura baitzen egiazki erantzulea zen pertsona bakarra, ezin izango zitzaion kargu hartu, eta argi dago horrek zuzenbidearen sen funtsezkoena urratzen duela. Nolanahi ere, maila praktikoa irtenbiderik ematen ez duen argudio bat ez dago zertan maila teorikoa baztertu. Jendeak ondo daki, alde batetik, gaizkile-banda batekiko analogia hain modu mugatuan aplikatu behar dela kasu honetan, non egiazki ezin baita batere aplikatu, eta, beste aldetik, delitu hauek, inondik ere, «legezko» ordena batean gertatu zirela. Eta horixe zen, hain zuzen ere, haien ezaugarri nagusia.

Estuago lotuko gataizkio beharbada gai honi estatu-egintzaren kontzeptuaren atzean *raison d'état* deritzanaren teoria dagoela gogoan hartuta. Teoria horren arabera, herriaren bizimoduaren eta, hortaz, hura arautzen duten lekeen erantzulea den estatuaren egintzak, ez daude herriarren egintzak arautzen dituzten arau beren mende. Legearen aginteak, nahiz eta indarkeria eta denak denen kontrako gerra desagerrarazteko antolatua izan, indarkeriazko tresnen premia izaten du beti bere existentzia segurtatzeko, eta modu berean gerta daiteke gobernu bat, bere iraupena eta lekeen iraupena segurtatzeko xedez, gehienetan delitutzat jotzen diren egintzak egitera beharturik. Halakoetan oinarriturik zuritzen dira gerrak maiz, baina estatu-egintza kriminalak ez dira nazioarteko harremanen esparruan bakarrik gertatzen, eta nazio zibilizatuaren historiak nazio barneko estatu-delituen adibide asko ematen du: Napoleonek eraildako d'Enghien dukearengandik hasita, Mussolini bera errudun izan bide zen Matteotti buruzagi sozialistaren erailketaraino.

Raison d'état teoria —zuzen edo oker, noiz nola—, *premia* batean oinarritzen da, eta premiaren izenean egindako estatu-delituak (gertatzen diren herrialdeko lege-sistema nagusiaren arabera, erabateko delituak direnak), larritasunezko neurritzat hartzen dira: *Realpolitik* deritzanari amore ematen zaio, botereari eusteko eta era horretan

indarrean dagoen lege-antolamenduaren jarraipena osotasun gisa segurtatzeko. Politika- eta lege-sistema normal batean, halako delituak arauaren salbuespen gisa gertatzen dira eta ez daude legezko zigorraren mende (*gerichtsfrei* dira, aleman zuzenbide-teoriak adierazten duen bezala), estatuaren beraren existentzia jokoan dagoelako, eta kanpoko erakunde politikoek ez dutelako inolako eskubiderik estatu bati bere existentzia ukatzeko edo existentzia horri nola eutsi esateko. Nolanahi ere —Hirugarren Reicheko judu-politikaren historian ikasteko aukera izan dugun bezala—, hastapen kriminaletan oinarrituriko estatu batean, egoera alderantzizkoa da. Kasu honetan, egintza ez-kriminala (hala, adibidez, Himmlerren 1944ko agindua, juduen deportazioa geldiaraztekoa), errealitateak indarrez ezarritako premiari amore ematea bihurtzen da (premia, kasu horretan, berehalako porrota zen). Eta hemen galdera bat sortzen da: zein da halako erakunde baten beregaintasunaren izatea? Ez al du urratzen nazioarteko legeak ematen dion parekotasunaren hastapena (*par in parem non habet jurisdictionem*)? Ez al du *par in parem* horrek beregaintasunaren inguruko parafernalia baino gehiago esan nahi? Edo berebat esan nahi du funtsezko berdintasun edo parekotasuna? Delitua eta indarkeria salbuespenetan eta muga-mugako kasuetan baino baliatzen ez dituen gobernu-aparatu bati aplikatzen zaion hastapen bera aplikatu al geniezaioke delitua legezkoa eta araua den ordena politiko bati?

Gozagokoen aginduz zertutako egintzak aztertuz gero, are nabarmenago ikusten da zeinen desegokiak gertatzen diren kontzeptu juridikoak juizio hauetako guztietako gai nagusiak ziren egintza kriminalak lantzerakoan. Jerusalemeko auzitegiak herrialde zibilizatueta lege-liburu penal eta militarretatik ateratako aipamen luzeekin —aleman legedikoekin bereziki, gezurtatu zuen defentsak emandako argudioa; zeren Hitlerren agintepean, artikulua horiek ez baitziren baliogabetu. Eta puntu batean bat datoz denak: ageriki kriminalak diren aginduei ez zaie obeditu behar. Auzitegiak, nolanahi ere, urte batzuk lehenago Israelen gertaturiko kasu bat aipatu zuen: Sinaiko kanpaina hasi baino lehentxeago, zenbait soldadu auziperatu zituzten mugako arabiar herrixka bateko biztanle zibilak sarraskitu izanagatik; herritarrak etxetik kanpo aurkitu zituzten etxerako agindua zegoen ordu batean, haiek ez baitziren, nonbait, aginduaz ohartu. Zoritzarrez, azterketa xeheago bat egiten bada, konparazioak huts egiten bide du, bi aldetatik. Aurren-aurrenik, salbuespenaren eta

arauaren arteko harremana aztertu behar dugu berriz ere, harreman horrek garrantzi handia baitu mendeko batek betetako agindu baten kriminaltasuna zehazterakoan, eta harreman hori alderantzizkatu egin zen Eichmannen egintzen kasuan. Hala, argudio honetan oinarrituta, defenda daiteke Eichmannek Himmelerren zenbait agindu ez bete izana, edo uzkurtasunez betetzea, araudi nagusiaren ageriko salbuespenak baitziren. Epaiak bereziki inkrimatzailea aurkitu zuen hura Eichmannentzat, eta hori, inondik ere, ulertzekoa zen oso, baina ez koherentea. Argi ikusten da koherentzia falta hori israeldar auzitegi militarren epaietan, zeinak epaileek euskarri gisa aipatu baitzituzten. Honela diote: agindu batek, desobeditzeko, «ageriki legez kontrakoa» behar du izan; «legez kontrako izateak hegan bezala agertu behar du [haren] gainean, idatzizko abisu bat bailitzan: ‘Debekatua’». Bestela esanda, soldadua agindu bat «ageriki legez kontrakoa» dela ohar dadin, agindu horrek, bere ohiz kanpoko izatearen ondorioz, soldadua ohitua dagoen lege-sistemaren arauak apurtu behar ditu. Eta Israeleko jurisprudentzia, gai hauetan, bat dator guztiz beste herrietako jurisprudentziarekin. Artikulu hauek osatzerakoan, legegileek, esate baterako, ofizial bat kolpetik erotu eta bere mendekoei beste ofizial bat erailtzeko agintzen dion kasua zeukaten gogoan. Tankera horretako juizio batean, berehala ikusiko litzateke, eta ezin argiago, soldaduari ez zitzaiola eskatzen galde egiteko bere kontzientziaren ahotsari, edo «giza kontzientzia orotan, baita lege-liburuetan adituak ez direnengan ere, sakon-sakonean dagoen zuzentasunaren senari... begia itsua eta bihotza harritzkoa eta usteldua ez badago». Aitzitik, araua eta arauaren salbuespen deigarri bat bereizteko gai izango zela soldadua espero izango zen. Alemaniako kode militarrek, nolahi ere, hitzez hitz esaten du kontzientzia ez dela aski. Honela dio 48. paragrafoak: «Egintza edo omisio bat zigortzekoa izan daiteke, nahiz eta dagokion pertsonak delako egintza hori bere kontzientziak edo erlijioaren aginduek behartuta egin duela argudiatu». Gizaki guztien sakonenean sustraiturik dagoen justizia-senak legearen ezagutza falta osatzeko baino ez duela balio, horixe azpimarratzea izan zen Eichmann epaitu zuen auzitegiak emandako argudioetako baten ezaugarri nagusia. Arrazoibide hori guztia Eichmannen kasuari modu baliagarri batean aplikatu nahi izanez gero, Eichmannek eskatzen zitzaion esparruaren mugen barnean jokatu zuela beharko genuke onartu: araubideen arabera jokatu zuen; ematen zizkieten aginduak haien «ageriko»

legezkotasunaren argitan aztertzen zituen, hots, erregulartasunaren argitan; ez zuen bere «kontzientziara» jotzeko premiarik izan, Eichmann ez baitzen bere herriko legeak ezagutzen ez zituenetakoa, oso bestela baizik.

Lehen aipaturiko konparazioan oinarritzen zen argudioaren bigarren akatsari dagokionez, auzitegien «goragokoen aginduen» alegazioa onartzeko usadioarekin zegoen lotua (gorabehera aringarri inportanteak direlakoan), eta usadio hori hitzez hitz agertu zen epaian; gorago esan den kasua aipatzen zen bertan, Kfar Kassem-eko arabiar biztanleen hilkintzarena, frogatu nahian israeldar jurisdizioak ez diola akusatu bati erantzukizuna murrizten «goragokoen aginduak» jaso dituelako. Eta egia da israeldar soldadu haiek erailketaz salatu zituztela, baina «goragokoen agindu» haiena hain argudio garrantzitsua izan zen gorabehera aringarriei begira, non aski kartzelaldi laburrekin zigortu baitzituzten. Egia esatera, kasu hau egintza bakan bati zegokion, ez —Eichmannen kasuan bezala—, urteetan luzatu zen jarduera bati, delitu bat bestearen atzetik zetorrela. Hala ere, ezin ukatuzko gauza zen Eichmannek «goragokoen aginduak» obedituz jardun izan zuela beti, eta Israelgo ohiko legearen aurrekariak aplikatuz gero, nekez eman ahal izango zitzaiola zigorrik handiena. Auziaren egia da israeldar legeak, teorian eta praktikan, beste herrialdeetakoak bezala, onartu baizik ezin duela egin «goragokoen aginduek», baita haien «legez kontrako izatea» agerikoa bada ere, larriki eragotz dezaketela gizon baten kontzientziaren jokamolde normala.

Aipatu berri den hori, indarrean den lege-sistemaren eta lege-kontzeptu ohikoen desegokitasuna agertzen duen adibide bat besterik ez da, beste askoren artekoa, estatuaren aparatuak antolaturiko hilkintza administratiboei justizia egiteari dagokionez. Gaiari gertuagotik begiratzen badiogu, ordea, neke handirik gabe ikusiko dugu, nola, juizio hauetan guztietan, munstrokerietan oinarriturik bakarrik eman zutela epaileek beren epai-erabakia. Bestela esanda, askatasunez jardun zuten, eta ez ziren egiazki oinarritu, beren erabakiak zuzenesteko, indar handiagoz edo gutxiagoz aurkeztu ziren irizpideetan eta legezko aurrekarietan. Aski ageriko gauza izan zen hori Nurenbergen, zeren han, alde batetik, epaileek esan baitzuten «bakearen kontrako delitua» zela epaitu behar zituzten delitu guztien artean larriena, gainerako delitu guztiak bere baitan hartzen zituelako, baina, beste aldetik,

hilkintza administratiboaren delitu berrian esku hartu zuten akusatuei bakarrik eman zitzaien heriotza-zigorra, nahiz eta azken hori, teorian, bakearen kontrako konspirazioa bezain larria izan ez. Gogoia ematen du, egiaz, koherentzia falta hura eta antzeko beste batzuk aztertzeke, non eta koherentziarekin horrenbesteko obsesioa duen jurisprudentziaren esparruan. Baina hemen, jakina, ezin da horrelakorik egin.

Oinarritzko arazo bat geratzen da nolanahi ere, gerra ondoko juizio guztietan agertu zena eta hemen aipatu behar dena, denbora guztietako auzi moral nagusietako bati baitagokio, hain zuzen ere gizakiaren irizpidearen nolakotasun eta eginkizunari. Akusatuek «legezko» krimenak egin zituzten juizio hauetan guztietan, gizakiek zuzena eta okerra bereizteko ahalmena izatea eskatzen zen, nahiz eta une jakin batean beren epaitzeko ahalmena huts-hutsik izan horretarako, eta nahiz eta hura, gainera, guztiz bestelakoa izan ingurukoen aho bateko iritzia ematen zuenaren aldean. Eta arazo hau are larriagoa gertatzen da, ondo dakigularik ez zirela inondik ere izan balio zaharrei atxiki zitzaizkienak, edo erlijio-sinesteek gidatzen zituztenak, beren ikusmoldeaz bakarrik fidatzeko bezain «harroak» izan ziren pertsona bakanak. Gizarte errespetagarriak oro har, nola edo hala, Hitlerri amore eman zionez gero, gizarte-jokamoldea finkatzen duten arau moralak eta kontzientzia gidatzen duten erlijio-aginduak —«Ez duzu hilko!»— desagertuak ziren kasik. Artean ere zuzena eta okerra bereizteko ahalmena zuten pertsona bakanek beren irizpidearen arabera bakarrik jokatu zuten, eta askatasunez jokatu zuten gainera; zeri heldu ez zeukaten, sortzen zitzaizkien kasu jakinen aurrean nola jokatu erabakitzeko araurik ez zuten. Kasuan kasuko erabakia behar zuten hartu, aurrekaririk gabearentzat ez baita araurik.

Liburu honen gaineko eztabaidan nabarmen plazaratu da zenbateraino dauden kezkatuak gure garaiko gizonak epai-ematearen auzi honekin (edo, sarritan esaten den bezala, «lagun hurkoa epaitzera» ausartzen direnekin); orobat sortu da alde askotatik antzekoa den eztabaida bat Hochhuth-en *The Deputy* antzezlanaren gainean. Baina argitara atera dena ez da ez nihilismoa, ezta zinismoa ere, espero zitekeen bezala, baizik eta nahasmendu izugarria dagoela moralatasunezko oinarritzko auzietan, halako gaietan sena balitz bezala gogoan hartu beharreko aurren-aurreneko irizpidea. Bereiziki argigarriak ematen dute eztabaida hauetan zehar agertu diren ondorio bitxi ugariak. Hala,

zenbait estatubatuar intelektualek tentazioa eta hertsatzea gauza bera direlako sineste inozoa agertu dute; hau da, haien arabera, ezin zaio inori tentazioari aurre egiteko eskatu. (Bihotzean pistola bat jarri eta zure adiskide minari tiro egiteko agintzen badizute, orduan, besterik gabe, tiro egin behar diozu. Edo, argudiatu izan den bezala —duela urte batzuk, lehiaketa batean, unibertsitate-irakasle batek ikusleak engainatu zituela-eta—, hainbeste diru zegoelarik jokoan, zeinek horri buru egin?). Gertakarien aurrean egon gabe eta geu ere haietan sartuak ez bagaude, ezin epai genezakeelako argudioak jende oro leku orotan konbentzitzen duela dirudi, nahiz eta bistakoa izan, hori egia balitz, zeharo ezinezkoa litzatekeela justizia egitea eta historia idaztea. Hala eta guztiz ere, zaharra da, oso, juzgatzen duenari egiten zaion erantzuki zorrotza; baina zahartasun horrek ez dio argudioari inolako baliorik eransten. Hiltzaile bat kondenatzen duen epaileak berak ere esan dezake etxeratzen denean: «Eta eskerrak, Jainkoa, eman didazun askatasunaren graziagatik». Aleman judu guztiek aho batez kondenatu dute 1933an aleman herritar guztiak adostu zituen koordinazio-uhina, egun batetik bestera juduak paria bihurtu zituena. Ulertzen al da aleman judu haietako inork ere ez diola bere buruari galdetu bere talde bereko zenbatek egingo zuen gauza bera, aukera izanez gero? Baina, arrazoi horrengatik, bidegabea al da gaur koordinazio hura gaitzestea?

Egoera berean zerorrek ere oker joka dezakezula pentsatzeak barkamenezko espiritu bat sor dezake, baina gaur kristau karitatea aipatzen dutenek ere bitxiki nahasiak dirudite gai honetan. Hona zer irakur genezakeen *Evangelische Kirche in Deutschland*, eliza protestanteak, egin zuen adierazpenean: «Jaun Errukiorraren aurrean adierazten dugu guk ere, omisioaren eta isiltasunaren bidez, geure partea izan dugula geure herriak juduen kontra egindako izugarrikerian»*. Nire irudiz, kristau bat erruduna da baldin Jaun *Errukiorraren* aurrean gaizkia gaizkiarekin ordaintzen badu, alegia, milioika judu erail balituzte haiek eragindako kalteren baten zigor gisa; orduan bai, orduan elizek errukiaren kontra bekatu egingo zuten. Baina elizen erru-partea izugarrikeria haiei baldin bazegokien, haiek dioten bezala, orduan auziak *Justiziaren* Jainkoaren esparruan behar luke egon.

*Aurel v. Jüchen ministroarengandik hartua, Hochhuth-en antzezlarren kritiken antologia batean. *Summa Iniuria*, Rowohl Verlag, 195. or.

Hizketa-akatsa, nolabait esateko, ez da ustekabea gertatu. Justizia da, ez errukia, epaiketa baten xedea, eta dirudienez ezertan ez dago iritzi publikoa alaikiroago ados, beste inor epaitzeko inork eskubiderik ez duelako ustean baino. Iritzi publikoak joerak edo jende talde handiak —zenbat eta handiagoak, orduan eta hobeto— uzten dizkigu epaitzen, eta baita kondenatzen ere; laburtuz, hain da orokorra juzga daitekeena, non ezin baita bereizketarik egin, ezin da izenik esan. Erantsi beharrik ere ez dago, tabu hau bi bider aplikatzen da jende famatuaren edo goi-mailako gizonen egintzak auzitan jartzen direnean. Halakoak adierazpide hanpatuekin adierazi ohi dira, «axaletak» aritzea dela xehetasunak azpimarratzea eta gizabanakoak aipatzea, eta sofistikazio-seinalea izaten da, berriz, orokorki aritzea; orokortasun horren arabera, katu guztiak grisak dira, eta denok gara modu berean errudunak. Hala, bada, Hochhuth-ek Aita Santu jakin bat —identifikatzen erraza den gizon bat, izena eta guzti— salatu zuen, eta segituan egin zioten kontraerasoa, kristau-herri osoa salatzen zuela esanez. Kristau-herri osoaren kontrako salaketa, bere bi mila urteko historiarekin, ezin da frogatu, eta, frogatu ahal balitz, ikaragarria litzateke. Ez dirudi inori asko inporta zaionik tartean *pertsonarik* ez badago, eta ez da batere zaila, urrats bat gehiago eginda, honako hau esatea: «Zalantzarik gabe, bada akusazio larriak egiteko arrazoirik, baina akusatua *gizadia* bere osotasunean da». (Hala Robert Weltsch *Summa Iniuria* lanean, goian aipatua; letra etzanak nik erantsiak dira).

Bada beste bide bat gertakari finkatuen eta erantzukizun pertsonalaren eremutik ihes egiteko: ezin konta ahala teoria dago, hipotesi zehaztugabe, abstraktu, hipotetikoetan oinarritzen dena —*Zeitgeist* delakotik hasita Ediporen konplexuraino—, eta hain dira teoria orokorrak, non gertatu guztiak eta gertakari guztiak baitituzte agertzen eta zurretzen: ez da gogoan hartzen egiazki gertatu zenaren alternatibarik, eta inork ezin izan zuen jokatu zuen moduaz bestela jokatu. Xehetasun guztiak ilunduz, dena «agertzen» duten teorien artean, «ghettoko pentsamoldea» bezalako nozioak aurkitzen ditugu europar juduen artean; edo aleman herriaren erru kolektiboa, haren historiaren *ad hoc* interpretazio batetik aterea; edo era berean burugabea den judu-herriaren errugabetasun kolektibo moduko bat badelako baieztapena. Kluxe horiek guztiak bateratzen dituen ezaugarria da epaia alferrikakoa egiten dutela, eta haiek erabiltzeak ez

duela inolako arriskurik. Eta nahiz eta uler genezakeen hondamendiak gertuenetik ukitu zituen haien uzkurtasuna —alemanena eta juduena— hondamendi moralak itxuraz eragin ez zien edo eragin behar ez zietenen jokamoldea xehetasunez aztertzekeo garaian —hau da, kristau elizen, buruzagi juduen, 1944ko uztailaren 20ko Hitlerren kontrako konspirazioko gizonen jokamoldea— herabetasun horrek, ulertzekoa bada ere, ez du behar bezala agertzen gizabanako jakinen erantzukizun moralaren gaineko iritziak emateko, haiek juzgatzeko, leku orotan dagoen uzkurtasun nabarmena.

Jende askok onartuko luke egun ez dagoela erru kolektiboa bezalako gauzarik, edo, gauza bera dena, ez dagoela errugabetasun kolektiborik, eta, halakorik balego, inor ezingo litzatekeela izan ez errudun ez errugabe. Horrek, jakina, ez du erantzukizun *politikoa* ukatzen, zeina, nolanahi ere, taldeko banakako kideek egiten dutenetik aparte existitzen baita, eta, hortaz, ezin da, ez moralaren ikuspegitik epaitu, ez justizia-auzitegi batera eraman. Gobernu guztiek hartzen dute beren gain aurrekoek ondo eta gaizki egindakoen erantzukizuna, eta orobat hartzen dute nazio guztiek iraganean ondo eta gaizki egin ziren egintzena. Napoleonek, Iraultzaren ondoren Frantziako aginteaz jabetu zenean, ondoko hau esan zuen: «Neure gain hartuko dut Frantziak egin dituenak oro, San Luisengandik hasita Osasun Publikoaren Batzorderaino»; enfasi handitoxo bada ere, bizitza politikoaren onarrizko gertaera bat ari zen adierazten, besterik ez. Oro har hizketan, horrek esan nahi du belaulaldi guztiak, *continuum* historiko batean jaioak direlarik, gurasoen bekatuekin madarikatuak eta aurrekariaren egintzekin bedekatuak daudela, ez askoz gehiago. Baina gu ez gara hemen erantzukizun mota horretaz ari; erantzukizun hori ez da pertsonala, eta zentzu metaforiko batean baizik ezin esan liteke pertsona bat beraren aitak edo beraren herriak egin duen zernahirengatik erruduna *sentitzen dela*. (Moralaren aldetik, nekez da arinagoa gauza jakinik egin gabe errudun sentitzea, gauza jakin batengatik erruduna izanik oro libre sentitzea baino). Pentsa daiteke egunen batean eraman ahal izango direla nazioarteko auzitegi batera nazioen erantzukizun politiko jakinak; baina ezin pentsatzeko gauza da halako auzitegi bat auzitegi penala izan daitekeenik, gizabanakoen erruaz edo errugabetasunaz mintzatuko dena.

Banakoen erruaren edo errugabetasunaren auzia, justizia egitea bera, bai akusatuari, bai biktimari dagokionez, horiek dira auzitegi

penal batean jokatzekoa diren gauza bakarrak. Eichmannen juizioa ez zen salbuespena izan, nahiz eta, Eichmannengan, Nurenbergeko Juizioak baino lehenago, lege-liburuetan ezin aurkitu zen delitu baten aurrean eta inongo auzitegitan antzekorik ez zeukan gaizkile bat epaitu behar izan. Zenbateraino lortu zuen Jerusalemeko auzitegiak justiziaren eskaerak asetzea, ez besterik, horixe da honako txosten honen gaia.

Bibliografia

- ADLER, H. G., *Theresienstadt 1941-1945*, Tübingen, 1955.
—*Die verheimlichte Wahrheit. Theresienstädter Dokumente*, Tübingen, 1958.
- American Jewish Committee, *The Eichmann Case in the American Press*, New York.
- Anti-Defamation League, *Bulletin*, martxo, 1961.
- BAADE, HANS W., «Some Legal Aspects of the Eichmann Trial», *Duke Law Journal*, 1961.
- BAMM, PETER, *Die unsichtbare Flagge*, Munich, 1952.
- BARKAI, MEYER, *The Fighting Ghettos*, New York, 1962.
- BAUMANN, JÜRGEN, «Gedanken zum Eichmann-Urteil», *Juristenzeitung*, 1963, 4. zkia.
- BENTON, WILBOURN E., eta Grimm, Georg, argit., *Nuremberg: German Views of the War Trials*, Dallas, 1955.
- BERTELSEN, AAGE, *October '43*, New York, 1954 (Danimarkari buruz).
- BONDY, FRANCOIS, «Karl Jaspers zum Eichmann-prozess», *Der Monat*, maiatza, 1961.
- BUCHHEIM, HANS, «Die SS in der Verfassung des Dritten Reichs», *Vierteljahrshäfte für Zeitgeschichte*, apirila, 1955.
- Centre de Documentation Juive Contemporaine, *Le Dossier Eichmann*, Paris, 1960.
- DE JONG, LOUIS, «Jews and Non-Jews in Nazi-occupied Holland», *On the Track of Tyranny*, M. Beloff argit, Wiener Library, Londres.
- DICEY, ALBERT VENN, *Introduction to the Study of the Law of the Constitution*, 9. argit., New York, 1939.
- DROST, PELTER N., *The Crime of State*, 2 liburuki, Leyden, 1959.
- «Eichmann Tells His Own Damning Story», *Life*, azaroaren 28a eta abenduaren 5a, 1960.
- EINSTEIN, SIEGFRIED, *Eichmann, Chefbuchhalter des Todes*, Frankfurt, 1961.
- FEST, T. C., *Das Gesicht des Dritten Reiches*, Munich, 1963.
- FINCH, GEORGE A., «The Nuremberg Trials and International Law», *American Journal for International Law*, XLI. liburukia, 1947.

- FLENDER, HAROLD, *Rescue in Denmark*, New York, 1963.
- FRANK, HANS, *Die Technik des Staates*, Munich, 1942.
- GLOBKE, HANS, *Kommentare zur deutschen Rassegesetzgebung*, Munich-Berlin, 1936.
- GREEN, L. C., «The Eichmann Case», *Modern Law Review*, XXIII. liburukia, Londres, 1960.
- HAUSNER, GIDEON, «Eichmann and His Trial», *Saturday Evening Post*, azaroaren 3, 10 eta 17a, 1962.
- HEIBER, HELMUT, «Der Fall Grünspar», *Vierteljahrshefte für Zeitgeschichte*, apirila, 1957.
- HENK, EMIL, *Die Tragödie des 20. Juli 1944*, 1946.
- HESSE, FRITZ, *Das Spiel um Deutschland*, Munich, 1953.
- HILBERG, RAUL, *The Destruction of the European Jews*, Chicago, 1961.
- HÖSS, RUDOLF, *Commandant of Auschwitz*, New York, 1960.
- HOFER, WALTHER, *Der Nationalsozialismus. Dokumente 1933-1945*, Frankfurt, 1957.
- HOLBORN, LOUISE, argit., *War and Peace Aims of the United Nations*, 2 liburuki, Boston, 1943, 1948.
- JÄGER, HERBERT, «Betrachtungen zum Eichmann-Prozess», *Kriminologie und Strafrechtsreform*, ¾ koaderno, 1962.
- JASPERS, KARL, «Beispiel für das Verhängnis des Vorrangs nationalpolitischen Denkens», *Lebensfragen der deutschen Politik*, 1963.
- KALTENBRUNNER, ERNST, *Spiegelbild einer Verschwörung*, Stuttgart, 1961.
- KASTNER, RUDOLF, *Der Kastner Bericht*, Munich, 1961.
- KEMPNER, ROBERT M. W., *Eichmann und Komplizen*, Zurich, 1961 (Wannsee Konferentiako agiri guztiak dauzka).
- KIMCHE, JON eta DAVID, *The Secret Roads. The «Illegal» Migration of a People, 1938-48*, Londres, 1954.
- KIRCHHEIMER, OTTO, *Political Justice*, Princeton, 1961.
- KIRCHHOFF, HANS, «What Saved the Danish Jews?», *Peace News*, Londres, azaroaren 8a, 1963.
- KLEIN, BERNARD, «The Judenräte», *Jewish Social Studies*, 22 liburukia, urtarrila, 1960.
- KNIERIM, AUGUST VON, *The Nuremberg Trials*, Chicago, 1959.
- KRUG, MARK M., «Young Israelis and Jews Abroad—A Study of Selected History Textbooks», *Comparative Education Review*, urria, 1963.
- LAMM, HANS, *Über die Entwicklung des deutschen Judentums im Dritten Reich*, Erlangen, 1951.
- Der Eichmannprozess in der deutschen öffentlichen Meinung*, Frankfurt, 1961.

- LANKIN, DORIS, *The Legal System*, «Israel Today», 19. zkia., Jerusalem, 1961.
- LEDERER, ZDENEK, *Ghetto Theresienstadt*, Londres, 1953.
- LEHNSDORFF, HANS GRAF VON, *Ostpreussisches Tagebuch*, Munich, 1961.
- LÉVAI, EUGENE, *Black Book on the Martyrdom of Hungarian Jews*, Zurich, 1948.
- LÖSENER, BERNHARD, *Die Nürnberger Gesetze*, Sammlung Vahlen, XXIII. liburukia, Berlin, 1936.
- MASCHMANN, MELITTA, *Fazit*, Stuttgart, 1963.
- MAUNZ, THEODOR, *Gestalt und Recht der Polizei*, Hanburgo, 1943.
- MONNERAY, HENRI, *La Persécution des Juifs en France*, Paris, 1947.
- MOTZKIN, LEO, argit., *Les Pogromes en Ukraine sous les gouvernements ukrainiens 1917-1920*, Comité des Délégations Juives, Paris, 1927.
- MULISCH, HARRY, *Strafsache 40/61*, Kolonia, 1963.
- Nazi Conspiracy and Aggression*, 11 liburuki, Washington, 1946-1948.
- OPPENHEIM, L. eta LAUTERPACHT, SIR HERSC, *International Law*, 7. argit., 1952.
- PAECHTER, HENRY, «The Legend of the 20th of July, 1944», *Social Research*, udaberria, 1962.
- PEARLMAN, MOSHE, *The Capture of Adolf Eichmann*, Londres, 1961.
- PENDORF, ROBERT, *Mörder und Ermordete. Eichmann und die Judenpolitik des Dritten Reiches*, Hanburgo, 1961.
- POLIAKOV, LÉON, *Auschwitz*, Paris, 1964.
- POLIAKOV, LÉON, eta WULF, *Josef, Das Dritte Reich und die Juden*, Berlin, 1955.
- RECK-MALLECZEWEIN, FRIEDRICH P., *Tagebuch eines Verzweifelten*, Stuttgart, 1947.
- REITLINGER, GERALD, *The Final Solution*, New York, 1953; Perpetua argit., 1961.
- REYNOLDS, QUENTIN, KATZ, EPHRAIM, eta ALDOUBY, Zwy, *Minister of Death*, New York, 1960.
- RITTER, GERHARD, *The German Resistance: Carl Goerdeler's Struggle against Tyranny*, New York, 1958.
- ROBINSON, JACOB, «Eichmann and the Question of Jurisdiction», *Commentary*, uztaila, 1960.
- ROBINSON, JACOB, eta FRIEDMAN, PHILIP, *Guide to Jewish History under Nazi Impact*, YIVO Institute for Jewish Research eta Yad Vashem erakundeak elkarrekin argitaraturiko bibliografia, New York eta Jerusalem, 1960.
- ROGAT, YOSAL, *The Eichmann Trial and the Rule of Law*, Center for the Study of Democratic Institutions erakundeak argitaratua, Santa Barbara, Kalifornia, 1961.
- ROMOSER, GEORGE K., *The Crisis of Political Direction in the German Resistance to Nazism*, Chicagoko Unibertsitateko mintzaldia, 1958.

- «The Politics of Uncertainty: The German Resistance Movement» in *Social Research*, udaberria, 1964.
- ROTHFELS, HANS, *German Opposition to Hitler*, Chicago, 1948.
- ROTKIRCHEN, LIVIA, *The Destruction of Slovak Jewry*, Jerusalem, 1961.
- ROUSSET, DAVID, *Les Jours de notre mort*, Paris, 1947.
- SCHNEIDER, HANS, *Gerichtsfreie Hoheitsakte*, Tübingen, 1950.
- SCHRAMM, PERCY ERNST, «Adolf Hitler—Anatomie eines Diktators», *Hitlers Tischgespräche*, 1964.
- SERVATIUS, ROBERT, *Verteidigung Adolf Eichmann, Plädoyer*, Bad Kreuznach, 1961.
- SILVING, HELEN, «In Re Eichmann: A Dilemma of Law and Morality», *American Journal of International Law*, LV. liburukia, 1961.
- STONE, JULIUS, *Legal Controls of International Conflict*, New York, 1954.
- STRAUSS, WALTER, «Das Reichsministerium des Innern und die Judengesetzgebung. Aufzeichnungen von Bernhard Lösener» *Vierteljahrshefte für Zeitgeschichte*, uztaila, 1961.
- STRECKER, REINHARD, argit., *Dr Hans Globke*, Hanburgo.
- TAYLOR, TELFORD, «Large Questions in the Eichmann Case», *New York Times Magazine*, urtarrilaren 22a, 1961.
- TORRÈS, HENRI, *Le Procès des Pogromes*, Paris, 1928.
- Trial of the Major War Criminal, The*, 42 liburuki, Nurenberg, 1947-1948.
- Trials of War Criminals before the Nuremberg Military Tribunals*, 15 liburuki, Washington, 1949-1953.
- VABRES, DONNEDIEU DE, *Le Procès de Nuremberg*, Paris, 1947. C. S., «Act of State in English Law», *British Year Book of International Law*, 1934.
- WECHSLER, HERBERT, «The Issues of the Nuremberg Trials», *Principles, Politics, and Fundamental Law*, New York, 1961.
- WEISENBOM, GÜNTHER, *Der lautlose Aufstand*, Hanburgo, 1953.
- WIGHTON, CHARLES, *Eichmann, His Career and His Crimes*, Londres, 1961.
- WOETZEL, ROBERT K., *The Nuremberg Trials in International Law*, New York, 1960.
- WUCHER, ALBERT, *Eichmanns gab es Viele*, Munich-Zurich, 1961.
- WULF, JOSEF, *Lodz. Das letzte Ghetto auf polnischem Boden*, Schriftenreihe der Bundeszentrale für Heimatdienst, LIX. liburukia, Bonn, 1962.
- Vom Leben, Kampf und Tod im Ghetto Warschau*, op. cit., XXXII. liburukia, Bonn, 1960.
- YAD VASHEM, *Bulletin*, Jerusalem, apirila 1961 eta apirila-maiatza, 1962.
- ZABOROWSKI, JAN, *Dr Hans Globke, the Good Clerk*, Poznan, 1962.
- ZEISEL, HANS, «Eichmann, Adolf», *Britannica Book of the Year*, 1962.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
HANNAH ARENDTEN ESKUMIKUA	7
2.....	12
3.....	18
IRAKURLEARENTZAKO OHARRA	25
EICHMANN JERUSALEMEN.....	27
I: ZUZENBIDEAREN ETXEA	29
II: AKUSATUA	47
III: JUDU-AUZIETAKO ADITUA	61
IV: AURRENEKO SOLUZIOA: IRAIZTEA	81
V: BIGARREN SOLUZIOA: KONTZENTRAZIOA	93
VI: AZKEN SOLUZIOA: HILTZEA.....	109
VII: WANNSEEKO KONFERENTZIA EDO PONTZIO PILATO	137
VIII: HIRITAR LEGE-ERRESPETATZAILE BATEN EGINKIZUNAK	159
IX: REICHEKO DEPORTAZIOAK: ALEMANIA, AUSTRIA ETA BABES-HERRIA.....	175
X: MENDEBALDEKO EUROPAKO DEPORTAZIOAK: FRANTZIA, BELGIKA, HOLANDA, DANIMARKA, ITALIA	187
XI: BALKANETAKO DEPORTAZIOAK: JUGOSLAVIA, BULGARIA, GREZIA, ERRUMANIA	205

XII: EUROPA ERDIALDEKO DEPORTAZIOAK: HUNGARIA ETA ESLOVAKIA.....	219
XIII: EKIALDEKO HILKINTZA-ZENTROAK.....	231
XIV: FROGAK ETA LEKUKOAK	245
XV: EPAIA, APELAZIOA ETA EXEKUZIOA	259
EPILOGOA.....	279
POST SCRIPTUM.....	305
BIBLIOGRAFIA	325